

2003ko CAF-Elhuyar zientzia-
dibulgaziorako sariaren irabazlea



ETXEPARE ALDUDEKO MEDIKUA

Kepa Altonaga



KEPA ALTONAGA SUSTATXA (1958)

Haurtzaroko lehen urteak Txorierrin bizi izan eta gero, Bilbon kokatu zen. Biologia-ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean: 1980. urtean lizentzia eta 1988an doktore-gradua. Zoogeografia eta Ornogabe Ez-Artropodoen Zoologia irakasten ditu Zientzia Fakultatean. Hainbat ikerketa burutu ditu Iberiar Penintsulako bare-barraskiloen taxonomiaren eta banaketaren gainekoak: Eusko Legebiltzarrak 1992an Munibe Saria eman zion bere ikerketataldeari. Gazterik euskaltzaletu zen, Caro Baroja irakurritz, eta 1978tik aurrera Udako Euskal Unibertsitateko kidea da, 1992-95 tartean zuzendaria izan zelarik. UZEI, Elhuyar eta Euskaltzaindiarekin kolaboratu izan du. Idazlan ugari plazaratu ditu, baina gogokoenak dibulgaziozkoak. Ondokoak daude argitaraturiko liburuen artean: *Folin marka: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan* (1998) eta *Armand David, pandaren aita* (2001). Hiru ume ditu.



ETXEPARE
ALDUDEKO MEDIKUA

Kepa Altonaga

ETXEPARE ALDUDEKO MEDIKUA



EUSKALTZAINDIA



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKAL HERRIAN INPRIMATUA

Diseinua: Blanco
Maketazioa: Blanco (blanco@blanco-sg.com)

© Euskaltzaindia
© UPV/EHU

Lege-gordailua:
ISBN: 84-95438-27-5

Inprimatzailea:
Lizarra Inprimategia, s.l.
Tafallarako bidea, 1. km
Villatuerta (NAFARROA)

Stephen Jay Gould-i
in memoriam



(ARC.: A. ZABALO)

But I also loved libraries. I loved the fact that each long-forgotten book could be a door into an unknown world. I loved the connections one could make, going from reference to reference, digging side-shafts that joined up with each other. I loved the way books reached back into the past.

ROBERT TWIGGER
The Extinction Club
19-20 orr.
2001.

GOMENDIOZKO KARTA

Kepa adiskidea,

Atsegin handiarekin jakin dut hainbeste aldiz elkarrekin aipatu dugun Etxepare Aldudeko mirikuaren bizia, gogoia eta lanak harrotzen dituen liburua bururatu duzula.

Egia erran ez zuk ez nik ez dugu behinere ezagutu gizon miresgarri hori: nihonek 14 urte baizik ez nituen, hura bapatean hil zelarik eta ehortzi zutelarik Kanboko auzo herrian.

Nahiz ordukotz ikaskide izanak nituen Kanboko mirikuen mundutik zetozen Dieudonné doktoarearen, Camino doktoarearen eta Etxegoieneko Larroulet tarren seme alabak, hots, Jean Etxepare senar emazteen bospasei ilobak, ez dut uste orduan oraino behinere hitzegin genuen haien osaba Alduden hain luzaz miriku egonaz.

Handik laster ordea, Piarres Lafitte Uztaritzeko euskal irakasle ezin ahan-tzizkoari esker, hasi nintzen haren adiskide, lankide, solaskide eta maisu ere izana zen idazlearen hautuzko artikulu batzuen jakituz eta gozatuz irakurtzen. Piarres Lafittek berak behar ninduen alabaina Etxeparen txertotik txertatu, edo nahi baduzue kutsutik kutsatu.

Geroago eta nihaur heldutasunera heltzearekin, Alduden berean egin nituen Xotroeneko, Auzkiako, Mielartzaineko, Alastaineko ala Mentako, Xabaño, Gosterratxu, Urrutia, Urrikarriet edo Itzaina deitu adiskideen bitartez hasi nintzen Etxepare zenak utzi oroitzapenen biltzen: Horra nola ikasi nuen, Etxepare frantsesez mintzo zitzaiola bere behorrari, bereziki beihalako zamaria erasiatu nahi zuelarik, etxerat itzuli zelakotz, karroza hutsarekin, nagusia eriarren etxen utzirik, maizegi gertatzen omen zitzaion bezala.

1955eko buruilarren 8 an berriz, Lekorneko herrian, *Eskualzaleen Biltzarrak* bere burulehen zena ospatu nahi izan zuelarik, orduko Gure Herria aldizkarian emana den bezala oroitarri bat ezarriz, Erlandeeneko ataburuan ezagutu nuen miriku zenaren etxeko arreba ezkongabea Josefina deitua, eta harenganik ardietsi berrogei urtez geroz selauruan bahiturik zeuzkaten lehen edizioko *Buruxkak* izeneko ehun eta zenbait liburu famatu haietarik ale bakar bat, ene kondu begiratze-kotan.

Eta gogoan dut oraino, nihonek eskatu liburua eskua emaiten, Etxepare andereak erran zidala, herabe herabe: “*Orizu beraz zuretzat! baina, zer erran ote lezake anaiak berak horretaz?*”.

Eta apez honek ihardetsi zion: "Ez kexa otoi, *Anderea*, gain hartarik ez dira bemengo gauzak oro batere berdin ikusten; bekatu handiagoarentzat *Elizak* kantatu obi du: latinez "Felix culpa!" hots, *Jatorrizko bekatuarentzat*: "Zorioneko Bekatua!"

Zorigaitzez, geroztik, Etxepare andereak niri eman alea beste euskal argitaletxe batek berrargitaratu nahi izan zuelarik bere osotasunean, ene eskuko ale soilari esker ez ziona eratziki batere zuzenketarik, ez oharrik ere egin gabe, aita Lafittek bere edizio murriztuarentzat lehenago idatzi aitzin solasa, erranez beraz gezurra, baizik eta eskas zituela edizio berriak beihalako bi kapitulu gaizto haiek: Hori bai izan zela gure argitaletxe berriaren huts larria!

Baina Lekornen ezagutu nuen ere, Erlandeeneko Josefinaren ahizpa Graxiana Aldudeko Etxartekin ezkonduaren alaba, Ahurtiko Cazenave kolonelaren andrea eta orduan Erlandeeneko etxekanderea zena. Eta ez nagoke salatu gabe Cazenave andereak kondatu zidala orduan oroitzapen hau: Uztaritzeko seroren eskoletan zebilelarik, burasoek bidali zuten oporretan osaba mirikuaren etxera Aldudera. Ba omen baitzuen osaba mirikuak bere bulegoan eskeleto bat, hezurki handi hura ezkaratzean etzanik eta haren ondoan osabak berak belauniko emanik, ilobari errepikarazten zizkion hezur bakoitzaren latinezko izenak. Ez da erraite beharrik, eskolara itzultzean, anatomiako leitzoan horien ondodetik, beti lehen lerroan kokatzen zela mirikuaren iloba. Eta geroztik guhaur bagaude gogoeta, Euskal Herriak izan balu orduan Unibertsitaterik ez ote zuen goi mailako alki bat hor hartuko gure Etxeparek, geroztik Cazenave semek Bordeleko Unibertsitatean Kimioterapia alki, ez aspaldi bera hil arte atxiki duen bezala. Zinez familia horren geneetan, bazitezkeen pedagogoko handien sortzeko ekai guztiak.

Lekornetik landa nihonek erabili nituen harat-honaten ondodetik, Baionako parropia baten ardura izan nuelarik, bospasei urtez (1967-1973) ukan nuen oraino Etxepare familiako azken semea Emile Etxepare, haren laguna eta alaba ezagutzeko zortea. Orduan nintzen konturatu 1907an British Columbia-tik anaia mirikuari Emile anaiak igorri Canadako berriak *Buruxkak* liburuan euskaraz agertuak zirenak lehenik frantsesez emanak izan zirela, eta beste anaien arteko gutun asko Emilen etxen gelditzen zirela.

Urte haietan nion ere entzun Fernande Camino Etxeparekin askazi zen Mark Légasse adiskideari, haien etxera Parisera joan zirelarik aspaldi lehen Etxepare Aldudeko osaba mirikua eta izeba Camino haren andrea, mahainaren bi buruetan baitziren senar emazteak, haurren artean zegoen etxekandreak galdetu ziola bere ahizpari: "Erran no, zer ari dun ban maipuru hire senarra, bakarrik eta isilik?" eta besteak, argi eta garbi erantzun: "Erruten!"

Alta gisa horretako ateraldiak gogoko zituen ere Aldudeko miriku zenaren lagun mina izana zen Pierre Broussainen alaba maite, Telesforo Monzon eta Manu Sota bikotearen adiskide handi bilakatu zen Jenofa Broussain-Leroy andereak: Baionan ezagutu nuen. Aitortu behar dut bada andere horri esker eta, ene Ameriketako itzulia egin ondoan, Piarres Lafitten idazkarigoa eskaini didalarik Euskaltzaindiak, hasi naizela hortzez eta haginez, Eusko Jaurlaritzako Pedro Miguel Etxenike-ri eta Eskualzaleen Biltzarreko, Mixel Labéguerie, Mixel Itzaina, eta Andde Luberriagaren laguntzari esker, aita Villasantek eta J. Haritschelharrek akulaturik, Jean Etxepare eta Manex Hiriart-Urruty, Pierre Broussain, Resurreccion M. Azkue, Georges Lacombe eta konpaniaren gutunak eta paperak oro ahalaz biltzen, ikertzen eta argitaratzen.

Bizkitartean erran nahi diot Kepari berari, Euskaltzaindiko liburutegian liburutegiko zuzendari eta lankideekin hatzeman dizkiguten Azkueren eta Etxeparen arteko bizpalau gutunek Euskaltzaindiaren barne historiari argi berri berezia ekarri diotela, hor ikusten baitugu batetik, laster Espainiako gobernuak Petiri Lhande Heguy ziberotarrari Hegoaldeko lurretan sartzea debekatu behar ziolarik, *Euskera* aldizkariaren lehen idazkariak Iparraldeko *Eskualduna* astekarian eskatzen ziola Euskaltzaindia sortu berriari Fonetika laborategi baten antolatzea lehenbailehen, eta bestetik, Azkue Euskaltzainburuak berak, Piarres Broussain hil berriaren ordezkatzeko, Georges Lacombe hautatu baino lehen, Etxepare mirikuari proposatu ziola behin bospasei hilabetez Menendez Pidal hizkuntzalariarekin Fonetika apur bat ikasi ondoan Madrilen, bera Bilbaon bertan kokatzea mirikuntzari jarraikiz eta, aldi berean, Euskaltzainburuarekin batean Euskal Gramatika berria adelatuz. Horra froga, badela oraino anitz amets gure historian amets gelditu denik.

Atseginekin ikusi dugu halere, duela zenbait urte Jon Casenave bezalako lapurtar gazte batek egiten zuela Etxeparez bere doktore tesia Bordelen, are gehiago atsegin dut oraikoa Kepa Altonaga U.E.U.ko buru lehen ohi jakintsuak eskaintzen digula euskara ederrean idatzirik bere euskal hirugarren liburua, *Aldudeko mirikuaz* diharduena. Ez dut uste nehork xorrotxagorik eskaini ziezaigukeen bereziki jakitateaz eta fedez, mirikuak eta apezak, XX. mendeko lehen 30 urteetan erabil zitzaizketen solasez. Baina nola Kepa gazteak ez bezala Piarresek bere bizi luzean miriku baino apez gehiago baituke ezaguturik, ez baitezpada mirikuaren aurka, baina apezaren alde azken ohar hau nahi niroke eskaini Kepa adiskideari.

Joan den urtean beraz, galdu dut lagun on bat ikaskide izana eta Uruguayen gaindi ene familiaren eta haren familiaren ondotik enekin ibilia, Albert Chabagno deitua eta aita Chabagno misionesta aipatuaren iloba propioa. Hil delarik artikulutxo bat zor niola eta haren alargun Ana Maria Bidegain uruguayarrak aitortu dit beren bederatzia seme alabek eskaturik, aita idazten hasiak zituela bere memoriak eta eskainiko zidala lagungarri, Uztaritzeko Ikastegian enekin iragan bost urteez ondu kapitulua. Eta hona zer dioen horretan gure lagun onak. Maiz bere buruari galdetu diola ea nahi ote lituzkeen Uztaritzen berak izan zituen apez irakasleen eskutan ezarri bere lagunak eman lau semeak, baina aitortzen zuen Uztaritzen ez ziola mirakuiluzko oroitzapenik utzi irakasle batek baizik, eta hura zen hain zuzen Piarres Lafitte gurea! Eta hona zergatik: zeren eta, jakinagatik ikaslearen aita politikara alorrean ez zituela batere irakaslearen ideia berak, Piarres Lafitte ez baitzen behinere nehondik nehola lehiatu ikaslearen lekuz aldatzen. Horra nola beraz gure irakasleak irakasten zuen bere ikasle gizon bakoitzaren eta guztien errespetua.

Agian, hortik abiatuz, XXI. mendean higituko diren gure ondokoek, *Beribilez-en* Etxeparek aipatzen duen jesuita bipil haren ondotik etorri diren eta guhonetik ezagutu ditugun aita de Gorostarzu, Galdos, Areitio, Goenaga, Zapelena, d'Ouince, de Certeau, Bertrams edo beste ezagutuko dituzte beste munduan eta elkarrizketatuko dira Kepa Altonaga eta bihar Iparralde honetan honen belaunaldi berriak sortuko duen Unibertsitateko paleontologo, geologo, arkeologo eta jakintsu erne guztiak.

Agian! hau da latinez “Utinam!” ez “Forsan”; euskaraz berriz “Halabiz!” ez “Heltu bada!!”.

Piarres Xarritton Zabaltzagarai

AITZINSOLASA

Jean Etxepare guztiz intrigagarria da. Halaxe iruditu zait betidanik ia. Aspaldi baten egin nuen topo berarekin. Luis Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca* irakurriz deskubritu nuen euskararen Parnaso txikia, eta han aurkitu nuen Jean Etxepare medikua, 336-338 zenbakidun pasarte mamitsuetan. Ez dago esan beharrik, fraide- eta apaiz-segida kolorebakoa da Villasantek erakutsi zigun historia hori: bertan ez dago emakumerik, eta era berean ozta-ozta aurkitzen da elizgizon ez den idazlerik. Jean Etxepareri buruz diharduela, Villasantek berak azpimarratua da Aldudeko medikuaren kontraste hori: *uno de los pocos escritores laicos*.

Beste ohar bi ere deigarri begitandu zitzaizkidan Villasanteren pasarte horietan. Jean Etxepareren idazlanak azaltzean, lehenengo eta behin *Buruxkak* dakar. Villasantek laburki aipatzen du: *En 1910 publicó su libro “Buruchkak” (“Espigas”). En el libro había dos capítulos un tanto comprometidos. Uno [...] en el que se pronunciaba contra la enseñanza religiosa; otro, en torno al sexto mandamiento. Por lo demás, el libro es una colección de artículos*. Eta lerro batzuk beherago *Beribilez* aurkezten du: *“Beribilez” apareció primeramente en las páginas de “Gure Herria”. Aunque de apariencia inocente, si se repara un poco, también tiene su veneno*. Egia esateko, ematen du Villasantek ez zituela irakurri ez bata eta ez bestea: irakurriz gero bere kolkoko zeozer erantsiko zukeen, artikulua-bilduma txatxarra dela esateaz gainera edota Piarres Lafitteren usteakitsu-itsuan bereganatu beharrean.

Nolanahi, Villasanteren oharrok jakin gura sortarazi zidaten: zelakoa izango ote zen, benetan, Aldudeko mediku ezezagun hura? Eta batxilergoko urteetan literaturako irakaslearen azalpenek erreakzioz Pio Baroja *galgarria* irakurtzera bideratu gintuzten bezala –kasik bultzatu esango nuke–, Villasantek guztiz erakarri bihurtu zidan delako mediku laikoa. Zer idatziko zuen, bada, euskal letretako giro santujalean horrelako konmozioa pizteko? Zein *veneno* zabalduko zuen euskal literaturaren zain anemikoetan barrena? Noraino ausarta izango zen Etxepare hori?

Zorionez, handik laster *Buruxkak* berrargitaratu egin zen, eta horrenbestez aukera izan genuen Aldudeko idazle fina dastatzeko. Bai, 1980an plazaratu zen liburu malerus horren hirugarren edizioa. Lehenengoa, 1910ean, banatu barik gorde behar izan zuen egileak, eskandalagarria baitzen dirudienez. Hogeita hamar urte geroago bigarren edizio bat kaleratu zuen aita Lafittek, baina ondo zentsuratuta. Zorionez, irendubakoa izan zen irakurri genuen hirugarren edizio hori. Kargutu egilea hil eta ia mende-erdi igaro behar izan zela jatorrizko testua arazorik gabe publikatu ahal izateko.

Zorionez, hurrengo urteetan Jean Etxepareren obra osoa bilduz eta plazaratuz joan da. Piarres Xarritonek bilatu, sailkatu eta apailatu ditu haren artikulu sakabanatuak, eta argitara eman ditu bost liburu marduletan. Bestalde, berriro agertu dira *Buruxkak* eta *Beribilez* Klasikoak bilduman. Orrialde horietan murgiltzean ezagutu dudan Etxeparek ez dio hutsik egin Villasanterengan aurkitutako Etxepare erakargarriari. Nire begietarako Jean Etxepare idazle dotorea da, eta zorrotza. Berritzailea da. Eta irekia. Areago: Jean Etxepare idazle ekumenikoa da. Atseginez irakurtzen da.

Kontua da gero eta biziagoa egin zitzaidala Aldudeko medikuaren “arrazoiak” ulertzeko gogo. Nondik zetorkion idazteko zaletasuna? Zerk bultzatu zuen hainbeste urtez lan idor horretan ekitera? Zelan jasan zuen egokitu zitzaion bakardade intelektual erabatekoa? Zergatik ez zuen hanka egin erdararen mundura? Zeintzuk izan ziren erabili zituen iturriak? Zeren eta, eboluzionismoa baita *Beribilez* liburuak lerroen artean ostenduta daroatzan benenoetariko bat, Piarres Lafitte ondotxo jabetu zenez. Bai, Aldudeko medikua *Haeckel eta Nietzsche bezalako batzuen liburu khiretseri lotu zen*, eta elizaren morala kuestionatzeaz gain zer-eta eboluzionismoa sartu nahi izan zuen euskararen mundura, kontrabandoz izan arren. Horretaz konturatzea erabakigarri suertatu zitzaidan: Jean Etxepare une horretara arte idazle laiko bat izan zen niretzat, hau da, euskal abifaunako *rara avis* deigarri eta interesgarri bat; ostera, nire predilektoa bihurtu zuen eboluzioaren zabalkunde jardun zuela jakiteak. Une horretatik aurrera gogo bizia eduki izan dut, idazleaz bestalde gizona ulertzeko, eta bai gizon horren ingurua ere.

Gogo horrek iraganeraino eraman nau, ehunen bat urte atzerantz, Jean Etxepare bere giroan –edota desgiroan– kokatu eta aztertu ahal izateko, hurbil-hurbiletik behatu ahal izateko. Halandaze, aspaldi joandako denboraren peskizan ibili naiz Aldudeko medikuaren arrastoan, eta beraz, sasoi horri buruzko dokumentu asko irakurri ditut, eta bai sasoi horretan idatzirikoak ere, beste horrenbeste-edo. Jon Casenaveren tesiak opetsi dizkit argibide baliotsuak ataza horretan.

Alabaina, denboran higitzea ez da eroso izaten, atzerantz denean behintzat ez. Izan ere, *iragana leku arrotza da, beste modu batean hitz egiten dute ban*, eta sarritan ez da erraza suertatzen iragana gaurko parametroekin ulertzea. Eta idatzi ere, era diferente batean egiten dute. Arazo horietaz konturatuko zara argiro, liburu honetara aldatu ditudan hainbat pasarte orduko grafiarekin aurkitzean. Zalantza txiki bat eduki dut puntu horretan: jatorrizko testuetan topaturiko grafiak mantendu, ala gaurkotuta eman hemen? Adiskide batzuen aldeko eta kontrako iritziak entzun eta gero, lehenengo aukera hartu dut, alegia, ez dut dokumentuetako grafiarik ukitu. Badakit lehen begi-kolpean irakurketa zaildu egiten dena, eta ohitura-faltaz pasarteok arraro samarrak direla iruditzen zaiguna. Baina, bestalde, berez duten xarma handiaz eta zapore sarkorraz gainera, jatorrizko pasarte horiek berebizikoak dira benetako denbora-bidaia egiteko, norbera orduko sasoietaraino aldatzeko. Egia da: errazago-edo irakurriko genituzke egungo era normalizatuan idatzita baleude, baina seguru egon, denbora-bidaia abentura zapuztuko litzai-guke. Telebistako pantailan ikustea bezalakoa izango litzateke, norberak txonbo egin eta denboraren sakonean murgildu beharrean. Hortaz, gurago izan dut irakurlea bera iraganean barneratu, eta ez, ostera, iragan korapilotsu hori gaurko egunera guztiz ebatzita ekartzea.

Alderantziz jokatu dut deiturekin. Euskal onomastikaren normalizazio-prozesuaren baitan, Euskal Herriko euskaldunen abizenak egungo era akademikora ple-gatu ditut, frantsesezko edo gaztelaniazko grafiak alboratuz. Horrek ere, beharba-da, nekeren bat ekarriko dio gure begiari, baina, luze barik usatuko da abizen horien euskarazko idazkerara. Euskaltzaindiak argitaraturiko izendegi eta ahol-kuak jarraitu ditut.

Beraz, Jean Etxepare medikua bere testuinguruan ulertzen ahaleginduko gara, eta izatez, Aldudeko medikuaren bizitza eta obra izan dira liburu honen ardatza eta denbora-bidaiarako aitzakia. Alabaina, kontakizuna ez da artez joango mediku saiogilearen biografian zehar. Puntu biren arteko distantzia laburrena zuzena dela irakatsi ziguten umetan, baina, hori ez da beti betetzen matematikatik at. Esatera-ko, ibaiak makina bat meandro egingo ditu itsasorako bidaian distantziarik labu-rrena bilatu nahirik. Modu berean-edo, geu ere zenbait meandrotan endredatuko gara ibarrean alderik alde, eta horrela interes-gune desberdinetaraino hurbilduko gara. Izan ere, Aldudeko medikuarenganainoko denbora-bidaian hainbat eta hainbat *esteka* aurkitu ditugu, eta esploratu, eta horietariko zenbaitzuk liburu honetara aldatzea pentsatu dugu. Dela dinosauroen suntsipena ekarri bide zuen meteoritoa-rena. Dela Panpetako Euskaldun Errepublikarena. Dela ugaztunen izenarena. Dela Sebero Altuberen maisutza ahaztuarena. Dela megafauna pleistozenikoaren triskantzarena. Dela Heriotza Ibarreko urre-biltzaile euskaldunarena. Dela Java-ko giza tximinoaren aurkikundearena. Dela eboluzionismoak Euskal Herrian edu-ki duen sarrera nekosoarena. Dela *Mugaz bestaldera doazenak* poemarena. Dela euskal unibertsitatearen urruntasunarena. Dela prosa zientifikoaren eredu plebifi-katzailearena. Dela Stephen Jay Gould zientzia-idazle handiaren heriotzarena. Dela Atharratzeko taldearena. Dela Darwinen eta lord Kelvin-en arteko kontro-bertsiarena. Dela Camilo Lizardik Joseph Conrad-engandik jaso eraginarena. Dela Haeckel-en itzal luzearena. Eta beste hainbat. Hamaika meandro, baina beti ere Jean Etxepareri inguru-minguruka.

Ondoko orrialdeetan, bada, denbora-makina bat daukazu, iraganerantz eroango zaituena. Sartu bertan eta abia zaitetz Aldudeko medikuaren bila. Merezi du bidaia horrek.

ESKER ONA

Hainbat laguntza eduki ditut, idazketa-lana leundu didatenak.

Hasteko eta behin, CAF-Elhuyar beka aipatu behar dut, buruan bueltakatu proiektuari epe zehatzak jarri baitizkio. Hori gabe, seguruenek gauzatu barik jarraituko luke oraindik ere.

Hasian hasi, eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiet hala Euskaltzaindiari nola Euskal Herriko Unibertsitateari, posible egin dute-eta liburu hau argitaratzea.

Lagun askorengana jo dut mesede eske, dela erreferentzia bibliografikoren bat, dela gai ilunen baten azalpena, dela iritzi bila, eta abar. Zorretan nago ondoko guztiokin: Mikel Aizpuru, Oscar Álvarez Gila, Pierre Andiazabal, Eduardo Angulo, Alvaro Antón, Zigor Arteaga, Itxaro Borda, Ana-Marie Etcheberry, Martin Irigoien, Xantxo Iturriotz, Josu Iztueta, Paulo Iztueta, Xabier Kaltzakorta, Josu Landa, Mikel Larroulet, Javier Loidi, Ismael Manterola, Carmen Manzano, Jesús Moya, Ana Rallo, Esther Rebato, Concepción de la Rúa, Isabel Salzedo eta Peio Setoain. Eta bai Azkue Bibliotekako Nerea Altuna eta Josune Olabarria.

Liburuaren atalak idatzi ahala, kapitulu bakoitzaren lehen bertsio gordinak hainbat lagunek orraztu eta kritikatu dituzte. Gehienek kapitulu guzti-guztiak irakurri dizkirate, beste zenbaitzuk bat edo beste. Ondokoak arduratu dira lan astun horretaz: Esti Apellaniz, Karmele Artetxe, Jon Casenave, Arturo Eloseggi, Pruden Gartzia, Jazinto Iturbe, Jurgi Kintana, Koldo Nuñez-Betelu, Mateo Pagazaurtundua, Xanti Pagola, Fernando Plazaola, Guillermo Roa, Arantxa Txintxurreta, Jesus Mari Txurruka, Maribi Unamuno, Asisko Urmeneta eta Piarres Xarriton.

Idazlana amaitutakoan beste lagun batzuen eskuetan utzi dut, osorik egoteak dakarren ikuspegitik azter zezaten. Jurgi Kintana, Juan Karlos Odriozola eta Iban Zalduarena izan da ataza hori.

Liburuaren azken bertsioa asko hobetu eta aberastu da irakurle horien ekarpenei esker. Hainbat zuzenketaz gainera, makina bat iruzkin, ideia eta iradokizun luzatu dizkirate, hasierako zirriborroa txukundu dutenak. Ez dago esan beharrik: nire erruz izan da, edozein akats edota hutsune itzuri bada.

Bestalde, oso garrantzitsua izan da alde grafikoan eduki dudana laguntza zabal, argazkien kredituetan ikus daitekeena.

Azkenerrako utzi dut pertsona biren laguntza berezia.

Piarres Xarriton alboan eduki dut une oro adorea xiringatzen. Piarres Xarriton izan da nire zizerone partikularra, jakintsu bezain abegitsua: berak askatu dizkit hainbat korapilo eta berak ireki dizkit hainbat ate. Piarres Xarritonek gidatu nau zenbait zidor meharretan.

Eta Setoain andereak, bere adin handian, Aldudeko paraje ederrean hartu gintuen, hain esanguratsu den Auzkia etxean. Mahai gainean jarri –eta gurekin partekatu– zituen aspaldiko oroitzapenak, haurtzarokoak, Jean Etxepare medikua etxe horretantxe ezagutu zuenekoak.

Guztioi mila esker anitz.

AURKIBIDEA

Gomendiozko kartaxi
Aitzinsolasaxv
Esker onaxix
Aurkibideaxxi
Kronologiaxxv

1 Ameriketako oroitzapenak

HIRU SEME BARKOXEKO1
IBARRE CONNEXION4
BERTZE ESKUAL-HERRI BAT ITSASOZ HARAINDIAN7
ITXARO ETA JOSEBA12
MUNDURATZEKO LEKU BAT16
PELUDOAREN HATZETAN19
UGAZTUNAK ULEDUNAK ZIRENEKOA23
BIZKATXA ETA ZORRINOA: HEGO AMERIKAKO FAUNAREN HISTORIA LABURRA31
DARWIN ETA MEGAFUNAREN TRISKANTZA HANDIA37
EUSKALDUNAK LUR PROMETATU EZTIAN46

2 Buruxkak

GURE PARNASO TXIKIA51
LEKORNETIK BORDELEREA55
AMAREN BELAUNETAN60
HAECKEL-EN ITZAL ZABALA67
BRIDEN BEHARRA DUEN POTTOKA75
GALILEAKO ZURGIN-SEME PEDOILARENA78
EUSKAL UNIBERTSITATEA, AMETSETAN BADA ERE84
ERDAL MILITANTEAK GURE TERRITORIO LIBRE BAKARREAN88

3 Agur gaztaina-mundu horri

MISIONISTAREN GAZTAINAK93
ALBERT CONSTANTIN ETA ATHARRATZEKO TALDEA99
BURUXKAK: IRAGARRITAKO PORROT BATEN KRONIKA103
LÉGENDE TENACE BAT?108
MEDIKU ANARKISTA ETA MEDIKU ELE-EHIZTARIA112

TXOKO EKOLOGIKORIK GABEKO BIZIDUNA	119
SATORRAREN BIZIA	120
LABORARI EUSKALDUNEN KURAIA	130
BIRIGARRO-ALDRA EDERRA	135
14KO GERLA ETA EUSKAL HERRI ZINEZKOA	141

4. Eztago Bilbo langorik

ALDUDEN BERRIRO ERE	145
AZKUEREN HAUTAGAIA	147
JOAN-ETORRI BAT BILBORAINO	155
GERNIKAN IKASITAKOIA	166
ESKUALZALEEN BILTZARREKO BURU-LEHENA	172
EZKONTARAZI GAITUZTE, BEHAR DUGU ELGAR MAITE	179
GERMAN RODRIGUEZ HIL ZUTEN UDA	182
ORIXEREN PURGATORIOA	192
OSOZKOA ETA ERDIZKOA	196

5. Ziliportarena

CAMILO LIZARDI ETA JOSEPH CONRAD	201
NOIZBAIT AIREZ AIRE JAURTIKI ZILIPORTA BAT	203
BERIBILEZ: ZAKU BARNE HANDIKOIA	209
ZILIPORTAREN KEZKA: THE ENTIRE COSMIC PROBLEM	212
JAKITATEAN EZ DA BARNEGI SARTU BEHAR?	217
IZARREN HAUTSA EGUN BATEAN	220
LORD KELVIN VS. DARWIN: NORK ARRAZIOIA?	226
INOR BIZI DA IZARRETAN?	232

6. Zumaian

EUSKALDUN IDAZLE BATEK ASMA DEZAKEEN LANIK EDERRENA	237
DAVID ETA GOLIAT	241
ARNAUD ÁBADIA: BIZITZA ETA IDAZLANA	248
KARNIBORO, XITXIJALE, HARAGIJALE, OKELAJALE	254
GOULD HIL DELA IRAKURRI NUENEOA	259
HIBRIDISMO DIALEKTALA ETA EUSKARA EKUMENIKOIA	261
INORK EZ ZIDAN ESAN EUSKALDUN IZATEA ZEIN NEKEZA DEN, HOBE NUELA HAUTATZEA MUNDUKO HIRITAR IZATEA	267
ZIENTZIA-PIRAMIDEN ERPINETIK	274
AMMONITE BAT LASTATEGIAN	281
URRE, URRE, URREAREN BILA	286
1. Eranskina: BEHIN MAKEAN	295
2. Eranskina: DAZANTZEK EGINDAKO HILETA-MINTZALDIA	299
Erreferentzia bibliografikoak:	301
Aurkibide onomastikoa:	325

KRONOLOGIA



JEAN ETXEPARE BIDEGORRI

- 1877: Argentinan jaio zen, Buenos Airesko Mar Chiquitan, urriaren 31n.
- 1883: Familia Euskal Herrira itzuli zen, eta Lekornen kokatu.
- 1889: Larresoroko Seminarioan hasi zituen bigarren mailako ikasketak.
- 1894: Medikuntza ikasten hasi zen Bordelen.
- 1898-99: Soldadutza egin zuen, Proventzan.
- 1901: Doktore-tesia aurkeztu zuen *–Quelques remarques sur le joueur de pelote–*.
- 1901-05: Lekornen bizi delarik, Hazparneko medikuen ordezkapenetan ari da; ordukoak bide dira *Eskualduna* astekarirako idatzi zituen lehen artikulua.
- 1902: *Eskualzaleen Biltzarra* eratu zuen bileran hartu zuen parte, Hondarribian.
- 1905: Aldudera doa mediku.
- 1910: *Buruxkak* liburua argitaratu zuen.
- 1911: *Cercle d'Etudes euskariennes* Baionan eratu berri elkarteko kide izendatu zuten.
- 1914: *Eskualzaleen Biltzarreko* buru-orde izateko aurkeztu zuten.
- 1914-18: Gerla Handian aritu zen, mediku gisa; gerla-kronikak argitaratu zituen *Eskualduna* astekarian.
- 1919-25: Aldudeko udaletxeko auzapez-laguna.
- 1921: *Gure Herria* aldizkari eratu berrian argitaratzen hasi zen.
- 1922: Eusko Ikaskuntzaren III. Biltzarrean hartu zuen parte, Gernikan.
- 1922: *Eskualzaleen Biltzarreko* buru-lehen hautatu zuten Maulen, Jose Eizagirre tolosarraren orde.
- 1923: Fernande Kamino kanboarrarekin ezkondu zen, otsailaren 5ean.
- 1926: *Eskualzaleen Biltzarreko* kargua utzi zuen Atharratzeko bileran.
- 1928: Bihotzeko lehen osasun-arazoak.
- 1929: *Beribilez* argitaratzen hasi zen, *Gure Herrian* atalka.
- 1930: Medikua osasuna dela-eta, uda-hasieran Kanbora aldatu ziren Etxepare senar-emazteak.
- 1930: *Gure Herria* aldizkariaren zuzendaritza-aldaketa: Jean Etxepare buruorde eta idazkari nagusi bilakatu zen, eta Piarres Lafitte haren idazkari lagun.
- 1931: *Beribilez* liburu gisa argitaratu zen.
- 1935: Kanbon hil zen urtarrilaren 9an, enbolia batek jota.

1. Ameriketako oroitzenak

HIRU SEME BARKOXEKO

Ia-ia hirurogeita hiru urteko gizon zaildua zen Ximun Gimón-Zetegiet, 1856ko agorrilaren 31ko igande-arratsalde hartan Baionan itsasoratu zenean Ameriketarako, *L'Étincelle* belautzian.


Barkoxtarra jaiotzez, Ximun Gimón berandu samar apaiztu bazen ere, arrakasta galanta lortu zuen misionista modura bai Euskal Herrian bertan euskaraz, eta bai kanpoan ere, Biarnon, Pirinio Garaietan eta Landetan biarnesez eta frantsesez, 35 urte luzez. Dena dela, oso kezkatuta zegoen Ameriketako euskaldunen paraderoa zela-eta, han ez baitzuten erlijiozko laguntzarik, eta abade-faltaz ez zitzaizkete bete euren eginbide kristauak.

Kasurako, 1854ko amaieran Montevideora iritsi zenean, aita Sarrotek euskaldun bakarra aurkitu zuen urte horretako pazkoak eginda zituena. Baina, Euskal Herrian ezaguna zen nonbait Ameriketako euskaldunen “apostasia” orokor hori, eta izan ere, ordurako argitaratuta zeuden *Montebideoco berriac* (1853). Emigrazioaren kontrako bertso famatu horietan, aita Hiribarrenek, besteak beste, argi esan zuen:

Bainan cer da guerthatzen? Herritic lekhora
Eskalduna bicitzen bertzen arabera:
Toki galduac dire, placer hedatuac,
Berthute garbi oro handi urrunduac.

Jakina, horrelako lekuak guztiz galgarriak dira euskaldun fededunentzat, eta, Hiribarrenen ustez, etxeko fedea uxatu egiten da han:

Eskalduna errotic cena guiristino
Montebiden eguiten osoki pagano,
Ezda harentzat Yainco ceruetan denic,
Nihor han berthutekin bici nahi denic.



Mixel Garikoitz Etxeberri (Ibarre, 1797; Bétharram, 1863). Nahikoa berandu apaiztu zen, 1823an Baionan, eta Kanbora bidali zuten bikario. Handik laburrera, Bétharrameko apaizgaitegira aldatu zuten, hango filosofia-irakaslea izendatuz. Han, besteak beste, amabirjinaren sortze garbia eta aita santuaren hutsezintasuna irakatsi zituen, nahiz eta artean promulgatu gabe egon elizaren dogma gisa. Hogeita hamazortzi urterekin Jesusen Bihotzeko Apaizen Institutua eratu zuen, 1835ean, eta 1856an zortzi misiolari bidali zituen Buenos Airesera, itsasoaz haraindiko elizbarrutiko euskaldunetz arduraz zitezten. Mixel Garikoitz dohatsuen herrokan emana izan zen 1923an, eta Pio XII. aita santuak kanonizatu zuen 1947an. Bestalde, Ibarreko Garakotxea, santuaren jaio-tetxea.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA ETA K. ALTONAGA).



Indiarrei gerla. Espainiako koroarekiko askatzean, Argentinako estatu jaio berriak panpetako lautada zabalak –eta Patagoniakoak ere– bereganatu nahi izan zituen, eta *Basamortuaren Konkistari* ekin zion. Prozesu horretan urratsez urrats muga urrunduz joan zen Buenos Aires hiriburutik, ganadu-hazkuntzan oinarrituriko ekonomia berria bermatzeko. Basamortuaren Konkista delakoa izendapen guztiz eufemistikoa da, izatez, zinezko sarraskia izan baitzen, aro kolonialetik herri indiarren esku zeuden lurraldeak “garbitu” ziren-eta. Hainbat kanpaina militar garatu ziren, herri indigenak Negro ibaiaz hegoalderaino bultzatzeko. Roca jeneralak adierazi zuen, kasurako, 1600 indiar hil zituela eta 10.000 gatibu altxatu, 1879ko kanpainan; beroriek, gero, esklabo gisa bidali ziren Tucúman aldeko azukre-kanaberadietara, edo Buenos Aires hiriburura goimailako etxeetako neskame. Alegia, Basamortuaren Konkista herri indigenen genozidioa bilakatu zen.

(IRD.: LORIA & LÓPEZ BUSTOS-ETIK MOLDATUA).

Mende-erdi geroago aita Lhandek, oster, euskaldunek fedea sorterrian bertan uzten zutela adierazi zuen, abiatzean ahazten zutela. Zernahi gisaz, “egiazki pagano balde bizi zirela” azaldu zion Ximun Gimoni, horren berri zehatza zeukan lagun batek. Eta Ximun Gimon bera prest zegoen itsasoz beldaldera joateko; areago, san Mixel Garikoitz Ameriketara misio bat sor lezan eskatu zion. Bien bitartean, Ximun Gimonek “nahi zira eneki Ameriketara jin? Gure euskaldün aurrideak pagano balde bizi dira” galdetu zion Pierra Sardoiri, Mendikotako erretore barkox-tarrari. Gero, berauxe joan zen beste herritar baten ikustera, hain zuzen ere Batista Harbutzan Gotaineko erretorearengana, eta hura ere gogo horretara bildu zuen.

Halandaze, Mixel Garikoitzek Ameriketara misio betarramdar bat abiatzeko baimena eman zuenerako, Ximun Gimonek hitzartuta zeuzkan berekin batera hara joango ziren lagun barkoxtar bi. Horrela, bada, Betarrameko beste zazpi anaiekin batera partitu zen, eta itsasaldiko denbora-tarte luzeak gaztelania ikasten eman zituen. Hirurogeita bi egun behar izan ziren, 1856ko azaroaren 2an Montevideoko portuan moilaratzeko. Handik Buenos Aireseraino beste egun bi eman zituzten Río de la Platako itsasadarra zeharkatzen, izugarritzko ekaitzaren tirigituak lurruntzia hondoratzeko zorian eduki baitzuen. Bertaratu eta ia berehalakoan hasi zen aita Ximun hango parrokitan predikatzen, dirudienez arrakasta handiz.

Hilabete batzuen buruan misionistek hedatu egin zuten lan-esparrua. Besteak Buenos Airesen gelditu ziren artean, gure hiru barkox-tarrak, Gimon, Harbutzan eta Sardoi, hiriburutik urrundu eta panpetako eta Uru-guako lurraldeak korritu zituzten zaldiz eta orgetan, ezinago bide txarretatik, han eta hemen hogeita hamarretik gora misio-aldi antolatuz, bost urteko epean. Kasurako, eta beti ere Buenos Aires probintzia zabal barruan, ondokoak aipa daitezke: 1857an Dolores, Chascomús eta Ranchos; 1858an Luján, Mercedes, Chivilcoy, Navarro, Lobos, Cañuelas, Azul eta Dolores; 1860an Merlo; eta 1861n Barracas, Avellaneda, Morón eta Quilmes. Misio-ibilaldi horiek hango udazkenean (martxotik ekaina bitartean) eta udaberrian (urritik aurrera) egiten zituzten. Montevideo alderaino 1857an, 1859an eta 1860an hurbildu zen Ximun Gimon.

Nolanahi, 1859. urtean Salado ibaia zeharkatu eta hegoalderantz abiatu ziren, alegia, orduko lurralde segurua-
ren azken muga atzean utzi, eta Buenos Aires probintziako
erdigune basatirantz joan ziren, Azul eta Tandil-en predika-
tzeko, hain zuzen ere, Juan Catriel buruzagi indiarren *sal-
baiten* lurraldean, bete-betea. Hamabi eguneko bidea zegoen
Buenos Aires hiriburutik Tandil-eraino: hirurehun bat kilo-
metro. Gaur egun ehun mila lagun bizi dira Tandil hirian,
baina XIX. mendeko amaieran bost mila ziren doi-doi.



Indios Pampa, tribu asomada, a las orillas del Rio Colorado.
Neuquen, Rep. Argentina.

Antza denez, Argentinan euskaldunak izan ziren ganadu-hazkuntzan ari-
tutako lehenengoetarikoak, eta horrela apurka-apurka barreiatuz joan ziren,
panpa osotik zabalduz. Ez dago esan beharrik, mugalari horien bizimodu
latzaren zailtasun guztiei indiarren mehatxua gehitu behar zitzaie, eta iza-
tez, mehatxua benetako eraso bihurtzen zen, sarri askotan dokumentazioa-
ren arabera. Esate baterako, Jon Bilbaok jaso du 1855ean Buenos Airesko
egunkari frantses batean agertutako kronika, Quequen-Grande ibaiaren
urbazterrean gertatutakoaz, egungo Necochea hiriaren inguruan (Tandil-
etik 170 km hegoalderantz). Dirudenez, inguru hartan kolonia txiki bat eza-
rri zen, zortzi euskaldun ez osotarikoa, bost Iparraldekoak (Martin Apezetxe
Jutsikoa, Pierre Etxeberri Ortzaizekoa, Pierre Oihenart urdiñarbeta, eta
Henri Sabez Garruzekoa eta Jean Jauregiberri senperetarra) eta beste hiru
euskaldun Hegoaldekoak, egunkariko kronikan inolako argibiderik ez dute-
nak, eta hortaz, Jon Bilbaoren arabera, “joakin” legez kanpokoak izango
zirenak. Dena dela, arrantxoa inguratuz murru bat eraiki zuten, eta bai tro-
ka bat ere berorren kanpo-alde. Erasoaren egunean (albisteak ez diosku
egunsentiarekin bat gertatu zenentz, hainbat eta hainbat *western*etan ikusi
bezala), zortzi euskaldunak babestoki horretan gerizatuta zeuden, eta 500
gerlari indiarren aurretik bozeramailea hurbildu zitzaie, Calfucura buruza-
giaren izenean. Bozeramaileak ez zuen lortu esparru babestuan sartzea, bai-
na, zentaila hotsean erasorako agindua eman zuen, keinu batez. Barrukoek
tiroka erantzun eta 30 bat salbai garbitu zituzten. Bi orduz luzatu zen zaldiz-
koen lantza-zaparrada eta abalez jaurtikitako harrien erauntsia, baina, azke-
nerako indiarrek konturatu egin ziren, euskaldunek larrutik ordainaraziko
zietela ekin eta ekin segituz gero, eta ospa egin zuten. Nolanahi, arrantxoa
sutan gelditu zen, eta euskaldunak zauriz josita, eta okerragoa dena, arran-
txoa laga eta Buenos Airesera itzuli beharrean egon ziren.



Juan Catriel buruzagia. Hau-
xe da *panpa* indiarren tribu-
ko buruzagi nagusia. Juan
Catriel-ek harreman ona
mantendu zuen, neurri
batean, Buenos Airesko
agintari musu-zuriek, izan
ere, Rosas jeneralari lagun-
du zion beste zenbait tribu-
ren aurka, adibidez Calfucu-
ra buruzagiaren kontra.
Catriel-en lurraldean Azul
eta Tandil hiriak sortu ziren.
Geroago, baina, armada
bere semearen aurka abiatu
zen, alegia, Juan José Catriel
buruzagiaren aurka.

(ARG.: G. GOICOECHANDIA).

Bere erara Jules Vernek ere badamaigu egoeraren lekukotasun interes-
garria. Izan ere, *Les enfants du capitaine Grant* (1867-68) eleberri klasikoan,
protagonistak Tandil-eraino iritsi dira, aita Gimón bezala, eta, Vernek dios-
kunez, Catriel buruzagiaren indiarrek dira inguru haietako berezko egoilia-
rrak, baina Tandil-go biztanleria gehien bat euskaldun frantsesek eta italia-
rrek osotzen zuten. Areago, gotorlekuko komandantea berrogeita hamar
urteko sarjentu euskalduna zen, hain zuzen ere, Manuel Ipharaguerre.
Paperezko euskaldun hori, Vernerren azalpenetan, 1828an kokatu zen ber-
tan, orduko muga zaintzeko gotorlekua eraiki zenean, eta hango emakume
indiar batekin ezkondu zegoen, seme bi zituelarik. Edozelan ere, denbora
luze horretan guztiz andeatu zen Manuel Ipharaguerren ama-hizkuntza,

frantsesa Vernereren arabera, eta nekez ulertu zioten. Esan gabe doa, euskara zen orduko euskaldunen hizkuntza arrunta, eta pentsatzekoa da frantsesa, gehienez, bigarren hizkuntza gisa edukiko zuela delako Manuel Ipharaguerre horrek. Aita Lhandek zorrotzago azaldu zuen kontu hori, esanez Iparaldeko euskalduna Ameriketara iristeaz batera gaztelania murdukatzen hasten dela, eta aldi berean ahazten, herriko eskolan ikasitako frantses poxi hura; horren ondorioz: *c'est encore un Basque, mais non plus un Basque-Français: c'est un Basque-Argentin*. Suposatzen da ere, bestalde, Tandil-go sarjentu euskaldunaren deitura Vernek Gernikako Arbola ospetsu bihurtu zuen bertsolariarenean oinarrituko zuela; bide batez esateko, Iparragirrek ere egin zituen amerikak 1858tik aurrera Argentina eta Uruguain, baina joan bezain pobre itzuli ei zen 1877an.

Hortaz, ba, 1859ko urtarrilean Ximun Gimón eta lagunak Azul eta Tandil-go euskaldunei predikatu eta konfesatzera abiatu ziren, eta bai, bide batez, Juan Catriel buruzagiaren indiarrek konbertitzera edo, gutxienez, haien umeak bataiatu eta katixima irakastera. Eta, izan ere, hiru biderrez batzartu ziren Catriel-ekin inguru haietako gotorlekuetako komandanteen laguntzari esker. Dena dela, Catriel-ek errefusatu egin zuen haien proposamena, eta aita Gimonek orduan deliberatu zuen, handik aurrera beraien predikazioaren helburua euskaldunen multzo mardula izango zela, soilik. Urte horretako zatirik handiena Montevideon igaro zuen.

Aita Ximun Gimonek 1861eko maiatzaren 22an eman zuen azken hatsa Buenos Airesen. Hileta ospetsua egin zioten, jende-oldeak lagundurik. Geroago, san Mixel Garikoitzek berri ertuna jakitean, bere adiskidearen hautsak Betarramerat ekartzera nahi izan zuen, baina berak ez zuen ikusiko egun hura.

IBARRE CONNEXION

Ximun Gimón 1857ko misio-aldian iritsi zen Dolores-eraino. Pedro Luro askoz lehenago kokatu zen herri horretan.

Izatez, Nafarroa Behereko Ibarren jaio zen Pedro Luro 1820an, baina hamazazpi urterekin Ameriketarako bidea hartu zuen. Herrian artzaina izandakoa, *saladero* (= gazitegiko langile) bihurtu zen Buenos Airesen, beste euskaldun askoren antzera, eta ganaduaren okela gazitan prestatzen eman zituen hango lehen urte gogorak. Hogeita lau urte zituela, Jeanne Pradere saratarrarekin ezkondu zen, eta ume bi eduki zituzten, Buenos Airesen bizi izan ziren bitartean. Hiru urte geroago, 1847an, Dolores-era aldatu ziren, eta beste hamabi seme-alaba munduratu.

Dolores, artean, postu militar bat zen, hegoalderanzko zabalkundea babesten zuena, baina, 1860. urterako Buenos Aires probintziako “laurgarren hiria” bilakatuko zen. Gaur egun hogeita bost mila biztanle biltzen ditu. Dolores-en Pedro Lurok, besteak beste, botiga bat jarri zuen anaia batekin herriko plazan, eta bertakoek *hogoyeta ameca* esaten ei zioten, bistakoa denez musulari porrokatua izatearren, eta bai, antza, gehienetan irabazle.

Nolanahi, jokia ez omen da errenta, eta beharizanen arabera Pedro Lurok ia denetarik egin zuen Argentinako bizitzan: kontrabandista, ehiztari, abeltzain, *saladerista* (= gazitegi-ugazaba), ingeniari, eraikitzaile... Kontuak kontu, 1852an zazpi mila hektareako *estancia* baten jabe bilakatu zen, hain zuzen ere, gerora Argentina osoan ospetsu egingo den *Dos Talasen* jabe, eta hori bere lehenengo etxaldea besterik ez zen izan, 350.000 hektarea baino gehiago bereganatu baitzituen erretreta hartu arte. Kontura gaitezen: ia-ia Bizkaia gehi Gipuzkoaren azalera mintzo gara.

Jakina, Pedro Lurok ere enkontruren bat edo beste eduki izan zuen indiarrekin bizimodu gorabeheratsu horretan: dirudienez, euskaldun batzuekin Río Colorado aldera bost mila abelburu eroaten ari dela, indiarrek ostu egin zizkioten, eta bai, antza, mutilen bat hil ere. Ez dago esan beharrik, berehalakoan bildu zuen zigor-talde bat eta atzetik joan zitzairen; ohoinak atzemanda, lapurtutakoa berreskuratu omen zuen, gehi bestelako mozkin ederrak ere bai. Ez dakit noraino apokrifoa den istorio osoa, ez dut-eta inon aurkitu, ez zenbat euskaldun hil ziren, ez nortzuk izan ziren, eta, gainera, kontakizunaren beste bertsio batean seihun abelburu dira; ez da hain bitxia, bestalde, hildako indiarrei ez erreparatzea, ez konpentsaziozko mozkinak zehaztu barik uztea ere.

Edozelan ere, Pedro Luro panpetako zenbait eremu zabalez jabetu zen 1862an, eta, Euskal Herrira itzulita, berrogeita hamar familia inguratu zituen Nafarroa Beherean, lur-sail horiek jendeztatzeko. Hori irakurri dudan iturriak ez du gehiago zehazten, soilik Argentinan kokatu eta gero sakabanatu egin zirela, eta bai, halaber, gaur egun *estancia* handiren jabeak direla euskaldun haien ondorengoetariko asko. Badiotsut, ezin izan dut kontu hori ondo dokumentatu, baina postura egingo nuke berrogeita hamar familia horien artean Etxeparetarrak egon zirela. Beharbada, ideia horren aldekoa da Piarres Lafitteren ohar zehaztugabe bat: “Etxepareko semea [Jean Etxepare idazlearen aitaz dihardu] Ameriketara joan zen zonzabait auzo-ahaidekin”.

Bernard (1834-1905), Pierre (1840-1893) eta Jean Etxepare (1842-1932), hiru anaiok Ibarren jaiok ziren, Pedro Luro bera bezalaxe. Argentinara joanda, Buenos Aires probintziako Mar Chiquita-n ardi-hazkuntzan aritu ziren arrakastatsuki, eta gero, 1880 aldean, atzera Euskal Herrira itzuli eta errentez bizi izango dira, Lekornen kokatuta, “eta ontsa bizi iduriz”. Jakina, ez da zaila pentsatzea Pedro Luro Ibarreko familia ezagunekin mintzatuko zela bere asmoaz, eta ziurrenez Etxeparetarrak ezagutu egingo zituen, familia horretakoak izan baitziren herriko auzapez batzuk. Aipatutakoa litekeena baldin bada ere, berriro esan beharrea nago: erabili dudan dokumentazioan ezin izan dut zehaztu hiru anaiok elkarrekin abiatu zirenentz, ez noiz, eta ez Pedro Luroren eskutik joan ziren ala beste era batera. Dena dela, Ibarreko Dona-Isti-Etxeparea etxeko Jean Etxepare hori izanen da gure Aldudeko medikuaren aita.

Sorterriko loturaz baliatu naiz Pedro Luro zelan edo halan Etxeparetarrekin harremanetan jartzeko, eta lotura berbera erabil genezake, orain ere



Pedro Luro (1820-1890). Nafarroa Behereko Ibarren jaiok, hamazazpi urterekin Ameriketarako bidea hartu zuen. Lehenago Buenos Aires hiriburuan aritu zen eta ondoren Dolores-en. Jeanne Pradere saratarrarekin ezkondu eta hamalau seme-alaba eduki zituzten. Hainbat ofiziotan ibilita, dirutza ikaragarri handia metatu zuen. Bere ondorengoek garrantzi handiko karguak bete dituzte Argentinako gizartean.

(ARG.: E. PIOMBO).



Ibarreko Etxeparea. Horixe da Jean Etxepare idazle handiaren aitaren jaiotetxea. Dena dela, Etxepare anaia indianoek Ibarreko barik Lekornera jo zuten Ameriketarik itzultzean. Ez da argitu aldaketa horren arrazoia. Gero, etxondoa saldu egin zuten 1891n. Ohargarria da Aldudeko medikuak ez duela inoiz aipatu Oztibarreko familia-adarra.

(ARG.: K. ALTONAGA).

lan-hipotesi gisa, Ximun Gimon Dolores-eraino erakartzeko. Zeren, aita Gimon barkoxtarra bazen ere, Ibarrekoa izan zen san Mixel Garikoitz eta bazukeen haren ibilaldien berri: ia segurutzat jotzen dut, besteak beste Pedro Luroren izena zerrendan sartu zutela, eta zerrendaren hasieran gainera, Ameriketarako misioaren prestaketa-lanetan hango laguntzaile posibleak pentsatzen hasi zirenean. Horrexek azal dezake neurri batean, zergatik bideratu zuten Dolores-era Buenos Aires hiriburutik kanpoko lehen misio-aldia eta zergatik itzuli ziren hurrengo urtean ere. Nonbait, kontinente berria ez ezagutu arren, kontaktu-sare batek errazten zituen euskaldunen joan-etorriak, urratsez urrats kasik.

Geroago, 1877tik aurrera Pedro Luro Mar del Plata hirian kokatu zen bere familiarekin, eta, inguru hartako garapena bultzatuz, “Miarritz argentinarra” itxuratu zuen urteen buruan. Esan gabe doa, ekimen horrek ere zenbatu ezinezko irabaziak ekarri zizkion. Han jardun zuen 1886ra arte. Orduan, osasun-arazoak direla-eta Buenos Airesera eraman zuten lehenago, eta ostean Europara; Cannes-en hil zen 1890ean. Bere ondorengoak garrantzi handiko postuetara iritsi dira Argentinan.

Dirudienez, Lurotarrak zazpi neba-arreba izan ziren, eta eurotarik sei joan ziren Ameriketara, alegia, Pedro, Juan, Bernardo, Mariana, Guillermo eta Graziana. Bi baino ez ziren itzuli, Bernardo eta Guillermo. Azken indiano hau, Lakarrako alkatea izan zen 1884tik 1910ean hil arte.

Nolanahi, Pedro Luro eta beste zenbaitzuen distirak ez digu uzten ikusten Ameriketara hustu ziren euskaldun anonimoen meta handia. Nora joan ote ziren, ba, milaka haien ametsak, agian damuaren etxera, Ruper Ordorik kantatzen duenez, ahazturaren zuloa, beharbada sekretupean den eze-rezaren baitara. Ez dakit noraino damutuko ziren Euskal Herria utzi eta Ameriketara joateko egindako hautuaz eta bizi izandako bizitzaz; Jose Mendiagaren kantuen liburuan, honelaxe diosku ahapaldi anonimo batek:

Mila-zortzi-ehun-eta-berrogoi-eta-zazpian,
Gu nola arribatu ginen, Montevideo-ko herrian;
Uste ginuen sartzen ginela plazer guzien erdian,
Hobe ginduke egon bagine, zangoak hautsirik, Frantzian!

Ahazturaren zulo beltzak irentsi ditu euskaldun izengabeok. Euskal diasporaren telebistako programak gorabehera, edota azterketa akademikoak ugarituz joan arren, hemen gelditu direnen artean ia zeharo ezabatu da joandakoen gomuta.

BERTZE ESKUAL-HERRI BAT ITSASOZ HARAINDIAN

Pedro Lurok bi mila euskaldun baino gehiago eroan ei zituen Ameriketara, baina ez dago argi denetara ea zenbat euskaldun joango ziren. Kalkulu horretarako hainbat zailtasun metodologiko daude, eta ez da erraza kopurua zehaztea. Argi dagoena da asko eta asko izan zirela, eta horrekin nahikoa daukagu hemen kontatu nahi dugun istoriorako. Edozelan ere, aita Lhanderen 1910eko estimazioa ekarriko dugu hona, irakurleari erreferentzia-puntu bat eskaintzearren. Autore horren arabera, 1832-1907 urte-tartean ehun mila euskaldun joango ziren Ameriketara, gehienak Argentinara: kopuru hori ikaragarria da, aintzat hartuz sasoi horretan Iparraldeko biztanleria ehun eta hogeit mila milakoa-edo izango zela. Kasurako, Lhandek dioskunez, soil-soilik 1907an 3500 frantses euskaldun eta biarnotar erregistratu ziren Argentinara joateko.

Ameriketarako bidea hartu zutenen gaineko datuak ez datoz bat, esan bezala autorerik autore aldatzen dira, baina denek erakusten digute gauza bera, alegia, Euskal Herriaren odolustea. Izatez, azken bost mendeetan Euskal Herria izan da Europako emigrante-mintegirik emankorrenetarikoa, baina, XIX. mendean zehar benetako hemorragia bihurtu zen “joakin” horien isuria, gero eta larriagoa gainera. Egonezin handia zabaldu zen arazo horren inguruan, eta horrela, hainbatek eta hainbatek egin zioten kontra emigrazioari. Ildo horretan aipatu dugu dagoeneko aita Hiribarrenen *Montebideoco berriac* (1853) ospetsua, honela hasi zuena:

Zoratu ahal dire Eskaldun gazteac,
Utziz bere herritan buraso maiteac;
Itsasoz urruntzeco diru nahiz bildu:
Eskaldun izateac oraitic eguin du!

Hau da, badoazen euskaldunen uholdeari erreparatuta Hiribarrenen arriskupean dakusa euskaldun izaera eta Euskal Herria bera, eta horixe darakusa. Horrela segituz gero erreka jo behar zuten ezinbestean ordura arteko gizartearen egiturak, ekonomiaren oinarriak eta euskaldunen fedea, eta hondamendi masibo horren aurrean, Alvarez Gila historialariak ederto azaldu digunez, bat egin zuten agintari politikoeak, ideologia guztietako prentsak eta bai Elizak ere. Hiribarrenen goiko ahapaldi hori oso adierazgarria da testuinguru horretan. Modu berean ulertu behar dugu, kasurako, sarritan aipatzen den *Euskal Naparren Joaera edo Emigrazioa* Martzelino Soroaren euskal klasikoa, berez, 1883an Colá y Goitik erdaraz argitaratu zuenaren 1885eko itzulpen kaskarra dena.

Esan gabe doa, makina bat arrazoi sozio-ekonomikok piztu eta bizkor-tu zuten uholdea, baina, arrazoiak arrazoi, bazirudien Euskal Herria hustu egingo zena. Bazirudien euskaldungoa urruti-min atabiko batek jota zegoen, herria uztera bultzatzen zuena. Aita Arbelbide ere zeharo kezkatuta agertzen zaigu, euskaldunek “ameriketarat (*sic*) joaiteko duten errabia” delata. Egoera eta pentsakera islatzeko, beste kontu ezin interesgarriago

batzuen artean, emigrazioari doazkion hiruzpalau pasarte aldatuko dizkizut hona Arbelbideren *Igandea* famatuaren aitzinsolasetik (1895). Hainbestetan aipatu den hitzaurre horrek, euskararen defentsa sutsuenetarikoa garatzen du, aita Arbelbideren ustez, euskarak isolatuko baitu Euskal Herria arrisku gutzietz jositako munduarekiko, alegia, euskaraz egiten duen populua salburirik egonen da. Ardatz nagusi horren inguruan, beraz, euskararen orduko “izurriteak” zerrendatu eta azaltzeari ekin zion:

Hirurgarren bat badugu: Eskual-herritik kampo, hirietarat edo ameriketarat [sic] joaiteko ezin egona. Eta zer gerthutzen da hortik? Bazterrak oro eskualdunehosten eta gaskoinez bethetzen! Etchetiar eta ofiziale gehienak arrotzak ditugu, nombaitik ethorriak, osoki erdaldunak, eta gure mintzay ederraren orde, ez dakit zer hizkuntza ahalkegarri gutartean hedatzen ari dutenak.

Kontura gaitezen, Arbelbidek arazo bikoitza deskribatu digu, zeren, eskualdunehosten ari den Euskal Herriaz batera, arrotzez betetzen ari den beste hori begietaratu baitigu. Alegia, orain arte odoluste edota hemorragiaz jardun badugu ere, desberdina da oraingo honetan luzatu zaigun diagnostikoa, ordezenaz mintzo baita Arbelbide. Eta, jakina, ordezena hustuketa baino larriagoa izan daiteke, besteak beste eskualdunen itzulera oztopa dezake-eta.

Arbelbidek gogor egiten du emigrazioaren kontra, eta halaxe diotso badoanari:

Badantzut, adiskidea, eta horrela mintzatzea eder bazauzu, zohazkit hirietarat eta ameriketarat eta nahi duzun tokirat, ezen zuk ez duzu gaugeroraz eskualdun odolik zainetan. Eta ez erran niri bertze tokietan ere eskuaraz mintzatuko zarela, ez erran bertze Eskual-herri bat nahi duzula itsasoz haindian asentatu; hori ez da amets bat beizik.

Hau da, argi eta garbi errieta egiten dio, esanez “utzi egin gaituzu, halandaze, ez zara gutarra, eta ez kopletan hasi”. Baina, harrigarria da “kopla” horren gaia, hain zuzen, beste Euskal Herri bat ezartzea itsasoaz haraindian. Eta pasarte horri indarra emateko-edo, Élisée Reclus geografo opsutsuaren aipu bat erantsi digu oin-ohar modura:

[...] La majorité de ceux qui s'en vont se compose des hommes le plus énergiques, la véritable élite de la nation. Dans les républiques de la Plata, où ils vont presque tous chercher fortune, leur race est destinée à se perdre, comme élément distinct, encore bien plus rapidement qu'en Europe: c'est en vain que certains patriotes eskuariens rêvent la naissance d'une nouvelle république cantabre dans les pampas de l'Amérique.

Azalpen luzea merezi du oin-oharrak. Hasteko eta behin, egilea ez da edozein. Élisée Reclus norbait da, eta gainera oso munta handiko norbait, diziplina zientifikoaren mailaraino goratu baitzuen geografia. Orobat, dibulgatzaile trebea izan zen, eta beharbada, horrexegatik ezagutu (eta erabili)



Jean Pierre Arbelbide Etxeberri (Zaro, 1841; Baiona, 1905). Hazparneko bikario, herri horretako misionistetan sartu zen, eta haien buruzagi bilakatu. Kongregazio bat eratzea nahi izan zuen, baina ez zioten baimeirik eman. Predikari eta konfessore estimatua, Baionako katedralako ohorezko kalmone izendatu zuten. Euskaltzale suharra, idazle jori eta garbia zen. Haren liburuak dira *Bokazioea edo Jainkoaren deia* (1877), *Erlisioea* (1890), eta *Igandea edo Jainoaren eguna* (1895).

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

zuen aita Arbelbidek, eta aipatu egin zuen nahiz eta Reclus anarkista agerikoa izan, eta nahiz eta 1858an Baionan Augustin Xahoren hileta-agurra egin, alegia, elizkizunik gabe hortzitako lehen euskaldunaren hobiratzean nabarmendu zen arren. Élisée Reclus-ek *Les Basques, un peuple qui s'en va* artikulua argitaratu zuen 1867an, eta izenburuak berak dioskunez, progresoak desagertzera kondenatutako Euskal Herria aurkeztu zigun, penaz blai. Artikulu horrek, Manex Goihenetxek azpimarratu duenez, garrantzi izugarria eduki izan zuen euskaldunen irudiaren eraketan orduko mundu zientifikoa; izan ere, hondar-herriaren irudia kontsokratu zuen (*peuple résiduel*), alegia, handik aurrera euskaldungoa, oso maiz, aspaldiko leinurua iraungi eta ezabatuz doan popularen irudi nostalgikoarekin begietaritzen da.

Bestalde, Reclus-en pasarteak zuzenean ez badio ere, argi ulertzen da demasekoa dela populazio-galera. Élisée Reclus-ek berak idatzi bezala, emigraturiko euskaldun frantses gehiago zegoen Hego Amerikan Frantzia baino. Areago, oin-oharraren arabera, asko eta asko izateaz aparte, badoazenak elitekoak ziren gehien bat, hots, herri honetako “lore eta argia” –Jean Etxepareren esamoldea erabiliz–, eta kemenez beteak, adinik ederrenean.

Ameriketara joanda, baina, azkartu egingo da, Reclus-en arabera, hondar-herri horren galera: Europan baino lehenago urtu eta desagertuko da arraza. Arraza esan du, berriro ikus dezakezunez. Jakina, berba hori erabili arren, Élisée Reclus ez da arrazista, badakigularik ere ez duena egungo “zuzentasun politikoa” betetzen. Alde horretatik, deigarria suertatzen da, Arbelbidek arrazari buruz barik hizkuntzaren inguruan harildu duela bere eztabaida, eta hortaz, politikoki zuzena litzateke, bere hitzak behar bezain zorrotz aztertzen baditugu behintzat.

Dena dela, nortasun etnikoaren kontserbaziorako elkarteak-eta sortu bazioren ere, egia da Ameriketara nortasunaren galera bizkortu egin zela. Esate erraz baterako, pasadizo aski ezaguna baita, Buenos Aires-ko Laurak Bat elkarteak diru-bilketa bat egin zuen Iparragirre bertsolaria Europara itzuli zedin, eta, besteak beste, kantaldi bat antolatu zuen. Euskaldun aberastu asko hurbildu ziren kontzertu horretara euron seme-alabekin batera. Ba, Iparragirrek ordurako euskaldunen himnoa bilakaturiko *Gernikako Arbola* abestu zuenean, gurasoak negar-zotinka aritu ziren deblauki, eta bien bitartean, belaunaldi gazte dotorea, euskara apenas ulertzen zuena, irribarreka hasi zen emozio horren aurrean. Alegia, gorago aita Lhandek ezarri digun prozesu horretan beste urrats bat aurreratu da: euskaldun frantsesa → euskaldun argentinari → argentinari. Iparragirrek berak ere, Euskal Herrira bakarrik itzuli zelarik, hainbat seme-alaba utzi zituen Ameriketara.

Ameriketako panpetan errepublika berria sortzearena da, nire ustez, Élisée Reclus-en oin-ohar horretako punturik deigarriena. Ez dago esan beharrik, berriro ere demaseko hemorragia onartzen ari gara inplizituki, baldin eta errepublika berri bat ezartzeko beste euskaldun joan baziren. Konturara gaitezen Reclus errepublika kantauriar batez mintzo dela, eta, oster,

Jose Mari Iparragirre bertsolaria (1820-1881). 1858ko abuztuaren 29an Baionan hartu zuen itsasontzia Buenos Aireserantz. Hango eus-



kaldunek *Biba Iparragirre* oihukatuz egin zioten ongi-otorria. Ez zen negozio-gizona eta azkenean artzain jarri zen, Uruguain, Mercedes aldean. Gitarra joaz kantatu eta ardiak zaindu: horixe zen haren bizitza, baina erraz galtzen zituen ardiak. Gero Montevideora jo zuen, eta *Gernikako Arbola* ostata zabaldu. Laster utzi zuen, eta atzera ere artzaingora itzuli zen. Oraingoa urte luzeak igaro zituen isilik eta pobre. Hil ote zen zabaldu zen. Familia ederto handitu zuen: zortzi seme-alaba eduki zituen. Buenos Airesko *Laurak Bat* elkarteak egin diru-bilketa bueltatu zen berriro Euskal Herrira 1877an, bakarrik, familia geroago ekartzeko asmoz. Ezinezko gertatu zitzaion.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

Arbelbidek “bertze Eskual-herri bat” esan digula, hau da, euskalduna dela bai, baina, ez du errepublikaren aipamenik egin, seguruenek errepublikazale ez zelako. Nolanahi, nortzuk ote ziren “bertze Eskual-herri bat [...] itsasoz haindian asentatu” nahi zuten *patriotes eskuariens* ameslari horiek?

Erantzuna ez da samurra. Orain arteko historia-liburuetan ez duzu ezer aurkituko horretaz, bilatzen hasiz gero, eta kontua da zeozer egon badagoela, nork-eta Élisée Reclus-ek berak badiosku-eta. Hau da, esku artean soil-soilik Arbelbideren aipua edukiko bagenu, hain laxoa denez erretorikotzat jo genezake beste barik, baina, frantsesezkoa, ostera, zehatza da oso, eta ez du alde horretatik zalantzarako zirrikiturik uzten. Zalantza beste alde batek datorkigu, alegia, nortzuk izan ziren delako “patriota” euskaldun horiek, zeren eta, euron oihartzuna Reclus-en belarri-xuloraino irits zedin, nire ustez ezin baitzitezkeen ilun eta anonimoak izan, ezagun eta itzal zabalekoak baino. Eta, esan gabe doa, badaukagu holako “patriota” batzuen berri eta, antza, ez ziren horrelako errepublika baten gainean mintzatu. Nortzuk izan ziren, ba, izan, horretaz aritu zirenak? Argitzeke dago kontua.

Ezaguna da, ildo horretan, galestarrek amets egiten zutela Ipar Amerikan bigarren Gales bat ezartzearekin, eta ideia hori munduko parte horretan ingelesa hartuz zihuan hegemoniagatik baztertu zutela; ondoren, 1865ean, kolonia bat ezarri zuten Argentinako Patagonian, Chubut probintzian, noizbait bertan galestar errepublika bat sortzeko itxaropenaz. Juduak ere aberri berri bat bilatzen hasi ziren, munduan zehar barreiatutako judu guztiak bertan kokatu ahal izateko, eta horrela kultura eta hizkuntza judutarra birpiztu, eta noizten zuten jazarpena ekiditeko. Ideia hori gauzatzeko asmoz, juduek era askotako proiektuak garatu zituzten, kontinente guztietan. Esaterako, hogeigarren mendearen hasieran, Erresuma Batuak lurralde autonomo bat era zezaten proposatu zien Afrikako laku handien inguruan, Ugandan, hain zuzen. Hori baino lehenagotik ere, juduak Hego Amerikarako bidea hartuta zeuden. Argentinari dagokionez, 1888an zortzi familia kokatu ziren Santa Fé probintzian, baina hurrengo urtean zortzi ehun lagun izan ziren Moïseville nekazari-kolonia eratu zutenak. Areago, 1891n Maurice de Hirsch baroiak Argentina aukeratu zuen, judu errusiar eta poloniarren arazo larriak konpontzeko; gogoratu *pogrom* odoltsuak. Denbora laburrean ehun milaka juduz populatu nahi zuen eremu zabal bat, eta autonomia lortu. Helburu horrekin, bi milioi libera esterlinako kapitala zuen konpainia sortu zuen. 1896an hil arte, baroiaren kolonizaziorako konpainiak 200.619 hektarea eskuratu zituen hiru probintzian, eta bost kolonia antolatu: denetara 910 etxalde eta 6757 arima. Mende-erdi geroago, Bigarren Mundu-Gerlaren bezperatan, konpainiak 617.468 hektarea zituen, hamahiru koloniatan banatuta. Saio hauen berri izanik, Theodor Herzl sionismoaren aitak, Palestinan judu-estatua ezin sortzekotan alternatiba gisa Argentinako lurra aipatu zituen, bere 1895eko *Der Judenstaat* liburuan. Nolanahi, nekazari-eremuetan kokaturiko judu-kopururik handiena 1925ean gertatu zen, 33.135 arima, eta geroztik kopuru hori beherantz joan da etengabe, hainbat krisi tarteko. Kolonizazioaren mendeurrenean judu gutxitxo omen zeuden, euren lur-eremu gehienak kontserbatu arren.

Dirudienek, Lezo Urreiztieta (1907-1981) “pirata” santurtziarrak ere “bertze Eskual-herri bat [...] itsasoz haindian” eratu nahi izan zuen, 36ko

Gerlaren ostean, baina, bere ametsa uharte batean kokatu zuen. Kontua honelaxe aipatu du Martin Ugaldek, hain zuzen ere Urreiztietaren suhiak:

Beti izan zuen, beste ametsen artean, don Luis Arana Goiri lagun zuela, euskaldun guztiak irla batean bildu eta Euskadi berri bat sortzeko ametsa.

Bere lagunen bitartez izan zuen Mexiko-ko Presidente zen Cárdena-sekin elkarrizketa, eta basahuntz eta antzeko piztiaz josia zegoen eta lezok berak aukeratutako irla bat euskaldunei opa nahi zien, han Askatsunean bizi zitezen. Argazkiak ere gordetzen zituen.

Dena esateko, zehaztasun gehiago izatea gustatuko litzaidake Urreiztietaren uharte horren aipamenean, esate baterako, zein irla zen, zein azaleratakoa, basahuntzez gainera zeintzuk baliagai dituen bertan bizi ahal izateko, Urreiztietak zenbat euskaldun kokatzea pentsatu zuen, gogoan euskaldunak ala euzkotarrak zituen, eta abar. Ez jakitearren, ez dakigu ezta Karibekoa zen ala Pazifikokoa, zorioneko uhartea: zeuk non gurago? Badi-rudi Sabino Aranak berak ere inoiz, 1894an, Pazifikoko aukera egin zuela, *nosotros, los euskerianos, debemos saber que la Patria se mide por la raza, la historia, las leyes, las costumbres, el carácter y la lengua, y que esta Euskeria nuestra podría ser tan Euskeria, asentada en las estribaciones occidentales del Pirineo y en el Golfo de Bizcaya, como trasladada a una isla del Pacífico o a las costas de los Grandes Lagos africanos*, baina, teoriarik behintzat, atek itxi barik bestelako posibilitateei. Nolanahi, neurri batean harrigarria begitandu zait, batetik, Aranak zein atxikimendu gutxi erakutsi digun Euskal Herriko geografia errealarari doakiola, edota, nahiago baduzu, zein axola gutxi lurraldetasuna dela-eta, eta, bestalde, aberri berri baterako panpetako aukera ez aipatzea, jakinik ordurako euskaldunetz beterik zegoela. Dena dela, ez da horren harrigarria panpetakoa aipatu barik uztea, Sabino Aranarena da-eta egun berean eta aldizkari berean argitaratutako ondoko lerrokada anticolonialista, *Mientras existan familias indígenas en los archipiélagos y en los extensísimos territorios del continente americano, a ellas pertenecen unos y otros y no a los europeos, que se los han usurpado a aquellas pobres gentes*, non, inplizituki (euskaldunak ere europarrak dira-eta), guztiz arbuia garritzat jotzen baitu euskaldunen zabalkundea.

Ametsak amets, Arbelbidek ez zuen, antza, inolako esperantzarik panpetako errepublika euskaldun horretan, eta joan-ezjoan zalantzan dagoenari honelaxe diotso:

Beha zakozu herritik kampo dohan gizon horri: Itsasoa hartzen du, untxiak badarama Indietarat. Bere sor-tokia agerian eta bichtan dueno, maiz gibelera behatzen du, bihotzak min egiten dio, nigarra dario begietarik, gogo guziak etcheko alderat jauzi egiten derauko.

Bainan herriko mendiak itzaliz geroz, ez duenean gehiago lurrik ikhusten ahal, nigarrak chukhatzen dire, barnea deskantsatzen da. Eta handik harat gizon horrek Indietako alderat itzultzen du bere bihotza; gogorik ez du gehiago hantgotzat beizik; amets guziak dohan tokirat landatuak ditu.

Eta ni beldur naiz hola-hola gerta dakion Eskual-herriari: Bere mintzaya atchikiren dueno, behatuko da bethi bere arbasoen irakaspeneri eta hetan tieso egonen; bainan joanago eta sartzenago dohala mintzaya arrotzetan, ai geroztik akhabo izanen da laster Eskual-herriaz!

Hau da, Ameriketako errepublika (edo dena-delakoa) euskaldunik ez, eta Euskal Herria akabo: horixe da Arbelbideren begien aurrean itxuratu den etorkizun goibela. Eta hemorragia, badakigunez, ez zen gelditu. Gorago aipatu bezala, Etxepare anaiak odol-tanta batzuk izan ziren, huts-hutsean. Isuri etengabe horretan, halaber, topo egingo dugu Aldudeko medikuaren amarekin, aitak egin zuen bezala. Izan ere, Euskal Herrira funts erostera egindako bisitaldi labur batetik bueltan, Jean Etxepareren aita-beharrak Gratianne Bidegorri gaztea (1858-1914) aurkitu zuen Argentinarako itsasontzian. Gratiannek Bidarrain utzi zituen guraso maizterrak eta ahizpa, eta François nebarekin batera zihoan Ameriketarantz.

ITXARO ETA JOSEBA

Joseba Sarrionandiaren *Hnuy illa nyba majah yaboo* irakurri nuenean poema eta ahapaldi eder asko aurkitu nituen bertan, euretariako batzuk gogokoak benetan, baina, orrialde bi egon ziren, besteren gaintik hunkigarri suertatu zitzaizkidanak. Tolestu egin nuen bien goiko ertza, pixkatxo bat bazterretik, horrela eginez erraz lokalizatu eta behin eta berriro irakurri ahal izateko. Bata 34. orrialdeko poema da, *Mugaz bestaldera doazenak*. Besteak ez du zerikusirik hemen kontatu gura dudanagaz; bego lo, beraz, hurrengo batera arte.

Kontua da 34. orrialdeko poema, geroago, Sarrik berak errezitatuta entzun dugula *Hau da ene ondasun guzia* bilduman, eta Josebaren ahotsaz aditzeak handitu egin dit hasierako lilura hori. Hurbileko ahots horrek sinesgarritasun handiagoa damaio, horixe uste dut behintzat, poemak berez darian egiari. Honelaxe diosku:

Hegoaizea muga aldeko ibarretan,
kurriloak hegoalderuntz hegatzez.
Españialat juaiteko elhürrik
eztük bortian...

Ilunabarrez, kargadoreak errebisatu eta
elkarri suertea emanez abiatu dira
mendiko estartan gora Hegoalderuntz,
itzulera zitarik gabe,
bizitza luzatuko zaien batere
zihurtasunik gabe.

Zer ederra litzatekeen muga-
kontrabandotik bizitzea;
bazter miresgarriok pasatuala azkenekoz

bezala ez begiratzeko.
 Zer zoriontsua zatekeen
 euskaldun sortzea
 mundua Pierre Loti-ren liburu
 balitz.

Lehen aldiz irakurri nuenetik poema horretan azalpen bat dagoela pentsatu izan dut, hain zuzen Sarrik bere buruari ematen dion azalpena edota geuri luzatzen diguna, bere ekintzaile-bidea ulergarri gerta dakigun. Bestelako arrazoi korapilotsuagoak alde batera utzita sinple-sinpleki adierazten digu zergatik dabilen sasi-pean: ba, mundua, Euskal Herria, Pierre Loti-ren liburukoa bezain zoriontsua egin nahi duelako-edo.

Zer zoriontsua zatekeen euskaldun sortzea mundua Pierre Loti-ren liburu balitz. Hor klabe bat dagoela begitandu zait beti, eta horrexegatik irakurri nuen Pierre Loti-ren liburu, pentsatuz irakurketa horrek argituko zidala zerk bultza zezakeen Joseba Sarrionandia “mugaz bestaldera”.

Zer esanik ez, *Ramuntcho* da Pierre Loti-ren zorioneko liburu hori. Frantsesezko eleberrirakastatsatu hori 1897an argitaratu zen, eta hortik aurrera Ramuntxo izan da euskaldun arketipikoa. Pierre Loti-k beste inork baino hobeto atzeman omen zuen euskal arima, euskalduntasunaren muina, eta, antza, maisuki etzanarazi zuen letraz letra liburu horretan. Estereotipo horrek, Jon Casenavek argiro azaldu duenez, aurrera egin zuen kanpotarren artean eta oso hedatuta egon da eta, beharbada, dago; baina bertokoez ere ontzat jo zuten hein batean, Iparraldeko XX. mende-hasierako idazle batzuen obran suma daitekeenez. Sarrionandiak aipatu kontrabando eta bazter miresgarriez gainera, beste makina bat topiko aurkituko dituzu liburuan barreiatuta: pilota, euskaldunen aspaldikotasuna, taberna, euskaldunen fedea, etxondoarekiko atxikimendua, edota irrintzia, besteak beste. Eta bertoko iruzkingileak bat datoz irudi horrekin: Euskal Herriaren ikuspegi ederra aurkezten du Loti-k, baina axalezkoa ezin bestean. Edo, beste era batera adierazita, giroaren deskribapenekin asmatu zuelarik ere, protagonisten nortasuna itzuri zitzaion. Ez zuen benetakotasunik lortu euskaldunaren izaera islatzean. Paperezkoak egin zituen protagonistak, ez hezur-haragitzoak. Horixe ei da estereotipo guztiekin gertatzen dena.

Edozelan ere, *Ramuntcho* liburuak erakusten duen Euskal Herria, begirada nostalgiko batek ikusiko lukeena da, hain zuzen, XIX. mendearan amaieran Euskal Herriari so egiteko nagusitu zena. Aurreko atalean esan dugunez, Élisée Reclus-ek kanoniko bihurtu zuen desagertzer doan herriaren irudia, eta hortik aurrera irmotu egin zen. Hemeretzigarren mendean zehar, dena dela, euskaldunaren irudiak bilakaera nabarmena jasan zuen. Mende-hasieran euskaldunaren ikuspegi mitikoa zabaldu zen, batez ere euskaldunaren jatorriari buruzko misterioa dela-eta.

Bainan eskuara nondik atheratua den, nor eta zer ziren lehenbiziko Euskaldunak? Oraiko mintzaya hau bera zutenez, ala bertzelako bat gure lehen arbasoek, ez dakigu. Badakitela uste dutenak badire. Batzuek erdi



Pierre Loti. Horixe da Julien Viaud (1850-1923) idazle frantsesaren ezizena. Itsas armadako ofiziala izanik, makina bat bidaiak egin zituen, eta izan ere urruneko lurraldeetan kokatzen zituen bere eleberriak, dela Konstantinoplan (*Aziyadé*, 1876), dela Tahitin (*Le mariage de Loti*, 1880), dela Islandian (*Pêcheur d'Islande*, 1886), dela Japonian (*Madame Chrysanthème*, 1887). Nolanahi, 1891n Euskal Herrira etorri zen, Bida-soako muga zaintzen zuen *Javelot* ontziaren kapitaina izendatu zutenean, eta Euskal Herria aurreko lurraldeak bezain exotiko begitandu zitzaion. *Ramuntcho* (1897) hor kokatu zuen. Frantses Akademiako kide hautatu zuten 1891n. Hendaian hil zen.

(ARG.: L'ILLUSTRATION, 3745 ZBK., 1914).

trufaz bezala, bertzek espantu egiteko, erraten dute: *Adam* eta *Eba* eskuaraz mintzo zirela.

Bertze batzuek diote *Babeleko* dorrearen egileari mintzoa makhurtu eta nahasi arte, gizon guzien mintzoa Eskuara zela: *Omen* hortaz ez dezakegu hemen deusik erran, baizik ere hola erraten dutela zombaitek, egia bada eta ez bada. Guk dakiguna da aspaldi-aspaldiko mintzaya zaharra dela gutartean eskuara.

Aita Arbelbidek idatzi pasarte horrek nahikoa ondo erakusten digu zernolako hipotesiak plazaratu ziren misterioa argitu nahian. Baina, XIX. mendeak aurrera egin ahala, besteak beste emigrazioaren handiak giroa aldatu zuen, alegia, ilundu egin zuen, optimismoa pesimismo kutsakor bilakatu zen, eta lehengo begitarte eguzkitsuak, lehengo aurkiak, badu bere ifrentzua, bere begitarte ilunabartsua. Hau da, mende-hasierako ikuspegi mitiko hori, edota epikoa eta heroikoa, mendearen azken aldera beste ikuspegi krepuskular eta agoniko batekin nahastuko zaigu. Jon Casenaveren arabera, ikuspegi biak elkarrekin bizi dira XIX. mendearen bukaeran. Hor kokatu behar da *Ramuntcho*.

Baina, gaurko irakurlearentzat eleberriko xehetasunik harrigarriena da, Jon Casenavek dioskunez, liburuko inork ez duela lanik egiten, jendea jostetan eta atsedenetan bizi dela hastetik bururaino, pilotan, dantzan edota kontrabandoan arituz. Eta, jakina, “neke eta izerdietarik kanpo erakutsia den Euskal Herri” hori, Lotilandia dei genezakeen hori, ez da benetakoa inolaz ere, jendeak, orduan orain bezalaxe, bekokiko izerdiarekin irabazten baitzuen ogia. Halaber, ezin dugu ahaztu orduko giro goibel itogarria, ezin arnastuzkoa. Badakizu, negar-herri edo malko-ibarrarena eta abar. Itxaro Bordaren hitzetan esateko:

herri hau aipatzen diguten aldi oroz
elizetako
barne mukuru beteak erakusten dizkigute,
emazteek behean
“zuk kentzen duzu munduko bekatua”
eta gizonen galerietan
“urrikal jauna”
kantatzen dutela.
“emaguzu bakea” deiadarkatze
bakoitzean irri bat hiltzen da
hemengo jendeen ezpainetan.

Irriak banaka-banaka hiltzen direlarik, nork izanen du gogoko malko-ibar horretan bizitzea, zeinek negar-herri horretan, azken batean nork ez du Ameriketara edo beste edonora hanka egiteko tentaldirik edukiko. Eta, izatez, euskaldun askok eta askok ihesa aukeratu zuten, sorterrri hits eta gogai-karritik aldentzea, irria ezpainetan.

Beraz, ba, leitu egin nuen Pierre Loti-ren eleberria, eta, egia esateko, ez zen nire gustukoa suertatu. Ez dut uste kontrako aurreiritziren baten erruz izan zenik, zeren, aipatu bezala, esperantzaz beterik irakurri bainuen, alegia,

adi-adi eta Sarrik agindutako mundu zoriontsua aurkitu guran. Baina, topikoak topiko beti, dirudienez. Zertaz ohartu ginen, Espainiako *Carmen* ospetsuarena azkenean irakurri genuenean? Bada, espainiarrik espainiarrenak, espainiar arketipikoak, Elizondo eta Etxalarreko euskaldunak direla, hor jaiok ziren-eta Carmen bera eta Jose Lizarrabengoa, kriskitinak etengabe jotzen ari diren espainolen irudi unibertsalaren paperezko ereduak. Modu berean-edo, ez dira ez berdinak eta ez antzekoak ere, *Ramuntchon* aurkitu nituen euskaldunak eta nik neuk lehenagotik ezagutzen ditudan horiek. Noski, azaldu egin beharko nuke nire begietan zertan datzan multzo bi horien arteko aldea. Ataza ez da erraza, baina adibide batekin saiaturko naiz. Irakurtzen hasi eta lehenengo orrialdean bertan, udazkenaren deskribapen ezinago nostalgiko batekin egin nuen topo, eta han jakin nuen Larrun mendi inguruetakoko gailurretako pagoak eta arteak hostoak galtzen ari zirela. Atoan gelditu nintzen flashatuta, baina ez horrenbeste arteei udazkenean hostoak erortzearena irakurtzearen (gogoratuz arteak zuhaitz hostoiraunkorrek direla, eta, hortaz, beraiei udazkena bost axola zaiela), baizik eta konturatuta arteak eurak deskribapen horretan sobera daudela. Izan ere, inguru horietan, arteak barik, haritzak ikusiko dituzu, ezer ikustekotan. Hala ere, arteak aurkituko dituzu lehen orrialdean, eta arteak bigarrenean, eta seigarrenean, eta arteak beste hainbat eta hainbatetan. Noski, nire *Ramuntchon* hainbeste arte agertzearen erantzukizuna ez da Pierre Lotirena, berak *chêne* idatzi baitzuen frantsesez. Errua, inorena izatekotan, neurea izan daiteke gaztelaniazko itzulpena irakurtzearen, edo itzultzailearena, ez egiaztatzearen berba polisemiko horren esangura kasu honetan haritza dela. Aitagarrebak gaztelaniazko beste bertsio bat irakurri du, Emilia Pardo Bazán-ek itzulitakoa, eta horretan ere arteak dira nagusi. Zer adierazi nahi izan dut xehetasun periferiko horrekin? Ba, eleberriko euskaldunak, beharbada, arteak bezalaxe agertu direla lekuz kanpo, eta badaezpada jatorrizko liburuan begiratu beharko (ge)nukeela jakiteko Pierre Loti-k ea benetan euskaldunetaz idatzi zuen, ea, esan, *basques* dioen, ala euskaldunak hor egotea itzulpenaren akats bat ote den, izan ere, beste hainbat herritako gizakiak ere kabituko lirarteke Loti-ren tipo horien barruan, eta kabitua, gainera, neuk ezagutzen ditudan euskaldun asko baino hobeto.

Ramuntcho irakurritakoan, uste dut ezin izan dudala topatu Joseba Sarrionandia liluratu zuen hura, mugaz bestaldera, sasipera, erakarri zuena. Neure begiek ez dute ezer hain miresgarririk ikusi. Eta ez dut uste Sarri topikoarekin konformatuko zenik. Bestalde, ez dut uste Pierre Loti-ren liburuarena baliabide erretoriko gisa erabiliko zuenik. Ez dakit zer pentsatu. *Mugaz bestaldera doazenak* poema ederra da, hunkituta nauka, baina ezin dut ulertu.

Zer zoriontsua zatekeen euskaldun sortzea mundua Pierre Loti-ren liburu balitz. Ezezkoan nago. *Ramuntchok* biziki ontsa zekien, barru-barrutik, Euskal Herria ez dela jostalekua, badaki Euskal Herria inondik ere ez dela Lotilandia, eta Ameriketara doa amaieran, batzuen Euskal Herri zerutiar hori bertan utzita. Kontraesanaz kontura gaitezen: *Ramuntcho* bera ere Ameriketara ihes: Euskal Herritik eskapaka euskaldunik euskaldunena!

MUNDURATZEKO LEKU BAT

Jean Etxepare, Aldudeko medikua eta idazle paregabea izango dena, Mar Chiquitan munduratu zuten, Buenos Airesko probintzian, 1877ko urriaren 30ean, goizeko hamaiketan.

Aitak orduan 35 urte zituen. Iturri dokumentalak ez datoz bat amaren adinaz, eta horrela, Piarres Lafittek argitaratutako bataio-agiriaren arabera 23 urtekoa zen, baina Jon Casenavek erakutsi jaiotza-heriotza urteak zuzenak badira, Gratianne Bidegorrik 19 urte zeuzkan. Nolanahi, umea ez zuten hurrengo urteko martxoaren hamalaura arte bataiatu. Agirian irakur daitekeenez, “Juan Dambouriana” izan zen aitabitxi, Espainian jaioa eta 21 urtekoa, eta amabitxia “Jeanne Etchepare”, Frantzian jaioa eta 27koa.

Horraino ezagutzen diren datuak. Dena dela, *Ameriketako orhoitzapenak* utzi zizkigun Etxeparek berak, han bizi izandako umezaroko jazorune single batzuk gertu-gertutik azalduz dozena bat orrialdetan zehar. Kontakizun autobiografiko horretan jende gutxi agertzen da, baina ikusi lerroen artean erdi galduta zer dioskun: “...gure etxetik urrunxago ezkondua zen aitaren koinat batek. [...] ixiltzerik etzuen osaba haren...”. Alegia, esaten ari zaigu inguruetan aitaren arreba ere bizi zela. Nago, arreba aurreko pasarteko “Jeanne Etchepare” hori izango dela, eta, era berean, koinat-osaba berbatuna “Juan Dambouriana”, baina ez dut inon topatu horren egiaztapenik.

Hemeretzigarren mendeko amaieran Mar Chiquita-ko Partiduak 4500 biztanle zituen, 3118 km²-tan banatuta, baina lurralde osoan ez zegoen herririk. Panpetako paisaia utzi zuenetik denbora luzea iragan arren, hogeita bost urte gutxi gorabehera, hangoa ederto gogoratzen duela diosku Etxeparek, “ez da deus garbiagorik ene buruan. [...] Gogoia bethea daukat orduko zerez”. Ikusi, bada, zelako lurraldean joan ziren Aldudeko medikua izango denaren haurtzaroko lehen urteak, hain zuzen, etxekoentzat orduan Juancito –*Kuanzito* esaten zioten etxekoek– zenaren lehen urteak:

Begiz ikus ahal urrun hedatzen zen zelhaia, belharrez musker gizen, han hemenka bizkitartean pentoka larrutuño batzuez titatua. Zeru aphalt urdin batek leherturik bezala zaukan; odaiertzean, urrutirat, ukurtuz haren ganat jausten zela iduri baitzuen. Nun nahi burua goiti zindezan, erdiz erdi aurkitzen zinuen iguzkia, zabal, xuri, dixtirantarekin lilluragarrri, xipiltzeko sapa zariola.

Etxepareren oroitzapen xumeen arabera, “etxe luze aphalt bat” zeukaten, “lastoz estalia, bi ixurkirekin; sahetsak beltz, ihia abere ongarriarekin gogortuz eginak”. Etxe ziztrin horretatik zenbait urratsetara, eskorta zegoen, “burdin hariz eta paxet gora batzuez hetsirik, barrio ttipia, zaldiena; zaldi basa xehe andana han zagon, ardura gizonak, zalthuts igan eta, handik baitzera-matzaten azpian putarka”. Horrez gainera, bazuten ere handik hurbil “barrio handia”, ardientzat, eta “etxetik urrunxago ginduen zipua, zabal eta barna. Edateko ala zerbitzuko ura handik ginaukan. Noiztenka, soka bat gerrian estekaturik, hartarik dilingo, gizon batzu zolarat bazoazkion, ura zer heinetan zen ikertzeko arabez”. Horrelakoxea zen, beraz, aitaren arrantxoa.



Panpetako arrantxa eta zaldien eskorta, 1866. urteko argazkietan. Irudiok bat datoz erabat, Jean Etxeparek bere oroitzapenetan kontatu duenarekin: ezin argiago begietaraten dizkigute hango bizi-baldintza gogorak.

(ARG.: E. GONNET).

Ez digu aitaren deskribapen fisiko zehatzik utzi, baina bai hainbat zertzelada, aita “izugarria” itxuratzen dutenak:

[...] ez baitezaket erran nolakoa zen begitartez ala trakaz. Ardurenik lanean ari zen nunbait, bere aneia eta sehiekin.

Haren beldur gaitza nuen. Arras goizik aditua bide nakon haurrer dagola ixilik egoitea jende larrien aitzinean, guziz jateko tenorean; ezen, urrunerat hautemaiten nuen ber, ixilik jartzen nintzan, erdi ahatge, erdi izitua. Behatzera ere ez nintzoken ausarta. Hain barna sarthua ukan dut zainetan, ttipi danik, aitaren alderateko beldur hori non, gizondu ta, jarraiki baitzaut, halako uzkur eta, zer nahitarat abia nindadien, huts egiteko ikhara bat jauzarazten zaundala...

Horrelakoen zerrenda luze samarra amaitutakoan, Etxeparek “holako zerbeitetarik sorthua bide zen aitarendako naukan beldur izigarria” erantsi du laburtuz-edo. Aita izugarria zen, bai, baina dirudienez, bai semearekin eta bai mundu guztiarekin, dela sei hilabete lanean eduki ostean bidali egin zuen emaztearen neba gaztearekin, dela herriko jendearekin, dela bere artzainekin –“etzuelarik bizkitartean haukiekin elherik batere”–, dela zakurrakin –“Amari aditua nakon, bertzalde, berdin gogorra zela zakurrentzat, hotarik baitzaukan andana hilik, alferrak zirelakotz edo hatzemanik izanak ardien ausikika meskaratzen”–.

Aita zera baino gogorragoa izan arren, badirudi ez zuela semea astintzen: “haur zotz izana gatik, joiten othe ninduenez... baditeke, bainan ez dut gogoan”. Dena dela, aitaren irudi zakar hori are eta zakarrago bihur dezake jakiteak, sakelatik tximista bezala errebolberra atereaz tiro batez hil zuela Garibaldi, umearen artzain-txakurrik maiteena, sabela zulaturik: “bizia ordu berean nihauk galtzen nuela iduritu zitzautan”. Izan ere, Etxeparek oroitzapenen lehenagoko lerroetan kontatua digu zelako une goxoak bizi izan zituen Garibaldirekin batera ehiztarietara jolasten. Edozelan ere, *Ameriketako orboitzapenak* irakurketaren amaieran berriro egingo duzu topo armen erabilera arruntarekin:

Gogoan biziki barna sarthua daukat egun batez ardien barrioaren erdian ezarri zutela barrika bat xutik, eta hari, etxearen sahetsetik, aita bertze zenbeitekin arizan zela revolverraz tiroka, azkenekotz alde orotarik zilo gelditu baitzen. Geroztik bethi orhoit ere niz orduan aditurik hitz hauk: “behar dugu ari *blanquian*”.

Aita bizkitartean ez da orhoit. Gehiago dena, dio ezetz.

Ez dut bada, hurrez geroz, behinere ikusi ara hartako tirokarik.

Jakina, pasarte horretan ezer espliziturik agertzen ez bada ere, errebolberraren kontu hori Catriel buruzagiaren indiarrekin lotu beharko genuke, zeren eta, lehenago baten Catriel buruzagia Rosas jeneralarekin batera gainerako indiarren kontra aritu bazen ere, gerora etsai bihurtu baitzen sasoi bateko aliatua. Hau da, Salado ibaitik hegoalderanzko lurraldea tarteka-tarteka benetan arriskutsua izaten zen; mugalde zabal hori ez zen batere egonkorra, eta gainera zenbat eta hegoalderago hainbat eta lanjerosago, panpa osoa indiarrez zipriztinduta zegoen-eta. Catriel buruzagiaren indiarrek, gehien bat, Azul eta Tandil inguruan kokatuta zeuden, eta euron mehatxua inguru osoan zabalduko zen. Horrenbestez, Etxeparetarrak ere mugalariak izan ziren, pionieroak artean indiarrez “garbitu” gabeko mugalde horretan, eta, *western*etan ikusi izan ohi dugunez, prestatu egingo ziren, edozein erasoren aurrean gertu egoteko, indiarrena-edo. Horrexegatik izango bide zen, “behar dugu ari *blanquian*” hori.

Alabaina, Lavalle jeneralak Juan José Catriel eta beste buruzagi batzuk garaitu zituen 1876an Paragüil Lakuko batailan, Olavarría hiriaren hegomendebaldean, eta indiarrek panpa laga behar izan zuten betirako. Hor abiatu omen zen indiarren atzera egite etengabe hori, Argentina Hego Amerikako herririk zuriena bilakatuko zuena. Dena dela, 1879ko dekretu batek General Conesa izeneko kolonia eratu zuen Negro ibaiaren urbazterrean, Patagonia aldean, Catriel buruzagiaren tribu-hondarrentzat. Kontua da, Buenos Airesko probintzia 1855ean 88.667 km²-koa izatetik 1890ean 311.196 km² edukitzera pasatu zela, indiarren kontrako ondoz ondoko kanpaina militar odoltsu batzuen ondorioz. Zer esanik ez, indiarrekiko mugaldea urrunduta inprobableago bihurtuko zen eraso baten arriskua, eta, hortaz, Jean Etxepare 1877an jaio zenerako, erreala bainoago birtuala izango zen indiarren presentzia, eta bai mehatxua ere. Alabaina, Catriel buruzagiaren gomutak denbora luzez iraungo zuen mugalarien gogoan, eta bai iraungo ere, aldi berean, errebolberrek mugalarien sakeletan. Horrexegatik egingo zuten *blanquian* Juancitoren begi harrituen aurrean.

Beraz, ba, aitak ez ei zuen lana baizik maite. Piarres Lafittek gogorazten digu, bestalde, gizon latz eta zaildu hori ere behinola umea izan zela Ibarran, eta han ikusi zuela san Mixel Garikoitz (1797-1863), eta areago, mezan lagunduko zuela seguruenez. Egia da, Mieyaa-k dakarrenez, Mixel Garikoitzek zenbait bisitaldi egin zituela sorterrira, hala nola, 1825eko azaroan, 1841eko urrian, 1858ko azaroan eta 1859ko urtarrilean. Ezin ahantzizkoa suertatuko zitzaion Juancitoren aitari, Lafitteren iritziz, herritar santua.

Aita garratz idorraren aurreko geriza, zorionez, ama gazteak eskaintzen zion, eta Juancito haren hegapean babesten zen:

Beharrik han bainuen ama; bertzenaz, lazturan ereman nintuzken nere gau egunak. Geroztik, o zenbat urrikari ukan ditudan amarik gabe ttipi danik gelditu diren haurrak!...

Ene ama maite, ene haurtasuneko argi eta gozo bakarra, bethi ikusten dut etxe sahetsean xutik, goizarekin, xuhailez jauntzia, besoak ukondoraino agerian, eskuen artean oihal marruskatzen ari, aitzinean bi heraitz sardekadunen gainean zaukan aska baten barnerat ixurkina erortzerat uzten zuela.

[...]

Elhe emaiten zaundan amak, irriño batek arraitzen zakolarik bere begitarte gazte pollita, ahoko sendoak lerro lerro agerian. Nexkato larri bat zitzautan, bainan ona ene alderat ezin gehiago eta, bethi maldatzen ninduelakotz, halako herabe batekin nitaz gorago naukana.

Halaber, nahiz eta ondoegi ez gogoratu zelan ikasi zuen, bizi-bizirik atxiki du bere gogoan aspaldian amak irakatsitako errezua:

Amak belhaunikarazten ohi ninduen –noiz, nun, ez nakike– eta, bi eskuak ahurraz elgarri ezarririk, erranarazten zaundan hitzez hitz othoitzen hau, oraino aditzen baitut:

–“Jinko maitia, egizu nitarik mutiko perestu bat”.

Eta, Piarres Lafitteren esanean, hil arte iraun zion prestu izateko xede horrek. Lafittek dioskunez, Aldudeko medikua mundu honetan bizi zeno, egiaren eta zuzentasunaren ondotik ibili zen, egarrituta, tematuta, erdi-etsituta, ilunbeka eta haztaka.

PELUDOAREN HATZETAN

Juancitok ehizan eman omen zituen Mar Chiquita-ko egunak, bakar-bakarrik. Behintzat horixe kontatu digu Jean Etxepare helduak bere Ameriketako oroitzapenetan:

Goizarekin ateratzen nintzan bada egun guzietz, eta joaiten etxetik urrun, pala bat bizkarrean, [...]

Ihizirat nindoan, oixtian aiphatu pentoka larrutu hetarik batetara, nehoi (ez amari ere) erran gabe hargatik.

Peludoaren ihizirat. Bi urtez ez dut behar bada egun bat huts egin, joaitetik; ez oren bat iragan peludo bat edo bertze nere eskuz hilen nuela uste ukan gabe.

Bi urtez egunero ehizara joan bazen, horrek esan nahi du gutxi gorabehera lau urte zituelarik hasi zela jardun ezkutuko horretan, eta zer eta peludoaren ehizean. Baina, zein ihizi-mota ote da peludoa? Etxeparek honelaxe deskribatu digu patari hori:

Erbiairen heineko ihiziño bat duzu peludoa, lurpean satorra bezala bizi dena. Bizkarra eta sahetsak azal lodi batek gordetzen daizko, balak ere aldeanbertze zila ez dezakena. Zenbat aldiz ez nuen aditua, haren hiltzekotz tiroaz gibel aldetik behar dela hatzeman; edo, ohantzetik hurbil haren beha egon ondoan geldirik, han sartzean buztanetik lotzen ahal bazako, esku ezkeraz azkarki atxikiz buztana, ipurdi xilotik kanitaz ondoraino sarraskitu.

Dagoeneko konturatu garenez, peludo delakoa armadilo-mota bat da. Izatez, armadiloak hogeit bat espezie dira, Magallaes itsasertzetik Estatu



Chaetophractus villosus peludoa. Luzeraz 40 bat cm-koa eta kilo bi ingurukoa izaten da espezie honetako animalia heldua. Espezieen arabera, armadiloen halakreta ilebakoia edo iletsua izan daiteke, eta kasu honetan espeziearen izen arrunta ezaugarri horri dagokio. Izatez, armadiloek gliptodonteak gogora erazten dituzte itxuraz, alegia, Pleistozenoaren amaieran suntsitutako ugaztun halakretadun erraldoiak, eta dirudienez berorik ahaidetuta egon litezke.

(ARG.: AMERICA ZOO).

Batuetako hegoalderaino banatuta daudenak. Bestelako izen bernakularrak eduki arren (kasurako kirkintxo, kusuko edota tatu), lehen konkistatzaileek armadilo hitza erabili zuten, xafla gogorrez babestutako animalia horiek izendatzeko, zeren, armadiloak halakret baten barruan gotortuta zeudela baitzirudien, konkistatzaileak eurak bezala. Armadiloen larrua nabarmenki eraldatuta dago, gorputza eta soin-adarrak biltzen dituen oskola itxuratuz. Etxeparearen esanean balek ere zula ez dezaketen oskol hori, hainbat atalez osoturik dago: ezkutu zabal bi, bata aurrean eta bestea atzean, eta tartean xafla gerriko-itxuradunak; berauen kopurua espeziez espezie aldatzen da. Ezkutu eta xaflen arteko larruari esker lortzen da oskolaren zalutasuna, eta, izan ere, armadiloak kiribildu egin daitezke neurri batean. Burua ere ezkutu baten babespean dago, eta buztana eraztun giltzatuen segida baten baitan. Bestalde, garezurra zapala da eta behe-baraila luzatua. Armadiloak Hego Amerikako lurralde irekietan banatuta daude gehien bat, panpa eta sabanetan, baina badira basokoak ere. Zulatzaile eta induskatzaile ahaltsoak izanik, lurpeko gordezuloetan bizi dira.

Armadiloak Dasypodidae familian bilduta daude, eta zortzi generotan sailkatuta. Peludoak, alegia, armadilo iletsuak *–hairy armadillos–*, *Chaetophractus* generoan daude, eta, dirudienez, hiru espezie dira: *Chaetophractus vellerosus*, *C. nationi* eta *C. villosus*. Genero horretako armadiloen oskoleko xaflazko aldeak 18 zirrinda dauzka, eta horietariko 7-8 higikor, baina, gaine-rako armadiloek baino ile-ondo gehiago edukitzea da, euren ezaugarriarik behinena, izena eman diena. Ile-ondo horiek xaflen artean agertzen dira, eta bai sabelaldetik ere. Hiru espezieon banaketa geografikoa ikusita, badirudi *Chaetophractus villosus* dela gure Juancitok zelan edo halan harrapatu nahi zuena; Paraguai eta Boliviako hegoaldean Argentinako erdialderaino zabalduta dago.

Ilhuntzetan, amak erakutsirik, ikusten ohi nintuen metaka jalgitzen tegietarik. Belharra segaz bezala bazeramaten beren hortz xeheen artean; non ephe laburrik barnean, hemengo pentze handi baten eremua garbitua baitzuten. Tiroka nundik uxa zitzaizketen jostatzen ziren maiz artzainak, bainan alferretan.

Etxeparearen pasarte irakurritz gero, badirudi peludoa herbiboro ezin ase delako, baina iturri bibliografikoen arabera, *Chaetophractus villosus* omniboroa da, intsektuak, ornogabeak, muskerrak, suge txikiak eta karraskariak jaten dituenak, eta bai haratustela ere. Landareak bere janariaren erdia izatera iritsi daitezke, baina neguan soilik. Elikatzeko “hortz xeheak” dituela adierazi digu Etxeparek, baina oraingoz ez dugu ezer azalduko armadiloen hortzen gainean: geroago etorriko da horretarako une aproposa. Bestalde, aurreko pasarte “ilhuntzetan” “metaka” “tegiatik” jalgitzen direla irakurri dugu, eta “tiroka” uxatu arren alferrik zela. Horiek guztiak bat datoz, neurri batean, bibliografiak dioskunarekin. Batetik, eguzki bortitza ekidinez gaueko animaliak dira, areago oraindik uda beroan, “xipiltzeko sapa” denean. Bestalde, gordelekuetan bizitzearena arrazoi berberetatik izan daiteke, baina, horrez gainera, oso egokia suertatzen da harrapakariengandik

babesteko, eta bai, aldi berean, harrak eta zomorroak bilatu eta jateko. Azkenik, oso-oso ugari zirela diosku Juancitoren gomutak, eta nahiz eta tiroka ibili, artzainek ezin zutela ezer egin haien kopuru handiaren aurka. Gaur egun kontua oso bestelakoa da, eta nekazaritza zabaldu den guneetan, sistematikoki kalitu direnez, peludoek atzeraka egin dute nabarmen, espeziea arriskupean ez egon arren. Irailean hasten da ugaldia, eta kumeak abendu aldera jaio dira 60-75 eguneko ernaldiaren ostean. Sabelaldiko kume bi sortu ohi dira, sarri askotan bata ar eta bestea eme, 155 g-koak, eta hirurogei bat egunetz edoskiko dutenak. Jaiotzean, Axularren sagarriokumearen arantzak ez bezala, oskola bigun-bigun dago erdiminak leuntzeko, eta pixkanaka gogortuko da. Peludoak gutxi gorabehera bederatzita hila-betean helduko dira.

Nolanahi, peludoarena baino askoz hobeto ezagutzen da *Dasyus novemcinctus* bederatzita-gerrikodun armadiloaren biologia orokorra, berorixe da-eta Estatu Batuetan bizi den espezie bakarra. Espezie horretan harrigarria suertatzen da, besteak beste, sabelaldi bakoitzeko laukiak jaiotzea, hau da, obulu ernaldubakarretik lau kume munduratzea. Jakina, obulu bakarretik eratorriak izatean identikoak dira, dela sexuz, dela gene-horniduraz. Klonikoak dira berez, eta, hortaz, herentziaren eta ingurumenaren eragin erlatiboak aztertzeko erabili izan dira luzaro horrelako laukoteak, ikerlari amerikarrek hain gogoko dituzten *nature/nurture* debateko probetan, alegia, izaera geneek erabat halabehartuta datorren ala, ostera, izateko moduan kriantzak eta hezkuntzak zeregin esanguratsua duten. Gure Etxeparek ere bazuen kezka hori, eta, izan ere, ingelesezko hitz-jokoa “jaidura ala aztura” formula ederrarekin ematen zuen, eta “azturek dituzte jaidurak zabaltzen eta gogortzen” esaldiak laburbiltzen du bere iritzia, hau da, berezkoa indartu egiten du ikasitakoak.

Bainan peludoen ondotik ez nindabilan, baitezpada egun guzietz urrutirat ikusten nintuelakotz. Aspaldi zuen jastatua nuela heien haragia, ez bainuen sekula amestuko hain onik bazitakela: orduz geroztik nindaukan bethierekotz hartua ihiziko errabiak.

[...]

Hanbatenez ere non amak baitzakien peludokitik jaki hautaren adelatzen, oraiko egunean oraino orhoitzeak berak ezpainak milikarazten baitauzkit. Arrats guzietz, etxean sarthu orduko, goiti behatzen nuen: ba othe zen dilindan ihizi hetarik bat, bi ziriek zabal zabala idekirik zaukatela baratzuri xixter batzutan hemenka sarthuak bizkar azalaren barneko aldetik daukan haragi uzter horail ahotik ezin utzizkoan. Ah! Zer phesta, biharamunean, peludoa ginuelarik bazkaritako!

Armadilokia, edota peludokia Etxeparek dioskunez, janari hauta omen da bere zabalera geografiko osoan, Texastik Argentinaraino. Puntu horretan ados daude begiratu ditudan erreferentzia guztiak. Hala ere, bakar batean aurkitu izan dut zeren zaporea duen: dirudienez, kalitate handiko txerriki lakoa da. Nolanahi, Juancitoren amak primerako sukaldaria izan behar



Dasyus novemcinctus armadiloa. Espezie honen halakretak bederatzita gerriko nabari ditu aurreko eta atzeko ezkutuen artean. Buztana luzea da eta eraztunduna. Armadilo honek banaketa geografiko oso zabala du, izan ere, Ipar Amerikaraino zabaldu zen, Panamako istmoaren emergentziaren ostetik, eta gaur egun ere apurka-apurka hedatuz doa iparralderantz. Gainerako armadilo-espezieek banaketa murriztagoak dituzte, Hego Amerikara mugatuak, Andeen ekialderantz. (ARG.: E. EARP.)



Zaedyus pichiy armadiloa Patagonia aldean zabaldua dago. Pitxi du izen arrunta. Gordezuloetan bizi da, eta gaez irteten da normalean. Behatu denez, negua lotan ematen du. (ARG.: E. IMAZ.)

zuen, ikusiz-eta peludokiaren oroitzapenak berak zer-nolako mihizkadak sortzen dizkion seme gehienari.

Oskola egoteak pisu astuna damaio armadiloari, eta izan ere, armadilo nagusia (*Priodontes maximus*) 60 kg-koa izan daiteke, *Dasyus novemcinctus* bederatzigerrikodun armadiloa 10 kg-raino irits daiteke, eta peludoa 2 kg-raino (eta 220-400 mm). Dena dela, ez dakit zertan geldituko den “erbiaren heinekoa” den peludoa, oskola larrutu ostean. Bestalde, behin Euskal Herrian bizi zela, Etxeparek txerrikoa joko ote zuen, ba, peludoaren ganorazko ordezkotzat? Eta, era berean, “bethiereko ihiziko errabia” zelan bideratu zuen? Ez dut horri buruzko datu zuzenik aurkitu, baina, Etxeparek Aldudetik bidali kroniketan sasoi bakoitzean zenbat uso sareratu diren zein zehatz aipatzen duen ikusirik, lepoa egingo nuke bera ere usotara ateratzen zela, besteak beste.

Beraz goiz guzietan banindoa ihizirat, pala bizkarrean, kanit ez harmarik ez bainezaken oraino zorigaitzez eskura. Aitaren zakurretarik bat nerekin hartzen nuen... [...] Denak diren bezala erraiteko, ene pala eta zakur lagunaren gatik, beldurrez ikharan nindoa ihizien oro zilo eta larrutuak urrun ageri ziren gordegietarat, hara ta bizkatxa mutur luzeek ausik nindezaten edo zorrino zikin sorhaio batek, bere uharra begietarat zirristatuz, alderat itsuturik ezar.

Nere buruari gogor eginez, lotzen nintzan bizkitartean lanari. Palaz zabaltzen nintuen ziloak, gainetik urratzen, barnez barne ahal bezain urrun jarraitzen nintzei elarik; batzuetan, errabiarekin lurrez ahal bezain tinki bethetzen nintuela, handik ezin atheraz ithoko zirela agian agertu nahi ez zitzaiztutan kabala gaixtoak. Zakurra ene sahetsean saingaka eta jauzteka, burua lur arras, bizkarra besoen gainerat eroria, beharriak xut, begiak landatuak, erhotua zilo hetarik airatzen zen urrinarekin. Nik tresnaz jo lur kofatua, harek ihausi eta aztaparka; bainan peludorik ez. Holaxet bagineraman goiz osoa biek, leherturik.

Sabelean ahal bat hautemaitearekin, ordukotz bertzela iguzkiak erre nahi baininduen gain behera, pala sorbaldarat goititurik banindoa azkenekotz etxerat, ene lagun maitea gibeletik; “Ago, ago, bihar ikusiko die gurekin!” nakolarik urhats guzietan erraiten eta egun guzietan, den gutieneko etsimendurik gabe.

[...]

Ez dute egundaino ene ganik jakin nun eta nola neramatzan goizak. Are gutiago, ez dutala behin ere hatzeman peludorik.

Bizkatxa eta zorrinoaren aipuak hurrengo baterako utziko baditugu ere, kontura gaitzen patari horiek sortua dela Juancitoren ikara, eta ez inongo indiarren beldurrarengatik, dela Catriel edota Calfucura. Dena dela, goize-
ro doa peludoaren ehizara. Panpetan barik, Obaban jaioa izan balitz ziurre-
nez kirkirren zulo ketan emango zituen “haurreko egun berriz jinen etzare-
tenak”, “nere bizi apurrak eman daukedan gozorik hoberena!”.

UGAZTUNAK ULEDUNAK ZIRENEKOA

Peludoak eta, oro har, armadiloek, hagin gutxi batzuk dauzkate, baina, oso txiki eta bestigialak direnak, eta, gainerako ugaztun gehienetan gertatzen denaren kontrara, esmalterik gabekoak. Dena dela, armadiloek ez dute ez ebakortzik ez letaginik. Ildo horretatik, luzaroan Edentata ordenan sailkatu izan dira, nagiekin, inurrijaleekin eta pangolinekin batera. Izen taxonomiko horrek haginbakotasuna adierazten du bere etimologian, eta hortik etorri dira frantsesez eta gaztelaniaz erabili diren *édentés* eta *desdentados* terminoak, ingelesez *edentates* izendatu badira ere. Alabaina, benetan haginbakoak inurrijale eta pangolinak dira soilik, eta, horrela, gaztelaniazko liburu batzuetan bereizita ikusiko dituzu *desdentados* eta *maldentados* direlakoak. Horrelako izendapenak gorabehera, armadilo erraldoiak ehun bat hagin ditu, hau da, ugaztun gehienek baino gehiago.

Kontua da behinolako Edentata taldeko animaliak gaur egun beste taxon bitan sailkatzen direla. Batetik, Pholidota ordena ezarri da, bertan Afrika eta Asiako lurralde tropikaletatik banatuta dauden zazpi espezie pangolin kokatuz. Inurriez elikatzen dira, eta erabat haginbakoak izanik, urdaillean hartxintxarrak dituzte janariak “mamurtzeko”, hegaztiek arandoian egiten duten modura. Bestetik, Xenarthra ordena, armadilo, inurrijale eta nagiez osotua, denetara hogeita hamar espezie, Ameriketatik hedatuta dago Estatu Batuetatik hegoalderantz. Talde horretako animalien ezaugarri berebizikoa orno xenartalak edukitzea da, alegia, gerrialdeko ornoek luzakin bereizgarri batzuk dauzkate. Jakina, batetik pangolinen eta bestetik nagi, inurrijale eta armadiloen arteko antzekotasunak, guztiok batera sailkatuta egotea ondorioztatu zutenak, mirmekofagiak sorturiko konbergentzia adaptiboz gauzatu zirela uste da gaur egun. Esan nahi baita, inurriez elikatzen diren bai folidotoek eta bai xenartroek antzerako eboluzio-presioak jasango zituztelarik, erantzun morfologiko analogoetara iritsi ziren, eta ezaugarri analogo horiek tronparazi dituzte zoologoak luzaroan, harik eta konturatu diren arte ez direla homologoak. Sailkapen taxonomiko berri horren ikuspegitik, dagoeneko ez da horren harrigarria suertatzen lehengo banaketa geografiko disjuntu hori: orain ordena bat Ameriketatik zabalduta dago, eta bestea Mundu Zaharrean.

Zernahi gisaz, Xenarthra ordena hiru subordenatan banatuta dago, hirurok oso-oso espezializatuak eta elkarrengandik oso bestelakoak. Delako hiru subordenak Cingulata, Vermilingua eta Pilosa dira, hurrenez hurren, armadiloak, inurrijaleak eta nagiak besarkatzen dituztenak. Ez duzu txarto irakurri, hain zuzen Pilosa subordenan nagiak bildu dira eta ez, ilearen oihartzun horrek burura zuzenean ekarriko dizkigun peludoak. Hau da, taxonomiaren ikuspegitik nagiak “pilosoak” direla esan dezakegu, eta peludoak “zingulatuak” direla, bestalde iletsuak izan arren. Pilosa horrez gainera, Tardigrada eta Folivora izenak ere erabili ohi dira nagiak sailkatzeko, eta, nomenklaturari doakiola, sinonimoak dira, bizidun-multzo berbera deitzeke baliatzen baititugu.

Ostera, ez dira elkarren sinonimo, homonimoak baino, arestian aipatu dugun eta formalki Pilosa Flower, 1883 deritzon taxona, nagiak biltzen

dituena, eta, bestalde, Pilosa Ray, 1693 deritzona. John Ray-ren Pilosa, izatez, ugaztunen egungo izen taxonomikoaren sinonimo zahar bat da, hots, Mammalia Linnaeus, 1758 klasearena. Hau da, “piloso” izenak gaur egun bakarrik nagiak inkluditzen baditu ere, horrez gainera “piloso” ugaztun terminoaren sinonimo zaharkitu bat da. Dirudienez, Sabino Arana sinonimia horren jakitun zegoen, eta “ugaztun” terminoagaz batera “uledun” ere papereratu zuen. Ugaztun eta uledun berbok, uste genezakeenez bestaldera, ez digute soilik historia naturalari dagokion egia bana kontatzen, areago, ikuspegi politiko jakin bat digute erakusten. Alabaina, aipatzen ari naizena ez doakio Sabino Aranaren Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra aldarrikapenari, baizik eta XVIII. mendeko ikuspegi politiko bati, zoolo- goen hizkeran enkriptatuta gelditu dena. Horixe argitu digu Londa Schie- binger ikertzaileak.

Izatez, Mammalia izena 1758. urtean plazaratu zuen Carolus Linnaeus botanikari suediarrek *Systema naturae* liburuaren hamargarren argitarape- nean, talde horretan besarkatuz, hala gizakiak, tximinoak, saguzarrak, nagiak, baleak eta elefanteak, kasurako, nola, gainerako animalia ile- dun, hiru-belarri-hezurdun eta lau-ganbarako-bihoztunak. Horrela jokatzuz, titia klase zoologiko horren ikono bihurtu zuen, latinezko *mamma*, *mammae* bai- tago Mammalia horren oinarrian. Dena dela, Londa Schiebinger-ek eking- ta politikotzat dauka klasearen izendapen berria.

Animalia erreinuaren sailka-
pena, Carolus Linnaeus-ek
Systema Naturae liburuan
1758an ezarri bezala. Irudian
irakur daitekeenez, Lin-
naeus animalien barne-egi-
turako ezaugarrietan oina-
rritu zen. Ornogabeen era-
niztasun ikaragarria klase
bitara murrizteak nabar-
men uzten du datu gehie-
nak ornodunei buruzkoak
zirela sasoi hartan.

(IRD.: AZKUE BIBLIOTEKA).

DIVISIO Naturalis Animalium ab interna structura indicatur :

COR biloculare, biauriturum;	{ viviparis	Mammalibus.
<i>Sanguine</i> calido, rubro.	{ oviparis	Avibus.
COR uniloculare, uniauriturum;	{ pulmone arbitrario	Amphibiis.
<i>Sanguine</i> frigido, rubro.	{ branchiis externis	Piscibus.
COR uniloculare, inauriturum;	{ antennatis	Insectis.
<i>Sanie</i> frigida, albida.	{ tentaculatis	Vermibus.

Linnaeus-ek sei klasetan sailkatu zituen animaliak, alegia, Mammalia, Aves, Amphibia, Pisces, Insecta eta Vermes. Eurotarik soilik Mammalia ize- nerako aukeratu zuen emeen ezaugarri bat. Gainerako klaseen izenak batzuetan Aristotelesengandikoak ziren: Aves delakoak hegazti esan nahi du; Amphibia horretan habitata dago nabarmenduta; Insecta gorputzaren lakainketari dagokio; Vermes lur-zizareen kolore gorritik dator. Hamazor- tzigarren mendeko nomenklatura taxonomikoa oso ataza kontserbadorea zen, zeren, izen erabilgarriak iraunarazi egiten baitziren, eta berriak behar izaten zirenean, izen tradizionalak eraldatuz gauzatzen ziren. Hala ere, Lin- naeus-ek tradizioa hautsiz Mammalia terminoa eratu zuen, eta muzin egin zion Aristotelesen Quadrupedia termino kanonikoari.


Bi mila urtez, beraz, kuadrupedio *-lauoineko-* deitu zitzaien gaur egun ugaztun esaten zaien horiei (eta bai, zehazkiago adierazteko, narrasti gehie- nei eta anfibio batzuei ere). Aristotelesek, zenbait ezaugarri diagnostiko era- biliz, animaliak hierarkikoki atondu zituen, eta gerora *scala naturae* deituko zen taldekamendua itxuratu zuen. Hasteko, sail nagusi bitan banatu zituen animaliak euron odolaren izaeraren arabera. Animalia odoldunek odol bero-gorria dute, eta bai goi-mailako tasunak; animalia odolbakoek, oster- a,

isurkin kolorge bat dute, eta hotza, guztiz behe-mailakoak direlarik. Kuadrupedioak, jakina, odoldunen arteko talde bat dira, lau zangotan doazen animalia guztiak biltzen dituen. Areago, Aristotelesek beste talde bitan banatu zituen kuadrupedioak; batetik, bibiparo eta iletsuak, titidunak direnak (egun ugaztun deitzen ditugun animalietarik asko besarkatuz), eta, bestalde, obiparo eta ezkatatsuak (egun narrasti deitzen ditugunak eta bai zenbait anfibio). Hegaztiekin beste talde bat eratzen zuten, animalia odoldunen artean: bi-zangodunak, baina ez erekoak. Azken taldekoak arrainak ziren, uretakoak izanik ez baitzuten, ez hanka ibiltaririk, ez besorik, ez hegorik.

Aristotelesek ezarritako kategoriak eta terminologia oinarritzko suertatu ziren Europako historia naturalerako, eta eskema hori Linnaeus-en sasoirara arte iritsi zen aldaketarik gabe ia. Izan ere, John Ray (1627-1705) naturalista ingeles handia izan zen lehena Aristotelesen sailkapena zelana edo halan kuestionatu zuena, 1693ko bere *Synopsis methodica animalium quadrupedum et serpentinae generis* horretan.

Aristotelesen lehen banaketa, animaliak odoldun ala odolbakotzat jotzen zituen, ez zen guztiz zehatza, zeren animaliek orok baitute bizijariakinen bat. Era berean, animaliak bibiparo eta obiparoretan banatzea ere oker dago hein batean, arrautzatik sortuak baitira animaliak oro. Horiek guztiez gainera, Ray-k kuadrupedio izenaren egokitasuna eztabaidatu zuen. Haren esanetan, baleak, mazopak eta manatiek, lau zangorik eduki gabe ere, badituzte kuadrupedioen gainerako ezaugarri diagnostikoak (odola, bihotza, birrikak...), eta, horrela delarik, arrainen artetik atera eta kuadrupedio bibiparoekin kokatu behar ziren. Kuadrupedio izena bera ere baztertu beharreako zela iradoki zuen. Eztabaidak eztabaida, John Ray tradizioa makurtu zen, eta zetazeoak arrainekin batera utzi zituen.

Orduko naturalistek ez zuten berehalakoan segitu Ray-k markaturiko bidea. Linnaeus-ek, ohikoa zenez, Quadrupedia erabili zuen *Systema naturae*ren lehen argitarapenean, 1735ean. Hala ere, gizakiak kuadrupedioen artean sailkatu zituen, eta, horrek askoren haserrea ekarri ziolarik, kokapen eztabaidagarri eta deseroso horrek edo bultzatuta hasi zen zeozer egokiagoren bila. Ez dago esan beharrik, Linnaeus ez zen lehena izan, gizakiak animaliak direla ikusi zuena. Kasurako, Pierre Belon-ek 1555ean nabarmendu zuen gizakiaren eta hegaztien eskeletoen antz handia, eta Edward Tyson-ek txinpantze bat diseztonatu zuen, *Homo sylvestrus* izendatu zuena, eta argi gelditu zen espezie horren eta gizakiaren arteko kideetasun estua, anatomiari dagokionez. Aristotelesek berak gizakia kuadrupedio ilekun bibiparoen artean kokatu zuen, baina, Erdi Aroan zehar eskolastikoek naturaren baitatik atera zuten, eta aingeruen parera eraman. Ikuspegi horrekin bat, John Ray-k, esate baterako, ez zuen giza jendea bere liburuan inkluditu, lehenago Gesner-ek eta Aldrovandi-k bezalaxe. Gizakiaren arima hilezkorra ezin zen gainerako patarien artean sailkatu. Alabaina, ana-




Edward Tyson-en *Homo sylvestrus* delakoa (1699), eskuan ibiltzeko makila daroala. Tximino arrak sarritan margotu dira makila batekin, horrela adieraziz ez direla guztiz gai zutik ibiltzeko. Tximinoaren makilak, era berean, gizakiaren beste gaitasun bat iradokitzen du, alegia, armak erabiltzekoa. Nolanahi, irudikoa txinpantze bat da, eta ez orangutana, Tyson-ek uste bezala.

(IRD.: L. SCHIEBINGER).

tomia konparatuaren garapenarekin gero eta leku txikiago zegoen arimarentzat, eta, laster, ukaezin bihurtu zen gizakiaren animaliatasuna.

Pierre Belon (1517-1564) zoolo-
grafo bikaina izateaz gainera,
oso anatomista ona izan zen,
eta *L'histoire de la nature des
oyseaux* liburu famatu-
an, besteak beste, hegazti
baten eskeletoa giza eskele-
toarekin erkatu zuen, bata-
ren eta bestearen hezurak
banaka konparatuta.

(IR. WIKIPEDIA).



Linnaeus-
ek giza jendea
kuadrupedioen
artean kokatu
zuen, horretara-
ko aintzat har-
tuz bai gizonen
gorputz iletsu
lau-zangodunak
(ibiltzeko bi eta
oratzeko bi) eta
bai emaztekien
izaera bibiparo
eta esneduna.
Areago, hagin-
en ezaugarriak iku-
sita, lau ebakor-
tzak gehien bat,
gizakiak Anthro-
pomorpha ordenan
paratu zituen,
tximinoekin eta,
adi!, nagiekin ba-
tera. Anthropolom-
orpha izena, John
Ray-ri zor ziona,
Primates bilakatu
zen 1758ko argita-
rapenean, eta, bide
batez esateko, oso
kontrako iritziak
sortarazi zituen.
Adibidez, Georges
Cuvier famatuak
gizakiak tximinoen-
gandik bereizi behar
zirela defendatu zuen,
eta horrela, gizakiak
Bimanes ordenan
saikatu zituen (esku-
bidunak), eta tximi-
no-jendea Quadru-
manes ordenan (lau-
eskudunak).

Gizakia kuadrupedioekin saikatzeko haserretu egin zituen orduko naturalistak. Okaztagarriztat jo zuten, gizaki adimenduduna patari iletsu lau-zangodun eta lau-ebakortzdu gisa aurkeztea. Adibidez, Linnaeus-en aurkari nagusiak, Buffon-ek, begien bista-bistan utzi zuen, Linnaeus-ek Quadrupedia talde baitan inkluditu hainbat kreatura, ez zirela kuadrupedio inolaz ere: gizakiek esku bi eta oin bi dituzte; saguzarrek oin bi dituzte eta eskurik ez; tximinoek lau esku dituzte eta oinik ez; eta manatiek soilik “esku” bi. Louis Daubenton-ek gezurrezko eta desegokitizat jo zuen Linnaeus-en sistema osoa. Bestalde, hainbat naturalistak erabat arbuiatu zuten, heretiko zelakoan, gizakiak funtsean animaliak direlako nozioa, izan ere, eskritura santuek argi eta garbi adierazten dute, gizona Jainkoak bere irudira egin zuela.

Naturalistak luzaroan borrokatu ziren sailkapen-arazoekin. Nomenklatura binomiala garatu zuen John Ray-k, Vivipara izena erabili zuen, baleak eta uretako beste ugaztun batzuk kuadrupedio lurtarrekin elkartzeko. Ildo berean, bere Terrestria taldean, Quadrupedia delakoaren ordez Pilosa proposatu zuen, berorrek hobeto elkartzen baitzituen manati anfibiok eta kuadrupedio lurtarrak.

Linnaeus-ek, hortaz, dagoeneko nahikoa zabalduta zegoen Pilosa terminoa aukera zezakeen bere klase berria izendatzeko, izan ere, bere sisteman ileak baitzeukan titiak besteko balio diagnostikoa. Ugaztunek orok, tartean

baleak ere, ilea dute, eta ugaztunen ezaugarri bereizgarritzat jotzen da gaur egun ere. Dena dela, Lorenz Oken morfologo germaniarrak klaseari Pilosa izena hobeto egokitzen zaiola defendatu zuen hemeretzigarren mendeko amaieran (nahiz eta berak grezierazko etimologia duen Trichozoa erabili), eta beste horrenbeste egin zuen Haeckel-ek hogeigarrenaren hasieran.

Hala ere, Linnaeus-ek ez zion tradizioari eutsi, eta Mammalia zuen eratu 1758. urtean, *Systema naturae* ospetsuaren hamargarren argitarapenean, lehenagoko saio erdi-ahaztu batzuen ostetik. “Mammalia, animalia hauek, eta ez bestek, dituzte titiak” idatzi zuen latinez, bazekien arren, ezaugarri hori ez zela guztiz unibertsala klasearen baitan: “eme guztiek dituzte titi esnedun batzuk, arrek dituzten bezala (zaldiak izan ezik)”. Hortik aurrera beti mantendu zuen Mammalia izena, nahiz eta bere sisteman bestelako aldaketak sartu.

Kontuak kontu, Mammalia izenak onarpen zabala lortu zuen oso denbora-tarte laburrean. Alabaina, izendapenaren detraktore gutxien artean, Buffon agertu zen beste behin ere. Izatez, Buffon-ek taxonomiaren proiektu osoa gaitzetsi zuen, baina bereziki Linnaeus-en taxonomia eta nomenklatura, hots, sailkapen-irizpideak eta izendapen-sistema. Buffon-en ustez, naturalistaren ataza animaliak zehatz-mehatz deskribatzea zen, bizilekua, elikadura, ugalketa, ohiturak eta beste, eta ez, ostera, naturaren oparotasuna talde artifizialetan banatu, eta grezierazko eta latinezko izen ulertezinekin bataiatzea. Besteak beste, Buffon-ek begitan hartu zuen Linnaeus-ek titiari eman zion prominentzia: “kuadrupedioak identifikatzeko hartutako ezaugarri orokor batek, titia delakoak bezala, gutxienez kuadrupedio guztiguztiena izan behar du”. Buffon-ek, Linnaeus-ek legez, bazekien esaterako garañoez ez dutela titirik, eta, hortaz, berori ez zela klasearen ezaugarri unibertsal bat.

Esan bezala, naturalista gutxi batzuek Quadrupedia erabiltzen segitu zuten, eta areago, besteren batek sistema alternatiboa proposatu. Henri de Blainville frantsesak nomenklatura zoologikoa arrazionalizatu guran, 1816an, ugaztunen taldea Pilifera berrizendatu zuen (ile-eroaleena), hegaztiena Pennifera (luma-eroaleena), eta narrastiena Squammifera (ezkata-eroaleena). John Hunter ingelesak Tetracoilia taldea proposatu zuen 1861ean, lau ganbarako bihotza nabarmenduz.

Kritika horiek guztiek oso arrakasta murrizta eduki zuten, eta Linnaeus-en Mammalia terminoak aurrera egin zuen. Gero Mammalia horretatik eratorri dira zelan edo halan klase horretako animalien izen arrunta, dela *mammals* ingelesez (nahiz eta *mammifers* ere inoiz erabili izan zen), dela *mammifères* frantsesez (eta ez *mammaux*, *animaux* pluralaren bidetik), dela *mamíferos* gaztelaniaz. Alemanez teutonizatu egin zuten latinezko izena *Säugetiere* eratuz, hau da, animalia edoskitzaileak-edo eginez. Euskaraz ere, Sabino Aranak “teutonizatu” egin zigun izen arrunta, zeren eta, latinezkotik zuzenean mamalioak edota mamiferoak onartu beharrean, denok erabiltzen dugun “ugaztunak” sortu baitzuen, hau da, ugatzak dituen, titiak dituen. Euskarazko tradizioaren abiapuntua, Ines Pagolak argitu duenez, Sabino Aranaren 1898ko *Lenengo egutegi bizkattarra* delakoak ekarri zuen, egutegi horretako otsailaren 26arekin batera, larunbata eta barur-eguna zena:

Aragija izteko egunetan

ZEINTZUK ARAGI ITZI BIARR DIRAN

1° *Ugaztunena*. Onek dira: idikija, txarrikija, arikija, auntzakija ta euren idiak, eta, itz batan esateko, uledun gustijen aragija.

2° *Egazitirena*. Onek dira: ollua, usua, atea, antzarra, ollagorra, eperra, pospoliña, txori gustijak eta, batan esateko, egakidun gustijen aragija.

3° Ugaztun ala egaztittik ataretan diran jaki ta edari gustijak. Bakarrik arrtu datez arrautzak eta esnia, ta arrautzez ala esnez egindako alijak: gastaya, gastanbera koipe bako kotxuak eta beste batzuk.

Sabino Aranaren testu horretan, kontura gaitezen, ugaztun eta (h)egazti ditugu, eta bai berorien bigarren mailako sinonimo bana, hurrenez hurren, “uledun” (= “ulia-daukana”) eta “egakidun” (= “egakija-daukana”; egaki: luma). Lumadunen kontuak hurrengo baterako bazter utzita, denok bat etorriko gara, teutonizaturiko “uledun” horren jatorrizkoa “pilosoa” izan dela seguruenez, alegia, mamalioaren hurrengoa, eta ez, *Orotarikoak* “iledun” sarreran euskal tradiziotik bildutako “azienda xuri”en parekoa. Dena dela, gaur egungo sailkapen taxonomikoetako Pilosa terminoa soilik nagiak biltzeko murriztu den bezala, Linnaeus-en sisteman Quadrupedia ugaztun lehortarrak izendatzera mugatu zen, itsasoko ugaztunak Pinnipedia multzoan zedarrizta geratu baitziren. Edozelan ere, Pinnipedia izena indarrean dago gaur egun, baina, Quadrupedia obsoleto, hots, zaharkituztat, baztergarritzat jotzen da.

Esanak esan, Linnaeus-ek latinezko *mamma*, *mammae* erroaren gainean eratu zuen Mammalia terminoa, dirudienez, aipatu egin nahian bai ugatza bera eta bai esne-ekoizpena ere. Alabaina, klasearen ezaugarri nagusizat hain zuzen ere hori ezarriz gero, talde garrantzitsu bi zeuden, taxon horretan oso nekez egokitzen zirenak, batetik, ugaztunen ar gutzi-guztiak, titi endurto idorrek dituztenak, eta bestalde, Australia inguruetako ugaztun monotrematuak, guruin esne-jariatzaileak edukita ere titiburu-rik ez dutenak.

Luzaroan intrigatu ditu naturalistak ea ugaztun arrek zergatik dituzten titiak jakiteak. Gehienak ados zeuden, arren titiok antzu direla, zergatik dituzte orduan? Gizon esnedunen adibide batzuk gorabehera, naturalista gehienek titi arrak antzuak direla onartzen zuten, eta zenbait azalpen plazaratu ziren fenomeno horretarako. Erasmus Darwinen, Charles Darwinen aitaitak, iradoki egin zuen titi ar bestigialek nolabaiteko sinesgarritasuna damaiotela Platonen plazaratutako ugaztunen jatorri hermafroditikoaren hipotesiari, zeinaren arabera, geroago ar eta eme bilakatuko baitziren hasierako arbaso hermafroditiko horiek. Hemeretzigarren mendeko azken aldean, areago, ornodun guztientzat onartu zen urruneko arbaso androginoren bat, horretarako aintzat hartuz enbrioi goiztiarrak hain direla orokor-rrak non ezin baita euren sexua erraz jakin. Clemence Royer-en urratsei jarraituz, Charles Darwinen ere iradoki zuen, behinola arrek emeei laguntzen zietela kumeak eradoskitzen, eta geroagoko jazokuneren batengatik (esaterako, kume gutxiagoz erditzea sabelaldiko) arren laguntza dagoenez ez zela premiazkoa. Organoaren erabilera-erak bestigial bihurtu zuen,

eta horrelakoxea pasarazi zen ondoz ondoko belaunaldietara. Gaur egun azpimarratu egiten da arraren eta emearen organo batzuk (esaterako, klitorri eta zakila, ezpain handiak eta eskrotoa) identikoak direla enbrioi goiztiarretan, eta geroago arruta desberdinetan garatzen direla, zenbait hormona espezifikoren eraginpean.



Ferdinand Bauer-ek eginiko sator ahate-mokodun –ornitorrinko– bi hauen irudi hau da, naturan bertan behatutako aleetan oinarrituriko lehen deskribapen artatsua. Animalia enigmatiko horren ezaugarri batzuk erakusten dizkigu, baina ez, harrigarriena dena: arrautzak errunez ugaltzen da, ugatzuna delarik ere.

(IRD.: A. MOYAL).

Eskuen artean darabilgun autuaren aldetik, ugaztun monotrematuak ere oso ugaztun eskasak dira ugaztun arren antzera, izan ere, kasu horretan emeek ez dute titibururik esne-guruin funtzionalak badituzten arren: esnea amaren sabelaldeko hainbat irekiunetatik jariatzen da, eta kumeek berorietatik edoskitzen dute. Australiatik Europara iritsi ziren lehen monotrematuek, “sator ahate-mokodunek”, harrituta utzi zituzten orduko taxonomistak, eta faltsifikazio bat izan zitezkeela pentsatu zuten. Ezinezkotzat jotzen zuten horrelako gorputz-atalak denak batera bizidun berberarengan agertzea. Seguruenez taxidermista treberen batek josiko zituen atalok, kimera improbable hura gauzatu: ahate-mokoa, kastorearen buztana, satorraren oinak, arraun-itxurako eskuak... Zernahi gisaz, sator ahate-mokoduna benetakotzat jo zen 1799an, baina, animalia nahaste-borraste zoologikoa izanik, Blumenbach zoologo germaniarrak *Ornithorhynchus paradoxus* izen taxonomikoaz bataiatu zuen 1800ean. Sator ahate-mokodunak disezionaizteko aukera egon zenean, 1802tik aurrera, ez zen adostasunik lortu zegoen kokapen taxonomikoari buruz. Batzuen ustez, emeen ugal aparatuk musker obobibiparoena gogorarazten zuen, eta, horrenbestez, sator ahate-mokodunek ere emeen baitan eklosionatuko diren arrautzak sortzen zituztela auresan zuten, hau da, obobibiparoak direla. Besteek ugaztunaren anatomia “ikusi” zioten, eta hurrengo azterketetan bibiparitatea eta esneguruinak aurkituko zirela defendatu zuten. Urte luzeetan benetako gerla taxonomiko bat egon zen eztabaida horren inguruan, Ann Moyal-ek ederto girotu duena.

Ez zegoen argi monotrematuak ea narrasti ziren, ugaztun ziren, ala bien arteko deskribatu gabeko beste talderen batekoak. Apurka-apurka datuen argia lortu zen: 1824an esne-guruinak aurkitu ziren, baina, esne-jariaketa 1832ra arte frogatu ez zenez, aurkariak guruin odoriferotzat ulertu zituzten, hots, usain-ekoizletzat. Esnearen ohartzeak bibiparitatearen ideari indarra eman arren, 1884an, sator ahate-mokodunek arrautzak erruten dituztela egiaztatu zen, narrastiek bezala, beraz. Ezinago harrigarria: animalia esne-

jariatzailea eta, aldi berean, errulea. Edozelan ere, monotrematuak ugaztunen artean sailkatu dira, Prototheria subklasean. Ugaztun erruleen subklase horretan sator ahate-mokodunaz gainera ekidna dago. Ekidna 1792. urtean deskribatu zen. Bost urte geroago Georges Cuvier-ek *Echidna hystrix*



Ekidna ugaztun oso primitiboa da, narrastien ezaugarri batzuk gorde dituen, esate erraz baterako, arrautza bidez ugaltzea. Hala ere, edozein ugaztunen antzera, odol beroko animalia da (gainerako ugaztun gehien tenperatura baino baxuagoa eduki arren -30° -32°), gorputza ilez estalita duena, eta guriin berezi batzuen bidez kumeak esnez elikatzen dituena. Ilez gainera, ekidna arantza babeslez gaineztatuta dago, kirikinoen gisara, eta arriskupean kiribildu egiten da, aurpegia eta gorputz-adak barruan gorderek. Deigarria da, bestalde, ekidnaren elikadura, termitak baitira haren hazkurri ia bakarra.

(ARG.: J. R. AIHARTZA).

izendatu zuen, erdi narrasti erdi ugaztun zen Ekhidna jainkosa grekoan oinarrituta, eta, ebakortzen absentziak ohartu zelarik, Edentata taldean kokatu zuen, armadilo, nagi eta inurrijaleekin batera. Areago, 1817an Cuvier-ek bai ekidna eta bai sator ahate-mokoduna ere bi-biak kokatu zituen Edentata ordenan, baina, arrautzarik erruten ez zutela asumituz, behin-behinean.

Honaino iritsi garelarik, eta izenen dantzak norainoko anabasa ekar lezakeen ikusita, Londa Schiebinger-ek planteatutako galdera egin behar dugu geuk ere: zeintzuk izan ziren, bada, Linnaeus-en arrazoiak, ugaztunei ugaztun edo, hobeto, mamalioei mamalio esan nahi izateko? Londa Schiebinger historialariaren ustez, Linnaeus-en asmoetariko bat gizateria naturara hurbiltzea izan zen, alegia, gizakiak eta patariak taxon bakarrean elkartzea. Alde horretatik, Linnaeus tradizio zahar bati jarraitu zitzaion, zeren eta, natura Mendebaldeko pentsaeran emea delarik (Ama Lur eta era horretako mito femeninoak nonahi), emetasunaren ikono ahaltsuenetariko bat aukeratu baitzuen klasea izendatzeko ugaztean oinarritu zenean. Emearen titia aspaldiko sasoietatik izan da naturaren sinboloa, eta presentzia etengabea eta agerpen askotarikoa eduki du. Adibidez, Schiebinger-ek aipaturiko adibide-mordotik bat hartuta, denok ikusi ditugu Erromako fundatzaile biki mitologikoak otseme baten titietan edoskitzen. Beste inora joan barik ere, ondotox dakigu Euskal Herrian ere titiarekin demaseko obsesioa dagoela, eta, izatez, topikorik topikoena dugu gure artean amaren bularrarekin batean euskara gozo garbia jaso izatearena. Arrese Beitiaren moduan esateko:

Dontsua ume ama daukana
Euskaldun garbi osoa
Titiaz naste edan dagion
Berbeta jaungoikozkoa

Dena dela, Schiebinger-en ustez, ikono horren sustrai kultural sakonek azal dezakete hein batean bai Linnaeus-en aukera, eta bai ere Mammalia izenak eduki zuen onarpen erraza.

Alabaina, titiaren faszinazioak baino gehiago hurbileko arrazoi politikoek bultzatu ei zuten Linnaeus egindako hautua egitera. Linnaeus-ek parte hartze handia eduki izan zuen inudetzaren kontrako kanpainan; horren gaineko liburu bat idatzi zuen. Izan ere, hamazortzigarren mendean gailurreraino iritsi zen norberaren umeak inorengana bidaltzeko ohi-

tura, haren bularrez hazteko. Inoiz baino europar gehiago baliatzen ziren inudeez, eta ez soilik gizarteko goi-mailakoak, dela aristokratatik edota merkatarik aberatsak; baita laborariak, elizjendea eta esku-langileak. Emakumeak gero eta usuago egoten ziren bizimodu produktiboarekin lotuta, eta, horrenbestez, ezinezkoa zitzaien haurrei titia hainbat eta hainbat hila-betez ematea. Esate baterako, Parisen 1780an egin zen azterketa baten arabera, 21.000 haurretik soilik 1801ek hartzen zuten amaren bularra; gainerakoak inudeen bularrean hazten ziren, inude profesionalekin esan nahi baita. Inudetzaren ondorioz, zuzenean edo zeharka, umeen heriotza-tasa gorantz zihoan ikaragarriro, eta biztanleriak beherantz egingo zuelako beldurra zabaldu zen Europa osoan, hain zuzen gobernu gehienek populazio-emendia bilatzen zutenean, bai indar militarri begira eta bai zabal-kunde ekonomikoari dagokionez. Testuinguru horretan kokatu behar da Linnaeus-ena. Linnaeus medikua izanik, besteak beste bazekien ogibidezko inude gehien-gehienak oso behe-mailakoak zirela, gantz gehiegi jan eta alkohol larregi edaten zutela, eta baztangaz eta gaixotasun benereoz kutsatuta egon ohi zirela, hau da, ezin zutela inolaz ere esne osasuntsuegia sortu. Alde horretatik, inudetzaren kontrako beste askok bezala, Linnaeus-ek ere emakumeek beren umeak edoskiarazi behar zituztela defendatu zuen, abereen ereduari jarraituz.

Euskaldunekin nolabaiteko lotura eduki izan zuen Jean-Jacques Rousseau bera ere, inudetzaren kontra aritu zen *Émile* ospetsuan, 1762an, eta denbora-tarte labur batez modan jarri omen zuen goi-mailako emakumeen artean umeak norberaren tititik haztea. Linnaeus-ek ataza horretan jardun zuelarik, lortu egin zuen, hala baleak euren lurreko ahaideekin sailkatzea, nola gizateria naturaren baitan kokatzeko leku egoki bat proposatzea. Eta lortu ere, Londa Schiebinger-en aburuz, Mammalia izenaren bidez.

BIZKATXA ETA ZORRINOA: HEGO AMERIKAKO FAUNAREN HISTORIA LABURRA

Jean Etxepareren umetako oroitzapenetan peludoak leku zabala betetzen du, eta, gorago ikusi dugunez, hainbat azalpen eman dizkigu haren ingurukoak. Baina, peludoaz gainera beste patari bi agertzen zaizkigu oroitzapen horietan:

Zoin lagunekin ere lur-pean bizi ziren, banakien: *bizkatxak*, azeriaren iduriko mutur luze batzu, jateko zailak; eta *zorrinoak*, ile horasta argal batez estaliak, marra urdin bat bizkarrean trebes. Ez niz bizkitartean orhoit, ala hotarik, ala hetarik bat bakarra ikusirik. Zorrinoek, urrundani ere kitzikatzen balin baziren, are gehiago hurrantzerara egiten bazeien gizonak, bi metretan gora eta sei ixtapetan harat zirristan igortzen omen zakoten beren gernu zikina, soinekoak histen baitzituen, erretzen, eta haren usain likits izigarria ez baitzen boketarik ezeza zezakienik. Sorjes hek zal-dizkoer berer oldartzen ziren.



Lagostomus maximus bizkatxa. Karraskari txiki hauek taldeka bizi izaten dira "bizkatxera" deritzen tunel-sare trinkoetan; kanpo-aldetik zuloak eta lur-piloak ageri dira. Gaeuz irteten dira gordezuloetatik.

(ARG.: R. A. OJEDA)

Bizkatxak eta zorrinoak gorde ditu Juancitoren gomutak, nahiz eta, hor aitortuta utzi digunez, horrelakorik inoiz ez ikusi.

Etxeparek begietaratu ez zuen bizkatxa, seguruenez, *Lagostomus maximus* espeziekoa izango zen, edo horixe da, behintzat, Chinchillidae familia horretako karraskari horien banaketa geografikoetatik ondoriozta dezakeguna. Familia hegoamerikar horren sei espezieetan handiena da: gorputzak 47-66 cm-ko luzera du, eta buztanak beste 15-20; pisuz 2-8 kg tartekoak izaten dira. Ordokietako bizkatxa gauekoa da, eta ilunabarrean ateratzen da gordezuloetatik jateko. Belarrez eta haziz elikatzen da, eta, esamesen arabera, hamar bizkatxak ardi bakar batek beste jaten dute. Emeak eta heldubakoak denak batera alhatzen dira taldetan; arrak bakarka gehienetan. Ordokietako bizkatxa oso animalia soziala da, eta 15-30 ale arteko taldetan bizi da, inoiz 50 aleraino ere iritsita. Hainbat ganbara eta tunelez osoturiko zulo-sistema komunala eraikitzen dute, "bizkatxera" delakoa, 600 m²-tan zabalduta egon daitekeena eta 4-30 sarrera eduki ditzakeena.

Jakina, gordezulo horiek babes handikoak dira eguzkiaren eta harrapakarien aurrean, eta, bestalde, ugalketaren urrats guztietarako gune aproposa eskaintzen diete bizkatxei, dela parekamendu, jaiotza zein edoskitzerako. Arrak urtero sakabanatzen dira bizkatxera desberdinetara, eta, hori dela-eta, sakabanatu aurretik pisu handia lortzen dute, prozesua energetikoki garesti suertatzen baitzaie, talde desberdinen lurraldeek ez baitute elkar gainjartzten, eta, batez ere, lehiatu egiten direlako talde hartzailearen arrekin. Dena dela, tamaina da dimorfismo sexualaren ezaugarri nagusia. Panpetan ugaldia bakarra egoten da: parekamenduak martxo-apirilean eta jaiotzak uztail-abuztuan. Gehienetan 200 g-ko kume bi jaiotzen dira sabelaldiko, eta amek zortzi astebetetz edoskiarazten dituzte. Sexu-heldutasuna zortzi hilabete eta erdirekin iristen da emeen kasuan; arrenean hamabostekin. Dirudienez, gaur egun herrietatik oso aparte joan behar da bizkatxak ikusi ahal izateko, zeren, izurritzetaz jo direlarik (esate baterako, gordezuloak zapaltzean abelgorriek hankak apurtzen zituzten oso sarritan), lurralde zabaletan erauziak izan baitira amorru biziz.

Bizkatxei buruz dihardugularik, ezin dut utzi aipatu barik Charles Darwinek Beagle belauntzian egindako periploaren liburuan kontatu zigun anekdota, bizkatxa nolabait mikarekin berdintzen diguna. Kontua da-ze, panpetan zaldizko batek gaeuz erlojua galtzen bazuen, seguru zegoen ia, hurrengo goizean inguruetako bizkatxera baten atarian topatuko zuela, bizkatxek gauza deigarri eta gogor guztiak biltzeko ohitura baitute. Darwinen ezin izan zion inolako azalpenik aurkitu ohitura horri, eta, besterik ezean, Australiako *Calodera maculata* hegazti hesigilearekin konparatu zuen.

Zorrinoa, bestalde, *Conepatus* generoko mustelidoa da. Genero horretan bost bat espezie bildu dira, Ameriketatik hedatuta daudenak, eta eurotatik hiru Hego Amerikan. Banaketa geografikoak aztertuta, Etxeparek aipatu zorrinoa *Conepatus chinga* espeziekoa izango zen; hala ere, zenbait adituraren ustez, genero horretan zerrendatu diren espezie batzuk edota, beharbada, guztiak ez lirateke benetakoak, alegia, bost barik bat edo bi izan-

go direla dioskute: estuki kidetuta omen daude, beraz, Hego Amerikako hiru espezie nominalak.

Zorrinoak 46-90 cm-ko luzera edukitzen du mustur zorrotzetik buztaneraino, eta 2,3-4,5 kg. Kolorez beltza da gorputza, baina, bizkarraldetik zirrinda zuri zabal bat erakusten du, burutik buztanaren hasieraraino; ale batzuetan, zirrinda zuri bakarria agertu beharrean, elkarrengandik banatutako bi egoten dira. Buztana beltza izan daiteke, zuria, edota zuri-beltza. Kontura gaitetzen, Etxepareren deskribapenean “horasta” izan da hemengo beltza, eta “marra urdin bat bizkarrean trebes” hori nahikoa ondo egokitzen da aipatu dugun aldakortasunarekin, kontuan hartuta “ilea urdindu” zuri kolorekoa bihurtzea omen dela erabileratradizionalean. Edozelan ere, zorrinoaren kolorazioa aposematikoa da, hau da, abisuzkoa, “nigaz kontuz ibili” dioskuna, eta bat dator Etxeparek kontatu digun zorrinoaren jokabide erasokor horrekin. Izatez, zorrinoek uzki-guruin bi dituzte, hurbiltzen zaizkien etsaiei isurkin kirastua –*gernu zikina*– jaurti diezaieketenak, txorrotadabitan eta hainbat metrotara tinu handiz. Era horretara zorrinoak etsaiaren begiak erretzen ditu, edota burukomina sortzen dio. Zorrinoak gauez ateratzen dira gordelekuetatik janari bila, eta usaimenaz baliatzen dira ilunetan. Elikadurari doakionez, omniboroa da karniboro hau, eta dirudienez, kaka-lardoak eta armiarmak dira gehien gustatzen zaizkion janariak, bestelakoak ere bilatu arren: inurriak, harrak eta beldarrak, ugaztun txikiak, sugeak, apoak, ehunzangoak, arrautzak, sustriak, fruituak. Zorrinoak bakarrik bizi badira ere, ugalaldian ar eta eme helduek elkarrengana jotzen dute, otsailaren azken partean. Kumeak apirilaren edota maiatzaren hasieran jaiotzen dira, 2-5 sabelaldiko. Amak hazten ditu kumeak.

Etxeparek, beraz, peludo, bizkatxa eta zorrinoaren berri eman digu bere erara, eta hark idatzitakoa, hemen, geuk pixkatxo bat zabaldu eta iruzkindu egin dugu, besterik gabe. Alabaina, *Ameriketako orboitzapenak* irakurritakoan, txundigarria begitandu zait hain zuzen ere hiru patari horiek agertzea, idazlan horren berezko edertasunaz gainera. Izan ere, hirurotariko bakoitza adibide berebizikoa da, Hego Amerikako faunan aurkitu diren hiru estratu desberdinena, eta, alde horretatik begien aurrean jartzen digute kontinente horretako faunaren historia laburbildua, biogeografiako liburuetan Fauna-Elkartruke Amerikar Handia deritzona. Egia da, historia hori ia soil-soilik ugaztunen datuetan oinarritua da, baina, egia da era berean, soilik ugaztunek eskaini digutela horretarako fosil-erregistro egokia.

Fauna-Elkartruke Amerikar Handiaren ideia G. G. Simpson paleontologo ospetsuak plazaratu zuen, 1950. urteko hamarkadan, lehenagotik Florentino Ameghino argentinarra aurreratu bazuen ere, 1910 inguruan. Berba bitan zera diosku hipotesi horrek: orain 3,5 milioi urte Panamako istmoa itsasotik emergitu zenean, Amerika bien arteko truke faunistiko galanta gertatu zela, Hego Amerikako isolamendu luzea amaituz. Izatez, truke horrek agerian uzten du esperimendu biogeografiko eta ebolutibo natural erraldoia, tartean sakabanaketaren, espeziazioaren eta suntsipenaren eraginak aztertu ahal direla.


Ugaztunak orain berrehun eta hogeimilioi urte inguru sortu ziren, dinosauroak Lurraz jabetu aurretik. Sasoi horretan, munduko lur-masa guz-



Conepatus chinga zorrinoa. Zorrino eta mofeten uzki-guruinek sorturiko isurkin kirastua oso babes eraginkorra da harrapakarien aurrean. Hori dela-eta, kolore oso deigarriak dituzte –kolorazio aposematiko delakoa–, edozein harrapakarik zorrinoa erraz ikusi eta ezagutzeko modukoak, eta horrela arma disuasorio horretara jo behar ez izateko. Alde horretatik, kitzikatzen zaienean buzтана altxatzen dute mehatxu gisa.

(ARG.: ANIMAL DIVERSITY WEB).

tiak elkaturik zeuden, Pangaea deritzon superkontinentean bateratuta. Hortaz, ugaztunen lehen leinuak mundu osoko lurraldeetara zabalduko



Munduaren itxura Behe-Kretazeoan, orain dela 120 milioi urte. Hego Amerika irla bakartua bilakatzen hasi da. Dagoeneko, Ipar Amerikaren eta Hego Amerikaren arteko lotura apurtuta dago. Hego Amerika eta Afrika ere elkarrengandik urruntzen hasita daude, eta laster, orain gutxi gorabehera 110 milioi urte, guztiz bananduta egongo ziren. Australia eta Antartikarekiko lotura orain 90 milioi urte apurtu zen.

(IRD: R. BLAKEY)

ziren, eta, jakina, eskualdeka eboluzionatu. Alabaina, narrastien taldearekin konparatuta, ugaztunena txiki samarra izan zen, orain 65 milioi urte arte. Une horretan, meteoritoaren talkak dinosauroak desagertu arazi zituen, eta, narrastien nagusitasuna ezabatutakoan eszenategia libre gelditu zelarik, bai hegaztiek eta ugaztunek, eta bai bizirik iraun zuten beste talde batzuek, aukera paregabea eduki zuten dibertsifikatu eta aurrera egiteko, eta, izatez, ugaztunak baliatu ziren

abagune horretaz. Nolanahi, Pangaea zartatu zenean, Hego Amerikak lotuta segitu zuen bai, batetik, Gondwana-rekin (Afrika, Antartika, Madagaskar, India, Australia), eta bai, bestetik, Ipar Amerikarekin. Amerika bien arteko lotura hori orain 140 milioi urte ezabatu zen, Tethyar itsasbide zirkumekuatoriala irekitzean, eta, bestalde, Gondwana ere apurtzean, Hego Amerika eta Afrika elkarrengandik banandu ziren orain direla, eman dezagun, ehun milioi urte. Edo beste era batera esanda, direla 140 milioi urte abiatu zen Ipar eta Hego Ameriketako eboluzio independentea, eta orain ehun milioi urte hasi zen Hego Amerika eta Afrikakoa. Azkenik, Hego Amerika banandu egin zen baita Antartikatik eta Australiatik, orain laurogeita hamar milioi urte iturri batzuen arabera, edota orain hirurogeita hamabost milioi urte bestelakoek diotenez. Alegia, berriro esanez, Hego Amerika irla bihurtzen hasi zen direla 140 milioi urte eta irla bihurtu zen, erabat, orain 75 milioi.

Ameriketako Fauna-Elkartruke Handia. Orain 3,5 milioi urte Panamako istmoa eratzean, ia bat-batean posible bilakatu zen Amerika bien arteko fauna-trukea, ordura arteko isolamendu luzeari amaiera emanez. Lur-zubi sortu berritik hainbat eta hainbat espezie zabaldu ziren iparreko kontinentetik hegoaldekora, eta alderantziz. Ipar Amerikatik Hego Amerikara zabaldukoen artean ondokoak aipa daitezke: untxiak, azeriak, hartzak, mapatxeak, erbinudeak, felidoak, mastodontak, zaldiak, tapirrak, pekarriak, guanakoak, oreinak eta beste. Era berean, Hego Amerikatik Ipar Amerikara ondokoak iritsi ziren: armadiloak, martsupialioak, glipodonteak, lur-nagi eraldoiak eta arantzurdeak.

(IRD: MARSHALL).



Iturri desberdinetako desadostasunak gorabehera, argi dagoena da Hego Amerika uharte erraldoia izan dela milioi urte askotan zehar, eta isolamendu luze horrek espezie-multzo endemiko guztiz berezia ondorioztatu diola. Eta gero, hainbeste milioi urtez bakartuta egon eta ostean, ia bat-batean lur-zubi bat eratu zen, Ipar eta Hego Amerika elkarrekin berriro lotuz, eta kontinente bien faunaren nahasketa bideragarri egin zen.

Horiek horrela, Simpson-ek hiru jazo-kune nagusi bereiztu zituen Hego Amerikako ugaztunen historian, hain zuzen hiru emigrazio, nolabait hiru estratu faunistiko itxuratutakoak: batetik, aspaldiko etorkinena, bigarrenik, etorkin goiztiarrak, eta azkenik, etorkin iritsi berriak. Simpson-ek

postulatu egin zuen lehen olatuko etorkinak iristean Hego Amerika ugaztunbakoa izango zela. Alabaina, gerora aurkitu diren fosil batzuek gezurreztatu egin dute Simpson-en ustea, eta, areago, era harrigarrian gezurreztatu ere. Izan ere, Tim Flannery-k damaigu bizi-bizi, 1992an Patagoniako aztarnategi batean eskuraturiko sator ahate-mokodun baten haginaren aurkikun-

dearen kontakizuna. Haginaren jabeari *Monotrematum sudamericanum* izena jarri zioten, eta harez geroztik hagin gehiago topatu dira, hasierako identifikazioa bermatu dutenak. Zernahi gisaz, Hego Amerika ez zegoen ugaztun-pezte, eta gainera, besteak beste ugaztun monotrematuak bizi ziren bertan, ornitorrinkoen tankerakoak antza.

Gaur egun Hego Amerikan bizi diren ugaztunen hiru estratuetatik zaharrena, Simpson-en aspaldiko etorkinena, dirudienez zuzenean eratorri da Gondwana zartatu zenean bertan, Hego Amerikan, zeuden ugaztun-leinuetatik, eta multzo horretako animalia hegoamerikarrek ez dute ahaidetasun esturik munduko gainerako ugaztunekin. Aspaldiko etorkin horien artean kokatu behar ditugu, batetik Hego Amerikako martsupialio guztiak (zarigüeiak-eta), eta, bigarrenik, lehenagoko atal batean aipatu ditugun edentatuak (peludoa eta gainerako armadiloak, nagiak eta inurrijaleak). Bestalde, bigarren estratuko faunaren lehen fosilak orain 30 milioi urtekoak dira, eta, ustez, espezie horiek irlarik irla ailegatuko ziren, erreka zeharkatzeko harri-pausuak erabiltzen diren bezala. Bigarren olatu horretakoak dira Hego Amerikako tximinoak eta bai karraskari kabimorfoak (kapibara, agutia, txintxila, bizkatxa eta beste). Hirugarren estratukoak, iritsi berrien taldeko espezieak Panamako istmoa osotu zenean ailegatu ziren, jakina, gehienez orain 3,5 milioi urte, eta hori dela-eta ahaidetasun estua mantendu dute Ipar Amerikako faunarekin, ez baitute denbora nahikorik eduki sakonki dibergitzeko. Esan gabe doa, zorrinoa azken olatu horren ondorioa da. Hau da, Etxeparek peludoa, bizkatxa eta zorrinoa hirurok batera erakutsi badizkigu ere, bakoitzaren bilakaera guztiz desberdina izan da, eszenategi horretan elkartu aurretik.

Erdialdeko Amerikako lur-zubi berriak iraganbide gisa barik iragazki modura, bahe modura, jardun zuen, eta nolabaiteko hautespena gertatu zen alde batetik bestera igarotzeko. Izan ere, lur-zubian zeharreko sakabanaketa Pleistozenoko klima-zikloek eragingo zuten, era nabarmenean ziurrenez: trukea handiagoa izango zen izotz-aroetan, hau da, Erdialdeko Amerika osotik eta Hego Amerikako iparraldetik sabana hedatzen zenean, aro interglazialean baino, gaur egun bezala, lur-zubi gehiena oihan tropikalez estalita dagoenean.

Nolanahi, fosil-erregistroak erakusten duenez Ipar Amerikako faunaren dibertsitatea azken hamar milioi urtetan ez da ia aldatu genero-mailan, hegoaldeko iritsitako arantzurde, zarigüeiak eta armadiloak gorabehera (ezta iritsi eta ostean suntsitutako gliptodonteak eta lur-nagi erraldoiak, bi-biok edentatuak, kontuan hartuta ere). Hego Amerikakoari dagokionez, kontua bestelakoa izan da. Batetik, 17 ugaztun-familiako ordezkariak iritsi ziren iparretik, eta gainera sakonki dibertsifikatu ziren Hego Amerikan. Esaterako, kanido- eta felido-espezie gehiago dago Hego Amerikan beste inon baino, jatorriz Ipar Amerikatik abiatutakoak. Isuri horren ondorioz, Hego Amerikako ugaztun-espezie guztien %50a iparraldetik migraturiko leinuetatik eratorria da.

Glyptodon generoko armadilo fosil erraldoia. Gliptodonteak panpetako ugaztun edentatuak ziren, espezie batzuek hiru metro luze eta tona bi edukitzera iritsi zirelarik. Gaur egungo armadiloek ez bezala, gliptodonteak halakreka oskol bakarraz osotua zen, dortokenaren antzera. Halaber, mazo-itxurako buztana arma eraginkorra izango zen harripakariaren aurrean. Dirudienez, lehen gizakiek ehizatu zituzten gliptodonteak. Alde horretatik oso deigarria da, Hego Amerikako lautada zabaletako herbiboro handien gabezia, izan ere, adituen ustez kontinente horretan hiruzpalau dozena egon baitzitezkeen, Afrikan bezala. Kontua harrigarriagoa da, aintzat hartuz Terziariotik orain ia 10.000 urtera arte bertan megafauna aberatsa bizi izan dela,



tartean lur-nagi erraldoiak eta beste (*Megatherium* eta abar). Alabaina, Pleistozenoaren amaieran espezie horiek guztiak desagertu egin ziren. Azalpenik onartuenaren arabera, desagertu masibo hori lehen gizaki ehizatarien etorrerak sortuko zuen.

(IRD: THE NATURAL HISTORY MUSEUM, LONDRES).

Dena dela, Panamako istmoa gauzatzeak amaiera tragikoa eman zion Hego Amerikako isolamenduari, zeren-eta, espezie iparramerikarren sarreak espezie hegoamerikar deigarrieneratariko batzuen suntsipena ekarri baitzuen. Ordena bi desagertu ziren oso-osorik. Batetik, notoungulatuak betiko joan ziren. Notoungulatuak ugaztun herbiboro oso dibertsifikatuak izan ziren, adibidez, errinozero baten tamainako *Toxodon* delakoa, Charles Darwinek berak exhumatu zuena. Egia da, notoungulatu batzuek izotz-arora arte irauan zutela, eta gizaki ehiztariak desagertu arazi zituztela, baina, argi dago euren suntsipenaren arrazoi nagusia Panamako istmoaren eraketa izan zela. Eta, bestalde, erabat desagertu ziren baita ere herbiboro hegoamerikar horien harrapakariak. Egungo karniboro hegoamerikarrak, jaguarra kasu, jatorriz iparramerikarrak dira. Lehenagoko harrapakariak, gezurra badirudi ere, suntsitutako hegazti ibiltari erraldoi batzuk eta martsupialio karniboroak ziren. Esate baterako, martsupialio horietariko bat *Thylacosmilus* izan zen, hain justu *Smilodon* tigre sable-hortzaren oso antzekoa. Edozelan ere, martsupialio karniboroak suntsitu ziren arren, azpimarratu beharrekoa da Hego Amerikan gaur egun hirurogeita hamabost bat martsupialio-espezie bizi direla.

Horrelako datuak aipatzean eta balantzea eginez, badirudi iparraldeko espezieak hobeto prestatuta egon direla. Itxura batean migratzaile hobeak izan dira, askoz gehiago baitira Ipar Amerikatik Hego Amerikara joandakoak alderantziz egin dutenak baino. Gainera, Hego Amerikara iritsitako gehienak arrakastatsu suertatu dira bertan, eta hainbat eta hainbat espezie-tan erradiatu dira. Areago, lehiakide hobeak ziren dirudienez, eta, esate baterako, dagoeneko inplizituki aipatu dugunez, egungo karniboro eta herbiboro handiak inbaditzaile iparramerikarren eratorriak dira. Hala ere, ez dago argi ea aipatu ordezen hori lehia zuzenaren eraginez sortua den, edo bestelako kausa batzuen ondorioz. Arrazoiak arrazoi, autore batzuen iritzian isolamenduaren esperimenduak fauna neartikoaren nagusitasun orokorra erakutsi digu. Beste batzuen ustez, ostera, irlen hauskortasuna ondorioztatu beharko genuke.

Ugaztunetan oinarrituta ez da esperimenduaren ondorioei buruzko erabateko adostasunik lortu, baina, gainerako taldeen datuek ez dute horretarako larregi laguntzen; izan ere, narrasti eta anfibioen kasuan gehien aurkitu den patroia ugaztunenaren alderantzizkoa izan da, hots, kolonizaziorik arruntena hegoaldetik iparralderantz joan da, eta, kasurako, Ipar Amerikan zabal banatutako apo eta igelak Hego Amerikatik eratorri dira. Hegaztiei dagokienez, Hego Amerika “hegaztien kontinentea” dela esan daiteke, bertan baitago munduko espezie guztien heren bat. Areago, Hego Amerikako abifauna oso joria izateaz gainera guztiz karakteristikoa da: hogeita bi familia endemiko daude, alegia, han bizi direnak eta beste inon ez. Hegaztien fosil-erregistroa urria da, eta, horrenbestez, ezin da jakin familia endemiko horiek guztiak bertan eboluzionatu direnentz, baina, abifauna hori (hau da, kota-hegaztiak *-perching-birds-*) autoktonoa dela iradoki du DNA-sekuentzien azterketak. Edozelan izanik ere, ez dago batere argi noiztik dauden Hego Amerikan.

Esanak esan, faunari doakiola Hego Amerika gutxienez Australia bezain

berebizikoa izan zitekeen, baldin eta mantendu izan balitz orain 150 milioi urte abiatu zen bakardadea, Tethyar itsasbide zirkumekuatoriala gauzatzen hasi zenean.

DARWIN ETA MEGAFANAREN TRISKANTZA HANDIA

Gure Etxepare baino lehenago, ia berrogeita hamar urte lehenago, Charles Darwin ibili zen Hego Amerikako inguru haietan. Darwinek 1831n utzi zuen Ingalaterra gerora hain ospetsu bihurtu zen Beagle itsasontzian, Fitz-Roy kapitainaren agindupean, eta bost bat urteko periplo zientifikoan murgildu zen, azkeneko munduari buelta emanez, hala zentzu literalean nola figuratuan. Beagle-ren itsasaldiko zati handi bat egungo Uruguai eta Argentinako kostaldeetan gora eta behera izan zen, eta horrenbestez, 1832-33 tartean Darwinek ibilaldi luzeak egin zituen munduko kantoietan. Izan ere, denbora nahikoa eduki izan zuen gaztelania praktikatu eta polito ikasteko, eta bai hainbat eta hainbat datu biltzeko ordura arte guztiz ezezagun zen munduko parte horretaz.

Zorionez Darwinen *orboitzapenak* ez dira dozena bat orrialdera mugatu, Etxepererenak bezala. Neuk daukadan argitarapenean, Darwinen bidaiaren kontakizunak seihun orrialdetik gora ditu, eta liburuki bi: Darwin zazpi kapitulutan zehar luzatzen da panpetako lurralde zabaletan barrena bizi izandakoa eta ikusitakoa azaltzen, denetara hogeita bat kapituluko idazlanean.

Ez dago esan beharrik, kontu gehiago gogoratzen ditu Darwinek Etxeparek baino. Esate baterako, bere errelatoan indiarrek edonon agertzen dira, eta Darwinek berak pistola bi daroatza gerrikoan, badaezpada, enkontru txarrak edukiz gero bere burua defendatzeko. Eta, ildo horretatik, Darwinen liburu zoragarrian kapitulu berean agertuko zaizkizu besteak beste, hala peludoaren inguruko mila eta bat xehetasun –kasurako, ahatekiaren zaporekoa dela, eta almandrongila erara sarritan eta askotan jaten zutela– nola Rosas jeneral despotikoak indiarren kontra eginiko desmasia izugarriak. Darwinen begi zorrotza, gainera, profetikoa ere suertatu zen, aurreratu egin baitzuen mende-erdi barru ez zela Negro ibaitik gora indiar basatirik geldituko, eta bete-betean zuen asmatu: handik berrogeita hamar urtera Juancito Etxepareri ez zitzaion indiarren inolako oroitzapenik atxiki, ordurako amaituta baitzegoen Buenos Aires probintziako indiarren triskan-tza. Darwinen begi zorrotza konturatu egin zen, halaber, Hego Amerikako ugaztunen aparteko berezitasunez, eta gerora Elkartruke Amerikar Handia izendatuko zen fenomeno biogeografiko garrantzitsuen lehena zertzeladak eskaini zizkigun, nahiz eta artean oso ezagutza urria zegoen Lurraren historia geologikoari buruz.

Darwinen begi zorrotzak, bestalde, makina bat hezurdura erraldoi desehortzi zituen, bai Bahia Blancako inguruetan eta bestelako tokietan ere. *Megatherium*, *Megalonyx*, *Scelidotherium*, *Mylodon*, *Macrauchenia*, *Toxodon*: horrelako izenak dituzte berak aurkitutako fosiletariko batzuek. Antza, oso ugari ziren, eta dioskunez, panpetako azalera osoa hilobi itzela zen kuadru-pedio suntsitu horientzat. Erraldoi horiek aztertu eta harrিতa gelditu zen



Mylodon darwini lur-nagi fosila, Adams-en arabera (1872). Landarez elikatzen zen; altueraz metro bitik gorakoa izan zitekeen, gutxi gorabehera idi baten tamainakoa. Aztarnategi batzuetako hondarretan oinarrituta, badirudi gizaki prehistorikoek ehizatzen zituztela, bestelako espezie erraldoi batzuk bezala.

konturatzean, egundoko neurria edukitzeaz aparte, kasuan kasu egungo ugaztunen oso-oso antzekoak zirela, dela nagiena, dela armadiloena, dela guanakoena, dela kapibarena. Nola bizi zitezkeen, adibidez, tamaina horretako nagia? Jakina, ez dago zuhaitzik pisu horretako nagi erraldoiari eusteko adarrak eduki ditzakeenik, eta horrenbestez, ezin pentsa dezakegu fosil hauek utzi dizkiguten nagia adarretan gora abiatzen zirenik. Askoz logikoagoa dirudi asumitzea, atzaparrekin adarrei heldu eta hostoak jaten zituztela, lurrean jesarrita zeudela; horretarako, baina, inoiz egon al da, ba, zuhaitzik panpetan? Bestalde, oraintsukoak ziren, Darwinen ustez, kuadrupeio suntsitu horiek guztiak, edo gehienak behintzat, zeren, egungo itsas maskorren garaikideak baitziren. Zein izan daiteke, ba, orduan, hainbeste espezieren desagertzearen kausa? FitzRoy kapitainak zalantzarik gabe erantzun zion: animaliek *oro* ez zuten eduki Noeren arkan sartzeko aukera, eta ito egin ziren.

Darwin bestelako azalpenen bila zebilen, zer esanik ez. Baztertu egin zuen temperatura-aldaketa baten ideia, ze, megafaunaren suntsipena, berak bazekienez, ez zen soilik mugatu panpetara: fenomeno askoz globalagoa izan zen, eta beraz, ezin pentsa zitezkeen temperatura-aldaketa batek garbituko zituenik aldi berean latitude tropikaletako, epeletako eta artikoetako biztanleak. Eta bat-batean gogoeta hau luzatzen digu galdera gisa: “Iradoki izan denez, gizonak desegin ote ditu megaterio itzela eta gainerako edentatuak, behin eta Hego Amerikaraino sartu eta gero?”. Berehalakoan alboratu zuen azalpen hori, nahiz eta hurrengo lerroan onartu ezin zela pentsatu, adibidez, lehorte ikaragarri batek ondorioztatuko zuenik espezie haiek guztietako ale guztien Bering itsasartetik Patagoniarainoko suntsipena. Zelan azaldu, ba, desagertze masibo hori? Darwin digresio luze batean abiatzen da, Lurraren historian behin eta berriro errepikatu diren suntsipenen orduko ulergaitasuna agertuz, eta bai iradokiz ere berorien kausak, azkenean ulertuko direnean, aldaketa txiki eta gradualetan oinarrituak izango direla, eta ez katastrofe handietan. Darwinek idatzi zuenez, suntsipen masiboak argitzeko hondamendi ezohikoetara jotzea, azken batean litzateke nola giza-banakoarengan gaixotasuna heriotzaren preludea dela onartzea, baina gero, gaixoa hil denean harriztea, eta bortxaz hil dela sinestea; horren parekoa litzateke. Darwinengan, ikusi ahal dugunez, gradualismoaren ideia *Espezieen jatorria* (1859) idatzi baino askoz lehenagokoa da.

Darwinen argudio-ildoak panpetatik urrunduz joan da, eta fosil-erregistroak adierazitako azken suntsipen-episodioan hasi bada ere, konturatzeke suntsipen guztiak besarkatu ditu. Hemen, dena dela, azken horrekin geldituko gara oraingo, dinosauroen desagertzea bezain liluragarria baita, eta izan ere, oso eztabaidatua izan da hamarkadatan zehar eta gaur arte ere ez da berorren kausen azalpen gogobetekorik plazaratu.

Kontua da Pleistozeno aldian, orain 30.000 urte, bai Ipar eta bai Hego Amerika ugaztun ikaragarri handiez beterik zeudela, hala nola, lur-nagi erraldoiak, mastodonteak eta sable-hortzak. Sasoi berean errinozero iletsuak, mamutak eta beste Eurasian zabaldua zeuden, Euskal Herriatik Siberiaraino. Australiak ere bazeuzkan bere martsupialio erraldoiak, errinozeroen tamainakoak. Alabaina, orain 10.000 urte direla kreatura horiek guz-

tiak desagertuta zeuden Lurraren azaletik. Soilik Afrikan gelditu dira neurri handiko ugaztunak: elefanteak, errinozero zuria eta beltza, jirafa, hipopotamo eta abar. Elefante eta errinozeroek Asiako hego-ekialdean ere iraun dute. Nolanahi, fosil-erregistroan aparta da Pleistozenoko suntsipen masiboa, zeren, lauzpabost salbuespen izan ezik, desagertutako espezie guztiak 40 kg-tik gorako ugaztun lurtarrak izan baitziren, alegia, Pleistozenoko suntsipenak ez zituen ukitu ez lurreko animalia txikiagoak eta ez itsasoko handiak zein txikiak ere. Konparazione, orain 65 milioi urte lurreko dinosauroekin batera, airean pterosauroak desagertu ziren, eta itsasoan iktiosauroak eta plesosauroak eta baita ammoniteak ere. Hau da, Pleistozeno-amaierako suntsipenak ez ziren zorizkoak izan tamainarekiko: badirudi hautespenen baten ondorioz suertatu zirela. Halaber, izan zuen iraupen labur-laburra da Pleistozeno-amaierako masa-suntsipenaren beste ezaugarri nabarmen bat. Izan ere, milaka urte apur batzuk, edo gutxiago, nahikoa izan dira guztiz desagertu arazteko Hego Amerikako ugaztun handien 46 genero 58tik (hau da, ehuneko laurogeia), Ipar Amerikako 33 genero 45etik (ehuneko hirurogeita hamahirua), Australiakoen 15 genero 16tik (ehuneko laurogeita hamalaua) eta Europako 7 genero 23tik (ehuneko hogeita hamarra). Saharatik hegoranzko Afrika suntsipen horretatik at geratu zela esan daiteke, soilik genero bi galdu baitzituen 44tik (ehuneko bosta). Datuek erakutsi bezala, Pleistozenoko suntsipen masiboa oso azkarra izan zen, bai, baina, eragin diferentziatua eduki zuen munduko lurralde desberdinetan, izan ere, Eurasian eta Afrikan ez zen hain bortitza suertatu. Halaber, geroxeago aipatuko dugunez, ez zen aldi berean gertatu kontinente guztietan, une desberdinetan baizik.

Hainbat hipotesi plazaratu dira Pleistozeno-amaieran gertatu zena ulertu guran. Esaterako, kausa astronomikoak ere iradoki dira mamuten heriotza azaltzeko: Lurraren albedoaren bat-bateko aldaketa bat proposatu zen 1979an. Hipotesi horren arabera, denbora-tarte batez Lurrak kometa baten partikula-geruza bilduko zuen atmosfera gainean, eta islatu egingo zituen eguzki-izpiak; jakina, nolabaiteko maskor horren barruan tenperaturak amildu egingo ziren, eta, horrenbestez, mamutak hil. Dena dela, hipotesi hau guztiz zuzena balitz, suntsipena sinkronikoki gertatu beharko zen edonon, baina, huts egiten du puntu horretan.

Hipotesi-lerro nagusi bi daude gaur egun Pleistozenoko masa-suntsipenaren inguruan, hein batean Darwinek berak aipatu zizkigunak. Bataren arabera, espezieak desagertu egin ziren ez zirelako Pleistozeno-amaierako ingurune-baldintza aldakorretara nahikoa azkar moldatzeko gai izan. Bestearen arabera, gizakiak ehizatu zituen.

Lehen motako azalpenetan klima-aldaketa izaten da suntsipenaren eragile nagusia. Datu batzuen arabera, batezbesteko tenperatura 7° C igo zen, gutxi gorabehera berrogeita hamar urteko tartean; horrek idortasunaren zabalkunde globala ekarri zuen. Klima-aldaketa azkar eta sakonak landaredia bestelakotu egingo zuen Lurraren leku gehienetan. Orain 13.000 urte, izotz-aroaren amaieran, Ipar Amerika eta Eurasiako iparraldeko estepa-tundra irekiak konifero-baso eta baso hostogalkor bihurtzen hasi ziren, klima epel eta hezeagoari erantzunez, eta beste horrenbeste munduko lurralde

desberdinetan. Suntsipena, beraz, landaredi-aldaketa horiek ekarriko zuten. Dena dela, klimaren epeltzearekin batera, seguruenez, lur-azalera habitagarria zabaldu egingo zen ezin gehiago, sekulako izotz-lautadak desagertzean: badirudi populazioek gora egin behar izan zutela, eta ez, ostera, suntsitu. Zelan, ba, hobeak diruditen baldintzek akabatu zituzten ugaztun handien populazio osoak? Hainbat hipotesi partikular plazaratu dira lurraldeka espezie jakin batzuen desagertzearen erantzuteko. Esate baterako, Beringia aldeko suntsipenak nahikoa erraz azal daitezke, izotz-aroaren maximoan gune hori estepa artikoaz estalita egon zela onartuz (kasu: bibliografia-iturri desberdinetan, gauza berbera izendatzeko “estepa-tundra”, “estepa artiko” eta “sabana kriofitiko” terminoak aurkitu ditut). Izan ere, horrelako estepa batek jateko ugari ekoitziko luke animalia alatzaileen taldeentzat. Estepa artikoaren desagertzeak animalien desagertzea ondorioztatuko zuen. Horrela, ustezko estepa artiko hori maldan behera abiatuko zen, zeren, izotz-xaflen urtzeak itsas mailaren gorakada ekarri zuelarik, Bering itsasarte-ko urek ordura arteko lur-zubiaren gainetik hedatu baitziren. Klima, itsasoko urak Beringiako lautada gaineztatzean, epelago eta hezeago bihurtuko zen, eta hortaz, ordura arteko estepa artiko belartsuak –inoiz benetan existitu baldin bazen– bidea emango zion tundrari eta, geroago, zurzuri-, sahatz-, haltz- eta izei-basoei. Noski, bazka eskuragarria desagertzean, hil egingo ziren mamutak, gameluak, zaldi-behorrak eta zerrendako gainekoak. Hala ere, hipotesi hau ez da oso konbentzigarria estepa artikoaren ideia onartzen ez duten adituentzat, eta, bestalde, ezin da erabili izotz-xaflen hegoaldeko suntsipenen kasurako.

Hipotesi klimatikoen aurkako argudioak iturri bikoak dira oro har. Batetik, klima- eta landaredi-aldaketek mudantzak sortuko zituzten, jakina, animalien banaketa geografikoetan, baina, aldaketok ordura arteko banaketa-barrutiak deuseztatzeaz gainera gune habitagarri berriak itxuratu behar-ko zituzten beste inon. Espezie txiki eta handi askok erantzun dute era horretara. Esate baterako, Pleistozenoko azken aldi hotzean elur-oreina bizi izan da Euskal Herrian, orain 50.000 urtetik orain 10.000 urtera arte, baina, Artikorantz mugitu zen, klima epeldu ahala. Zer dela-eta ez zuten era berean erantzun mamutek eta errinozero iletsuek eta bestelako espezie suntsituek klima-aldaketaren aurrean, gune egokietarantz migratuz?

Klima-aldaketaren bat proposatzen duten hipotesiek badute ezin gaindituzko bigarren oztopo bat, izan ere, badirudi zeozer berezi egon zela Pleistozeno-amaieran gertatutako aldaketa klimatikoan, zeren eta, aurrekoetan ez baitzen masa-suntsipenik jazo. Pleistozeno osoan zehar hainbat izotz-aro egon da, eta txandaka errepikatu dira hozketak eta beroketak, ia ziklikoki, baina gorabehera horietan ez da inoiz masa-suntsipenik behatu. Hala ere, berezi izate hori ez da igartzen, ez laketako sedimentuen polen fosilaren azterketetan, iraganeko landaredi-aldaketak erakusten dituztenak, eta ez itsaso sakonetako jalkin *coreetan*, izotz-xaflen joan-etorrien lekuko direnak. Datu horiek guztiek frogatu dutenez, klima-fluktuazio bortitzak egon dira azkeneko milioi urteetan. Tarte luze horretako zati handiengan klima oso hotza izan da Lurreko alde gehienetan. Baina, aldika-aldika fase epel laburrak egon dira, interglazialak deritzenak, eta orain bizi dugun aldi

epel hau, direla 13.000 urte hasi zena, izatez, azken interglaziala da. Zergatik soilik azken interglazialak du halako suntsipen masiboa sortu?

Azalpen klimatikoak oso gogobetekoak suertatu ez direlarik, ehiztari prehistorikoek buruturiko sarraskiaren aukerak hartu du indar handia adituen artean, batez ere, Arizonako Unibertsitateko Paul S. Martin-en eskutik. Sarraskiaren hipotesiaren arabera, esan gabe doa, ehiztari prehistorikoek zuten Pleistozenoko megafauna suntsitu. Paul S. Martin-ek nabarmendu duenez, bai Ameriketako eta bai Australiako masa-suntsipenak bete-betean kointziditu zuten, lurralde horietara lehen gizakiak heltzearekin.

Sarraskiaren aldeko arrazoiak pisuzkoak direla ematen du. Suntsipenak ugari eta bat-batekoak izan ziren Ameriketara eta Australiaraino, hain zuzen ere, gizakiak bertaraino iritsi zirenean. Ostera, Afrikako eta Eurasiako suntsipenak, urriago izateaz gainera, gradualki gertatu ziren. Alegia, sarraskia askoz makalagoa izan zen gizakia eboluzionatu zen lurraldeetan, eta alde horretatik, Afrikako eta Eurasiako ugaztunak belaunaldiz belaunaldi gizaki ehiztarien arriskuari aurre eginez bizi izan zirelarik, onargarria dirudi pentsatzea, harrapakin horien jokabidea poliki-poliki moldatuz joan zela, pixkanaka hobetuz zihoan ehiztarien trebeziari. Nolabait, Afrikako eta Eurasiako ugaztunek eboluzio-denbora eduki izan zuten, gizakia oso arriskutsua izan zitekeela “ikasi” eta arrisku horri zegokion jokabide egokia garatzeko. Aitzitik, gizakiak Ameriketara eta Australiaraino ailegatu zirenean, bertako ugaztunak ez zeuden erasorako prestatuta, eta ez zuten denborarik eduki eboluzionatzeko: ez zekiten ehiztari prehistorikoen aurrean hanka egin behar zela, eta ezin izan zuten ihes-estrategiarik garatu; ehiztari iritsi berrientzat otzarnegiak suertatu ziren, eta hilgintza erabatekoa izan zen konturatu orduko.

Sarraskiaren hipotesiak dioenez, Clovis herriak burutu zituen Pleistozeno-amaierako suntsipenak Ipar Amerikan: ugaztun herbiboroak garbitu zituzten, eta bai domino-efektuaren eraginez desagertu arazi, berorien menpeko ziren karniboro eta haratusteljaleak. Clovis delako hori New Mexicoko aztarnategi baten izenetik dator, eta bai herriari eta bai herri horrek garatutako kulturari erantzen zaie. Datu arkeologikoen arabera, Clovis leinua direla 11.000 urte inguru nabarmendu zen bat-batean. Uste denez, euren arbasoak Beringiako lurzubian barrena iritsi ziren Siberiatik Ameriketara ehizkarien atzetik, eta glaziazioaren izotz-xaflako hegoaldeko lurretaraino sartu ziren, izotzik gabeko korridore estu bat ibilgarri gertatu bezain laster. Irtsi berriek ugaztun handiak aurkitu zituzten lurralde berri oparoan, baina, uste gabean guztiz otzanak zirelarik, ehiza benetako triskantza bilakatu zen. Hortaz, Clovis kulturako ehiztariak zuten bertako megafauna garbitu: gameluak, mastodontek, mamutak, zaldi-behorrak eta beste makina bat. Suntsitutako espezie horiek guztiak Ipar Amerikan milioi bat urtez bizi izandako aitzindarien ondorengoak ziren, eta ez zuten gizakia ezagutzen. Alabaina, eta sarraskiaren hipotesiari indarra emanez, gaur egun Ipar Amerikan bizi diren ugaztun-espezie handiak, hau da, sarraskiaren eragin deuseztatzailea zelan edo halan gainditu zutenak, Ameriketara Clovis herriaren



Colby hilgintza-gunea (= *kill site*). Wyoming Unibertsitateko ikerlariak ari dira ikeritzen aztarnategi hau 1973tik aurrera, eta dagoeneko gutxienez zazpi mamuten hezurak desehortzi dituzte. Itxura osoz Clovis ehiztariak hil eta sarraskitu zituzten, zeren, kultura horretako hainbat gezi-punta eta bes-telako tresna aurkitu baitira hezurrekin batera.

(ARG.: UNIVERSITY OF WYOMING, ANTHROPOLOGY DEPARTMENT).

arbasoekin batera ailegatutakoak dira: bisontea, karibua, altzea, oreina eta horrelakoak. Badirudi, ba, ehiztaria alde zuzenetik iritsitako ugaztunek. Ikusi dugunez, sarraskiaren hipotesi barruan glaziazioaren amaierak zeharkako erantzukizuna izan zuen, soilik, gertaturiko suntsipenetan: ehiztarietara izotzbako korridorea ireki zuten.


Sarraskiaren hipotesiaren ahuldade gisa aipatu izan da, hilkintza-guneen *-kill sites-* aztarnategietan oso-oso gutxitan aurkitu direla batera, bai megafauna horren fosilak eta bai giza hondarrak ere. Izatez, bateratasun horren salbuespenak mamutak eta suntsitutako bisonteen espezieak dira. Hala ere, *Bison* generoak bizirik dirau; ez zen erabat erauzi suntsipen-oldean, eta orduko espezieak ordezkoak ditu gaur egun. Mamutaren hezur-erak, bestalde, soilik agertu dira Clovis kulturaren aztarnategi arkeologiko ezagun guztien heren batean, eta, batzuetan, sakailatuak, itxuren arabera. Horrelako hilkintza-gune gehienak AEBetako hegoaldeko tokietan daude; esaterako, oso ezaguna da Naco hilkintza-gunea, Arizonan, non, mamut baten hezurdura zortzi lantza-buruz josita aurkitu baitzen. Baina, bisonte eta mamutenak aparte, erabat urri dira gainerako espezie suntsituen hondarrak, eta datu hori hipotesiaren aurka erabili da, ehiztari iritsi berriek soilik espezie bi horiekin tematu zirela argudiatuz. Azalpen posible bat fosilen urritasun orokorra bera izan daiteke. Edozein motatako fosilak urri izaten

dira, eta aurkitutako gutxi-aski horiek, izatez, milaka urtean zehar piloturiko gorpuen ondorioa dira. Sarraskiaren hipotesia zuzena balitz, baina, espeziearen existentziako azken hamarkadetan soil-soilik gertaturiko heriotzak izango ziratekeen giza ehizak sortuak, eta beraz, gorpu horiek ez lirateke kopuru osoaren zati ñimiñoa besterik. Jakina, horiek baino lehenagoko heriotzak “naturalak” izango ziren, eta gizakien hondarrik gabeko aztarnategi “naturaletan”. Edozelan izan ere, azalpenak ez digu argitu, mamut-hezurak arrunt samarrak direlarik, ea zergatik ez den mastodonte, zaldi-behor, gamelu eta abarren hondarrik ia agertzen.

Nolanahi, lehen begi-kolpean ezinezkoa dirudi Clovis herriak halako triskantzak kolosala bururaino eramatea, zeren, orduko populazioa halabeharrez txikia izango baitzen, eta ehiztariak gutxi. Ikus dezagun, bada, hipotesiaren nondik norakoa. Paul Martin-ek asumitu egiten du, egungo Kanadako Edmonton aldera ehiztari-oste bat iritsi zela orain 12.000 urte inguru; denetara ehun bat lagun. Jakina,

Ehiztariaren aurrerapenaren sekuentzia kronologikoa egokiro uztartzen da Pleistozenoko ugaztun handien suntsipen progresiboarekin. Sarraskiaren hipotesiaren arabera, ehiztari oso trebe batzuek Beringia zeharkatu zuten eta hegoalderantz zabaldu ziren: populazio nahiko dentsoa mantendu zuten, ugaztun handiez elikatzen zirelarik.

(IRD.: BROWN & LOMOLINO).



ehiza franko eta erraza, eta eguraldia hoberantz, baldintza faboragarri horietan azkar ugaritu zen, eta zabaldu, hasierako oste txiki hura. Martin-en ustez, abiapuntutik aurrera ehiztariak uhin-fronte modura hedatu ziren, lurraldea zirkuluka okupatuz. Azalera horren periferia, fronte estu bat izango zen, non, ehiztariek topo egingo baitzuten Ipar Amerikako ehizaki otzan-otzanekin, eta, ez dago esan beharrik, kalitu egingo zituzten, hots, munduko bizidunen artetik ezabatu. Populazioa handitu ahala, frontea zabaldu egingo zen. Paul Martin-en ereduari, uhin-fronte horretan 40 lagun biziko ziren 100 km²-ko, eta frontearen atzeko aldean, dagoeneko janariturri oparorik gabe geratutakoan, 4 lagun 100 km²-ko. Asumitu eginez populazioa 20 urteka bikoizten dela eta zabalkunde-tasa urteko 10 miliakoa dela, Paul Martin-en kalkuluen arabera 350 urte behar izango ziren Mexikoko Golkoraino iristeko, eta ordurako Ipar Amerikako populazioa milioi-erdi arimakoa izango zen. Ordurako, noski, Ipar Amerikako megafauna gehiena desagertuta zegokeen. Alabaina, ehiztarien olatu suntsitzailea ez zen Río Grandera ailegatutakoan gelditu, ezta Erdialdeko Amerikan. Sarraskiaren hipotesiak dioskunez, gizakiak orain 11.000 urte zeharkatu zuen Darien istmoa, eta soilik 500 urte behar izan zituen Hego Amerikako beheko muturreraino heltzeko, eta, bide batez, bertako ugaztun handiak ezerezaren mundura bidaltzeko.

Halandaze, Clovis ehiztariek eraginkortasun zinegetiko galanta eduki zuten, eta tokian-tokian triskantza hondatzaileak burutu zituzten. Dirudie-nez, animalia-saldo osoak bideratzen zituzten paduretarantz edota amildiegietarantz suaz uxatuz, halatan non, ehizaldi bakar batean dozenaka ale akaba baitzitzaketen, ehunka beharbada. Era horretara, ugaztun handien populazioek erreka joko zuten, oso laster minimo bideragarrietatik behera jaitsiz. Esan gabe doa, behin herbiboro handiak desagertu arazita atzetxotik joango ziren euren harrapakariak eta sarraskijaleak.

Paul Martin-en ereduari, beraz, ehiztariak eta ehizakiak soilik uhin-fronte mugikor horren zirrinda estuan egon ziren batera aldi berean, eta, izatez, gune jakin batean denbora-tarte oso laburrean egongo ziren (hamarkada gutxi batzuk, beharbada), Ipar Amerikatik Hego Amerikan bidean. Eredua zirrargarria da bere sinpletasunean, eta oso ondo gardainatzen ditu elkarrekin era desberdinetako datuak. Hala ere, badirudi ezagutzen diren aztarnategien kronologiak ez datozela guztiz bat uhin-frontearen ideiarekin. Ideia horrekin ados, hilkontza-gunearen aztarnategia zenbat eta Kana-dako Edmonton-etik urrunago egon, modernoagoa izan beharko litzateke, baina lortu diren datuek ez dute hori egiaztatu. Dena dela, Pleistozenoko suntsipenen geografia eta kronologia oso ondo uztar daiteke giza kolonizazioaren jazokune nagusiekin, izan ere, suntsipen-episodioak erlatiboki oso makalak izan ziren gizakia aspaldiko biztanlea zeneko lurraldeetan, Afrikan hain zuzen (izatez, Afrika litzateke arauaren salbuespena), eta, aitzitik, oso bortitzak, gizakia lehen aldiz agertzen zenekoetan. Esan dugunez, Ameriketak eta Australiak zein bere aldetik masa-suntsipen ikaragarriak jaso dituzte gizakia bertara iristean batera, eta beste horrenbeste esan daiteke makina bat lurralderen gainean. Adibidez, Zeelanda Berrira Kristo osteko 1000. urtean iritsi ziren gizakiak: 1600. urteko suntsitu zituzten bertako hegaldibako

hegazti-espezie erraldoiak, moa ospetsuak. Beste adibide baterako, Madagaskarren Kristo osteko 1000. urte aldera suntsituta zeuden lemur erraldoiak, elefante hegaztia eta beste zenbaitzuk; gizakiak bostehun urte lehenago iritsi ziren bertara. Halandaze, sarraskiaren hipotesiak, klimaren hipotesiek ez bezala, nahikoa ondo azaltzen du Pleistozenoko Lur osoan zehar gertaturiko masa-suntsipenen asinkronia.

Antza denez, ba, eta oraindik ere hipotesiak beharko dituen zuzenketak guztiak gorabehera, adituen artean gero eta adostasun nabarmenagoa dago Pleistozeno-amaierako suntsipenak gizakiaren eragin zuzenak ekarri zituela onartzean. Areago, Peter Ward-en ustez, orduko sarraskiak, izatez, ez ziren gaur egun indarberritu dugun espezie-galera eroaren abiapuntua besterik.

Azalpenak azalpen, Pleistozenoko megafaunaren suntsipenak ondorio luze eta askotarikoak ekarri ditu. Esate baterako, badago bat txikitlan eskolan irakatsi zigutena, megafauna galduaren gibelondoa denik adierazi ez baziguten ere. Ameriketako konkistaren kontakizunean, zeharka izan arren, behin eta berriro agertzen zen zaldia izan zuen garrantzia, Hernán Cortésék Moctezumaren inperioa eskuratzeko, edota era berean Francisco Pizarro Atahualparenaz jabetzeko. Behin eta berriro aditu genituen heroi horien balentriak, eta zelan konkistatu zituzten azteken eta inken inperio indartsuak, gizon bihoz dun gutxi batzuekin batera, eta horretarako erabat erabakigarria izan zela, zamalkatzen zituzten zaldiek indiarren artean sorturiko izu-laborria. Indiarrek ez zuten zaldia ezagutzen, eta ezinago izugarria begitandu zitzaizen konkistatzaileak zaldiz agertzea. Jakina, klima-aldaketa izan zein Clovis herria izan, jatorrizko zaldi-behorrak Pleistozenoko suntsipenek ezabatu zituzten Ameriketatik, eta, hein batean, konkistatzaileen alde egin zutela esan daiteke, indiarrek inferioritate-baldintzetan utzi baitzituzten.


Bestelako ondorioak ere aipatuko ditugu labur-zurrean, eta gaia agortzeko asmorik gabe. Jared Diamond-ek azaltzen duenez, Pleistozenoko suntsipenen ondorioz xahutu egin zen gizakien janari-iturri garrantzitsuenetarikoa, eta besteak beste horrexek behartu zuen abeltzaintza eta laborantzaren garapena munduko bazter desberdinetan. Era berean, Tim Flannery-k megafaunaren desagertzearen egotzi dio Australian hain sarri gertatzen diren sute erraldioen errua: sasoi bateko megaherbiboroek jaten zuten bazka, gaur egun tonaka eta tonaka metatzen eta ihartzen da hango lautada mugagabeetan eta, aldika, suak hartzen du, inguru osoa kiskaliz. Bestalde, Ameriketako landare-espezie askok fruitu mastodontikoak ekoizten dituzte alfer-alferrik usteltzen direnak: uste denez, megafaunarekin batera koeboluzionaturiko fruituak dira, baina, bikotekide ekologikoak suntsitutakoan alferrik galtzen dira gaur egun, ez baitute ganorazko sakabanatzailearik. Horietakoen berri konplutua aurkituko duzu Barlow-en liburuan.

Hego Amerikako panpetako bakardadea harrigarria suertatzen da, Afrikako sabana bizidunetz josiarekin alderatuta. Bakardade hori Darwinek berak sentitu zuen. Animalia alatazailerik handiak falta dira, eta baita berorien harrapakariak. Horietarikoak bazeuden Pleistozeno-amaierara arte, eta oso

ugari ziren fosil-erregistroaren arabera, bai ale-kopuruz eta bai genero desberdinez. Nolanahi, Etxeparetarrak berandu samar iritsi ziren Argentinara, ordurako Clovistarrek-edo ondotoxo amaituta baitzeukaten erraldoien garbiketa –eta Etxeparetarren kontinentekideek Clovistarren ondorengoena–, eta gure Juancitok bere oroitzapenetan indigenarik gogoratzen ez duen bezala, nekez eman diezaguke armadilo erraldoien eta nagi erraldoien berri, biziaren historiaren ikuspuntutik ia-ia begien aurretik ezabatu zizkioten-eta. Tamala da, baina horrelaxe da.

Esperantzari leiho bat ireki zioten 1895. urtean, baina, sasoi horretarako Jean Etxepare Bordelen zegoen, medikuntza ikasten. Kontua da, urte horretan Patagoniako bazter galdu bateko haitzulo baten barruan aurkitu egin zirela, animalia suntsitu baten larru iletsu gorritzeta eta itxuraz oraintsukoa eta bai hezurak eta gorotz-piloa. Hondarrok gizakien hezur eta tresnekin nahastuta topatu ziren. Azterrutakoan, lehenago Darwinen berak ere desehortzita-ko *Mylodon* generoko nagi erraldoiarenak zirela egiaztatu zuen Florentino Ameghino paleontologo argentinar ospetsuak, geroago Europako zenbait adituk bezalaxe. Baina, adi!, luze ez zela hildako milodon baten hondarrak izan zitezkeen, Ameghino-ren iritzian. Horretan ere ados agertu ziren Arthur Smith Woodward British Museum-eko paleontologia-saileko arduraduna eta Edwin Ray Lankester Natural History Museum-eko zuzendaria. Azken honen hitzak omen dira ondoko hauek: *It is quite possible –I don't want to say more than that– that...(milodona) still exists in some of the mountainous regions of Patagonia*. Horrek guztiorrek interes handia piztu zuen inguru akademikoan eta jende arruntaren artean. Izan ere, hainbat espedizio antolatu ziren milodon biziak harrapatzeko asmoz, esaterako, 1900-1901 bitartean Hesketh Prichard kazetariak *Daily Express* berripaperaren aginduz burutu zuena, eta ibili Florencio de Basaldua euskalduna ere (artean Chubut probintzia patagoniarreko gobernadorea) ibili zen milodon bizien atzetik. Debaldekoak ahalegin guztiak, ez baitzen lortu nagi erraldoi bizien inolako zantzurik. Nolanahi, ahalegin horietan oinarritu zen Arthur Conan Doyle *The Lost World* idazteko, liburu horrek Prichard-en abenturak jaso baititu hein batean. Geroago ere egin izan dira espedizio zientifiko batzuk milodonen bila, baina alferrik.

Gaur egun, Cueva del Milodon delakoa turista despistatuentzako helburu bihurtu da: gehienek ez dakite zehatz non dagoen, Argentinan ala Txilen, bien arteko egungo muga galduan baitago. Bestetik, badaude pertsona batzuk sinetsita daudenak, milodonek bizirik dirautela hegoalde urrun hartako okoiluren batean ondo ezkutatuta, beste batzuek elurretako gizon deitoragarrian sinesten duten era berean. Hala ere, erradiokarbonoak ez du esperantzarako zirrikiturik utzi: haitzuloko milodonaren hondarrak orain 13.500-10.500 urte-tartekoak dira. Itxuraz, ba, gure mundu galdu honetan inon ez da mundugaldu conandoylearrik salbatu.



Milodonaren Koba. Atarian milodonaren erreplika bat eraiki dute turisten gozagarri, ustez zeukan tamaina eta bizi-jarrera irudikatuz. Antzerako lur-nagi erraldoiak Ipar Amerikaraino hedatu ziren, Fauna-Elkartruke Handia gertatu zenean.

EUSKALDUNAK LUR PROMETATU EZTIAN

Jean Etxepare idazlea Argentinako Mar Chiquitan jaio zen, 1877an, eta bertan igaro zituen haurtzaroko lehen urteak, baina, 1883an Euskal Herrira itzuli zen familia osoa: aita-amak, Pierre anaia (1880-1932) eta Gratianne arreba (1882-1971). Oztibarreko Ibarren barik, Lekornen kokatu ziren, Erlandenea etxean hain zuzen, eta Lapurdiko herri horretan jaioko dira gainerako neba-arrebak: Marie (1884-1958), Joséphine (1887-1976), eta biritziak, Julie (1890-1983) eta Emile (1890-1977).

Aitaren anaiak ere Lekornera itzuli ziren, bata, Pierre, Hiriartia etxera (edo Idiartia), eta bestea, Bernard, Orzakua etxera (geroago Blanxarrenia bilakatuko zen). Jon Casenavek dioskunez, hiru anaiak diruz polito zebil-

tzan, zeren, etxe bana erosteaz gainera, hainbat funts eskuratu baitzituzten, Lekornen bertan eta Makean. Dirudieenez, errentez bizi denaren bizimodu astiduna egin zuten, artzaintza edota laborantza oroitzapenen kutxan ondo gordeta.

Ez dut aurkitu Etxepare anaiek Ameriketara egindako ibilbidearen gaineko daturik,



izan ere, ezin izan dut dokumentatu zein urtetan joan ziren. Alabaina, Douglass eta Bilbaoren liburuan irakur daitekeenez, Argentinako ardi-hazkuntza 1850. urtearen bueltan hasi zen prosperatzen, eta hortik aurrera arloak bonantza-urteak bizi izan zituen hurrengo hiruzpalau hamarkadetan. Tes-tuinguru horretan heldu ziren hainbeste euskaldun artzain gisa aritzera, eta baita haien atzetik Ximun Gimón-Zetegiet moduko arima-artzainak ere. Tarte horretan suertatu ziren, bada, Etxepare anaiak, eta fortuna egin. Dirudieenez, 1860rako, alhagune bihurtu zen, Buenos Airstik 50-60 legoatako erradioan zegoen azalera osoa, eta hainbeste ardi bazkatzen zen, non higa-

dura-arazo larriak agertu baitziren. Hamarkoiztu egin zen bai ardien salneurria eta bai alhaguneena ere. Dirutza handiak egin ziren, ia inolako inbertsiorik gabe eta administrazio-zailtasunik gabe. Izan ere, lurraren eta artaldean jabeek artzainei dirutan ordaindu beharrean, artaldeak erdibana uzten zizkieten, hau da, artzainarentzat izaten



ziren bai artilearen erdia eta bai bildotsen erdia; kontratuak amaitutakoan, artzainek beren artalde lortu berriekin lau txakur txikitara alokatutako

Lekorneko Erlandenea. Amerikak egin eta gero, Juancito Etxepareren familia Lekornen kokatu zen, etxe eder horretan. Arrantier gisa bizi ziren, hau da, Ameriketara bildu ondasunetatik lanean ari izan gabe, eta ez jende arruntaren moduan. Alabaina, behi bi atxiki zituzten Erlandenean: horixe zioten Lekorneko jendeek duela zenbait urte oraindik. Bitxia da: Hazparneko edo karrrika gaineko burgesen gisan bizi nahi zuten, eta aldi berean bizpahiru behi etxean bildu.

(ARG.: S. LARREGAIN).

Buenos Aires hiriburua inguruko larru-lantegi bat, 1890. urte inguruan. Abere-hazkuntzarekin batera, haragi-eta larru-ekoizpena ikaragarri handitu zen Argentinan, eta, izan ere, larruen esportazioa oso munta handikoa izan da hogeigarren mendeko lehen hamarkadara arte.

(ARG.: S. RIMATHÉ).

lurraldeetara jotzen zuten, eta, zer esanik ez, urteen joan-etorrian lurra erosten zituzten, eta milaka ardiren jabe ziren bihurtzen.

Alabaina, artzainen bizimodua bakartia izaten zen, sedentarioa izan arren. Artzain bakoitza txabola ziztrin batean bizi zen, emazte eta seme-alabekin, edo bakar-bakarrig gehienetan. Etxepareren *orboitzapenetan* bizi-bizi sentitzen da artzainen bakardade hori. Egunero, ardiak alhagunetara eramaten zituzten, baina kontu handiz, inguruetako artzainen artaldeekin ez nahasteko; iluntzean, atzera txabolara, eta artaldeak artegitara, barrioetara Etxepareren hitzetan. Txabola horiek oso urruti egoten ziren bata bestetik, eta urruneko botigetara joatea eta urtero inguruetako artaldeen motzaldien karietara egindako jaiak izaten ziren jendarteko hartu-emanetarako aukeria bakarrak.

Holantxe-edo aberastu eta, gure zorionerako, Euskal Herrira itzuli ziren Etxeparetarrak. Geroago, gure medikuak 1903an idatzi zuen emigratioari buruzko artikulua baikor batean, era honetara laburbildu zigun sasoi horretako indiano askoren joan-etorria, zer esanik ez, bere gurasoen bizitzan oinarriturik:

Erle batzu iduri zuten, Ameriketako lilien ikertzera joanak, kofoia hemen utzirik zaintzalekin, gero ezta bildu zuketenean gozatzekotan. Zenbeit urte laburrez han alatu ondoan ahal zuten bezenbat –ezen bizi hau ez zeien ixtant bat baizik– heldu ziren gibelerat, gehienak gerrikoa hanpaturik. Ontsa saltzen ziren azindak, kabaletako mozkinak merkatuetarat bazuten joaitea, diruak ez zuen oraino galtzerik. Orduan Euskal-Herrirat itzultzea, zer zoriona!

Alabaina, oro har askoz handiagoa suertatu zen indar zentrifugoa indar zentripetua baino, esan nahi baita, erlatiboki oso gutxi izan ziren Euskal Herritik urrundutakoan atzera itzuli zirenak. Gure artean oso zabaldua dagoen irudi baten arabera –zortzikoetan-eta–, Ameriketara jo zuten euskaldunen bihotzean itxaropen bakarra zegoen, alegia, lan egin zintzo eta gogor, eta diru-meta bat bildu ahalik eta lasterren, sorterrri maitera bueltatzeko. Dirudienez, baina, kontuak bestelakoak izan dira. Gogoratu, adibidez, Lurotarren kasua: dirutza galanta metatu arren, gehienak Argentinan gelditu ziren. Eta, izan ere, horixe bera irakurri ahal duzu Rouget de Lisle-ren “Les Basques en Amérique” artikuluan (1928); argi eta garbi diosku *[ils] n’avaient pas l’intention de retourner vivre dans leur pays natal*, eta areago, *je ne trouvais pas le Basque que je cherchais, le vrai Basque, le berger venu en Amérique gagner assez d’argent pour acheter une maison dans les Basses-Pyrénées et prêt à tous les sacrifices pour atteindre ce but*. Hau da, Rouget de Lisle ere harrিতuta gelditu zen, ikusitakoan errealitatean ez zegoela klixek zabaldutako *vrai Basquerik*, ez zegoela horrelako *zinezko* euskaldunik.

Beste adibide bat ekarri gura dut, klixearen eta errealitatearen arteko aldea agerian uzteko, eta bide batez indar zentrifugoaren garrantziaz konturra gaitzen. Robert Laxaltek *Sweet Promised Land* eleberri ospetsua argitaratu zuen 1957an. Liburu horrek egilearen aitak, Dominique Laxalt, Zuberoa egin zuen bisitaldia kontatzen digu, Urruneko Mendebaldean –*Far West*– artzain mende-erdi igaro eta gero. Bidaia nostalgiko horretan zehar

burura etorriko zaizkio nahasian haurtzaroko erreminiszentziak eta Amerikan bizi izandako nekeak eta ilusioak, baina, sorterrria bisitatzeko amets zaharra gauzatzean, orduantxe konturatuko da Amerika duela benetako herria, eta berarenganantz dei egiten diola. Izan ere, eleberriaren azken orrialdean Euskal Herrira behin-betiko bueltatzeko eskatzen diotenean, bihurtu gabe eta buruarekin ezetz esanez erantzun zuen:

– Ezin naiteke itzuli. Hau ez da orain nire herria. Urte gehiegi egin ditut Ameriketan. Ezin naiteke itzuli.

Ezin argiago esan. Mezua gardena da: indar zentrifugoa gainditu egin zaido indar zentripetuari. Hala ere, klixek begiak lausotu-edo egin dizkigu, eta jatorrizko *Sweet Promised Land* garden hori *Dominique*, *artzain xiberotar bat Nevadan* bestelakotu da euskarazko itzulpenean. Euskarazko izenburua irakurtzean, inplizituki ukatuta begitandu zait ingelesezko izenburuak daroan klabea, eta bai liburuan barrena luze-zabal irakur daitekeen egia. Euskarazko izenburu horrek, nolabait, Nevadan pasaeran dagoen euskaldun bat aurkezten digu: han “koiunturalki” dagoela ematen du. Guztiz bestelakoa da ingelesezkoak adierazten duena.

Zorionez, Etxeparetarren kasuan indar zentripetua da gailendu zena, eta sorterrira itzuli ziren. Areago, Juancitori dagokionez indar zentripetu horren bizitasuna handia izan zen, eta euskalduntasunaren uharkan murgildu arazi zuen oso-osorik, halatan non idazle dotore eta oparoa eskaini baitzigun.

Panpetatik Euskal Herrirako bidea egin duen beste bat, eta oraingo honetan ezin dugu esan zorionez izan denik, *Cortaderia selloana* da, hain zuzen ere, panpetako belarra (= *Pampas grass*) edo, hobeto, panpetako lezka deritzona, eta benetako izurri bihurtzen ari dena. Panpetako lezka landare ikusgarria da, motots gisara paratua: 1,8 m-ko luzeradun hostoez osotutako mototsak 3,5 m-ko diametroa lor dezake, eta 4 m-ko altueraraino irits daitezke erdi-gunean hazitako lezka-itxurako zurtoin lore-dunak. Hostoen ertzak latz eta ebakitzailak dira. Infloreszentziak zuri-zilarrak eta lumakarak dira, 40-70 cm luzeak. Iraila-aldera izaten da loraketa.



panpetako lezka oso preziatua izan da sasoi viktoriarretik aurrera lorategi-landare gisara, eta mundu zabalean hedatuta dago, jatorriz, izenak berak dioskunez, Hego Amerikako panpetakoa bada ere. Leku askotan izurri handi eta erauzteko gaitza bilakatu da, landare oldarkorra baita, landare indigenak desplazatzen dituena. Kalifornian, Hawaiin, Zeelanda Berrian, Australian eta Hego Afrikan, esan bezala, izurrite bihurtu da, eta sastraka trinko eta inpenetrableak eratzen ditu gune askotan eta askotan.

Cortaderia selloana panpetako lezka. Izatez, panpetako paisaietako osagai nabarienetariko da. Dirudienez, antzina oso eremu zabalak estaltzen zituen *cortaderia* direlakoak, batez ere hegoaldeko panpetako lekune behe eta hezeetan. Gaur egun, gune marginaletara murriztu da. Panpetatik kanpo, oster, guztiz arrunta bilakatu da leku askotan, eta, areago, benetako izurritea da, jatorrizko landarediarekin lehiatzen ari dena. Euskal Herrian ia edonon aurki daiteke, zabalago eta ugariago egunetik egunera.

(ARG.: Z. ARTEAGA).

Euskal Herrian ere, orain urte gutxi batzuk oso bakanka ikusten genuen *Cortaderia selloana*, baina, gaur egun kostaldean ia edonon agertzen da, errepide-bazterretan, orubeetan eta lurzoru andeatu eta sasinatural guztietan, eta duen sakabanaketa-sistema eraginkorrenagatik (lurpeko errizomak edota 32 km-raino urrun daitezkeen hazi hegazkorrak) askozaz hedatuago ikusiko dugu hemendik lasterrera, beharrezko neurriak hartzen ez badira. Izatez, inguru hauetako panpetako lezka naturalizatuaren lehen aipu zientifikoa Emilio Guineak egin zuen, 1953an, baina, irakurri dudanez, gaur gaurkoz bigarren izurritearen postua eskuratu du Urdaibai Biosfera-Erreserbako landare arrotz inbaditzaileen errankinean.

Urdaibai Biosfera-Erreserban mehatxu galanta dena, ostera, osagai natural garrantzitsua da, UNESCOk 1996an izendatutako Buenos Airesko Mar Chiquita Biosfera-Erreserban, Pedro Luroren Mar del Plata hiritik 35 km-ra. Erreserba horrek, besteak beste, panpetako jatorrizko biomaren berezitasunak gerizatu nahi izan ditu, eta horrela delarik, bertan aurkitu ahal dituzu, bai sasoi batean ñanduen ostendera omen ziren *Cortaderia selloana*ren lezkadiak, eta bai Etxepareren gomuta atxiki zuten, peludoa, bizkatxa eta zorrinoa. Alabaina, Mar Chiquitako Erreserban, berraragituriko Juancito bati seguruenez oso lausoki begietaratuko litzaizkioke *Ameriketako orboitzapenak*.

2. Buruxkak

GURE PARNASO TXIKIA

Parnaso txikia dugu euskararena, baina hala ere Aldudeko medikua ez da bertan errolatutako Jean Etxepare bakarra. Buenos Airesko Mar Chiquitan munduratu Juancitoz gainera, beste hiru Etxepare ditugu, Jean eduki izan dutenak bataio-izen. Egia esateko, lauren artean ere ez dute lortu aspaldiko Bernat Etxepare Eiheralarreko erretore haren osparen laurdena, gugandik askoz hurbilago egon arren, baina tira.

Badakigunez, Aldudeko medikua da gure lehen Etxepare Jean, eta 1877-1935 artean bizi izan zen. Batzuetan, amaren deitura eta guzti Jean Etxepare Bidegorri esaten zaio, Jean Etxepare “Gaztearekin” ez nahasteko, behin baino gehiagotan gertatu den bezala.


Jean Etxepare “Gaztea”, alegia, Jean Etxepare Landerretxe, Nafarroa Behereko Jatsun jaio zen, 1937ko urriaren 31n, eta Hazparnen hil gazte-gazterik, 1961eko abenduaren 10ean, 24 urterekin. Idazkaritza eta kontabilitatea ikasi zuen Baionan, eta sasoi horretan hasi zen idazten. Etxepare Gazteak *Gazte*, *Gure Herria*, *Panpin* eta *Herria* aldizkari eta kazetetan argitaratu zituen bere idazlanak, ipuinak gehienbat. Piarres Xarritonek bildu zituen liburu batean 1964ean; geroago Inazio Mujika Iraolak osotu du bilduma 1991n. Edizio bion izenburua *Mendekoste gereziak* da, bildumako ipuin ezagunenaren titulutik hartua. Nolanahi, Mujika Iraolak aipatu duenez, lehen bilduma horrek ez du eragin handirik eduki osteko euskal ipuingintzan, zeren eta, argitaletxearen txikiari egotzi dakiokkeen zabalkunde urriaz aparte, frankismoaren garaian Etxepare Gaztearen obrak ez baitzuen klandestinitatearen xarmarik, berea ez zen-eta literatura “engaiatua”. Dena esateko, ni harrিতuta utzi nau, liburuaren azken aldean Baionako plazako zezenketa-kronikak irakurtzeak. Bestalde, Mujika Iraolaren iritziz, Garazi aldeko mintzaira erabiltzeak ere urrundu egingo zuen Hegoaldeko irakurlegotik.

Sarritan entzuten da bigarren arrazoi hori iparraldeko idazleen ezagutza-falta zabala zuritzeko, baina, ez dakit zein neurritaraino euskara diferen-



Jean Etxepare Landerretxe (Jatsu, 1937; Hazparne, 1961). Etxepare “Gaztea” sarritan nahastu da Aldudeko mediku homonimoarekin. Hogei-ta lau urte besterik ez zituela hil zelarik, *Mendekoste Gereziak* da haren ipuin-bilduma postumoa.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).




tearena benetakoa den. Seguru badagoela zeozer hizkuntzaren ingurukoa, bai, baina, ez dut uste nahikoa arrazoi denik horrenbesteko urruntasuna egon dadin. Izan ere, sasoi batean Hego Amerikako idazleen boom handia gertatu zenean gure artean, haiengan ere mundu desberdinak eta gaztelania arrotza aurkitu genituen, baina, horrela izanik ere, idazle horiek ezagutu egin genituen, irakurri egin genituen –hiztegira joz behar zenero–, eta, zer esanik ez, batzuk maitatu egin genituen.

Hona ekarriko dugun hirugarren Jean Etxepare, hemeretzigarren mendekoa da. Ez dago datu zehatzik Etxepare horren gainean, ezta Jean deitzen zenik ere. Hazparneko apaiza bide zen, eta liburu biren egilea ei da. Bata, 147 orrialdeko *Tierceren escu-liburua*, Baionan argitaratu zen 1862an eta 1870ean, eta Joseph Aresok sinaturiko eliza-baimenean dioenez “l’abbé Etchepare” du egile; gainera, frantsesez adierazten du “propriété de l’auteur, J. E.”. Badago bigarren idazlan bat 23 orrialdekoa, *San Francesen Hirugarren Ordenaco erregela munduco presunentzat*, 1884an plazaratu zena, eta izatez, san Frantzisko Asiskoaren hirugarren ordenako erregelaren bertsio berria da, Leon XIII aita santuak 1883an emandakoa; liburuxkak ez dakar egile-izenik, ez bestelako argibiderik, baina, Hazparneko apaiz horri egotzi ohi zaio. Geroago, 1892an *San Francesen Hirugarren ordenaco edo Tierz Ordreco escu liburu berria* argitaratu zen Baionan; liburu horrek ere “propriété de l’auteur, J. E.” dio bigarren orrialdean, baina, aitzinsolasean “Morde Etchepare apheza” jainkoak guk nahi baino lehen mundu honetatik eraman zuela diosku, egilea nor izan den argitu barik. Hau da, 1892ko liburu horren egiletza gora-behera, Hazparneko Jean Etxepare hilda zegoen 1892. urterako.

San Frantzisko Asiskok hiru ordena eratu zituen. Lehen ordenaren erregela 1209an onartu zuen Inozentzio III aita santuak, baina gerora pobretasun-irakasbidea era desberdinetara interpretatu zen, eta gaur egun ordena hirutan banatuta dago, alegia, fraide frantziskotarrak, kaputxinoak eta komentualak. Bigarren ordenaren erregela 1212koa da, eta emakumeei begira ezarri zen; moja klaratarrak dira adibiderik ezagunena. Tradizioaren arabera, 1221ean eratu ziren “terzierak” edo “hirugarrendarrak”. Hirugarren ordena hau, San Frantziskok lehen edo bigarren ordenetara sartzerik ez zeukaten pertsona debotentzat pentsatu zuen, alegia, gizon zein emakume laiko penitentzigileentzat. Hazparneko Jean Etxeparek multzo horretako jendearentzat idatzi zuen.

Ez dago datu askorik hirugarren ordenak Euskal Herrian eduki izan duen historiaz. Dirudienez, 1242an kokatu ziren Baionan san Frantzisko Asiskoaren anaia txikiak, 1283an klaratarrak, eta 1615ean kaputxinoak. Pentsa daiteke komunitate horien inguruan garatuko zela hirugarren ordena, baina ez daukagu jakiterik. Kontua da 1860. urtetik aurrera hainbat liburu argitaratu zirela euskaraz terzierentzat, hau da, mota horretako “literaturak” bazeuzkan, antza, erosleak, eta, aipatu Jean Etxepare ezezagun horretaz gainera, beste idazle-izen bi ekarri nahi ditut hona. Lehenik eta behin, jadanik aurreneko kapituluak agertu zaigun eta gure iritziz hain nabarmen-garria den Jean-Pierre Arbelbide dugu: ehun bat orrialde ditu hirugarren ordenari buruzkoak, bere 1890eko *Erlisioneak: Eskual-Herriari dohazkon egia-rik beharrenak. Heren-Ordreko chebetasunekin eta Meza-Bezperen othoitzeekin*



liburuan. Bigarrenik Luka Babaki aipatu gura dut. Luka Babaki hori 1873an jaio zen Lekorneko Agerrea etxean, eta gerora kaputxino egin zen, Blas Mendiondoko bihurtu zelarik. Izen horrekin argitaratu zuen 206 orrialdeko *Heren-Ordenako Erreglaren chehetasunak ordenako buruzagien baimenarekin*, *Aita Blaise capuchinak emanak* 1914an. Hain zuzen ere, urte horretan hil zen Gerla Handian, horretarako Oiartzungo erbestetik itzuli zelarik.

Esan dugunez, Luka Babakik izena aldatu zuen kaputxino profesatzean, eta Blas Mendiondoko bilakatu, Mendiondoko baitzen, izan ere, Lekorne, Mendiondo udalerriko kartier bat da, auzune bat, Gerezieta, Atizane eta Basaburua diren bezala. Bada, Luka Babaki hori umetako laguna ukan zuen Jean Etxepare Aldudeko medikuak, eta izenik eman ez arren oso maitatua zuela diosku *Itze-egilearen zakurra* kontakizun ederrean:

Bizi nizano orhoituko naiz ene herriko itzegileaz, hunen lantegiaz, hunen zakurraz.

Agerreko nausia zen. Lekorneko plazan, berrogei ta zenbeit urtetako gizon sekail ginharri bat, errea, laborari-etxe goriko buruzagi zelarik, itzegilea ofizioz.

[...]

Lau seme bazituen gizon harek, lauak ene heineko, enekin ardura zabiltzanak, aneia batzu bezala maite bainintuen. Ez uste ukan bizkitartean heien gatik ere nindoala hain maiz lantegirat.

Luka Babaki da, esan gabe doa, lau anaia horietatik zaharrena. Aldudeko medikuak ez digu Lukari buruzko argibide gehiagorik eskaintzen *Buruxkak* liburuko atal horretan, izan ere, hor *Karno* txakur langilearen heriotza lazgarria kontatu nahi digu-eta: “Ene bihotzmina eta nigarrak!... Ez dut ukan, arimaz egia, ene bizian, nahigabe saminagorik.” Piarres Lafittek bildu ditu aita Blas Mendiondokoaren gainekoak, baina, ez du gure medikua rekin lotu.

Donapaleukoa zen, gure Parnaso ñimiñoko laugarren Jean Etxepare. Hazparneko izenkidearen kasuan bezala ia ez dago ezelako daturik Donapaleuko Jean Etxepare horren gainean. Bakarrik ezagutzen da lau bertso paper argitaratu zituela euskaraz eta frantsesez 1888. urte inguruan, eta horietariko hiru sail erreskatatu dizkigu Xabier Kaltzakortak. Urkabe-bertsoak dira donapaleutarrarenak, hilketa urragarrien berri ematen dituztenak, ile-ondo guztiak zutik jartzeko modukoak. Ikusi esaterako *Cantu dolorosac* bertso-saileko hiru ahapaldiok:

2

Emaztia alharguna, cen munduan
Ezposa hila zuela, ez goguan
Semiarekin erori da, bekhatuan
Etçaï zaharra, etzen nazki ifernuan.


3

Haur bat eguin eta, hil du gordatzeko
Semiaren ohorea, beratzeko
Matalazen artian, eman ithotzeko
Uzte zuten nehor, etzela ohartuco



Luka Babaki (Lekorne, 1873; Fismes –Marne– 1914), Blas Mendiondoko bilakatu zen 1899an, kaputxino egin zenean. Burgos aldera joan zen, Frantziak fraideak desterratu zituenean; goeroago Oiartzunen kokatu zen. Predikari handitzat famatu zuten, eta bere predikua argitara zitzan galdatu zioten: 35 hitzaldiz osotu zuen *Heren-Ordenako erreglaren chehetasunak* liburua (1914). Gerla Handian Baionara itzuli zen, 249. erreximenduan sartzeko apaiz-lanetarako. Obus batek sorbaldan larriki kolpatuta hil zen.

(ARG.: GURE HERRIA, 1973).



4

Ama crudelac cer crima, egiteco!
 Ithotzea etzen azki, harendaco!!
 Marraza batez chehatu du, finitzeco
 Bertz batian guero eçarri egozteco!!

Kaltzakortak dioskunez, urkabe-bertsoak gizonik krudelenak nekez asma ditzakeen egiazko gertaeretan oinarriturik dauden kronika odoltsuak dira, baina, hori bai, gaizkileen heriotzaren eta damuaren berri emanez azken bertsoetan, jendeak etsenplua har zezan: “Abandona deçagun guciec gaizkia, Aise irabazteco Ceruco-Loria”. Ikusi bezala, Donapaleuko Jean Etxepareren kantu horretan, intzestuzko haur baten hilketaren gupidagabea izan da gaia, eta ama deprabatuak lehenago ito egin du oheko koltxoian bere erraietako umea –eta ilobasoa aldi berean–, gero ganibet handi batez ondo txikertu du, eta ostean lapikoan egosten ipini. Hortik aurrerakoa ez dut hona ekarriko. Nahiago dut irakurlea alarguntsa bihotzbakoak eta seme amoranteak umekirik dastatu zutenentz jakin gabe uztea.

Horrelako bertsoak eskarmentagarri izan zitezkeen neurri batean, baina, pozbide ederra ematen zioten jendeari. Izugarrikerien zirrara maite dugu antza. Aldudeko mediku-beharrak ere gustura entzuten zituen urkabe-bertsoak neguko gau luzeetan supazterreko solasetan, eta izan ere, horixe kontatu digu *Buruxkak* liburuko *Biritxiak* kontakizun autobiografikoan:

Solasean apur bat egon ondoan, guziz seme alaba ttipiekin, kantuz hasten zitzaunkun aita. Ordu berean gu oro ixilik, hari beha. Ardura kantu bera zuen: baitzakien, hainbertze aldiz bere inguruan aditurik, zoin ginuen laketena: *Hamar gizon hiltzaleen kantua*. Neurthitz andana handia zaukaten, launazka josiak, oro latz, oro ilhun, oro deihadar, oro kanit eta makil ukaldi, oro heriotze. Hanbatenaz ere, beren izigarrian sarkorra-go non bietan emanak baitzauzkigun koblak, emeki, luzatuz, noizetik noizera izpi bat ikharatuz boza.

Arrats guti bazoan gure amak artetik aitari galdegin gabe:


– Jes, Joanes, egiak direa bada horiek guziak?

Kexaturik bezala, begietan haatik irriño batekin, berehala ihardesten zakon bere Baxenabartar hizkuntza pollitean:

– Egiak direnez?... Nihauk ikusi nintzin, emaztekoa!

Are gehiago harriturik baiginauden orduan gu, haurrak, kantuaren entzuten.

Ez dago jakiterik, baina ziurrenez *Cantu dolorosac* eta Jean Etxepare donapaleutarraren gainerako kantu guztiak entzungo zituen, Mar Chiquitatik etorritako Juancitok. Alabaina, adituek oraingoz ezin izan dute argitu zein den, Lekorneko Erlandenea etxean hain maitea zen *Hamar gizon hiltzaleen kantua*: izango ote da, ba, bertso-sorta bat, itsasoaz haraindiko Ameriketako lurralde gorietan bertso-gile ilunen batek paratutakoa?



LEKORNETIK BORDELERA

Etxeparetarrak 1883an itzuli ziren Euskal Herrira, eta Lekornen plantatu. Ez ziren Erlandenea etxean zuzenean sartu, artean handitzeko lanetan baitzegoen, eta amaitu bitartean Mortaldea etxean bizi izan ziren; Juancitori hortxe jaio zitzaion Marie arreba.

Piarres Lafittek idatzi duenez, Ameriketatik iritsita, Juancito “laster laketu zen bere herri berrian: haurra ernea zen, deneri ohartua, oro jakin-nahia”. Lafitteri zor dizkiogu Aldudeko medikuaren haurtzaroaz dauden gainerako datuak ere:

Lehenbiziko errieta Pierre Detchesarry izan zuen, baina J. L. Dibar-ek utzi ziozkan irakaspenik eta oroitzapenik sarkorrenak Lekorneko eskolan: “Les leçons que vous m’avez données étant enfant sont les plus présentes à ma mémoire...” zion aitortzen ixtudiant gazteak hogoi-ta lau urtetan.

Jaun bikarioa ere munta handiko erreferentzia izan zen une iritsi berriaren lehen urratsetan. Lafitteren esanean:

...hastapen hartan biziki atxikia zitzaion Etxegaray apezari; eta hunek ere atxikitzen zion, frango atzarria, langilea eta prestua baitzaukan: lehenbiziko komunioa bederatzi urtetan egin-arazi zion, oroitzapen gisa emaiten ziolarik “saindu” bat hitz hauiekin: “Précieux souvenir pour celui qui reste toujours fidèle à la loi divine”. 1887-ko maiatzaren 15-ean egin zuen Jean-ek urrats handi hori eta geroztik “oroitzapen baliosa” beti begiratu zuen artoski, bere biziko ordu goxoenak gogoratzen ziozkala.

Handik aintzina bi urte ereman zituen jaun bikarioarekin latin ikasten.

“Bainan –Lafittek dioskunez– begi-beharriak ez zituen beti latinean” eta horixe suma daiteke *Buruxkak* irakurtzean. Izan ere, liburu hori osotzen duten hogeita zazpi kontakizunetatik bederatzi autobiografikoak dira bete-betean, eta horietariko lau haurtzaroan kokatuak. Batean, *Ameriketako orboitzapenak* eman dizkigu Etxeparek, gorago ikusi dugunez, baina, urte gutxiko Juancito batek Lekornen bizi izandako jazokuneak atondu zituen *Pilota partida*, *Itze-egilearen zakurra* eta *Ongi etorria* deritzen idazlanetan. Berorietan interesgarri suertatzen da oso Etxepare medikuaren umezaroan murgiltzea, eta baita, orduko Euskal Herria begietaratzea.

Elizalde-*Zerbitzari* jaun apaizak ere, bizpahiru lerro utzi ditu Aldudeko medikuaren haurtzaroaz, nahikoa nahasgarriak begitandu zaizkidanak:

Jean Etchepare Ameriketara sortua zen. Sei urteko bat bazuen jada Lekhornerat ethorri zelarik. Ba othe zakien Eskuararik orduko? Nekhez: espagnolez trebeago zitaken. Lekhornen ikasi zuen eskuara. Agerreko




Erlandena etxea gaur egun, Eskualzaileen Biltzarrek Etxepareri eskaintako plakarekin: idazlearen heriotzaren hogeigarren urtemugaren karietara ezarri zuten 1955. urtean.

(K. ALTONAGA).



Lekorneko errebota. Lekorne Lapurdiko udalerrria da, Hazparne ondoan kokatua, batez ere abeltzaintza eta laborantza bizi dena. Bertako populazioak behera egin du XX. mendean zehar: mende-hasieran 1040 biztanle baziren ere, populazioa 700 lagun ingurura jaitsi zen mendearen amaierarako.

(ARG.: K. ALTONAGA).



nausi itze-egilearekin, Arroko Kattin onarekin eta guziz, Dibar orduko jaun errientaren mehatchu guzien gatik, plaza hortan bere heineko pilotari batzuekin!


Aipu horretan, eskola-maisuaren zeregin alienatzaileaz landa, azpimaratu nahi dut *Zerbitzarik* mahai-gaineratu digun galdera, harritu egin ninduen-eta. Dagoeneko badakigu Jean Etxepare Argentinan sortua zena, eta bai etxekoek Juancito esaten ziotena, baina, *Zerbitzarik* beste zeozer iradoki du: sei urteko Etxeparek nekez egiten zuela euskaraz, askoz trebeago moldatzen zela gaztelaniaz. Hori lehenengoz irakurri nuenean dagoen bezalaxe sinetsi nuen, izan ere, Elizalde-*Zerbitzarik* harreman zuzena eduki izan zuen Etxeparerekin, eta hark kontatuta jakin zezakeen hitzaldi horretan adierazitakoa. Dena dela, ez dirudi oso sinesgarria apur baten hausnartzuz gero. Etxeparek ez zuen urte-mordo luzerik eman Ameriketara, eta, aurreko kapituluan erakutsi bezala, panpa zabaletan isolatuta eman zituen hango egunak, euskaldunen artean; areago, euskaldunen artean bizi izanik ere, bere oroitzenaren kontatu duenez denbora gehiena bakarrik igarotzen zuen peludo-ehizan, edota amaren hegopean, aita beldurgarriarengandik ihes. Egoera horretan, itxuraz behintzat, ez dirudi gaztelania maiz iritsiko zenik Juancitoren belarrietaraino, areago, pentsatu egin genezake frantsesa izan zitekeela Mar Chiquitan sarrien entzungo zuen erdara, ezin aditzekotan. Bestalde, Lafittek aipatua da espainola “hogoita-hamar urtean” ikasi zuela.

Horiek horrela, zelan ulertu behar dugu Elizalderen ateraldia? Ba, seguruenek esan zeneko testuinguruan kokatuta: Eskualzaleen Biltzarrak 1955. urtean Etxepare jaun medikuaren ohoretan plaka bat ezarri zuen Erlandenea etxean, eta Jean Elizalde-*Zerbitzarik* egin zuen haren gorazarra. Ekitaldi horretako gorespen-hitzetako jario barruan aipatu zuen, idazleak mintzaira benetan ikasi Lekornen egin zuela, bide batez Lekorneko entzuleak lausengatuz. Hau da, erretorikatik edukiko luke gehiago egiatik baino. Dibar jaun errientaren “mehatxu guztiak” dira erretorikoak barik bene-benetakoak izango zirenak, euskara utzi eta frantsesez mintza zitezen.

Nolanahi, *Agerreko nausi itze-egilea* dakarkigu *Zerbitzarik* autura, baina, hala izanik ere ez zuen Luka Babakirekin lotu esplizituki Eskualzaleen Biltzarreko hitzaldian. Alabaina, Gerezieta erretorea izanik, Elizalde-*Zerbitzari* apaiz euskaltzainak ezaguna bide zuen, Blas Mendiondokoa *Agerreko nausi itze-egilearen* seme gehiena zela.

Herriko eskola utzita, Jean Etxepare Larresoroko seminarioan sartu zuten 1889ko urrian, hamabi urterekin, eta laugarrenetik hasi zen. Lafittek dioenez:

Lehen urtean bi sari ukan zituen: lanekoa eta anglesekoa; bigarren urtean, lanekoa eta hiru aipamen; hirugarren urtean, bi sari eta lau aipamen; laugarren urtean, bortz sari eta sei aipamen... Xehetasun horiek erakusterat emaiten dute zer langile zaila zitaken eta aztaparkaria; beti ari eta beti goiti, arno ona bezala beti ontuz... Jakitate guzietarat aise jarri zen, bainan oroz gainetik mintzaira arrotzetarat, izan zadien latina ala anglea. [...]



Haren eskola-emailek eta lagunek gauza bera diote, hiru amodio baik ez zituela Larresohon: lana, pilota eta otoi-tza. Hirueri osoki emana zen eta jarraikia, eta ez “norat haize, harat aise” ibiltzale hetarik. Bere buruaren jabe egon nahi zen eta bere aburuaren nagusi. Halako jite batek badu alde onik, gizona ez baitu “beti bertzen meneko” ezartzen. Baduke txarrak ere, bertzen laguntza ez baitio aski preza-razten.

Zer nahi den, biziki ontsa ikusia zen eta nehor ez zen harritu 1893-an “bakalorea”-ko haitada gainez-gain iragan zuelarik, gazte-gaztea, hama-sei urtetarat gabe...



Larresoroko seminarioaren jarduera 1733-1905 tartean izan zen, eta urte horietan eragin handia eduki zuen Ipar Euskal Herrian, bertako ikastetxe nagusia izan baitzen. Horrenbestez, Larresoroko ikasle ohiak ziren sasoi horietako eliteak. Larresoroko seminarioaren eragina euskal letretaraino iritsi zen, eta sarritan “Larresoroko eskola” aipatzen da, sorta horretan hainbat idazle bildurik, hala nola, Arnaud Abadia, Manex Hiriart-Urruti, Blaise Adema, Jean Barbier, Jean Etxepare, Jean Saint-Pierre *Anxuberro*, Jules Moulrier *Oxobi*, Laurent Apeztegi eta Jean Elizalde *Zerbitzari*.


(ARG.: J. DESOBEAU).

Hortaz, badakigu Larresoron ikasi zuena, eta liburu artean zintzo ibili zena ere. Oporraldietan-eta, dirudienez, pilota izango zuen denbora-pasa nagusi, eta, horrez landara, panpetako ehiza-zaletasuna mantenduko zuen, hemengo lurraldeotan peludorik ez aurkitu arren.

Lafitteren arabera, Etxepare gazteak fede-krisi larria nozitu zuen azken ikasturte horretan: 1893ko urritik aurrera filosofia irakasgaia atseginez hartu ei zuen, “ilhunbe guziak argituren zituelako lillurarekin”, baina, “eremu handiak aldiz orain goibel gelditzen zaizkon, bereziki erlisionekeo irakaspenak: mixterio horiek xilatu nahiko zituen, adimenduaren gozagarri, eta ezin!”. Halandaze, Larresoroko seminarioan Juancitok ez omen zuen argia eskuratzerik izan, eta “ordutik sortu zitzaion denek ezagutzen ginion barneko ilhundura hits eta ezitia”; hau da, dirudienez bizitza osorako gelditu zitzaion, gaztaroko fede-krisi horren gibelondoa. Mementoz ez gara gehiagor barneratuko puntu horretan, baina bai aurreratuko dut, hurrengo kapitulu batean ikusiko dugunez, aita Lafittek fede-arazo bihurtuko digula huts-hutsean, Etxepare medikuaren bertsioan gehienbat buruhauste intelektuala izango dena.

Kontuak kontu, 1894ko azaroan Bordelera jo zuen, medikuntza ikasterat, eta amaitu aurretik soldadutza egin zuen Proventzan, 1898ko azarotik 1899ko iraila bitartean. Egonaldi bat ere egin zuen Parisen. Dena dela, Jean Etxeparek *Quelques remarques sur le joueur de pelote* doktore-tesia aurkeztu zuen 1901ean, uztailearen 11n. Beste behin ere Lafitteren azalpenetara joko dugu, oraingo honetan tesiaren nondik norakoak ezagutzeko:

...pilotariaren gorputz-aldarteaz eta eritasun bereziaz xehetasun ederrik emaiten du.



Lehenik bi hitz erraiten ditu pilotaren on-gaitzez eta hartan artzeko moldez.

Gero joko horrek dituen hamahiru ondorio ikertzen ditu: 1. nola besoaren harat-hunatek eskuineko sorbalda bertzelakatzen duten eta zer gibelondo heldu zaion bular-kaiola edo sahets-hezurreria guziari; 2. nundik errebeslariak besoa galtzen duten, aitzinerat eta airetik ezin joa baitukete; 3. zergatik pilotariari usu bizkar-hezurra doi-doi bat ezker zehartzaren zaion kanpo-alderat eskuineko sorbalda apalduz eta xutik dagolarik gorputza eskuineko zangoaren gainerat berma-raziz; 4. nola pilotak bular-gain eta beso-ginarrak hazten dituen larrupetik lodigune batzu agertzerainokoa; 5. nola luzara sorbalda-ginarrak azkarki makurtzen diren eta pozoinak akitzetik sortzen; 6. zer aldakuntza ederrak gertatzen zaizkon besoari, hala edo hula, laster ala emeki higi-arau; 7. pilotarien esku-mamiko katxo bereziak; 8. eri ttipiaren makurdura; 9. esku eskuinaren loditzea; 10. esku-bizkarrean eri handiaren ero-buruñoa kanpo-alderat poxi bat ateratzea; 11. itzea; 12. partida denboran eskua nola den hantzen eta kasik soraiotzen; 13. nola pilotak hotzaren lagun esku-mandoak eta odol-gaixtoak sortzen dituen.

[...]

1901-ean lau miriku-nausien aitzinean agertu zuen bere lana. Hek ziren: *Piéchaud*, buruzagia, *Morache*, *Hobbs* eta *Regis*. Liburua onartu zioten eta gain-gainetik laudatu. Geroztik mirikua zen. Hogoi-ta lau urte zituen.


Tesiari buruz Lafittek emandako azalpenen artean badago beste bat hemen erantsi nahi dudana:

...aitzin-solasean ezin ederkiago goresten ditu ez bakarrik Eskual-Herriko ohidura eta mintzaira zaharrak, baina hala-hala erlisionea. Zergatik ote? Batere aipatu gabe uzten ahal zuen nehoi laidorik egin gabe, geiak ez zionaz geroz galdegiten alde ala kontra agertzea. Ene gustuko, fedea ahuldu zitzaion, goibeldu, ikaratu, baina ez behinere suntsitu: erlisioneari ez zion bihotzak nehundik uko egiten ahal.

Ez dut tesia ikusi, eta, beraz, ez dakit Etxeparek aitzinsolas horretan zer dioen zehatz-mehatz, baina, edozer izanik ere, kontura gaitezen, Lafitteren interpretazioan fedea ahuldu egin zitzaion, fedea goibeldu eta ikaratu egin zitzaion, baina ez *behinere suntsitu*. Alegia, aita Lafitteren interpretazioan Etxeparek ez zuen fedea erabat egundo ere galdu. Aita Lafittek bere azalpenetan haren alde kristaua nabarmenduko digu behin eta berriro, eta, ikusiko dugunez, azkenean artegira itzuliko digu Etxepare ardi galdu gaztetan deslai zebilena. Oroz gain, Lafittek “zintzotu” egin nahi zuen Etxepare medikuaren figura, eta zelan edo halan indargetu haren etsenplu galgarria. Eta beharbada, zergatik ez, nahi zuen halaber Etxepare medikua patrimonializatzea kausa onaren alde.

Testuinguru horretan kokatuta, Lafittek beste zehaztapien interesgarri bat damaigu:

1894ko hazaroan Bordalerat joan zen mirikuntzaren ikhasterat: baina mirikuntza ez zitzaion aski: orotarar nahi zuen hedatu, gogo-bihotzak aberastu beharrez, denetarik (jasta bederen) baitezpadako zitzaiola;




Alemaniano zeretarat bereziki ekharria zen: Haeckel eta Nietzsche bezalako batzuen liburu khiretseri lotu zen, bero-beroa –ez baitzuen beharrragorik!

Hortaz, denetarik dastatu nahi zuen, Euskal Herri argizari-jalea atzean utzita hiri handira ikastera joandako Etxeparek. Baina aipu horretan, Lafittek Haeckel eta Nietzsche bezalako batzuen liburu kiratsak dakarzkigu, nazkaren nazkaz. Jakina, bata zein bestea eliza katolikoaren etsai porrokatuak izan ziren, eta Lafitteren begietarako, horrenbestez, Etxeparek ez zezakeen infernuko hitza besterik aurkitu haien idazlanetako lerro bakoitzean. Haeckel eta Nietzsche-k sano hauspotuko zituzten, eta biziagotu, Etxepareren zalantzak.

Etxeparek Bordelen jasotako eraginen artean, Emile Durkheim-ena (1858-1917) luzatu du Jon Casenavek lan-hipotesi gisa, intertestualitate-kontuetan oinarrituta. Areago, Jonen ustez Etxepareren idazlanetan hainbat zantzu aurki daitezke, Durkheim-en liburuak irakurri ez ezik, Etxepare haren eskoletara joan zela pentsatzea zilegi egiten dutenak. Izan ere, 1887-1902 tartean Bordeleko unibertsitatean irakatsi zuen, soziologiaren aitapontekotzat jotzen den Emile Durkheim-ek. Hezkuntzaren bai teoriak, historiaz eta praktikaz emandako irakasgaiak gainera, larunbatero ordu beteko hitzaldi bat edukitzen zuen jendaurrean, batez ere maisu-maistrentzat eta hainbat gai jorratuz, hala nola, gizarte-elkartasuna, familia eta ahaidetasuna, intzestua, totemismoa, suizidioa, krimena, erlijioa, sozialismoa, legea, eta abar. Denetarik dastatu nahi zuen Etxepare hori, Jon Casenaveren iritzian larunbat goizero egongo zen Durkheim entzuten, nahiz eta horren frogagarri litzatekeen agiri-rik ez aurkitu Bordeleko unibertsitatearen artxibategietan, jadanik ez baitira gordetzen orduko inskripzio-erregistroak. Zapatuetako hitzaldi bizi horiek urrunduko zuten Etxepare, Lafittek nahi zuen prestutasunetik.

Zer esanik ez, garrantzi handikoa litzateke Jon Casenaveren hipotesiaren ondadea argitzea, zeren, zuzena balitz, Durkheimi egotzi beharko bailitzaiokie normalean Haeckel eta Nietzsche-ren bizkar uzten den erantzukizuna, hau da, alemaniarrok barik, frantsesa izango litzateke kulpante nagusia. Horretaz kargutzeko, nahikoa da hona ekartzea soziologo famatu horren biografietan agertzen diren zertzeladetariko batzuk. Esate baterako, batean Durkheim agnostikoa zela irakurriko baduzu ere, hurrengoan ateotzat aurkeztuko dizute; sarritan antiklerikal gisara deskribatuta egoten da, eta, areago, “aita santu sekular” esaten ziotela erantsiz. Durkheim-ek elizaren kontra eta ateismoaren alde egin bazuen ere, hori zientziaren onerako egin omen zuen, zeren, bestalde, moralitatea eta erlijioa egitada sozial modura interpretatu baitzituen, eta, izatez, balio positiboa zutela uste zuen, gizartea trinkotzen laguntzen zuten heinean. Esate baterako, Durkheim-ek suizidio-tasak aztertu zituen protestanteen eta katolikoaren artean, eta, azaldu zuenez, katolikoaren arteko gizarte-kontrol estuagoak suizidio-kopuru murriztagoak eragiten zituen kolektibo horren baitan. Alegia, Durkheim-en pentsaeran gizarte-integratzeorako faktore garrantzitsua da erlijioa, besteak beste suizidiorako joera murriztuko duena. Anekdotak hutsa da hau bere pentsamenduan, baina biziki adierazgarria.



Jon Casenaveren hipotesiaren ildotik, dena dela, zehaztu beharrean legoke Etxeparek jaso zuen eraginaren norainokoa, eta bai eragina ea zeintzuk arlotan jaso zuen. Kasurako, badirudi Etxepareren irakaskuntzaren planteamenduak zorretan daudela Durkheim-ekin, baina, zehazteke dago zein neurritan dauden. Era berean, demagun Etxepareren laizismoa Durkheim-engan sustraitzen dugula: zelan ulertu orduan, maisuaren anti-klerikalismoa eta, areago, ateismoa hain beratz agertzea Aldudeko medikua- ren idazlanetan? Edota, zer dela-eta ez zuen Durkheim-en sozialismoak inolako aldekotasunik eragin Etxepare helduarengan? Etxeparek, Larresoroko eskolako beste idazle batzuek ez bezala, ez du antisemitismo nabaririk erakusten: Durkheim judutarraren hitzaldietara joateagatik izango ote da? Halaber, Durkheim-ek erlijio katolikoari ematen dion kohesio sozialerako lokarri baliotsuaren isla ote da, ba, gorago ikusi dugun Etxepareren tesiko aitzinsolas ustez erlijiozalea? Eta Etxepare noraino kutsatu zen Durkheim-en frantses abertzaletasunaz? Jakina, makina bat aldetatik aztertu beharko litzateke eragin hipotetiko hori.

Émile Durkheim (1858-1917) frantses soziologiaren fundatzailea. 1887an sartu zen Bordeleko Unibertsitatera, eta bertan iraun zuen 1902ra arte gizarte-filosofia irakatsiz. Han idatzi zuen *L'Évolution pédagogique en France*. Gero Sorbonako Unibertsitateko irakaslea Parisen. *Metodo soziologikoaren arauak* (1895) da haren libururik ezagunena. Seme bakarra galdu zuen Hamalauko Gerlan, eta ezin jasaneko gertatu zitzaion.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

Eraginak eragin, *Buruxkak* liburuan badago Jean Etxepareren kontaktuzun eder bat, estudiante-sasoi horretako oporretan girotua, gorago ere aipatu duguna, *Biritxiak* alegia. Honelaxe hasten da:

Eskoletan nindabilalarik, gogotik uzten nuen eguerrietan hiria, zenbeit egunez etxeaz, etxekoez, sor-herriñoaz gozatzeko. Akulazalerik ez denean, badute liburuek aizina; bertzalde, hotzarekin, oinak bezala gogortzen zauzkitzu eta lokhartzen buru-muñak, ezin baitezakezu ikas deus, irakurtzeko bereko nagi baitzira.


Neguak supazterra dako manatzen Eskualdunari, barneko lana, familiarako bizia.

Idazlan horretan, dena esateko, ez duzu hiriari eta modernitateari ireki zaion Euskal Herria begietaratuko, supazter xokoan bilduta bizi zen betiko Euskal Herri tradizionala baino. Idazlan horretan, bestalde, nahikoa bertuta-edo ikusiko duzu lehenago, *Ameriketako orboitzapenak* errepasatu ditugunean, hain begitarte mokorrarekin agertu zaigun Juancitoren aita.

Bada, mundu horretara itzuli zen 1901ean, hogeita lau urteko mediku berria. Atzera ere Lekornekoko Erlandenean kokatuta, hiruzpalau urtez bertan bizi izan zen 1905era arte, Hazparnekoko medikuen ordezkapenak ziurtatuz. Eta Hazparden mediku zegoen urte bi lehenagotik, hain zuzen ere Pierre Buruzain euskaltzale errimea.

AMAREN BELAUNETAN

Zorionez, Piarres Xarritonek erreskatatu du Pierre Buruzain ahanzturaren linbotik eta ezin ageriago utzi du mediku hazpandarrak XX. mendearen hasierako euskal munduan buruturiko lan galanta, ezinbestekoa. Izatez, Xarriton euskaltzainak Pierre Buruzainen bizitza eta ekarpen nagusiak zorrotz ikertu eta laburbiltzeaz landa, argitara eman ditu hainbat eskutitz-



sorta, orduko euskaltzaleekin izandako hartu-eman estuen lekuko berebizikoak, era bizian erakusten dizkigutenak Buruzainen testuingurua eta sare intelektuala.

Pierre Martin Buruzain Salagoiti 1859. urtean jaio zen, Hazparnen, bost neba-arrebatan azkena eta postumoa. Aitak, Bartolo Buruzain, Amerikak egin zituen hogeitatu urtez, eta, itzulitakoan, 1849an ezkondu zen, 56 urteko arrantier zelaririk. Pierre Buruzainen ama beharrak 23 urte zituen orduan, eta berriro esposatu zen 1866an. Urte horretantxe hasita, Buruzainek eskolak lehenik Larresoron egin zituen, ikasturte batez, eta geroago Akizen eta Bordelen. Ostean, 1880. urtean medikuntza-ikasketak hasi zituen Parisen, eta bertan gelditu zen 1899ra arte; *Les manifestations nerveuses de l'alcoolisme* 83 orrialdeko tesiarekin doktoratuta, Hazparnera itzuli zen eta herrian mediku aritu.

Konturatu garenez, Pariseko egonaldia luzeegia suertatu zen. Zilegia da pentsatzea, urte-mordo horretan estudiante tunantearena egiten jardun zuela etxetik urrun, baina, nahiz eta Buruzainen sasoi horretako gutundegian Mimi, Sylvie, Céline, Berthe edota Rose moduko izen adierazgarriak aurkitzen diren, Xarritonen ustez, bestelako arrazoiak aipa daitezke ikasle “perpetuo” hori ulertzeko. Izan ere, ildo horretara garamatzate Pierre Buruzainen ondoko lerroek:

Je songe avec mélancolie à cette bonne ville de Paris, ma seconde patrie, où ma sensibilité d'homme s'est faite, où j'ai eu ma crise intellectuelle et à laquelle me rattachent tant de souvenirs...

Arrazoi sakonak sumatzen dira 1913ko aitorten horretan, eta Xarritonek zehazki garandu ditu. Geure aldetik zenbait puntu nabarmenduko ditugu Buruzainen bizitza-aldi eraginkor horretaz.


Ia zeharo paristartu den Buruzain horren lagunen artean, Euskal Herrikoek gainera Xarritonek ikasle quebecarrak azpimarratu ditu, eta neurri batean ikasle horiengan kokatu du Buruzainen abertzaletasunaren jatorria. Eragin quebecar horren ondoan, ezin da ahaztu, *Bizkaitarra* Sabino Aranaren aldizkaria Buruzainek Parisen irakurri zuela dagoeneko 1894an, bere lehengusu eta Ainhoako erretorea zen Xalbat Etxegoienek bidalita. Areago, Parisen bizi dela Pierre Buruzain harreman zuzenean dago orduko euskal kultura-mugimendu guztiarekin, dela Kaliforniako kazetekin –*Euscaldun Gazeta* eta *Californiako Eskual Herria*– nola Anton Abadiak sustatutako euskal jaiekin, eta, esate baterako, horrela ezagutu zuen Resurreccion Maria Azkue 1897an, Donibane-Lohizunen ospatu jaian, gerora bizitza osoan lagun mina izango zuena.

Halaber, Pierre Buruzain aldi berean-edo oharitu zen bere euskalduntasunaz edota, hobeto esateko, galdutako euskalduntasunaz eta berori berreskuratzeko premia. Honelaxe kontatu zion Lacomberi 1903an:



Pierre Buruzain (Hazparne, 1859; Orthez, 1920) mediku euskaltzalea. “Gizon xehea zen biziki eta ona, *Pierre Broussain*. Bihotz onekoa bezain buru onekoa; buru onekoa bezain adimendu argitu, zabaldutakoa. Ixilegia orobat, bizitasunik aski gabea, onegia politikarako. Bainan Hazparnen berean ere, azkenekotz, handi ala ttipiek goresten zuten bere dinean. Zernahi izanik, alderdi hotako euskaltzale guziek, jauspen osoarekin, beren aitzindaritzat zaukaten. Laket zitzaion batzu ala bertzei noizetik noizera eskutitzño baten euskaraz igortzea, eta hain goxoa zen, bere errexean, haren euskarra garbia! Noizbait, bilduko direlarik harek milaka barreiatu eskutitzetarik zombait ehun, jakinen du xeheki Euskal-Herriak nor zen zinez *Pierre Broussain* gaizoa, eta zombait urrats, ez oro alferrak, dituen erabili bizi zeno, arbasoen lurra maite baino maiteagoz” [Etxepare, 1921: 216-217].

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).





Berriketari Eskualduna aguertzen dena larumbate guzicz.

LFR 2da N° 44

LOS ANGELES, CALIF. UZTAILAREN 29a 1894a

PREZIOA: 5 SOCS

Eskual-Herria.

The only Basque newspaper in North America published in Los Angeles, California, every country.

J. P. Goyena, Editor
390 New High Street.

Entered at the Post Office at Los Angeles, Calif. as second class matter.

Eskual-Herria.

Le seul journal basque public dans l'Amérique Septentrionale, publie à Los Angeles, Californie, le samedi de chaque semaine.

Eskual-Herria.

El único periódico bascongado publicado en la América del Norte. Aparece en Los Angeles, California, el sábado de cada semana.

J. P. Goyena, Editor
390 Calle New High

Eskual-Herria.

Carnot Presidenta

Italiako batzetz asarriatu!

Frantziaren Dolua!

ANARKISTA BATEIN QUIDA.

Yaranden igarale armenan, Igaraleko hiri eduzean, Mc. Francos Meric-Nabi-Carnot, Frantziako presidentea, asarriatu izan du berriaren, txakotzatu yolkau arerikatu. Amalhen gizonen, amal har ikurdu gutiaren yolkau presidentak berriatu du berri: azken hitza.

Krima har argitaro berriaren izan da, biokatu biokatu egaitan. Igaraleko hiri. Hiri buruzte yolkau arer. Mc. Carnot presidente Lisposi oinartean inatitatuat. Arratsuko 9:30 minutuan, yolkau presidentea igaraleko hitza botatu txakotzatu yolkau.



ITALIANOK FRANTZIAN

Hiri Italiako gaitzak, Italiakoan ezohiko berriak dira. Frantziako Italiako kale gaitzak, chakotzatuak dira. Hiriaren politikak aski lan izan du erin Italiako defendente. Berriak izan izan gaitzak da. Maitate izan yolkau gaitzak du, izan gaitzak, ezohiko ez Italiakoan ezohikoan. Berriak izan izan: azken gaitzak botatu. orain ez da.

FINTERRAMENTUA

Macle Carnot ebortzatu izan du berri, igaraleko. Yolkau presidenten gorputza arerikatu du Parisen, azken arerikatu izan izan. Berriak izan gaitzak yolkau gaitzak: berriak izan gaitzak eta ezohiko hitza kopatu berriak izan gaitzak botatu. Andreko ekharri du gorputza Parisen. Maitate Carnot ebortzatu izan du berriak izan gaitzak. Le zue Carnot-aren berriak, Victor Hu

Kalifornia aldean eskual kazeta bi kaleratu ziren XIX. mendearen amaieran. Amerikan jaiotako Martin Bizkai-luzek *Eskualdun Gazeta* ateara zuen Los Angeles-en 1885ean, baina irakurle-faltaz hirugarren zenbakiarekin itzali zen. Bestalde, 1893an Jean Pierre Goitino ainhoar errientak *California-ko Eskual Herra* atera zuen. Lauzpabost urtez iraun zuen —ez dago argi noiz arte—, baina, beratu ere irakurle-eskasiatz itxi zen. Kalifornia aldetik, dirudienez, eskualdun franko zebiltzan, baina, irakurle urri. (IRD.: K. ALTONAGA).

Hogoi urtetan eskuara guti banakien, sei edo zazpi urte arteko haurrek ikasten duten pochi hura ikasirik eta gero eskolan hoimbertzte urte egonik eskuaraz batera mintzatu gabe. Ene amaren belhaunetan ikasiriko mintzaia haimbertze nuen arrotzua nun ahalge bainintzen eskuaraz artzeko. Orduan buruan ezarri nuen behar nuela ikasi eta emeki emeki hartan trebatu niz, ez ordean frantsesean bezembat. Hasteko liburu eskuarak irakurtu nituen, atcherman ahalak oro, eta gero eskualzale artzetz eskuararen gainetik izkiriatu dituzten liburuak eskuratu nituen, salbu anglesez eta alemanez eginak direnak, ez baititut ezagutzen zorigaitzez bi mintzaire horiek.

Hortaz, Buruzain Parisen hasi zen erdi ahaztutako euskara lantzen, eta horretarako zenbakiz zenbaki irakurtzen du *Fedearen propagacioneco urtecaria* aldizkaria, edota *Eskualduna*. Areago, euskaraz idazten ahalegintzen da, eta, izan ere, 1895 urtean Parisetik bidali zuen bere lehen artikulua, *Pasteur jaun zena*.

Hau da, Pierre Buruzain Parisen abertzaletu zen, eta orobat, Parisen euskaltzaletu, eta horrexek damaio sasoi horretako Iparraldeko idazleetan nekez aurki daitekeen ikuspegi zorrotza, eraberritzailea, iraultzailea ia. Horretaz ohar gaitezen, ikus, kasurako, 1913an Lacomberi idatzitako lerro hauek, haren pentsaera nahikoa ondo laburtzen dutenak:

Comme tous les linguistes qui potassent le basque, il —Schuchardt— doit souhaiter seulement que l'eskuara vive assez longtemps (un siècle ou un siècle et demi) pour qu'on l'étudie à fond et qu'il livre ses plus profonds arcanes. Après quoi il pourra disparaître, comme un citron dont on a exprimé tout le jus.

Schuchardt n'a qu'une raison pour aimer l'eskuara: son intérêt scientifique. Un Azkue par exemple (et c'est mon point de vue) a trois raisons



d'être attaché à l'eskuara: 1°- Pour son intérêt scientifique; 2°- Parce qu'elle est la langue de nos ancêtres; 3°- Parce qu'elle constitue le bouclier de notre nationalité et de notre originalité ethnique. [...]

L'eskuara ne pourra vivre qu'à quatre conditions:

1°- Si les classes dirigeantes adoptent le basque comme langue usuelle.

2°- Si l'eskuara est enseigné dans les écoles et dans les établissements secondaires.

3°- Si on adopte dans tout le Pays Basque un seul parler commun: a) soit un dialecte central (guipuzcoan ou labourdin); b) soit une koinê.

4°- Si on enrichit l'eskuara de tous les mots (plusieurs milliers) qui lui manquent et qu'on la mette en état de résister aux deux langues fort riches et fort évoluées qui la menacent, le français et l'espagnol.


Lerrootan irakurri ahal izan dugunez, besteak beste, euskararen batasunaren defendatzaile garrantzitsuenetakoa izan da. Nolanahi, orain arte aipatutakoez gainera, Parisen ukan zuen "krisi intelektualean", bere fedea galdu zuen Buruzainek, Euskal Herriatik urruntzen diren euskaldun gehienek gisara-edo. Xarritonek jaso duenez, 1895ean Hiriart-Urrutik "un enragé de basque, qui ne semble avoir perdu, par suite de son long séjour à Babylone-Paris, que sa religion" esanez deskribatu zuen Buruzain. Kontu horren gainean ez dakigu gauza handirik, salbu-eta etxeokoe eta herriokoe haren fedearen galera zela-eta eskutizetan kezka ia etengabea adierazten dutela. Hala ere, badirudi hein batean eboluzioaren inguruko ideiek beteko zutela hutsune hori, behintzat, horixe pentsarazi didate hurrengo lerroek, 1904an eskutiz batean Lacombe-ri bidaliak:

Depuis l'époque immensément reculée où l'anthropoïde devenu homme commença à se servir du langage articulé, Dieu sait le nombre de langues qui sont nées, qui ont évolué et qui ont disparu sur cette planète!

Kontura gaitezen, Haeckel-en *Pithecanthropus alalus* famatuaren oihartzuna suma daiteke lerro horietan.

Dena dela, aurreko pasartearen zirriboratu dugun azalpena lan-hipotesi modura planteatu dugu soil-soilik, zeren Buruzaini ez baitiogu ildo beretik doan bestelako eboluzio-aipamenik aurkitu. Gainera, aztertzeke dago darwinismoaren sarrera Euskal Herrian, eta beraz, ezin da ezer fermurik esan, non ez den oso errefus gogorra sortu zuela, esaterako *Orixek* berak 1950eko hamarkadan ederto erakusten duenez. Alabaina, itxuraz behintzat horretan ere Buruzain aitzindaria dugu, eta interesgarria litzateke jakitea bere inguruan norainoko zabalkundea eman zion teoria horri.

Konturatu orduko Buruzain guztiz paristartu zen, eta, arestian esan legez, Paris bigarren aberria bilakatu zitzaion. Buruzainen itzulera horrenbeste atzeratu bazen, hain zuzen ere Parisekiko atxikimendu horrengatik izan zitekeen, edota, alderantziz esanda, Hazparne eta oro har Ipar Euskal Herriaren erakargarritasun-eza nabarmenagatik. Pariseko era guztietako distiren aurrean, Buruzainek bazekien itzultzean ez zuela Lotiren irudimezko herrialde idilikoa aurkituko, jakitun zegoen ez zihoala Lotilandia,



baizik eta munduko bazter batera “non aberastasuna nahikoa txarto banatuta dagoen, eta non oso beso luzeko apaizteria batek tradizio kultural eta erlijioso zeharo hertsia iraunarazten dituen”, Xarrironen hitzekin esanez. Jansenismoak kutsatutako giro triste eta ezin arnastuzkoan bizi zen orduko Ipar Euskal Herrian. Ulergarria da guztiz, beraz, Buruzain Parisen horrenbeste luzatzea bere lehen aberrira etorri eta bertan behin-betikoz kokatu beharrean, nahiz eta Euskal Herriaz erabat maiteminduta zegoen.


Behin Euskal Herrian finkatu delarik, Pierre Buruzainek lanbideaz gainera ildo nagusi bitan bideratu zuen bere ekina, alegia, politikaren alorrean eta kulturarenean. Alde politikoari dagokionez, arin esateko aipa dezagun Hazparneko auzapeza izan zela (1905-19) eta bai Hazparneko kontseilari jenerala ere (1919-20). Kulturaren munduan egindakoen artetik ondokoak azpimarratu ditu Xarrironek, urtez urte: Hendaia eta Hondarribiako bilkurak ortografiaren ingurukoak (1901); Eskualzaleen Biltzarraren sortzea (1902); euskal katiximaren aldeko mugimendua (1903); “Cercle d’Études Euskariennes” delakoaren burua (1912); Eusko Ikaskuntzak bigarren buruorde izendatu zuen (1918); Euskaltzaindiko lehen hamabi euskaltzainetarikoa bat (1919). Jakina, lerro telegrafiko hauek nekez islatzen dute Buruzainen bizitza joria; izatekotan, hala-holako mugarrak dira, gehien-gehienez biografiaren zirriborrorako lehen hurbilketa damaigutenak.

Zernahi gisaz, biografia oparo horretako alde publikoak alboratuta, hemen nahiago dut esparru pribatuari doazkion kontu batzuei oratzea, Pierre Buruzainen izaera eta pentsaera ageriago utziko dizkigutelakoan.

Pierre Buruzain 1904ko ekainean ezkondu zen Amélie Baratzart amanduztarrarekin (1879-1960) Bordelen, emaztegaia bertan bizi baitzen familiarekin. Kontua da Pierreren lagunak aspaldian hasita zeudela harentzako etxe-oneko andregai baten bila, eta hainbat eskutitzetan agertzen dira “hautagai interesgarriak”, adibidez 1892an Baigorrikoa edota 1902an Barkoxekoa. Alabaina, itxura batean behintzat, Buruzain pozik zebilen ezkongea, eta, horren adierazgarri, *Peru, mutil zaar, donado, senton* sinatu zuen oso umoretsu, sasoi horretan Azkueri igorritako eskutitz batean. Modu berean, kontu horrekin sarritan zirika egiten dion Azkue berberari *ma fiancée est la langue basque* erantzun zion behin. Eta inork espero ez zuenean, 1904ko udaberrian ezkontzaren berria zabaldu zen inguruetan, eta apirilean Buruzainek berak iragarri zien lagunei. Zenbait senidek, antza, ez zuten begi onez ikusi, andregai askoz gazteagoa baitzen, baina Azkuek, esate baterako, alegantzia handia hartu zuen eta eztei-ospakizunetara joan zen Bordelera. Ildo horretan, oso deigarria begitandu zait Jean Etxepare gure medikuak eduki zuen erreakzioa, 1904ko apirileko eskutitz batean irakur daitekeena:

Eh bien, à vous dire la vérité toute nue –pardonnez-moi mon excès de franchise– *halako bat egiten da*ut que vous vous mariez. J’aurais été si heureux de vous voir toujours seul, seul jusqu’à la mort, d’avoir un culte spécial pour vous, prêtre laïque du Pays Basque qui agonise!..

Cependant, bien que je ne sache rien de vos sentiments intimes sur quoi que ce soit, j’avais prévu ce dénouement. Il me paraissait que vous finiriez par céder –hélas!– aux influences de toutes sortes (ecclésiastiques même) qui vous travaillaient dans ce sens.



Puisque le sort en est irrévocablement jeté, malgré tout je vous félicite du fond du coeur d'avoir choisi pour compagne une jeune et belle Basquaise. Puissiez-vous, dans une union durable et toujours harmonieuse, étendre, autour de Barrandea que probablement vous habiterez, de nombreux et solides rameaux!...

Dena esateko, argiro, oso argiro mintzo dira aurreko lerrootan barreiatutako izpi batzuk. Nire ustez, lehen pasarteko *prêtre laïque du Pays Basque qui agonise!*... horrek, besteak beste, ezinago garbi uzten digu Buruzainen jardun euskaltzale ezinbestekoa, maldan behera abiatu den Euskal Herri argizari-jale hartan. Eta zelan ulertu behar dugu bigarren pasarteko sakada eklesiastikoaren aipamena? Etsenplu txarra ematen al zuen herriko medikuak eta elizjendeek ezkonduz eredugarri bihurtu nahi izan zuten? Pierre Buruzain borondate onez esposatu zen ala orduko giro itogarriak erdi derrigortuta? Edozelan izanik ere, hirugarren pasartean, familiak ez bezala gure Jean Etxeparek, hain zuzen ere urte gutxi barru amodioaren gaineko bere ideiak direla-eta eskandalua ereingo duen Jean Etxepare andrezeak, zorionak luzatu dizkio euskalduntsa gazte poxpolin bat aukeratu duelako emaztetzat.

Ezkontideek ume bi eduki zituzten: Maddalen (1905-1982) eta Jenofa (1911-1987). Buruzainen gutundegian sarritan aurkitzen dira alaben inguruko aipamenak, baina, horietariko bat erakutsi gura dut hemen, nabarmen uzten baitigu mediku hazpandarraren euskaltzaletasunaren neurria, eta bai norainokoa zeukan transmisioaren kezka, hain justu orduan “nor bait” zirenen artean inolaz ere agertzen ez dena. Lacomberi 1912an, besteak beste, honako hau diotso:

Pour ma part, je vous avoue franchement que si je n'aimais le basque que comme un passe-temps linguistique, je me contenterais de le lire et

Hazpandatik agina, ikhainaren
bertzean 1917.

Azkie jaun aphezari agur.

Igotzen dautzut saridie bat onkome
nionaren oihotzapuna. konformatua
izan nuz Mendekosti behararunuan.

Daranatz aphezak jeldelatu nu ordu
nuz. Amapostua bizidit onta eman


dakot; bainan herabe nintzen hanitz
jende zelakoty. Biharamungoan Bai
nako jaun aphezjehua jin zen gure
ikhustorat Daranatz aphezaren.

Enu oraba Pierre Baratchant
hemen zen permissionez atje artio.

Ez da batere kolpatua izan orain;
arraz onta da. Jazpi egun egon da
gurekin. Izan gure hain laguntzen

Pierre Buruzainen alabak
Azkeri bidalitako eskutitz
bat.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).




Lanbon, guralat. Amakhi eta ene bi
 izelak heren ziran atzo artio. jaun
 lera herenak Amenduzerat.
 Ene izela jaunne Baratchant ezkontu
 da apherelaren hamabian, trofetako ac-
 tizindari batekin, Donapalen'koa. etit
 bizchi kontut da, ezkontu delakoty es-
 kualden lertekin.
 Ikhus artio, jaun apherer, goraintze ac-

taren, amaren eta ene partiz. Genofak
 izoetzer dautzu bi musu
 Maddalen

de le parler, pour mon propre compte. Mais je me dispenserais de la corvée ennuyeuse que je me suis imposée en enseignant tous les jours le catéchisme en basque à Maddalen, et en faisant l'effort continu et répété de lui parler constamment en euskara, alors qu'il me serait bien plus commode, bien plus facile de lui parler français. Si donc je parle basque avec ma fillette, ce n'est pas parce que c'est une langue intéressante et même captivante, mais bien parce que je veux lui transmettre ce que m'a laissé ma mère et, avant elle, ma grand-mère.

Irakurri duzunez, Pierre Buruzainek katixima euskaraz irakasten dio alabari egunero: horrek ez du esan nahi Parisen hoztu zitzaion federa berri-
 ro sutsu bihurtu denik. Ez. Herriko erretorearen ardurapean katixima ikas-
 tea izan da luzaroan euskaraz alfabetatzeko bidea, eta horrela, neurri batean
 Iparralde horretako ume guztiek bazekiten euskaraz irakurtzen eta idazten,
 baina, 1903tik aurrera Estatuak debekatu egin zuen irakaskuntza hori.
 Gorago laburki esan denez, Buruzainek katiximaren aldeko ekimen zabal
 batean hartu zuen parte, baina arrakasta barik. Gauzak horrela, egunero-
 egunero tarte bat egiten du bere ataza guztien artean alaba berak alfabetat-
 zeko. Oso adierazgarria delakoa daukat. Xehetasun txikia izan arren, Buru-
 zain barru-barrutik arduratzen duen kontu bat erakusten digulakoan nago.
 Eta, izatez, gorago ere Lacomberi 1903an bidalitako eskutitzean ildo bere-
 tik doan zeozer irakurri diogu: *amaren belhaunetan ikasiriko mintzaia*. Alegia,
 oso zabaldua dagoen iritzi batetik urrunduz, hau da, amaren bularretik
 esneagaz batera euskara berez jasotzen dela baztertuz, beste inplikazio bat
 adierazten du hizkuntzaren transmisiorako.

Alabaina, ez dakit Buruzainek noraino alferrik diharduen, zeren, berak
 Maddaleni euskaraz egin arren, gainerako senideek frantsesez egiten bai-



tzioten: amak, Amenduzeko amatxik, izeko guztiek eta osaba Pierre. Hori xe izango zen orduko handikien etxeetako giroa.

Kontuak kontu, Pierre Buruzain Orthez-eko geltokian hil zen bat-batean, burmuineko odol-kolpe batez, 1920ko apirilaren 27an, Kontseilu Jeneraleko bilkura batetik itzultzean. Jean Etxeparek obituariario labur eta hunkigarria eskaini zion *Eskualduna* astekariaren orrialdeetan, besteak beste ondokoa zioena:

Broussain-en bihotzean ala izpirituan, hitz batez, bizi zen Euskal-Herri guzia bere hedaduran, ez bakarrik eremu bezala, baina noizbaitik orai arterainoko urrats jarraikian.

Euskal-Herria baino toki ederragorik etzitzakon iguzkiaren azpian: maitagarriagorik ere ez, arbasoen sor-lekua delakotz.

Gizontasunez ala zuhurtziaz, etzen harentzat nehon euskaldunaren parerik.

Euskal-Herria eta Euskaldunak nahi zituzken beren gain ikusi, beren zuzenen jabe, beren gizonez zainduak, beren mintzaiaz, ohidurez ala erlisioneaz iduri zakoten bezala gozatzeko eskuarekin.

Zazpiak bat eta libro, bizi zeno eta beti fede berarekin hitz horiek zituen irakurtzen bere baitan. Gure mendi xoragarrien artean erresumaño bat bezala bildurik zituzken ikusi nahi, zazpi probintziak; ikusten ere zituzken ametsetan haren begiek *Gernikako arbolaren* itzalpe eztian.


Aspalditik horrela gogoan zaukan, Euskal-Herriaren karialat, lur huntako populu ttipi guzien berez bere jartzea. Badakizue ondar gerlan nolako solasak ibili diren hortaz munduan. Guk uste obrak ez diren izanen solasen araberako. Azpitik atxikitzea ez askiz, handiek ttipiak zapa-tuko dituztela eta lehertzerainokoa hertsatuko, gu beldur. Ohore hartatik bertzela gauzen ezartzeari lehiatzen diren *Broussain*-en iduriko gizonen.

Odol bereko gizonen batasunaren lokarrik zailena mintzaia zitza-kon; hortik euskararen alderateko haren atxikimendu bero, argi, osoa.

Geroztik, Xarritonek dioenez, benetako isiltasun-konjurazio bat zabaldu zen haren ideia abertzaleen inguruan, eta horrenbestez, ahanzturak ezabatu du azkenik gizon handi horren itzala. Nolabaiteko amnesia, orobat, familiaraino iritsi zen, eta izan ere, Jenofak, Pierre Buruzainen alaba txikiak, *aita "gorde" digu amak* aitortu zion Xarritoni, esaldi horrekin adieraziz haren pentsaera abertzale eta euskaltzalea ezkutuan gorde ziola. Ia hirurogei urte geroago Euskaltzaindiak omenaldia egin zion Hazparden, 1979an, eta Xarriton haren paperak biltzen eta aztertzen hasi zen.

HAECKEL-EN ITZAL ZABALA

Eugène Dubois 1895ean itzuli zen Europara, Java uhartetik. Eugène Dubois-ek ospe handia irabazi zuen, *Pithecanthropus erectus* tximino gizonaren hondarrak aurkitu baitzituen: izter-hezur bat, kranio-kasko bat eta zenbait hagin.





Eugène Dubois (1858-1940) anatomista holandesa. Ospe zabala lortu zuen, Europatik kanpoko hominido goiztiarren lehen aztarnak aurkitzeagatik. Java irla indonesiarrean idoro zituen 1891n, eta gaur egun *Homo erectus* gisara daude sailkatuta.

(ARG.: WIKIPEDIA).

Eugène Dubois-ek (1858-1940) medikuntza ikasi zuen Amsterdam-go unibertsitatean 1877-84 tartean, eta Max Fürbringer anatomista aleman handiaren laguntzailea izan zen. Anatomia-irakasle kontratatu zuten 1886an, baina, 1887an, hogeita hamar urte zeuzkala, lanpostua utzi eta Sumatrara joan zen mediku militar, emaztearekin eta zazpi hilabeteko alabarekin. Gogoratu, Holandako kolonia zela gaur eguneko Indonesia. Inork ez daki zehatz-mehatz Dubois-ek zergatik laga zuen unibertsitatearen erosotasuna, horrelako periplo arriskutsu batean murgiltzeko, armadarekin zortzi urterako sinatuta. Zoratu egin zela pentsatu zuten gurasoek eta lan-kideek. Nolanahi, erabaki hori har zezan normalean ematen den azalpenaren arabera, oso munta handikoa suertatu zen Ernst Haeckel (1834-1919) zoologo handiaren eragina.


Haeckel-en ustez, gizateria Asiako alde tropikalean sortua zen, tximino antropomorfoen talderen batetik eratorria, eta ez, Afrikan, Charles Darwin-ek proposatu bezala. Antza, Haeckel-en hipotesiarentzako froga fosilak eskuratzea izan zen Eugène Dubois-en helburu nagusia. Dena dela, Dubois izan da lehen pertsona, gizakien fosilak berariaz era metodiko batez bilatzen aritu izan dena. Ordura arte ez ziren giza hondar gutxi batzuk besterik eza gutzen, nahikoa modernoak eta beti ere txiripa hutsez aurkituak. Dubois-en kasuan, aldiz, dedikazio osoko bilaketa egon zen, eta bai suerte ona ere. Lehenago, 1887-90 urte-tartean Sumatra irlan ez zuen ezer aipagarriarik desehortzi, nahiz eta landa-lanerako ingeniari bi eta berrogeita hamar *galeriano* eduki agindupean. Baina, lurralde hartako oihan trinko itogarriak, ur edangarriaren eskasiak eta biderik ezak ezinezko bihurtu zuten Dubois-en ahalegina, eta izan ere, ingeniari bat eta hainbat preso hil ziren. Horiek horrela, Javan saiatzea deliberatu zuen.

Ernst Haeckel-en mundu-ikuskerak zientifikoaren muina, naturaren sakonean datzan batasuna frogatu nahian zetzan, eta, izan ere, Jainkoa eta natura gauza bat eta bera zirela esaten zuen, eta ez zegoela banaketarik materiaren eta izpirtuaren artean, alegia, gorputz eta arima artean. Halandaze, Haeckel-ek errealitate bakarra begietaratzen zuen, hau da, kosmosaren interpretazio *monistikoa* hobetsi zuen, eta bizitza osoan guztiz oldarkor aritu zen orduan erabat zabaldutako interpretazio dualistikoaren kontra. Monismoa, izatez, erlijioztat jo zuen.

Ikuspegi horren barruan, Haeckel eboluzioaren ibilbidea berreraikitzen ahalegindu zen, eta, horrela izanik, berak marraztu eta plazaratu zituen lehen zuhaitz filogenetikoak, ornogabeetan abiatu eta ugaztunetan zehar gizakietarainoko bidezidorra erakusten zutenak.



(ARG.: E. WENDT).




Eta testuinguru horretan proposatu zuen 1868an *Pithecanthropus alalus* kontzeptua: izaki hipotetiko bat, tximino antropeoideoen eta gizakien arteko hutsune nabarmena betetzen zuena. Lan-hipotesi bat, beraz. Afrika eta Asiako tximino handien anatomia-azterketa konparatuetan oinarrituta, Haeckel-en iritzian Asiako orangutanak ziren gizakien ahaiderik estuenak, alde handiarekin gainera, batez ere garunaren konformazioari dagokionez. Ildo horretatik espekulatuz, Haeckel-en ustez lehen gizakiak ez ziren Afrikan eboluzionatu, Darwinek *Descent of Man* (1871) liburuan iradoki bezala, Asiako hegoaldeko nonon baizik: Lemuria delakoan, behar bada.


Lemuria izeneko kontinentearen existentzia Phillip Sclater (1829-1913) zoologo britaniarrak postulatu zuen, gaur egungo Indiar Ozeanoaren azalean zabaldua. Lemuria horrek Hego Afrika eta India estekatuko zituen, Madagaskar, Aldabra irlak, Seychelles irlak, Maldivak eta Laccadivak ere besarkatuz. Paperean zirriborrotutako kontinente hipotetiko horri Lemuria izena jarri zion, besteak beste lemurren eta euren ahaideen banaketa geografiko disjuntua (Afrika, Madagaskar, India, Indonesia) azaltzen laguntzen zuelako. Hau da, Lemuria hondoratzean geldituko ziren lemurrak eta euren ahaideak gaur egun bizi diren lurraldeetan zedarrituta, behinola kontinente osotik hedatuta egon baziren ere. Hainbat zientzialarik onartu zuten gisa horretako kontinente edo lur-zubiren baten posibilitatea, besteak beste, Alfred R. Wallace-k, eta, azaldu bezala, Ernst Haeckel-ek. Hipotesi horren baitan, Indonesiako irla ederrak behinolako Lemuriaren ekialdeko hondarrrak zirartekeen.

Zer esanik ez, gaur egun guztiz espekulatibo begitanduko zaigu Haeckel-en hipotesi antropologiko hori, baina bere idazlanek zabalkunde ikara-

Gizakiaren zabalkunde eta dibertsifikazioaren eskema, Haeckel-en arabera. Haren ustez, gizaki guztiek jatorri monofiletikoa zuten arren, hamabi espezieetan desberdindu ziren mundu zaballean. Espezie horiek Lemuria kontinente hondoratuan edukiko zuten jatorria, han egongo zen gizadiaren behaska –eta paradisu mitikoa–, eta abiapuntu horretatik sakabanatuko ziren arbaso lemuriarrak une eta norabide desberdinetan, hamabi giza espezie itxuratuz. Haeckel-ek ustezko Lemuria horretan kokatu zuen *Pithecanthropus alalus* hipotetikoa, gizakien arbasotzat jo zuena. Lemuria kontinentea, bestalde, Sclater zoologo britaniarrak postulatu zuen: Lemuria Indiar Ozeanoan zabaldua zegokeen, eta kontinente horren existentziak azal zezakeen lemurren eta euren ahaideen gaur egungo banaketa geografiko disjuntua, Afrika, Madagaskar, India eta Indonesian zehar.

(IRD. K. ALTONAGA).





garria eduki izan zuten, eta hainbat jarraitzaile inspiratu zituzten, hala nola, Eugène Dubois, esan bezala, kate-maila galduaren bila joan zena, eta Java uharterko erdialdean hominido goiztiar baten hondarrak aurkitu zituen 1890 eta 1891ean ibai-terrazza batean. Dubois-ek *Pithecanthropus erectus* izena eman zion, bate-tik, izterrezurra aztertuta zutik ibil zitekeela pentsatu baitzuen, baina, bestetik, Haeckel-en ideie-kiko begiruneagatik. Haeckel-en oihartzuna Euskal Herriraino ere

iritsi zen, eta, kasurako, Arturo Campion euskaltzale handiak ezagutzen zituen Haeckel-en ideioi, Dubois-ek baino urrunagotik nahi bada ere, eta onargarriak iruditu zitzaizkion euskaldunen jatorri iluna azaltzeko; areago, ez onartuz gero, euskaldunak inolako ahaidetasunik gabeko arrazatzat jo beharko ziratekeen, joandako mundu baten azken aztarnatzat, arraza isolatutzat.

Ziurrenez, Haeckel-en tximino gizon berbabakoa izango da aurkitu aurretik formalki izendatu den kreatura zoologiko bakarra, *Pithecanthropus alalus* hipotetiko ospetsua. Zernahi gisaz, Haeckel-ek hogeita bi kate-maila proposatu zituen, gai ez-organikotik abiatuta gizakiraino iristeko, eta, izatez, *Pithecanthropus alalus* hogeita batgarren lekuan kokatu zuen: benetako gizakien mailaraino sartzeko, hizkuntza eskuratzea falta zuen.


Hogeita bi arbaso hipotetiko horiek, Haeckel-ek enbriologia, anatomia eta paleontologiako zehaztapenetan oinarritu zituen. Goi-mailetako arbasoak batez ere aztarna fosiletan eta animalia modernoan anatomian funtsatu bazituen ere, enbrioiaren garapeneko lehen urratsez baliatu zen arbaso primitiboan erakitzeke. Bereziki interesgarriak dira lehenengo bost kate-maila, zeren, bizidunik sinpleenei baitagozkie, hau da, mundu ez-organiko bizigabea gainditu duten eta urratsik urrats bizidunen konplexutasunean sakondu diren aitzindariak.



Haeckel-en eraikuntza teoriko horretan, mailarik oinarritzako arbaso nukleobako primordial bati dagokio. Izatez, urrats hipotetiko horren froga modura monerula delakoa erabili zuen, hau da, obulu ernaldua baina besikula germinala galdu duena, eta, hori dela-eta, *monero* izenez bataiatu zituen lehen bizidun haiek. Nolanahi, aipa dezagun, zenbait urte geroago arte ez da ondo ezagutu, eta ulertu, ernalketa-prozesua –bide batez esateko, Haeckel-en ikaslea izandako Oscar Hertwig izan zen lehena, 1875ean, espermatozoidearen eta obuluaren nukleoaren arteko fusioa behatu zuena, itsas trikuak

Giza espezie berri baten hezurak aurkitu dituzte Indonesiako Flores uharterean, 2004an. Gizaki hori metro bete luze zen, besterik ez –hori dela-eta *hobbit* ezizenaz aipatzen da maiz; irudian duzu berreraiketa hipotetikoa—. *Homo floresiensis* izen zientifikoa jarri diote, eta, desberdintasunak desberdintasun, *Homo erectus* hominidoaren ondorengoa izan daiteke adituen ustez, hau da, Java-n Dubois-ek aurkitutakoaren leinukoa. Aztarnak ez zeuden fosilizatuta, eta orain 18.000 urtekoak direla ikusi da, datazio-teknika bi erabiliz. Gainera, harrizko tresnak eta Komodo dragoiaren eta *Stegodon* generoko elefante nanoaren hezurak topatu dira aztarnategian. Oso eztabaida akademiko bizia zabaldu da *hobbit*aren inguruan, baina, ikuspegi antropologikotik urrunduta, azpimarratzekoa litzateke beste behin ere egiaztatu dela, uharteretako isolamendu-baldintzek nanotasuna sortzen dutela zenbaitzuetan: ezagunak ziren irltako mamut, elefante eta hipopotamo nanoak; orain ikusi da fenomeno bera gizakiari ere gertatu zaiola.

(ARG.: P. SCHOUTEN).




erabiliz- eta, horrenbestez, ezin izan zen monerula delakoaren izaera bas-tarta argudiatu. Beraz, Haeckel-ek postulatu zuenez, moneroak izango ziren mundu ez-organiko eta mundu organiko arteko zubia, hau da, bizia eta ez-bizia estekatzea ekarri zuten bizidun ezinago bakunak. Areago, Haeckel-ek eszenario hipotetiko bat marraztu zuen Lur primigenioan, ez-bizia bizi bilaka zedin, alegia, bizigabetik bizidunak gara zitezen, eta, halaber, monerotzat jo zituen izakiak aurkitu zituen bere laginketa-kanpainetan.

Zelula simple bati dagokio bigarren maila, hain zuzen zelula nukleodun bati, eta hirugarrena lehen bizidun multizelularrari. Haeckel-ek hurrenez hurren zigotoan eta berorren zatiketa zelular askoren ondorioz sorturiko morulan oinarritu zituen maila bi horiek. Kontura gaitezen, Haeckel izaki zelulabakarren eta zelulanitzen agerpena azaldu guran dabil maila bi horiek kontsideratzean. Eta hurrengo urratsean, garapen enbrionarioko blastula hutsetan oinarrituta *blastea* izeneko lehen animalia igerilaria diseinatu zuen, *Volvox* protozoo kolonialaren antzekoa eta jadanik lan-banaketa intzipientea edukiko zuena, beharbada zelula somatikoak eta ugaltzelulak bereiztuz.

Bosgarren kate-maila *gastrea* da, eta garapen enbrionarioko gastrulari dagokio Haeckel-en begietan. *Gastrea* blasteatik abiatuta gauzatuko zen, animaliarene alde liseritzailera eta alde lokomotorea elkarrengandik banatuz. Gastrula enbrionarioa bezalaxe, *gastrea* hori ere zaku-itxurako animalia izango zen, eta berarengandik eratorriko ziren knidarioak, eta berorietatik gainerako animaliak osteko urratsetan.


Behemailako kreatura hipotetiko horiek guztiek, *Pithecanthropus alalus* bezain ospetsuak ez badira ere, oso zabalkunde handia eduki izan dute, eta, esaterako, zoologia irakasgaia kurtsatu duen orok badu *gastrearen* hipote-



Ontogeniaren eta filogeniaren arteko paralelismoa, Haeckel-en arabera. Haren iritziz, edozein animaliarene garapen enbrionarioan — *Monoxenia darwini* koralarrena irudikatu du — bost urrats daude, animaliarene eboluzioak segitu duen prozesuko bost maila nagusiak erakusten dituztenak. Labur esateko, sinpleenetik konplexurantz doazen bost urrats enbrionario horietan Haeckel-ek unizelularitatearen lorpenaren eta unizelularitate horretatik plurizelularitate eta multizelularitate-rainoko prozesu ebolutiboaren isla identifikatu zituen, eta bai lehen animalia primigenioaren agerpena ere. Irudian ikus daitekeenez, Haeckel-ek izen paraleloak proposatu zituen segida ontogeniko eta segida filogenetikoko urrats bakoitzarentzat.

(IRD.: K. ALTONAGA).

siaren berri, eta badaki noraino oinarritzen garen logika haeckeliarreen animalien eboluzioa azaltzean: protozooetatik abiatuta knidario diploblastikoak itxuratzen dira, eta berorietatik animalia triploblastiko azelomatu eta zelomatuak. Areago, badaki zoologiaren beraren kontzeptu-sarea eta terminologia Haeckel-en ideietan oinarritu direna. Ikasle ohi horrek entzunda dauka “ontogeniak filogenia errekapitulatzen duela-edo”, esan nahi baita, banakoaren garapenak espeziearen garapen ebolutiboa errepikatzen duela, eta badaki horri “lege biogenetikoa” deritzona. Ez dakiena da, komunitate zientifikoak jadanik 1910erako abandonatu zuela zorioneko lege biogenetikoa. Urte horretarako guztiz onartuta zegoen, enbrioiek helduen jatorriari buruzko argibide ederrak ematen dituztela, baina, ez Haeckel-ek eta errekapitulazionistek uste zuten bezala, enbrioien garapenean zehar miniaturazko heldu anteztralaren segida laburbiltzen delako. Ez dago horrelakorik. Izatez, garapena diferentziazio-prozesu bat da orokorretik espezifikorantz doana, eta enbrioiek ezaugarri orokorrak erakusten dituzte, ondoz ondoko urratsetan espezializatuz joango direnak. Horrela, enbrioiak lehenago, kasurako, ornodunen ezaugarri orokorrenak edukiko ditu, eta garapenean zehar agertuko zaizkio konkretuenak orpoz orpo. Alegia, giza enbrio batek zakatz-arrailak garatzen ditu, ez arrain heldu batetik eboluzionatu



garelako (horixe da azalpen haeckeliar errekapitulatiboa), baizik eta ornodun guztiek fase zakatz-arrailduna dutelako garapen goiztiarrear. Arrainak, ornodun “primitiboak” direnez, osteko garapenean ez dira larregi urruntzen fase zakatz-arraildun horretatik, baina, ugaztunek, “eboluzionatuak” izanik, zakatz-arrailak galdu eta birrikak itxuratzen dituzte. Hau da, enbrioiek


jatorriari buruzko zantzuak eskaintzen dituzte, zeren, animali talde handien ezaugarri orokorrek arrasto hobeak erakusten baitituzte, talde txikiagoen ezaugarri espezializatuagoen baino. Ba, hala ere, zoologiako liburu askotan oraindik ere errepikatzen dira lege biogenetikoa eta dagozkion irudi klasiakoak. Gerta daiteke hori inertzia handia dagoelako, eta eskuliburuak neurri handi batean elkarren kopia direlako, Gould-ek zorrotz adierazi duenez; baina, baita, lege biogenetikoa begietatik oso erraz geureganatzen dugulako, nahikoa modu intuitiboan, nahiz eta zehatza ez izan. Horregatik ere, ikasleak ez du zuzenketa gogoratuko, eta bai Haeckel-ek postulatuakoa.

Jakina, gune bereziki delikatu bi zeuden Haeckel-ek eraikitako hipotesi horretan. Bata, gailurrean zegoen, alegia, gizakiaren eta tximinoen arteko loturari dagokiona. Aurreko kapituluan ikusi dugunez Linnaeus bera arituzen gizakia ugaztunen talde barruan sailkatzen, hau da, gizakiaren oinarriko animali izaera aldarrikatzen. Baina, mende bete geroago, Charles Darwin ez zen ausartu eboluzioaren ideiak aldean dakartzan ondorioak gizakia *Espezieen jatorria* liburuan esplizituki aplikatzen; alegia, gizakia naturatik at utzi zuen nolabait, ez baitzuen nahi aparteko iskanbilarik. Orduko ortodoxiaren baitan, esan gabe doa, gizakia animalia arimaduna da, animalia izatekotan; arima horren etorkia da arazoa: hor dago koska. Haeckel-ek askoz

Haeckel-en lege biogenetikoa arabera, ontogeniak filogenia errekapitulatzen du. Lege hori ilustratzeko, Haeckel-ek ornodunen enbrioien irudiak argitaratu zituen, gerora biologiazko eskuliburuetan zabalkunde ikaragarria eduki izan dutenak gaur egunera arte. Hala ere, enbriologoek gezurtatu egin zuten lege biogenetikoa dagoenez XIX. mendean. Irudikatutako enbrioiak ondokoak dira ezkerretik eskuinerantz: arraina, arrabioa, dortoka, oiloa, zerria, behia, untxia eta gizakia. Kontura zaitzekenez, ez daude ilustratuta ornodun-klase guztiak eta dauden gehienak ugaztun plazentalioen enbrioiak dira.

Hau da, Haeckel-ek ez zituen kontuan hartu bere eskematik urruntzen ziren taldeak. Areago, Haeckel-ek egokitu egin zituen irudiak, lege biogenetikoa ondatzea nabarmenago gera zedin.

(IRD.: P. Z. MYERS).




oldarkorrage jokatu zuen, eta ez zion itzuri egin gatazka biziari, bere ikuspegi monistikoa defendatu behar baitzuen zientzia-planteamenduz gainera. Ezaguna denez, Haeckel –eta bai Huxley ere– Darwin bera baino askoz gogotsuago borrokatu zen darwinismoa zabaltzen.

Bigarren gune delikatua oinarriari dagokio, lehen bizidunari, hau da, biziaren sorrerari. Ez dago zertan aipatu gaiaren inplikazioak: begi-bistakoa da norainoko garrantzia eduki zezakeen ikuspegi konfesional batetik, Jaungoikoaren partehartzearen ukazioak, sorrerako une horretan. Konturatu zarenez, azken batean auzitan zegoena arazo bera zen gune biotan.

Nolanahi, Haeckel-en hipotesiak *Pithecanthropus erectus* gizakiaren estalgetzea bideratu zuen era berean, monero batzuen “aurkitzea” sortarazi zuen. Haeckel-ek berak, *Protogenes primordialis* bataiatu zuena lagindu zuen Nizan 1864an, eta *Protomyxa aurantiaca* Lanzarot-en 1867an. Zalantza barik *Bathybius haeckelii* izan zen ospe gehien lortu zuena monero horien artean; gogoratu, Huxley-k deskribatu zuen 1868an, baina handik urte gutxira egiaztatu zen, izatez, kaltzio sulfatoaren prezipitatu koloidal bat zela, hau da, itsas hondoko laginetako istilaren eta alkoholaren erreakzioz sorturiko zeozer. Eta horrek ezabatu egin zuen *Bathybius* eta aurkitutako gainerako moneroen benetakotasuna: bizia eta ez-bizia lotu nahian postulatatu zituen Haeckel-ek, baina orduan deskribatutako moneroak guztiz ez-organiko suertatu ziren. Horrela izanik, komunitate zientifikotik desagertuz joan ziren, ezari-ezarian, moneroen aipamenak.


Alabaina, Haeckel-ek zizelkaturiko “monero” izena, berpiztu egin zuten oraintsu, bizidun prokariotikoen erreinu berezi bat denominatzeko. Izan ere, 1969. urtean Whittaker-ek Monera erreinua ezarri zuen, bakterioak eta alga berde-urdinak bertan sailkatuz. Biologo askoren ustez, prokarioto eta eukariotoen arteko haustura da zalantzarik gabe, biziaren historian sortu den etenik handiena, hau da, alde batean leudeke bizidun prokariotikoak (Whittaker-en moneroak, alegia) eta bestean zelula nukleodun ez osotutako gainerakoak, hots, bizidun eukariotikoak (alegia, protozooak, animaliak, landareak eta onddoak, lau erreinu bereizitan banatuta). Areago, Margulis-en hipotesiaren arabera, prokarioto batzuen elkarketa sinbiotikoak sortara-



Protomyxa aurantiaca da Haeckel-ek deskribaturiko moneroetariko bat, handik laster komunitate zientifikoak espekulazio hutsa gisara jo zuena. Haeckel-en interpretazioan, kreatura nukleobako hau gorri-laranja kolorekoa zen, eta soilik protoplasmaz osotua. Lamina honetan izakiaren bizi-zikloa ikus daiteke, beti ere Haeckel-en interpretazioaren arabera: 11, monero heldua, gose delarik; 12, moneroa pseudopodoez elikatzen (harrapakin bat geldiarazten eskuin aldetik, eta beste zenbaitzuk gorputz zelularran liseritzen); 15-16, elikatu eta gero, moneroak pseudopodoak bildu egiten ditu, eta forma esferikoa hartzen; 1, moneroa atsedenean; 2, moneroa bere bildukin amorfoaren baitan; 3, moneroa zatikatzen; 4, monero-kumeak askatzen; 5-10, moneroaren garapeneko ondoko ondoko urratsak; 13-14, batzuetan zenbait monero elkartu egin daitezke korpuskulu plasmodialak itxuratz.

(IRD: K. ALTONAGA).

ziko zituen eukariotoak, eta, ikuspegi horren baitan, bizidun prokariotiko osoen homologotzat jotzen dira bizidun eukariotikoen nukleoa eta mitokondrioak.




Dena dela, moneroen ideiarene eragina bazter hauetaraino ere iritsi zen, eta, izan kreazionista zen gure Folin markesak berak, biziaren eta ez-biziaren mugalde horretako espezieak aurkitu zituen Miarrizteko kostaldean. Itsasoaz haraindian, Uruguaiako lurretan José Arechavala (1838-1912) botikari haeczelzaleak ere batibio horietariko bat aurkitu zuen, eta *Helobius oterii* izenez deskribatu zuen 1882an, bazezien arren Huxley-rena fiktizioa suertatu zela. Arechavala horrek hamazazpi urterekin utzi zuen Bilboko Ezkerraldeko Urioste, eta Montevideon 1862an lortu zuen farmazilari-lizentzia; gerora erabateko garrantzia eduki izan zuen, darwinismoa Uruguai aldean heda zedin.

Noski, kontu horien guztien oihartzunak Jean Etxepareren belarriuloetaraino ere iritsiko ziren zelan edo halan, zeren, aurreko epigrafe batean Piarres Lafitteren hitzekin adierazi bezala, *bero-beroa* lotu baitzitzaien *Haeckel eta Nietzsche bezalako batzuen liburu kbiretseri*. Dena esateko, baina, nekez atzematen da Etxepareren idazlanetan Haeckel-ek eduki zezakeen eragina, eta, han-hemenka agerturiko bizpahiru “tantta” igartezin aparte utzita, badirudi eragin hori ez dela Etxepareren idazkietan islatu. Izan ere, erdi ezkututako pasarte bakarra aurkitu diogu Haeckel-en lorratz garbia daroana –hurrengo kapitulu batean aztertuko ditugun lerro bakan batzuk– eta, harrigarria bada ere, ez da, ez gizakiaren jatorriari buruzkoa, ez euskaldunenari buruzkoa, munduaren eta biziaren sorreraren gainekoa baino. Areago, 1905eko eskutitz batean ondokoa diotso gerora euskaltzain bihurtuko den Georges Lacomberi:

Je continue cependant à croire que le peuple Basque est le plus ancien connu; d'autre part, le jeu de balle ne pouvant être, à cause de sa simplicité, que le jeu premier de l'espèce humaine, il n'y avait de là qu'un pas à attribuer aux Basques la paternité de ce jeu, et je l'ai franchi.


Eskutitz horretan bere tesiaren inguruko azalpenak damaizkio Lacomberi, baina, konturatuko zinenez, ez datoz bat Haeckel-ek zirriboratu duen ibilbidearekin, Lemuriatik abiatuta. Ez dut Etxepareren tesia eskuen artean eduki, eta, horrenbestez, ez dakit Etxeparek justu-justu zein bibliografiatan oinarritu duen iritzi hori. Deigarria begitandu zait, dena dela, Etxeparek ez hobestea Haeckel-en hipotesia, hain zuzen ere Arturo Campionek begi onez hartu zuena. Irakurrita edukiko ote zuen, bada, Jean Etxeparek ordu-rako? Ala, Piarres Lafittek esandakoa baino geroago eskuetaratu zituen Haeckel-en liburuak? Ez dakit, ba.

Pio Barojak ere bazuen Haeckel-en ideien berri, eta, besteak beste, honelako lerroak argitaratu zituen 1918an:



José Cosme Arechavala Balparda (Urioste, 1838; Montevideo, 1912). Hamalau urterekin Portugaleteko botika batean sartu zen laguntzaile, aldi berean latina eta frantsesa ikasten aritu zelarik. Hamazazpi urterekin joan zen Uruguaira. Han lortu zuen farmazilari-titulua, 1862an. Oso goiz hasi zen hango lautaden fauna eta, bereziki, flora aztertzen. Entomologiazkoak izan ziren buruturiko lehen ikerketak. Medikuntza-fakultateko irakaslea izan zen 1874-1906 bitartean, eta, besteak beste, oso eragin handikoa suertatu zen darwinismoaren zabal-kunderako. Bestalde, Natur Zientzietako Museoko zuzendaria egin zuten 1890ean. Haren idazlan garrantzitsuenen artean *Las gramíneas del Uruguay*, *Cactáceas del Uruguay* eta *La flora uruguaya* aipa daitezke.

(ARG.: GOICOETXEA MARCAIDA).



Léopold de Folin (1817-1896) markesa. Ozeanografiaren aitzindariatariko bat izan zen, eta 1880-83 tartean zenbait laginketa-kanpaina egin zituen Atlantiko eta Mediterraneoan barrera, *Travailleur* eta *Talisman* itsasontziez baliatuz. Halaber, Ipar Euskal Herriko azterketa faunistiko metodikoa hasi zuen, eta batez ere barraski- loak landu zituen. Ikerlan malakologiko horietan lorturiko zenbait datu, Folin markesaren ustez, euskaldunak Atlantidatik etorriak zirela proposatu zuen hipotesiaren alde interpreta zitezkeen.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

Como la mayoría de los vascongados, soy por naturaleza alalo. No en balde parece que nosotros descendemos de la raza de Cro Mangnon [sic], pariente próxima de *pithecanthropus* [sic], que, como se sabe, o se supone, era hombre de acción y de pocas palabras.

Zernahi gisaz, Barojarengan baino era kriptikoagoan izan arren, Etxeparek ere baditu Haeckel-en zipriztinak, hominizazio-prozesuan hizkuntza-aren eskuratzeak eduki zezakeen garrantzia islatzen dutenak. Adibidez, 1922ko idazlan batean honela diosku:

Badakizue gogoia buru-muinetan dela alatzten, buru-muinek gero alarazten dutela mihia, gogoia pindar.

Inplizituki bada ere, esaten ari dena da hizkuntzarik gabeko egoera bat prehumanoa dela, zerebroak ez baitu benetako gizakiari dagokion maila lortu.


BRIDEN BEHARRA DUEN POTTOKA

Ez dago argi Jean Etxepare medikua noiz hasi zen *Eskualduna* astekari konterbadore eta katolikoan idazten. Piarres Lafittek 1902. urtea aipatu badu ere, ezin da horrelakorik ziur baieztatu, aldizkari horretan argitaraturiko artikulua gehienak izengabeak baitziren.

Jon Casenavek iradoki duenez, lehenagotik ere hasita egon zitekeen Jean Etxeparearen kolaborazioa, beharbada 1896tik aurrera, eta ia seguru 1901erako. Ideia horren alde, Jon Casenavek argudio bi aurkezten dizkigu. Batetik, aldizkarian agerturiko artikuluen artean badaude zenbaitzuk, gaia dela-eta edota Lekorneko kronikak izateagatik, gure medikuaren lumak paratuak izan daitezkeenak. Bestalde, ezin da ahaztu Jean Etxeparek Larresoron ikasi zuela, eta Manex Hiriart-Urruti, Arnaud Abadia eta Blas Adema ezagutu zituela hango irakasleen artean, hau da, aldizkariaren kolaboratzaile nagusiak hurbiletik tratatu zituela, eta, esan gabe doa, harreman horrek erraztu egin zezakeen gure idazlearen debut goiztiarra. Nolanahi, 1903ko hasieratik aurrera ziurtzat jotzen da Etxeparearen partehartzea, “Tandil” pseudonimo iradokorraz sinatuz. Ez da Tandil, antza, erabili zuen ezizen bakarra: “Nor-eta-Nor”, “Egiazail” eta “Irrihotz” ere sasoi horretakoak dira.

Dena dela, Etxeparearen izpiritu libre eta irekiak oso goiz egin zuen topo orduko zuzendariarekin, alegia, Manex Hiriart-Urrutirekin, eta, konterbatu diren eskutitzei esker, nahikoa ondo ezagutzen da sasoi bateko irakasle eta ikaslearen arteko mokokaldiren bat edo beste, zeharka izan arren. Kasurako, 1903ko urrian *Donapaleoko euskal-pestak* argitaratu zuen Etxeparek, izenburuak berak dioskunez hango giroa eta han ikusitakoa polito azalduz. Artikuluaren amaieran kontatzen duenez, justu xuberotar dantzariak plaza hartu zutenean, joan beharrean egon zen:

Halarik ere, uste dut loriatuko nintzela ikusi ahal ukan banu *godalet-dantza*. (Arnoz beterikako baso baten inguruan eta gainean, perekatzen



bezala dutela zangoez, harritzeko itzuli eta jauziak dituzte omen egiten Zuberotarrek). Lorientuko, aditzeaz *irrintzina* zenbeit gauaz... basa ihiziarren, emazte bortxatuaren marruma airos lazgarri hura; lorientuko entzuteaz koblarien gudua, ikusteaz arbola-azpitan –ilargi goxoak eta izarrek argituz– Euskaldun mutil-neskatxa gazteak, lehenagoko denboretan bezala, elgarrekin jauzika.

Bainan, urrunekoa izanez, abiatu behar izan nintzan goizik [...]

Hor adierazitakoa ez zen Hiriart-Urrutiren gogokoa suertatu. Dirudinez, artikulu hori Hiriart-Urrutik orraztu barik argitaratu zen, eta beraz, haren “bahetik” igaro gabe, *Eskualduna* astekariaren ohiko prozeduratik at. Beharbada gure begiek ez dute pasarte horretako bekatua atzemango, baina, Manex Hiriart-Urruti sutan paratu zen. Ikusi, bada, zer-nolako gutuna igorri zion Pierre Buruzaini:

Petit Séminaire de Larressore, Hazilaren 5a 1903.

Adiskide ona,

Zu!... Erran gogo ez dena eta kasik erran behar ez dena, jali araz zinio. Beharrik badakit ez zerabiltzala, beste frango bezala, jakin goseak. Sudurra luze baino beroago duzula bihotza badakit.

Horra zertako, atchiki behar ditudanak atchikiz, erranen dautzutan laburki hor... hitz labur on horien igortzalearekin ukhan dudala mokokaldi, min handi egin dautana zortzi bat egunez. Urgulutsuia zirela diozu zuk zu. Gaizoa! Deus ez zira, beste zonbaiten aldian.

Hau banakiin puska bat bazela. Ez ordian hoinbeste. Bainan orai-koak aldia egin du. Joan da. Nere federik hoberenian bi hitz igorri nazkon, beharrenak hunkituz, *Eskualduna*-ren chokhoak miatu balinbaitu-zu ez baitut erraiterik zertaz, iragan egunetako atheraldi... *Ierrakor* batzuez.

Orotako handienetarik biga, guziz bat (*irrintzina* = *hennissement de la femme violée*... Loti edo nik dakit noren burutikako perttolikeria): Donapaleoko joan-jinaren chehetasunetan ziren. Eta nola eskuietarik iragana baitzen mintzaldi hori, eta arte eskasez hala hala igorria bainiin, behako bat doi-doi hegier emanik, barnia miatu gabe, niri zela zaundane buruiaren garbitzia.

Izariz mintzatu nitzazio, ustez. Luzechko ba, hasian hasi, bainintiin beste arangura ttipi batzu ere. Baia ba! Ez dautzut erranen zer eta nola ihardetsi dautan.

Pentsa! Nihaurek ere aldi bat baizik ez dut irakurtu, eta joan da berehala surat, erretzeko hobia baitzen. Burutik behar du ukhan boltaka, giza-gaichoak: erran ere badaut, asko elhe makhurren artetik, baditakela, ororen buruiari «kintze bat» badiin.


Ni hiltzen baniz eta lan huni buruz harekin uztartzen bazira egun batez, orhoituren zira huntaz.

Bego! Ihardetsi nakon ez hotz ez motz, bainan labur eta gizonki ahaz, buru-bihotzek elgar zaukatela. *Sans rancune* emana baitzaundan, halako *irri hotz* bere gisako batekin (*arrazoina du Irrihotz* sinatzeko, *alafede baietz!*); ihardetsi nakon: «*Sans rancune oui, mais pas sans tristesse*». Eta gero hamar bat lerro, ahal bezen chuchen eta sarkor: ez nakola sekulan gehiago hutsik altchatuko; ginozin aitzina lanari, nahi bazin, zoin



Manex Hiriart-Urruti Althegi (Hazparne, 1859; Baiona, 1915) idazle aparta eta kazeta-egile aipatua. Larresoroko Seminario tipian ikasi zuen 1872-77 tartean, urtetik urtera beti goiti ari izan zelarik; gero Baionakoan. 1881ean, artean apaizgai zelarik Larresororako eskola-emaile izendatu zuten. 1882an apaiztu zen, eta Larresoron segitu zuen, Arnaud Abadia zeukala buruzagi. Han iraun zuen hurrengo hogeita bost urtean, 1906ra arte. Alemana irakasten zuen, besteak beste. Irakasle ona eta laketaria ei zen. Gero, Baionako kalonje izendatu zuten. *Eskualduna* astekarian kolaboratzen 1891 urte inguruan hasi zen, eta hil arte jarraitu zuen idazten. Idazle ez ezik, aldizkariaren buruzagi bilakatu zen laster. Oso prosa apainduaren jabea, eskuineko politikaren alde aritu zen gogo-bihotzez.

(ARG.: HERRIA, 1969, 1009 ZBK.).



gure alde. Igortzen zaitanak eskuztatuko nintila, deus erran gabe, iduri zitzautan bezala, eta berak galdatu edo onhetsi bezala. Esku eta esku, eta fini...

Nindagon ondorioari. Ja ikusi dukezu Lekhorneko errientari eman dakon sistako berria. Ezin egona.

Geroztik igorri dait *Orotarik* eta bizpahiru berrichka on; eta barnian karta hau,... ez gaizki.


Bi egun espres luzaturik, igorri dakot ene karta, hitz hunekin, orotara dagona: *Merci*.

Hortan gira. Ukanen du briden beharra gure pottokak. Bizkitartian zerbait onik ere badu segur; eta miletan nahiago dut holako buru bat, zeiharka ere onerat itzulia, ezenez gaichtorat. Non geldi litake? Phereka dezagun ile alde, bainan soka labur atchikiz eta zaldare beroturik ahalaz ez emanez. Ferdetik ausarki; eta karrosan hirunazka ezar beti erdian. Halere ni beldur lanak emanen dauzkula. Agian ez!... Nik ez dut kitzikatuko...

Ekarri dugun aipua luzetxoa izan arren (ez dugu eskutitz osoa aldatu), merezi duelakoan nago, oso ilustratiboa da-eta hainbat aldetatik. Batetik, ezin da biziago adierazi Hiriart-Urrutiren haserrea, zortzi bat egunez iraun ziona. Baina, Pierre Buruzaini diotsonez, irakurritakoan sutara bota duen ihardespenean, beste ele makur askoren artean “kintze bat” falta duela esan omen zion Etxeparek, alegia, burutik jota dagoela: eta hori nork eta Larresoroko ikasle ohi karrera amaitu berri batek.

Bestalde, mokokaldiaren abiapuntuan besteak beste biga arrazoi egon zirela diotso, baina soilik bat aditzera emanez, hots, irrintziarena. Aitorpen horrek, Etxeparek irrintzia deskribatzeko erabili formulazioaren egokitasun eztabaidagarriaz landara, bestelako argibideak eskaintzen dizkigu, zeren, nahikoa argiro uzten baitu, bai irakasleak, bai ikasleak, bi-biok irakurrita zutela Lotiren *Ramuntcho*, eta, menturaz, Buruzainek berak ere. Nolanahi, esplizitatu gabe gelditu den bigarren arrazoi nagusia, nire iritiz, Etxepareren *Donapaleoko euskal-pestak* artikuluan “Euskaldun mutil-neskatxa gazteak, lehenagoko denboretan bezala, elgarrekin jauzika” “arbola-azpietan –ilargi goxoak eta izarrek argituz–” ikustea izango litzateke, esan nahi baita, Hiriart-Urrutik Nietzsche-edo igarri zuela lerro horietan kukututa. Kontura gaitetzen, Etxepareren ebokazioan dei egiten zaio behinolako Euskal Herri pagano bati, eta jakina, Hiriart-Urrutiri kontrako zintzurretik joan zitzaien.

Dena dela, nik beste puntu bat nabarmenduko nuke eskutitz horretatik, eta da eskaintzen digun Etxepareren potreta, hain zuzen ere egin digun haren argazki psikologiko zehatza. Gainera, ez da bakarrik gutunak esan dioena, ze, badago esan barik ere ulertzera ematen diguna. Esaterako, *urgulutsu* al zen Etxepare medikua? Zeren eskutitza irakurritakoan jakin izan dugunez, urgulutsua dela Pierre Buruzainek esaten du bere buruaz, baina, Etxepareren harrotasuna, Hiriart-Urrutiren luma miragarriari sinestekotan, neurritz kanpokoa da, beste magnitude batekoa. Ildo horretan, gogoratu Larresoroko urteetan ere “bere buruaren jabe” eta “bere aburuen nagusi” irudikatu digula Lafittek. Hiriart-Urrutiren begietan, oroz gain, briden beharra duen pottoka da hogeita gutxi urteko Etxepare, adorez eta indarrez galapan doana, eta, zeiharka bada ere, onerat itzulia; zalgurditik gogotsu



tiratuko du, baina, hobe litzateke hirunazka uztartzea erdiko lekuan, alboetako mandoek bidera dezaten.

Hiriart-Urrutik Nietzsche-ren mehatxua hasiera-hasieratik sumatu bezalaxe, berehalakoan ikusi du zaldi basa hori bezatu beharra, zamari bihurtu beharra. Alabaina, Etxeparek “de ceux qui luttent contre vent et marée” izan nahi du, hots, haize eta mareen kontra borrokatzen diren horietarikoa –horixe esan dio Hiriart-Urrutik Pierre Buruzaini hilabete batzuk lehenago bidalitako beste eskutitz batean–, eta sesioak gorabehera ildo bereari jarraitu zion, ekin eta ekin, itoginak harria zulatu arte, esan ohi denez. Hasierako talkada horien ondotik, Etxepare libre geratu zen, Hiriart-Urrutiren derrigorrezko orrazketatik, hain justu orrazketa zuzentzaile-zentsuratzaila, *Eskualduna* aldizkariaren gainerako kolaboratzaileekin egiten zena. Etxeparek kroniketan eta idazkietan kazetaritza-lan hutsak barik literatura-balioudun *buruxkak* ondu nahi zituen. Konturatu orduko Etxepare oso idazle emankor bilakatuko da, eta idaztea izango da haren bizitzako pasio nagusia: ia-ia egunero papereratzten dituen lerroak, ariketa formalak ez ezik, badira ere, Jon Casenavek adierazi duenez, benetako literatura-bokazio baten osagai ludikoa. Inoiz edo behin, Etxeparek berak aitortu zuen idatziz:


Batzutan oherat joan baino lehen, izkirioz ezartzen ditut zerek ere jo baitauzkitet begiak eta hek. Bitxikeria, gizon batek ukan dezan jaidura hori, bainan nork ez ditu bereak?

Izatez, irakurri berri duzun aipu llabur hori geroagokoa da, 1914ko martxokoa, eta ordurako Aldudeko medikua izango da Jean Etxepare. Bere laburrean, kontu bi argitzen dizkigu: bata, idaztea ia eguneroko zeregina duela Aldudeko medikuak, eta, bestea, bere burua zuritu behar horrek nahikotxo agerian uzten digu orduko Euskal Herrian noraino ezohikoa izan zitekeen luma-zaletasun hori. Noren buruan kabitzen da hartarainoko xelegekeria?

GALILEAKO ZURGIN-SEME PEDOILARENA

Jurgi Kintana arduratu da Nietzsche-k Etxeparerengan izan zuen eragina aztertzen, eta, hainbat kontu deigarri “estalgetu” ditu. Jurgirena, jakina, lehen hurbilketatzat jo behar dugu, zeren, soil-soilik *Amodioa* izeneko kontakizuna hartu baitu aztergai, Etxepareren obra osoa besarkatu beharrean; nolana, pentsalari horren ideiez ziprztinduta begitandu zaio goitik behera. Jurgi Kintanaren hurbilketari jarraituko natzaio, beraz, hurrengo pasarteetan.

Friedrich Nietzsche-ren (1844-1900) pentsamendu bitalistak zuzenezuzenean jo zuen tradizio judu-kristauaren kontra, eta XIX. mende-amaiera aldeko Europako krisi-giroan zabaldu zen, Paris bozgorailu nagusia izanik. Nietzsche-ren ideiak, izatez, 1890eko hamarkadan hasi ziren ezagutzen Frantzia, filosofoak burua galdu ostean, eta, arrakasta galanta lortu zutela-



rik, kontinente osoko letra-munduan barreiatu ziren. Frantzian 1898z geroztik iritsi zitzaizen entzuterik handiena, batez ere aldizkari bidez, eta Lehen Mundu-Gerlara arte luzatu zen. Mendearen bueltan iritsi ziren haize berri horien lehen ufadak Euskal Herriko idazle batzueganaino, hala nola, Migel Unamuno eta batez ere Pio Baroja (1872-1956) eta Ramiro de Maeztu (1874-1936) nabarmendu behar direlarik. Esaterako, idazle gasteiztarrak 1899an argitaratutako *Hacia otra España* liburuak Nietzsche-ren ideiak bereganatu ditu, baina, izenburuak berak dioskunez, Euskal Herriaz landara beste erreferentzia-sistema bat du gogoan. Nietzsche-ren euskal irakurketa bat geroago etorriko da, bereziki Barojaren eskutik, baina, XIX. mende goienean idazleok ez zeuden Euskal Herriari begira.


Esan dugunez, Jean Etxeparek Bordelen egin zuen topo Nietzsche-ren ideia *kirbets* galgarriekin, 1894. urtetik aurrera, eta nabarmen agertzen dira 1910ean plazaraturiko *Amodioa* istorioan, arestian esan bezala. *Amodioa* delakoa *Buruxkak* liburu zoragarriaren baitan kaleratu zen. Etxepareren lehen liburu hori bilduma bat da, luzera desberdineko hogeita sei saioz osotua. Horiatariko hogeita bat lehenagotik artikulu gisa argitaratuta zeuden *Eskualduna* eta *Eskualdun ona* astekarietan, 1903-1909 bitartean, eta gainerako bostak –tartean *Amodioa* eta gorago zabalkiro ibili dugun *Ameriketako orboitzapenak*– ineditoak ziren. Nietzsche-ren itzala, Jurgi Kintanaren iritziz, han eta hemen suma daiteke gainez gain *Buruxkak* bildumako saioetan, hala nola aforismoetarako zaletasunean, baina, begien bistakoa da elkarrizketa erara doan *Amodioa* saioan.

Platonen *Oturuntza* famatuan bezala –idazlan horretatik dator “amodio platonikoarena”– eta haren eredura, Etxeparek *Amodioa* delakoan maitasunaren inguruko gogoeta desberdinak eskaintzen dizkigu. Honelaxe hasten da:

Egun hartan, eskolako lagun andana Biarritzen elgarretarat bildurik, eskualdun eta mendien bi alderdietarikako erdalun –notari, mediku, abokat, potikario, ingañadore, eta eskoletxe handi batetako irakasle zenbeit– goxoki bazkalduak ginen denak mahain beraren inguruan, leihoak zabaldurik, itsas hegari dauden ostatuatarik batean.


Bazkalosteko adiskide-giro horretan amodioari buruzko eztabaidan murgilduko dira, solasean maitasunaren eta bai sexuaren inguruko hainbat kontu azalduz. Ez dago esan beharrik, horrelakoak tabu ziren euskaraz. Urte horietan bikote-ereduak edota amodio librea ukitu ezineko gaiak dira; ezinekoago homosexualitatea.

Platonenean bezala, bazkaltiar bakoitzak bere ikuspegia du autuaren gainean, eta banan-banan garanduz doaz. Lau pertsonaia mintzaten dira nagusiki. Lehenik eta behin, botikaria; berak jarri zuen puntua, eta berak defendatu zuen “haragiaren irritsa” eta izaera bizizalea. Bigarrenik, notarioa, bikote-maitasuna elkarrekiko entrega gisa ulertzen duena, hainbestearaino non ez baitu seme-alabarik onartzen, gurasoen elkarren maitasuna epeltzen dute-eta: “Aitamek, aitamatu direnetik, ez dakite gehiago zer den amodioa”. Medikua, hirugarrenik, eredu tradizionalaren alde dago. Azkenik, ardura jakinik gabeko “hogoi ta hamar urtetako mutiko larri” batek askatasuna aldarrikatzen du.



Friedrich Wilhelm Nietzsche (1844-1900) filosofo alemana. Filologia klasikoa ikasi zuen Bonn eta Leipzig-en (1864-68), eta irakaslea izan zen Basileako Unibertsitatean, 1879ra arte. Hurrengo hamar urtean oso idazlan garrantzitsuak plazaratu zituen, hala nola, *Honela mintzatu zen Zaratustra* (1883-84), *Ongiaz eta gaizkiaz haraindi* (1886), eta *Moralaren genealogia* (1887). Suitzan bizirik izan zen bitartean, Richard Wagner konpositorearen adiskidea izan zen. Osasun-arazoak aspalditik eduki zituelarik, 1888-89ko neguan zoroetxe batean sartu zuten, hil arte.

(ARG.: A. HÜTIG).



Botikariaren ikuspegian antzematen dira hain zuzen Nietzsche-rengandik jasoak diratekeen ideia batzuk. Botikaria da eztabaida hasi duena, mahaikideei urrixa bana beharko luketela adieraziz, eme bana:

Bazkal ondo ginauden beraz egun hartan, jateko lekutik pipatzekorat aldatuak, hemen alki guri batzuetan jarririk errara; hunek atheraldi, harek zirto, bertzeek irri, itsas haize gaziak xixtaka perezkatzen ginintuela.

Gutarik batek zuen ipizta emana, ziolarik:

“- Badakizieia zer ginduken orai beharrenik orok?”

Eta denak so baiginaudezkon, harek zartalahara:

“- Urrixa bedera.”

Hoin ausarki mintzo zitzaukuna ofizioz potikarioa zen eta, potikario gehienak bezala, arrunta.

Irriño bat egin ginakon, doidoi; bainan, ez baitzitzakon arabez aho-paldi hura aski, aitzina bazerasan:


“- Zer da, bazkari on batetarik lekora, emaztearekin gozatzeaz hobetik? Hazkurriak odola berritu dautzu; edarien indarra zainetan badabilki-zu, bero bezain erne. Ez duzu amodioa baizik gogoan.

“Bazakiten hori gure aitzinekoek, guk ahantzia balin badugu ere, edo zorokeriaz utzia; Lurraren gainen hedaturik zauzkatzen estalgietarat lerratzen ohi ziren azken ahamenarekin, soinekoak laxaturik, han ihalozkatzeko beren hauturala. Menpeko batzuek xirula joiten zeieten edo xirribinka, etzitzaten adi batzuek bertzeen intzira, auhen, hasperenak; gain behera, sare batetarik erortzen zeiezten arrosa liliak, haukien usain eztiarekin ondarra elgarren besoetan hordi ziten...”

Pasarte horretan bizimodu dionisiakoa goraiatzten da, gorputzaren desioei bidea ematen diena, eta jan ostean sexu-jolas gozagarrietarako gonbit egiten duena. Jurgiren ustez, pasarte bat dator zeharo, Nietzsche-k antzinako jendarte paganoez duen ikuspegiarekin eta hartan gailen omen zen moral bitalistarekin. Areago, Jurgi Kintanak dokumentatu duen bezala, Etxepareren aipu horretan present daude Nietzsche-k mundu dionisiakoarekin lotu zituen osagai guztiak, hala, sexu-gurikeria (*beren hauturala ihalozkatzea*), nola musika (*xirula* eta *xirribinka*) eta udaberria (*arrosa liliak*), eta horrek sortuko duen horditasuna. Iraganeko garaiok gogora ekartzean ez dira *menpekoak* falta, Nietzsche-ren mundu zaharrean bezala, han jaunak eta esklaboak baitzeuden; izan ere, Etxeparek mundu hori geurera ekarri du eta bertan *gure aitzinekoak* kokatu ditu, hau da, Nietzsche-ren ideiak euskaldunei aplikatu dizkie. Alabaina, orduko garaietako bizimodua *ahantzia* eta *zorokeriaz utzia* dugula salatzen du botikariak, Nietzsche-k irudikatutako eskeman bezala, non aldaketa degeneratibo bat gertatu baita, eta esklaboen morala gailen izatera iritsi da, jaunen moralaren gainetik. Dena dela, botikaria orduko denbora haien oroitzapenean tematzen da, eta maitasuna, Nietzsche-k adierazitako moduan, gorputzaren eta “naturaren piztia basati” legez isurtzen zaio:

- Amodioa, haragiaren irrits bat da dena, eta haragiak berak asetzen du.

Ni, hasteko, hortako niz. Eta ez dut uste baden emazterik ezetz ihardetsi-



ko dautanik... Zoroak dauzkat bertzela iduritzen zeienak. Beude othoi ametsak bazterrerat, gure begiz ikus eta eskuz hunki dezakegunari gaudelarik!

Azken esaldi horretan ere, Jurgiren ustez, Nietzsche-k behin eta berriro aldarrikatutako errealismoaren isla daukagu, esaterako, Zaratustraren ahotik jalgitako harena: “Senideok, lurrari leial irautea gomendatzen dizuet munduaz-gaindiko itxaropenez mintzatzen zaizkizuenei!”. Itxuraz, botikariaren aburuz ere mundu bakarra dago, hain zuzen *gure begiz ikus eta eskuz hunki dezakeguna*, eta mundu horretan irritsen arabera jokatu beharko genuke, gainerako aukerak zoroen amets hutsalak dira-eta.

Esan dugunez, Jean Etxeparek Nietzsche-ren ideiez gainera bestelakoak ere badarabiltza *Amodioa* kontakizunean, eta mundu dionisiakoa gustura aurkeztu digun modu berean, zintzoki defendatu ditu beste ikuspegi guztiz kontrajarri batzuk. Izan ere, Etxeparek elkar zirikatu zuten baina,aldi berean, begirune osoz txirikordatu ditu bazkaloste horretako mahaikideen diskurtso desberdinak, inolako ondorio dogmatikotara bideratu barik, hau da, egia, nolabait esateko, ikuspegi guztien artean banatuz. Ildo horretan, beste aipu bat aldatuko dugu hona, laugarren mintzatzaileari dagokiona. Bertan Etxeparek sexuari buruz dihardu, baina ez hodeietako aingeruenaz eta inguruminguruka, baizik eta haragizko gizon-emakumeenaz eta zuzen eta esplizituki. Pasarte irakurritakoan jabetuko zara norainoko haustura zekarkion ordura arteko euskal letra jainkojale eta ahalketien mundutxoari:

Bada, ez duzue nik erraitearen beharrik jakiteko badirela, gizon ala emazte, berek bakartasunean asetzen dutenak. Badira miliunka. Harri, landare, tresna, esku joko, ez da kitzikagailurik gozatzeko on etzeienik.


Zer erranen dautzuet jendearen kabalekilakoaz? Badakizue emaztearen ixuria zakurraren alderat. Nihau, behin ikusirik nago, bortuan, biarnes bat lau zangotako astaña bati lothua, geroztik hunat ez baita deus baldi nezakenik.

Ez zautalarik bizkitartean amodio hori hain bitxia, ez zikina, nola gizona gizonari jarraikarazten duena; ihizi batzuen artean, hala nola ttittarretan, arrak arrekin ikusten ohi diren bezala, udako bero handietan...

Emaztearekin duelarik gizonak bere gozoa, zenbat ara berezi gizon batetik bertzera eta gizon beraren baithan, adin arau, aldarte arau, ahal eta behar ordu arau! Begi ukaldi, behatze, usna, entzute, musu, jasta, murtxa, milika, ausiki, xurga, hunki, pereka, tinkatze, borroka, kutsatze bitxi bezain xikin, oro baderamatzaugu bat bertzearen ondotik, egunetik biharrera edo bakhanago aldizkatzen ditugularik, ardura ara hoitarik bati edo bier dagolarik gutarik bakotxa.

Maizenik bizkitartean, egia den bezala erranen dut, emazteak gizona du nahi; bainan ez, hunek uste duen bezenbat, bere odolaren eztitzeko xedetan. Emazteak laguntza du galdegiten gizonari: ez, hunek hari bezala, gorputzeko atsegin iragankor likits bat. Emaztearen amodioa bihotzekoa da: fede, jauspen, urrikalmendu, horra zer daukan gehienik.

Hitz batek badauka, hots, ene erasiaren funts guzia: ez denik ez dela mundu zabalean.



Zernahi gisaz, mediku tradiziozalea arituko da orainokoa aurkeztu dugun botikariarekin lehian. Ikusi zer diotson euskara dela-eta:

[...] ez dut uste baden mintzai bakar bat eskuara bezain minbera denik, derabiltzagunen erraiteko; lotsa da; nahiago luke egon ixilik. Eskualdunak, izan dadien gizon ala emazte, badu halako herabe bat amodiozko zerez mintzatzeko. Bakhan adiarazten ditu, erdi hitzez orduan ere, ardurarik ez jakinarena egiten duelarik. Hortan, goraki diot eta atseginekin, gizonago da Frantsesa baino.


Itxura batean, Jurgi Kintanak erakutsi bezala, nolabaiteko kontraesana dago goiko aipauk dioenaren eta Etxeparek darabilen hizkuntzaren artean: batetik, medikuaren ustez ozta-ozta egin daiteke euskaraz amodioaren gainean, baina, bestalde, euskaraz da Aldudeko medikuaren kontakizuna. Hau da, Etxepare jolasean datorkigu kontraesana nabarmenduz eta, aldi berean, berorrek inoiz gogozatuz. Berak kontatzen digu istorioa euskaraz, orduko beste bazkaltiar bat bailitzan, baina hasiera-hasieratik argi dago oturuntzean denek erdaraz dihardutela elkarren artean, eta normalean ere erdaraz mintzo direla. Zer esanik ez, soilik frantsesez eta pertsona eskolatuen artean da sinesgarri era horretako eztabaida bat sasoi horretan. Ba, hala ere, Etxeparek euskaraz ondu du eszena osoa, eta behar besteko errealismoz bete du. Hau da, Aldudeko medikuak uste erdi ustelen ganbaratik lurrera jaitsita gezurreztatu du mediku tradiziozalearen tesia: praktikarekin erakutsi du euskaraz adieraz daitezkeela horrelako gai irristakorrek, eta areago, era duin batez egin daitezkeela.

Baina, ohar gaitezen, hizkuntzaren gaitasuna sutan frogatzeaz gainera, Jean Etxeparek amodioa eta sexua euskal irakurleen solasgai bihurtu ditu, behingoagatik bada ere, zeren, orduan guztiz ahaztuta baitzeuden aspaldiko mosen Etxepareren Trento aurretiko bertso gordinak: *Munduyan ezta gauzarik hain eder ez plazentik, nola emaztea gizonaren petik buluzkorrik*, eta abar beroa. Horrela jokatu zuen Jean Etxeparek aurrez aurre jo du ortodoxiaren kontra, zeinaren arabera sexua-eta, tabu diren arren, erdaraz aipa baitzitezkeen ezinbestean, baina euskaraz ez, euskarak babestu egiten zuen-eta kutsatu gabeko eremu bat, non bertako biztanleak, Lotilandiako euskaldun maitagarriak, Jaungoikoaren lege barruan bizi baitziren, edozein eragin galtzarritatik euskarak gerizatu. Arbelbidek formulatu zuen ondoen pentsaera hori 1895ean, jadanik klasiko bihurtu den hesiaren irudiaz:

Gure mintzayak badu oraino bertze dohain eta probetchu bat.

Nola hesi hazkarra ogi-landaren edo mahastiaren inguruan, hala dago gure mintzaya Eskual-herriaren eremuetan. Sineste zuzen, bizimolde on eta gure ohitura zahar guziak zaintzen eta tieso atchikitzen ditu; bainan bazterretako gezurkeria, egite makhur, aztura arrotz eta gachtoak urruntzen ditu.

Gure Eskuarak dirudi ibaya eder eta aberats bat: ez darabila gutartean ur garbirik baizen; arimetarat hedatzen ditu irakaspen eta argi frango, bainan ez tzarrik, ezen, Jainkoari esker, liburu gachtorik ez dugu gure Eskuaran, hoberenatarik dire guziak.



Jainkoari esker, ez zegoen euskarazko “liburu gaixtorik”. Baina, bake santu hori nahastera etorri zen Etxepareren *Buruxkak*. Dena dela, oraindionokarren ez gara benetan jabetu Etxepareren ausartziaren norainokoaz.

Aldudeko medikuak esparru berriak ireki zizkien bai euskarari eta bai euskaldunei ere, orduko ideologia elizkoia gaindituz. Alabaina, Jean Etxepare haratago doa: ikusi zer planteatzen duen eta berori zelan adierazten duen, mediku tradiziozaleari euskararen ezgaitasunaz erantzutean. Ihardespena botikari arrunt eta zabarraren ahotik dator:

«- Eskuara hoin uzkur balin bada eta kilika, apezek dute hortaratua. Ez noa aski barna: hortaratua dute Galileako zurgin seme pedoilaren irakaspeneak.»

«- Xo! xo, mihi tzarra! zakon ihardetsi medikuak. [...] Bainan etzautak iduritzen hortaz esku har dezakekala, orai artean bere laguna gehienik maitatu duen gizon-jainkoari irain egiteko.


«Nahiz hire ahopaldiek nekez beltz dezaketen...»

«- Beltz edo xuri..., zakon berriz ere lothu potikarioa, ez nuk debekatu ko erraitetik: eskuara hoin beratz eta thoil balin badago, apezek daukate-la emalditurik. Ah! zer gizaldea zitaken beihala Eskualdunena, erlisionearen irakasteko estakuruan nausi hoik sarthuak etzitueno! Lañokiago zerabilkean bere gogoa. Etzikean, ahoa ideki behar zuen aldi bakotx, elizako orhoitzapen zurruburruez mihia tratatua!»

Nortzuk-eta apaizak salatu dizkigu Etxeparek euskararen egoera tamalgarriaren erantzule direlakoan. Euskal Herri argizari-jale horretan, apaizei leporatzen die euskararen kamustasuna, hau da, euskara Elizak instrumentaltzatu duela esaten ari da, eta bai deitoratzen ere berorren ondorio murriztaileak. Baina, sakonago doa pasarte horretako kritika. Izan ere, has-teko Jesukristo *Galileako zurgin seme* soil gisa deskribatu du, alegia, era horretara Jaungoikoaren seme izaera ukatuz, eta, bide batez, Mariaren birjintasuna ere. Areago, *Galileako zurgin seme pedoila* esan dio Etxeparek nazaretarrari, eta guri *pedoil* hori arrotz suertatu bazaigu ere, mediku tradiziozaleak berehalakoan ikusi du botikariaren iraina, zeren eta, ekialdeko euskalkietan zorritzari esaten baitzaio pedoil; Etxeparek kemenbakoa adierazteko erabili zuen (esangura hori liburuaren oin-ohar batean zehaztu zuen). Jurgi Kintanaren arabera, horixe izango da Jesukristoren aurka inoiz euskaraz idatzi den aurreneko iraina.

Zernahi gisaz, Jesukristoren ahalak gutxietsita agertzen zaizkigu, osterera Nietzsche-en ideiei jarraituz, beronek Kristori eta haren irakaspenei izaera ahula eta ahultzailea edukitzea egozten baitzien. Etxepareren botikariak ahultze hori euskararen baitaraino iritsi dela azpimarratu digu, baina, aitzitik, behialako euskaldunek bai gogoa eta bai hizkuntza ere askatasun osoz zerabiltzatela diosku, Nietzsche-ren pentsamenduan herri paganoei zegokien moduan.

Horraino, bada, botikariaren hizketaldi nietzschearra, laburra baina tin-koa, non, filosofo alemanaren ideia aristokratiko-elistak bainoago proposamen dionisiako-bitalistak barreiatu baitira, dela sexu-kontuetan, dela euskaldunen iragan paganoari begira, dela hizkuntzaren alde, dela kristautasun eta apaizteriaren kontra.



Dena dela, *Amodioa* kontakizunaren amaieran badago beste elementu bat, Jurgiren ustez, Nietzsche-rekin lot dezakeguna. Bazkalosteko solasaldia amaitutakoan, mahaikideak zein bere aldetik joaten hasi direla, laugarren mintzatzaileak “Ikusten dut potikarioak uztektan gaituela, lilittoer jarraitzeko” zirikada botatzen du. Neska julisa –*grisette*– esateko darabil *lilitto*. Hau da, inplizituki botikariari emagaldueganako zaletasuna egoztean, Etxeparek, Nietzsche-ren ideiez haratago, pentsalari alemanaren bizitzaz kontatzen zirenak jaso ditu zelan edo halan *Buruxkak* liburuan: Nietzsche putaner galanta zela, eta zorotasuna eta heriotza prostituzio-etxeren batean harrapatutako sifiliak eragin zizkiola, eta horrelako beste hamaikatzko. Horrenbestez, Etxeparek marraztu digun botikaria, Nietzsche intelektuala-ren isla ez ezik, bada ere hezur-haragizko Nietzsche-rengan inspiratutako pertsonaia bizizalea.

Nolanahi ere den, eta Jurgi Kintanak azpimarratu duenez, behingoagatik euskal literaturak aurrea hartu dio Euskal Herriko erdal literaturei: Jean Etxeparek, Pio Barojak *Jaun de Alzate* eleberria kaleratu baino dozena bat urte lehenago irudikatu zuen euskal iragan nietzschear mitiko hori. Itzeako idazleak ere, zer esanik ez, gisa bereko iragan paganoa deskribatu zigun bere eleberrian.


EUSKAL UNIBERTSITATEA, AMETSETAN BADA ERE

Jean Etxepareren *Amodioa* guztiz subertsiboa suertatu zen, ez dago esan beharrik, eta, *Buruxkak* 1910ean argitaratu bazen ere, izatez zentsuratuta egon da hirurogeita hamar urtez. Patu berbera nozitu izan du *Buruxkak* liburuko bigarren saio luze inedito batek, alegia, *Nor eskola-emaile, zer irakats* deritzonak. Etxepare irakaskuntza laikoaren alde agertzen da idazlan horretan, eta Durkheim-en eraginak kutsatu du lana goitik behera, Xarrironen ustez.

Gogoratu: XX. mendearen hasieran Frantzia aldeko Euskal Herrian elizaren eta gobernuaren arteko borroka latza gertatu zen, besteak beste irakaskuntzaren kontrola dela-eta. Etxepare Larresoroko seminarioko bere irakasle ohien kontra agertuko da auzi horretan, eta zuzenean adieraziko die, eurentzat oso mingarria izan arren:

Orai artio erabili ditugun solasetarik aski garbi ezagun ez balitz, eta zenbat nahi bihotzmin dakargun guharen eskolemaile hoier laido hunen egiteak, azken hitz ezarriko dugu: baizik eta apezak ez ditugula erakustuntzat onesten, non ez den *beren adimendu osoan* apezteko xedea hartu dutenen alderat. Lehia hunek sustatzen dituen mutiko gazteek apezgoko gora-beherak apezan ahotik ikas ditzaten *semenario handietan*, ederki; xuxen zauku, xuxen baino baitezpadakoago.

Semenario ttipiak aldiz, apez mindegi xumeak, apezan esku menetik kentzekoak direla adierazten badugu, ez ahal dauku beltzuri eginen nehork, diteken bezain erlisionearen adixkide eta gizon izana gatik. Apez-geiak baizik hartzen ez dituztelako estakuruan, delako etxeek bil-



tzen dute alabainan edozoin, ordutik apezaren amarruak azpitik baitauzka ofizio guzietarat dauden gazteak.

Adinak bethe-ta apez sartzeko xedea luketenak baloatzi ere eskolategi hetarat, eta hek bakarrik, ez ginintzazke apezak onets han buru.

Apeza ez da eskola emaiteko egina. Deus ez doako hain guti, edo hain gaizki, nola eskolaren emaita. Apeza erlisionearen mutila da; erlisioneke eginbideer ditu behar jarraiki bere urratsak. Erlisionearen erakusten ibil dadiela eskolaxeetan, ontsa: deus hori baino zuzenagorik, hortako galdatua den ber; nork ukatuko du sail horri buruz dela apeztua?

Bainan erlisioneaz bertzerikakoetan sar dadien, haur baten gogoaren osoki lantzeko zuzena utz dezoten, makur daukagu. Hanbat gaixtoago apezten menean gazteria idukiko duen erresumarentzat! Ez dut erran nahi gaiztuko dela edo tzartuko, bertzela baino gehiago; bai ordean aphalduko, nagituko, gemenik gabe jarriko, bere haurren izpiritu ala bihotzeko jaidurak gauzetarik urrunduak ukanen dituelakotz. Apezaren irakaspena sineste batzuen gainean finkatua dago. Sineste heien alde diren gertakari edo itxurak baizik ez ditu ikusten; bertzeer aiher da, edo bederen ez ikusiarena egiten deie; itzalean dauzka. Nehondik ez ditake izan egiazkoa. Entzuleari, geroztik, dena hedoi eta amets geldituko zaio burua.


Bizkitartean haur gehienen baithan *erlisione*zko sinesteek *jakit*atearen irakaspeneak ezti ditzaten, iragaz, beren zetabean zikin larrienerarik bederen garbi, ez daukagu deus hoberik. Arras gutiak dira egiazen hazkurreri osoa barneak jasaiten ahal deieten haurrak. Bainan berexkuntza horren egitera nekez jartzen da apeza; bakarrak dira onesten duten apezak. Ardurenik zorigaitzez apezari adituko diozu: hetsik begiak eta lokar hadi Elizaren altzoan!

Uste dut pasartea nahikoa argigarria dela, eta ederto laburbiltzen duela Etxepareren pentsaera. Gainera, bada autobiografikoa ere neurri batean, zeren, hurrengo kapitulu batean ikusiko dugunez, aipu horretako azken lerroko *hetsik begiak* hori aita Augustin Larraldekan esan baitzion formula bera erabiliz, lehen zalantza existentzialak bururatu zitzaizkionean Larresoroko seminarioan filosofia ikasten. Izatez, Jean Etxeparek bizitza osoan zorrotz eutsi dio pentsaera horri, eta horrelaxe adierazi zion Piarres Lafitte kalonjeari 1931n bidalitako eskutitzetan, geroko kapitulu horretan bertan dokumentatuko dugunez.

Jakina, iritzi hori ez zen oso eramanerraza izango orduko Euskal Herri hiperkatolikoan. Ezin dugu ahaztu, halaber, Aldudeko medikuairen anaia bat, Pierre (1880-1932), apaiza izan zela, lehenago hamasei urtez Larresoroko apaizgaitegian irakasle eta ostean Donamartiriko erretoare. Jean Etxeparek berak kontatu due-

Jean Etxepare mediku gaztea eta familia. Eserita, aita –Jean Etxepare (Ibarre, 1842; Lekorne, 1932)– eta ama –Gracieuse edo Gratieanne Bidegorri (Bidarra, 1858; Lekorne, 1914)–. Zutik, ezkerretik eskuinerantz, Emile –Lekorne, 1890; Angelu, 1977)–, Jean biboteduna –Mar Chiquita, 1877; Kanbo, 1935– eta Pierre apaiza –Mar Chiquita, 1880; Donamartiri, 1932–. Alabak identifikatu barik daude: Gratieanne –Mar Chiquita, 1882; Lekorne, 1971–, Marie –Lekorne, 1884; Valentzia, 1958–, Joséphine –Lekorne, 1887; Lekorne, 1976– eta Julie –Lekorne, 1890; Uztaritze, 1983–; azken hau eta Emile bikiak ziren.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).



nez, Larresoron irakasle hasi eta bigarren urtean Pierre Etxepare *Escualdun Laborarien Egunari* edo *Almanaka* argitaratzen aritu zen urtero, gerla handia etorri arte, eta hori anaia medikuaren laguntzaz. Bada, ezin hobeto moldatzen ei ziren biak, elkarren antipodak izan arren. Era berean, arreba bat, Julie (1890-1983), moja joan zen, Uztaritzeko komentura. Bestalde, beronen neba biritxia ere, Emile (1890-1977), sinestun gartsua omen zen, nahiz eta gazte-gazterik Kanada aldera jo, eta badakigu Euskal Herritik urrun-zean euskaldunen fedea hoztu egiten dena.

Nor eskola-emaile, zer irakats saioan behe-mailako irakaskuntzaz gainera, maila ertainekoaz eta unibertsitateaz ere arduratzen da, eta, esate baterako, Jean Etxepareren iritziz unibertsitateko fakultateak Frantziako sei edo zazpi hiririk tarroenetan kontzentratu beharko ziren, Paris, Lyon, Marseilla, Bordele, Lille, Tolosa, eta Nancy-n; fakultateak hiri horietatik aparte hiri txikiagoetan ere ezartzea erokeria bat zatekeen, kopuruak gora egiteaz batera irakaskuntzaren eta ikerketaren kalitateak behera egingo baitzukeen.

Nolanahi, urte batzuk geroago Etxeparek berriro ekingo zion idatziz unibertsitatearen gaiari. Hain zuzen ere 1922an, birritan jorratu zuen arloa, batetik, udaberriean, Txomin Agirrereren *Garoa* eleberriaren iruzkin luze batean, eta bestetik, udazkenean, Eusko Ikaskuntzak Gernikan egin zuen hirugarren biltzarren karietara. Kontua da aldi bi horietan Frantziako unibertsitateaz barik *euskal unibertsitateaz* diharduela, eta delako unibertsitate horretan euskarari legokiokeen zereginaren gaia oratzen du, gogoeta egitean. Ikusi zer dioskun horretaz Gernikako jardunaldien kronikan:

Elizatik lekora, hiriko teatrean euskalzaleen ondar bilkura. Horra nun bere mintzaldian buruzagiak galdegiten dakon bekoz beko erregeri, onets dezan probintzien arteko ikastetxe nausi *Universidad Vasca* izentzat luken bat. Oro beha erregeri, zer erantzun gogo zuen. Erregek ordean ez baiik ez ezetzik; ihardetsi du bakarrik, bero beroa bizkitartean, egin ahal guziak eginen dituela euskararen goratzeko.


Ateratzearekin, gizon andanaño bat oihuka espainolez: *Queremos la Universidad Vasca!* Poliza gordeko gizonak berehala bahitzen dituzte biga –Bilbaoko abokat eta kazeta-egile bat– eta eskuak estekaturik berekin eremaiten urrun.

Beldur izaiteko da ikastetxe hori ez den ardietsiko egunetik biharre-ra. Gure haurdientzat ez luke bizkitartean guti balio: beren umetarik, erneenak han argiaraz lezazkete, ateratzearekin bailakikete ontsa Euskal-Herriaren berri eta, amaren ondoan hazi umeek bezala, bailerakarrete beren lurraren alderat, biziak liraukeeno, amodiorik samurrena.

Erran behar ote dut erakaspen gehienak espainolez litezkela emanak delako ikastetxean? Behin eta luzaz euskara erpilegi izanez, ezin heldua liteke alainan.

Emeki emeki bizkitartean, joritzeko eta gotortzeko bidea baluke euskarak ere, han. Nehon ez duke hoberik han baino. Handik eman lezokete jauzgi ala ihaurgi herri eta baserrietako eskolarik ñimiñoetaraino. Ikastetxe handiak, bere hegalpean bezala, argipean leuzkake ezen, eta bere eskuko, ikastetxe ttipiak.

Errege beldur ordean euskaldunak harrotuko zaizkola sobera, osoki beren gain jarri nahitzerainokoan...



Gure ustez hautsi-mautsi bat eginen da noizbait. Probintziak aberats dira, langile jendetsu: zuzen zaiku ukan dezaten Espainiako beste eskualdeek bezala, iturri bat berena, nun beren adimenduko egarria ahal bezain bazterretarikako kotsu gutirekin ito.

Zonbat eska lezake halako goikasgu baten eraikitzeak? Bospasei miliun, gutienik. Nun ezar? Hiri handi baten bazterrean.

Zoin hiriren?... Ala bi zatitan behar liteke egin?... Zer kalapitak orduan ere gure haurrideen artean!


Irakurri duzunez, Eusko Ikaskuntzaren III. Biltzarrean euskal unibertsitate eskatu zitzaion bertatik bertara Alfontso XIII.ari, eta, aipatu bezala, kanpo-aldean oihuka zegoen *gizon andana*ño lagon bi atxilotu zituzten, hain zuzen Ramirez Olano eta gerora lehendakari bilakatuko zen Jesus Maria de Leizaola. Nolanahi, kontura zaitetz, zein toki eskasa dagokion euskarari Gernikan aldarrikatutako unibertsitate horretan, non *erakaspén gèbènak espainolez litezkela emanak* eta *emeki emeki bizkitarte*an, *joritzeko eta gortzeko bidea baluke euskarak ere*. Horixe da, Euskal Unibertsitatearen aldeko gehienien planteamendua 36ko gerla aurrean. Lehentasuna edukiko dute euskararen eta euskal kulturaren azterketak eta babesak, baina, orduko inor txok ere ez du ikusten euskara tresna eraginkorra izan zitekeenik unibertsitatean. Etxepareren kronikak ederto azaldu du Hego Euskal Herrian aurkitu zuen giroa. Hala ere, hor luzatu digu galdera: non kokatu delako unibertsitatea? Inplizituki, jakina, *Nor eskola-emaile, zer irakats* saioko bere betiko ideietara garamatza.

Nire ustez askoz adierazgarriagoa da urte bereko udaberrian argitaratu zuena, izan ere, gogoia libreago zebilkioken Aldudeko mendi-bazterretatik literaturaz pentsatzen, eta hor plazaratutakoak ez du, ziurrenez, Hegoaldeko euskaltzaleen eragin zuzenik. Eta, bestalde, oso-oso esanguratsua dela deritzot, kontuan hartuta gerla handia amaitu berritan idatzia dela, eta frantses abertzaletasunak den-dena kutsatzen zuela.

Gorago esan bezala, Txomin Agirrearen *Garoa* eleberria aurkeztu eta aztertu zuen Etxeparek *Gure Herria* aldizkariko ondoz ondoko zenbait zenbakitan zehar. Eleberria 1912an argitaratu zen liburu moduan, eta Etxeparek bere artikulu-sortan nolabaiteko moldapena egin zuen Iparraldeko irakurleentzat. Testuinguru horretan, lehenengo eta behin Txomin Agirrearen ekarpenak aipatu eta gero, Etxeparek *Garoa* kokatzen du:

Oñatiko ondorat geramatza haste hastetik Agirrek. Toki gochoagorik hauta zezakela gure bihotzentzat, etzaiku iduri.

Oñati... herri izen horrek berak gar bat bezala pizten du eskualdun zerbait dakiten guzien baitan. Badu urthe andana, Espainiako gure haurridek amestu zutela han idekitzea euskaldun gazteriarentzat, ikastetche nausi bat, nun argi beren semeak hamazazpi, hemezortzi urthetarik harat. Zer zuzenagorik alabainan holako etche baten ukaitea baino giza-di batentzat, gizadi hau bere etorkiaz bertze gizadietarik berecha delarik, halaber bere mintzaiaz, halaber oraino bere ohidurez! Onhartzen ere dugu, ederresten, holako ikastetche batean erakaspènak eskuaraz litezkela behar eman, eskualerri guziak buruzagi berak ukanez geroz bai eta mintzai bera. Hizkuntza berdina, buruzagi berak, sineste bertsuak, jaidu-



rak izaitzez berdin eta ohidurak, gainera jakitate bakar baten ithurria, –zer altchagarria, zinez, eskualdun gizadiarentzat! Zer urratsa geure buruaren jabegorat!

Ez aski bizkitartean, beldur niz, gurez gure guhaur jartzeko. Auzoek ez ginezakete utz; heien aztaparren artetik ez gintezke jalgi. Jalgirik ere, ez ginezake luzaz iraun –hedadura, ahalak, adimenduetako argia eskas izanez. Gure eremu ñimiñoan, elgar aditzeko orde, ez ote ginezake elgar jan? Laster erortzea ginuke auzoen menerat, gure onetan.

Eskualerria bere gain ez dugu ikusten bertzek ezarririk baizen; berez bere ihardukitzen ere ez, bestek beren arteko bakearen gatik herrialde bakar idukiz baizik. Ez da bizkitartean gutiago egia, hanbatenaz gai izanen dela bere jabegoaz, non bere batasun osoa zuhurkiago bilhaturen bailuke aitzinetik. Bere burua lagunduz, azkar diteke; eta gizadi azkar *bil-du* bati, aldarte batzuetan, azkarrago batek eman dezoke gogotik esku...

Anartean Oñati bere ametsekin dago. Herri pollit zahar bat Gipuzkoako hego alderat, harrizko etche gotor batzuekin. Hauien artean goïkasgutzat zaukan etche hura, bainan istudiantik gabe, erakaslerik ere gabe. Artetik erran dezagun, jakitate mota batzuentzat hautaki balin badago bere chokoan, gauzatarik beren alhapidea dutenentzat hiri handi batean egokiago liteke, edo bederen hiri handi bazter batean. Adimendua berez bere baizik haz othe diteke hanbat Oñatin?


Dena den, Oñatiri daude gure liburuko gertakariak. [...].

Argi ikusten da aipu honetan, euskaraz arituko den *goïkasgu* bat begietaritzen duela, ametsetan bada ere onartu eta ederresten duela. Hau da, Etxepareren lumatik etorri zen lehen aldiz euskal unibertsitate euskaldunaren asmoa, baina, badakigunez, ideia hori ez zen askoz beranduago arte zabaldu eta orokor bihurtu euskal gizartean. Bestalde, ez dago esan beharrik aurreko aipuan bezala hor utzi digu beste behin euskal unibertsitatearen kokapenari buruzko betiko iritzia: hiri handi batean.

Jakina, goiko pasarteak beste irakurketa bat ere mereziko luke, klabe politikoa egindakoa. Piarres Xarritonek hor, harrigarriro, abertzale bat antzeman du Jean Etxeparerengan kukututa, Gernikako kronikan aurkitu bezalaxe. Dena dela, Aldudeko medikuak ez zuen inoiz inolako kidesan politikorik agerian aitortu, eta, izan ere, Etxepareren idazlanetan Euskal Herriarekiko atxikimendua ez da errebindikazio politikora eraldatzen, Jon Casenavek adierazi bezala. Hala izanik ere, Xarritonek *Zer urratsa geure buruaren jabegorat!* perpausa azpimarratu digu, eta aditzera eman Etxeparek euskal unibertsitate euskalduna autodeterminazioranzko urrats gisa planteatu duela, ametsetan bada ere.

ERDAL MILITANTEAK GURE TERRITORIO LIBRE BAKARREAN

Urteak joan urteak etorri, badaude hainbat unibertsitate Euskal Herrietan sakabanatuta, ez Jean Etxepareri gogoko suertatuko litzaiokeen eran, baina tira. Halaber, unibertsitate horietariko batzuetan badago euskaraz ikasterik ere, nahiz eta eskaintza eta maila ez izan inondik inora erdarazkoen parekoak. Eta horrela izanik, hogeita batgarren mendearen hasieran oraindino-



karren hor dirau euskal unibertsitatearen aldeko aldarrikapenak bizirik.

Euskal unibertsitatearen inguruan ez nau horrenbeste arduratzen ea zer-nolako *erakundea* gauzatu beharko genukeen. Nire aspaldiko kezka, izatez, euskal unibertsitate hori hezurmamituko duen *komunitatea* da, alegia, jakintza euskaraz landuko duen giza taldea, edota lañoki esanez, balizko unibertsitate horretan arituko liratekeen ikasle-irakasleak.

Irakasleek luzaroan sortu didate ezinegona. Hortik etorri da nire kezka nagusia, irakasleen bizkar joaten baita ikerkuntzaren eta irakaskuntzaren zama gehiena, eta bai eskuliburuen idazketa ere. Kudeantza-lana ahaztu barik. Fisika nuklearra euskaraz irakastea posiblea zen eta da, jakina, baina ez da erraza jakintza-alor guztietan aditu euskaldunak edukitzea. Izan ere, euskal unibertsitateari begira hor dugu gaintitu beharreko oztopo handietako bat: edozein diziplinatarako irakasleak izatea. Alde horretatik asko aurreratu da, eta gaur-gaurkoz milatik gora dira, Euskal Herriko unibertsitateetan irakasgairen bat euskaraz azaltzen duten irakasleak, gehien-gehienak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean.

Nolanahi ere, sasoi batean Goirienak, orduko UPV/EHUko errektoreak, “zenbait asignatura jakinetarako ez dugu aurkitzen kualifikazio handikoa izateaz batera euskara menperatuko duen irakaslerik” zioen bezala, gaur egun ere beste horrenbeste entzungo duzu hainbeste urteren bueltan. Eta ezin da bestela izan, euskaraz arituko diren irakasleak prestatzeko ganorazko plangintzarik inon egon ez denean. Ereiten ez denean nekez biltzen da uzta oparoa, eta ikuspegi horretatik Paleolito Arotik irten eta Neolito Arora igaro ezinik gabiltza. Edozelan ere, irakasle-eza nabarmena dugu hainbat alorretan.

Daukagunari erreparatuta ere, ezin dugu ahaztu irakasle-multzo hori ia-ia gauetik goizera inprobisatu dela. Hau da, gaztea da gehienbat eta jarrera positiboa du oro har, baina oso lan-baldintza eskasetan aritzen da, hainbat eta hainbat zailtasun aurkitzen baititu: dela jakintza-alor gehienetako euskarazko tradizio-falta, dela irakasgai desberdinak aldi berean azaldu beharra, zein eskolen prestaketan ordu asko eman beharra, edo tesia egiteko (eta, beraz, norberaren promoziorako) denbora-eskasia, eta beste.

Ez dakit zein neurritan gaztetasunari egotzi dakioken, irakasleen inguruko datu bat guztiz kezagarria iruditu zaidana. Karmele Artetxek argitu duenez, Inguma datu-basean –alegia, Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basean– 1145 irakasle daude zenbatuta EHU, UD, NUP, NU eta UEUn irakasgaiak euskaraz azaltzen dituztenak. Bada, horietariko 415 irakasle daude euskaraz eta unibertsitate-mailan ezertxo ere argitaratu ez dutenak. Hau da, euskal adarretako irakasleetatik hirutik batek ez du euskaraz ezer argitaratu inoiz: ez dirudi hori oso berme sendoa izan daitekeenik balizko euskal unibertsitateari begira. Arrazoi asko egon daitezke datu horren atzean –unibertsitateen hizkuntza-plangintza eskasak, irakasleen ebaluazio-sistemak, motibo pertsonalak, ideologikoak...–, baina datua bera



**Bai, Jauna, bai:
Fisika Euskaraz.**

Norik esan du euskaraz ezin
espelatu daitokocota miltzar fisikorik?
Iosef Ramon Etxebarriak.
Bilboko Unibersitatoko irakasle honek,
entusiastikoa dabil fisikan. Fisikari berritzaile
realistakoa dabil eta ezin ematen dizio.
Eskola normalizazio irakastoherrak ez
ematen nusiak prestatzen ditu.
EUSKARA zientzia lanerako oin
hizkuntza egokia bai da
Euskaldunok bezain-egokia, noiz.


Φ

CAJA LABORALeko gizaritxe ekintza saila.

CAJA LABORAL

Euskarazko unibertsitatearen aldeko aldarriaren abiapuntuan Jean Etxepare egon bazen ere, asmo hori askoz beranduago zabaldu zen Euskal Herrian. 1976an Suárez presidentek esan zuen ez zegoela fisika euskaraz irakasterik, eta Joserra Etxebarriak kontrakoak erakutsi zizun: euskal unibertsitatearen aldeko urte oso biziak izan ziren horiek.

(ARG.: ANAITASUNA, 1978, 363 ZBK.).




eskandaluzkoa da: neurri handi batean agrafoa da euskarazko irakaskuntza unibertsitarioa. Karmele Artetxek azaldu bezala, irakasleek ez dute euskaraz idazten, eta, ondorioz-edo, ikasleek ez dute ezer euskaraz irakurtzeko. Eus-kara hutsezko bibliografiak ez dute zentzurik unibertsitatean, baina, ez du zentzu handiagorik karreraren zehar euskaraz irakurtzeko inolako materialik ez egoteak. Berorren ondorio logikoa begi-bistakoa da: horrelako lizentziaz-tuek ezin izango dute ondo ulertu euskarazko testu korapilatsurik, horretan trebatzerik eduki ez dutelako. Azken batean, ahozkotasunera kondenatuta dago euskarazko irakaskuntza unibertsitarioa.

Irakasleen gaztetasanak badu bestelako ondoriorik: euskal irakasleak ez daude ondo kokatuta aginte-guneetan, eta hori, zer esanik ez, oso garrantzi handikoa da hartzen diren erabakiei begira, edozein mailatakoak direla. Adibidez, ikasketa-planen aldaketa zein irakasle berrien kontratazioak eta beste makina bat kontu, euskaraz diharduten irakasleen eraginpetik kanpo gelditzen dira, eta sarri askotan bestelako “optikak” dira garaile ateratzen direnak. Esate baterako, UPV/EHUko kontratazio berrietan sarritan gertatzen da, euskararen interesak barik sailen interesak lehenesten direla, lanpostu elebidunak *plantilla* handitzeko zirrikitu ia bakarra direnetik hona.

Arazoak arazo, kontua da irakasleen eredugarritasuna nahikoa zalan-tazkoa izaten dela, nahi baino sarriago.

Bestalde, ikasleen kontuak bestelako bidea egin du nire kolkoan. Sasoi batean ez ninduen larregi kezkatzen ikasle-kopuruaren laburrak, izan ere, denbora aurrera joan ahala kopurua dezente handituko zela adierazten zuten aurreikuspen gehienek. Halaxe suertatu da: hogeita bost bat mila ikas-le ditu euskarazko komunitate unibertsitarioak. Halandaze, iritsita ei gaude euskarazko unibertsitate bat sortzeko masa kritikoraino, eta horrek nola-halako euforia ekarri du plazara, neuk behintzat ederretsi ezin dudana: une honetan ikasleen aldetik dator nire kezka nagusia, eta, areago, egoera nahi-ko ezkorrean nauka. Arrazoiak era bikoak dira.

Batetik, euskal lerroetako ikasleen euskara-mailak ez du baikortasune-rako leku handiegirik uzten. Horixe ondoriozta daiteke, bost ikasturtetan zehar UPV/EHUko lerro euskalduneko ikasleekin eginiko azterketatik. Fakultateka, karreraka eta ikasmilaka aztertu du Eusko Jaurlaritzako Hez-kuntza Sailak euskal lerroetako ikasleen euskara-maila, 92/93 ikasturtean hasi eta 96/97 ikasturtera arte. Emaitzak bihotz-erdiragarriak izan dira urte batean bai, eta hurrengoan ere bai. Esate baterako, Biologiako ikasleen artean, soilik %34k eduki zuen EGA tituluari dagokion euskara-maila 96/97 ikasturtean; urtez urteko emaitzak hauexek izan ziren: %34 (92/93), %31 (93/94), %36 (94/95), %40 (95/96), %34 (96/97). Aldeak alde, oso antzera-ko emaitzak lortu ziren leku gehienetan. Konparaziorako, ikus ditzagun EGA mailadun ikasleen portzentajeak Informazio Zientzietan: %46 (92/93), %37 (93/94), %33 (94/95), %36 (95/96), %26 (96/97). Beste maki-na bat datu eman daiteke, baina, bihotza lurreraino eroriko litzaiguke. Baten batentzat azken esperantza izan daitekeena ere lorrinduta dugu: Eus-kal Filologiako ikasleen artean soilik %34k eduki zuen EGA maila 96/97 ikasturtean (Adi: EGARI dagokion maila esaten ari gara, eta ez EGA titulua edukitzea).



Negargarria da: unibertsitatean euskaraz ari diren ikasleen ezta erdiek ere ez dute EGA mailarik. *Ikasle horiek unibertsitate mailako buru-lanak eskatzen duen zorroztasunez eta fineziaz hitz egin eta idazteko gaitasuna izatea, ez da batere probable* irakur daiteke urtez urteko emaitzen txostenetan. Oso zalantzazkoa da, beraz, ikasle gehienek hizkuntza-gaitasuna, unibertsitateko jardunak eskatzen duen abstrakzio-mailan erosotasunez aritzeko. Hori horrela delarik, zer da, ba, benetan jazotzen ari dena euskal lerroetako irakaskuntzan? Zenbat dira, izatez, *euskaraz* ikasten ari direnak? Portzentaje horietatik abiatuta, eta zenbakiak gezurrik ez badioskute, zazpi-zortzi mila ikasle besterik ez dugu unibertsitate-ikasketei ganoraz aurre ekiteko moduan, baldin eta hizkuntza-gaitasunaren azterketarik gabe joandako urteotan egoera ez bada gehiago okertu.


Nolanahi ere, emaitzok are eta deitoragarriagoak izan zitezkeelakoa daukat. Sarritan espekulatu da ea zer gertatzen den unibertsitate sartzeko hautaprobetara euskaraz aurkeztu, eta gero erdaraz matrikulatzen den ikasleen %10arekin. Hainbat azalpen plazaratu badira ere, nire ustez norberaren hizkuntza-gaitasunaren eskasiaren kontzientzia izango litzateke “desertzio” horien arrazoi nagusia.

Beste ohar etsigarri bat erantsi gura dut. Askotan entzuten dugunez, Euskal Unibertsitatea, berez, gure hezkuntza-sistema propioaren goi-erpin osotzera etorriko litzateke. Erpinaren gaineko gogoetan dihardugun arren, oso kezagarria iruditzen zait –gordinkiago ez esatearren–, ikasle horiek hainbeste urtez euskaraz ikasi eta gero horren euskara-maila eskasa edukitzea. Zerk egin du huts irakaskuntzaren behe-mailetan, unibertsitate-raino iritsitako ikasle gehienek hain euskara narrasa erakuts dezaten?

Kantitatea eta kalitatea atzean utzita, badago ikasleei dagokien beste arlo bat nire ezkortasuna naharo elikatzen duena, eta da hizkuntzarekiko atxikimendu txiki-txikia.

Unibertsitateko lerro euskaldunen hasierako urteetan ikasleak gutxi izaten ziren eta euskaraz eskolatubakoak, baina euskaldun gogotsuak, hori bai. Gaur eguneko ikasle gehien-gehienek euskaraz burutu dute ikasketa-prozesu osoa haurtzaindegitik abiatuta, baina, fakultateetako geletan eta karrajuetan erdaraz entzungo diezu parra-parra. Izatez, erdararen erabilera asko nabarmendu da azken urteotan fakultateetan, eta fenomeno arraroa eta isilgordekakoa izaten zena, guztiz natural bihurtu da, ia berezkoa. Ikasgelako asanblada erdaraz ikusita nago ni neu, “euskal” talde batean.


Hainbat azalpen egon daitezke euskararekiko atxikimendu-falta horretarako, soziologikoak-eta, baina, unibertsitatea ez da ikastola, edo ez luke izan beharko behintzat. UPV/EHUrak doan ikasleak berak aukeratzen du lerroa, alegia, erdarazkoa ala euskarazkoa. Eta hala ere horietako askok eta askok erdaraz egiten dute euskal taldeetan. Erabilera hori are eta deigarriagoa suertatzen da, lerro euskaldunen aldarrikapenen aldeko erradikalismoa-edo ikustean, ze, baldin eta –Joseba Sarrionandiaren hitzetan esateko– euskara bada gure *territorio libre bakarra*, orduan zergatik ez gerizatu territorio horretan eta euskaraz egin? Zergatik urruntzen da ikasleen praxi librea, aldarrikatzen duten kontsignatik? Eta hainbeste urrundu, gainera, non, ematen baitu gure taldeak gehien bat *erdal militanteez* osotuak direla: erda-



raz da euskal taldeetako bizitza osoa, ia. Kontuak kontu, urterik urtera abia da azkarragoa duen erdaraganako joera indartsu horrek barru-barrutik pipiatuko luke balizko euskal unibertsitatea, dagoeneko UPV/EHUko euskal lerroak urardotu dituen moduan.

Laburtuz, aspaldi honetan nahikoa sinesgogor nago euskal unibertsitatearen epe ertaineko erakundetzearen gainean, zeren, gaur-gaurkoz eta besteak beste, ikasle eta irakasleen gaineko datuek ez baitute, nire ustez, horretarako bermerik eskaintzen, kontrakoa baino. Nire ustez, ez dute euskal unibertsitate bat eraikitzeke behar bezalako oinarriak erakusten. Ez diot bideragarritasunik ikusten. Baten batek pentsa dezake botila erdi hutsik ikusten dudala, baina, inpresioa dut egoerak txarrera egin duela, hobera beharrean. Dena dela, 1996/97 ikasturtetik honantz ez da horrelako azterketarik burutu –zergatik ez?–, eta ezin da ezer ziurtzat eman. Bestetik, atxikimendu-faltarena kuantifikatu barik dago –ez dakit hori zenbatzerik dagoen–, baina gero eta nabarmenagoa da, eskandaluzkoa.

Aitzitik, botila erdi beterik dagoela pentsatuko zenuke, *Unibertsitatea eta euskal gizartea*, gaur liburu interesgarria irakurriko bazenu. Juan Ignacio Perez eta Pello Salaburuk gogoeta zabala, eta iradokorra, egin dute gure unibertsitatearen egoeraren gainean, hainbat aldetatik begiratuta. Niri, hala ere, zuzenean edo zeharka euskal unibertsitateaz diharduen liburu batean, guztiz ulergaitza begitandu zait ikasleria eta irakasleria euskaldunaren inguruko inolako daturik ez plazaratzea, areago oraindik egileak UPV/EHUko errektorea eta errektore ohia direlarik. Esate baterako, ez aipatzea 92/97 tartean urterik urte lortu ziren ikasleen hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak, edota irakasle euskaldun doktoeen portzentajeak. Jakina, txar guztia ahazten dugunean, gainerakoa ona da, eta hortik letorke inpresio baikorra. “Oro hartzen ditu paperak” –Hiriart-Urrutik bezala adieraziz–, baina temosoa da errealtatea, egoskorra. Eta datuei erreparatuz gero, botila, egon, erdi hutsik dago. Okerragoa dena: itxuraz, inori ez dio ardura.



3. Agur gaztaina-mundu horri

MISIONISTAREN GAZTAINAK

Gaztainek aspaldi bateko munduraino garamatzate, supazterrean ipuin eta istorio liluragarriak kontatzen zirenekora. Juancito Etxeparek bete-betean bizi izan zuen Euskal Herri zahar hori, neguko arrats luze eta hotzetan sutondoan bildutasunez batzen zena, eta, izan ere, haren argazki ederra utzi zigun, lehenago ere aipatu dugun *Biritxiak* kontakizun autobiografikoan:

Bainan ilhuna etorri denean dauka etxe barneak bere gozorik handiena.

Goizik afariten ginen: ez direa neguko gauak osoan lo egoiteko, udakoen orde, eta zendako ar argi erretzen? Opor esnea huts, harrietan hau errerik; haren ondotik, gaztenaz ase; gero, bederatzietako oherat, berantenez.

Gaztenak, paderatik atheratzen ziren sukaldearen erdirat, han baitzagoden estalirik, epeldu artio, bahe baten barnean. Huni, inguruan jartzen ginintzaizkion denak. Luza zezala besoa bat bederak eta ahurrean har, behingotz, bihika zenbeit... Elheketeta, egun hartako gora-beherak gure artean ihardukiz, batzu eta bertzeak aiphatzen ginintuelarik, hok ephe berean egiten gintuzketen bezala, bagineraman emeki emeki bahetara guzia, ez baitziren azalak baizik gelditzen.

Bainan udare idorra da gaztena, artetan ahoa bustiz baizen ez doakizu zintzurra beheiti. Beharrik baikinuen *mineta* bat hauta: gorri arin, garbia; barrikako mahats-lapari, gain behera, urarekin batean bizpalau pint'arno ixuririk, egina. Nago, hain baitzen ona, egarri ginen baino ardurago ez ginuenez hurrupatzen; eta, orai ere, jastatzeko tirriak ez othe dautan jauzarazten aho-goza. Etzaut iduritzen baditakela hura baino edari hoberik.

Eskualdun ohitzak ginauzkan: aitak edan lehenik, gero semeek, adin arau, lerroan, gero alabek, azkenik amak, bazterretik ere baitzagon ardura, zerbitzari.

Apairuaren ondotik, hoztuak baiginintuen ordukotz zangoak, supazterraren inguruan jartzera ginoazin. Aitak hartzen zuen xokoa, alkian. Sehia eta hiru arrea larrienak orratzarekilako esku-lan zerbeiti lotzen ziren. Gu, bi aneia gehienak, erdian. Aitaren eta amaren artean zuten behar kokatu, ez gogotik, bi ttipienek, familiako ederrenak hek, bi aneia arrea biritxi, adin bereko bezala hein bereko, eta eite handikoak. Ondarrik sorthuak zirelaketz eta sabeltara batetakoak, nahiz muttikoa gotorxago, itsutuki maite zituzten aitamek.

Hango goxoa orduan, oro elgarretarat bilduak, zangoz surat, argi bakar batek uzten zaungun erdi-ilhunbe ez-tian begi beharriak erne, athe-ko erauntsien zafraldiak bihotzminik gabe aditzen ginintuelarik!

Su gaitza ginduen bethi, hirian egiten ohi diren ez bezalakoetarik: ametz-ondo, abar ihartu, zukur, ezpal, baginemokon zer nahi. Gar handiak arraitzen zaungun alabainan begitartea, eta oinak bezenbat barnea berotzen. Mendian suak zaintzen balin badu gizona ihizi ala kabala gaixtoetarik, etxean are gehiago adixkide dauka: argitzen du, zalhutzen, gogoetarazten duelarik artetan, halako histuraño batekin, nundik sortzen othe den khe hura, norat doazin pindar hek, ahurtara bat hautsetan nola suntsitu ditazken hainbertze egur hain lodiak.

Leitzako herrian bazegoen gaztainondo ederra, gerria hamabi metrokoa zuena. Bera inguratzeko zortzi gizon behar ziren elkarri eskua emanez. Argazkian ageri den zuloatik sartuta, lau gizon egon zitezkeela irakurri dugu. Haizeak bota ei zuen urte batzuk direla. Era berean, soilik oroitzapenean gorde dira behinolako gaztainadi zabalak.

(ARG.: I. MUNITA ETA G. ROA).



Gaztainak erretzen begietaratzen zaigu aspaldian joandako Euskal Herri hori, danbolinean txipli, txapla, pun! Eta, egia den bezala esateko, gaur eguneko Euskal Herri erdaldundu honetan, tentazio arrunta izan ohi da behinolako beste aberri horren oroitzapenean erortzea, euskaldunagoa izatea hobe izatearen sinonimoa bailitzan. Ni neu dardarka jartzen naiz soilik pentsatzearekin paradisuko euskaldun horiek negu oso-oso ematen zutela gaztainak jaten, dela erreta, dela egosita, dela gordinik. Eta orduko elikadurarako gaztaina hain oinarritzkoa izanda, ez da harrigarri suertatzen jakitea, esate baterako, Zeauriko eskolan aste biko oporraldia ematen zitzaizela umeei urriaren erdialdean, gaztainak batzen laguntzeko. Egun osoan gaztainondo-lepora igota adarrak astintzen haga luzeez baliatuz, eta den-denak arreta handiz, goitik behera abiadan datozen gaztaina-karloek inor itsutu ez zezaten begian jota. Gero, luze barik, gaztainak baserriraino eroan behar izaten ziren gurdikadaka, askotan lapurretak egoten baitziren gaztainadian bertan utziz gero.

Alabaina, XIX. mendearen azken urteetan mundu hori desagertzen hasi zen. Gaitz tzar batek betiko eraman zituen gaztainondo zaharrak eta bai halaber, bide batez, ordura arteko bizimodu idilikoa, eta izatez erreka beltza jo zuten hainbat eta hainbat baserrik. Sasoi horretako kronikek diotenez, halako tristura-jario bat sentitzen da barru-barruan, behinolako gaztainadi ederren ordeaz soilik malda biluzgorriak ikustean edonon.

Ilido horretan koka genitzake Aldudeko medikuak 1910ean argitaraturiko lerro hauek:

...*gaztena*, gaitzak orotan eihartua, zombait mendi zokotan salbu; hortarik laboraria galdurik baitago, eta guziz laborari xumea, bere eta bere kabalen hazkurrik hobereena. Noiz ikusiko ditugu Euskal-Herrian beihalako gaztandegi fresko joriak?

Gaztainondoa gaitz bik jo dute, lehenago eta behin tinta izenaz ezagutzen denak, eta, geroago, txankro delakoak. Bata eta bestea onddo mikroskopikoak dira, baina, fikomizetea lehenengoa eta askomizetea bigarrena. Tintaren gaitza XIX. mendearen erdialdean zabaldu zen Europan, eta 1860.eko hamarkadarako Euskal Herrian agertu. Ostera, txankroa XX. mendeko kontua da: 1938an sartu zen Europara, hau da, kontatu nahi ditudan jazokuneak baino dezente beranduago.

Hortaz, lehen izurriteari helduko diogu hemen, eta, zelako sintomak erakusten dituen azaltzeko, Albert Constantin mediku zuberotarraren artikulua batera joko dugu. Artikulua 1913koa da, eta beraz, zubereraren apartekotasunari orduko grafiaren arrarotasuna gehitu beharko diozu irakurtzeko unean, baina, ez zaizu ulertezin gertatuko, Elhuyar aldizkariko idazlanen erraztasuna ez aurkitu arren. Constantinek honelaxe diosku:

Badakizie, amini bat khasu egin duzienek, noula gaztanaztoi azkar, berde baten artian, agertzen den lehenik holako hollikura bat, ondo bat edo biga, ostoetan eihartzen ari. Eritartzuna barreiatuko da, taka holli hortarik, ungunian orotan, gaztanaztoia oro harturik izan artino. Lehen ourthian ostoak holli, bi, hirour ourtheren buruko, usian, gaztañatzia bera eiharturik.

Eritartzun hori deitzen die zounbait gunetan, gaztañatzen *min-hollia*, ostoen koloria gatik; beste hanitchetan *ankriaren eritartzuna*, ondo eihartuz geroz, lur achalian agerian diren zain lodietarik, usu jalkitzen delakoz halako izerdi bat, hour beltzaran bat, izkiribatzeke tinte beltcha edo ankria uduri.

Lerrootan gaitzaren deskribapenaz gainera, izena ere azaldu digu Albert Constantinek, edo hobeto izenak. Izan ere, hor ikusi dugu zergatik esaten zaion tintaren gaitza, hau da, *ankriaren eritasuna* eta bai *min-horia*. Azken hau izen bereziki egokia da nire irudiko, baditu-eta herrikoitasunak damaion dotorezia xumea, bai behar duen zehaztasuna, eta bai antzerako gaitzekiko izen-kidetasuna ere, kasurako hor dugu Constantinek berak aipaturiko ametz eta haritzen *min-zuria*. Uste dut, berreskuratu beharreko izenak direla, erabilera teknikoetarako.

Artikuluaren hurrengo pasarteetan, Albert Constantinek min-horiaren jatorriaz eta profilaxiaz dihardu era simple batez, kontuan hartuta orduko irakurleriaren nolakoa. Nolanahi, aipa dezagun hemen gaztainondoaren min-horia *Phytophthora cambivora* onddoak sortzen duela, eta era berean *Phytophthora citrophthora* kidea dela Kalifornia eta Floridako laranjondoen kaltegilea.

Eritasunari aurre egiteko ordura arte saiaturiko erremedioak ere aipatzen dizkigu Constantinek, adibidez mentuak –*enpheltu* haren euskara ederean–, baina erantsiz, ordura arteko sendabide guzti-guztiak itxuraz alferrekoak suertatu direla. Gehiago luzatzen da Japoniako gaztainondoaren (*Castanea crenata*) bideragarritasuna azaltzen, ez baita min-horiaz gaixotzen, eta, beraz, berorrek bete zezakeen bertoko gaztainondoen (*Castanea sativa*) hutsunea. Ildo horretatik, Albert Constantin medikuak bere inguruko aha-leginen berri ematen digu:

Igaran ourthian Omize papeteriako seme, Japonian misionist den *Anchen* jaun aphezak igorri du chakutara bat hanko gaztañetarik Espain Alozeko jaun erretorari buruz. Mous de Espain-ek erein tu berak zounbait eta bestiak phartitu dutu hirour edo laur eskutan. Nihaurek ukhen nian hogeibat, haietarik sorthu beitira bi lanthare-gei. Ouste dut beste zounbait jin diren Omize papeterian, Altzai Etchaluzian eta Onagoitian.

Artikuluaren argitalpen-datari jaramon eginez, 1912. urte inguruan gertatu da Japoniatiko gaztaina-bidalketa hori. Dena dela, lehenagoko saioak ere aipatzen ditu artikuluan, baina zeharka, zehaztu barik. Datu gehiago argitaratu zituen Germain Lafittek 1946an. Berorrek dioskunez, lehen gaztaina-bidalketa 1908koa da. Aurreko urtean aita Xabaño aldudarra eta aita Lizarraga (1876-1937) hazpandarra Yokohamako misioan zeuden, eta aita Faurie (1847-1914) botanikariak azaldu zien, gaztainak zelan batu eta prestatu behar zituzten Euskal Herrirainoko bidaia luzean alferrik gal ez zitezen. Aita Urbain Faurie 1874tik aurrera ibili zen Japonia aldetik, eta oso garrantzi handikoa suertatu zen paraje haietako landarediaren azterketan.

Handik laster, 1908. urtearen hasieran, aita Joanes Xabañok 180 litro gaztaina –Japoniako hamar “to”– bidali zizkion aitari, hau da, Aldudeko orduko auzapez-axuantari. Beronek hiru zatitan banatu zituen. Lehenengoa etxeokoe jan zuten. Bigarren zati bat Joanesen Mixel anaiak erein zuen, Paueko laborantza-irakasle baten aholkuei jarraikiz. Aitak berak erein zituen, Aldudeko ohiko erara, hirugarren parteko gaztainak. Dirudienez, gaztaina gehienak egokiro hozitu ziren, bai era tradizionalen ereindakoak zein besteak, eta, izan ere, auzoko batek, Mixel Etxartek, haztegi txiki bat garatu zuen, txirpi bat, halatan non, Japoniako gaztainondoa mugako alde bietan zabaldu baitzen neurri batean. Era honetara aipatu zuen Etxeparek 1911n:

Gaitzaren beldurrez, etxeok-jaun bat eraitekotan dugu aurten *Japonia*-ko *gaztenatik*. Soraioa omen da hau. Gero ikusiko... behinik behin, bihi gotorrekoa da. Hazparden, Makean eta ez dakit bertze zoin herritan, ba omen dira piztuak ederki eta handituak, duela lauzpabortz urte lurrean sarturik.

Sasoi berean-edo, aita Lizarragak Hazparnera bidali zituen bere gaztainak, hain zuzen ere, Pierre Buruzaini, orduko alkateari. Beronek lagunen artean banatu zituen, eta horrela Japoniako gaztainondo inguruetatik barreiatu zen hurrengo urteetan: Hazparne, Zuraide, Sara, Azkaine, Makea, Senpere, Gerezieta... Antza, Atharratzeraino iritsi ziren gaztaina-ale batzuk, eta, Constantin medikuak dioskunez, gehiagoren eskaria luzatu zieten Japoniako “hornitzaileei”:



Graxien Istilart (1864-1954), Hazparnen sortua, zazpi haurretarik zaharrena zen. Familia osoa Makeara aldatu zen 1874an. Laborari ogibidez, herriko auzapez aukeratu zuten 1908ko bozetan; xuria. Hizlari ederra omen zen euskaraz. Gaztainadi osoak gaitzak jo zituenean, “Istilart ari da huntan chartha eta hartan chartha, bainan debaldetan: phizten direnak ere herbail gelditzen zaizko”. Geroago, aita Lizarragak Japoniako gaztainak igorri zituenean Hazparnera, bakarra omen da Istilart “bihi hetarik zerbait jali duenik, hunek bere artha guzia ekharri baitakote”. Graxien Istilarten gaztainondo aklimatatuak bisitatu zituen, Italiatik hemengo emaitzak aztertzea etorritako delegazio ofizial batek.

(ARG.: GURE HERRIA, 1932).

Ber demboran, Broussain Ahazparneko jaun merak ukhen dutu Japoneko beste gaztaña zounbait, gouriak beno eijerrago, biribilago, chehechiagoñi bezala; horik mota aiphatienetik eta kharioenetik dira. Hogeibat Mousde Broussainek eman beitzeiztan, erein nutian besten khantian, eta sorthu dira bederatzu lanthare.

Gousta hola harturik, Mous de Espainek, Mousde Broussainek eta nik, egin dugu Japoneko gaztana beste galtho bat, han diren mota orotarik eta bakhotchetik bostna kilo. Ereinen dutugu eta ountsa jiten direlarik badate lanthare zounbait gihaturen eta bestentako.

Bena, guk, hirouren artian egiten duguna, zerentako eztuzie eginen ziek ere? Gaztañatziak galtzera utzirik, ordaristatziak arrankuratu gabe, eztateke gocho geroan, arte luze batez, gaztañarik gabe egoitia.

Ez dut argitzerik eduki Japoniatik gaztainarik bidali zutenentz eskari horri erantzunez. Kontua da luzaro barik Gerla Handia abiatu zela, eta bai aita Xabaño eta bai aita Lizarraga biak Frantziara itzuli zirela, armen hartzera deituta. Hortik aurrera “hainbertze odol ibai eta neholazko nigar turrustak ixur arazi behar zituen hamalaukeko gerla madarikatu” horrek eklipsatu egin zuen gaztainondoaren min-horia, eta ikaragarriro azkartu zen gaztainadien desagertpena.

Joanes Xabaño erizain aritu zen Frantziako eta Mazedoniako gudu-tokietan, baina, gerla amaitutakoan ez zen atzera Japoniara itzuli, dogmaren irakaslea izendatu baitzuten Pariseko apaizgaitegian, eta lanpostu horretan segitu zuen 1933ra arte. Gero, Atzerriko Misioen idazkari orokorra izan zen 1960. urtera arte. Orduan, sorterrira itzuli zen, Aldudera, Esnazuko txokora, baina 1969an, osoki ezinduta, Montbeton-go apaiz-zahartegira eraman zuten. Bertan eman zuen azken hatsa 1975eko apirilaren 11an.

Munduko beste bazterreraino urrundu arren, Joanes Xabaño misionistak ez zuen Euskal Herria ahaztu, eta Japoniatiko gaztainak bidaltzeaz gainera berri asko agerrarazten zituen euskaraz *Eskualdun Ona* eta *Eskualduna* astekarietan. Halaber, Pariseko Eskualzaleen Biltzarrak euskara irakasteko ikastaroak antolatu zituenean, aita Xabaño anitz urtez aritu zen irakasle. Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1950ean.

Joanes Xabaño misionista Alduden sortua zen, Xotroenea etxe ospetsuan, abenduaren 10ean, 1881eko urtean. Misiolari-gaia sei neba-arrebatatik bigarrena



Joanes Xabaño misionista (1881-1975). Laurogeita hamahiru urte bete zituen egunean egindako argazkian doroan makila ez da izango, ziurrenez, Jean Etxeparek Japoniara joan aurretik oparitutakoa: “Orhoitzapen bat behar nakola eman berehala jin zitautan bururat, eztei guzier aitzinerat zor den bezala alabainan. Asko gogoeta hortaz erabilirik [...] manatu nakon Larresohoko Killori makila bat mizpira ginharritzkoa, bere burdin gerrenarekin; apez gaztearen izena hitzez hitz zangoan ezar zezon bietan erraiten nakolarik. Manatu bezala lanthurik Killok igorri makila, banoa hau eskuan mendiari goiti, oraino ezagutzen ez nuen misionestaren ganat, bi egun ezteien aitzinetik” [Etxepare, 1910: 99]. Hil aurretik Joanes Xabañok etxondoko lur-puska bat eskatu zien familia-koei, bere hilibian sartzeko, Montbeton-eko apaiz-zahartegiko kanposantuan, Tarn-et-Garonne departamantuan.

(ARG.: EKAINA, 1995).

izan zen. Ihia bezain xuxena omen zuen aita, Mañex Xabaño, eta “bere buruari zu erran-arazten” ziona. Aita, izatez, hamazazpi urtez Uruguain amerikak egin eta gero aberastuta itzuli zen Aldudera 1878an, 35 urte zituela, eta hurrengo urtean Xotroeneko alaba nagusiarekin ezkondu. Geroago, 1885ean alkate hautatu zuten, eta 1898ra arte bete zuen kargu hori. Arras larderiatsua omen zen, eta, dirudienez, etxeko mutikoak artean haur zotzak zirelarik erabakita utzi omen zien bakoitzaren etorkizuna: “Joanes izanen da mediku. Mixel tropetako aitzindari. Ferdinand horrek kudeatuko du gure etxaldea”. Ez zuen batere asmatu: kasurako Joanes misionista sartu zitzaion.

Misiolari-gaiak Xotroenean bertan egin zituen lehen mailako ikasketak, etxeko barne batean bermatzen baitzen auzoko errieta haurren argitzerat. Gero Larresorora bidali zuten, eta, antza, han piztu zitzaion alduar estudianteari toki salbaietarat joateko bokazioa, jakina Pierre Durisburu (1825-1890) beskoiztar misionista aipatuaren bizitza irakurriz. Larresoron amaituta eta soldadutza egin eta ostean, urte biz egon zen Baionako Seminario Handian eta 1903an sartu zen Pariseko misionistegan.



Etxeparek “*uruntu*” *daukute zubia* idatzi zuen 1910. urtearen hasierako kronika batean. *Azkenekotz! Bazuen bortz hilabete hasia zela [...]* Bazter etxetakoek diote hiria ari zaukula edertzen egunetik egunera. Zubi ondoko etxe handi hori “Uhidea” da: horko apartamentu batean bizi izan zen Jean Etxepare medikua. Dena dela, gaur egun ez dago Uhidea, plaza zabaltzeko eraitsi baitzuten, joan den mendeko azken urteetan.

(ARG.: BIDE GILEAK
ETA K. ALTONAGA).

Jakin izan dudanez, 1906ko irailaren 22an apaiztu zen Joanes Xabaño, eta hurrengo urriaren 28an abiatu zen Japoniarantz. Tarterko hilabete horretan zehar misionistak egonaldi bat egin zuen Alduden. Orduantxe ezagutu zuen Jean Etxeparek. Izan ere, gure medikua 1905ean kokatu zen Alduden, Elosu medikua ordeztuz. Etxepare Aldudeko plazan plantatu zen, hain zuzen misionistaren aitak 1896 erositako Uhidea etxe mandoaren apartamentu batean. Halandaze, *misionestaren ezteiak* ospatu behar zirela-eta Xotroeneko nagusiak gonbidatu egin zuen Etxepare medikua, eta bai familiako notarioa, inguruetako hainbat apaiz, eta makina bat “etxeko jaun azkar, amerikano eta ofiziale gori; laborari xume edo nekazalerik, nehor ez”. Lau-rogel bat ezteiliar batu ziren oturuntzara.

Etxeparek ederto paratu du *Buruxkak* liburuan, Xotroenean egun horretan ikusitakoa, eta ziztako bana damaie misionistaren masokismo nabariari eta, bide batez, berori hauspotzen duen elizari:

Begitartea arraidurik edaten ari ginelarik, horra nun xutitzen zaukun apez gazte misionesta. Hari buruz itzuli ginen denak, begiak landatuak, zer atherako zuen.

Frantsesez orduan erran zituen solas bakarrak hunelatsu litazke eskuaraz:

– «Eskerrak, o zinez eskerrak, ene ezteietarat hoinbertze eta hoin bihotz onez etorri zaretener. Atsegin dut ikusten baitzaituztet ene inguruan... maite nuzuen bezenbat maite zaituztetalakotz.

«Bizkitartean, nahiz galdegin dautazuen denek, eta guziz orai artean mintzatu direnek, zenbeit urteren buruko itzul nadien hunat, zuekin zenbeit orenez bederen berriz gozatzeko, ez dezakezuet holakorik onets. Gibelerat ez jitekotan banao.

«Pagano basen tokietan da, orai danik, ene lur huntako egoitza.

«Agian lehen bai lehen ukanen dut, heien eskuz sarraskiturik, heientzat ene odolaren ixurtzeko zoriona!»

Hitz hok aditzearekin, ja mintzaldiaren erditsutako nigarrez hipaka hasia baitzen aita, marrumaz xutitu zen gizagaixoa, ezin egonez gehiago. Sahetsean zituen lagunak, beren lekutik ilkirik hek ere, lothu zitzaizkon beso azpietarik, eror etzadien, eta ttuku ttuku ereman zuten, bihotza erdiraturik ginaudelarik oro heier beha, ondoko geletarik baten barnerat.

[...]

Irriz zagoen semea aita itzali zakon atheari so.

Ez othe zuen erroek duten irri lele zozo hura, halako izialdura bat sarthurik ihesari emaiten baitzaitu, gaixtakeria zerbeiten egitera doatzulako beldurrarekin?– Behatu nakon berriz ere, gehixago ukurturik. Ez: irri gozoa zen misionestaren irria, begitartea halako eztitasunaz arraitzen zakon, hain argi eta samur haren begiak non bainindagon ametsetarik ari othe nintzanetz; ez othe nuenez han ikusten nere aitzinean, zerua deitzen duten tokian badirela dioten saildu edo aingeru hetarik bat?...

Nolanahi, *Misionestaren ezteiak* irakurtzean, *Biritxiak* irakurtzean bezalaxe, badago gauza bat harritu nauena, eta izan da aitaren metamorfosia. Bai Joanes Xabañoren aita eta bai Juancito Etxeparerena ere, bi-biak amerikar arrakastatsuki egindakoak, gizon gogorrek izan ziren eta aita biziki hertsia. Ba, misionistaren aita semearen masokismo-erakustaldi horren ondorioz negar batean ito beharrez ikusi dugun antzera, Etxeparerena aita idorri ere negarra jaitsi zitzaion begietara –“bihotza tanpez beraturik”– etxeko birixien lo lasaiaren aurrean. Dirudienez, kasu biotan izotz-puska urtu egin zen azkenerako, edo, behintzat, samurtasun-amiñi bat erakutsi zuten.

ALBERT CONSTANTIN ETA ATHARRATZECO TALDEA

Ez da erraza Albert Constantin medikuari buruzko argibide askorik lortzea ohiko bibliografia-iturrietara joz gero. Gehienez bizitzako data nagusiak eta Jean-Baptiste Constantin idazle zuberotarraren semea izan zela aurkituko dituzu, eduki izan zuen karguren baten aipamenaz batera. Horren adibidea izan daitezke kasurako, *Zuberoako idazle zenduak* liburuan Jean-Louis Davant euskaltzainak Jean-Baptiste Constantinen atalean eskaini dizkion lerroak: “Ber lekuan (= Atharratzen) luzaz kontseilari orokor izanen da idazlearen seme medikua, Albert (1873-1957), aita bezala euskaltzale beroa, baina idazteari ez hain emana, beharbada denbora eskasez bere bi eginbideen gatik.” Nolanahi, Davantek ez du Albert Constantin idazle zuberotar zenden antologian sartu.

Mañex Xabaño (1843-1916) Alduden jaio zen, Migelartzaina etxean. Hamazazpi urterekin Uruguako osaba batengana jo zuen, eta han aritu zen lehenago *saladero* modura (gazitegiko langilea) eta ostean abeltzaintzan eta bestelako negoziotan. Laster batu zitzaion Mixel anaia gaztea. Biok batera itzuli ziren Aldudera 1878an, eta, halaber, egun berean esposatu ziren, Mañex, Xotroeneko alaba premuarekin –Marianne Etxarren (1850-1911)–, eta Mixel, Auzkikoarekin. Sei seme-alaba eduki zituen, hiru mutiko eta hiru neskatu. Herriko alkatea izan zen 1885-1898 tartean. Bestalde, Aldudeko emigratio-agenteariko bat izan zen, hau da, jendea bilatzen zuen komisiopean Ameriketara



bidaltzeko. Hala ere, gainerako aldudarren bizimodu bera-edo egiten zuen: gaudu-hazkuntza esnetarako batez ere; horrez gain, zerriek, oiloek, ortuak eta gaztainadiak hornitzen zuten Xotroeneko mahaia. Alabaina, garesti aterako zitzaion arren, zelarako zaldi batzuk hazten zituen, ziurrenez Ameriketako gaztaroaren oroitminaz. Hirurogeita hamar urte ditu argazkian (ARG.: EKAINA, 1995).



Albert Constantin medikua (Izpura, 1873; Atharratze, 1957). "Constantin... euskaldun larden ginarrria... adimenduz ximixta bezain zalu, eta ele gutiz erasia baten behar den guziez mamitik hausten dakiena" [Etxepare, 1929: 162]. "Constantin, Euskaltzaleen-Biltzarra gur amultsuagorik etzezaken adi zurea baino: aspaldiko urteak ditu, zure aita on beti gogoan oroitzapena daukagunaren urratsar jarraikiz, gutartekoa zirela, gure gizona, gure buruzagietarik bat. Duela hogoi-tabat urte ikusten zinintudan, zure herritar dantzarien aitzineko Baigorriko plazan.

Geroztik hunat, Euskal-Herria beti neurri berean ohoratu izan duzu, ez bakarrik ohiduren alderako atxikimenduaz (mintzaia barne), baina oraino zure jakitateaz, zure zuhurtzia, zure lanaz. Zail eta iraunkor ageritza izan zira. Hanitzek ahaptik bere erro azkarretaraino mozkindua dautzugu izena: zuzenaren zuzenez deitzen zitugu gure artean *Constant*. Darraikizula hanitz urtez!" [Etxepare, 1926: 143-144].

(ARG.: P. XARRITON, AZKUE BIBLIOTEKA ETA K. ALTONAGA).

durik, eskolak lehenik Larresoron eta ondoren Baionan egin zituen. Medikuntza-ikasketak Parisen burututa, 1898. urtean Atharratzen kokatu zen eta bertan hil (1957.04.28). Ia 60 urtez izan zen bertako medikua. Urte horietan Basabürüa korritu zuen alderik alde, lehenago oinez eta zaldiz, gero motorrez eta autoz. Ezinago mediku jarraikia omen zen, etxeetaraino hurbilduz nornahi izan zedin haren beharrea edozein tenorez. Auzapeza ere izan zen 1924-35 tartean eta, kroniken arabera, lan ederrak egin zituen, esaterako eskola eta errebotea eta bai hainbat bide, iturri eta horrelakoak inguruetako mendietan. Halaber, 1919an Paueko Kontseilu Orokorrerako hautatu zuten, eta postu horretan hil arte mantendu. Domina franko eman zioten, hala nola "officier d'Academie" eta "officier de la Legion d'Honneur" direlakoak.

Jean-Baptiste Constantin (1847-1922) eta Engrâce Garbi (1854-1948) izan ziren Alberten gurasoak, biak santagraztarrak. Aita errieta izan zen Izpura eta Mithiriñan; hark eman omen zion, haurrean eta gaztean, euskal izatearen eta Basabürü txokoaren amodioa. Aitak artikulu eta bertso asko ondu zituen, batez ere *Eskualduna* astekarian argitaratu zituenak; oso ospetsu bihurtu zuen "Joanes Garaztarra" izengoitia. Euskaltzaindia sortu zenean zubereraren ordezkari izendatu zuten; Azkueren kolaboratzailea izan zen, hiztegirako. Patri Urkizuk bildu du Jean-Baptiste Constantinen obraren zati bat "Klasikoak" sailean.

Albert Constantin jaun medikua 1903ko azaroaren 22an ezkondu zen Marie Claire Amestoirekin (1882-1944), hain zuzen ere, Saint-Martin Harriaga *Morroxo*ko Hazparneko alkate eta diputatu aberats okituaren alaba sasikoa. Hiru seme eduki zituzten: Jean (1904-81), Arnaud (1905-68) eta Pierre (1906-42). Lehendabizi Hernaniko josulagunen ikastetxean sartu zituzten, alegia, Pierre Lhande (1877-1957) euskaltzain zuberotarra bizi zen egoitzara, baina, Gerla Handiarekin muga-arazoak larritu egin ziren eta Pauera bidali zituzten ikastera.

Iturri guztiek nabarmen uzten dute Albert Constantin medikuaren euskaltzaletasuna, eta testuinguru horretan aipatzen dute *Eskualduna* aldizkariaren alde mende-hasieran buruturiko lana, edota Euskaltzaleen Biltzarrean Jean Etxepareren ondoan lehendakariorde gisa emandako urteak, eta bai euskaltzain urgazle izatearena ere (1923tik aurrera). Alabaina, Xarritonen idazlanetan ikus daitekeenez, badaude beste puntu azpimarragarri bi, hots,

Xehetasun gehiago ematen ditu Xarritonek, hanhemenka barreiatuta bada ere. Batik bat idazlan horietan oinarritu gara hemen osatu dugun biografia itxuratzeko, eta bai *Herria* aldizkari-ko obituarioretan.

Albert Constantin Nafarroa Beherako Izpura jaio zen (1873.08.23). Garazi aldean sorturik eta kaskon-

hartu-eman estu bi, hona ekarri nahi ditudanak. Batetik, Azkuerekin eduki izan zuen adiskidantza aipatu gura dut, eta besteak beste, berorren hiztegiaren burutzapenerako eman bultzada. Bestetik, ezin da inola ere ahaztu Iparraldeko lehen euskal nazionalistetarikoa izan zela bere adiskide Pierre Buruzain mediku hazpandarrarekin batera, eta, izatez, “un parti nationaliste viable” antolatzeko egokiera ere aipatu zion, kasurako, 1903ko eskutitz batean.

Dena den, Jon Casenaveren arabera, izaera berritzailea da Albert Constantinen alderik garrantzitsuena. Jon Casenaveren ustez, Pierre Buruzain, Albert Constantin eta Jean Etxepare medikuek ireki zioten atea modernitateari, XIX. mende-amaierako Euskal Herriaren ikuspegi krepuskular, argizari-jale eta itxian, atzerrian ikasten luzaro egon eta herrira itzuli zirenean. Hiru medikuok astinaldi ederra eman zioten ordura arteko euskarazko paisaia ideologikoari eta, besteak beste, orduko diskurtso identitarioa birbiderratzin ahalegindu ziren.

Ez gara hemen luzatuko jaso zituzten makurraldiak zerrendatzen; kontua da batez ere kultura-arlor mugatu beharrean aurkitu zirela. Baina, Etxepare eta Buruzainen euskal idazlanak nahikoa ezagunak diren bitartean, Albert Constantinenak lurrak irentsi ditu itxura batean. Izan ere, normalean artikulu bi egozten zaizkio, hain zuzen ere 1947 eta 1954koak, eta, areago, guztiz zabaldua dago gorago aipatu dugun Davanten iritzia, Albert Constantinen ekoizpen idatzizkoa guztiz urria dela dioskuna. Uste horren abiapuntua, beharbada, *Herria* astekariko obituarioko esaldi batean aurki daiteke: “Nahiz etzian hanitch-hanitch izkribatzen...”.

Noraino zuzena da, baina, uste hori? Hau da, zein da Albert Constantinen obraren benetako luze-zabalera? Puntu bitan oinarritu naiz galdera hori mahai-gaineratzeko.

Batetik, badago Jean Elizalde *Zerbitzariren* 1927ko kritika-artikulu bat Euskaltzaindiari zuzendua, euskaltzain izateko Iparraldeko hautagaien zerrenda luze samarra damaiguna. Besteak beste zera diosku idazki horretan: “Sekulan mendiz alde huntan, haindikoaren pareko Euskaltzaindi bat egiten balitz, ez litazke segur bazterrerat utziko Constantin, Atartzeko jaun mirikua, gure Eskuarari dion atchikimenduaren eta *astetik asterat Eskualdumean agertzen dituen solasaldi polliten gatik*”. Begi bistakoa denez, etzanarazi dugun esaldi-zati horrek obra idatzi zabal batean-edo oinarritzen du Albert Constantinen gaitasuna hautatua izateko. Hau da, *Zerbitzari* oker ez badago, *Herria* astekariko obituariokoak baino 30 urte lehenago oso emankorra izan zen Constantin medikua, eta beraz, litekeena da Albert Constantinen luma XX. mendeko lehen laurden osoan *Eskualdunan* idazten aritzea. Baldin-eta *Zerbitzariren* esana zehatza bada, eta ziurrenez horrelakoxea da, orduan aztertzeke daukagu plazaratua izatea merezi duen aitzindari baten lana.

Bestetik, arakatzeko dagoen ustezko obra horren lagin bat aurkitu dugu 1913ko *Almanak uskara edo Ziberouko egunarian*: “Zuhainen eritarzunaz eta haien arraberrikatziaz” deritzo artikulua eta gure iritziz oso interesgarria da, hainbat arrazoi direla-eta.

Interes horretarako lehen elementua, jakina, gaia bera dugu. Alegia, ez dakigu Albert Constantinen gainerako obra zeri buruzkoa izan daitekeen, baina, aurkitu dugun apur hori zientzia-zabalkundearen esparrukoa da bete-

betean, eta horrez gainera, euskal dibulgazioaren historiaurrearen hasierahasieran kokatu zaigu. Alde horretatik ezin interesgarriagoa da, beraz. Bestalde, artikulua irakurtzean igarri egiten dira bai ondo trebatutako idazlearen maisutasuna eta bai era berean horrelako kontuak erraz azaltzen ohituta dagoen dibulgatzailearena, eta izan ere, nahikoa harrigarria suertatzen da hori, aintzat hartuz gure historiaurre goiztiarraz mintzo garela, hau da, alde aurretik hutsaren hurrengo tradizioa omen zegoela. Baina denetan harrigarriena da, artikulua hori hitzaldi gisa *kongresu* batean aurkeztu izana!

Almanak uskara edo Ziberouko egunariak bestelako xehetasunik ez bada-
kar ere, Albert Constantinen artikulua izenburuaren ondotik “Atharratzeko 2^{en} Congrès deithu juntan M. Constantin bedeziak eman pheredikia” diosku. Ez hori bakarrik. Badakartza, halaber, kongresu edo junta berean eskainitako beste hitzaldi biren testuak: “Laborariak sor-lekhian egoitez dutian abantailak” M. Chemark Çugun, *zalgiztar etcheke-jauanak* orduko migrazio ikaragarriaren kontra egindako mintzaldia, eta “Noula begira borthakoak eritarzun haboroetarik” M. Dominique Iribarne *injeniuurrak* txerrien hazkuntzaz azalduakoa. Ez daukagu bestelako argibiderik Atharratzeko 2. kongresu horretaz: ez noiz egin zen, ez nortzuek antolatu zuten, ez argitaratuez besteko hitzaldirik egon zen, ez zenbat entzule ukan zituen, ez nortzuk ziren entzule horiek, ez beste ezer. Edozelan ere, guztiz deigarri suertatu zaigu itxuraz erabat laikoa izatea, eta, halaber, *bigarrena* izatea.

Ezer gutxi dakigu Atharratzeko lehen kongresuari buruz. *Almanak uskara edo Ziberouko egunariaren* 1911ko aleak azaltzen du, besteak beste, “Amerika eta hiriak utzirik” idazlana, «hori eginik Mousde Marcellin Çugun Zalgizeko etcheke-jaunaz, irakourturik izan da Atharratzeko Congrès Cantonal deitu biltzarrian azaroaren 20^{an} 1910^{ian}». Ez dakar argibide gehiagorik, baina, jakina, hitzaldi bakarrak ez ohi du biltzar bat osotzen. Bestalde, data hori ikusita, pentsa daiteke bigarren kongresua 1912ko azaroan-edo egingo zela, eta, ziurrenez, Gerla Handiak atzeratuko zuen, betiko, 1914an egitekoa zen hirugarrena.

Honaino iritsi garela, kontu bat utzi nahi dut age-
rian. Jose Ramon Etxebarriak euskal zientzia-prosaren historia egitean, bilakaera horren periodizazioaren lehen ahalegina aurkeztu zuen. Jose Ramon Etxebarriak 1970. urtea jotzen du gure prosa zientifikoaren abiapuntutzat, alegia, “ekimen kolektibo modura planteatzen hasi zenean”, eta data hori baino lehenagoko aitzindari urriak aintzat hartuz beste aro bi bereiztu ditu, “historiaurrea” bata, eta “historiaurrearen aurreko garaia” bestea. Aro bion arteko muga, Joserraren arabera, Sabino Aranaren eten ideologikoak ezarri zuen XX. mendearen hasieran. Albert Constantin jaun medikuaren obraren izaria ezezaguna dugun arren, gure ustez ez da banako isolatu baten ekoizpena. Ez dago talde-lana izan dela esaterik, beharbada, baina, bai sare baten baitan egin zela. Sare horretako korapilo batzuen izenak lehenagotik ere ezagunak ziren, hala nola, Buruzain eta Etxepare. “Ekimen kolektibo”tzat joa izateko laxoegia izan zitekeen sare hori. Ados. Alabaina,



Atharratzeko udaletxea.
Horixe izan zen Albert Constantin jaun medikuaren etxea.

(ARG.: K. ALTONAGA).

erakutsi ditugun datuen argira, edo hobeto esanda, erakutsi ditugun *zantzuen* arabera, noraino trinkotu dira sarearen troinuak, antzeman dugun perspektiba berrian? Ba al dago Atharratzeko taldeaz berba egiterik?

Jakina, hobeto dokumentatu beharko genuke kontua, ganorazko erantzuna eman ahal izateko. Esaterako, nor zen Mousde Dominique Iribarne *injenierra*. Esaterako, Mousde Marcellin Çugun eta Mousde Chemark Çugun Zalgizeko etxeko-jaunak bi al dira, ala gizaki berbera. Esaterako, nortzuk gehiago aritu ziren eta zertan gauzatu zen denen ahalegina. Eta, azken batean, ba al zuten “euskarazko prosa zientifikoa kontzienteki lantzeko nahia eta –batez ere– bide horretatik aurrera egiteko erabakia”? Neu baiezkotan nago.

BURUXKAK: IRAGARRITAKO PORROT BATEN KRONIKA

Jean Etxeparek Tours-eko Mame argitaletxean inprimatu zuen *Buruxkak*. Hau da, ohiko bideetatik Baionako Lasserre edo Lamaignère moldiztegi-tara jo beharrean, Etxeparek, Azkueren urratsen atzetik, atzerrian argitaratu zuen liburua, eta bere sositatik zuen ordaindu argitalpen-kostu osoa. Badirudi era horretara jokatzuz bertako apaizteriaren kontrolpetik at mantendu nahi izan zuela. Arrazoiak arrazoi, Jon Casenavek azpimarratu duenez, oso deigarria da *Buruxkak* Euskal Herriatik kanpo argitaratu izana, Baionan euskal liburuen argitalpenean espezializaturiko moldiztegi bi egonik ere. Zernahi gisaz, 1909ko azaroan argitaratu zelarik, liburua hurrengo urtean hasi zen zirkulatzen.

Gorago ikusi dugunez, Etxepareren liburuak ez zeukan parerik ordura arteko euskal literaturan: dela duen planteamenduagatik, dela darion pentsaera irekiarengatik edota fur-furian zeuden pentsalarien eragin zuzenarengatik, *Buruxkak* apartekoa da guztiz gure letren errepublikan. Esaterako, Jurgi Kintanak nabarmenarazi bezala, *Buruxkak* agertu zen urte ia bertsuan Txomin Agirre *Garoa* argitaratzen hasi zen atalka, baina, orduko “kultura modernoaren kale-munduko” kezkei ez ikusiarena eginez, ehun urte lehenagoko *Peru Abarka* baserrizalearen ildoari jarraituz.

Kontua da *Buruxkak* modernoegia suertatu zela Euskal Herri esklerotizatu hartan, eta nekez aurkituko zuen irakurle konplizerik. Areago, *Buruxkak* bildumako saio bi –*Amodioa* eta *Nor eskola-emaile. Zer irakats*– “frango ausartak” zirela begitandu zitzaion orduko elizjendeari, halatan non, Etxeparek liburua bahitu egin behar izan baitzuen inguruko enpresioz.

Gaurko begiekin, eskandalu sinestezinikoa dirudi *Buruxkak* liburuaren bahiketak: zelan ulertu maila horretako obra baten errefusa, erlijiozko gaietatik aparte euskarazko liburu baten argitalpena gertaera guztiz ezohikoa zenean? Kasurako, Jon Casenaveren esanean, Baionan soilik liburuska bi plazaratu ziren 1910ean: Jean Barbierren *Nere kantuak* eta Etienne Decrepren *Maitena* pastoral lirikoa; ez bata eta ez bestea, ez dira prosazkoak. Nolanahi, *Buruxkakekin* ez zen inolako eskandalurik biztu. Gehienez, mini-eskandalu bat izango zen, eta egotekotan ere berehalakoan itzali zena, ia-ia konfidentziala izan baitzen *Buruxkaken* agerpena. Izatez, Jon Casenavek ez

du hausturarik aurkitu familiaren baitan edota lagunekin. Adibidez, ez du intzidentearen inolako aipamenik topatu idazlearen anaia gazteen eskutitzetan (Beloken irakasten zegoen Pierre apaizarenetan, eta Kanadara joandako Emilerenetan). Familiaren tradizioak idazlearen aitarengan kokatu du liburua bahitzeko erabakiaren jatorria, eta, egia esateko, horrelaxe gertatu izatea bat letorke Etxeparek berak irudikatu digun aita larderiatsuarekin. Ume esan-onekoa izanik, Etxeparek bete egingo zuen beste barik aitak agindutakoa, “nehori bakar bat saldu gabe”. Eskandalurik ez, beraz.

Aitaren debekua gorabehera, Etxeparek lagun batzuen artean zabaldu zuen “liburu ozarra”: “Haatik adin batetako eskualtzale batek doiaipatzen bazion, hitz pollit batekin zart! emanen zion present” gogorarazi digu Lafittek. Hari horretatik tiratuz, xehetasun gehiago irakur daitezke Pierre Buruzainek Lacomberi 1913an igorritako eskutitz batean:

Dites ceci à notre ami Etchepare, de la part de Armand David, le potard de Hasparren: le bouquin «Buruchkak», qu'il lui avait envoyé, lui a été emprunté par un nommé Irissarry, curé d'Isturitz, qui n'a jamais voulu le lui rendre sous prétexte qu'il est obscène. N'empêche que ce raticion (style Decrept) l'a fait lire à tous ses collègues de la région. Ce brave curé de campagne manque totalement de logique! Aussi, mon ami David désire-t-il que Etchepare lui envoie un nouvel exemplaire de son livre. Puisque le brillant écrivain des Aldudes ne veut pas faire argent de son bouquin et est disposé à en faire don aux personnes susceptibles de l'apprécier je me permets de lui envoyer une liste de bénéficiaires éventuels:

1°– Sr Dr Irigaray, Irurita, por Elizondo (Navarra) [...]

2°– M. Garmendia, à Sare, par Saint-Jean-de-Luz. [...]


Etchepare a-t-il envoyé son livre aux personnes suivantes connues pour leur amour du basque?

Saint-Palais: MM. Frédéric de Saint-Jayme, Prosper Galand, Diriaré le notaire. –*Saint-Jean-Pied-de-Port*: MM. Alamon, Ybarnegaray. –*Tardets*: Dr Constantin. –*Mauléon*: M. Eugène Sallaberry, notaire. –*Iholdy*: M. Sagar-doy, instituteur. –*Chéaute*: M. Errecart, instituteur. –*Bidart*: M. Decrept, président de E. B. –*Amorots*: M. Adolphe Berdeco. –*Aicirits*: M. Primorena, instituteur. –*Saint-Pée*: Dr Dourisboure. –*Saint-Jean-de-Luz*: M. J. De Urquijo, Vicendoritz. –*Sare*: M. Eugène Abbadie. –*Ainhoa*, par Espelette: M. Gaetan Haran, maire de Ainhoa, un retour du Chili, parlant admirablement le basque et l'aimant beaucoup. [...] –*Hasparren*: M. Salvat Amespil-Patrun, le meilleur koblari du Pays Basque.

Eskutitza irakurriz argi ikusi dugu Etxeparek jarraitu egin zuela liburua banatzen, neurri oso apal batean bazen ere. Eskutitza oso interesgarria da baita ere, badioskulako “liburu ozarra” oso arrakastatsu suertatu zela hainbat apaizen artean, eta jakin-minez irakurtzen zutela. Gainera, Izturitze ingurutako bene-benetako irakurle erreal horiek aipatzeaz gain, Etxepareren irakurle potentzial eta “idealen” zerrenda damaigu. Aipaturiko irakurle horien artean, apaiz zentsuratzailleak alde batera utzita, medikuak, notarioak, botikariak, errientak eta arrantierrak ditugu. Eta, bide batez esateko, aipatu nahi dizut Armand David deritzon Hazparneko botikaria pasarte-

Armand David (Ezpeleta, 1826; Paris, 1900) naturalista handia. Larresoro eta Baiónako seminarioetan ikasi eta gero, Parisera jo zuen 1848an, eta aita lazarista bilakatu zen. Hamar urte eman zituen Italian natur zientziak irakasten. Ostean, 1861ean, Txinara bidali zuten misiolari. Dena dela, laster liberatu zuten lan ebanjelikoetatik lan naturalistikoetan murgil zedin buru-belarri, eta gure Armand David Haltzuetan esploradore egin zen, Parisko Natur Zientzietako Museoaren kontura. Hiru esplorazio-ibilaldi luze eta arriskuez beteak burutu zituen, Mongoliarantz, Tiberantz –arrakastatsuenak eta Txinako erdialderantz. Besteak beste, hain karismatikoko bihurtu den panda handia aurkitu eta deskribatu zuen. 1874an itzuli zen Europara, osasunez sats eginda. Apaiza izan arren, darwinismorantz lerratu zen, Txina aldeko hegaztien banaketa-datueta oinarrituta batez ere. Haren idazlan nagusiak dira *Journal de mon troisième voyage d'exploration dans l'empire chinois* (1875) eta *Les Oiseaux de la Chine* (1877).

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).



hasieran agertu zaiguna, Armand David esploradore ezpeletar handiaren iloba dena, hots, pandaren aitaren familiakoa. Zernahi gisaz, Pierre Buruzainek esan barik esan dioskuna da, mediku saiogilearen irakurketa probetxugarri baterako behar-beharrezkoa dela pertsona eskolatua izatea, alegia, ez dela nahikoa leitzen jakitea, beste plus bat behar dela. Edozelan ere, kontura gaitezen, zerrendako irakurle potentzialak ez dira dozena bi denetara!

Dozena bi irakurle ideal. Besterik ez. Jakina, gainerakoak, hau da, 1907an *Eskualdun Ona* aldizkaria erosten zuten 7000 irakurle haiek, gehien bat “laborari xume eta nekazaleak”, soziologikoki ez zeuden *Buruxkaken* erosle potentzialen artean, eta are gutxiago irakurleen sortakoak izateko moduan. Etxeparek berak honelaxe ikusi zituen irakurle euskaldunak 1934ean:

Laborari guti da alabainan, euskaraz, ontsa irakurtzen dakienik; hanbatena gutiago non lumaz ezarria den hitzak, ahotik airatzen denarenetik bertze hots bat baiterakar, irakurtzearekin, beharritat. Ezin jarritz, zorbait urte emanen du oraino herritarrak.

Mintzo denaren ahoko eta zintzurreko erasiaren entzuteko orde, haren ezpain, begi, begitarte, eta esku-keinuen orde, irakurtzen ari denak, ez ditu bertzalde ikusten, letra larri batzu baizik, guneka tita mokordo bitxi batzuekin, artetan, saheskatuak. Ohartzen bazakote ere, guziz gehienetan, ez daki batere baserritarrak, zertako diren, eta zeri dauden, marka larri eta tanto ñimiño horiek.

Jostagarri zaiku, hanitz etxetan, Eskualdunaren, behinik behin, igandetako irakurtzearen entzutea. Amak edo haur batek dauka ardurenik eskuetan, eta ari da “dar-dar-dar”; bertze guziak hari so, begi beharriak zabalik. Irakurle gaixoak badu eite, hain berdinki baitoa eta artetan hain zalu, ibaiari behera, nihun trabarik gabe, doan xalant batekin. Bizkitartean, ez derama osoki alfer bere lana: aitak hartzen ditu gogoan zorbait hitz, haurride batek bertze zorbait, bera ere ohartzen da bertze batzuen ikurrari; eta irakurtzea bururatu denean, solas egiten dute orok: hunek konprenitu baitu zati bat, harek kantail bat, hirugarrenak buztana, guziet, beren argi bakotzak elgarretaratuz, badute azkenean, artikulua argi betea. Irakurlearen eta entzule guzien gogo, idazlearen gogoarekin aurrintzen da azkenekotz.

Ez dago esan beharrik: zoritxarrez ezer gutxi egin dezake aurreko pasartean irudikatutako irakurleak Etxeparearen testu exigente eta zorrotz baten aurrean. Alde horretatik ikusita, badirudi guztiz alferrekoa zela *Buruxkak* bahitzea, berez baitzegoen bahituta. Izan ere, liburuaren zenbat ale sal zitzakeen Aldudeko medikuak horrelako irakurleen artean? Gehitu horri, gainera, ez zela liburu-dendetan saltzekoa gaur egun bezala, egilearen etxean baizik, bost liberatan, dela Lekornen, dela Alduden. Oztopo horien gainetik, zenbat ale salduko zituzkeen? Ehunen bat? Berrehun? Zenbatetako tirada egingo zuen?

Jon Casenavek dioenez, 300 aleko tirada ukan zuen, 1924ean, Baionan argitaratutako Jean Barbier apaizaren *Supazter chokoan* famatuak. Eroste eskariak bere etxera egin behar ziren, liburuaren prezioa gehi garraioarena erantsiz. Barbierrek agortu egin zuen edizio osoa denbora laburrean, baina,

ez zuen bigarren argitalpenik agindu. *Buruxkaken* kasuan ez dago jakiterik Mame argitaletxeak bideratu ale-kopurua, Bigarren Mundu-Gerlak kiskali baitzituen enpresaren artxiboak. Hirurehun bat izango al ziren, *Supazter chokoan* aipatuak bezala? Ale-kopuruaren datua bagenu, posible izango genuke zehaztea zelako zabalkundea eduki izan zuen lagunen artean, zeren, Erlandeneko selauruan Jon Casenavek 116 ale zenbatu baitzituen 1996an. Nik neuk, berrehun aleko tiradaren alde egingo nuke, ez baitut uste Jean Etxepare hain buruiritzia zenik, elizjendeak bezainbeste salduko zuenik pentsatzeko. Hau da, ustezko berrehun horiei 116 kenduz, lagunen artean laurogeiren bat ale banatu zituelakoa daukat.

Jean Etxeparek, ziur aski, laurogei ale baino gehiago saltzea espero zuen. Horren froga dirateke, batetik, liburuaren iragarpena *Revista Internacional de Estudios Vascos*en plazaratu izana, aldizkari jakitun horretako irakurle trebeak bilatuz-edo, eta bai, bestalde, *Buruxkak* liburuko hitz asko, laurogei bat, oin-oharretan frantsesera eta gaztelaniara itzulita aurkeztea. Oinohar horien bitartez Etxeparek Hego Euskal Herriko irakurleren bat ere gurako zuen erakarri, euskalki diferenteetatik bereganatutako hitz ulergaitzak argitzeaz gainera. Zer esanik ez, oin-ohar horien bidez Etxeparek erraztu nahi du oso testu konplexuen irakurketa, eta bai era horretara literatur hizkuntza modernoa taxutu ere, aldi berean, literatura hori gozatuko duen irakurleria gaituz.

Itxura batean, bada, Etxeparek gorago nahi zuen egin hegaz, baina, *Buruxkak* eraberritzaileegia suertatu zen orduko Euskal Herrian, hots, ezin errezipituzkoa sasoi hartako giroan, ederretsi ezinekkoa. Jon Casenavek dioenez, *Buruxkakek* interlokutore aktibo eta kooperatiboa behar zuen, hots, solaskide gogotsua eta lagunkoia, eta artean gurean ez zegoen mota horretako irakurlerik. Jean Etxeparek irakurle jantziak eta konpetenteak behar zituen, eta behar zituen, gainera, konpetenteak bai hizkuntzaren aldetik zein kultura-egagutzaren aldetik ere, eta areago, gauza biak aldi berean. Oinarrizko baldintza bi horien ostetik, Jon Casenavek asumitzen du bestelako gaitasunak ere behar zituela irakurle ideal horrek. Lehenengo eta behin beharko zukeen literaturarenganako zaletasuna, eta alde horretatik, irakurleak jarraitu eta lagundu beharko ziokeen idazleari literatur hizkeraren bilaketan eta lanketan, egileak proposaturiko hizkuntza-kodearen zailtasunak gorabehera. Bestalde, Jean Etxeparek abian jarri zuen indibidualizazio-prozesu bat ordura arteko euskalduntasun kolektiboaren nozioaren baitan, eta horrenbestez ikuspegi subjektibo, pertsonal eta are eta autobiografikoa ere ekarri zuen euskal letretara. Irakurle parte-hartzaileak joera nartzisiko hori onetsi beharko zukeen. Era berean, irakurle ideal horrek urrunketa kritikoa behar zuen, eta, hortaz, gainditu, XIX. mendearen amaierako diskurtso identitarioa blaitu zuen “norberenganatzea”, hots, gainditu norberaren baitara biltzeko aktitueda. Hau da, jarrera defentsibo orokorra baztertuz, Etxepareren irakurleak irekitasuna praktikatu beharko zuen edozein gairen aurrean, hala nola, hiria, industrializazioa, irakaskuntza, amodioa, eta abar. Etxeparek, azken batean, konplizeak behar zituen.

Egileak, esan ohi denez, liburuaren erdia idazten du, soil-soilik; irakurlearen ardura da beste erdia. Etxeparek, baina, basamortuaren erdian zihar-

duen eta *Buruxkakek* ez zuen irakurlerik erakarri. Jende xumeak ez zeukan eskola nahikorik, eta, gainera, elizjendearen eraginpean zegoen, berorren iritziz Etxeparerena liburu kondenatuen sailean sartzekoa zelarik, jadanik azaldu ditugun saio biak direla-eta. Bestalde, jende eskolatua oso hotza zen, euskara eta euskal literatura kontuetan.

Jon Casenaveren ustez, *Buruxkak* liburuaren porrot editorialarekin Jean Etxeparek ikasi egin zuen ikasibeharrekoa: euskal unibertso ingurune-baldintzak ez ziren batere egokiak berak proposaturiko literatura-eredua onartzeko. Horretaz jabetuta, ordutik aurrera, Aldudeko medikuak burubihotzez bideratu zuen bere jendaurreko jardun guztia giro faboragarria erdiestera, eta ildo horretan, 1911tik aurrera parte hartzen du euskararen sustapen eta garapenerako erakundeetan, gehien bat literatur sorkuntza eta berorren harrera egokia bultzatu nahiz.

Harrigarriro *Buruxkaken* porrotak ez zuen Etxepare hustu eta adoregabetu, eta jarraitu egin zuen *Eskualduna* aldizkariarekin kolaboratzen. Ez hori bakarrik, orduantxe sorturiko *Cercle d'Etudes euskariennes* delakoan sartuko da, eta bai *Eskualzaleen Biltzar* ospetsuan ere Gerla Handiaren ostean. Alde horretatik, badago Lacomberen eskutitz bat 1913ko azaroaren 19an Martin Landerretxeri idatzitakoa, badiotsa Etxepare medikuak agindu diola Eskualzaleen Biltzarreko buru-lehen izateko hautagai aurkeztuko dela. Erakunde bi horietako kide egitean, nolabait, euskal kultur munduan norbait zirenen artean kokatu da Jean Etxepare. Pierre Buruzain, Georges Lacombe eta Julio Urkixo euskaltzale ezagunek sortu zuten *Cercle d'Etudes euskariennes* deritzona Baionan, 1911ko azaroan, eta Jean Etxepare Lacomberen eskutik sartu zen taldera, nahiz eta bilera bakar batean ere ez hartu parte, Aldude oso bazterrean baitzegoen. Dena dela, Jean Etxeparek euskal ikasketen ikuskera praktikoa du, eta delako Zirkulua batez ere gogoeta teoriakoan aritu zen. Elkarte horrek Gerla Handira arte irau zuen.

Kontuak kontu, porrotaren eta mini-eskandaluaren artean, *Buruxkak* desagertu egin zen ofizialki euskal letren eszenategitik Jean Etxepare hil arte. Berau 1935eko urtarrilean zendu zen. Urte bereko martxotik aurrera Piarres Lafittek argitaratu zituen, banaka, “buruxka” batzuk *Gure Herria* aldizkarian, 1938ra arte. Gero, 1939an Etxepareren alarguntsaren baimena erdietsi zuen bigarren argitalpenerako. Horrenbestez, *Buruxkak* berriro agertu zen liburu gisa 1941ean, baina zentsuratuta. Badirudi ba, lehen agerpenetik isiltasunezko hogeita hamar urte igaro eta gero ez zirela lortu Aldudeko medikuaren liburu madarikatuarentzako baldintza faboragarriak. Bigarren argitalpenaren aitzinsolasean Piarres Lafittek azalpen hau damai-gu: “bi kapitulu dohakabeez arindurik eta hitz dorpexko bakar batez, zen bezala-bezala agertzen dugu”. Honezkero badakigu *Nor eskola-emaile, zer irakats* eta *Amodioa* izan zirela “arintzea” merezi zuten atalak. Baina, zein da “hitz dorpexko bakar” hori, Lafitteren garbikuzia behar izan duena?

Xabier Altzibar lagunak zilatatu du misterioa. *Pilota partida* deritzon atalean, izenburuak dioskun bezalaxe, Lekornen jokaturako esku huskako partida antologiko bat kontatzen digu Etxeparek, alegia, idazle batek nekez aurki lezake zeozer garbiagorik gaitzat hartzeko. Herriko jaietan beraz, hiru hazpandar eta hiru lekondar arituko dira norgehiagoka, eta Etxeparek hori-

xe marraztu digu bere luma zoliarekin. Partida amaitutakoan, kontakizunaren azken esaldian, han doaz hazpandarrak Hazparnerako bidean:

Hara hok jadanik hanche, badoazila
etcherat beren emeak besoan, biho-
tza beldurrarekin pil pil...

Hara hok jadanik hanche, badoazila
etcherat beren neskak besoan, biho-
tza beldurrarekin pil pil...

Azken esaldi hori modu bitara irakurri duzu, batean jatorrizkoa, Etxeparek eman bezala, eta bestean Piarres Lafittek zentsuratutakoa. Konturatu al zara berba-aldaketaz? Batean *neskak* dio, eta *emeak* bestean. Igarri al duzu zein den jatorrizkoa? Bai? *Emeak* erabiltzea hain “ozar” eta lotsagaldua ote da, non *neskak* jartzera derrigortu baitzuen Lafitte kalonje lotsorra, Lotilandiako euskaldun garbien begi-belarriak ez mintzearren? Ezin dut *kapiskatu*. Horrelakorik! Uste dut berba-aldaketa ezinago xume horrek ederto ilustratzen duela norainoko giro itogarrian bizi izan zen Aldudeko medikua.


1980. urtera arte itxaron behar izan da, zentsurarik gabeko *Buruxkak* berriro argitaratzeko, hau da, lehen porrotaren hirurogeita hamar urte beluago. Baina, Jurgi Kintanak adierazi bezala, 1910ean goizegi ibili bazen, 1980an beranduegi izan zen Etxeparerentzat, izan ere, ordurako zimelduta zegoen *Buruxkak* liburuak idatzi zenean zekarren berritasuna. Gainera, Kintanaren ustez, Etxepareren euskara joria urrunegia begitandu zitzairen irakurle berriei, bereziki Hego Euskal Herrikoiei, eta kikildu egin ziren. Kontua da inolako interesik sortu barik igaro zela 1980ko argitalpena, urte horretan plazaratutako gainerako ehunka liburuen artean galduta. Izatez, bai egon zen obraren balioaz ohartuta pare bat artikulu *Argia* aldizkarian –Txema Larrea eta Txelis Alvarezek, hurrenez hurren–, baina inolako oihartzunik gabe.

Jean Etxepare idazlearen eragina hutsaren hurrengoia izan da bai orduan eta bai egun, eta izatez, Aldudeko medikuaren aukera estilistiko eta estetiko zorrotz eta ausarta gailendu beharrean, Jean Barbier, Jules Moulier *Oxobi* eta Jean Elizalde *Zerbitzariren* bide herrikoiei eta hego-laburra izan da nagusi zena.

LÉGENDE TENACE BAT?

Sasoi batean –Tere Irastortzak dioenez, liburuak forratzen ziren garaian– nahikotxo ibiltzen nintzen Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca* liburua orrialdeetan atzera eta aurrera, gure Parnaso txikiko izen erabat ezezagunak deskubritzen eta, aldi berean, irentsi nahian. Pozarren arakutzen genituen hango lerro-sailak, erruz eskaintzen baitzizkiguten gure ezjakintasun historikoa ase eta betetzen zuten datuak. Denetarik aurkitu nuen bertan, baina, badaude hiru kontu, gainerakoen aldean buruan fresko gelditu zaizkidanak. Izatez, ez dute zerikusi zuzenik gure literaturarekin, baina, anekdotekin gertatzen dena, eurokaz gogoratu eta, batera, hari beretik beste makina bat datu bururatzen zaizkit.

Harrituta utzi ninduen Martin Hiribarrenen heriotzak. Azkainen jaio zen 1810ean, 1833an apaiztu, eta tetanoak hil zuen Baionan, 1866an, bertako ohorezko kalonjea zelarik. *Eskaldunak* (1853) poema da bere idazlanik ezagunena. Urte berean argitaratu zuen *Montebideoko berriak*, euskaldunen emigrazioaren kontra egiteko paratu zuena, lehen kapituluaren ikusi dugunez. Kontua da ze, behin baten, sagrarioa ixtean atzamar bat harrapatu eta zoldu egin zitzaioela: tetanoak jota utzi zuen gure negar-herri hau. Gogoratzen naizen bakoitzean tente jartzen zaizkit ile-ondo guztiak.



Jean Martin Hiribarren (Azkaine, 1810; Baiona, 1866). Urruña eta Bardezeko erretoea izan eta gero, Baionako kalonje izendatu zuen 1865ean. *Eskaldunak* (1853) poema da haren idazlanik famatuena: erudizio handiko liburu horretan hainbat datu daude ohitura, joko, pertsonaia eta abarren gainean. Urte berean *Montebideoko berriak* argitaratu zuen, eta 1858an *Eskaraz egia*.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

Gerhard Bähr (1900-1945) legazpiarra Udanan jaio eta hazi zen, aita bertako meatzetako gerentea zelarik. Gaztetan euskaltzaletu zen, eta Euskaltzaindiarekin kolaboratu zuen. Hainbat artikulu plazaratu zituen *Euskerara* eta *RIEV* aldizkarietan, batzuk euskaraz. Familia Alemaniara itzuli zenean, Gerhard ere hara joan zen, eta Göttingen-eko unibertsitatean “Baskisch und Iberisch” (Euskara eta Iberiera) tesia defendatu zuen. Bigarren Mundu-Gerlako zenbait frontetan parte hartu eta gero, Berlinen hil zuten gerlaren azken egunetan, tropa errusiarren kontra borrokatzen. Villasanteren liburuak badakartza Gerhard Bähr-en gaineko beste xehetasun gutxi batzuk ere, baina, benetan zur eta lur utziko zaituena, Gerhard Bähr-en gorputz osoko argazkia da, Lufwafeko uniformeaz jantzita, edonongo hondartza triste batean. Batez ere, haren begirada miopea eta bibote motza.

Villasanteren liburuko nire hirugarren flasha, *Buruxkaken* bahiketaren afera izan zen. Aurreko atalean liburu-bahiketaren gainean eman ditugun arrazoiak nahikoa prosaikoak izan dira, eta, kontua den bezala esateko, lainopean gelditu zaigu 1910. urteko hasieran jazotako hura. Villasantek plazaratu digun azalpena ez da, beharbada, argi goa izanena, baina bai, zelan esango dut, askoz erromantikoagoa, eleberri zaharretako amodioa izaten den bezala. *Buruxkaken* kapitulu biziki ausart bien derrigorrezko aipamenaren ostetik, Villasantek folletoi batekoa litekeen ondoko hau diosku:

Antes de ponerlo en circulación, el autor envió un ejemplar del mismo a su prometida. Cuando ésta leyó dichos capítulos, rompió el libro y cortó para siempre sus relaciones con el autor. Este golpe, así como las advertencias de algunos amigos, le hicieron reflexionar y desistió de poner en circulación el libro, aunque no dejaba de regalarlo a tal o cual persona de confianza.

Beste gauza asko ahaztu arren, aurreko pasarteak bizi-bizirik iraun du nigan. Zer dela-eta? Kontrastez, seguruenez. Villasanteren liburua irakurriz ateratzen duzun lehen inpresioa da, euskal literaturaren historia fraide- eta apaiz-segida grisa dela, eta, alde horretatik, kolorez beteak begitantzen zaizkizu agertzen diren laiko apurrak. Sorta ezdeus horretan, esan gabe doa, kolore berebizikoa du Jean Etxeparek, eta, oroz gain, Villasantek kontaturiko haustura dramatiko bikoitz horrek. Imajina ezazu lehen haustura (*rom-*



Gerhard Bähr (Legazpia, 1900; Berlin, 1945). Udanako Katabera meatzetako gerentearen semea, gaztetatik hurbildu zen euskararen mundura eta Euskaltzaindiarekin kolaboratu zuen. Familiarekin batera Alemaniara itzuli zenean, *Baskisch und Iberisch* –euskara eta iberiera– doktore-tesia defendatu zuen Göttingen-en. Bigarren Mundu-Gerlan itzultzaile gisa aritu zen hainbat frontetan, eta gero Berlinen interpretarien irakasle. Gerlaren azken egunetan hil zuten.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

pió): andregaiak amorrubizian liburua apurtzen, edo, gurago baduzu, osorik irakurri eta ostean orrialdeak erauzi eta esku-ahurretan zeharo zimurtzen mekanikoki, begirada nonbaiten galduta. Imajina ezazu bigarren haustura (*cortó*): andregaiaren eskutitz hotz bat, harreman kasik hasi berriari behinbetiko kitoa emanez, edo, bestela, igandeko meza nagusiaren ondotik, mantelina buruan, mallo gaziak eta gaitzespen isilak nahasiz. Nobela zaharretan bezala.

Villasanteren pasarte horrek, kontura gaitzezen, beste datu interesgarri bat opetsi digu isilka-misilka: frakadunen edota sotanadunen orduko euskal munduan *Buruxkak* liburuak *irakurlesa* bat eduki zuela. Bigarren irakurlesa bat ere ukan zezakeen Pauen: horixe pentsa dezakegu, Piarres Lafitteren aleak dakarren Etxepareren eskaintza autografoa irakurriz, zeren “Andere Barrère Pauekoari” dedikatuta baitago, 1919ko urrian.

Aspaldikoa da Villasanteren nire irakurketa hori. Oraintsuago, baina, Jon Casenaveren tesian barrena ibili naiz, Etxepareren nondik norakoa ulertu eta dagozkion koordinatuetan kokatzeko. Altxor-kutxa horretan azalpen asko aurkitu ditut, kontu benetan interesgarri eta argigarriak. Eta halako batean, 527. orrialdean oin-ohar bat:

Une “légende tenace” veut que la fiancée du médecin ait rompu son engagement à la suite de cet épisode.

Alegia, Jon Casenaveren arabera, “legenda setati” bat da Etxepare andregaiak abandonatua izatearena. Nire begietarako, oin-ohar horrek fundituta utzi zuen, Jean Etxepareren biografiako daturik erakargarrienetariko bat, are okerrago, euskal literatura osoko jazokunerik erromantikoetariko bat. Melodrama single horrek aparteko xarmaz tindatzen du Etxepareren irudia, eta, alde horretatik, sinesgaitza suertatu zitzaidan oharra, edo, hobeto esateko, irentsi ezinekoa. Nolanahi, dudaren itzala zabaldu zidan: zer egin nezakeen Villasanteren bertsioaren ondarea egiaztatzeko? Argitu beharreko kontua deritzot.

Piarres Xarritonegaz lotu nintzen, Sarako Biltzarrean. Jean Etxepareri buruzko edozer galdetzekotan, nori, haren obra osoaren biltzaileari baino hobeto? Beste hainbat konturen artean, Xarritoni legenda setatiarena aurkeztu nion. Amultsuki, Piarresek erantzun luzea eskaini zidan, datu, azalpen eta konfidentziez josia. Adierazi zidanez, Villasantek Piarres Lafitteren ahotik jaso zuen andregai saminduaren istorioa. Izan ere, duela urte-mordoa, apaizgaitegian, Piarres Lafitte irakasleak Xarriton ikasleari ere kontatu zion hausturaren episodio osoa, eta, berorrek goitik behera errepikatu zidan, 2002ko apirilaren bateko bazkaloste gogoangarrian. Baietz, zehaztu zidan, Etxepareren emaztegaia bene-benetakoa izan zela, Xabañotar bat zela, eta gerora mutxurdin hil zela, Arrosako apaizaren gelari. Gainera, apaiz horren izeba zela. Izatez, anaia bi zirela apaiz, Mixel eta Josef Gosterratxu, lehenengo, Arrosan, eta bigarrena, Urruñan eta geroago Baionan kalonje. Makina bat xehetasun luzatu zizkidan Xarriton orojakileak, batzuk Piarres Lafitteren lekukotasunaren bermearekin eta besteak Xarritonek berak eza-gaturikoak, eta bai proposatu ere beste aukera osagarri bat hausturaren

azalpenerako: Lafittek kontatu zionez, Aldudeko medikuak bazeukan emazte-zale-fama amiñi bat, eta, beharbada, litekeena da, liburu ausartaz aparte, andregaiari ezin jasanezkoa suertatuko zitzaiola idazlearen gona-erredoren bat. Beharbada.

Esan gabe doa, Xarritonek kontaturikoa bat dator guztiz Villasanteren bertsioarekin, eta horrek ezin gehiago poztu zuen nire kolko mitomaniakoa. Hala ere, Jon Casenaveri e-mail bat bidali nion, jakin gura bainuen zertan oinarritzen zen, andregaiaren afera “legenda setati” izendatzeko, eta era hain kategorikoan. Kontua da Jon Casenave lekuko zuzenen esanetan oinarritu dela, eta ukatu egin diotela episodio osoa zalantza-izpirik gabe: “hango emazte xahar batek gauza segurtzat utzi daut”. Zer pentsatu? Zer egin?

Telefonoa koiu eta atzera ere Xarritoneguz egin nuen berba, eta bai eskatu ere, ahal zuen neurrian argi zezala auzia. Xarritonek joan-etorri bat egin zuen Aldudera.

Catherine Xabaño izan zen Arrosako apaizaren gelaria. Xabaño deitura lehenago agertu zaigu, Joanes Xabaño misionista aurkeztu dugunean. Izatez, Catherine Xabaño (1882-1962) haren lehengusina zen. Mañex eta Mixel Xabaño anaiak Uruguai aldetik itzuli ziren Aldudera 1878an, amerikak elkarrekin eginda, eta batera ezkondu ziren hurrengo urtean, lehenengo Xotroeneko alaba premuarekin, eta Mixel gaztea Auzkia etxearekin. Auzkian, Catherinez gainera, beste ahizpa bi jaió ziren, Marianne zaharrena (1881-1966), eta Jeanne (1889-1970).

Auzkia etxe Setoain anderea Marianne Xabaño zenaren alaba da, eta sei urte inguru zeuzkan 1923an, Jean Etxepare ezkondu zenean. Argi eta garbi adierazi zion Xarritoni ezinezkoa dela hausturaren istorioa. Batetik, *tanta* Catherine probabilitate oso txikiko emaztegaia zatekeen, moja joatekotan egon baitzen betidanik, eta, izan ere, ez omen zen begi-betegarria, ez lakrikuna. Alde horretatik, zorioneko andregai nonor izatekotan ahizpa gaztea izan zitekeen, Jeanne edo Joana, askoz pospolinagoa. Baina, bestalde, Setoain andereak ondotxo gogoratzen du Jean Etxepare sarritan joaten zela Auzkira, eta ia etxekotzat zeukatela. Pentsatu ezinekkoa da, beraz, lehenagotik horrelako istorio malkorrik gertatu izan zitekeenik.

Setoain andereak niri ere errepikatu zidan antzeko zeozer 2004ko udako eguerdi sargoritsu batean: Jean Etxepare *intelektuala* maiz egoten zela etxean, Auzkin, baita ezkondu eta gero, Fernande Kamino emaztearekin batera. Are gehiago, Setoain andereak esan zigunez, tanta biak oso lagunak ziren Etxepareren emaztearekin. Itxura batean, guri kontatzean Setoain andereak begien aurrean ikusten zuen eszena osoa, eta halaxe azaldu zigun: medikua badoalarik bertan ahaztutako emazteak atzetik diotsola *Et moi, Kuanzito?* Juancito Etxepare intelektual despistatuari behin baino gehiagotan gertatu omen zitzaion hori, despeditzeko unean.

Setoain anderearen oroitzapenak nekez batera daitezke Lafitte eta Villasanteren bertsioarekin. Kontrajarriak dira. Nor dago oker? Nondik dator makurra?



Auzkia etxea, oraintsuko argazki batean.
(K. ALTONAGA).


Argitzeke dago Piarres Lafitteren bertsioaren jatorria. Jean Etxeparek berak egindako konfidentzia bat izango da, ala orduko zurrumurruren bat? Luzaroan eduki nau kezkatuta kuestio horrek, eta, dena esateko, burukomina izatera ere iritsi zait lantzean-lantzean. Baina, azkenean erantzun txalogarri bat paratu zitzaidan begien aurrean, 1964ko *Gure Herria* aldizkaria berriro arakatuz: konexio ederra eskaintzen digu Aldudeko ustezko gertakizunen eta aita Lafitteren artean. Hortaz, nire iritziz Lafitteri Mixel Iriartek kontatuko zion zerbait, edo zerbait baino gehiago. *Gure Herria* aldizkarian aurkitu dudanez, Mixel Iriart baigorriarra Aldudeko jaun erretorea izan zen 1907-1918 tartean, eta, beraz, ederto jakingo zuen herrian urte horietan jazotakoa; besteak beste, berri zuzena edukiko zuen medikuaren gainean. Posible da Mixel Iriartek berak ere liburua irakurtzea, Izturitzeko apaizak bezala, eta balizko andregaiari, konfesioz-edo, agintzea medikuarekikoa apurtzea. Lafittek idatzi duenez, “Iriart jaun apeza ez zen nor nahi. Uztaritzeko erretor-nausi ezagutu dugu. Predikari harrigarria zen euskaraz, eta izkiriatzaile gaitza orobat: *Eskualduna* astekarian zonbait urthez zoin ederki ez du *Ebanjelioa* argitu”. Mixel Iriart 1918tik 1929ra izan zen Uztaritzeko erretorea. Litekeena da, nire ustez, Mixel Iriartek kontatutako zerbaitetan oinarritua izatea Lafitteren bertsioa, baina, Lafittek, beharbada, ahizpak nahastuz eta gertaerak biziagotuz; geroago, Villasantek melodramaren mailaraino eroango zuen kontu guztia. Dena dela, ondo ehunduta dago istorio osoa, eta ondo baino hobeto egokitzen zaio Etxepareren izaerari, behintzat ez du gaizki ematen.

Egia esateko, nik neuk nahiago nuke errefusaren episodioa benetakoa balitz. Kasurako, Edward Spencer Dodgson (1857-1922) euskaltzale xelebrea ere begikoagoa egiten zitzaigun Lewis Carroll idazle famatuaren anaia zela uste zenean. Charles Lutwidge Dodgson da *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* liburu ezagunaren egilearen egiazko izena. Dirudienez, nahaste horren hasieran Mitxelena bera egon zen, Dodgson biok ahaidetzat jo baitzituen, eta okerra nahikotxo zabaldu da gerora. Okerrak oker, begikoagoa zitzaigun Lewis Carroll-en anaia ustezkoa, Edward Spencer Dodgson soila baino. Era berean, glamorosoagoa zaigu –eta orduko giroaren adierazle bikaina–, Etxepare andregaiak errefusatua.

MEDIKU ANARKISTA ETA MEDIKU ELE-EHIZTARIA

“Aldude” sarrera begiratzean, 2000. urtean 395 biztanle zeudela irakurri dut entziklopedian, baina, biztanle-kopuru hori beherantz etorri da etengabe XX. mendean barrena: 1896an, 1150; 1901ean, 1077; 1926an, 980; 1936an, 960; 1954an, 851; 1962an, 807; 1968an, 718; 1975ean, 586; 1982an, 483; 1990ean, 433. Zenbaki hutsak izan arren, badirudi bakardadeaz eta tristeziaz mintzo direla, Madredeus musika-talde malenkoniatsuaren antzera.

Alabaina, Alduden benetako eztanda demografikoa gertatu zen, XIX. mendearen lehen zatian, izan ere, 1800. urteko eroldako 1323 biztanleetatik 2871 arimatara pasatu zen 1846koan. Hau da, bikoiztu egin zen mendeerdian. Jakina, kopuru horren barruan Urepeleko biztanleak ere bazeuden,



Urepele Aldudeko udalerrikoa izan baitzen 1862ra arte; urepeldarrak heren bat-edo izango ziren. Nolanahi, populazio-hazkunde nabarmen hori ez zen gertatu izan soilik jaiokuntza-tasa handi baten ondorioz: artean Aldude kolonizazio-lurraldea izan zen, eta Baigorriko jende asko kokatzen zen bertan, 1800ean 5500 biztanle inguru bizi baitziren Baigorri jendetsu horretan. Ikusgarriak dira Viers-ek dakartzan mende-hasiera horretako Aldudeko populazio-datuak:

1800ean 1323 biztanle 204 etxetan,
 1804an 1653 biztanle 230 etxetan,
 1820an 2226 biztanle 295 etxetan,
 1826an 2464 biztanle 314 etxetan.

Esan gabe doa, abiada biziz bete zen lurralde osoa, eta lur erabilgarri oso gutxi gelditu zen konturatu orduko, alegia, saturazio-puntua lortu zen. Izatez, 1826tik aurrera ez zen etxe gehiagorik eraiki, baina, lehenagotik ere beherakada bat gertatu zen urteko ezkontza-kopuruetan. Okuntza-lur berririk gabe, Aldudeko gazteek gurasoen etxean lotu behar zuten, eta etxe bakoitzeko biztanle-kopuruak gora egin zuen etengabe: 6,5 lagun 1800ean, 7,2 lagun 1804an, 7,5 lagun 1820an eta 7,8 lagun 1826an. Amerika izan zen presio demografiko itzel horren ihes-balbula, eta, kasurako, 1841eko errol-dan, Alduden zerrendaturiko 2832 biztanleetatik, 133 lagunek “Montevideon dago” aipua daramate oharpenen zutabeetan. Areago, ez dago Aldudeko etxerik 1830 eta 1860 urteen artean Ameriketara gutxienez seme bat bidali ez duenik. Familia batzuk oso-osorik joan ziren.

Oso interesgarria da Aldudeko auzapezari Montevideotik 1837an igorritako txostena: *Notes sur la conduite et la position des émigrés aldudiens qui se trouvent dans la République Orientale de l'Uruguay*. Orduko alkatea Charles Schmarsow mediku altsaziarra zen, eta bidaltzailea Salbat Larre, berau ere zenbait urtez Alduden mediku egondakoa. Txostena, dirudienez, alkateak agindutakoa da, eta aldudarren egoera materialaz eta moralaz dihardu. Banan-banan aipatzen ditu aldudar guztiak –hogei bat lagun–, eta bizpahiru zertzeladatan agertzen ditu euren neke eta pozak. Irakurritakoan, inpresio gazi-goza gelditu zait ahoan. Ikus dezagun, adibidez, Zaldubeheren kasua (gutunean Çaldubehere dakar):

Il gagnait jusqu'à présent 33 patacons par mois dont il ne dépensait pas peut-être deux. Maintenant il a entrepris l'exploitation d'une

- (1)
 Aldude'ri begira
 lorian nago ni,
 hartakotz dazkot egun
 pertsu hok eskaini,
 nola dagon izaite
 bizi bat iduri
 Sorogain'i begira,
 bizkarrez Baztan'i.
- (2)
 Bizkarrez dago bainan
 anaia du Baztan,
 berex badaude ere
 zonbait urte hautan,
 ez daude berriz ere
 amodio faltan,
 amultsuki hartzeko
 elgar besoetan.
- (7)
 Aldude'n, Urepele'n,
 Kintoa'n, Esnausu'n,
 dakigu badugula
 zerbait anaitasun;
 guziek gogo beraz
 hitzeman dezagun
 beti zinez egonen
 garela euskaldun.

–Xalbador: *Odolaren mintzoa*–.

(ARG.: GURE HERRIA –1964–, ETA K. ALTONAGA).

carrière. Il est d'une très bonne conduite, très économe et néanmoins très exact pour payer ses plus petites dettes. Hits bates arras guïçona da. C'est bien dommage que les Aldudiens qui sont ici ne lui ressemblent pas tous.

Egia esateko, ez dakit hor aipatutako sosaren balioa zein izango zen, baina, tumatxa iruditu zait *patakoï* bigaz hilabetea pasatzea: zer-nolako bizimodua ote zeraman Zaldubehere delako horrek? Eta zer-nolako gainerako aldudarrek, baldin eta txostengilearen iritziz tamalgarria bazen Zaldubeherearen antzekoa ez izatea. Gainerako horien bizimodua mota askotakoa zela erakusten du txostenak, baina, edozelan ere, Alduden baino askoz laxoagoa zela. Uruguaiako aldudarren artean ez dira falta edatunak eta apustuzaleak, edota, igandetan astebarruko etekina xahutzen dutenak kartetan eta trinketeen. Muturreko kasu batera joanda, Pierre Tihistarena eta Etxeberrigarairena aipa genezake. Salbat Larrerren gutunak dioskunez, aldudar bi horiek San Salvadorren zeuden, Montevideotik hirurogei legoara, hiriburu tentazioetatik urruntzearren:

Il y a dans cette ville [hots, Montevideon] six jeux de paume (bi trinquet, bi boteco-plaçà, arrebote bat eta plaçaco toqui bat) beaucoup de femmes publiques et de pulperias [...] Tous établissements qui causent la perte des naturels du pays et de beaucoup d'étrangers.

Txostenaren arabera, aldudar zintzoek aholkatu zieten Tihista eta Etxeberrigarairi Montevideoko giro galgarria utz zezaten. Dena dela, lagun bi hauen inguruko argibideen amaieran, txostenak ondokoa adierazten digu:

Les jeunes gens qui sont adonnés à la paresse, au jeu, aux femmes ou au vin pourront bien être ici plus heureux qu'en France, mais ils n'y feront jamais d'épargnes.

Hau da, hainbat aldetatik begiratuta Montevideoko bizimodua Aldudekoa baino zorionsuagoa izan zitekeen, baina, era horretara ezin dirurik aurreztu. Kontua da, gutun horretan zuzenean irakur daitekeenez, Montevideoko euskaldunen hiru laurdenen jokabidea ez dela inola ere eredugarria. Txostenaren datuak laburbilduz-edo, Salbat Larrek hurrengo ziotson Aldudeko alkateari:

Je vous donne ma parole d'honneur la plus sacrée que tous les Basques sont mieux ici qu'en France s'ils sont de bonne conduite. Ils se fatiguent moins, gagnent plus et sont mieux nourris puisque la base de leur nourriture est le pain blanc et la viande de boeuf.

Konturatu zarenez, Salbat Larrerren txostenaren arabera, Montevideo bizimodua Aldudekoa baino hobea zen zalantzarik gabe, edozein aldetatik begiratuta: batetik, zintzoki jokatzeko zuten euskaldunak gutxiago nekatzeko ziren, gehiago irabazten eta hobeto elikatzen; oster, bizitza limurian eroritakoak zorionsuagoak ziren, dirurik aurreratu ez arren. Alternatiba

biak horiexek izanda, ez da harritzekoa Salbat Larre Montevideon betiko gelditzea, gainerako aldudar gehienek egin bezalaxe; izan ere, ginoan oso-oso gutxi izaten baitziren itzulitako indianoak. Aldudarren gehiengoak Uругuai aldean plantatu zen behin-betiko.

Dela bizimodu hobearen bila edo dela abentura bila, Ameriketarako bidea izan zen, esan bezala, presio demografiko galantak aurkitu zuen ihesbalbula, eta era horretara beherantz egin zuen Aldudeko populazioak. Beherantz, eta gainera oso-oso azkar; izan ere, Aldudeko kasua guztiz aipagarria da, eduki izan dituen emigrazio-tasa handiak direla-eta, ondoko Bankak eta Urepelek bezala. Kontuak horrela, hemeretzigarren mendeko amaieran mila eta berrehun biztanlera murriztu zen herrian bizi zirenen kopurua. Alabaina, 1900. urtean ere 24 lagunek utzi zuten Aldude Ameriketara joateko, hain zuzen, Kalifornia aldera jotzeko, eta hurrengo urteetan ere beste hainbat eta hainbat. Ildo horretan, oso esanguratsua da, esaterako, Etxepare medikuak zenbait urte geroago, 1930ean, idatzi zuena:

Alduden eta Urepelen bizkitartean [...] gaude erdi lotsatuak. Bi herriak, "piran-piran" urtzen ari dira, jendez husten: besoak urtetik urtera gutiago; gelditzen direnak ere ahulskoak. Hiriek baino gehiago oraino, Amerikak ari gitu husten. Hanitzak badoazi harat eta gutiak itzultzen. Langile eskasia gorrian sartuak gira.

Dirudienez, Aldude ez zen Montevideo edota Kalifornia bezain atsegingarri, baina, bestalde, 395 biztanleko egungo Aldude ez da ordukoak. Esan gura dut, XX. mendearen hasierako mila biztanleko Aldude hori ez zen hain estres-eragilea izango, baina, ziurrenez gaurkoak baino bizitasun handiagoa edukiko zuen, saltsa gehiago. Hau da, Jean Etxepare eszenategi horretan kokatzen dugunean, ezin dugu egungo Alduden begietaratu, ordukoan baizik. Beharbada Aldude mendi-txokoa bazterregi zegoen Etxepare *Cercle d'Etudes euskariennes* taldearen bileretara joan ahal izateko, baina ez dut uste bertan bakardaderik sentituko zenik. Nolanahi, gure mediku saio-gilea 1905ean joan zen indiano-harrobi horretara, eta uztailean han finkatu zen, plaza gaineko Uhidea etxean –XX. mendearen azken hamarkadan eraitzia–. Bertan eman zituen hurrengo hogeita bost urteak, Gerla Handiaren etena aparte.

Jean Etxepare, izatez, Elosu jaun medikua ordeztera joan zen Aldudera. Etxeparek artikulu bat dedikatu zion *Eskualdun Ona* astekarian, ohar batzuk eskainiz haren bizitzaren eta izaerari buruz, eta bai, bide batez, orduko Euskal Herriaz ere. Fernand Elosu medikua hiru urtez egon zen Alduden, bere emazte gaztearekin, eskolak Bordelen amaitu eta berehalakoan. Etxeparek baionarra zela badiosku ere, gainerako iturrietan Fernand Elosu Bordelen jaiotzat ematen dute, 1875ean. Halaber, badiosku, esan, Elosu medikua ez zela ondoegi moldatu Aldudeko parajeetan: euskara hitzik ez jakiteaz gainera, senar-emazteak osoki desberdinak ziren bertakoen aldean. Honelaxe azaldu digu zelakoa zen Elosu jaun medikua:

Laster ohartu ginen, jauna ez zela, hurbilik ere, guri eman zen medikua. Gure artean zerabiltzalarik bere urratsak, gogoia arrunt hirian zadukan:

laborantza ez laket, iduriz bederen; lurra bere baitarik, behinere gelditzen ez den itzulika batean, sortzen dituen bihi, lore, zuhaitz miragarriak ez zakoten ukitzen bihotza. Zertan dute hok alabainan erakusten gizona ahal edo jakitatea? Ez zuen eskerrik harek, gizonak bere aztaparrez, dakielarik zer ari den eta nola, egiten dituen bezala. Zura ala harria ederki lanturik, tinduak, musika, ahospidez eta lumaz zerbeit direnak, mekaniken alha, zeruetako gora beherez jakin ditzazkegun berri xumeak, horra zer zuten haren begiek eskatzen, horra zerek bakarrik zezaken haren gogo asea, xora haren izpiritua.

Kontua da deskribapen horrek marrazten duen medikua, Elosu jaunaz bestalde, Etxepare bera ere izan daitekeela, hainbat xehetasunetan. Pertsona intelektual bat dakusagu hor eman digun potretetan, eta zeharo ondo egokitzen zaio gure medikuaren gainean ezagutzen den horri. Etxeparek ere “gogo arrunt hirian zadukan”, besteak beste. Horrela izanik, harrigarria da pentsatzea, Elosuk hiru urteren ostean ospa egin bazuen ere, Etxeparek hogeita bost urtez jasan zuela Aldudeko giro letrabakoa, alegia, artikulua horretan bertan deskribatzen digun hori:

Bainan Euskal-Herria ez da jakitatearen lekua. Baditeke laborariak ez dakien ere oraino zer den hitz horrek golkoan daukana.

Fernand Elosu, izatez, militante anarkista aski ezagutua izan zen, ideia neomalthusiarren (amatasun kontzientea, amodio libre, eta abar) propagandista. *L'amour infécond, limitation raisonnée des naissances* liburuxka argitaratu zuen Baionan (1908), justiziarekin arazoak ukan zituen, eta Sauveur Harругet garaztarrak euskaralatu omen zuena. Medikua ezaguna izanik, Giza Eskubideen Ligako presidente bilakatu zen 1910ean, Baionan. Hainbat aldizkari libertariotan idatzi zuen, eta bai parte hartu ere Sébastien Faure-k zuzenduriko *Encyclopédie Anarchisten*. 1919an preso sartu zuten ilaurtze batzuetan parte hartzearen, eta *En prison, Souvenirs de la Maison d'Arrêt et de l'Hôpital de Bayonne* (1920) ondu zuen. Pazifista zelarik, *l'union sacrée* delakoa –batasun sakratua– errefusatu zuen Gerla Handiaren sasoiaren, eta hori dela-eta asko jazarri zitzaion. Bigarren Mundu-Gerlan atxilo egin zuten komunista izatea leporatuta, eta kartzelan hil zen 1941ean, pneumoniak jota.

Nire susmoa da, Jean Etxeparek ez ote zuen Elosu medikua gogoan edukiko *Amodioa* idaztean, notarioaren pentsaera plasmatzeko.

Jakina, Elosu baino askoz hobeto egokitu zen gure Etxepare aldudarren artean, baina, medikutzat meriturik kentzen ez bazioten ere, oso txirenetzat zeukaten. Horrelako zerbait kontatu zioten Piarres Lafitteri Beloken, Aldudeko hiru ikaskidek:

Bai miriku on eta artatsua egiten zuten, bainan bitzia. Euskal izen-keta zabilan: Heldu zitzaizun etxerat lore batekin edo belar-ondo batekin, edo harri muger batekin, jakin nahiz nola Aldudarrek emaiten zioten izena.

Maiz iduri zuen nonbait galdua. Behor bat zuri-zuria bazuen erien ikusterat joaiteko. Askotan eskapatzen zitzaion eta haren ondotik bazabi-

lan orduan lasterka: *Honorine! Honorine!*, dei egiten ziola. Atxeman-eta polliki egiten ziozkan erasiak frantsesez, beti “zu”-ka: *Voyons, Honorine, pourquoi me faites-vous ça à moi? Vous savez que je ne suis pas méchant. Tenez, prenez moi ce sucre!*

Xelebre izate horren erruduna, neurri batean Pierre Buruzain izango zen, hau da, Hazparneko medikua. Izan ere, 1911ko udan Georges Lacombe euskaltzaina joan zen Aldudera egonaldi baterako, eta gerora hainbat biderrez itzuli zen, Gerla Handiaren ostean ere, Aldudeko euskarari buruzko tesi bat osotzeko asmoz. Horretarako, bertako apaizak, Mixel Iriartek, lagundu behar zion. Bada, badago eskutitz bat Pierre Buruzainek Lacomberri 1911ko abuztuaren 6an Aldudera bertara bidalia, aholkatuz Jean Etxeparengana ere jotzeko, zeren, “il vous sera d’une très grande utilité pour vous enquêtes sur la langue basque”, eta bide batez, hor diotso *Zamukain* dela Alduderen euskal izena (izatez *Zamukegi* da, baina egun oso baztertuta dago). Orduan hasi eta 1932ra arte, Etxeparek ehun eta hogeitaka gutun bidali zizkion Lacomberri, azken-azkenekoak Kanbotik, Aldudeko euskarari buruzko mila eta bat xehetasunez ohartaraziz. Esan daiteke hein handi batean Etxeparek egin ziola landa-lana, *field-work* delakoa, baina, zoritxarrez Lacomberen tesia ez zen burutu. Xarritonek argitaratu ditu aipatu eskutitz interesgarri horiek guztiak, eta jaso ahal izan duen materiala baliatuz, batzuetan elkarrizketa epistolar oso interesgarriak berregin daitezke. Ikusi kasurako, besteak beste zer ziotson Pierre Buruzainek Lacomberri 1912ko urriaren 31ko eskutitzean:

Demandez, je vous prie, à mon ami Etchepare le nom basque de “fleur” dans les villages de Eugi [sic] et Silbeti [sic], près d’Urepel. Il ne le connaît probablement pas, mais il lui sera facile de se procurer en interrogeant ou en faisant interroger des indigènes de ces deux villages. Il y a une quinzaine d’années, j’avais passé 4 jours sur la montagne d’Ahadi avec les bergers et l’un de ceux-ci m’avait donné le nom de la fleur en basque de la Haute-Navarre, mais je l’ai oublié. Ce n’est ni *lili*, ni *lore*, bien entendu. J’ai gardé l’impression que c’est un mot de deux ou trois syllabes, finissant par *-tin* ou *-lin*. Ce serait un vocable précieux à recueillir. C’est dans les villages de Espinal, Eugui, Silveti, qu’on pourrait le retrouver. Dites à Etchepare, de ma part, de se mettre en chasse. Le gibier vaut qu’on le poursuive.

Beste eskutitz batean, berriro Buruzainek ondokoa diotso Lacomberri, 1913ko urtarrilaren 31n:

Merci de votre communication au sujet du mot “fleur” employé à Silbeti d’après Etchepare. Ne s’est-il pas trompé? Ne serait-ce pas *pintsilin* au lieu de *pintsilint*? Cette dernière forme paraît, en effet, étrangère à cause de la finale en *-int* plutôt qu’à cause du p initial.

Tartean beste gutun batzuk galdu direlarik, honako hau azaldu zion Etxeparek Lacomberri 1913ko martxoaren 14an:



Georges Lacombe (Orthez, 1879; Paris, 1947). Filosofia ikasi zuen Parisen, baina oso gazte hurbildu zen hizkuntzalaritzara. *Revue Internationale des Etudes Basques* aldizkari idazkaria izan zen (1907-36), Eskualzaleen Biltzarreko buru-lehena (1911-12), eta euskaltzain osoa, 1920tik aurrera. Hamalauko Gerlan besoa galdu zuen.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

Excusez-moi de n'avoir pas répondu à votre lettre de fin janvier. Je ne trouvais quoi vous dire. J'ai bien cherché à percer le sens exact du vocable *pintsilint*, mais en vain. Les trois personnes que j'ai interrogées à ce sujet m'ont, sans me comprendre, regardé avec ahurissement.

J'ai le vague pressentiment que *pintsilint* ne signifie *fleur* que depuis fort peu de temps, et par extension il devrait exprimer à l'origine l'idée d'ornement quelconque suspendu à une tige. Il me sera vraisemblablement possible de vérifier la chose lors de la fête locale des Aldudes où se donnent rendez-vous nombre d'Espagnols d'Euguy et des environs.

Hortik aurrera, *pintsilint* ez da gehiago agertu begiratu ditudan gutun-degietan, oker ez banago, eta horrenbestez ezin izan dut berba horren kontua argitu. Ziurrenez, Etxeparek premiazko azalpen guztiak emango zituen galduko zen eskutitzen batean, baina, gaur-gaurkoz ezin dut istorio hori biribildu hemen: *Orotarikoak* ere ez du sarrera hori jaso. Zernahi gisaz, Belokeko ikaskide aldudarrek Lafitteri kontatu bezala, Etxepare jaun medikua ele-ehiztari porrokatua bilakatu zen, eta "izen-keta zabilen" gogotsu herritar guztien harridurarako, are eta inguruetako herrietakoenerako ere.

Jakina, horrelako gizasemea, tximeletak-eta ehizatzen dituen lez, ikus-kizun aparta suertatuko zen Aldudeko bazterretan, eta hortik atxikiko zuen xeble-ospe hori. Ospea gorabehera, Jean Etxepare ele-ehiztari jarraikia izan zen, argitaraturiko eskutizetan beha dezakegunez, baina, bildutako materialak Lacomberentzat eduki zezakeen interes dialektologikoaz gainera, bazuen garrantzia ere Etxepareren literatur hizkera eraikitzeko bidean.

Besterik ezean, ataza guztiz atsegingarria bilaka daiteke ele-ehiza, Xabier Kaltzakortak inoiz aitortu duenez:

Ez dago, neure ustez, lan politagorik. Ez dago, neure ustez, baserri bateko sukaldeko supazterean ipuin eta kontakizunak entzutea baino gauza ederragorik. Beheko sutako sugarrak laratz beltza sorgin-dantzan miazkatzen ari direla, aitona maitagarri baten ixtorio-mixerioak eta ipuinak entzutea baino gauza ederragorik ba ote dago? Komunikazio hori hurretik hurrerakoa ez ezik, gure aitasabekikoa ere ez ote da? Bilketa bakoitzean hitz berri edo inoiz entzun gabeko esapide edo kontakizun berri bat entzutea baino ezuste goxo eta atsegingarriagorik ba ote dago? Ustez ustekabe, inoiz entzun gabeko hitz batek edo esapide batek edo ixtorio batek harrapatzen gaituenean, zorion-eremu eder batera eramaten gaitu. Era berean, are giza irudimenaren esparru zoragarriago batera eramaten gaitu inoiz entzun gabeko ixtorio eder batek. Eta esparru hori kontatzailearen giza irudimenezko lur ederra ez ezik, gizakatearen tradiziozko aitasaben bihotz-irudimenetako lurraldea ere bada. Nik, egia esan, neure eskualdean hitzun on batekin nagoela, hitz berriren bat edo kontakizun politen bat entzun arteko onik ez dut izaten.

Horrelaxe deskribatu ditu Kaltzakortak ele-ehiztariaren pozak. Itxura batean, txikitako peludo-ehiztariaren grina gerora ere mantendu da Etxepareengan, baina ele-ehiza bihurtuta: nolabait, argazki-kamara bihurtu zaio aspaldi bateko eskopeta. Dena dela, neurri batean harrigarri begitandu zait, Aldudeko berba eta esapideez gainera, Etxeparek ez biltzea ipuinik, elezaha-

riik edota kanturik. Eskopetariet aurrean edozein ihizi edukita tiro egiten diotelarik, halaxe jokutzen dute ele-ehiztariet ere, den-dena bilduz. Arraroko iruditu zait Aldudeko medikua horrela ez aritzea, eta arraragoa Azkue handiak eskatu ez izana material horiet guztiak berarentzat batu zitzaela.

TXOKO EKOLOGIKORIK GABEKO BIZIDUNA

Montevideo ez bazen ere, Jean Etxepare Alduden finkatu zen 1905ean, eta bertan iraun zuen, mediku, hogeita bost urtez. Herriko medikua zen, eta Lekorneko sehi bat zeukan bere zerbitzura, baina, hala ere oso estu bizi zen diru aldetik. Horrelaxe aitortu zion Lacomberi behin baino gehiagotan, esaterako 1912ko eskutitz honetan:

Je suis, hélas! trop talonné par la "matérielle" pour pouvoir faire outre chose que ce que je fais, c'est à dire de menus articles d'ordre pratique à l'usage de nos bons compatriotes de la classe paysanne, pour lesquels j'ai d'ailleurs une prédilection.


Estutasun horrek, dioskunez, hainbat aukera moztu zizkion, eta, antza, idaztera kondenatu zuen, idazlearen "lan hurri, idor eta sari meheko" jardun horretara, baina, ez sosak irabaztearren, ez dago esan beharrik. Egia da, gure medikua beste euskaltzale ezagun asko baino dezente gutxiago mugitzen zen orduko ekitaldietara. Balirudike Aldudeko berezko urruntasunak eta diru-faltak Etxepare guztiz isolatu dutela, hau da, orduko euskal mundutik at mantendu dutela.

Jon Casenavek, baina, bestelako begiez aztertu du Aldudeko medikuaren egoera, eta osterantzeko kausak ere ikusi ditu Etxeparearen marginalitatean. Jon Casenavek "barruko baztertutzat" jo du Etxepare, alegia, *marginal de l'intérieur* dela esan du, eta Aldudeko isolamenduak bazterketa larriagotu besterik ez zuen egin.

Buruxkak aferaren ostetik, Etxeparek ez ditu eten nahi izan maite duen Euskal Herriarekiko loturak, eta, nolabait, arrazoizko isiltasun batean murgildu zen, Aldudeko bakartasunak erraztuko zuena. Jon Casenaveri maila bitan begietaratu zaio Etxeparearen marginalitate hori.

Lehenengo eta behin, Etxepare da XX. mendearen hasieran bakarrenetarikoa, euskararen funtzionamendu literarioaz ardura erakusten. Ordura arte, helburu utilitario soil batek karakterizatu zuen, oro har, prosazko produktio idatzi guztia, dela erlijiozkoa, dela kazetaritzakoa. Etxeparek, baina, idatzi egin nahi du, eta, alde horretatik, bizi duen grina estetiko eta literarioak bazterreko kokapen batera behartu zuen, bazterrekoagoa kontuan hartuta euskaraz ari dela. Ez dago batere argi, XX. mendearen hasierako gazte euskaldun ikasi eta jantzi batek zergatik hauta zezakeen euskara lite-

Aldudeko autobusa. Aldudeko kroniketan Jean Etxepare 1908an mintzo da Aldudetik Baigorriara *suzko karrosa* -autobusa- antolatzekeo egitasmoaz. Era berean, 1911n bizpahiru herritarrek hartu gogo zuten, telefonoaren haria euren etxeraino ezartzeko; haietarik bat Erreka, ostatu nagusikoa. 1912an, dioskunez, "plazako bi etxe-



rik handienetarat bidatua izan da tutetan, handik goraxago pentze batean sortzen zen iturria. Orai delako bi etxek badute ura ausarki, behean bezala estai guzietan". Antza, Baigorri eta Donibane-Garaziko laborari-etxe anitzek ezarri zuten. Etxeparearen lerroetan jakin dugu, halaber, lehen irratiak 1926an entzun zirela, eta urte berean iritsi behar zela argindarra Alduderaino, baina, hitzarturiko epeak bete ziren arren, enpresak ez zuela argirik eman, eta, okerrago, etxetaraino heltzeko sariak itsuski emendatu zituela.

(ARG.: GURE HERRIA, 1964).

ratur hizkuntza gisa. Izan ere, aukera horrek ez du zentzu handirik orduko gizarte-ikuspegitik, ez eta alde artistiko eta editorialetik begiratuta ere. Itxura batean, erdara zen aukera logikoa, eta, horrela izanik, erdaraz idatzi zuen, kasurako, Pierre Lhande euskaltzainak. Ez dirudi oso gratifikantea izan zitekeenik euskara aukeratzea literatur euskarri.

Etxepareren bigarren bazterketa alde sozialetik dator, zeren eta, Etxepare laikoa baita, gehien bat elizgizonez osotutako euskararen orduko unibertso kulturaleran. Gertaera horrek, jakina, badu garrantzirik, herrietako apaizak baitziren euskal liburuen zabalkunderako sarea, irakurle potentzialak izateaz gainera. Gauzak horrela, Aldudeko medikua irakurle posiblerik gabe gelditu zen, eta eduki zituen gutxien artetik ez zuen inolako goresmenik entzun. Bakarrenetarikoa izango zen, beharbada, Azkue euskaltzainbuuruak bidali zion laudorioa; alabaina, berandu samar iritsiko zitzaion Etxepareri, eskutitza 1920koa baita:

Zure gutun polit *Buruxkak* irakurtzen ari naiz: ezaldezu beste ezertxo argitaratu? Poz-pozik irakurriko nuke.

Pentsa liteke mediku izateak abantaila handiko kokapen soziala emango ziola, baina, Alduden bizimodu neketsua daroa. Ameriketan aberastutako arrantier txiki baten semea izan arren, Jean Etxepare inguru oso apalean bizi zen, justu-justu irabazten zuen bizi ahal izateko beste, eta ezin zuen despendio handirik egin. *Buruxkak* idatzi zuenetik eta Eskualzaleen Biltzarreko buru-lehena aukeratu zuten arte, Jean Etxeparek bazterreko kokapena bete zuen, nahiz eta gerora oso idazle berritzaile eta originaltzat joa izan. Horrek erakutsiko liguke, Jon Casenaveren ustez, euskal esparru literarioan ez zegoela lekurik Etxepareren ezaugarriidun idazle batentzat. Alegia, ez zegoen tokirik idazle batentzat zeina ez baita herrikoia baina ezta diruduna, bien artekoa baino, idazle bat ere zeina ez baitago elizaren menpe eta baidago, bestalde, euskararen dimentsio literarioaz arduratuta. Dirudienez, artean ez zegoen Etxeparerentzako “txoko ekologikorik”.

SATORRAREN BIZIA

Matxin Irabola bertsolari senperetarrak “Mila bedatzi eunta hamalagarrena, Agoztuko ilaren lenengo eguna” kantatu arren, iturri konbentzionalagoen arabera abuztuaren biau, hiruan, edota lauan biztu zen Hamalauko Gerla (1914-18), hots, Gerla Handia edota Lehen Mundu-Gerla. Benetan egun ertun eta samina urte horretako abuztuaren hasierakoa: berdin dio, bata zein bia, hirua zein laua.

Abiapuntuaren data gorabehera, 18.500.000 lagun hil ziren hurrengo ia bost urteetan, eta eurotatik zibilak izan ziren hamar milioi inguru. Bestalde, estimazioek diotenez, 6000 euskaldunek galdu zuten bizia fronteetan Frantziaren alde borrokatzen, eta, esan ohi denez, neurri handi batean gerla horren ondorioz frantsestu da Ipar Euskal Herria, ordura arte erabat eus-

kalduna. Gerla bera Euskal Herritik asago gertatu zen, baina bertan eragin luze eta sakona eduki du, Iparraldeko herri guzti-guztietan soldadu hilei eskainitako monolito eta oroitarriek, eta, areago, monumentu horietako hildakoen zerrenda tristagarriek erakusten digutenez. Hilak hil, ez dakigu denetara zenbat milaka euskaldun izan ziren deituak armen hartzera. Aldudeko bazterrean, Etxepare medikuak dioenez, berrogeita zortzi soldadu egon ziren; horietarik, hamaika hil ziren gerlan, eta beste hamar batek “gerlako sarraskiak” ekarri zituzten aldean. Kasurako, Xotroeneko nagusiaren hiru semeak mobilizatu zituzten, eta, izan ere, Joanes misionista itzuli egin zen Japoniatik.

Jakina, Gerla Handiak hainbat fronte eduki zituen, bai European –Belgika eta Frantziako ipar-ekialdeko frontea, Errusiako mendebaldekoa, Italia eta Balkanetako frontea (kasurako, Joanes Xabaño misionista Mazedoniako gudu-tokietan aritu zen)–, bai Asian –Bosforo, Mesopotamia eta Palestina-ko frontea– eta bai Afrikan ere –Togo eta Afrikako hego-mendebaldean–.

Gerla Handia desberdina izan zen. Hasierako operazioak XIX. mende-ko gerlen era teatralizatuan burutu ziren, baina, obus eta *mitrallusen* erauntziek arras deuseztatu zituzten infanteria eta zaldieria. Milioika zaldi hil ziren, guda-lekuetako lehen lerroko “burdin-hari elorridunezko sasi gaitzean” trabatu eta masakratuta, eta, izatez, horixe izan zen zaldiaren agurra gerla-kontuetan. Hau da, Hamalauko Gerlak ekarri zion amaiera zaldiaren erabilera belikoari, mendeetan zehar hain arrakastatsua (eta are eta hegemonikoa ere) izandakoari. Gogora ezazu, berbarako, zelako abantaila eskaini zien zaldia Hernán Cortés eta Pizarrori. Bestalde, bizirik iraun ahal izateko, infanteria lurretik narrastu behar izan zen, lokatzetan ihalozkatzen eta lubakietan sartotuta.

Mitrallusa izan zen, hots, metrailadorea izan zen Gerla Handiaren errebeldazio handia, eta tresna horrek sortu zuen hildako gehien borrokaldietan. Haren tiro-sorta jarraituek sarraskitu zituzten infanteriaren eta zaldieriaren oldarrak, eta, ondorioz, lubaki-gerla derrigortu zuen. Izatez, lehen mitrallusak Ameriketako Estatu Batuetako Sezesio gerlan erabili baziren ere, 1914ko eszenategian ezinbesteko bihurtu ziren, borrokatzeko era aldatu baitzen: gerla-hasieran, jeneralek eraso masiboak agindu zituzten modu ia obsesiboan, eta metrailadoreen eraginkortasuna ikaragarriro emendatu zen, distantzia laburretan ez baitzegoen huts egiterik. Horrela izanik, metrailadorea derrigorrezko bilakatu zen defentsarako, eta horrekin batera baita gotorleku inprobisatuak ere: infanteriako soldaduek lurra aitzurtu eta zulatu zuten, eta bertara barneratu ziren. “Lurpeko gerla dugu hau gero ta gehiago” idatzi zuen Jean Saint-Pierrek 1915ean *Eskualduna* aldizkarian. Frontea lubaki eta tunel-sare trinko batez josi zen, eta burdina-hari arantzadunezko sasitza batez gerizatu zen, horrelako lubaki-lerro bakoitzaren aurrea, pezoinaren aurretik. Soldaduak basatza horretan ihalozkatu ziren urte luzeetan, arratoiekin bizikidetu zaborren artean.



“Badakizue engoitik zer den mitrallusa: harma lodi gotor bat, burdinazko zangoño baten gainean goiti eta beheiti, eskuin eta ezker, ala delarik, errotaño baten ararteko ezteki erabil ditakena. Sahetsetik zako sartzen hazkurria, burdinazko sare zerranga batean balak kokaturik. Ikus ahal laster iresten ditu harmak, bat bertzearen ondotik eta igortzen. Hortik ikusten duzue zoin neke litaken alemanen lehen mailaren hartzea. Nola aitzina, lehenbizikorik burdin-harizko sasietan barna? Zonbat miliun obuz ez litake behar sasi horien suntsitzeko? Eta gero, geldi litazke han-hemenka, lur arras, mitrallus zonbait, gure soldado gaizoak, ager arau, aurdik litzazketenak”. [Etxepare, 1916–1992: 22–].

Beraz, Lehen Mundu-Gerla “lubaki-gerla” bat izan zen neurri handi batean, alde bakoitzak bere posizioak mantendu nahi baitzituen. Hartara, gerla-mota horrek artillerien arteko duelu odoltsuak ekarri zituen, aldi berean infanteriak etsaiaren lerroetarainoko oldar masibo eta suizidak eginenez. Taktika horren bidez, kilometroren baten konkista lortzen zen, zenbaitetan ehunka metro gutxi batzuk soilik, hurrengo kontra-ofentsiban gal zitezkeenak. Gerla-mota horrek, arma berrien erabilerekin batera –gas pozoidunak, tankeak edota hegazkinak–, izugarri handitu zuen masakrearen izaria.

Adibidez, 1916ko otsailean hasita, Verdungo gudu zoritxarreko hark urte osoan iraun zuen ezbaian, eta 700.000 soldadu hil ziren bertan, erdizka banatuta frantses eta alemanen artean, eta denak alferrik, su-lerroa ez baitzen ia mugitu. Jean Etxepareri ere egokitu zitzaion Verdunen borrokatzea 1916ko uztaila aldera, ordurako alemanen oldarra ezitzen hasia zelarik. Dirudienez, ezin hobeto bete zuen bere soldadu-eginbearra, Jean Saint-Pierre *Anxuberrok Eskualduna* aldizkariako kronikan kontatu zuenez:

Atsegin handirekin entzuten dugu gure adixkide J. E[txepare]. euskalzalare berriketari aipatu bezain mediku argituak ukhan duela suan, Verduneko aitzinean, ohorezko aiphamen bat ederrenetarik, gerlako khurutze izar zilhar-urheztatuarekin, bombardamendu izigarrienen erdian, eta berze baten orde zuela bere burua oldez sakrifikatzen. Huna hemen delako aiphamena:

“Le Général commandant le 6. Corps d’Armée cite à l’ordre du Corps d’Armée:

Médecin-Aide-Major de 1ère classe Etchepare Jean du 172e Régiment d’Infanterie.

“Du 27 juin au 4 juillet 1916, a fait preuve du plus entier dévouement en prodiguant ses soins aux blessés, sous de violents bombardements. Désigné quelques jours avant pour passer dans une ambulance de l’arrière, a demandé l’annulation de cette mutation, en faisant valoir qu’il ne voulait pas quitter son Régiment à la veille du danger.”

Signé: Général Paulinier

Ederki jauna. Holako gizonek dute ohoratzen eskuara, Eskual Herria eta Frantzia.

Egun bereko kronikan (1916.08.11), Verdungo balentriak direla-eta Erreka aldudar sarjentua ere aipatu zuen Saint-Pierre *Anxuberrok*, beste euskaldun sariztatu batzuen artean. Jean Etxeparek ere bidaltzen zituen gerla-kronikak *Eskualduna* astekarira guda-tokietatik, baina, ez zuen bere dominaren aipamenik egin. Dena dela, Verdungoak ez bide ziren izan gure medikuak gerlanean bizi izandako une larri bakarrak, eta horrelaxe kontatu zigun 1916ko apirilaren hamalauko kronikan, Champagnako lehen lerroan gertatua:

Otsailaren azken hiru egunak gogorki gaixtoak ukan ditugu. Erauntsi gaitzak igortzen zauzkigula, egundaino nehork ikusi dituen handienak [...]

Gizon parrasta bat galdu dugu; muno batzu ere ba. Hiru egunez uste ukan dut neronek, hemen behar nindutela ehortzi.

Oso hurbileko segimendua eduki izan zuen Hamalauko Gerlak euskal prentsan, eta, izan ere, horixe ikus daiteke hemerroteketara jo gabe, zeren, gerora berrargitaratu egin baitira, gure klasiko batzuen lumatik orduan isurritako lerroak. Hor ditugu irakurgai, Etxeparerenez gainera, Jean Saint-Pierre *Anxuberrorenak*, Jean Elizalde *Zerbitzarirenak*, Ebaristo Buztintza *Kirikiñorenak*, eta Juan Bautista Bilbao *Batxirenak*. Sorta horretako idazlan batzuk su-lerroan bertan idatzitakoak dira, idazlea lekuko zuzena izanda, soldadu frantziarra ere bazelarik; horixe da aipatu lehenengo hiruren kasua. Besteetan, Hegoaldekoak izanik distantzia gehiago dago, baina, den-denek luze-zabal erakusten digute bakoitzak bere erara Lehen Mundu-Gerla egunez egun, euskaldunen begietatik. Eta, izan ere, begi horiez baliatu zen Jean Barbier Senpereko erretorea bere *Piarres II* ospetsua idazteko (1929). Hau da, Hamalauko Gerlak badu izan bere euskarazko eleberria, oso argigarria eta ilustratiboa dena, sasoi hartako giroaren zenbait gako ulertu ahal izateko. Batetik, delako Piarres, Txomin Agirrerren Joanes bezala, euskalduntasunaren arketipo konplitu da: ezin da Piarres baino euskaldun zintzoagoa eta benetakoagoa izan, eta alde horretatik Barbierren idazlana guztiz prebisiblea da, generoko topiko guztiak bildu baititu. Alabaina, Piarresi Gerla Handian parte hartzea egokitu zaio eleberri horretan, eta Barbierrek fidelotasun handiz kontatzen dizkigu bai euskaldunen ibilerak gudu-toki garrantzitsuenetan, eta bai etxean utzi zuten giroa ere.

Jean Barbier ez da izan Gerla Handian girotuta eleberri bat ondu duen euskal idazle bakarra. Oraintsu, 1999an, Xabier Montoiak kaleratu du *Hezur gabeko hilak*, eta hein batean Jean Barbierren *Piarres II* famatuaren kontrapuntua da. Xabier Montoiak ederto islatu ditu gerlaren zentzugabekeria eta bai su-lerroko lubakietako sator haien eguneroko bizimodu hitsa. Testuinguru horretan, soilik euskaldun bi kokatu ditu berrogeita hamazazpigarren erreximendu barruan. Batak, apaizgai izandako Jean Etxegoienek, aita, euskara eta Euskal Herria gorroto ditu; maiz hausnartu du bere lagun errusiar anarkistarekin sator-zulo haietatik ihes egitea. Piarres Landa da eleberriko bigarren euskalduna. Geroago iritsiko da erreximendura eta, zinezko euskaldun ororen gisara, lehenagoko euskaldunarengana hurbilduko da pozaren pozez, baina Jean Etxegoienek ixkin egin zion, beltzuri egin zion. Xabier Montoiak gupida barik deskribatzen digu Piarres Landa ere, hots, euskaldun zintzoa, berori ardi eta emazte hilen bortxatzaile gorrotagarritzat agertzen baitigu nobelan. Montoiaren idazlana, Barbierrenaren kontrara, ez da batere prebisiblea, alegia, eleberri inprebisiblea da, eta, horrexegatik hain justu, guztiz gomendagarria.

Oraintsu plazaratu da, halaber, Domingo Uret (Ouret jatorrizkoan) soldaduaeren lekukotasuna. Domingo Uret 1914ko urrian mobilizatu zuten eta Gerla Handia ia osorik egin zuen, 1917an larriki zauritu zuten arte. Bada, eguneroko oharrak eta mugimendu guztiak kontsignatu zituen hiru karнетetan, hiru agendetan. Dokumentu horiek amaraunean eskegita aurkituko dituzu, eta bertan jakingo duzu soldadu euskaldun arrunt baten gerlako infernua zelakoa izan zen, eta norainoko izua bizi izan zuten. Adibidez, ikusi 1915eko urriaren 25ari dagokion apuntea: “Près de Tahure (Marne) Denbora hotza [...] goizian bonbarda gaitza egin alemanek arratzaldian ere ba



Jean Barbier (Donibane-Garazi, 1875; Senpere, 1931). Larresoron eta Baionan ikasita, 1898an apaiztu zen, eta 1900ean teologiako doktoretza lortu zuen Tolosako Institutu Katolikoan. Larresoron irakasle eta Baionako katedralean bikario izan ondoren, 1913an Senpereko erretore izendatu zuten. *Gure Herria* aldizkariaren sortzaileetarikoa bat izan zen, eta bai *Eskualduna* aste-kariaren lankidea. Haren idazlanak dira, besteak beste, *Supazter xokoan*, *Piarres* eta *Nere kantuak*.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

benaren gurek artilleria hazi eta fite ichil arazi alemana gaua calme hotz biziki hatik Gure yainko huna othoi egin ozorik athera nadien zilo izigarri hortarik zure laguntzarekin batian zure zerbitzari bethi”.

Zernahi gisaz, Hiriart-Urrutik *Eskualduna* aldizkarian gerlari ongi-etorri egin bazion *Biba Frantziaka*, ikusiko duzunez Barbierrek *Biba Frantzia! Kuku alemanak!* oihukatuz bidaliko ditu Baionatik berrogeita bederatzigarren erreximenduko soldaduak. Eta geroago, fronte urrunera iritsitakoan, ondokoa diosku:

Eta Piarresek *badaki* orai zertako den, gaur, xixpa bat eskuan, han, Iguzki-aldeko hiri muthur batean. Frantses-Herriaren mokor bat, mokor ttiki bat zaintzen du harek ere, han, harmetan. Ehun milaka, bertze soldado batzu baziren, non-nahi bertze lur-mokor batzu gerizatzen zituztela hala hala. Eta *Frantzia, Herri Handia, lur-mokor hetaz guzietaz egina zen*. Lur-mokor hetarik bat zen Eskual-Herria, Eskual-Herrian Senpereko herria.

Jean Barbierrena da pasarteak dakarren letra etzana. Ez digu zalantzarako zirrikiturik utzi: Frantzia da Piarres senpertarrak defendatu behar duen Herri Handia, gainerako ehun milaka soldadu frantsesek gerizatzen zuten gisa berean. Baina, Piarresek kolkoan erdi kukututa aurkitu duen sentimendu bera da, are argiago posible balitz, haren arrebak geroago eskutitzez adieraziko diona:

Jainko horrek berak nahi zuen joan zintezan; Frantzia gerizatu behar zen, eta Frantzia gerizatuz, gerizaturen duzue gutarik bakotxaren herria. Ezen, gure herria zer da, baizen eta xoko bat Frantzian? Eta Herriaren amodioa zer da, baizen eta xoko horrentzat Jainkoak berak gure bihotzean eman duen kilika edo asikia?

Bai Jainkoak nahi zuen, zure xokotik joan zintezan gurea bezalako hainitz xokoez egina den Frantziaren begiratzerara.

Didaktismorik merkeenaz idatzita, Barbierren pasarteak erabat garde-nak dira: Frantzia digu gure Herri Handia jainkoak hala nahi izanda, eta Euskal Herria Frantziaren mendeko txoko subalterno bat da, Frantziaren handitasunean urtua. Besterik ez: ez dago bestelako ñabardurarik. Horrez gainera, arrebak eskutitz horretan azaltzen dio Senpereko *adorazionean* Luhosoko erretore beltzaren kartsuak eliza jendez betean predikatu ziena, alegia, Jainkoak gizonen arbuioez azkenean ase gerla bidali zuela, eta “orok luzaz ahanzi ondoan, Jainko haren beraren ganat guziak orai heldu ginela ahuspez-ikaretan eta nigarretan!”. Barbierrek eman digun irudia oso eske-matikoa izan arren, nahikoa ondo islatzen du gerla-sasoian zabaldu pentsaera. Nolanahi, irakur ezazu kontrapuntu gisa Etxeparek 1914an idatzitakoa, gerla-hatsarreen:

Zer da gerla? Zerk dakar eta nundik dator? [...]

Gerla ez da bertzerik, baizen egun guzietako gudua zorrotzago, saminduago, basatua, odol ixurtearen ariaz hezi behar dena. Dezagun asma Jaungoiko bat, gizaldeak egin dituen desbardin eta elgarri aiher,

edo bere oldez, edo jauspen ekarri eztakotelakotz gure lehen arbasoek; aitzitik, dezagun uste ukan, halako nausirik gabe, bera bere baitarik eta betitik, gu barne, egiten eta desegiten ari dela mundua, ezin geldituzko itzulika batean, osatzen duten izpi eta inar guziak kaskaka bat bertzeari: batetara doa huntan, gutarik neholere urrunt ez dezakegun gaitz bat dela gerla. Bizitzekotz, bizia bere balioan jasta edo gozatzekotz, baitezpadakoa orobat. Zernahi izanik, gizaldeen erne eta xut atxikitzeo ararik hoherena, zer ondorio ere baiterakarkote.

Beste behin ere Lotilandiako ortodoxiatik urrundu da gure Etxepare. Nahiz eta modu erraz batez azaldu duen, sakona da eskaini digun gerlaren definizioa, eta intuitu egin daiteke zeozer –edo zeozer baino gehiago– irakurri duela darwinismo eta gerla arteko loturaz. Izan ere, Crook-ek dioenez, 1859tik aurrera gerlaren biologiaren debatea zabaldu zen, hau da, gerlaren ustezko kausa eta efektuen gaineko eztabaida, bereziki giza agresibitateaz, eta, adibidez, Gerla Handia giza eboluziozko esperimendu erraldoitzat jo zuen Raymond Pearl biologo ezagunak Washington-en 1918an egin zientzia-konferentzia batean. Ekarki dugun pasarte irakurritakoan, badirudi oihartzunen bat edo beste iritsi dela Etxeparearen belarri-xuloetaraino. Ikusi duzunez, Barbierren azalpena ere badarabil aukera modura, baina, era bitara planteatuz: edo jainko batek bere borondatez sortu ditu elkarren gorroto diren giza taldeak, eta horrexek halabehartuko luke gerla, edo, gizakia kreatu ostean berorren begirune-ezak bideratuko zuen jaungoikoaren sumindura. Bata onartu, bestea onartu, bietara bistaratzen da jainko ezinango anker eta bihotzbakoa. Alabaina, Etxepare konbentziturata bide dago azalpen darwindarraz, eta, izan ere, pasartearen azken aldeko “gizaldeen erne eta xut atxikitzeo” horrek Darwinen “hoherenen superbizipena” gogora arazten du nahitaez.

Baina, bestalde, Etxepareengan nekez aurkitzen da Jean Barbierren frantses abertzaletasun suhar eta jainkotiar hori, baita *Anxuberrok* eta *Zerbitzarik* ere erakusten dutena –bi-biok apaiz izanik, Barbier bezala–.

Jean Barbier, Jean Saint-Pierre *Anxuberro* eta Jean Elizalde *Zerbitzari*ren ikuspegia oso deigarria da. Neurri batean, ematen du aipatu hiru apaiz horiek elizaren jarrera ofiziala erakusten digutela, izatez ezin beligeranteagoa. Oso nabarmena suertatzen da hogeita bost urtean elizak zer-nolako norabide-aldaketa egin duen. Alde horretatik gogoratu beharrekoa da 1890. urtean Arnaud Abadiak, Larresoroko Seminarioko zuzendariak, argitaraturiko *Aphezac soldado* idazkia, zeinak erlijioaren kontrakotzat jotzen baitzuen apaizak soldadutzat egitera behartzen zituen lege berria:

Hambat du Elizac higuin odola! Haren aphecec ez dute bertce odolic ichuri behar ecen ez Salbazalearena aldarean, eta hura, gizon gucien, bai adiskideen bai etsaien, bai bicien bai hilen onetan! Beraz ez diteke ukha aphezac soldado nahi dituen legeac Elizaren legea, Jaincoaren legea, ecen batetara doa, hausten duela erdiz erdi.

Hala ere, badakusagunez, mende-laurden geroago Arnaud Abadiaren ikasleok frantses armadari gutziz entregatuta agertzen zaizkigu, haren agin-

duetara zeharo errendatuta, eta, areago, gogaide ere. Alegia, ofizioz bakegileen artean egon beharko zuten apaiz gazte guztiak, horiexek dira hain zuzen ere, erreximenduen lehen lerroetan zihozenak. Zer gertatu da tarte labur horretan? Ez da erraza azalpen argia ematea, baina, Xarritonek idatzi duenez, Frantziako gobernua besteak beste arrotz etsaiaren mamua erabiltzen hasi zen, beldurraren bitartez herritarrek menderatzeko, eta bide horretatik, Alemaniaren inperio gaiztoari buru egiteko aitzakiarekin xurien eta gorrien “batasun sakratua” bermatu zen, *l'Union sacrée* delakoa. Dena dela, eliza guztiz inplikatu zen gerlan, eta onartu zuelarik apaiz eta apaizgaiek soldadutzaren egitea, hau da, estatuari amore eman ziolarik, batzuen ustez Frantziako elizak bere sinesgarritasun etiko osoa galdu zuen.

Arestian esan bezala, Etxeparek ez du aparteko berotasunik erakusten. Esate baterako, etsaiei buruz mintzo denean, Etxeparek “aleman goihingarriak”, “aleman higuingarriak”, “etsai higuingarriak”, “gure etsai abrea” moduko formulak erabiliko ditu oso bakanka, baina, kontura gaitezen, beste testuinguru batean “errepublikano higuingarria” diotso 1925ean de Monzie irakaskuntzako frantses ministroari ere euskara eskoletan debekatzean. Esan nahi baita, ez zait iruditzen bereziki gogorra denik, areago *Eskualduna*ko gainerako idazleekin alderatuta. Har dezagun kasurako Jean Saint-Pierre, eta orrialde birik behin aurkituko duzu alemanen kontrako purrustadaren bat; adibidez, kronika baten erdian ondokoaren erakoa irakur dezakezu:



Garratoinez eta saguz bazterrak betheak ditugu. [...] Bat garbitu bezen laster, bertze bat ikusten dugu zilhotik atheratzen. Alamana iduriak dire, hots, nonbrez bai eta ere okaztagarritz.

Saint-Pierre *Anxuberro*ren arabera, alemanek “ifernuko tzarkeria beltzenak odolean dauzkate”; areago, alemanen urdekeria eta izugarrikeria guztiak deskribatu ahal izateko, nola euskarak ez duen aski hitz handi eta sarkorrik horretarako, “alemaneria” berba zizelkatu beharrean aurkitu zen, eta erraz askoa da zer adierazten duen endelegatzea, *Orotarikoak* jaso ez duen arren. Etxeparek, ostera, alemanak gerla-etsai baditu ere, ezin du ahaztu kultura doixtarrak sortu dion miresmena, eta, esate baterako, badu idazlan bat 1920koa, hau da, Hamalauko Gerla amaitu eta berehalakoa, Lekarozeko kaputxinoen ikastetxera egindako bisitaldi bati buruzkoa, zinean, besteak beste, fisikako, kimikako eta natur zientzietako kabineteak behatu baitzituen; bada, idazlan horretan atzera ere agertzen da berpiztuta gure Etxepareren alemanekiko txundidura. Berrito aitortzen digu:

Atseginekin ikusi nuen *cabinet de chimie* deitu barnea, bainan ez daute ideki. Badakizue zertsu ditaken: han daude hetsirik, gizonek egundainotik, batzutan beren onetan, ardurago beren kaltetan, asmatu, eta lur mietarik, landaretarik, aire eta uretik, kabaletarik beretarik, atera demoniokeria guziak, dela errauts, dela urgezal, dela lanho. Aitor dut, erdi aleman behar dela izan, buruz eta bihotzez, holakoetan hanitz jakiteko.



Jean Saint-Pierre *Anxuberro* (1884-1951) Milafrangan jaio zen, bederatzita neba-arrebatan zortzigarrena. Larresoro, Baiona eta Tolosatik igarota, 1908an apaiztu zen, Nay-ko hirian, eta bertako apaizgaitegian moral-irakasle jarri zuten, 1914an. Baionako 49. erreximenduan egin zuen Gerla Handia, laster sarjentu izendatu zutelarik. Obusztanden artetik zara-zara idazten zituen *Eskualduna* astekarirako gerla-kronikak, lursagar-zakuen gainean ezarrita. Gerlako gurutzea eman zioten, aita familiako baten ordezkari batean zauritua izateagatik. Geroago, bigarren aldiz kolpatua izan zelarik, preso hartu zuten alemanek 1918ko martxoan. Gerla amaitutakoan moral-irakasle segitu zuen Baionan. 1930ean Kartagoko apezpiku lagun izendatu zuten, eta han irau zuen 1937an erretiratu zen arte. Bestalde, *Eskualduna* astekariaren zuzendaria izan zen 1925-30 tarteetan, Baionako apezpikuaren idazkaria izateaz batera. Argazkiotan, batean apezpiku dugu (ARG.: *GURE HERRIA*, 1930), eta bestean, Jean Olhagarai apaizgaiarekin –biboteduna–, biok Alemanian preso eta dominak paparrean. (ARG.: *GURE HERRIA*, 1952).

Beraz, gerlako gurutzea irabazi bazuen ere, badirudi gure Etxepare soldadu epela izan zela, ez zuela ingurukoen suhartasunik. Jarrera hori, inpresioa dut, Pierre Buruzain eta Albert Constantin mediku abertzaleen eraginez sortua izan zitekeen. Euren erein bide zuten delako epeltasun hori mediku saiogilearen gogoan. Hau da, itxura batean Buruzainek eta Constantinek ez zuten lortu Jean Etxepare euskal abertzaletasunaren baratzeraino sartzea, baina, hoztu egin zuten berarengan orduko giroan bizi zen frantses abertzaletasun demasekoa. Hari horretatik, badago aipu interesgarri bat, oso esanguratsua izan daitekeena, gerlako gurutzearen ingurukoa. Jean Saint-Pierreri esker jakin izan dugu gerlako gurutze izar zilar-urreztatuduna irabazi zuela, baina, Piarres Lafittek erantsi duenez, ez zuen eskuratu inoiz, hau da, ez zuen “paparreratu”:

Lagun batzuek nahiko zuten “medaila” ere eman zezoten, eta harrituak zauden zertako bada ez zuen berak galdea egiten behar zen tokirat. [...] Bainan aipamena aski zitzaion: gerla betean eginbideaz haratxago joanik ere, ez zuen uste espantuarenik bazitakeela.

Ildo beretik, interesgarria litzateke jakitea norainoko estekamendua zeukan, gerlari ohiek urtero san Martin egunez egiten zituzten bilkurekiko, baina ez dut horren inguruko daturik erdietsi. Bilkura horiez kestione, Xarritonek idatzi du “bazirudie[la] gure kristau fede zaharrari eratziki zitzaiola erlijio berri bat; Joana Arkekoa iduriko bere saindu propioekin, bere gerlari ohi medailadunen prozesioekin, bere gerlako martirien xingola, bandera eta oroitarriekin, bere Jondoni Martinetako meza nagusi, frantses prediku, soinu, kantu, espantu eta apairu guztiekin”.

Izatez, Etxeparek urte batzuk geroago, 1923an, agerian utzi zuen, zernolako atxikimendua daukan Frantziarekiko. Aitorpena, aldudar erorien monumentuaren inaugurazioaren kariaz luzatu zuen, alokuzio gisa, eta, besteak beste, ondokoa zioskun:

Erromanoek bazuten beren latin mintzaian hitz hau: *patria*, erran nahi baita, arbasoen toki, arbasoak bizi izan, arbasoek maitatu eta beren umeer utzi lurra. Hitz hortarik ateraia da *patrie* frantses hitza, erran nahi baita, frantsesentzat Frantziako lurra. Guk euskaldunek badugu gure mintzaian ikur bereko hitz bat. Hitz hori da *aberria*, erran nahi baita, arbasoen lurra. Arbasoen lurra guretzat lehenik Euskal Herria; bainan Euskal-herria, bere ñimiñoan eratzikia izan denaz geroz, eta aspalditik, Frantziari, gure aberria hedatzen da Euskal-herriko zedarrietarik harat, hartzen diela Frantzia garaitikoaren eremia. Euskaldun gira, eta orozbat frantses. Euskal Herriari zor balin badakogu gehienik gure bizipidia, Frantziari dakogu guziz zor gure adimenduko argia, gure bizitziaren errextasuna, gure bihotzian dukegun aneiatasun goxoa, gure ahalen handia ere ba, erran nahi dut gure indarra. Ohore egia horiek, ttipi danik, azkar eta argi, atxikiak zituzten gure herritar maitier!

1923ko lerrokada hori irakurritakoan, lehenengo eta behin kokatu egingo dugu kronologikoki. Hiruzpalau urte dira Gerla Handia bukatua dela, eta tartean, berriro ere Lafittek dioskunez, Buruzainek sustaturik “itzuli

handi bat egin zuen mendiz haraindiko Eskualerrian barna: gogo-bihotzak bete zitzaizkon hango argiaz, hango lurrez, hango anaiez”. “Adixkide minak ere egin zituen, hiri hetako jaun eskualdun zintzo eta argituen artean”. Joan-etorri horren ostetik idatzi zuen, aurreko kapituluan ikusi dugunez, Eusko Ikaskuntzak Gernikan 1922an ospatu III. kongresuaz eta, bide batez, euskal unibertsitateaz. Ondorioz, “Etxepare Jauna nehoiz ez bezalako kar batekin lotu zen berriz ere eskuarari”, Lafitteren hitzetan adieraziz. Ez dut uste gezur handiegia izango litzatekeenik, Lafitteren esaldian “eskuarari” barik “Eskual Herriari” jartzea ere. Halandaze, dezagun esan, Etxepare jaun-nehoiz ez bezalako gar batekin lotu zen berriz ere Euskal Herriari.

Hau da, aurreko pasarte ondo interpretatzeko, aintzat hartu behar dugu, batetik, Etxeparek gerra osteko giro hiperpatriotikoan idatzi zuela, eta, beraz, behartuta zegoela gerlan hildakoen eta, zer esanik ez, Frantziaren gorazarrea egitera, baina, bestalde, gogo-bihotzak inoiz baino gartsuago zeuzkala Euskal Herriaren alde. Alde horretatik, konpromisozko alokuzioa egin zuela pentsa genezake, balantzaren beso biek hala-holako oreka gorde dezaten. Testuinguruaren garrantziaz jabetzeko, izan ere, nahikoa da pasarte Aldudeko euskararen fonetismoz josita dagoela konturatzea, hau da, goiko aipatu mintzaldi horrek badu Etxeparearen gainerako testuetan inoiz ere aurkitzen ez den ezaugarri bat.

Antzerako konpromisoa aipatu izan da inoiz Hazparneko auzapezaren kasuan, alegia, Buruzainen kasuan. Gerla Handiaren akabantzan Frantziako parlamentuak herri guztietan soldadu hilei monumentu bat eraiki behar zitzaieela onartu zuelarik, Hazparneko monolitoan ez zen zizelkatu “Frantziaren alde” edota “Frantziarentzat” hil zirenik, “zuzenbidearen eta justiziaren alde” baino. Buruzain zen orduan Hazparneko alkatea, eta haren eskua ikusi nahi izan da egiteko modu aparteko horren atzean: haren jardura abertzaleak bestelakotu egin zuen, nolabait, parlamentuaren aginduko mezu hiperfrantsesa.

Nik neuk bizpahiru ideia azpimarratuko nituzke Etxeparearen aitorten horretan enkriptatuta. Hasteko eta behin, “arbasoen lurra guretzat lehenik Euskal Herria” dio, baina, aurreko lerroan ondotoxo argitu digu aberria dela arbasoen lurra, hau da, izatez *aberria guretzat lehenik Euskal Herria* dela diosku hitzez hitz ia-ia. Badago aldea Barbierren planteamenduarekin konparatuta: gogoratu, Senpereko erretorearen gardiz, Euskal Herria “*xoko* bat [da] Frantzian”; Etxeparek, ostera, lehen aberritzat dauka. Bai, badago aldea.

Esaldi berean diosku, bestalde, “bere ñimiñoan eratzikia” izan dela Frantziari geroago. Hemen ere ñabardura galanta dugu Barbierren ikuspegiarekiko, izan ere, Senpereko erretorearen azalpenetan, ikusi dugunez, badirudi Euskal Herria betidanik izan dela Frantziaren txoko bat, eta, areago, horrelakoxea jainkoaren borondatez izan dela. Etxeparek, ostera, ez du inolako betierekotasun jainkotiar mudaezinik bistaritzen, baizik eta txikiegia izatearen gibelondoa. Alegia, handiak irentsi du txikia, txikia “eratziki” du; ñimiñoa beregaina zatekeen, beharbada, hain ñimiñoa izan ez balitz.

Hori dela-eta, “gure aberria hedatzen da Euskal-herriko zedarrietarik harat”. Nonbait, euskaldunaren aberriaren muinari gunee berria gehitu zaio. Kontura gaitezen, Barbierrengan Frantses Herria izan da aberria, eta,

Verdunen hil zuten Klement Andurain idazlea (1878-1916). Mauleko Maitia jauregian jaioa zen, eta Georges Lacombe euskaltzainaren lehengusu eta adixkide mina. Gazte-gazterik idazten hasita, *Uskaldunak Ibañetan* pastoralara argitaratu zuen 1905ean, bere lehengusu Justin Berterretxe Mendittekoarekin batera sinatuz. Berau Atharratzeko apaiza zelarik, bertan jokatu zen 1907an, arrakasta handiz; geroago, 1954an Sohütan. Klement Andurain Eskualzaleen Biltzarreko kide eta idazkaria izan zen. Schuchardt eta Van Eys hizkuntzalari famatuak ezagutzeko, Italia eta Austriara jo zuen 1913an Lacomberekin.



Gerla Handian sarjentu izan zen, 142. erreximenduan, baina, Verdungo frontean, hegazkin baten bonben metrailak zauri larriak eragin zizkion buruan, eta hil egin zen lau egun geroago, martxoko seian, Nancy-ko ospitalean.

(ARG.: AUÑAMENDI).

aurrean esan dugunez, Euskal Herria berorren txoko subalterno bat; aitzitik, Etxeparek erakutsi diguna da, berez Euskal Herria dela funtsa eta gainerakoa itsatsia, akzidentala. Alderantziz, beraz.

Frantziari, handi baten hegapean bizitzeak dakarren gozoa zor zaio, eta Etxeparek ondotox garanduta aipatu zituen horren abantailak pasarte sakon horretan. Zernahi gisaz, hori baino lehenago “euskaldun gira, eta orozbat frantses” diosku. Euskaldun eta aldi berean frantses formulazio hori, sarritan aberri handiaren eta aberri txikiaren markoan ulertu da, alegia, bata bestea inkluditzen duelarik, bata besteari gailentzen zaiolarik, bata nagusia eta bestea subalternoa direlarik. Etxeparek, baina, *orozbat* erabili du: orobat, halaber. Bata eta bestea. Bata eta bestea, menpekotasun-harremanik gabe, inklusio-harremanik gabe. Haria pixkatxo bat tenkatuz, esan dezakegu berez nolabaiteko “naziotasun bikoitza” dela erreklamatzeko duena: euskaldun gara, eta orobat frantses. Ahor Etxepareren aldarrikapena. Haritik larregi tiratzen ari ote naiz? Beharbada.

Ederra litzateke jakitea Etxepare noraino sentitzen den eroso naziotasun bikoitz horrekin. Badakigu Pierre Buruzain eta Albert Constantin nahikoa deseroso zeudela egoera horretan, eta Hamalauko Gerla aurretik, ikusi dugunez, “un parti nationaliste viable” eratzen ahalegindu zirela, Euskal Herria izan zedin euskaldunen aberri bakarra. Aberriak aberri, argi dago: Euskal Herriaren gelak betetzen du barru gehiena Etxepareren buztinezko bihotzean.

Dena dela, Etxepareren naziotasun bikoitzaren errebindikazio inplizitua, eta baita ere Buruzain eta Constantinena euskal aberri bakarraren aldekoa, une historiko desegokian iritsi bide ziren, izan ere, Eugen Weber historialari amerikarraren arabera, Frantzia nazio bihurtu baitzen, hain justu garai horretan. Weber-ek erakutsi duenez, prozesua XIX. mendeko erdialdera hasi eta Lehen Mundu-Gerlarekin gauzatuta zegokeen.

Nazio bilakatu aurreko Frantzia errurala hainbat giza talde bananduez osoturik zegoen, mendeetan zehar egonkor eta homogeen mantendu zirenak. Nahiz eta egitura administratibo bakarrean integratuta egon, giza talde horiek ez zuten benetako batasunik eratu, eta, hortaz, biztanle asko eta asko ezaxolak ziren estatuarekiko. Kontura gaitzean, giza talde horiek ez zuten, ez historia ez ohitura komunik. Alabaina, egoerak aldaketa erabatekoa jasan zuen Gerla Handiaren aurreko berrogei urteetan, eta bai, zer esanik ez, gerla horri esker.

Aldaketa-prozesurako oso munta handikoa izan zen komunikazio-sarearen hobekuntza, zeren eta, giza taldeen arteko desberdintasunak ezabatzeaz gainera, herrietako bizimodua hirietakoaren gero eta antzekoagoa egin baitzuen. Alde politikotik, Pariseko aferak gero eta interes handiagoz segitzen dira, han hartutako erabakiek gero eta zuzenkiago hunkitzen baitutuzte giza talde eta lurralde konkretuak. Derrigorrezko soldadutzak ere, kostu txikiko armada eskerga posibilitatzeaz aparte, herritarren eta ideien joan-etorria areagotu zuen. Eskolari leporatu zaio, Frantzia nazio bakarra bilakatu zuen prozesuaren azken bultzada. Doaneko eta derrigorrezkoa, eskolak burutu zuen giza talde desberdinen homogeneizazioa, estatuko biztanleak frantses hiritar zintzoak bilakatuz. Eskolarizazioaren ondorioz,

lurrealde jakinetako ezaugarriak eta balioak higatu eta ezabatu ziren, eta, bestalde, frantses erdara ikaragarriro zabaldu zen Frantzia osoko eremuan. Prozesua amaitutakoan, zelan edo halan, ikuspuntu “nazional” bakarra errotu zen Frantzia osoan, eta era berean, urtu eta desagertu egin zen lurrealde desberdinetako giza taldeen kontzientzia. Horrelaxe-edo laburbildu ditu Mikel Aizpuruk Eugen Weber-en ideia interesgarriak, *La fin des Terroirs* liburuan garatuak.

Weber-en tesia asumituz, hain zuzen ere historiaren korrante nagusia Frantzia nazio bakarra gauzatzera doanean, edota, dagoeneko gauzaturik dagoenean, orduantxe dator naziotasun bikoitzaren Etxepareren aldarrikapena. Alde horretatik, itxura batean askoz eguneratuago suertatu dira Jean Barbier bat, Manex Hiriart-Urruti bat, eta beste anitz, biba Frantzia oihukatu zutenak. Etxeparek, beste behin ere korrontearen kontra paratu dela konturaturik, zuhur jokatzeko deliberatuko zuen, eta horrenbestez ez zen tematu antzu kontsideratuko zituen errebindikazioetan, nahikoa eta sobera eduki baitzuen *Buruxkak* aferarekin.

Jakina, Gerla Handiak azkartu egin zuen Frantziaren ikuspuntu nazional bakarraren eraketa, eta ondorioz frantsestu egin zuen Ipar Euskal Herria. Kasurako, frontetik itzulitako gehienak, gerora, gerlari ohien elkarrekin xobinistetan bildu ziren, eta biziki hauspotu zuten frantses abertzaletasuna. Datuak, beraz, Eugen Weber-en alde mintzo dira. Kontuak kontu, eta Hoztako Mariak adierazi bezala, “Urgulu zozo bat sarrarazi da hemengoan buruetan, eskualdunak direla ukatzeraino...”.

LABORARI EUSKALDUNEN KURIA

Derrigorrezko soldadutza orokortu zen Europa osoan, 1870eko gerla franco-prusiarraren ostetik; Frantzia 1872an ezarritakoa da. Derrigorrezko soldadutzaren helburua mobilizazio-sistema antolatzea izan zen, gerlaren bat biztuz gero soldaduak merke edukitzeko, milioika. Horri esker, Hamalauko Gerlan armada erraldoiek hartu zuten parte, eta, horrenbestez, suntsiketa masiboko armak erabili ziren, hainbeste soldadu geldiarazteko. Inoizko hekatonbea halabehartu zen. Etxepareren berbetan esateko, “mekanikiazko gerla bat, egundaino izan den garratzena”.

Hamalauko Gerlaren lehen uneetan, mobilizazioa orokorra eta berehalakoa izan zen, eta entusiasmo patriotiko itzela bizi izan zen. Esaterako, Hiriart-Urruti *Eskualdunako* zuzendariak ondoko lerro sutuak idatzi zituen 1914ko abuztuaren 7an, gizon-altzatzeak direla-eta:

Hau da berriz *mobilizzazione* gaitza! Egundaino Frantzia ez da ikusi holakorik. Hainbertze gizon, holako ordre ederrean, hoin fite, oro utzirik, denak soldado.

Gerla behar badugu, doala gerla. Biba Frantzia!

[...]

Berrogoi-ta bortz urtherainoko, gizon guziak altcha; batzu berehala gauerditik goiti; bertzeak andanaka, lau, bortz egunez kasik oro.

Hainbat eta hainbat euskaldun sartu ziren Baionako erreximenduetan. Esaterako, 49. erreximenduaren joan-etorriak kontatzen dizkigu Jean Barbierrek, *Piarres* soldadu-talde horretako kidea dela asmatu baitzuen. Beste euskaldun batzuk Ameriketatik-eta itzuli ziren, eta destinatatu egin zituzten, besteak beste, Salonikako lehorreratzean parte hartu zuen kolonialen 7.era. Nolanahi ere, 6000 euskaldun hil ziren hainbat frontetan. Kopuru hori, itxuraz, ez da oso zehatza, zerena, bigarren iturri batean 5000 hildako aipatzen badira ere, hirugarren batean 8000raino hazi baita kopurua. Ildo berezik, ez dut inon mobilizatu ziren euskaldunen zenbakirik irakurri.

Frantzian mobilizaturiko gizon gehienak, dirudienez, nekazariak izan ziren. Oso deigarria da, adibidez, Etxeparek damaigun datua:

Orai, aitzin aitzin huntan, ez da ikusten kasik laboraririk baizen. Ehun gizonetarik hiruetan-hogoi-ta-hamar, laborariak. Garaitikoak, herrietako zurgin, botiges, karrosa-zain, hargin, nekazale mota guzietarik.

Aitzindarizat, negoziante edo industriari ttipi; edo, hauiekin nahaste-ka, gobernamentuko enplegatu xume.

Hau da, fronteko lehen lerroen defentsarako, Frantziak ia soil-soilik laborariak inmolatu zituen. Ez zegoen hiri handietako soldadurik. Hainbat arrazoi burura dakizkizuke gertaera nabarmen hori azaltzeko, baina nekez otuko zaizu, Jean Barbierrek bere eleberrian irentsi erazi nahi diguna:

Bainan, laborariak ez direa han guziak, bakar batzuek bertzeak oro? Frantses lurra nork hobeki geriza dezake, lurrarekin borrokan, bethi etsai eta bethi adixkide, beren bizi guzia ari diren gizon hek baino?

Egia esateko, ez zait batere errukiorra iruditu Senpereko erretorearen lerrokada hori: laborariak *kanoi-ozale* merkeena bihurtu zituztelarik, Jean Barbier arrazoi telurikoak-edo aipatzen ari zaigu hori zuritzeko. Hobe zuen isiltzea, baina tira.

Jean Elizalde *Zerbitzari* euskaltzainak 57. erreximenduan egin zuen Hamalauko Gerla, eta kronikak bidaltzen zituen *Eskualduna* astekarira, frontetik bertatik. Handik ia hogeitaz urtera, gerla-tokietan bizi izandako oroitzapenak berridatzi zituen, eta berriro ere *Eskualduna* aldizkarian argitaratu hamahiru emanalditan, 1936an hasita. Oroitzapen horietan 57. arekin batera ikusiak eta pairatutakoak kontatu zizkigun, Jean Barbierrek *Piarres II* eleberrian 49. erreximendurekin egin bezala. Jakina, nahi baduzu, Senpereko erretorearen kontakizuna bibliografian oinarritutako fikzioa da; ostera, Gerezieta erretoreak ia begien aurrean ditu, bizi-bizi, inolako apaingaririk gabe, zuzen eta labur gogoraraziko dizkigunak. Elizalde *Zerbitzari*-ren oroitzapen horietatik pusketa bat ekarri gura dut hona:

Manua ukhana ginuen, harat joaitean, zernahiren gatik zehe batez gibelat ez egiteko, lekhuairen gainean hiltzeko oro alemanak buruaren altxatzerat utziko gintuen baino lehen. Manu bera eman zaukuten bizpahiru edo lauzpabortz egunen buruan Thiaumont deithuairen aintzinerat igorri gintuztelarik ez dakigu zertako. Obusa erauntsi latzgarrienen gatik,

Jean Elizalde *Zerbitzari* (Azkaine, 1883; Gerezieta, 1961). Uztaritzeko bikario, geroago, Liginaga eta Gerezieta erretore egin zuten. Oso gaztetatik *Eskualduna* aldizkariaren kolaboratzailea zelarik, Hamalauko Gerlako kronikak bidali zituen frontetik. Gero *Gure Herria* hartu zuen parte. Eskualzaleen Biltzarreko idazkaria izan



zen berrogei bat urtez, eta bai euskaltzain osoa 1930etik aurrera. Lapurtera garbiaren aldekoa, ez zuen onartzen Piarres Lafittek defendaturiko nafar-lapur-tar nahasia.

(ARG.: HERRIA, 1969, 1009 ZBK.).

aire pozoindatuen gatik, jada han eta hemen usteltzen ari zirenen usain ezin jasanaren gatik, gose-egarrien gatik, ooren gatik, ez ginuen bururik gibelat itzuli Berrogoita Hamazazpigarreneko gizonak, Verduneko aldia bururatu ginuela erran zaukutelarik baizik. Lau ehun eta berrogoi hil han utzirik, joan ginen pausurat. Ehunka kolpatu bertzalde.

Jean Elizalde *Zerbitzarik* zehaztasunik ez badakar ere, suposatzea da laborari euskaldunak izan zirela, 57.ak Verdunen utziriko 440 hildako horietatik gehienak. Dena dela, *Zerbitzariren* Verdungo gerla-oroitza horietako aurreko orrialdean, sarraskiaren kontabilitaterako beste zenbaki batzuk ere aurkituko dituzu, Champagnako gudu handiari doazkionak: “hamazazpi ilhabetetan Berrogoita Hamazazpigarrenak lau ehun hil ukhan ditu eta sei ehun kolpatu. Hirur ehun galdu bertzalde”. Arestian aipatu dut Jean Barbierren azalpen telurikoa, Gerla Handiak ondorioztatu laborari-triskantza itzela ulertu arazteko. Bada, oraingo honetan, Saint-Pierre *Anxuberroren* interpretazioa ekarriko dut hona, hainbeste euskaldunen garbiketa argitzeko:



Gerla Handiaren amaieraren 50. urteurrena zela-eta, *Herria* astekariak zenbaki monografikoa plazaratu zuen: “Eskualdun soldadoak Hamalaukeo Gerlan”. Argazki hau ondoko oinaz lagunduta zetorren: “Hauk denak Eskualdunak, 49-garreneko lehen konpainiakoak, Oulches aldean, aterbe zilo baten aintzinean, 1915-1916-eko neguan. Zonbait gibelarat jin ziren, bertze zonbait han nunbait gelditu. Ea, nork nor ezagutuko duen?” Bada, nolabaiteko erantzuna Jean Barbierrek emana zuen lehenagotik *Piarres II* eleberriko zortzigarren kapitulu: Piarres eta Joanes, Paul eta Philipe dira, besteak beste, Oulches aldeko satorzulo horretako euskaldun unatu begi-erreak. Nobela irakurritz jakingo duzu zelako parade-roa eduki zuen eurotariko bakoitzak.

(ARG.: *HERRIA*, 1968, 953 ZBK.).

Belgikako mugetarik Lorraineko bazterretaraino, badugu Frantzian soldado onik. Aitzindariak diote goraki hoberenatarik direla eskualdunak. Nahiz baden orai gure herritarretarik asko erreximendutan, zenbeit erreximendu gutiz gehienik eskualdunak dire. Hala nola, 142garrena.

Etzen hau gerla hasi eta berehala surat abiatu. Deiar laster elgarretaratu eta gizonak, egon ziren hilabethetsu bat Baiona ttipian eta Baionari hurbil, Hiriburun. Nork erran behar zuen orduan Eskual Herriko semerik eginenak, aita familiako gordinenak ikusiko ginituela etsaiari lothuak Givenchy, Artois, Champagne, Verdun hoitan guzietan? Orotan eta bethi oldar gaitzean iharduki dute, berek badakite zer jasanik.

Ezinbertze gorririk balin bada nonbeit, jo harat eskualdunak! Verdun hortan ziren, jeneral nausiek etsitua zutelarik, Castelnau jin baita beharrik aski goiz hiriaren gerizatze eta zaintze, pausuan zauden soldado hoberenekin. Eskualdunak ditu hautatu, eta eskualdunak utzi Pétain aiphatuari. Alta gure herritar gaizok bazuten ordukotz zerbeit eginik! Ez dauzkate behin ahantzirik Verduneko inguruetan jasanak eta erabiliak. Eta nehork jakitekotz, 142.eko eskualdunek dakite “côte 304” delakoaren berri.

Ez dakit itsututa zebilen edo zer, baina, Saint-Pierreren azalpena erabat senik gabekoa iruditzen zait. Alegia, unerik larrienen frantses jeneralek soldadu hoberenak hautatzen zituztela, hau da, euskaldunak. Bai zera! Badakigu, jakin, euskaldunak zelako gizon izukaitzak diren, burdinazkoak-edo, eta goringo biko pareaz ederto hornituak. Baina, zertara dator euskaldunen inguruko espantu merke hori, hainbeste eta hainbeste hilotz daudenean eskuartean. Nor engainatu nahi du Saint-Pierrerek? Ala kontsolagarriagoa da gure pertsona maiteen heriotza, baldin eta epikoa edota heroikoa izan bada? Zernahi gisaz, horrenbesteko triskantzaren aurrean, Pio Barojak beste era bateko hipotesia mahai-gaineratu zuen, *La familia de Errotacho* (1932) eleberriko pertsonaia baten karakterizazioan:

Además, aquel estúpido castigo de ir a sitios de peligro, impuesto a los vascos de un regimiento de línea, porque el mismo regimiento se había insubordinado en la guerra francoprusiana, le parecía indigno y ridículo.

Jakina, Barojaren azalpenean euskaldunen biktimismo ezaguna dagoela argudia daiteke, baina, aukeratu beharra edukiko banu, Saint-Pierrereana baino konbentzigarriagoa begitandu zaidala erantzungo nuke. Izatez, denok irakurri dugu inoiz, kasurako, Vietnameko gerlan, hildako amerikarren artean proportzionalki askoz gehiago izan zirela beltzak eta hispaniarrak gainerakoak baino. Bada, modu berean, itxura ematen du, Hamalauko Gerlan Frantziak giza talde batzuk zigortu egin zituela, beren beregi. Barojak horixe diosku lañoki euskaldunen inguruan. Oraintsuago, 2005eko udan irakurri diot Anjel Lertxundiri egunkarian, Hamalauko Gerlan hildako lau frantziarretatik hiru bretoiak izan zirela. Lautik hiru bretoi, beraz. Eta horrenbestez, Lehen Mundu-Gerlatik zetorkien erresumina dela-eta, hainbat nazionalista bretoik naziekin bat egin zuten Bigarren Mundu-Gerlan Frantziaren kontra. Horren inguruan galdetu dudanean, Iparraldeko lagunek esan didate datuak askoz eskandalagarriagoak direla, proportzionalki, frantses kolonietako hildakoak aintzat hartuta. Kontuak horrela, balirudike, beraz, zigortuen artean euskaldunak konparatiboki kolektibo pribilegiatu batekoak zirela, eta euren sarraskia ez zela horrenbestereinokoa izan.

Orduko gerla-kronikak irakurtzean behin eta berriro aurkitzen da gerlari euskaldunak goresteko gogoia, sarritan larregizkoa. Beharbada, soldaduak, eta bai etxeokak ere, adoretu mantentzeko izan zitekeen, goiari eusteko, baina neurribakoa iruditzen zait. Uste dut horrelako zerbitzuko duzula ondoko pasarteetan, Saint-Pierreren kronika batetik hartu duguna, adibide gisa:

Eskualdun soldadoa jitez grenadier hauta dela, ez dugu zeren aipha hemen. Nor da gutartean haurretik pilota bat bederen higatu ez duenik beso gainka, edo harrika lagunekin ha[r]jitz ondo bat edo bertze larrutu. Joko bertsua da hemen: besoa trebe duenak badu non balia. Badazkit frango eskualdun, “boxak” erhautsi dituztenak grenada hoiekin, ez bakharrik Verdunen, bainan hemen berean, gauaz parada ona ukhanik.

Zer esanik ez, euskaldunak ez dira soilik odol hotzeko gizonak –euskaldunen *sanfreta*–, soldadu hoberenak dira, edo gutxienez grenadier hautak, eta hori pilotari onak direlako. Hau da, kontura zaitezkeenez, pilota ez da kirol hutsa: ez da soilik euskalduntasunaren oinarrian dagoela, euskal populuari nolabait herri-izaera ematen diola, baizik eta, pilotak badu beste balio bat, “balio erantsia” esango genuke gaurko erara, gerlarako guztiz baliagarria. Euskaldunak badu, beraz, balio erantsi bat, berebiziko bihurtzen duena: euskal idiosinkrasia Frantziaren zerbitzura.

Gorespenezko bide horretan barrena, badirudi are eta “heroi euskaldunak” forjatu nahi direla. Ildo horretan, aipatu beharrekoa da Kanboko Xikitoren kasua, orduko gerla-kroniketan maiz aipatzen baitira haren balentriak. Joseph Apestegi (1881-1950) deitu kanboar gazteak 1899an irabazi

Joseph Bernard Apestegi (Kanbo, 1881; Donibane-Loihuzune, 1950). Xikito Kanboko. Pilotari oso famatua izan zen, bai joko garbian xisterarekin eta bai eskuz ere. 1899an Arrue ospetsuari partida irabazi zionetik gora eta gora egin zuen, Euskal Herri-tik urrun ere aritu zelarik. Gerlako gurutzarekin itzuli zen Hamalauko Gerlatik.

(ARG.: AUÑAMENDI)



zuen bere lehen partida aipagarria, eta geroztik esku huska ala xisteraz beste horrelako franko, Euskal Herrietan bezala Madrilan, Buenos Airesen, Habanan, Mexikon eta Egipton. Bada, Kanboko Xikito hori Barbierren eleberrian ere aurkituko dugu, eta, dioskunez, sarjentu egin zuten, kaporal ere ez zelarik artean:

Bere xixtera zahar bat ekarrarazi omen dik etxetik; eta, gero, aintzindarien baimenarekin, *grenada* bat xixtera hartan ezarri, eta tira-ahala erre-besian aurrthiki; grenada bat lehenik, gero bigarren bat, gero hamar, hogoi eztakiat eta nik zenbat. Eta han, ba omen ditik, sei kapitain, zazpi lotinant, hamalau kaporal eta berrehun soldado aleman garbiturik!... Emak hor, Zikito!... Kanboko plazan ere baino hobeki ari duk, ezen harek aurrthiki pilotaño horietarik bat ez diakoie itzultzen!... Ikusiko duzie ixtantian inen dutela kapitain edo koolonel. Beharrik, gerla... berak akabatuko diauk, bestenaz *Joffre* jeneralaren ordain ginikek hiru aste gabel!...

Bistan da, Xikitok ez zuen gerla irabazi, baina, gerlako gurutzea irabazita itzuli zen etxera. Deigarria da: gure Etxeparek ez du horrelako kronika pilpiratsurik idatzi, ez du horrelako girorik sortu, edota islatu. Etxeparek beste hoztasun bat erakusten zuen bere kroniketan, beste urruntasun bat. Alde horretatik, arras esanguratsua da Etxeparek ez aipatzea Kanboko Xikito askoz beranduago arte, 1934ra arte, eta ez gerlako heroi gisa, “bakezko” pilotari gisa baino. Ikusi ondoko pasartean, Etxeparek hustu egin zuela Xikito gerlariaren mitoa – *ez dakigu...–*, eta puztu, Xikito pilotaria –*dakiguna da...–*:

Bainan orotako aipagarriena izan da Kanboko trinketeen, buruilaren zonan, bakar batzuek baizik zorigaitzez ikusi ahal izan ez dutena. Uztailaren hamaseitik hunat, bazakiten Euskaldun guziek, *Légion d’Honneur* dela-koaren kurutzea, emana zitzakola *Chiquitori*. Hanitzek ordea, etzuten sinesten, zombaiti, soberakina zitzeien. Alta ba, *Chiquitok* ukan du ohorezko kurutzea; *Ybarnegaray* deputatuak berak, dako ezarri maipulis-hegian, *Chiquito* gaizoari, begietarat nigarra jauzten zitzakolarik. Frantziako buruzagiek nahi izan dakote aipatu saria eman, Euskal-Herriko xisterazkari beso handienekoa izan delakotz, orai artean, bai eta, ondar gerlan, ederki bete izan duelakotz bere eginbidea. Alemanekilako bekoz-beko izigarrian, *Chiquitoren* han izaita bera, bihotz-altxagarri zen guzientzat. Bazuen fama hau: xistera zabal batekin, bertze guziek baino urrunago, botatzen zituela grenadak, eta etsaiari kalte handiak egiten. Ez dakigu horiek egiak diren ez. Dakiguna da, eta huntaz dugu guziz atsegin, pilotarentzat, doi ezagutza badutela gure buruzagiek; oharturik, noizbait, gizon gazte bera izan ditekela orozbat pilotari hoberenentarik, beraz bakezko urtetan Frantziaren zerbitzari on bere gisala, eta, gerla denboran, bera gudulari bihoztoi bezain, lagunentzat nori nola jarraik erakusle.

Konturatu zarenez, pasarte honetan lehenago aipatu ditugun zenbait zantzu barrunta daitezke –nahi izanez gero– goian adierazitakoez gain, hala nola, naziotasun bikoitzarena (“Frantziako buruzagiek... Euskal-Herriko xisterazkari”), edota, Hamalauko Gerlaren epeltasuna (“bete... bere eginbidea”). Areago, gerla amaitu zenetik urte batzuk joan direla, haren gomu-

ta lausotu egin da, eta kirolarien norgehiagoka modura aurkezten digu (“Alemanekilako bekoz-beko izigarrian”), gudu-tokietan bizi izandako neke eta sufrikario guztiak desdramatizatuz-edo.

Halandaze, laborariak izan ziren gerlara joandako euskaldun gehienak, eta laborariak, halaber, hildako gehienak. Ez ziren hoberenak, are gutxiago heroiak, baina bete egin zuten beren eginbidea, eta garaitu Frantziaren etsaia. Euskaldun gazte haiei Frantzia etsaien aurka defendatu behar zutelako esan zieten, eta haiek sinetsi egin zuten. Proba latza bizi izan zuten. Askok bertan hil ziren.

BIRIGARRO-ALDRA EDERRA

Badago gai bat Lehen Mundu-Gerlako euskal kroniketan beti presente ibili dena, parra-parra agertu dena, eta, oster, Aldudeko gure medikuak jorratu ez duena, eta da intsumiso eta desertoreen afera. Izatez, Ipar Euskal Herriko emigrazioa aztertzen denean, soldadutza izan ohi da aipatzen diren kausetariko bat. Soldadu joatea baino eta beraz armadan sei-zazpi urte ematea baino, euskaldun askok nahiago zuten Ameriketarako bidea, eta horrela, jendarmeak zozketan irtendako soldadugaien *–altxatuen–* bila agertzean, guraso askoren erantzuna izaten zen, semeak Ameriketara zeudela. Dirudieenez, fenomeno zeharo euskalduna da “mota horretako” emigrazioa. Zernahi gisaz, behin eta soldadutza derrigorrezkoa egin zela, pentsatzekoa da 1872tik aurrera areagotu egingo zela iheslarien Ameriketara joateko jario hori. Era berean, susmatzekoa da Hamalauko Gerlak bultzada bortitza emango ziola iheslarien zenbatekoari. Adibidez, San Frantziskoko kontsul orokorren estimazioen arabera, Kalifornian kokatutako frantses guztien bi herenak intsumisoak ziren Gerla Handiaren bezperatan, 1913an, eta, haren ustez, Mexikon proportzioa handiagoa bide zen.

Ez dut datu zehatz askorik aurkitu iheslariak direla-eta, baina, bai zantzuz ugari, zeharkakoak izan arren. Kasurako, Pio Barojak 1918an argitaratu zuen *Las horas solitarias* saio-liburuan, honelaxe kontatu zigun Bera eta inguruetan ikusitakoa:

La guerra hace que periódicamente se presenten desertores en Vera. Los ha habido de casi todas las nacionalidades del grupo de los aliados

[...].

El mayor número de desertores ha sido de vascofranceses de las aldeas próximas. La gente de aquí, del pueblo los trata bien, y encuentran muy lógico que se escapen. Cosa extraña. Los franceses trataban mal a los desertores españoles que se escapaban por no ir a la guerra de Cuba o de Marruecos.

[...]

Se está produciendo una gran hostilidad entre los vascos de aquí y los de allá. Los vascofranceses, durante mucho tiempo, se han acostumbrado a mirar por encima del hombro a los vascoespañoles. Ellos pertenecían a una *grande nation* en donde no había agitaciones ni disturbios; podían llegar a esa suprema gloria de los parisienses de pronunciar la *r* como *g* y

a esa no menos sublime belleza de poder lanzar sonidos nasales por sus hermosas narices vascas como cualquier galo chato y braquicéfalo. Además, su dinero valía más.

Ahora, aunque sea momentáneamente, ocurre lo contrario; hay calma en España y agitación en Francia; nosotros hemos tenido el cinismo de no ir a la guerra y el dinero español vale más, cosas ambas que a estos franceses de la frontera los irrita.

Pio Barojaren testu horretan, ikusi duzunez, ez dago intsumiso eta desertore arteko bereizketarik, denak dira-eta desertore, baina asko dira edozelan ere. Bestalde, nabarmena da, Barojaren begietan ez da batere idilkoa alde bietako euskaldunen hartu-emanen egoera.

Jacques Garat da, nik dakidala, Gerla Handiko intsumiso eta desertore euskaldunen azterketa egin duen idazle bakarra. Garatek dioenez, gerlaren hasiera-hasieratik frantses agintarien arrangura nagusi bilakatuko ziren intsumisioa eta desertzioa. Dioskunez, armadarako izena emateko epea amaitzean, herriko-etxe asko eta asko zerrenda laidogarriez bete ziren; esan gabe doa, intsumisioen izen-deiturez osotuta zeuden, harrigarri luzeak direlarik. Intsumiso horietariko batzuk, bistan da, askoz lehenagokoak izango ziren, aspaldian abiatu baitziren Ameriketarantz, baina, intsumisoak izaten jarraitu zuten gerla piztu zenean, zeren 1887ko kintarainokoak altxatu baitziren. Baina, beste anitzek jo zuten mugaz bestaldera justu euren deialdia baino lehen, edota exento gelditzeko esperantza guztiak galdutakoan. Garaten arabera, intsumiso guztien heren batek mobilizazio ostan egin zuen ospa.

Ildo beretik, Garatek azaldu bezala, lehen baimen-aldiekin etorri ziren lehenengo desertzioak. Beti da berdin: behin eta baimen-aldia gozatutakoan gerlari batzuk ez dira euren erreximenduetara itzultzen, eta, horrela, desertzio gehien-gehienak igandearrekin jazotzen ziren. Jean Saint-Pierre ez dator bat ideia horrekin eta 1915eko abuztuko kronika batean gogor jaso zuen bere iritzia: “Gezurra! Hemendik [permisionez] joanak ikusten ditugu tenorean xut itzultzen, eta ez da gehiago deserturrez hitzik entzuten”. Hala ere, datuen arabera horixe da euskaldunen ohiko desertzioa, eta, dirudienez, hain larria suertatu zen kontua, non, 1915eko urritik aurrera debekatu baitzen baimen-aldiak edo konbaleszentzia eta susperraldiak Behe-Pirinioetako departamentuko muga-kantonamenduetan igarotzea, bertan jaioa edota bertako biztanlea izan arren. Debekua Donibane-Lohizune, Uztaritz, Ezpeleta, Baigorri, Donibane-Garazi eta Atharratzeko kantonamenduei dagokie Euskal Herrian, eta bai Aramits, Accous eta Laruns kantonamenduei Biarnon. Soldadu horiek beste kantonamenduetan igaro zitzaizketen euren baimen-aldiak, ez muga ondoan. Geroago, abenduan, Italiako mugara hedatu zuten neurria, eta Suitzakora ostan. Baina, zergatik debekua 1915ean? Bada, 1915a urte ikaragarria izan zelako, Frantziari 450.000 hildakotik gora ekarri zizkiona alferreko ofentsibetan; zer esanik ez, horrek beldurra zabaldu zuen soldaduen artean, eta, prefetak jadanik martxorako iradoki zuen, baimen-aldiak etengo zirela eta euskarazko eskutitzak debekatuko zirela, etxerik etxe irakurtzen baitziren, bihotzmina zoko-moko guztietaraino hedatuz.

Antza, nahikoa erraza zen Hego Euskal Herrirako ihesa, erro luzeak baitzeuzkan era horretako emigrazioak, baina, bestalde, gogoratu zelako giroa islatu digun Pio Barojak bere liburuan.

Intsumisioaren handia azaldu guran, inoiz espioi-sare aleman bat aipatu izan da, baina, Garatek dioenez, horren gainean egin ikerketek ez dute ezer finkorik aurkitu. Dena dela, arestian aipaturiko Barojaren eleberrian han-hemenka agertzen dira ustezko sare horrekin loturik egon daitezkeen pertsonaiak. Orobat, Saint-Pierrek uste hori darabil: “Egia da ere mugaz bertze alde hartan badirela gizon makurrak, sustatzale eta laguntzale. Alamanak diren, ala alamanen muthil eta esku-makhila, ala oraino beren gain, beren onaren ondotik ibilki, nork lakike xuxen erraiteko? Orotarik naski”. Jean Barbierrek ere jaso zuen hipotesi hori, eta, izan ere, “Agustin beratarra” deritzon agentea-edo hurbildu zitzaion Piarresi, joan ez zedin armen hartzera:

– [...] Ez nauzue behar bada ni ezagutzen. Bainan, nik ezagutzen dut Piarres. Hameka aldiz ikusi dut partida nekeen irabazten. Tokatzen zaizkit, Piarres... Gerla izigarri bat hastera doa. Galbideak oro utzirik, nahi duzu nerekilan ethorri?... Zu bezalako gizon gaztearentzat bada toki gure etxean! Berrehun pezeta zureak dituzketzu, hilabete guzietz...

[...]

– Zertarat ethorria zira gaur, deus nehork galdatu gabe? Ala laido egiten zaioten gizonetarik batentzat daukazu Piarres Oihanaldekoa?... Ez, jauna, ez! Eskualdun lurra ez dut nahi galdu...

– Eskualdun lurra badukezu oraino gurekin...

– Ez ordean gurea.

– Zurea ere badukezu, zonbeit urthe goiti beheiti, *amiztia* bati esker.

– Hobenduna da amiztiz behartzen. Amiztiarik gabe nahi ditut

–ahal bezenbat berant– ene aita-ama gaixoak lagundu Oihanaldeko eliz-hilherrietarat, eta amiztiarik gabe, egun batez, nahi naiz etzan nihaurek zaindu eliz-hilherri horietan... Anhartean, zuhaurekin eta zuhaurentzat atxikazu zure diru madarikatu guzia. Nere lagunen odolaz gorritua ikus niro bethi. Ez dut nahi!

Espioi-sarearen aukera baztertuz, txosten ofizial batzuetan arrazoi hoberik ere aipatu izan zen intsumisioarena azalduz: “par cette mentalité spéciale qui fait que beaucoup de Basques se considèrent comme n’ayant d’autre patrie que le coin de terre qui les a vus naître”. Deigarria bada ere, Jean Saint-Pierrek berea egin du ideia hori, eta era honetara agertu erazi zigun:

Eskualdun batzuen begietan, gerla denboran ihes egite horrek ez du kontrabando lanak baino gehiago hobenik. Atzemaña dena, atzemaña. Hanbat gaixtoago harentzat, eta hortan fini. Ez dezakete gogoan eman egitate hitsa dela, eta guziz ahalegarria.

Bizkitartean gerla denborako eginbidea da, gizonaren eginbide her-tsienetarik; eginbide lazgarria, nahi bezenbat, bainan eginbidea, herriaren laguntzea etsaiaren aztaparretarik atheratzen.

Alegia, euskaldun guztiak, zoritxarrez, ez zeuden Piarresen buztin bereaz eginda, eta, Saint-Pierreren ustez, argi eta garbi adierazi behar zitzaien zeinen desohoragarria den iheslariaren jokabidea, eta, ostera, egin-behar “hunuen konplitzea, Jainkoaren nahiaren egitea d[el]a”. Argi eta garbi, hasteko, etxekoei behar zitzaien adierazi, izan ere, Saint-Pierreren hiru anaia Ameriketara joan baitziren ihes; areago, eurotariko bat desertzioz epaitu zuten itzulitakoan.

Hari horretatik, Jean Barbierrek ia erridikuluraino tiratu du Saint-Pierreren ideia berbera, kontua era patetikoan deskribatu nahiz; arrebak esku-titz luze batean, beste gai askoren artean, honelaxe diotso Piarresi:

Bai Jainkoak nahi zuen, zure xokotik joan zintezan gurea bezalako hainitz xokoez egin den Frantziaren begiratzea. Begi onez ez diozoke beha eginbide horri ukho egin dionari. Nigarrez ari gira hemen, bainan hori hola da engoitik...

Behazu, Piarres, Goienbidean gerthatu zaiotenari. Mugaz bertz-alderat joan da Batixta, bere ama zaharra, bere andrea, bere hiru haurrak hemen utzirik, geroxago horiekin orekin uraz-haindirat, Ameriketarat joaiteko. Hamar egun gabe, haur gaixoetarik bat hil izan da; eta haren ehortz-egunean, aita dohakabea ez zen han, bere lagunaren aldean, gorphutz ttikiaren hil-herrietarat segitzeko... Ezkilak *dan, dan, dan* ari, eta mugari hurbil, bixkar batean, nigarrez ikusi omen dute aita ihestiarral...

Eta, orai hiru egun, Goienbideko andre gaixoa bere bi hurrekin joan da, bere aldian, Espainiarat buruz, eta –ezin sinhetsia ere baita– atzo erori da Goienbidea. Lau pareta dira gelditu! Ikaratzeko ere bada, hiru egun lehenago guziak hantxet galduko zirela orhoitu eta!... Etxe zaharra bera errenkuratu da molde hortan; erran bederen diteke. Bere haurrak oro urrundu orduko, joan da lurrerat. Zerentzat eta norentzat behar zuen xutik egon gehiago?... Odol-husturik norbeit erortzen den bezala, bere jendeaz hustu den bezan laster kraskatu da beraz etxe gaixoa! Eta orai, lau pareta doi-doi xutik han dagozi, ibar muthurrean, beso ihartu batzu bezala zerurat altxatuak!...

Joan behar zinduen beraz, Piarres. Bainan zato laster gibelerat...

Hau da, soldadu ez bazoaz, ez da bakarrik jainkoak ez zaituela begi onez ikusiko, ez; mundu honetako zorigaitz beltz guztiak jarraituko zaizkizu bata bestearen ondotik. Gutaz urrikalduta, Barbierrek ez digu aitortu zer iguriki genezakeen beste munduko su-leizean.

Beste kontu bat da, ea zenbat “biligarro” hegaldatu diren mendiez haraindian, mugaz bertze alderat. Zenbat iheslari egongo ote ziren, Hamalauko Gerlan? Hasteko eta behin, esan dezagun gutxi izango zirela, Frantziako 8.500.000 mobilizatuen aldean. Bestalde, Garaten iritiz, dauden datuak ez dira oso fidagarriak oro har, kopuru totalaz mintzatu ahal izateko. Hala ere, Garatek hainbat datu lortu ditu Pirinio Atlantikoen departamenturako, dela kantonamenduka, dela arrondizamenduka. Laburbilduz eta departamentu osoari dagokionez, hau da, euskaldunak eta biarnesak nahastuta, hauexek dira kopuruak: 16.889 intsumiso eta 1086 desertore. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, esan ohi denez. Dena dela, ez dakigu zenbat lagun mobilizatu ziren departamentuan, portzentajeak kalkulatu ahal izateko.

Hurbilketa baterako kantonamendu biko datuak aldatuko ditugu hona: Baigorrikoan, 45 desertore, 1032 intsumiso eta 594 mobilizatu; Donibane-Garazikoan, 48 desertore, 1310 intsumiso eta 1314 mobilizatu.

Nire ustez ez da kasualitate hutsa Jean Etxeparek iheslarien gaia ia ez jorratzea. Sujet hori, oker ez banago, birritan oratu du esplizituki, eta, beti ere, hastiorik erakutsi gabe. Lehenengo aldiz 1916an erabili zuen gaia, oso labur, gerla-kronika baten barruan, lege berri bat eztabaidatzen hasi zela adierazteko. Hiru paragrafo dira denetara:

Desertorrek aihertu dira bertzalde gure jaunak [lege-egileak]. Batzuek, Erreboluzione handiko denboran bezala, nahi lituzkete bahitu desertorren ontasunak, eta enkantean sal-arazi, diruntzi handirat biltzekotan saria.

Iduri du ontsa litakela, ezen baditakea desertorren egintza bezain apal eta zikinik? Bizkitartean, ontsa behatuz, garratzegi litake: zer hoben dute alabainan desertorren emazteak ala haurrek? Horren gatik zen ere izan lehenago kendua lege hori.

Ontasunen buruzagi, gizon baten ezartzea, eta desertorra bizi deno atxikitzea, hori ba, izaitekotz: desertorrek ez dezan ukan familiako laguntzarik, eta hunen mozkinetarikako zati bat eror dadin, ahalaz, gobernamentuko diruntzirat. Gaztigu hau izarian lakiguke.

Arazoia arrazoi, Etxepare lege-egitasmo bigunenaren alde-edo ikusi dugu lehen agerpen horretan, desertoreekiko aparteko herrarik gabe. Eta bigarrenaz, 1928an, Aldudetik bidalitako berri gisara. Berorretan ere, intsumisoei zegokien lege baten ustezko aldaketa da artikularen muina, eta bai mugako herri gehienetan sortu duen asaldura, “Amerika zokoetaraino laster hedatu ditakena”. Hori ere artikulua aseptikoa da hein batean, eta gainera badakar intsumiso-kopuru bat: “bada oraino Frantziako eskualde guzietarik lau-ehun-milaren inguria, gizon hoitarik”. Ez dakit datu hori nondik atera duen, ez eta noraino zehatza den, zeren eta, hala balitz, hau da, Frantzia osoan 400.000 intsumiso inguru baziren, orduan laburregia bailitzateke arestian aipatu dugun kopuru hori, 16.889koa. Gogoratu, dena dela, Garatzen ustez datuak ez direla oso fidagarriak.

Seinalatu ditugun bider bi horiez gainera, Etxeparek beste birritan ukitu zuen afera, baina aipatu barik ia-ia. Lehenago, 1919an gerlarien ohoretan egin mintzaldian, eta gero, 1923an aldudar erorien monumentuaren inaugurazioaren kariatz. Uste izatekoa da, bata zein bestea gerlaren, hildakoen eta gerlari ohien goresmen sutsua egiteko ekitaldiak izango zirela, eta, izan ere, alokuzioen testuetan horrelakorik franko aurkituko duzu, nahiz eta 1923ko horretan badauden bestelako tanta batzuk mintzaldia nahikotxo distortsionatzen dutenak, aurreko epigrafeko iruzkin batzuetan adierazi dudanez.

1923ko mintzaldi horretakoa da ondoan doakizun pasartea. Beraxe dugu ihesliarren inguruko aipamen inplizitu osoa, eta berorren ondotik dator aurreko epigrafera aldatu dugun aberriaren gaineko digresioa. Hone-laxe dio:

Izendatiak izan diren hameka gizonak, gure artian bizi ziren, gerla izan zitakelakorik oroitu ere gabe. Buruzagien deiarra aditu bezain laster,

abiatu ziren halere, bertze aldudar andana batekin, utziz orok beren sorherria, beren familia, beren ontasunak, beren lana. Erakuspen eder, urrats miragarri, egiazko gizon egintza! Eta orobat bertze nihungo frantsesena baino merezimenduz handiagoa. Alabainan ihes joateko, muga ondo ondoan zuten: Frantzian gerla, Espainian bakia; hemen griñarik baizik ez eta, bertzeen meneko, beti lanjerrian; hortxe, mendiez bertzaldian, libertatia, deskantsia, irabazpidia, familiaren noiztenka bederen, nahiz ixilka, ikusteko zoriona. Bainan ez: ihes egiteko xederik gogorat ere ez zitzaie jin. Joan ziren, ez baziren etxerat itzuliko ere nihoiz. Eta hameka baziren itzuli behar ez zirenak, gorputz baizik! Joan ziren, eginbide zuten bezala, bihotzak manatzen zakoten bezala, Frantziaren soldado.

Lerrook irakurritakoan, zertaz jabetu gara? Bada, hamaika gerlari hilda-koek –“bertze aldudar andana batekin”– badutela inongo merezimendurik handiena, gaintitu egin baitzuten ihes joateko tentazioa, Etxeparek tentaziorik ukan ez zutela badiosku ere. Baina, nire ustez, pasartearen azken esaldiak daroa Etxepareren kolkoan dagoen konbentzimendua, alegia, eginbidea betetzera joan zirenak, bihotzak halaxe aginduta joan ziren, bai, eta, jakina, *defektuz* uler genezake modu berean, beste aldudar batzuek hanka egin zutela, “bihotzak manatzen zakoten bezala, Frantziaren *ihesliar*”.

Patriotikoa da 1919ko mintzaldia. Dirudienez, Alduden gerlarien festa egin zuten abuztuaren 2an, eta Baigorri, Urepele, Banka eta Aldudeko jendea joan zen bertara. Ballea etxean bildu ziren, eta, mintzaldiari hasiera emateko, Etxeparek diosku gerlan hila dela etxe horretako nagusia ere, Jean Baptiste Erreka. Gero goraipatu egingo ditu gerlari ohiak herri-rik herri. Herri bakoitzeko goraipamenaren hasiera uztartuta dago ihesari ez lotzarekin. Ikusi, bada, zer dioen baigorriarrei dagokienez: “Muga hurran izan gatik, *bat etzen* gelditu Parisetik jin hel-oihu saminari gor”. Urepelekoen kasuan: “Muga hurbil izan gatik –Baigorri baino hurbilago oraino– hanitzek nahiago ukan zuten beren odola ixuri, eginbideari uko egin baino”. Eta Bankako txandan: “Muga hurbil zen bizkitartean hemendik ere, bainan sorterriaren amodioak hetsia zakoten, mendiak baino goragoko zedarrak batez. Euskaldun garbi eta frantses egiazko, etzizaizkon joan bertzalderat”.

Esanak esan, benetan gertatukoak ez ziren horrelakoak, eta Etxeparek, seguru egon, bazeukan horren berri. Hala ere, isildu egin zen. Etxeparek bazekien Baigorriko anitzek muzin egin ziotela Parisetik etorritako “laguntza-eske” saminari. Esan gabe doa, hor, erretorika dela-eta-edo, ziria sartu digu Etxeparek, zeren, ikusi ditugun datu batzuen arabera, Baigorriko kantonamendu osoak 1032 intsumiso eta 45 desertore eduki baitzituen, mobilizatuak 594 izan zirelarik soil-soilik. Urepelek berak bakarrik, 205 intsumiso eta 6 desertore ukan zituen, eta 52 mobilizatu. Bankak, bere aldetik, 153 intsumiso, 7 desertore eta 85 mobilizatu.

Nolanahi, ikusi zer dioskun Alduderen aldia iritsi denean:

Herri huntan ere, Frantzia zerbitzatu dutenak –arrotzerat bazoazkellarik asko beren ahaideen ganat–, gizontasuna dute goretzi, ez intresa; ez beren bizia, bainan herritar guziena; ez beren ona, bainan ohorea, bainan

beren ondokoen libertatea eta ona; ez urrungo leihor batean irabazpide berkoï baten gozamen apala, bainan zuzenaren alderdia, suan.

Berrogoi-ta-zortzi izan dira, gerta zakioketena gerta –bat edo bertze Serbia dohakabean barna– eginbide idorrari. Hameka ez ditugu ikusiko gehiago, nahiz gutartean beti biziko diren. Hamar batek badakarzate onestki, ixilik, gerlako sarraskiak; biz-pa-lauek jastatu dute, eta luzaz jasan, aleman presondegietao egoitza gogorra.

Kasu honetan ere, konturatu zarenez, goraiatu egin ditu, ihesaren tentazioari aurre egin eta gerlaren eginbide idorrari lotu zirenak, baina, bestalde, errespetuzko isiltasuna eskaintzen die, bihotzak alde egiteko agindu zienei. Ez dago inolako gaitzespen garratzik.

Eskuera eduki dudan txosten baten datuen arabera, 1916ko azaroaren 30ekoak, Alduden, 263 intsumiso, 7 desertore eta 40 mobilizatu egon ziren. Niri neuri, oso deigarri begitandu zait, Etxeparek aipaturiko “berrogoi-ta-zortzi” soldadu horiek, justu-justu direla txosteneko 40 mobilizatuak gehi 7 desertoreak, gehi, beharbada, txosteneko data baino geroago altxatutako beste soldadu bat. Zer dago hor? Kointzidentzia bat ote da? Ala Etxeparek ez die desertoreei inolako hobetik ikusi, eta gainerako gerlariekin zenbatu ditu ezer gertatu izan ez balitz bezala? Etxeparek seguru ezagutuko zituela, herriko-etxeo intsumiso aldudarren zerrenda laidogarri luzeak, eta bai nortzuk izan ziren zazpi desertore horiek, izen-deitura eta guzti. Zergatik ez zituen nabarmendu? Areago, zergatik ez zuen fitsik aipatu?

Impresioa dut, gure Etxepareren omisio esanguratsu hori Aldudeko aurreko medikuaren eraginez izan zitekeela, besteak beste. Izan ere, gogoratu, Fernand Elosu jaun mediku anarkista eta antimilitaristari asko jazarri zitzaïola, bere burua agertu zuelarik Hamalauko Gerlaren kontra. Egia esateko, ez dakit Elosurenganako konexio hori benetakoa izan zen, baina lan-hipotesi interesgarria deritzot, Etxepareren gerlarekiko jarrera epela ulertu aldera.

14KO GERLA ETA EUSKAL HERRI ZINEZKOA

Gerla Handiak zuen hil, beraz, gaztainak erretzen zituen Euskal Herri zahar idilikoa.

Gerla Handiak hil zuen, halaber, Mixel Etxart, alegia, Aldudeko txo-koan Japoniako gaztainondoan txirpia bideratu zuen Xotroeneko Xabaño-tarren auzoa, gaztainondo exotikoa mugako alde bietara barreiatu zuena. Horixe irakurri nuen, behintzat, Japoniako gaztainondoak Euskal Herrian egin ibilaldia kontatzen duen Germain Lafitteren liburuan: “fut tué à la guerre de 1914-1918”. Alabaina, gero ahaztuta eduki dut nondik atera nuen datu hori, eta luzaroan egon naiz iturri bibliografiko hori gogoratu ezinik. Kontua da, Etxepareren alokuzioko hildako aldudarren zerrendan bilatu nuenean, ez nuela Mixel Etxartik aurkitu hamaika izenen artean. Izen-falta horrek, ez dago esan beharrik, kapitulu honentzako amaiera prebisible barik utzi ninduen, zeren eta, misionistaren gaztainerkin hasi bai, baina gero kon-

Hamalauko Gerlan hildako
aldudarrak, gehi Bigarren
Mundu-Gerlan hildakoak.

(ARG.: K. ALTONAGA).



takizuna biribiltzeko “gaztainarik” gabe geratu bainintzen. Kontura zaitetz, ezin gogoratuzko iturriren baten arabera, Gerla Handian hil omen zen, Joanes Xabaño misionistak Japoniatik bidalitako gaztainekin txirpia hazi zuen Mixel Etxart hura, baina, lekuko zuzena dudan Jean Etxepare medikuak ez zuen jaso Gerla Handiko aldudar hildakoen artean. Baldintza horietan ez neukan kapitulua gaztainen inguruan biribiltzerik, eta izatez, aurreko epi-grafearekin eman nion amaiera.

Kapitulu bat bukatuta, jakina, hurrengo bat landu behar duzu, eta beti zabilza bibliografia begien aurretik kendu barik. Paperekin aurrera eta atzera, halako batean hor aurkitu nuen “qui fut tué à la guerre de 1914-1918” aipuaren iturria: Germain Lafitte, Gerezietaoko auzapezaren 1946ko liburua. Zer dela-eta, orduan, Jean Etxeparek ez zuen 1923ko alokuzioan Mixel Etxart sartu? Ala, ostera, Germain Lafitte da oker dabilena, eta Etxart ez zen Gerla Handian hil? Zelan argitu kontua?

Zer egin ez nekiela, orduantxe iritsi zitzaidan inspirazioa: argazkiak, Alduden egindako argazkietan begiratu, eta monumentuko izen-zerrenda arakatu. Uste nuena baino laburragoa suertatu zitzaidan argazki horien bilaketa. Aldudeko monolitoan hildako izenak oroitarri bitan banatuta daude. Denetara –hau ustekabea!– Lehen Mundu-Gerlako aldudar hilak *hamalau* izan ziren, eta ez hamaika, Jean Etxepareren 1923ko mintzaldian zehaztu bezala. Hots, hiru gehiago (!). Etxeparek ez zerrendatu arren, Aldudeko monolitoko oroitarrietan 34 urteko *Michel Etchart* aurkituko duzu, Migelar-zaina etxekoa.

Hala ere, gaztainen zirkulua itxi arren, berehalakoan sortzen da galdera bat: zergatik ez zituen Etxeparek monumentuko gainerako hiru hildako horiek kontsignatu? Izan ote ziren, bada, gerlatik larriki kolpatuta itzuli eta geroago etxean zenduak? Baina, gerla 1918an amaitu bazen eta inaugurazioa 1923an, gainerako hiru horiek noiz ziren hil? Gainera, badago datu bat ideia horren aurka egon daitekeena, izan ere, Mixel Etxart eta beste hildako biak ez baitaude zerrendaren azken partean hirurak batera, baizik eta, Etxeparek aipaturiko hamaika horien artean sakabanatuta.

Ez dakit zer gertatuko zen hiru hildako horien gorabehera ager dadin, baina, badaude beste xehetasun bi afera enigmatikoago bihurtu didatena. Lehenengo eta behin, jabetu egin naiz Jean Etxepareren *koinatua* izan zela, autuan darabilgun Mixel Etxart gaztainondo-hazlea, alegia, medikuaren arreba Graxianaren gizona. Horrez gainera, Etxeparek aipatu ez zuen beste hildako bat *St-Martin Chabagno* da, Auzkia etxekoa. Hau da, Xemartin

Xabaño hori, zeu ere konturatu zarenez, laugarren epigrafean kontatu dugun “legenda setati”aren ahizpen etxekoa da, eta, areago, haien neba, ziu-rrenez. Argibide ñimiño horrek, esan gabe doa, are eta intrigagarriagoa bilakatzen du Etxepareren omisioa.

Aipatu barik utzi zuen hirugarren hildakoa, *Pierre Ardans* izan zen, Soldadoene etxekoa eta apaiza; gerlaren hasieran hil zuten.

Beste xehetasun bat ere erakutsi digu aldudar soldadu hilen oroitarrien argazkiak aztertzeak. Lehen Mundu-Gerlaren zerrendan hamalau izen zenbatu ditut, eta, ostera, soilik hildako bi Bigarren Mundu-Gerlarenean. Hortaz, Lehenak hamalau eta Bigarrenak bi. Emaitza single horrexek berak nahikoa ondo adierazten du, Euskal Herriaren ikuspegitik eragin askoz sakonagoa ukan zuela Lehen Mundu-Gerlak Bigarrenak baino. Gerla Handiak, izatez, biziki azkartu zuen gaztainadien desagerpena, eta bai, orobat, sutondoan bildutasunez batzen zen Euskal Herri zinezkoarena.

Nolanahi, Aldudeko oroitarriek dioskutenez, bigarren gerla horrek ere Auzkia etxeko beste gazte bat hil zuen Frantziaren alde, hain zuzen 22 urteko Jean Gosterratxu.

4. Eztago Bilbo langorik

ALDUDEN BERRIRO ERE

1919ko azaroan burutu ziren Hamalauko Gerla osteko lehen udal hauteskundeak. Azkenekoak 1912an izan ziren, eta Piarre Mokozaïn atera zen alkate, baina, 1914an mobilizatua, Joanes Xabaño Xotroeneko nagusi zaharrak ordeztu zuen. Bi-biok zendu ziren gerla-urteetan, bata frontean 40 urte zituela, eta etxean bestea, 1916an, gerlan zituen hiru semeak itzultzen ikusi barik. Hala ere, Xotroeneko nagusiaren seme horietariko batek hartu zuen segida udaletxeko buruan.

Mixel Xabaño (1888-1974) gerlari ohiak ez zuen inolako zailtasunik izan Aldudeko auzapezgoa eskuratzeko, eta gerora bera izanen da Aldudeko alkatea etenik gabe 1965era arte. Eta berarekin batera nor-eta Jean Etxepare irten zen axuant, hots, auzapez-laguna, 1919ko azaroaren 30eko hauteskunde haietan; 1925era arte iraun zuen.

Kargu berria gorabehera, gure medikua gerla aurreko bizimoduari lotu zaio, itxuraz behintzat. Urepele eta Aldudeko jendeek urtean behin honen beste ordaintzen zioten, hori norberak bere ahalekin arabera, eta ondotik aberats ala pobre, bakoitzak bazuen medikuaren deitzeko eskubidea. Era berean, 1911n suaren aurkako aseguru-lagungo bat eratu zuen, Banka, Urepele eta Aldudeko etxeko-jaunekin batean. Etxeparek zeukan elkarte horren ardura, eta atseginez ikusten zuen bizkortzen zihoala urtetik urtera.

Bazeukan ere, ez dago esan beharrik, *Eskualduna* aldizkarian herriko kronikak idazteko erantzukizuna. Horietan esango digu, kasurako, 1920ko udan Lacombe jauna izan dela Aldudera joan diren udatiar ugarien arteko bat, eta, izatez, herrikoek aspaldiko ezagun xaharra dutela, haren zazpigarren egonaldia baita. Lehen aldiz, oker ez banago, Lacombe 1911n eman zuen uda Alduden, bertako euskara ikertzen, eta gerora hainbat aldiz itzuli

zen, are eta gerratean ere: 1916ko uztailaren 16an Lorrenako frontean handiki kolpatua izan zen beso bietan, eta, eskuinekoa anputatu ziotelarik, Alduden igaro zituen hurrengo urteetako udaldiak.

Halaber, *Eskualdunako* kroniketatik jakin izan dugu, herriko kontseiluak hainbat urrats egin zituela gerlan hil zirenen oroitarriaren lana abian jartzeko, eta bai horretarako beharko zen dirutza biltzeko –“bakotzak bere ahala-
ren arabera eman dezala”–. Geroago dioskunez, “zubi xokoan da beraz eginen harrizko obra pollit bat; ez espantagarrikerik deus, ahalak ez baitira hain handiak”. Kontseiluaren azken hitza izan zen hori, baina kontatu duenez, herrian ez zen adostasunik egon: “Batzuek nahi zuten hilerrri hegian, bestek zubi xokoan, andana bat osoki ezazol zagon”. Azkenean kontseiluak trenkatu behar izan zuen eztabaida, eta zubiaren alde agertu zuen bere gogoia. Oroitarria hilerritik lekora ezartzea, hau da, elizatik kanpo plantatzea erabaki dela ikusitakoan, baten batek atzera eskuratu nahi izan zuen monumentua eraikitzeko emandako dirua.

Dirudienez, bada, giroa nahikoa berotuta ibili zen Aldude inguruetan. Pentsatu daiteke oroitarria ezarri beharreko tokiaz eztabaidatzea memelokeria dela, eta galanta, baina kasu, besterik da kontu horrek ostenduta daroana. Batzuen asmoa oroitarria elizaren baranoan plantatzea izan zen; bestetzuek esparru laikoan zuten nahi. Hortik ulertu behar ditugu kokapenaren gaineko tirabirak, eta, izan ere, nik neuk lan-hipotesi modura luzatuko dut herriko medikua izan zela eztabaidagaia mahai-gaineratu zuena, hainbeste apaiz, misionista eta serora eman dituen Aldude herri sinestunean. Eta ziurrenez, geroago *Eskualduna* aldizkarian argitaratuko dituen arrazoiak ziratekeen, lehenago herrian ber-
tan erabiliko zituenak, bai aldudarrak bereganatzeko eta baita ere kontseilu-
a konbentzitzeko:



Aldudar hilen monumentua. Lucien Danglade (1891-1951) eskultore miarritzarra da egilea, eta, izan ere, haren eskutik atera ziren Hamalauko Gerlako hilen hainbat monumentu: Labenne, Geaune, Léon, Lakarre, Urruña, Ziburua, Iholdi, Aldude.

(ARG.: K. ALTONAGA).

Agnés Souret (1902-1929) ezpeletarra izan zen lehen-dabiziko *miss France*, 1920an; bi mila hautagairen artean aukeratu zuten. Horren ostetik zineman saiatu zen –*Le Lys du mont Saint Michel*–, baina dantzara lerratu zen azkenean. Argentinan hil zen *tournée* batean zehar, peritonitis batek jota. Zergatik ez zuen Jean Etxeparek Ezpeletako miss horren gaia oratu, artikululu jostalari edota zirika-zaile bat ontzeko? Erantzun posibleen artean, autozent-
sura egon daiteke ziurrenez. Izan ere, urte batzuk geroago Lizardik artikululu antologiko bat eskaini zion *miss Españari* –*Andereño* “Izardi”–, Donostian barrena ibili zela-eta.



Odol hotzian egon da jendia, bakar zombait kexu izana gatik. Gehienek ikusten dute alainan, zer eta nola behar dien izan, holako obra publiko batek. Gehienak ohartiarik dira ondarreko gerla etzela *une croisade*, eta ez ere *une guerre de religion*.

Esan bezala, nire ustez Jean Etxepareri otu zitzaion aldudar hilen monolitoa zubi ondoan paratzea, era horretara argiro erakutsiz kontua publikoa dela, ez daukala elizarekiko zerikusirik. Herri askotan ez zen horrelako eztabaidarik sortu eta oroitarria elizaren hegapean dago. Horrenbestez, beste behin ere gertatu gara aita Lafitteren bertsioa kolokan jarri beharrean, zeren eta Aldudeko medikuak berak idatztakoak gezurreztatzen baitu neurri batean, Lafittek horri buruz dioskuna:

Gerla horrek jats-aldi bat ona eman zioten lehenagoko duda gehieneri. Erlisione-gizoneri zaukan aiherkunde xaharra urtu zitzaion.

[...]

Ordutik iraganxea zukeen gure mirikuak gerla aintzineko bere bihotz-erredura eta jazar-gogoa. Noizean behin lanoak jinen zaizko berriz ere gainerat, ximistak ere ihurtzuri-eskainka; bainan beti goxoa-go, beti ederrago, beti xuxenago eta azkenean egiago agerturen zaizko fedearen argi bereziak.

Lafitteren lerro horiek irakurritz badirudi gerla-urteetan Jean Etxeparek atzean utzi dituela bere lehenagoko konbikzioak, hainbeste buruhauste ondorioztatu zizkietenak. Baina, arestian ikusi dugunez, horren kontrakoa adierazten digute, egoskor, Aldudeko medikuaren idazlanek: oinarritzko zenbait ideiak, itxura batean behintzat, ez zuten aldaketa nabaririk jasan Etxepareren kolkoan, urteak aurrera joan arren.

AZKUEREN HAUTAGAIA

Bat-batean zoritxarreko albistea iritsi zaio Aldudeko medikuari: hil egin da Pierre Buruzain lagun maitea.


Mediku hazpandarra 1920ko apirilaren 27an itzali zen, eta hutsik gelditu zen, beraz, Euskaltzaindiko bere aulkia. Georges Lacombe bete zuen haren tokia, urte bereko uztailaren 23an izan zelarik hautatua. Horixe da akademiaren historia ofizialak dioena, baina datu hotz horren gibelean, Jon Casenavek gogoratu duenez, badaude zenbait alde itzalpean gelditu direnak, eta argitzea mereziko luketenak. Batetik, Buruzain eta Azkueren arteko eskutitzetan maiz aipatzen da Etxepare medikua, eta alde horretatik, harrigarri samarra da neurri batean, beharbada ez horrenbeste lehenengo Euskaltzaindiko euskaltzain osoen artean Etxepare ez egotea, baina bai Buruzainen aulkia berak ez betetzea. Nolanahi, Jean Elizalde *Zerbitzarik*, 1927an, eta Maurice Souberbiellek, 1932an, haserre antzean aipatu zuten ezin zutela ulertu Etxeparentzako aulkirik ez egotea: *N'y a-t-il pas encore un fauteuil à l'Académie de Don Ascué?*

Horiek horrela, pentsa liteke Jean Etxepareri ez zaiola inoiz proposatu euskaltzain izatea. Hala ere, geroago, 1965ean, Louis Dazantzek *Herria* astekarian argitaratu zuen, Jean Etxeparek berak egin ziola uko aukera horri:

Pierre Broussain'en orde Eskualzain jar zadin Bilbaotik galdea-izan zue-
nean, ez zuen hori onhetsi, ez zuelakotz uste karga hori behar bezala
bethe zezakela...

Hau da, Dazantzek dioskunez, Buruzainen aulkia Etxeparentzat izatekoa zen, baina, Lacombe eskuratu zuen, Aldudeko medikuaren errefusa tarteko. Casenavek azaldu bezala, Dazantze jadanik euskaltzain osoa zen, lehenago irratiz eta gero idatziz hori plazaratu zuenean, eta, alde horretatik, pentsatzekoa da jakitun egongo zela kontu horren gainean, eta etxe barru-

Louis Dazantze (1888-1976) utzariztarrak laborari-ingeniaritza eta letretako ikasketak egin zituen Parisen. Hogei urtez Utzaritzeko alkateorde izan ostean (1919-39), beste horrenbeste urtez izan zen alkate (1939-59). *Gure Herria* aldizkariaren sortzaileetarikoa bat (1921), lan ugari argitaratu zituen bertan, administrazioa izateaz batera. *Eskualduna, Herria, Bulletin du Musée Basque* eta *Gure Almanaka* aldizkarietan ere



hainbat idazlan kaleratu zituen euskaraz eta frantsez, kirolaz, naturaz zein historiaz. Eskualzaleen Biltzarreko buru-lehena izan zen Jean Etxepareren ostetik (1926-59). Euskaltzain oso izendatu zuten 1949an.

(ARG.: HERRIA, 1962, 627 ZBK.).

ko, alegia, akademia barruko informazioa-edo edukiko zuela, horrelakorik haizatzeko. Dena den, Casenavek afera irekitzat utzi du, ze, Dazantzeren baieztapena horixe besterik ez baita, baieztapen hutsa, ez zeukan-eta inola-ko berme dokumentalik.

Euskera aldizkarian argitaratutako datuen arabera, Euskaltzaindiak 1919ko urriaren 26an izendatu zuen Jean Etxepare euskaltzain urgazle, Donostian egindako batzarrean; beronen baiezko erantzuna azaroaren 20koa da, eta Euskaltzaindiaren abenduaren 22-23ko batzarrean aipatu zen, Donostian ere. Modu berean, Euskaltzaindiak Georges Lacombe ere izendatu zuen lehenengo batzar horretan, baina, bigarrenaren aktak dakarrenez, Lacombe uko egin zion eskaintzari, eta, inoiz entzun dudanez, haserre, euskaltzain urgazle baino gehiago merezi zuela uste baitzuen.

Nolanahi, aurreko euskaltzainaren heriotza-egunetik hurrengoaren izendapen-egunera arteko hiru hilabete horietan, antza, hainbat eskutitz idatzi ziren, euskal akademiaren historia ofizialak damaigun protokolozko argazkiaren atzetik benetan gertatu zena argitzen lagunduko digituenak. Azkue Bibliotekako artxibategian arakatuz, besteak beste orduko dozena bat gutun irakurri ditut, argitaratu gabeak, Buruzainen ordezpenaren barne-historiako zenbait jazokune ezezagun eta oso esanguratsuk aurkezten dituztenak. Dozena horretatik hiruk, Azkue euskaltzainburu eta Etxepare medikuaren arteko paperezko elkarrizketa osotzen dute zehatz-mehatz, nahiz eta segida horretako lehenengo eskutitza, Azkuenera, artxibategian ez agertu.

Badago Etxepareren lehen eskutitz bat maiatzaren 13koa, Aldudetik Azkueri erantzunez, honelaxe diotsona:

Docteur J. ETXEPARE
LES ALDUES (A-H)
1894

11-V-20

Azkue, euskaltzainburu
Bibliotekari

Zuzenaz jaso.

Elkarrekin hainbat zuzenbide guri
dudazue gaur, orain y orain
guri gaurtik orain hainbat jaso
ordainaz.

Denak y oraindik orain
orain orain hainbat orain
y oraindik orain orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat

Orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat

bi eta orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat

orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat
orain hainbat orain hainbat

Jean Etxepareren eskutitza, Azkueri 1920ko maiatzaren 13an bidalia. (ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

13-V-20

Azkue eskualtzainburuari Etchepare medikuak
Buruzagi jauna,

Esker handiak daukitzut egin dautazun galdeaz, nahiz ez nizan
gai, hurbilik ere, Broussain zenaren ordaingoaz.

Bainan ez dezazuket erantzun urri artio. Orduan ere baditeke ez
dautzutan emanen ahal baiik. Ene lanpideak eta etchekeokilako egin-
bide askok josia naukate behingotz eskualde huni.

Ontsa aditzen bazituz, behar nuke jin Bilbaorat, orozbat sendalari
eta eskual-zale izaiteko, Madrilen ikerpen arin baten ondotik. Hortako
iduri zaut behar nukela lehenik Espainiako hiri-nausian sei hilabete
bederen iragan, erdaran trebatzeko ../.. bai eta ere Bizkaiko hizkuntzan,
medikuntzako ikaspenak ephe berean berrituz. Hoin luzazko egoitza
baten saria eman lezadaket eskualtzainburugoak? eta gero, zer irabaz-
pide lerakartet eskual-zalegoak? Bi gogoetaren bide, hor, ni nizan
bezain ahal chumeko gizon batentzat.

Argi gehichago eskatzen derautzut geroztik, iduri bazautzu,
–nagolarik bethi zure lagun eskualtzaingoan.

Dr J. Etchepare [sinatua]

Azkueren lehen eskutitza eduki ez arren, ihardespena irakurrita argi
dago euskaltzainburuak Buruzainen aulkia betetzea opetsi diola. Hau da,
Etxeparek berak egiaztatu digu luzaroan sekretupean–edo mantendu dena,
eta Dazantzek hainbat urte geroago plazara atera zuena. Eta ez hori baka-
rrik, zeren, bigarren pasarteko desenkusen ondoren, Bilbo eta Madril aipa-
tzen baititu eta beste makina bat kontu hiri bi horiekin lotuta: Bilbon “sen-
dalaria eta eskual-zale izaiteko”, Madrilen “ikerpen arin bat”. Egia esateko,
Jean Etxepareren eskutitza leituz berehalakoan ulertu dugu Azkuek zer pro-
posatu dion, baina, Etxepare bera bezalaxe ezin sinetsiz utzi gaitu, zorabia-
tuta, eta argibide gehiagoren beharrea gauzka. Dena dela, ez naiz hemen
azalpen horiek ematen luzatuko, Azkue izango baita, proposamena ezinago
argi utziko diguna, lau egun geroagoko eskutitzaren bidez:

R. M. Azkue Euskaltzainburuak J. Etchepare euskaltzain urgazle
zaitugun orri

Eskumunak dizkitzularik

yakinarazi nai dizu: 1^o pozik irakurri duela zure ezkutitz (lettre) 13-
koa.– 2^{en} Madrid-ko Menendez Pidal izkeltzain andiari oraintxe idatsi
(izkribatu) diola: zuretzat an, sei bat ilebeterako, bizibide egokiren bat
(quelque emploi digne) ediren dezan, zuk bitartean *Phonétique experi-
mentale* nola erabili bere *Centro de estudios históricos*-en ikas deza-
zun.– 3^{en} Gero alegin eginen degu, zuk, plaza ori utzi-orduko, inguru
auetan sendalarigo (mediku-plaza) bat izan dezazun.– 4ⁿ Euskaltzai-
nez (academico-gisa) besteak bezela izanen dezu zuk ere: batzaldi
(*séance*) bakoitzeko 25 peseta ../..

eta zure esanpean yarriz, bere aintzakotasuna darakutsu.

Bilbon 1920–*garren urteko* Mayatzaren 17–*an*.

../.. eta yoan-etorri ta *hoteletako* txanpon [?] (gastu) guziak Euskal-
tzaindiaren gainera izango dira.– 5ⁿ Menendez Pidal-en erantzunare-
na artuta batera ezkutitz berri bat igorriko dizut.

Berriz artio zure agindupean
Azkue

Ribera, 18.

Zure gutun polit *Buruchkak* irakurtzen ari naiz. Ezaldezu beste
ezertxo argitaratu? Poz-pozik irakurriko nuke.

+
R. M. Azkue
Euskaltzainburua

J. Etxepare euskaltzainburuaren sartapen orri

Eskunian dabilen dicitulari

jakinarazi na. Dia: 1º poik mediu' Dicitlar' zure
ezabuta (letra) 13. koo. 2º *Academia Menéndez*
Pidal ikaltzain andien oraintze (meta) (instituto)
Dicitlar: ezabuta en, sei bat ikaltzain, *Ribera* 18. 1900
bat (gaitzer emplai) Dicitlar: ezabuta, zure hitzaren
Plenitza ezabuta, zure ezabuta, zure ezabuta
estudios historicos in ikaltzain — 3º *Don Resu*
egiazta zure, zure, zure en utri ezabuta, ingere ezabuta
mediu' — 4º *Don Resu* (mediu' — 4º
Euskaltzain (acabado) *Don Resu* (mediu' — 4º
zure ezabuta: *Don Resu* (mediu' — 4º
Dicitlar: 25. ezabuta
(1800)

Bilbo 1900 gure ezabuta — 17. —

ate jasan-tori te hotalteko txaupen (pasta)
guziak Euskaltzainburua gainera 1800
- 5º Menéndez Pidal en oraintze
antate hatera ezabuta dei bat igoriko
Dicitlar.

Berriz artio zure agindupean
Azkue

Ribera, 18.

Zure gutun polit *Buruchkak* irakurtzen
ari naiz. Ezaldezu beste ezertxo argi-
taratu? Poz-pozik irakurriko nuke.

Azkueren eskutitza, Jean Etxepareri 1920ko maiatzaren 17an bidalia. (ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).



Etxepareri harrigarri begitandu zaiona, eta sinestezin ere bai, Azkuek berririo errepikatu dio, puntuz puntu. Oraingo honetan ez dago zalantza posiblerik: Azkuek Bilbo inguruan eduki nahi du Etxepare euskaltzaina, ez Aldude urrunean, eta horretarako mediku-plaza bat eskuratzen ahaleginduko da; hori baino lehenago Madrilera bidali nahi du, bertan fonetika esperimentalak ikas dezan Menéndez Pidal-egaz, hain zuzen ere Espainiako orduko hizkuntzalari puntakoena. Izatez, egun berean Azkuek gutuna idatzi zion Menéndez Pidal, galdetuz ea Madrilan posturik aurkituko duen Etxeparerentzat.

Nik uste dut, Azkueren eskuko dokumentu horrek frogatzen duena, Dazantzek esandakoaz oso harantzago doala. Ez da soil-soilik Buruzainen aulkia Aldudeko medikuari eskaini ziola, baizik eta Etxepare Aldudeko mendi-txokotik atera eta Bilbora eroan gura zuela, bere alborak, eta hori gauzatzeko eskueran zituen baliabideak erabiltzen aritu zela.

Orain arte ezezaguna izan den datu hori, jakina, lehenagotik ezagunak izan direnekin lotzen saiatu gara, eta badirudi, itxuraz, logika baten barruan ondo gardainatzen dela. Alegia, Azkue da euskaltzainburua, Azkuek zuzentzen du euskal akademia, baina Azkuek badaki berak ez duela hizkuntzalari baten formazio akademikoa eta bai, alde horretatik, laguntza behar duela, premiazkoa duela aditu-talde bat aldamenean. Eta, izan ere, Don Resu lantalde hori osotzen ahalegindu zen.

Testuinguru horretan ulertu behar da, esaterako, Gerhard Bähr hizkuntzalari legazpiarra luzaroan Euskaltzaindiaren bekaduna izatea, eta Göttingen-en unibertsitate-ikasketak burutu ahala, Schuchardt euskalari famatuaren lanak itzultzeari ekitea; geroago, 1926an, eta artean Gerhardek 26 urte bete gabe, Azkuek nahi izan zuen berak har zezala Karmelo Etxegarai euskaltzainaren aulkia. Bährek uko egin zion proposamenari, bera baino aurrezagokoak bazeudela iritziz, eta euskaltzain hildakoaren anaia izendatu zuten, Bonifazio Etxegarai, alegia. Era berean, Odon Apraiz Buesa euskaltzain arabarrak ere hizkuntzalaritza ikasi zuen 1920-22 tartean, Parisko eta Zurich-eko unibertsitateetan, horretarako Euskaltzaindiaren diru-laguntzak baliatuz. Ildo horretan, begi-bistakoa denez, Azkuek fonetikaren alorrera bideratu nahi du Aldudeko medikua, eta, diziplina horretan jantzitakoan, bere ondoan nahi du aditu hori, akademia Bilbon zentralizatuz, ahalik eta gehien dinamizatzeke.

Paperezko elkarrizketa horretako hirugarren eskutitz bat irakurri dugu, Etxeparerena, ondoan aldatuko duguna, hilabete bi eta erdi geroagokoa. Uste izatekoa da, beraz, gutunen bat falta dugula hirugarren honen aurretik, izan ere, Pierre Buruzain itzali eta abiada bizian joan dira hasierako eskutitzak; gainera, uztailaren 23an izan zen Georges Lacomberen izendapena, eta, zalantzarik gabe, horren berri zuzena emango zion Azkuek bere Aldudeko hautagaiari. Etxepareren idazkian bertan susmatzen da, bai, tartean eskutitz gehiago egon direla. Edozelan izanda ere, ikusi zer dioskun:



Jean Etxepareren eskutitza, Azkueri 1920ko uztailaren 31n bidalia. (ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

31-VII-20

Euskaltzainburu jauna,

Ikusten nuen aitzinetik Menendez Pidalek etzuela edireinen ahal enetako lan biderik, are gutiago zure lagunek eman nahiko zautatela

Madriren egoiteko sariririk [sic]. Ez dut deus gaitzi hartu. Eskerrak daukitzut aldiz, zure bihotz onean ene gatik hoin beroki bermatu zirelakotz. Urrunegi joan zira; enintzan hoinbertzeren gai, egiazki.

Atsegin handia dut Broussain zenaren ordez hautatu baituzue Georges Lacombe. Huni ba, badoako eskuariaren izena. Hortako behar diren jakitate berezi guzietz igeri da. Langile hurria, nahi baduzu, bainan zoin zorrotz, argi eta sudur onekoa! Horren eskuararen alderateko ezagutzaren erdia banekar ene eriekin, baneukake ene burua zer-bait; hautemanen duzu zonbat egiaz mintzo nitzazuzun, irakurtuko/. duzularik “Revue Internationale des Etudes Basques” delakoan, lthurry zenaren liburuaz ager-arazi gogo duen kitzika; hobeki oraino, argitarat ezarriko dituelarik aspalditik eskuara osoaren gainean adelatzen ari duen lana. Ez duzue haatik noiztenka baizik ikusiko Bilbaon. Idatz zakozue orok ardura; akula zazue, eta artetan sista.

Ene “burutchka” berri batzuen gura zaude; ni aldiz bethi beha nago noiz eginen daukuzun zure hiztegi joriaren hirugarren zathia, –frantses, eskuara eta español; noiz bertzalde hiztegi hori osatuko duzun, egiazki duen buztan luzea eratchikiz. Orduan hasiko gira mendiez hunaindian liburu egiten oro, karraskan.

Iduri zaut zure laguntzarekin batean ene “Buruchkak” ere garbikiago jorra nitzazkela, legunt, hein onean luza. Ez dut bertzenaz urriki handiagorik [?] zathi bat ezinbertzez gaizki apaindurik edo gordinkiegi ezarririk baizen.

Nehoz hurbilduko ahal nizanez itsas-hegitik, ez dakit. Donostian jarri izan bazinete bederen! Halere noizetik noizera agur bat egin gogo neikezue [?] Bizkaiko choko hortarat.

Bihotzez zure

Dr JEtchepare [sinatua]

Hor dago eskutitza. Hala ere, horko hiru puntutara begiratu arazi nahi dizut bereziki.

Batetik, Azkuek Menéndez Pidalen erantzun negatibo bat jaso zuen, Madriren maiatzaren 22an bertan idatzia. Ezezkoa izan arren, ez zen guztiz itxia, hau da, Menéndez Pidak ezin zuen Etxepare bere ondoan kokatu, baina, bai, beharbada, inguruan, Junta para Ampliación de Estudios-en, mediku gisa. Gestio hori egitekotan lotu zen Azkuerekin, baina artxibategian ez da gorde bestelako eskutiztik, gestio horren emaitzaren berri damainunik. Hala ere, azkeneko hori izango da, ziurrenez, Etxeparek eskutitzean adierazitakoa.

Bigarrenik, itxura batean Etxepare poztu egin da Lacombe izendatua izateaz, laguna du eta badaki, hizkuntza-akademiarako “behar diren jakitate berezi guzietz igeri d[el]a”. Etxeparek badaki, bestalde, “langile hurria” dela. Etxepareren idazlanetan esangura birekin agertzen da hurri delako hori, biak *Orotarikoan* jasota daudelarik. Adibidez, idazlearena, lan hurri, idor eta sari mehekoa dela irakurriko diogu. Kasu horretan, *Orotarikoan* egiaztatuta dago intuitiboki ulertu duguna, izan ere, hitzaren hirugarren adieraren azalpenetan “(Trabajo) difícil, costoso. <Lan hurria, travail lent, qui ne peut être fait que petit à petit>” dakar, eta beheratxoago “minutieux”. Alabaina, argi dagoenez, Azkueri Lacombe langile hurria dela diotsonean bestelakoa da


Etxeparek adierazi nahi diona, alegia, berbaren bosgarren adiera (“Lent, qui avance peu dans le travail”, «*Langile urria*, el oficial que trabaja poco») edota seigarrena (“débile, pusilánime”). Sasoi horretako beste euskaltzale batzuen ustez ere, alferrontzi galanta da Lacombe, kritika-merke eta endreda-makila izateaz batera, eta, izan ere, “Lacombe, un grand paresseux [...] ne produit rien” esan zion Daranatzek Azkueri 1918ko azaroaren 25eko eskutitz batean. Beharbada, horrexegatik ez du Azkuek Lacombe aukeratu, prestakuntza akademiko onekoa izan arren, eta gurago izan du Etxepare “langile handia”, Dazantzeren hitzetan esanez. Alde horretatik, aipagarria da Lacomberen zorioneko tesiarekin gertatutakoa: 1911ko udan hasi zen prestatzen doktore-tesia Aldudeko euskarari buruz, eta, Lacombe berak adierazi bezala, dozena bat egonaldi egin ditu Alduden eta Etxeparek 150 eskutitz bidali dizkio hainbat eta hainbat datu eskainiz; 1918ko abenduaren 21ean Martin Landerretxeri idazten dio badituela 600etik gora orrialde, fonetika, morfologia eta hiztegiaren arabera sailkatuta; baina, Lacombe 1947an hil ondoan, Henri Gavelek paper horiek bilatuko dituenean, “bizpalaur ehun fitxa doi-doia aurkitzen ditu, 10 bat orrialdetan argitaratzen dituenak”. Alegia, lurrundu egin da zorioneko tesia.

Bestalde, Etxepareren eskutitzaren amaiera azpimarratu nahi dut, bai dioenagatik eta bai esateko erabili duen tonuagatik ere: *kukutxo* bat egin nahi dio lantzean behin Azkue bihotzekoari, Bizkaiko puntan.

Nolanahi, Azkue eta Etxepare arteko elkarrizketa horregaz batera, bestelako mezuak egon ziren, Buruzainen aulkia beteko zuen euskaltzain berria nor izan zitekeen proposatze-ko. Labur bada ere, Azkue Bibliotekako artxibategian aurkitu ditugun beste gutun biren berri ekarriko dut orain.

Kronologikoki lehenengoa, Pierre Lhande josulagunak Genève-tik maiatzaren 3an bidalitako postala da, laburra beraz eta frantsesez idatzitakoa. Beste gauza batzuen artean, Azkueri galdetzen dio ea nahi duen bere influentzia erabil dezan Baionako apezpikuaren aurrean, Jean Saint-Pierre *Anxuberro* gerlari ohiari baimena eman diezaion akademikoa izateko eta bileretara joateko. Dena dela, Jean Saint-Pierre askoz geroago bilakatuko da euskaltzain oso, 1949an; euskaltzain urgazle Etxeparearekin batera izendatu zuten, 1919an.

Georges Lacomberena da aipatu gura dudana bigarren eskutitza. Parisetik bidalia da ekainaren 18an, eta hasierako pasarte honelaxe dio Azkueri:



Mon cher ami,

Urquijo m'informe que la vacance du fauteuil de le pauvre Broussain est déclarée. Croyant avoir fait quelque chose pour le basque en France et à l'étranger depuis 25 ans, je vous prie de vouloir bien faire savoir à vos collègues de l'Académie que je me porte candidat. Cette candidature est approuvée d'ailleurs par mes amis les linguistes de Paris, qui seraient d'ailleurs heureux, le cas échéant, de contribuer indirectement à la prospérité de l'Académie.

Georges Lacomberen eskutitza, Azkueri 1920ko ekainaren 18an bidalia.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

Eskutitz horretan, hasteko eta behin oso deigarria suertatzen da protoakademikoaren kaligrafia negargarria, batzuetan ulergaitza ere badena. Jaki-na, hori ere, Gerla Handiaren ondorio negargarria da, Lacombe kaligrafia ederra eduki baitzuen 1916ko uztailan eskuineko besoa moztu zioten arte. Dena esateko, kolpe latza hartu nuen, artxibategiko Lacomberen eskutitz guztiak urterik urte sailkatuta zeudela, bat-batean kaligrafia-aldaketa izugarria ikusi eta horren arrazoiaz ohartu nintzenez. Zelako alde besamotz utzi zutenetik aurrera! Eta, une batez, nigandik zein hurbil sentitu izan nuen Hamalauko Gerla malapartatua, haren ondorioak neure eskuetan oratuta.

Eskutitzaren datari erreparatuta, badirudi Lacomberengana nahikoa berandu iritsi dela bakantearen berria, baina zail egiten zait pentsatzea horrenbeste luzatu zenik Pierre Buruzain hil zela jakiten. Nolanahi, deigarri begitandu zait Lacombe berak aurkeztea bere burua, eta ez beste norbaiten bitartez, Urkixoren bidez esaterako. Gainera, alde ei dauzka Parisko hizkuntzalariak. Ematen du, bada, Lacombe ez duela falta harrokeria-puntu bat. Gure mediku gaztea ere urgulutsua izandakoa da, baina beste sasoi batean, Hiriart-Urruti kazeta-egilearekin haserretzen zenekoan, ia hogeit bat urte direla.

Pierre Buruzainen ordezpena ez zen izan aldi bakarra, Etxepare hauta-gaitzat hartu zutena euskaltzain oso egiteko. Georges Lacombe berak Aldudeko medikuari egindako obituarioan dioenez, Landerretxe hil zenean, 1930ean, Etxepare izan zitekeen hautatua, baina, euskal akademiak gurago izan zuen aukeratzea euskalkiz lapurtar garbia zen bat. Bigarren aldi horretan, Jean Elizalde *Zerbitzari* zuten euskaltzain oso egin.

Dena dela, bigarren horretan, batetik, Georges Lacombe jarri zen Etxeparereren alde, eta, Azkuek, bestetik, Daranatz izan zion gonbita, apirilaren 15ean bidalitako eskutitz batez, eta bai bere kurrikulu laburtua eskatu. Hala ere, Azkueren eta orduan Baionako kalonjea zen Daranatz arteko bizpahiru eskutitzetan susma daitekeenez, badirudi Azkuek Daranatz hobetsi zuela, baina ez horrenbeste Etxeparerengandik urrundu zelako edota harekin muturtu zelako, baizik eta Lacombe proposatu zuelako Etxepare. Izan ere, Daranatz nahikoa argi mintzo zaio Azkueri nor-eta Etxeparereren alde, apirilaren 17an eman zion erantzunean:

Utsuneari buruz, nahi dautzut ene bihotza zabaldu, koropilorik gabe.

Euskaltzaindian, Etchepare medikuak ni [sic] baino hainitz hobeki [azpimarrak Daranatzerenak dira], gure mintzaia paregabeari buruz, lagunduko zaituzte.

Bethi kasik ene lanak frantsesez eman ditut, Eskual-Herriaren oho-retan; Etchepare, aldiz, arras trebe da mintzayan, eta bethi eskuaraz ageri da Eskualduna-ren orrialdetan.

[...] Jaun horren [= Etxepare] beraren solasa izan dadila zure gogoaren harroina, ihardesteko beso motchari.

[...]

Kontrarat, iduritzen zait bere gostuko lana egiteko emaiten badio-zue lagun horri [= Etxepare], barrutik lothuko zaiola eta guzieren atsegin oso emanen dautzuela.

Daranatzek, kontura gaitzkeenez, Aldudeko medikuarekin solasta dadila aholkatu dio Azkueri, inork eskatu barik eskaini dizkion Etxepareren laudorioen ondotik. Dirudienez, zelan edo halan Besomotzak, hots, Lacombe endredatu egin zuen hautaketa-prozesua, eta itxura batean Daranatzek ura Etxepareren errotarantz bideratu nahi du berriro ere.

Arestian esan bezala, bigarren aldi horretan Jean Elizalde *Zerbitzari* gerlari ohia izan zen, euskaltzain oso izendatu zuten lapurteradun garbia.

JOAN-ETORRI BAT BILBORAINO

Jadanik baziren hamabost urte Etxepare Alduden plantatu zela, euskaltzain oso izateko gonbidapena jaso zuenean.

Hamabost urte, beraz, egunez egun joan zitzaizkionak –gerlako parentesitik landa– mendi-txoko bazter hartan, inora ateratzeko erraztasun gutirekin, herrian bertan eta gaixoen gorabeheraz aparte gogoetarako alhapide handirik ez duelarik, ez bada bere eskuko zituen orenetan etxeko liburutegira gordezten zela. Biblioteka bat bazukeen, “askitto nasaia” mediku xume batentzat, dena kasik medikuntzazko jakintzez betea. “Irakurtzea astirekin, jakituz, gozo zitzakon... Izkiriartzea, bietan gozo” esan dezakegu Aldudeko medikuaz, berorrek anaia apaizari buruz idatzi zituen hitz berberak errepikatuz.

Ez dakigu Etxepareren bibliotekan zer aurki zitekeen. Antza, ez da kontserbatu, eta zeharka bakarrik jakin ahal da zer irakur zezakeen. Kasurako, 1918ko kronika batean aipatu zuen gerla-urteetan irakurritako frantses liburu eta idazle batzuen zerrenda: Paul Lintier-en *Le Tube 1233*, Henri Boland-en *Nouveaux zigzags en France*, Camille Mayran-en *Histoire de Gotton Connixto, suivie de l'Oubliée*, Victor Cambon-en *Où allons-nous?* eta *Notre avenir*, eta, azkenik, Lysis “izen-orde duen idazle bat”en hiru liburu “aipagarriak”, *L'Erreur française*, *Pour renaître* eta *Vers la Démocratie Nouvelle*. Egia esateko, guztiz ezezagun suertatu zaizkit zerrendaturikoak, baina, Etxeparek dioenez, horietatik dira lubakietako “ordu luzeen kalitzeko hoberenak, aharrosia haidurkienik urrundu daukuten hek”. Bestalde, etxean lasai irakurritakoez argibide desberdinak daukagu, han-hemenka agertu direnak, dela literatura-kritika modura plazaratutakoak –hala Txomin Agirreren *Garoa*, nola Jean Barbier-en *Piarres*–, dela eskutitzen batean aipatuta –adibidez, Axular, Bergson, Azkue–, eta abar, baina ezin da zerrenda agortzailerik osotu. Bistakoa denez, beste liburu hauek eta ezagutzen ez ditugun beste asko ez zituen irakurri mendi-txoko hartako denboraren luzea kalitzeko soilik.

Nolanahi, badirudi Azkueren proposamena tentaziorik lerraragariena izango zela Aldudeko medikuarentzat. Horretaz konturatzeko, nahikoa dugu gogoratzea Pierre anaia apaizaren obituarioan idatzi zuena 1932an. Pierre Etxepare hamasei urtez irakasle ibili zen lehenago Larresoron eta ondoren Beloken, baina, osasuna ahuldu zitzaionetik, 1919an erretore igorri zuten Donamartirirat. Etxeparek dioenez, “Donamartihiri 403 arimako herri tipi bat da, Hazparne-ren iuzpegirat”. Bada, erretorea zena ezagutu zutenek, elkarren artean mintzo zirelarik hartaz, ikusi zelako galdera zera-bilten ezpainetan:



Aldudeko plazan jokaturiko azken "laxoa" partida, 1952an, Eskualzaleen Biltzarren karietara. Pilota-joko zahar hori zen, errebotearekin batera, gehien jokatzena eta arrakasta handiena zuena. Pilotaleku irekian jokatzeko zen, pilota alde batetik bestera bidaliz, eskularruez baliatuz.

(ARG.: GURE HERRIA, 1964)

...laketzen ote da, nihoiz kasik ateratzen ez den, Donamartihiriko xoko bazter hartan?

Jean Etxepareren erantzuna, ezin ihardukizkoa, lerro bi beherago zegoen; hauxe duzu:

Ez dugu uste gizon argitu bat laket ditaken luzaz, laboraririk edo ofizialerik baizik ez duen herri batean. Ez dira baitezpada goxatzeko lekuak.

Hau da, Etxepareren ihardespeneak ez du zirrikiturik utzi inolako zalanztatarako: gizon argituak herri txikietan ez du bere parekorik aurkituko, eta ezin izango du gogoia alhatu. Ideia hori konstante bat da Etxepareren pentsaeran, ez da itzaltzen, eta, goxoago adierazita –goiko aipuan bezala– edo gordinago –gazteago zenean–, behin eta berriro aurkituko duzu haren idazlanetan. Ikusi, kasurako, zelan formulatu zuen 1918an:

Herri ttipian ez da egitekorik deus. Han gizon ala emaztek ez dezakete elgar ikus; han begiak zorrotz dira, zorrotzago mihiak, zorrotzago oraino aztaparrak. Jiteak ñimiño, egitateak ñimiño, buruak ñimiño, oro ñimiño herri ttipian.

Aurreko aipamen horretako azken esaldia kategorikoa da erabat. Hala ere, ez da Alduden idatzia (bai, beharbada, egosia), Hamalauko Gerlaren azken uneetan baino. Esan nahi baita, ez dela herri txikian bizi izandako itxialdi luze baten ondorioa, alegia, ez da bertako giroaren itolarrian sortutako erreakziozko ateraldia, sakonagotik datorren zeozer baino. Ildo bereetik doa ondoko pasartea, 1910ekoa, baina darion garratzasuna askoz nabarmenagoa da, eta azken esaldia, ados egongo zarenez, gaur egun ez litzateke politikoki zuzena izango:

Ez dakite zer den elgar aditzea laborariek. Arimaz egia derratzut; ez dezakete elgar ikus, guziz herri ttipietan. Bekaizgoak jakin daude. Eta bekaizgoak ondoriotzat beti dakarren batzu bertzeen alderateko konfiantza eskasak. [...]

[...]

Afrikako beltzaren kide duzu laboraria: «nehon ez onik, non ez den izan buluzia, larrutua, eta larrutu-ondoan ostikoka erabilia gibelaldean».

Beharbada, ondoen, ipuin batean jaso du Etxeparek herri txikietako giro ezin jasanezkoa. Ipuin hori 1906koa da eta *Behin Makean* deritzo; *Gure Herria* aldizkarian berrargitaratu zuen Lafittek 1972an, baina Xarritonek ez du jaso Etxepareren idazlanen bilduman. Makeako plazan kokaturik, izenak berak salatzen duenez, Juanaño eta Marigazteren arteko gorabehera ziztrin eta lazgarri bat kontatzen du, halatan non, urkabe-bertsorik krudelenetako izugarrikerien esparrura eroango baikaitu konturatu barik. Dena dela, ezin hobeto islatzen du noraino irits zitekeen herri txikietako buru ñimiñoen

zitalkeria. Horrez gainera, kontakizuna arras misoginoa delarik, dudatan utziko zaitu ea delako misoginia fideltasun osoz erretratatu nahi den eszenari eta orduko garaiari dagokien eta, hortaz, berezkoa den, ala ostera, ea Etxepare medikua den misoginoa zena.

Orduko du, bai, harridura-zeinuen –!– gehiegizko erabilera enfatikoa, baina, Ibanek aipatu didanez, *Behin Makean* bezalako gauza gutxi idatzi ziren XX. mende hasierako euskal literatura jasoan, kostunbrismorako bidea hartua baitzuen (gogora dezagun Txomin Agirre). Ibanen ustez, ipuina bizia da, krudela da, oso zehatza deskribapenetan –harridura-zeinu horiek gabe ipuin errealista iparramerikartzat jo zitekeen, ia–, kasik *gorea* katuari gertatutakoa deskribatzean: erruralismo beltza *avant-la-lettre* (Pako Aristirena edo Inazio Mujikarena baino dezente lehenagokoa). Areago, esan egin daiteke kostunbrismoa nagusitzeak bide hau guztiz moztuta utzi zuela, salbu eta –ziurrenik– ahozko kontagintzan (bide batez aipatzeko, hortik ere badu *Behin Makean* honek). Kanpoko begirada bat da, bai, baina “barrukoa” eder- to ezagutzen duena, eta apaingarririk gabe kontatzen duena.

Dena dela, hain esanguratsua den *Behin Makean* gaur-gaurkoz ez dago eskuragarri, eta horregatik aldatu dugu eranskin gisa liburu honen atzeko aldera, ipuin llabur hori goza dezazun.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, eguraldiak ez zuela asko arinduko Etxeparek jasan beharreko egoeraren gogorra. Honelaxe laburtu zuen 1927an:

Neguan sartzeak beti guti edo aski lazten gitu: mendian luze baita negua, lanotsu, hits, hotz baino zorigaitzez, bustiago [...] sei hilabete luze, etsigarritz.

Autuak puntu honetaraino ekarri gaituelarik, berriro errepikatuko dugu arestian aipatu ideia, alegia, Azkueren gonbita Bilbo aldean kokatzeko, tentazio ezin gairidutuzkoa izango zela, herri txikienganako teoriar behintzat antipatia horren nabaria sentitzen zuen Etxepare medikuarentzat. Alde horretatik, nik neuk beharbada ez nuen Etxepareren baiezeko itsu-itsua espero, baina bai, noski, eskutitz efusiboago bat: 1920ko maiatzaren 13ko eskutitzean, behingoz Aldudetik hanka egiteko aukera agertu zaiola-eta pozaren pozez agertu beharrean, hotz eta sinesgogor ikusi dugu. Ez zait ulergarri suertatzen. Ematen du partida galdutzat jotzen duela hasi aurretik. Badirudi, Menéndez Pidalen erantzuna gorabehera, badakiela alde aurretik ezinezkoa duela Aldudetik alde egitea. Inpresioa dut, Madrilerako joateko gestioa ondo atera izan balitz ere, Etxepare ez zela Aldudetik mugituko. Eta Azkueri urrira arte ezin duela erantzun esan arren, horrekin batera “eginbide askok josia naukate” aitortu dio, hau da, izatez ezezkoa luzatu dio ia-ia. Zerk lotzen zuen Etxepare Aldudera?

Azkueri “ene lanpideak eta etchekoekilako[ak]” direla diotso. Ezin dut begietaratu zer egon zitekeen ostenduta azalpen erretoriko horretan. Dena aitortzeko, inoiz pentsatu izan dut Etxepare ezkontzarako tratuetan hasita eta, beharbada, nahikoa aurreratuta egongo zela, eta ez ziola asmo horri denik eta oztoporik txikiena jarri nahi, ordurako ia 43 urteko mutilzaharra baitzen. Nik dakidala, burutazio horrek ez dauka inolako oinarri dokumen-

talik, eta egia da, gainera, 1923ko urtarrilera arte ez dela esposatuko, baina, erabilgarria deritzot lan-hipotesi gisa, hobearen faltan. Edozelan ere, hipotesiak bere alde du esaera zaharra: *indar haundi idiak, areago titiak*. Nahi izanez gero, kasu honetarako egokitu ahal dugu erretra, eta *idiak* beharrian, *Euskaltzaindiak* esan.

Ez dugu lortu argitzea zein izan zitekeen, baina, dirudienez lokarri esturen bat zegoen Aldude eta Etxepareren artean. Nolanahi, Azkueren aztikeria barru-barruraino iritsiko zaio Etxepareri, eta, herrian lotu arren, Etxepare *sorginduta* bezala gelditu da, haren eraginpean. Kontura zaitez: Azkueri bidalitako bigarren eskutitza 1920ko uztailaren 31koa izan zen; bada, hurrengo irailaren 10etik aurrera eta abenduaren 17ra arte atalka artikululu luze bat plazaratu zuen *Eskualduna* astekarian *Eskualzainburu* titulupean, zeinean aritu baitzen Euskaltzaindiaren egitekoaz, eta baita Azkueren handiaz eta hamar bat urte lehenago Bilbora egindako joan-etorriaz. Berez oso adierazgarria da idazlan hori, eta askoz adierazgarriagoa kontuan hartuta idatzi zueneko unea, alegia, Buruzainen ordezkioa aukeratutakoan. Hain justu artikululu horixe berrargitaratu zuen Piarres Lafittek 1965ean, 15 orriko opuskulu modura, Etxepare medikuaren heriotzaren 30. urteburuaren karietarat.

Idazlan mamitsu horretatik, soilik arlo bi iruzkinduko ditut hemen. Izatez, elkarrekin lotuta doaz guztiz, baina, ahaleginduko gara banan-banan erakusten. Halandaze, batetik, Bilbo hiriari dagozkion deskribapen eta gogoeta ekarriko ditugu, eta ostean, Azkuek iradoki hausnarketa.

“Duela hamar bat urte joan-jin bat egin behar ukan nuen *Bilbaorat*” esanez hasten da artikulua. Horrek 1910. urtera-edo garamatza: neuk bidaiia 1909an izan zela egingo nuke. Izatez, Etxeparek ez du inon argitzen zer dela-eta joan zen Bilbora, eta ez du ere data zehatz-mehatz aipatzen; bestalde, baina, badakigu *Buruxkak* 1909ko azaroan Tours-eko Mame argitaletxean inprimatu zela, hau da, Ipar Euskal Herriko ohiko moldiztegietatik kanpo eta, hain zuzen ere, Azkueren hiztegia bost urte lehenago kaleratu zen argitaletxe berean. Kointzidentzia hori handiegia da, berez etorri zela pentsatzeko: Buruzain mediku hazpandarra izango zen, ziurrenez, Etxepare eta Azkue arteko esteka, bi-bion lagun mina baitzen; Buruzainek aholkatuko zion Azkuerengana joan zedin eta hiztegiaren argitarapenaz galde ziezaien. Dena dela, Azkue/Buruzain gutundegian ez da urte horietako eskutitzik kontserbatu, eta ezin dugu jakin egiazkoa ote den aieru hori, eta Etxeparek ez du ezer argitzen sujet horretaz. Gure hipotesiaren aurka legoke, Azkueren laguntzaz argitaratu *Buruxkak* liburuaren ale bat Etxeparek esker onez dedikaturik ez bidaltzea: Azkuek behintzat ez zuen 1920ra arte irakurri, eta hortaz pentsa liteke ez zuela lehenago jaso, eta izan ere, Azkue Bibliotekan ez da holakorik kontserbatu. Bestalde, bai Etxepare eta bai Azkue Hondarribian egon ziren Eskualzaleen Biltzarra fundatu zuen ekitaldian, 1902ko irailaren 11n, baina, dirudienez, ez dute elkarren gomutarik gorde.

Arrazoiak arrazoi, Etxepare Bilbora joan zen 1910 urte inguruan, eta, treneg egindako bidaiaren inpresioez gainera, hiriaren deskribapen nahikoa zabala damaigu. Ez da Bilbo Etxepareren idazlanetan agertzen den hiri



Resurreccion Maria Azkue Aberasturi (Lekeitio, 1864; Bilbo, 1951). Nautika ikasketak egin zituen Lekeitioan, Bilbon batxilergoa, eta Gasteizen filosofia- eta teologia- ikasketak. Gasteizen Txomin Agirre ezagutu zuen eta geroztik adiskide izan ziren. Salamancan apaiztu zen 1888an. Urte berean, Arana Goiri eta Unamuno lehiakide zituela, Bizkaiko Aldundiak Bilboko Instituturako ireki zuen Euskara katedra eskuratu zuen, eta 1936ra arte egon zen irakaste. Bestalde, musika-ikasketak egin zituen Brusela eta Kolonian. Euskaltzaindiaren sortzaileetarikoa bat (1918), bera izan zen erakundearen zuzendaria eta arima hil arte. Euskal Herriko zokomoko guztiak miatu zituen, euskara eta folklorea biltzen. Obra inobrea ondu zuen hainbat alorretan: musika, antzerki, nobela, kazetaritza eta abar. Azkuerenak dira, besteak beste, *Diccionario Vasco-Español-Francés* (1905), *Cancionero popular vasco* (1918) eta *Euskalerriarren Yakintza* (1935-47).

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

bakarra. Kasurako, Bordeleri eskaini zion artikulu bat 1913an, xehe-xeheki aurkeztuz hango karrikak, hango merkatuak, elizak eta biztanleak, medikuntza ikasten zebilela hain ondo ezagutu zituenak. Etxepareren obran maizago agertzen da Baiona “hiri goxoñoa”; presente dago, baina tantaka-tantaka, protagonismo gutxiagoz. Iruñeak eta Donostiak ere kapitulu luze bana dute *Beribilez* liburu ederrean. Dena dela, Bilbo da alagalakoa, kontrapuntu modura erabiltzeko.

Etxepareren testuei hiri handienganako begikotasuna darie, herri txikiak antipatiko suertatzen zitzaizkion neurri berean-edo, eta horixe suma daiteke aipatu artikuluan “bozkarioz gaindi zoazi” dioskunean, XX. mende hasierako Bilbo kedartsu eta ilun horretan dabilela. Alabaina, Etxeparek Bilbon barrena kolkoan daroan poztasuna ez da turistak edozein toki berriren aurrean senti dezakeena. Etxepare ibili egin da Zazpi Kaleetan gaindi “bi sahetsetako etxe goren itzalarate hezean”, eta ibaiaz haratxago aurkitu ditu Gran Víako “harrizko egoitza ederrak”, eta “Ibaizabal zoragarrian” begiez jarraiki zaizkie “goiti eta beheiti dabilzan itsas-untzi, hainbertze motakoer”. Horiez gainera baina, korritu ditu ere Bilbo Handiko auzune periferikoak, honelaxe plasmatu zituenak:

lauzprobost herriska hatzemaiten dituzu, bat bertzearen ondotik, elgarretarik ez hain urrun, ez arras berex ere. Orotan ola batzu ikaragarriak, beren ximinea luzetarik kea lodi dariotela. Barneak langilez ihaurri, dena sugar, dena labe, dena mekanika, dena hausko, dena ungede, dena uhal-burrunba ilun. Etxeak beltz eta zikin. Karriketan haur kalapitari, erdi-buluzi batzu, elgar hatzemanka, karrasian. Ordean, zer mutiko gotorrak! Holakorik hainbertze ez nuen oraino ikusi ene bizian. Artetan ama bat edo bertze, samurtua, ateratzen zen sos bat edo bertze eskas aurkiturik sukaldean, eta, lasterka ume hezkaitz hetarik baten ondotik ibili ondoan, hatzemaiten ahal bazuen galtza ipurditik, ederrak emaiten zaizkon, erasia gorrian; bainan sorraioak nigar tintik ez egiten!

Etxeparek ezagutu egiten ditu, beraz, hiriaren bai begitarte arraia eta bai beltza ere. Areago, Bilbok duen bigarren aurpegi latz horren gaineko gogoeta sarkorra egingo digu delako artikuluan, eta, izan ere, darwinismo sozialaren oihartzun garbiak atzemango ditugu hurrengo pasarteotan:

Biderdi baratu nintzan. Harriturik galdatzen dakot erdaldun adinetako bati, nolaz ziteken han holako haur elementia, etenez bada nihoiz kotsupe hartan izurreririk sortzen. Ihardetsi zautan irriz:

–Hazi hortarik botatzen du hemen ausarki jende xeheak. Hori du bere atsegin eta aiherbide bakarra. Garia irakak bezala, bizizale beharrek emeki-emeki itotzen dituzte aberatsak. Naturela bere baitarik



Bilbo ta Bilbo esaten dabe, Eztago Bilbo langorik, Txokolatía artzen da emen Kakao fiñagaz egiñik.

–Herrikoia–

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

Bilboko errekak oso garrantzi handia hartu zuen XIX. mendeko azken laurdenetik aurrera, eta errekako kaleak eta moilek irabazi zuten hiriaren irudia, hau da, hiri industrialaren sinbolo bilakatuko dira, Bilboko bihotza ziren aldetik. Irudi enblematicoko horretan, Ibaizabaletik gora datoz bapore handiak atoiuntziek gidatuta, eta bertan gurutzatzen dira gabarra, dragaontzi eta gasolinoekin. Erreka-bazterretan edonon hazi ziren ikatz-metak eta mineral-piloak, eta tximinia luzeak eta garabi erraldoiak islatzen ziren ur uherretan. Erreka-bazterrek mutiloiez



bete ziren, moilaratutako itsasontzien txikotak eurotan lotzeko. Mundu berri horretatik at gelditu ziren baserriak eta soroak, ortuak eta garoak: euskaldunak ere bai?

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

zozialista da. Zuhurtziarekin haatik. Ez du nahi tipiek ahamen batez irets dezaten handia. Noiztenka bakantzen ditu helderia itsusi zonbait. Ehunka aurdikitzen ohi ditu orduan lurrerat. Bainan bizirik gelditzen direnak, zer putikoak! eta nolako haziaren ez eraile, beren aldiari! Ontasunaz jabetzen dira noizbait, baina umeen aztaparrak zorrozki lotuak dituzte ja, gozaten hasi orduko. Itzulika dabil holaxe mundua. Ontsa liteke, ene iduriko, gudu izigarri hortan bat-bederari eratzikia balakio neurriño bat, eta hunen jastatzeko bederen doi epe.

Solas horien zuhurtziak min egin zautan bihotzean. Aurkiz urari, ibaiaren buru batean eskuinetarik ikusten nuen *Bilbao*-ko hiria, dena itzalpe eta jauregi pollitez inguratua; ezkerretarik, ibaiaren bertze buruan, hiru hirixka pinpirinak; lau hiri beraz, *dunen* eskuko; erdian, lauen erdian tinkatua, baina lauen errotik zilatzen ari eta berritzen beti, *gabeen* lantegi beltza, dena errauts, dena izerdi, dena pilda, han hemenka odol ixuri zafla batzuez gorritua. Beti danikako gudu betierekoa, gauzek eta gure izaiteak berak hala dakartelakotz; gizonik zuhurrenek apur bat eta noizetik noizerat ezti baizik ez dezaketen gudua.

Halarik ere, erabatekoa da artikularen atalari Etxeparek eman zion amaiera. Ezin argiago uzten du norainoko miresmena sortu dioten Bilbok eta bilbotarrek:

Hau bakarrik nerabilan ene baitan: ez nuela ordu artio ikusi Euskal-Herrian halako hiri-ingurunerik. Nihun ez hainbertze lantegi, nihun halako esku-lanik; nihun ere ez, lurraren erraietan, daigun mendeari doakon baitezpadakoagorik. Obren araberako argiak bazituzketela hango gizonen, nindagon atseginekin. Adimenduz ala jakitatez, Euskal-Herriko hiri lehena behar zen izan *Bilbao*.

Testu honen aurrean, eta Etxeparek Bilbori Euskal Herriko hiriburua deritzola ikusita, are harrigarriagoa da Azkueren 1920ko proposamenaren aitzinean agertu epeltasuna. Nolanahi ere, argi geratzen da epigrafe honetara ekarri ditugun pasarteen irakurketak irudikatu digun Jean Etxepare ez dela, inolaz ere, nostalgiko eta garo-usainekoa. Sarri askotan, sasoi horretako euskal idazle guztiak zaku berean sailkatzen dira, den-denak modernitate eta progresoaren aurka baleude bezala, den-denak baserri zurien mundu idilikoan babestu eta gotortu izan balira bezala. Sinplifikazio errazegia da hori: kasurako, Etxepare nekez koka daiteke multzo horretan, ikusi dugunez.

Horretaz zalantzarik txikiena ere gera ez dakizun, nahikoa duzu, Etxeparek aurkeztu dizun Bilbo baikor hori konparatzea, Txomin Agirreren *Garoa* eleberri ezaguneko hamaikagarren kapituluko Bilbo galgarriarekin. Gogoratuko duzunez, Agirreren idazlanean Joanes euskaldun txit jatorraren iloba Bilboko meategietara bidali behar dute biziaren irabaztera, eta han zen osoki galdu. Ez dago esan beharrik, Txomin Agirrek betaurreko ilunez begiratzen du Bilbo, eta, horrenbestez, ezin du ezer onik ikusi, bertan den dena arbuigarri begitantzen baitzaio: “Bilbotik itxasoruntz goazela ezker aldetik dauden herriak ez tirudite Bizkaikoak”; “Nerbion inguruari Euskal Herriko alderdia baño *Londresko* auzotegia obeto deritzat”; “Ai zenbat euskaldun zabartu diran Somorrostroko lur gorrietan!”. Jakina, Etxepareren

begiek ikusi duten Bilbo kementsua eta Agirreerek bereganatutako Bilbo suntsigarri hori, biak dira Bilbo bera; izan, garunak dira desberdin batarenak eta bestearenak –alegia, dituzten burmuinak–, eta beroriek bestelakotu diete Bilbo berbera, mundu desberdinetan bizi bailiren. Begi-bistakoa denez, Etxeparek eta Agirrek ez dute elkarren arteko inolako antzik, salbu eta bi-biok euskaraz zutela idatzi.

Alabaina, idazle euskaldunen homogeneotasun ideologiko antimodernoaren ideia hori gure artean oso zabalduta dagoenez, beste adibide bat ekarriko dugu hona, kontrakoa nabarmenago erakutsi nahian. Izan ere, euskara eta modernitatearen artean troka gaindiezina dagoela irudikatu nahi izan da, eta –premia horren ondorio logikoa– berez atzerakoa-edo izan behar dela euskaraz idatzitako edozer. Hala ere, Etxepareren arestiko aipua ondoan doanarekin alderatuz, beste behin ere konturatuko gara Jean Etxeparek baduela erdaraz idazten zuen Pio Barojak bezainbesteko irekitasuna:

Bilbao es un pueblo que cada vez se va haciendo más denso y más interesante. La ría es una de las cosas más sugestivas de España. Yo no creo que haya en la Península nada que dé una impresión de fuerza, de trabajo y de energía como esos catorce o quince kilómetros de vía fluvial. Lo que me parece es que la gente de Bilbao no está todavía a la altura de su ciudad, al menos a la altura de su río.

Las horas solitarias (1918) saio-liburuko pasarte hau irakurritakoan, Jean Etxepare nonogaz batera sailkatu behar izango banu, nik neuk don Pio inpioarekin kokatuko nuke zalantzarik gabe, hau da, kultura liberal moderno eta are nietzschean xamarraren ordezkarietat daukagun idazle unibertsal proliferarekin, eta ez inola ere Txomin Agirre abade karlista ilunagaz. Bidenabar esan dezadan, forma aldetik ere, Etxepareren erreportarietarako prosa-estilo subjektiboa Barojarekin parekatu duela Amaia Iturbidek.

Azkue 1909ko uda-amaieran itzuli zen Koloniatik Bilbora.

Jurgi Kintanak idatzi duenez, Azkuek 1904an eman zion hasiera, ia sei urtez luzatuko zen Europan zeharreko ibilaldiari. Ia-ia berrogei urte zeuzkan orduan. Lehenago Parisera joan zen, 1904ko urtarrilean, musika ikastera, eta, horrez gainera, bere hiztegiaren inprimaketa zaintzera. Bere kargupean, Parisera, Jesus Guridi eta Jesus Maria Usandizaga eroan zituen, beroriek ere musika-ikasle sasoi hartan. Nolanahi, hiztegiaren zuzenketa-lana ikaragarriro hazi zen, eta Paris bainoago Tours izan zuen egoitza nagusi, 1906ra arte. Tartean, Londreseraino ere hurbildu zen, pare bat astez British Museum-eko euskal testu zaharrak aztertzeke asmoz. Tours-en hiztegiaren euskara-gaztelania-frantsesa atala amaitutakoan, Azkue Bruselan kokatu zen 1906ko urrian, han ere hiztegia eta musika-ikasketak konbinatu nahiz. Alabaina, ez zuen moldiztegi egokirik topatu, eta horrenbestez, buru-belarri aritu zen kontserbatorioan fuga eta kontrapuntua lantzen, aldi berean alemana ere ikasten ziharduelarik, ordurako frantsesez nahikoa ondo moldatzen baitzen. Horrela igaro zuen Bruselako egonaldia 1907ko uztailean arte. Belgikako hiriburutik bertatik hasi zen harremanetan Koloniako kontserba-

torioarekin, hurrengo ikasturtean hara joateko. Esan eta egin: oporraldia Euskal Herrian eman eta gero, irailan Kolonian dago, eta bertan ikasiko du 1909ra arte. Musika-lanez gain, Azkuek hiztegiaren hurrengo liburukiarekin segitu zuen, baina, ataza biak batera nekez bete zitzaizkenez, Bruselan bezala lehentasuna musikari eman zion. Dena dela, tarte bat atera zuen Berlineraino hurbildu eta hango bibliotekako euskal idazlanak arakatzeko. Halandaze, European barren bost urte eta erdiz bizi izan eta gero bueltatu zen Bilbora, “baina –Jurgiren berbekin esateko– musika-prestaketa handiaz, alemana zein frantsesa aski ondo menderatuz, eta Europako kultura bertabertatik ezagutuz”. Lekeitiar kosmopolita zen, beraz, Jean Etxeparek Bilbon aurkitu zuen Resurreccion Maria Azkue hori.

Bilbon berriro, 1909tik 1914ra doan aldian Azkue musikagintzan murgildu zen kasik osotoro, eta euskararen inguruko lanak nahikotxo baztertua eduki zituen. Horrela, 1911n Baionako *Cercle d'Etudes Euskariennes* delako eratu zutenean, Urkixok, Buruzainek eta Lacombe kide izendatu zuten Azkue, baina beronek ez zuen parte hartu. Ostera, Bilbora itzuli eta atoan, 1909. urtearen amaieran, *Ortzuri* euskal operaren idazketari ekin zion, bai musikarenari eta bai libretoarenari ere. Urte bi geroago, 1911ko ekainaren 13an estreinatu zen, Arriaga antzokian, baina ez arrakasta handiz. Nolanahi, 1912an bigarren opera batekin hasi zen, *Urlo*, estreinaldia 1914ko maiatzean eduki zuena, Bilboko Campos Elíseos antzokian.

Euskararen eta modernitatearen arteko kontrobertsian euskara base-ri-munduan geriza zitekeela pentsatzea oso zabaldua zegoen orduko euskaltzaleen artean. Izan ere, bere erara Pio Barojak berak ere erreserba horretan mantendu nahi zuen euskara, eutanasia minbakoa proposatu zuen Unamunoren aurrean. Alabaina, modernizazioak eta industrializazioak aldean zekartzaten aldaketek gogor zuten eragiten eta mendratzen nekazari-mundu euskalduna, komunitate tradizionalak desegituratuz eta erdaldunduz, eta, ez dago esan beharrik, isolamendua ez zen –ez da– irtenbide errealista.

Jurgik dioskunez, Azkuek zuzen-zuzenean bizi izan zuen kontrobertsia, eta zenbaitetan hala-holako anbiguotasun bat igartzen zaio. Azkue oso gustura bizi da Bilboko zurrunbiloan elitearekin ukondo ukondo, baina nekez onar zezakeen Bilbo erdalduna zegoen bezala, eta sarritan gogoia Bizkaiko herritxoetaraino joaten zitzaion konturatu barik. Dena dela, azken batean Azkuek ez zuen euskara soilik baserrirako gura, eta euskalduntasuna Bilboraino zabaltzen ahalegindu zen bizitza osoan, euskara hiritartzen. Areago, euskara praktikan erabiliz gainditu zuen kontrobertsiaren borroka ideologikoa. Azkue ez zen baserriko erreserba etnoeuskaldunean gelditu kikilduta, baizik eta txonbo egin zuen hiri nagusiko giro neoeuskaldunean –Jurgiren izendapena erabiliz–, hango espazio berriak euskararentzat irabazi guran. Ez da ohiko euskaldun malet eta txepela: Azkue neoeuskaldun bat da, adonez beterik sasoi berrietara paratuko dena, euskara zaharra mundu modernora egokitzen ahaleginduko dena. Azkueren bizitza higatuko da euskara progresoarekin uztartzen.

Jurgi Kintanak adeitasun osoz eskuratu dit ondoko aipu ezezaguna, aurreko pasarteko azalpena Azkueren ahotik esplizitatuko diguna. Izatez,

Euskal Esnale elkarteak Bilbon 1916ko apirilean antolaturiko ekitaldi batean emandako hitzaldi bati dagokio:

[...] mendiak berau, gure izkera laztan au jjein maiterik jagon, zein arduraz zaindu ta zein zintzoro ta etentzaka eztabe azkar ta sendatu!!
 [...] zoritsarrean gure mendiak aspaldion lenagoko indarrrik erdia galdu-ta dauke. [...] Len jagola ta zaintzaile genduzan; orain eztoguz edergarri ta ikuskizun baino. Geu gara, geu, euron egikizun zarra leporatuta, jagola ta zaintzailetu bear dogunok. Gure izkera zartso au, mendi-usaina unetaragino ta azalean gozorik dabela, uritartu. [...] Geure euskera eder ori jatsi adi urira; jatsi adi. Bilbora, Iruñara, Gazteiza; eta Donostian arrotz nekagarri bat dirudiala bizi izan bagarik, izan adi etseko andere.

Zernahi gisaz, Etxeparek Azkue bisitatu zuen egun gogoangarri hartan, Aldudeko medikuak aipatu artikuluan kontatu duenez, “bero sapa zen” eta “zerua ez halere garbi; ke bat bezala bazabilan airetan, ezin argalduz”. Hala-ber, Azkue “etxe gora baten bigarren estaian bizi” dela diosku, eta atea irekita sehi batek barne garbi batera pasarazi duela. Bertan, une labur batez goait dagoela, amets egin du itzarrik:

Deus ospakorik barne hartan, baizik apeztegieta gori hura, iguzki-argi eztiak begitarte arrai bat bezala emaiten zuela mubleer. Ixiltasun osoa bertzalde. Ah! zer amesgarria, halako xoko batean biziaren iragaitea luma eskuan, adimendua gogoko zerbaiti alhan!

Hau da, Bilbo aldean kokatzeko Azkueren proposamenari ezetz erantzun arren, Etxeparek Bilboko zurrumbilo barruan bizitzea gurako zukeen, eta, esan digunez, horrekin egiten du amets. Gutxienez hamar urte daroatza ametsetan. Ez dago esan beharrik, luma eskuan hartuta lan egiteko, askok Aldudeko edo beste bazterren bateko lasaitasuna hobetsiko lukete, baina tira. Azkuek berak, Jurgik bildu duenez, nahiago zuen Koloniako seminarioa, eta horixe adierazi zuen 1908ko eskutitz batean: “No sé si Adán habrá estado mejor en su paraíso, que yo en éste mío. Esta vida de comunidad, rodeado y casi ceñido de orden, pudiendo aprovechar para el trabajo de cada minuto los 58 segundos [...] me enamora”.

Une labur baten ostetik, bada, “ate bat idekitzen da, eta agertzen zaut, eskua zabalik eta irria ezpainetan, gizon gazte larri eder bat. Agur, eta agur, elgarren berri galde [...] eta jartzen gira adiskide zahar batzu bezala, biak, gure arbasoen mintzaian mintzo”. Ikusi zer gehiago dioskun Etxepareren artikulua hamar bat urte lehenago izandako enkontruz:

Zoratua egon nintzan ene lagunaren entzuten. Aurkian nuen buru hobereatarik bat, adimenduko dohainez gaindi, bihotzeko karrik sainduenaz bero. Hitzak ahorat heldu zitzaizkon hain errexki, hain apain eta halako euskaldun jogian, hainbertze gogomen heltzen zautaten beharrietan barna, non lehen aldikotz agertzen baitzitzautan euskara mamiaren aberastasun ezin agortuzkoa.

Zertaz erabili ginuen solas, oroit niz atzo danikakoez bezala. Euskara garbirat nola itzul-araz jende xehea, bila ibili ginen biak. [...]

[...]

Ordu baten erdia egon ginen holaxe elgarrekin eleka.

Bilbao-tik jin nintzan gibelerat egun hartan berean, eletrik-hari ezin hautsizko bat bezala loturik jarraituz zitzautala urrundu arau...

Gorago aipatu dugu Azkuek sorgindu-edo zuela Etxepare, baina, pasarte hau irakurtzean konturatu garenez, Aldudeko medikua eskutitz horiek baino askoz lehenago gelditu zen Azkueren eremu grabitatorioan harrapatuta, “eletrik-hari ezin hautsizko” batez estekatuta berak aitortu bezalaxe. Eta Azkueren gisara, izatez, Aldudeko medikua ere neoeuskaldun bat da, euskararen mundua koordenatu berrietan eraz kokatu nahi duena, ganoraz. Etxeparek ondotxo daki mundu zabalean –benetako munduan!– zelako aldaketak gertatzen ari diren, eta nahiz eta industrializazioa ez den betebetean iritsi Etxepare bizi den giro etnoeuskaldun horretaraino, *Eskualduma* astekarian Etxeparek berak eman du Bankako oletako langileen grebaren berri. Kontua da bere mendi-txokoko talaiatik Aldudeko medikuaren adi-mendu xorrotzak egoeraren analisi argigarria egin duela, eta ondorio gisa zehatz seinalatu digu, azukre-koxkorraren pare urtzen ari den Euskal Herriaren desagerpenaren gako nagusietariko bat. Mereziko luke aipatu artikulua bere osotasunean irakurtzea, baina, pasarterik adierazgarrienekin konformatuko gara oraingo honetan:

Hain da bizkitartean samindua, mendien bi aldetan, erdarak eta bertze mintzai arrotzek euskararekin derabilaten gudua, halako hersturan da Euskaldunen ontasunik minena, non laboraria laguntza eskez baitago, ez dezoten emeki-emeki estal eta ito, bere lurra eta bere bizia bezain maite duen arbasoetarikako oroitzapen hura.

Laguntza eskez dago bere semerik argituener. Haurrak igortzen ditu ikastegietarat, beren adimendua argi dezaten eta zabal jakitateari, baina, ordainez eta zuzenki, nahi luke bere haurrek bederen adiaraz balezote jakitate hartarik zerbait, dakien mintzai maitean: euskaraz.

Laborarien eta bere ume argituenen artean bada hortarik arrozgo bat, gehiago ezin jasana. Bihotzez bezala adimenduz (mihiz geroztik) lehia giten familiako batasunerat. Hor da bakarrik, gure iduriko, euskalduntasunaren gakoa; Euskal-Herriko iraupenarena ere, ba.

[...]

Zer da eskas Euskal-Herrian? Barkatu erraiten badut zart: *une bourgeoisie vraiment basque*.

Labur esateko, Euskal Herriko alde bietan itotzen ari da euskara erdaren presiopean. Baina, euskararen atzerakada eragiten duten kanpo-faktoreekin batera, Etxepareren analisisian oso munta handikoa da barruko enjenera. Alde horretatik Aldudeko medikua guztiz kezkatuta dago laborarien ume argituenen jokabidea dela-eta. Izan ere, ikastegietatik igaro diren ume “argitu” horiek berehalakoan jartzen dira erdarari begira. Norbait direla sentitzen duten une berean bizkarra ematen diote euskarari. “Norbaitu” egin dira, eta dagoeneko laboraria ez da deus haien ustez: simaur-sunda darion gizon endesa, eta haren emaztea sintsa bat, biak etxe tzar batean, aitzinean ongarri-meta bat duena. Norbaitu egin dira eta “eskalapoin zahar

okitu batentzat daukate euskara”. Familia barruko “arrozgoa” diosku Etxeparek, arbaso laborari eta ondorengo norbaituen artekoa. “Laboraria da bakarrik zinez arbasoen mintzaiari atxikia; bertzeek erdi uko egina dakote, zorigaitzez”.

Erdarara jotzen dute norbait direnek, eta bai norbait izatea nahi izango luketen guztiek ere, hau da, gehien-gehienek. Ia gainditu ezinek da tentazio zentrifugoa. Joera orokorra da Euskal Herri osoan, dela mendi-bazterretan dela kostaldeko arrantzaletan. Egia da: burutik usteltzen da arraina, eta euskal herrietako protoelite guztia arrotuta dago, euskaldun-motz bilakatzen ari da, baldin eta jadanik ez badago euskaldun-motz erabat bilakatuta. Eta, esan gabe doa, herri apalak ispilu horretan islatuta ikusi nahi du bere burua. Horrextatik dator *zinezko burgesia euskaldun* baten beharra, Etxepareren ustez euskaldun populua berorren eredura plegatuko baita.

Une bourgeoisie vraiment basque: horren premia sentitu du Etxeparek, eta, nire ustez, alor horretara bideratu ditu bere ahalegin nagusiak. Esango nuke, bai, Etxeparek hain ondo ezagutu dituen herri euskaldunetako “protoburges euskaldun” horientzat idatzi duela, eta ez, neurri berean, laborari eta nekazale xeheentzat. Nire iritziz, idaztean begien aurrean dituenak herri euskaldunetako mediku eta notarioak dira, albaitari eta botikariak, maisu eta arrantierrak. Euskaldungoari lotuta mantendu nahi izan ditu protoeliteko kide horiek, alegia, nahi izan du euskara bazterrerat utz ez dezaten, beroriekin batera laborariak eta nekazaleak ere euskaldun mantendu daitezten. Horretarako euskaraz idazten die, jakina, baina mundu zabaleko kontuen gainean.

Azkuek ere antzeko ataza bati ekin zion Bilbo ingurutik abiatuta, eta xede hori zuela plazaratu zituen besteak beste *Euskalzale* (1897-1899) eta *Ibaizabal* (1902-1903) aldizkariak. Nekazariak eta arrantzaletak baino gehiago, euskaldun letratuak eta eskugain-poxi bat dutenak zeuzkan Azkuek gogoan, hala nola dendariak, eskulangileak, eta elizjendea. Esparru urbanoa eratu gura izan zuen euskaldun haien inguruan.

Baliteke Etxepare gai hauetaz Buruzainekin mintzatu izana, biek oso antzeko ideiak erakusten baitzituzten. Buruzainek, 1918ko abuztuan, hain zuzen Azkueri idatzi eskutitz luze batean –gerora Azkuek gaztelaniaz argitaratu zuena– ezin argiago adierazi zion bere pentsaera, osoki bat datorrena Etxepareekin:

...la langue basque ne pourra survivre que [...]

3° Si elle est adoptée, et mise en valeur, par les classes dirigeantes du Pays Basque, bourgeoisie et clergé, car tant que l'eskuara ne sera que la langue des paysans et des pêcheurs, l'eskuara restera ce qu'il est actuellement un patois, par conséquent condamné à disparaître, comme tous les patois, devant les langues littéraires ou langues nobles. Il n'y a pas à se préoccuper des paysans, des pêcheurs et des ouvriers, car les classes inférieures imitent toujours les classes dirigeantes et tôt ou tard adoptent la langue de l'aristocratie et de la bourgeoisie. Quand dans un pays la bourgeoisie et les intellectuels remettent en honneur la langue ancestrale, tombée en décadence, cette langue est sauvée. [...]

Lerro horien ostetik, Buruzainek Txekia, Finlandia eta Kataluniako adibideak dakartza bere tesia ilustratzeko, eta badakar bere barru-barruko arrangura ere: Les intellectuels Basques auront-ils assez de patriotisme pour faire ce qu'ont réussi les Tchèques, les Finlandais et les Catalans?

GERNIKAN IKASITAKOA

Etxepare Aldudera josita dago, nahiz eta ez dakigun zein lokarrik estekatzen zuen. Ezin du herria utzi, baina ahal duelarik eskapadak egiten ditu. Dioskunez, “xokoan egoiteak uzkuratzen du; ateratzeak ernatzen, argitzen, emaiten bekokia”. Piarres Lafittek honelaxe adierazi zigun kontua:

Gerlatik landa, Etxepare jauna nehoiz ez bezalako kar batekin lotu zen berriz ere eskuarari. Broussain Hazparneko eskualzale suharrak sustaturik, itzuli handi bat egin zuen mendiz haraindiko Eskualerrian barna: gogo-bihotzak bete zitzaizkon hango argiaz, hango lurrez, hango anaiez, eta *Eskualdunak* ager-arazi zituen haren oharpen politak. Ordutik beti hango berri jakin-nahia egon zen, izan zadin politika-berri, ala liburu-berri. Adixkide minak ere egin zituen, hiri hetako jaun eskualdun zintzo eta argituen artean.

Lafitteren aipua zentzu hertsian hartuz gero, ulertu beharko genuke Etxeparek hegaldetik ibilaldi luze eta emankorra egin zuela Buruzain mediku hazpandarra hil aurretik, hau da, 1920ko apirila baino lehenago. Ezin izan dut egiaztatu bidaia hori unekada horretan egin zuenentz, ala geroago. Badago froga dokumentalik gerotxoagoko joan-etorri batena, izan ere, Aldudeko medikuak Lacomberi eskutitzez kontatu zionez, 1921eko irailean, 6tik 14ra bitartean Gipuzkoa eta Bizkaitik ibili zen, autoz, Debatik Lekeitiora, Lekeitiotik Gernikara.

Durangon ere egon zen. Halaber, Zestoa eta

Azpeitia bisitatu ditu, eta bai Loiolako monastegia ere. Ez da hori, dirudie-nez, Loiolarratu den lehen aldia, eta ez da azkena izango.

Lafitteren aipuak “adixkide minak egin zituela” diosku, baina zehaztu barik nortzuk izan zitezkeen “hiri hetako jaun eskualdun zintzo eta argitu[ak]”. Izen probable bi mahai-gaineratuko ditut. Azkue da lehenengo, izatez, aspaldiko laguna zuena, eta honezkero hainbatetan agertu zai-guna. Ziurrenez, Lekeitio egingo zion *kukutxo* bat Etxeparek. Eta era berean, Gernikan Sebero Altube bisitatu zuen, artean Alkartasuna arma-mpresako gerentzian ziharduelarik.

Nire ustez, Jean Etxeparek Hazparnen ezagutu zuen Sebero Altube, 1921eko martxoaren hasieran, Pierre Buruzain ordeztuz herri horretan



Desde las alturas de la villa de Gernika, en 1926, se puede apreciar la belleza de la bahía de Gernika y el esplendor de sus edificios, con un cielo azul y un mar tranquilo. Este es un momento de la historia de Gernika, que se celebró el 10 de mayo de 1926.

Lekeitio hogeigarren mendearen hasieran. Etxepare medikua, Pierre Buruzain bezala, ibilia zen kostalde horretatik eta, idatzita utzi duenez, *orhoitgarrienak Donostiatik Bilbaorainoko itsas-hegiak, Lekeitio bid'erdí*. Beharbada, paraje horietariko edertasunaz gainera, Azkueren erakargarritasunak bazeukan zerikusirik uste horretan.

(ARG.: VIDA VASCA, 1926).

burututako Georges Lacombe euskaltzain berriaren sarrera-hitzaldiaren karietara. Ordurako Sebero Altube ere euskaltzain osoa zen, aurreko urteko abenduan hartu baitzuen Txomin Agirre zenaren aukiararen ardura. Aldudeko medikuak sarrera-hitzaldi biak iruzkindu zituen *Eskualduna* astekarian, Altuberena Bilbon entzuterik izan ez bazuen ere –euskal akademiaren aldizkarian irakurri zuen–. Bada, justu bigarren iruzkin hori dela-eta polemika ezdeus bat piztu zen, Altubereren erantzuna eragin zuelarik. Gerora ere eduki izan du oihartzunen bat bigarren horrek, beste kontu batzuen artean bizkaieraren gaineko ohar honengatik:

Ausarta banindadi, kitzikaño bat nezoke egin bakarrik. Gogorra da, dorpea, askotan truskila, bizkaitarren euskara.

Gernikako 1921eko enkontru horretan, Etxeparek Ameriketako oroitzenak errepasatzeko abagunea edukiko zuen, zeren eta, Altubereren emaztea, Gregoria Gangoiti Aberasturi, Azul hirian jaioa baitzen 1881ean, eta Azul, Tandil eta Mar Chiquita elkarrengandik hurbil daude eskualde berean. Argentinan aberastutako larrauritar baten alaba zen. Bestalde, Altubek anaia bat zeukan Argentinan. Jakina, hitz-aspertu bat edo beste egingo zuten itsaso haraindikoaz.

Handik urtebetera berriro egon zen Etxepare Gernikan, eta, izan ere, berak eman zuen *Eskualduna* astekarian 1922ko irailean egin egonaldiaren berri. Eusko Ikaskuntzaren III. Biltzerra egin zen bertan 10etik 17ra bitartean, hizkuntza eta hezkuntza gai hartuta, eta esan bezala, Aldudeko medikuak *Eskualduna* astekarian agerrarazi zuen ondoz ondoko hiru zenbakitan. Alde horretatik, hauxe izan daiteke Piarres Lafittek aipatu zuen eskapada, izan ere, aukera paregabea baitzen makina bat lagun euskaltzale ezagutzeko. Horiez gain, baliteke Ramón Menéndez Pidali ere bere esker ona agertu izana, Gernikan egon baitzen euskararen fonetikari buruzko hitzaldi bat emateko. Nolanahi, aste osoan oso eguraldi eskasa eduki zuten, eta ondorioz “ikusliar guti”; areago, “aro txarrak nahi baino lehen urrundurik” Etxeparek berak ez zituen azken larunbat-igandeko ekitaldiak ikusi, kasurako Julian Elortzak –aldi berean Gipuzkoako diputatu nagusi eta Eusko Ikaskuntzaren buru-lehena– Alfontso XIII.aren aurrean irakurri euskarazko diskurtsoa, euskal unibertsitatea eskatuz. Biltzarraren bilan akademikoa aurkeztean, besteak beste hauxe adierazi zuen *Eskualduna* astekarian:

Euskararen zoko-moko eta goiti-beheitiez hobekienik iragan astean mintzatu direnak euskaldunak izan dira gehienak. Euskaltzaindikoak, hala nola Azkue, Campion, Altube, Lacombe; holandiar bat: Uhlenbeck; eta bi frantses, León eta Gavel, Baionako lizeoan erakasle direnak. Atseginekin entzuna dugu geroztik Saroihandik ere atera duela zerbait onik (hau Urepeldar semea, orai Parisen egoki).

Nik neuk Sebero Altubereren ekarpena azpimarratuko nuke hemen, alegia, “Euskel-itz barriak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen” izenburuko mintzaldia. Kontua da, normalean, Altubereren izena aipatzeaz batera “galdegaia” datorkigula burura, hau da, euskarazko perpau-



Sebero Altube eta Gregoria Gangoiti senar-emazteak, 1927an, Buenos Aires-en eginko argazki batean. Sebero Altube (Arrasate, 1879; Gernika, 1963) musikaria eta enpresa-gizona zen. Gernikako Orfeoia zuzendaria izan zen (1902). 1918an, Alkartasuna arma-lantegiko zuzendaritza hartu zuen. EAJko militantea, 1931n Gernikako alkate hautatu zuten. Erbestera bidea hartuta, Argentina eta Paue izan zituen pausaleku; azken horretan, 1957an, *La fonction de la douleur* saio filosofikoa idatzi zuen. Nolanahi, haren idazlanik ezagunena –*Erderismos*, 1929– idazle-belau-naldi oso baten gidaliburu suertatu zen, eta eragin sakona eduki izan du euskal letretan. Euskaltzain oso izan zen, 1920an Txomin Agirre ordeztuz.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

sen hurrenkera zurrunarena. Badakizu, matraka hori: galdegaiak beti-beti aditzaren aurrean kokatuta joan behar duela, alegia, aditza beti azken-azkena. Batzuentzat Altube *Erderismos* izan da huts-hutsean, eta horrexegatik-edo inoiz ez dugu oso gogoko izan. Alabaina, denbora luze ez dela, guztiz bestelako Altube bat ezagutu dut Luis Villasanteren *Euskararen auziaz* liburua irakurtzean. Bosgarren kapitulua errebelazio bat izan da niretzat. Euskararen hitzak ditu gai, eta, besteak beste, ikuspegi garbizale eta ez-garbizaleen arteko norgehiagoka dela-eta euskal hiztegian sortu diren nahasteen berri ematen digu polito-polito, Larramendi, Arana eta, batez ere, Azkue aurkeztuz. Horren ostetik, Villasantek, nahaste-borrastea gainditzeko Sebero Altubek Gernikako biltzarrean 1922an gogorarazi zituen printzipioak dakartza laburbilduta, eta, zehazkiago “goi-jakintzei dagozkien hitzak” direla-eta, zera diosku:

Altubek dio Mendebaleko beste herriek bezalaxe, eremu honetako hitzak latin eta grekotik hartu behar dituela euskarak. *Ingelesaren bidea* proposatzen digu berak. Aitortzen du orain arte euskaltzaleek bakar-bidetik eraman nahi izan dutela euskara, baina bide hori, noiz eta orain, inongo kalteginena izango litzaiokeela uste du.

Pasarte horrek hainbat iruzkin merezi baditu ere, hemen bizpahiru egiten dizkiogu labor zurrean. Lehenengo eta behin, aipatu behar da letra etzana nik jarria dela, eta bai, bestalde, isolazionismoa-edo adierazteko Villasantek darabilen “bakar-bide” hori izatez Altuberren jatorrizkoak berak dakarrela. Bigarrenik, KO utzi nauena: Altubek ingelesaren bidea proposatu zuen, noiz-eta 1922an, eta nik neuk, gaian guztiz interesatuta bibliografia era ia sistematiko batez irakurri dudanez, 2004an eduki dut horren berri, txiripa hutsez gainera. Erantsiko dugun azken iruzkina Villasanterena da (eta letra etzana nirea): “Hiztegi-lege hauek *ez ditugu sekula behar adina errepikatuko*, ezen guztiz beste aldera jokatu dugu eta jokatzen dugu oraino euskaltzaleok maizenik. Beste muturrera doazenengatik ere gauza bera esan behar da: harri berean behaztopatzen direla, alegia”.

Ezin dut ulertu zergatik ez den errepikatu behin eta berriro, jadanik 1922an Eusko Ikaskuntzaren III. kongresuan Altubek ezin argiago predikatu zuena. Ezin dut ulertu zelan gerta daitekeen, neuk horren oihartzunik inon ere ez entzutea. Ezin dut ulertu hain begi-bistako eta ganorazkoa dirudiena gerora inortxok ere ez segitzea eta aldarrikatzea. Salbuespena, antza, Villasante bera dugu, 1963ko artikulua bat “Sebero Altube, iztegi arazoetan maisu” izendatu baitzuen, ia-ia haren obituario gisara eta haren irakatsiak zabalduz, eta, ildo beretik, 1979an “Altuberren maisutza euskal hitzen arzoan” argitaratu zuen; nolana ere, gai horretan oso ikasle gutxi eduki izan ditu maisuak.

Jakina, Altuberren idazlana jakituz irakurri beharrekoa da, oso-oso mamitsua baita, eta hori hainbat aldetatik. Artikulu horretan orduko –eta gaurko– euskal hiztegi-gintzaren ahuldadeak aurkezten ditu zorrotz, eta garbi erakusten ere zein jokabide hartu behar den. Guretzat bereziki interesgarria da, *jakintza-iztegiari* eskainitako saila, hortxe proposatu baitigu ingele-

saren bidea: “[...] eredutzat edo naurritzat [*sic*], ingelestar izkeria artu bear dogula deritxogu”. Dena dela, arrunt deigarria da sail osoan bai inplizituki eta bai esplizituki ere eredu teutonizatzailearen kontra diharduela behin eta berriro. Ingelesa, alemana eta euskara erkatzen ditu, eta, bakoitzaren ezau-garriak haztatu eta gero, ingelesaren bidea hobesten du. “Bádakigu, neurri au ontzat artzeko, euskal-zale batzuen gogoak urrun agertzen jakuzana. Oneentzako, aleman-izkeria bera ere ezin artu geinke neurri-bidetzat; aleman-izkeria baiño urrunago, zustraitsuago [= erradikalago?], joan nai leukie esandako bakar-bide orretan”. Hau da, Altube ingelesaren alde eta “gure garbi-zale ase-eziñon” kontra aritu zen.


Etxeparek adi-adi entzun zuen Altuberen hitzaldia, 1922ko irailaren 12an –asteartea– arratsaldeko bostetan hasi zena. Dirudienez, Altuberen bizkaitar kutsuko euskara ez zitzaion suertatu uste bezain ohartzeko nekea, edota, testua irakurriko zuen gerora, eta jakituz gainera. Kontua da prisma berri horrekin aztertzean jabetu naizela Jean Etxepare Altuberen jarraitzaile dela hiztegi-kontuetan. Orainsu konturatu naiz, beraz, Etxepare praktikan Altubek markaturiko bidetik joan zela, haren maisutza inplizituki onartuz.

Alabaina, luzaroan Piarres Lafitte euskaltzainaren iritzietara plegatu izan dugu Jean Etxepareren balioa, eta, eman ere ematen zuen Lafitte izan dela Etxepareren irakurle bakarra, izatez haren zentsuratzaile porrokatua izan delarik. Hortaz, Lafitteri irakurri genionean “Etxepare jauna laster jarri zen eskuara garbiari; hainitzak ere badaude ez ote zuenetz azkenean garbiegi”, edota “izaitekotz gerla-ondoan, mendiz haraindiko liburuen irakurtzen hasi zenean, gogoratu zitzaion hitz berri batzu sar-arazi behar zirela eta eskuara hetaz hazi. Orduan ‘garbizale’ edo *puriste* baten fama bildu zuen”, esaldiok itsu-itsuan hartu eta Etxepare medikua garbizaleen zakuan sartu genuen beste barik. Seguru nengoen, orobat, Pierre Buruzainen eragin teutonizatzailea jasoko zuela bere hurbileko inguruan, eta horrez gainera ezin da ahaztu hegoaldeko orduko giroa, garbizalekeriaz mukuru. Zer esanik ez, pentsatu izan dut hegoaldeko purismo eta txukuneria guztiak kutsatuko zitzaizkiola gehiago edo gutxiago, eta, izan ere, Maria Jose Kerejetak egiaztatu du hein batean eragin horren zer-nolakoa Aldudeko medikuarengan: Etxeparek berak asmatutako neologismoak (*eiken*, *goipularri*, *zaintzozte*...), mugaz hegoalderanzko era askotako hitzak (*enda*, *olerki*, *askatu*, *gizairudi*, *gizadi*, *udaletxe*, *ekandu*, *ikuskitzun*...), eta, bestalde, garaiko beste idazleek baino hiztegi baxenabartarragoa (*sargi*, *fleit*, *ukare*, *botiges*, *uzkaili*...). Halaber, Emilio Lopez Adanek bildu du medikuntzaren arloan Etxeparek baliatu zuen lexikoa, eta hor, Azkueren joera garbizalea suma daiteke, besteak beste.

Hegoaldetiko kutsadura garbizalearen uste erdi ustel horrek ez dit luzaroan utzi Altuberen eragin nabariak ohartzen. Dena dela, begi-bistako bihurtuko zaigu erkaketa arin bat egitean.

Euskarazko zientzia-prosaren basamortu kiskalian, halako batean, ia-ia urte berean idazle bik, bata hegoaldekoa bestea iparraldekoa, gai berberaz idatzi zuten. Batetik, Jokin Zaitegik 1933an *Kizkiña* argitaratu zuen; berrezarpen lexikal horrekin izendaturiko artikuluan, zelulari buruzko oinarriko datu batzuk aurkezten ditu, orduko edozein testuliburutatik hartuak

Jokin Zaitegi (Arrasate, 1906; Donostia, 1979) Jesusen Langundian sartu zen 14 urterekin, eta Loiolan ikaskide izan zituen Andima Ibiñagabeitia, bere lagunik onena, eta Esteban Urkiaga *Lauaxeta*, besteak beste. Euskara sustatzeko helburuarekin, latin eta grekerazko idazle klasikoan lanak euskaratzeari ekin zioten: Zaitegik Sofokles hautatu zuen, eta liburu mardul bi argitaratu: “Sopokel'en antzerkiak I eta II”. Loiolatik Oñako (Burgos) santutegira joan zen 1926an, eta handik Venezuelara bidali zuten, 1929an. Geroztik urte ugari eman zituen Euskal Herriitik urrun. Haserre Jesusen Lagundiak euskal kulturaren inguruan zuen jarrerarekin, 1944an utzi egin zuen konpainia. 1950ean *Euzko Gogoa* aldizkaria sortu zuen Guatemalan, gerra osteko lehen euskarazko argitalpena. Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen, eta Miarritzen finkatu zen; bertatik argitaratu zuen *Euzko Gogoa* 1960ra arte. Guatemalara joan zen berriro –hango pasaportearen ustez– eta klasi-koak berreskuratu zituen. Sofoklesekin bezala, Platonen lanak euskaratzen hasi zen. “Platon'eneko atarian” kaleratu zuen 1962an, eta 1975etik aurrera Platonen elkarrizketak sei liburutan. 1972an Arrasatera itzuli zen. (ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).



diruditenak. Bestalde, Jean Etxepare medikuak *Zelulak* plazaratu zuen *Eskualduna* aldizkarian 1934an; gaia era dibulgatiboan landuta dago, eta artez-arte irakurtzen da, euskalkia dela-eta egon daitekeen oztoporen bat aparte. Zaitegik eta Etxeparek sujet kasik berbera aukeratu zuten ia-ia urte berean; hala ere, gaia azaltzeko orduan nekez topa daitezke hizkera desberdinagoz ehundutako testuak. Hizkuntza-eredu erabat kontrajarriak darabiltzate Zaitegik eta Etxeparek. Ez dirudi hizkuntza berekoak direnik ere: euskalkien arteko aldeak ezer gutxi dira, aipatutako testu bien arteko grendak eta amildegia aintzat hartuta.

Jokin Zaitegiren *Kizkiña* irakurtzean, niri testua inintelligiblea bainoago intransitiblea begitandu zait; esan gura dut ulertu egin dezakezula neurri batean irakurri ahala, astiro-astiro, baina behin eta berriro aurkituko dituzu irakurketa zailduko duten behaztopa-harriak, irakurketa benetan deseroso bilakatuko dizutenak. Eta zailtasuna, izatez, ez dator inondik inora Zaitegik darabilen gaia berez gaitza delako, behintzat biologia pixkatxo bat ikasi duenarentzat. Testuak dioskuna unibertsitatera joan baino lehenago azaltzen da batxilergoko azken urteetan eta, beraz, ia edozeinek ulertzeko modukoa litzateke. Gure deserosotasunaren arrazoia da Zaitegik modu arras garbizalean euskaratu duela testua, garbiegi gelditu zaiola, eta garbiaren garbiz ulertezin.

Zaitegi hitz arrotzen euskarazko ordain garbiak bilatzen eta aurkitzen ahaleginduko da, Azkuek markatutako bidetik. Hau da, *sinesmen* berba jatorra edukita *fede* berba “arrotzaren” beharrik ez dugun bezalaxe –eta beraz ez dugu Azkueren hiztegian topatuko–, euskararen harrobiko *kizkiñ* horrek bete dezake, Zaitegiren ustez, *zelula* hitzaren eginbeharra (eta hortaz, euskaraz ez dugu azken hau behar). Badago hor Azkueren printzipio oker bat, “purismo-eskola” baten sortzaile bihurtu zena euskal literaturan. Villasantek dioskunez, purismo horren jarraitzaileek ez zituzten neologismo arantarrak onartzen, “baina hor zebiltzan beti hitz jatorren bila”, nahiz eta “zabalera eta sustrai ttipikoak” izan, erdaratiko elementuak baztertzeko; Villasanteren esanean, Olabide da eskola horretako segitzaile argienetako bat, eta joera horretakotzat ditu Orixe, Andima Ibinagabeitia eta Zaitegi. Zaitegiren *Kizkiña* bete-betean kokatzen da ildo horretan, eta lexikoa, gehienbat Olabideri jarraituz eratu zuen.

Halandaze, Zaitegik lexiko berria osatu nahi du zitologiaren eta, oro har, biologiaren alorrerako, baina, arras bestelakoa Europako hizkuntza nagusietan erabiltzen den teknolektoarekiko, hau da, nolabait, hizkuntza “teutonizatu” nahi izan zuen. Berba hori erabili da termino zientifikoen germanizazioa izendatzeko –kasurako, kultur erroez osotutako teleskopioari, *Fernrohr* esatea–, alemanaren esparruan gertatu baita historian zehar, eta hortik, *teutonizazio* esaten zaio oro har, termino –zientifiko edo bestelako– kanonikoen ordain itzuliak erabiltzeari. Eta, hain zuzen, bestelakotasun horrek bihurtu digu *Kizkiña* inintelligible eta inpraktikable. Nazioarteko teknolektoan aspaldian finkaturik dauden termino kanonikoak zelan edo halan moldatu eta geureganatu beharrean, Zaitegik hiztegi hori goitik behera garbitu nahi izan zuen, eta ondorioz, pausu-harriak izan behar zirenak behaztopa-harri bilakatu zizkigun. Garbitu ordez lardaskatu, Villasanteren eran esateko; eta areago: “Hortik joaz, zer moduzko kultura

egin daiteke hizkuntza batean? Honelako tresneria eskas eta zehaztuga-beaz, ezer gutxi, inolaz ere”.

Adibide erraz baterako, John Faber mediku naturalistak 1625ean zizelkatu zuen “mikroskopia” berba, lehentxoago eraturiko “teleskopia” ospetsuagoaren antzera, eta horren ostetik gaineratu dira zitologiaren alorreko terminoak, milaka kontatzen direnak. Baina, 1625etik aurrera Europako hizkuntza nagusietan bueltaka dabilen berbak, ku-ku bakar bat egin zuen euskaraz mende bi geroago, eta berriro desagertu zen. Hain zuzen ere, 1827an eman zen argitara Iruñean *Erle gobernatzalleen guidariya, edo erleac gobernatzeco modua*, Fray Joaquín de Santa Bárbara karmeldarrak gaztelaniaz ondutakoaren itzulpena; bada, liburu horrexetan agertu zen lehen aldiz mikroskopia hitza euskaraz *–beguiratu cien biai microscopioarequin, eta etzuan aen artean diferenciaric batere arquitu–*, eta hori, Xabier Kintanaren hipotesian, Ignazio Balentin Pagadizabal izeneko itzultzaile ezkutuko baten eskuetik. Alabaina, mikroskopia pausu-harria eskueran eduki arren, itxuraz Arnaud Abadia jaun kalonjeak ez zuen baliatu laborantzari eskainitako bere artikulu gogoangarrietan, eta berorren ordezkari perifrasi behaztopagarrietara jo zuen (= *bixta ainitz azkartzen duten berina batzu*). Nolanahi, Zaitegik “txiki-ikuski” erabili zuen, eta atea itxi gura izan dio mikroskopia delakoari. Dena dela, 1921ean Azkuek “sogailuxko” erabili zuen, baina, berorren ondo-ondoan “mikroskopia” pausu-harria kokatuz. Bide beretik-edo, Gerhard Bähr euskaltzale legazpiarrak “xikikusle” erabili zuen 1922an.

Jean Etxeparek ez zuen Zaitegiren bidea ederretsi, eta, izatez, badirudi hein batean *Zelulak* artikuluak Zaitegiri ihardetsi diola, eta badiotsola gauzak izendatzeko beste modu bat dagoela:

Eskualdunaren irakurleak badaki, elgarri lotuak diren izpika batzuek egiten dutela gure gorputza. Izpika horiek deitzen ditugu zelulak, bertze mintzai gehienek ara bertsurat.

[...]

Guneka, eta gunetik gunera beren itxuraz, moldeaz daukaten eremuaz berexak dira zelulak, hala nola harresi batean harriak. Berexak dira oraino beren egitekoaz: larrukoek ez dute lan edo eginkizun bera ukanen, nola buru-muinetakoek.

Arras izpika ttipiak dira zelulak. Mikroskoparen ararteko baizik ez ditzazkegu ikus. Milimetra bat zonbat den badakigu orok; asma ere dezakegu zonbategoa ditaken milimetra baino mila aldiz ttipiagoko zer bat. Jendearen baitako zelula gehienek, milimetraren milagaren partean hamabortz alditarik ehun alditaraino daukate bakotzak, nunbait han.

Horrelaxe hasi zuen *Eskualduna* aldizkarian 1934an argitaratutako artikulua, eta bertan aurkitu ditugu, besteak beste, “zelula” eta “mikroskopia”, argi eta garbi arbuiatuz Zaitegiren egiteko modua. Areago, praxi horrez gainera Jean Etxeparek lehenagotik ere 1928an idatzia zuen:

Nola deitzen diren ere poxika hek on da ikas dezazun, azken mendetik hunat zerbait dakitenek mihian baiterabiltzate noiz nahi, eta ez baita zuzen egon ziten zu, beharriak idekirik, entzuten alferretan.

Anglesek delako izpika horier emana dute izentzat *cel*, espainolek, *celula*; frantsesek, *cellule*. Bertze mintzai gehienetan ere holatsu dituzte deitzen.

Guk euskaldunek ez daiegu behinere eman izenik, ausartatu eska-sean naski. Hanbat burua berotu gabe, iduri zait deitzen ahal gintuzkela frantsesek eta espainolek bezalatsu, erranez izpika txar hoitarik bakotxarentzat *zelula* bat dela.

Izen bat gauza baliosa da. Oroit eta ez sekula ahantz, gure gorputza egina dela, ile puntetarik hasirik zangoetako eri muturretaraino, egina dela *zelulaz*, hala nola harresi bat.

Zelula edo *cellule* norbaitek aipatuko dauzularik, jakinen duzu hemendik aitzinat zertaz zaitzun mintzo, gehiagoko xehetasunen beharrik gabe.

Hau da, Jean Etxeparek nazioarteko bidea hobetsi du, eta, hain justu, “burua berotu gabe” ikusi duzunez. Arestian esan bezala, hegoaldetiko kutsaduraren usteak ez dit utzi ikusten, Etxeparek berak behin baino gehiagotan esplizituki idatzi duena: “burua berotu gabe” - “bertze mintzai gehien ara bertsurat” - “bertze guziek bezala zendako ez ginuke behar deitu guk?”. Etxepareren idazlanetan horrelakoak behin eta berriro aurkitu arren, niretzat enkriptatuta-edo egon da adierazpen horien zentzua, eta ez dut ikusi begi-bistakoa dena. Alegia, Etxepareren euskara, bai, bada garbia, baina ez da garbizalea. Okerreko pertzepzio batekin ibili gara. Hobeto legoke esatea, Xarritonek legez, *tinkoegia dela eta dorpea idazle honen euskara*, eta, segurenez, izate horrek sortu du Etxepareren gaineko inpresio faltsu hori.

Duela gutxi ohartu gara Jean Etxepare Sebero Altuberen jarraitzailea dela, hau da, garbizalea ez izateaz gainera joera hori oso kaltegarritzat duela. Uste dut hona ekarri ditugun aipuetan argi dagoela Etxeparek bere egin dituela Altubek Gernikan aurkeztutako ideiak, euskararen hiztegitzaren desbiderapena salatzen zutenak: Etxepare medikuak behin eta berriro egiten du nazioarteko terminoen alde, Altubek plazaraturiko planteamenduei eutsiz.

Edozelan izanik ere, Etxeparek berak 1924an idatzi zuenez, “Gernikako besta ezin ahantzizkoetan loriatua egon nintzen mendiez bertzaldeko gure haurriden bilkurari”, eta, Lafitteren hitzak errepikatuz, “nehoiz ez bezalako kar batekin lotu zen berriz ere eskuarari”.

ESKUALZALEEN BILTZARREKO BURU-LEHENA

Gernikako iraileko eskapada lorios horren bueltan, Etxepare ez zen Alduden trikatu. Dirudienez, Maulera joan zen hurrengo astean, irailaren 21ean Eskualzaleen Biltzarreko urteko ospakizunera, eta elkarte horren burulehen izendatuta itzuli zen etxera. *Gure Herrian* aurkituko duzu Laurent Apeztegi idatzi ekitaldiko kronika laburra eta bazkariaren menu luzea. “Hiru hogoi eskualtzale ziren, ez guztiak errotik eskuara derabilatenak, baina eskuarari azkarki atchikiak. Ezarri dute buru Etchepare, eskualdun idazle garbia”. Etxeparek berak honelaxe kontatu zion Lacomberi, 1922ko urriko 20an idatzitako eskutitzean:

Me voici bombardé président de l'Euskalzaleen bilzarra. Je convoque le Comité pour le 26 courant –jeudi prochain– à l'heure et à l'endroit habituels. Nous tâcherons d'organiser mieux la Société, de la faire plus agissante, si possible, et surtout de rendre plus instructives –un peu à l'instar du "Congresos Vascos" chez nos frères d'Espagne– les réunions annuelles.

Urtebete lehenagoko beste eskutitz batean Lacomberi kontatu zionagatik, badakigu 1921ean Donibane-Lohizuneko biltzarrean egon zela irailaren 26an, eta, diotsonez, hori hogeituro urteko tarte baten ostetik izan da.

Izatez, Eskualzaleen Biltzarra elkarte Hondarribian eratu zen 1902ko irailaren 11n, euskararen ortografia bateratzeko antolatu kongresuaren albo-ondorio modura. Aurreko urtean Hendaian bildu ziren zazpi lurraldeetatik iritsitako orduko aditu nagusiak –Azkue, Buruzain, Hiriart-Urruti, Campión, Sabino Arana, Adema-Zaldubi, Martin Guilbeau, Julien Vinson eta beste–, baina, jakina, egunbeteko jardunaldian ezin izan zuten gauza handirik aurreratu, eta prozesu bat ireki zuten, helburua hurrengo urtean betetzeko. Nolanahi, kontua ikaragarriro katramilatu zen hainbat aldetatik –tarrean politika ere bazegoelarik–, eta azkenean, Hondarribiko batzar aipatu hori benetako bordel historikoa bilakatu zen. Alabaina, zelan edo halan batzarrak elkarte berriaren araudia zehaztu zuen, eta bai zuzendaritza bat hautatu ere. Mikel Zalbidetik txosten mamitsu batean elkarte dituen Hendaia-Hondarribia aferako argibide guztiak, eta areago, era ezin entretenigarriagoan kontatu ditu, *thriller* moduko bat itxuratuz.

Etxeparek Hondarribiko batzar horretan hartu zuen parte, elkarte fundatu zenekoan: horixe da, hain zuzen, berak Lacomberi aipatutako hogeituro urte lehenagoko biltzarra, eta izan ere, handik hamaika urtera kontatu egin zituen han bizi izandakoak:

Oi! Lehen biltzar hura Ondarrabiako herriko-etxe aberats ederrean! Beldurtu ginen, arimaz egia, ez ote zoanez berriz hastera han Babeleko dorrea. Euskal mintzaiak mendien bi hegaletan dauzkan hizkuntza guztiak aditzen ziren barne hartan, zoin bere azantz bereziekin; heiekien batean, nahasteka, frantses eta espainola, bai eta angles izpi bat.

Zertaz zen solas jakitea, lana zen; orobat eta are gehiago, izaitetik, zer gogo zuketean, zer xede, harat bilduek. Politika bat sendi zinezakean, batetik bertzeren ximixtatzen ziren behakoak bezain gaixtoa. Airean bazabiltzan, ahapetik, bainan zorrotz, erdarazko hitz gaitz hok: *franc-maçon, clérical*, eta holako.

Gora mintzo ziren gazte batzu, deus etzakitenak; xahar batzu aita familiako beren haurrer euskara hitzik erakustea nahi ukan etzutenak, oihuka aldiz hek, euskararen alde; bizpahiru, euskararen etsai gorriak, kalapitan, huni laidoz; jakintsun batzu, beren ikasiak oro batean ezin agertuz nekatuak, eta kexu. Maipurua, Zaldubi xahar ohoragarria, arrunt erlastua, eri, beti bere xilintxa eskuan, hura ezin... aski inarrosiz...

[...]

Hedatuz bezala, joan da argituz, hastapenean norat itzul ez jakinez itsumandoka ibili bazen ere. Ohartu zen askitto laster behar zituela,

behin betikotz eta arrunt, bazterrerat utzi erlisionezko, politikazko, erresumatik erresumarateko hisiak oro; gauza bat zela, bat bakarrik, zor zakona minki atxik zezon begia: euskalduntasuna.

Gorets Euskal-Herria bere oroitzapen, urrats, ohidura zahar onetan; hok gogor daudelarik eta azkar, hauien gainean bermaraz Euskaldunak beti eta aitzinago; akula guziz mintzaia, lehengo erroak beiratzuz jar dadien oraiko ara berrier, geroago urrunago hedatuz bere adarrak: horra zer lani, bertzerik egiteko etzuela ikusirik, zen lotu zuhurtziarekin *Euskal-zaleen biltzarra*.

Hor deskribaturiko istilu eta zalapartak Ipar Euskal Herriko euskaltzale-multzo nagusi biek sorturikoak dira, klerikal-xuriek eta framazon-gorriek. Ez dago jakiterik zer dela-eta haserretu diren batzarrean zehar, baina ezaguna da konfrontazioa zein ildotan garatu zen sasoi horretan. Eztabaida, izatez, Iparraldeak 1880tik aurrera bizi izandako transformazio demografiko, politiko, ekonomiko eta soziokulturalak ekarri duen etenaren araberakoa da.

Haserre eta polemiketatik harantz, Manex Goihenetxek laburbildu duenez, Eskualzaleen Biltzarra eratu zuten euskaltzaleek bazuten puntu garrantzitsu bat amankomunean: euskararen etorkizunaz sano arduratuta egonik, hizkuntzaren alorrera mugatuko dute euron ekintzabidea, baina, ikuspegi pseudoakademiko –idealista eta elitista– batetik abiatuta, ez zuten inolako gogoeta sakonik burutu euskararen alde soziologikoaren inguruan. Manex Goihenetxek azterketa oso interesgarria gauzatu du Eskualzaleen Biltzarren jatorriaren gainean, eta agerpen horren gizarte-ingurua zehaztu digu ezin argiago. Elkarre berriaren kideak ehun eta berrehun lagunuen bueltan ibili ziren lehen urteetan, Euskal Herriko alde bietakoak izanik; 1923tik

hara 400 kidera iritsi ziren, ez ordea behin ere, Jean Etxeparek amestu bezala, 600etara, gehien-gehienak Iparraldekoak zirelarik. Burgesia errurala osotzen duten talde nagusietakoak dira: lur-jabe eta arrantierrak, mediku, botikari, abokatu eta notarioak, negozianteak, eta elizjendea. Kide horien artean nekez aurkitzen da Baionako afera-gizonik –gehienetan nahikoa hotz agertzen dira euskara dela-eta, kontra ez denean–, baina, Maule edota Hazparnekoak ere absente dira. Modu berean, kideen artean ez dago artzainik, laboraririk, zein nekazalerik, eta ez, bestalde, irakaskuntza-alorreko edo mundu intelektualeko –idazle, artista,

kazetaririk–. Emakumerik ere ez dago. Goihenetxek azaldu bezala, euron burua arras euskalduntzat duten arren, Eskualzaleen Biltzarreko kideek fortunaz, kulturaz edota karguz zubiarena egiten dute kultura frantsesarekiko, eta beti ere zibilizazio moderno eta urbanoaren interpreteak dira, bertoko interpreteak. Burges-bizimodua dute, euskal kulturari buruzko beraien ikuspegi nahitaez eragingo duena: praktika kulturala, horrela, ekintza diletante bihurtzen da, saloiko elkarrizketa atsegin bihurtzen da, urtean

Eskualzaleen Biltzarreko lagunek laket zuten mahaia, eta elkarteari, dirudienez, *Bazkalzaleen Biltzarra* esaten zioten mihi gaiztoek. Irudia noizkoa den zehazterik eduki ez badugu ere, 1922an Maulen Etxepare buru-lehen hautatu zuenaren bazkariko karta argitaratu zuen *Gure Herria* aldizkariak:

Uskaldun salda

Izokina hotzik
saltsa hoillian

Pipherrada ourdazpi
eta lukheinka

Erbia Chiberoko gisan

Oillantak guerrenian,
hounttoa barnean


Onyouak pikarrai

Osto hounak, ozpin oliouan

Itzouliphourdi crema

Aphairu ondokoak

Cafia ttintagnouaikin



Bestalde, *Herria* astekarian irakur daitekeenez, 560 bazkaltiar bildu ziren Lekornen 1955ean, Etxepare medikua-ren omenaldian: Auguste Darraidou ezpeletar pilotari ohia izan zen ostaler.

(ARG.: *HERRIA*, 1959, 470. ZBK.).

bebingo oturuntza erritual bihurtzen da, eta bitartean populu euskalduna soroetan eta fabriketan ari da. Horrela izanik, ez dute inolako ahaleginik egingo kanpotik datozen berrikuntzak kultura tradizionalera egokitzeo, kontrara baizik: ihes egiten da edozein berrikuntzatatik, susmagarria baita edozein aldaketa. Areago, eta badakigunez, euskarari zeregin oso zehatza esleitu zitzaion: hesiarena –Arbelbideren orduko irudia erabiliz–, alegia, babes-hesiarena, eragin arrotzetatik begiratzeko ez eze, ideia berri eta modernoak kontra ere. Badirudi, Euskal Herria ideia berrien aurkako gotorleku bihurtu nahi zutela. Euskara, eta, beronekin batera, nekazaritza eta tradizio zaharrak egonkortasunaren sinonimo dira nolabait, eta horrenbestez, aro berriak dakartzan aldaketa eta intseguritatearen kontrako antepara dira. Alde horretatik, mundu modernoaren emergentziaren aurrean, Eskualzaleen Biltzarra iraganaren magalean gerizatzen da, joandako sasoiaren nostalgian biltzen da, eta kulunkatzen.

Elkarte berriko kideen pentsaera politikoa aztertzean, edo hobeto esateko, Euskal Herrirako eduki zezaketen proiektua zehaztean, Manex Goihenetxek erantzun desberdinak aurkitu ditu gizabanakoen arabera. Dena dela, biltzar gehienak *goraka* amaitzen dira, dela *gora Eskuara!*, dela *gora Euskal Herria!*, dela *gora Eskualdunak!* edota denak batera, eta halaber, oso-oso sarritan erabiltzen da *Zazpiak bat* formula, baina, paradoxikoki, mugimendu sabindarrarekiko loturak sano ahulak dira, ez badaude guztiz moztuta. Goihienetxeren arabera, elkarte berria euskal nazionalismoaren eragin-eremutik kanpo garatu da, eta dioskunez, kasurako Pierre Buruzain –euskal nazionalista nabaria– ez zen Eskualzaleen Biltzarreko kidea izan 1903-12 tartean. Kutsu karlistakoa zen, dirudienez, kideen arteko askoren pentsaera, eta gerora frantses erregerialismorantz lerratuko zen. Horrenbestez, elkarte berriaren baitan ezin izan da Euskal Herriarentzako proiektu politiko berezirik errotu; gainera, Eskualzaleen Biltzarren jardunak oso inpaktu txikia ukan du gizartean. Ez du, azken batean, herriaren kontzientzia-hartzerik ekarri. Izan ere, Eskualzaleen Biltzarren fundazioak koinziditu egin zuen hala nazionalismo frantsesaren apogeoarekin nola frantses burgesia nazionalaren gorakadarekin, eta, euskal burgesia errurala berorren parte delarik, ez da gai izan erdipurdiko pentsamendu parrokiaraz haratago ezer itxuratzeko.

Manexek idatzi zuenez, oso interesgarria litzateke burgesia errural horretako familia euskaltzaleen karrera eta fortunaren bilakaera segitzea, ondorengo oso gutxi gelditu baitira berton, bai hiriak erakarrira, bai negozioen prosperitateak urrunduta, bai enbaxada eta kontsulatuek sakabanatuta. Herritik alde egitea gizartean gora jotzeko modua izan da goi-mailakoentzat, eta baita, zer esanik ez, behe-mailakoentzat. Euskaldun ororen ametsa izan da dirua egitea, diru-meta bat Ameriketara, eta ez Euskal Herria eraikitzea edota euskara salbatzea: *euskal ideia* –Campión baten terminoetan esateko–, izatez, soilik gutxiengo intelektual txiker batek egin du bere.

Manex Goihenetxeri jarraituz, esan dezagun ondorio gisa, ezen konterbadurismo desberdinek ustiatu zutela XX. mendearen hasierako euskal kultur mugimenduak erakutsitako erreakziozko jarrera epelotz hori. Eskualzaleen Biltzarra ere fenomeno horretan erori zen. Elkarte horretatik kanpo-

ra nabaritzen da ikuspegi modernodun euskal nortasunaren kontzientzia: gehien bat Pierre Buruzain eta Resurreccion Maria Azkueren ildoan barrena loratuko da neoeuskalduntasun hori.

Jadanik han eta hemen erakutsi dugunez, Jean Etxeparek ez ditu begiak iraganerantz zuzenduta, alderantziz baino, eta horixe adierazten digu era oso orekatuan, dagoeneko 1905ean:

Zerbeit berririk aditzen dugunean edo ikusten, Euskaldun gutiz gehienek zimiko bat hartzen dugu; jazartzen bezala girtzaizko ezpainak zimurtuz: hain gira gure ohiko hatzer jarraikiak, nun ez baigitezke hetarik higi, bereziki makur gabiltzala norbeiten erranetik ohartzen girenean... Badire aldiz gutartean bertze batzu ikusi eta aditu guzier berehala jartzen direnak, berri direlakotz; ikertu ere gabe ohikoez bertzelako ote direnetz, hetaz geroztik asmatuak; eta baldin hala badire, baduketenetz deus onik edo bederen hoberik. Xori buru, mando buru, ez giten izan ez bat ez bertzea: ohikoari atxik dezagun ona bada; hobea denean har aldiz oraikoa, bihotzean minik gabe. Hola gira gizon egonen, bai eta Euskaldun: Zaharren irakaspentak hobeki baizik ez baititugu begiratuko, makurretarik xuxenak bereziz.

Nik neuk ez dut inolako zalantzarik Jean Etxeparek ere euskal nortasunaren kontzientzia ikuspegi modernoduna duela, Buruzainek eta Azkuek legez. Alde horretatik ikusita, Etxepare zirikatzaile galanta izango zen ordu-ra arte erdi lo bezala zegoen Eskualzaleen Biltzarrean, zeren eta, elkarte indarberritu eta dinamizatuz gainera –“abiadura berri bat eman zio[n] biltzarraren lanari” Lafitteren hitzetan–, haren izaera nostalgiko-erregresibo freskatu-edo egingo baitzuen neurriren batean. Elkarteko gehiengoaren pentsaera kontserbadorea ideia berritzaileekin kutsatu zuenentz alde batera utzita, egia da Etxeparek biztu zuela Eskualzaleen Biltzarra, eta izan ere, Jean Elizalde *Zerbitzarik* “gure Biltzarraren aita [Etxepare jauna izan] da” idatzi zuen 1955ean, Lekorne Erlandeneko etxe-paretaren gainean oroitarri eder bat eskaini ziotenean, haren heriotzaren hogeigarren urtemugan. Gehiago ere adierazi zuen *Zerbitzarik*:

Duela 55 urthe sortu zen Eskualzaleen-Biltzarra. Egia huna haatik: Hainitz urthez Eskualzaleen-Biltzarra amets pollit bat izan da bakarrik eta urthetik urtherat hogoi lagunentzat bazkari ontto baten estakuru maitagarria. *Bazkalzaleen biltzarra*, erraiten zioten... mihi gaichto batzuek. Jean Etxepare mirikuak egin du Eskualzaleen-Biltzarra bere lan ezin ukatuzkoekin: ehun bat herri eta herrichketako haurren idazki maitagarriekin, Uztaritzeko, Mauleko eta ez dakit nungo ikastegi handieneko ikasle bihotzdunen kondaira eta pertsuekin, aphez gaien beren itzulkunde eder eta predikuekin, egun bezalako bilkura ederrekin.

Hau da, Etxepare medikua da Eskualzaleen Biltzarrari bizitasuna xirigatu ziona. Beraren eskutik iritsi ziren, besteak beste, euskara-sariketak maila desberdinetan –haurrentzat eta apaizgaiantzat–, lurralde eta kantonamenduka antolatuak, eta gerora urtetan eta urtetan iraun zutenak. Jon Casenavek sariketa horietan ikusi nahi du euskal irakurleria potentziala zabaltzeko

Etxeparek bideratu ahalegin handi bat, euskara bera sustatzeaz gain. Nola-nahi, lehen urtean bertan irabazleen artean Leon Leon eta Piarres Lafitte apaizgaiak aurkituko ditugu, euskal idazle ezagunak bilakatuko zirenak; gehiago oraindik, luze barik Piarres Lafitte izango da Jean Etxepareren antagonista nagusia, nola den ifrentzua aurkiarena txanponean. Urtez urte emendatuz joan ziren, bai kopuruz, bai kalitatez, eskoletan eta apaizgaitegietan egindako euskal itzulpenak eta kontakizunak. Kasurako, 1930ean 32 apaizek eta beste 14 euskaltzalek antolatu zituzten 46 herritako haurren norgehiagokak. Etxeparek bere eskuko hartuak zituen, seminario handiko apaizgaiei egin erazten zizkieten idazlanak, eta, arta handiz, erroitik aztertzen zituen; lan horien kritiketari, sarritan, guztiz ilusionatuta agertzen zaiugu, ikusten zuelarik zenbait urteren buruko gazte horiek gure idazle hobereenetarik izango zirela.

Gero, idazlan onenak *Gure Herria* aldizkarian argitaratzen zituen, eta horrela egin ziren ezagun, Piarres Lafitte eta Leon Leon aipatuez gainera, Pikoxet, Mazeris, Dominique Beheti, Oltzomendi, Etxegoren, Lartzabal, Leon Poxelu eta beste.

Eskualzaleen Biltzarreko buru-lehen Jean Etxepare izendatu zutelarik, harekin batera Jean Elizalde *Zerbitzari* hartu zuen idazkaritza eta Diriarri notarioak diruzaingoa. Baziren buruorde bi ere, bata Albert Constantin mediku zuberotarra eta bestea Louis Dazantze laborantzako

ingeniari uztariztarra, gerora euskaltzain osoa izanen zena. Gerla Handiaren ostetik Tolosako Jose Eizagirre abokatu abertzale gaztea izan zen burulehena, baina, Maulen, 1922an, Etxepare medikuari eman zion buruzagitza. Eskualdatze hori, Piarres Xarritonen iritziz, oso munta handikoa izan zen, zeren, Eskualzaleen Biltzarraren giderrak eskuratu baitzizkion *Gure Herria* aldizkaria sortu berri zuen taldeari, hots, “Frantziako Aberri Handitik kanpo euskal aberri xumerik asma ez dezaketen gerlari ohien belaunaldia[ri]”. Jakina, *Gure Herria* aldizkaria “frantses aberriaren gerlari ohiek” –*Oxobi*, *Zerbitzari*, Dazantze, Barbier, Blazy eta beste hainbat– munduratu zuten 1921ean, Jean Saint-Pierre *Anxuberro*ren inguruan.

Xarritonen iritziz, beraz, talde horren pentsaera frantses erregionalista nagusitu zen elkartean, eta botereaz jabetuz geroztik, behera egin zuen

Eskualzaleen Biltzarreko buruzagiak. Irudiak ez du data zehatzik –1930. urte ingurukoa–, eta, halaber, ez dago argiegi nortzuk diren bertako lagunak. Ezkerretik hasita: 1, Maurice Souberbielle medikua; 2, Georges Lacombe euskaltzaina; 3, Maurice Amestoi lotinart-kolonel ohia; 4-5, identifikatu gabeak; 6, Jules Moulier *Oxobi*; 7, identifikatu gabea; 8, Jean Lizar mediku kanboarra –Xarritonen ustez–; 9, Jean Jauregiberri medikua; 10, Louis Dazantze euskaltzaina; 11, identifikatu gabea; 12, Jean Baptiste Etxeberri apaiz donostiritarra –Xarritonen ustez–; 13, Piarres Lafitte gaztea; 14, Jean Etxepare medikua; 15, identifikatu gabea.

(ARG.: BIDE GILEAK.)



Gure Herria aldizkariaren talde eragilea. Irudiak ez du data zehatzik, eta ez dago argi nortzuk diren bertako lagunak. Eserita, ezkerretik hasita: 1, Jean-Blaise Adema (?); 2, Jean Elizalde *Zerbitzari*; 3, identifikatu gabea; 4, Jean Saint-Pierre *Anxuberro*; 5, Maurice Souberbielle medikua; 6, identifikatu gabea. Zutik, ezkerretik hasita: 1, Graxien Istilart (?); 2-5, identifikatu gabeak; 6, Pierre Duhour (?); 7, identifikatu gabea; 8, Edmond Blazy (?); 9, Jean Olhagarai –Xarritonen ustez–; 10, Piarres Lafitte; 11, Jean Barbier (?).

(ARG.: BIDE GILEAK.)



nabarmenki hegoaldeko kideen kopuruak. Alde horretatik, dirudienez, ez zen Albert Constantin euskal abertzale nabariaren edota Jean Etxepare hegoalde-zalearen eraginik igarri.

Dena dela, buru-lehenaren urte biko epea amaitutakoan, Aldudeko medikuak zuzendaritza utzi gura izan zuen 1924an, baina lagunek eskatuta beste urte biz iraun zuen. Tarte hori ere uste baino lehen joan zelarik, 1926ko irailaren 26an Eskualzaleen Biltzarraren agintea Louis Dazantze buru-ordearen eskuetan utzi zuen, Atharratzen ospatu zen ekitaldian. Jean-Louis Davantek argitaratu ditu Ligetx bertsolariak okasio horretan hitzetik hortzera bota zituen bertsoak; hona hemen lehenengo ahapaldi biak:



Eskerrak dütüt bühürtzen hitz batez orori
 Bai er(e) eta Jean Etxepare jaunari;
 Biltzarra oro lorietan zen haren ükeitez gidari
 Joaiten da eta Jinkoak deiola hanitx urtez osagarri.

Dassance jauna ezari dü bere lanean ordari
 Bilkür(a) orok fede honez egiten deio batzarri;
 Hanitx urtez izan dadila bürü Biltzar eder horri
 Eüskalzaleek hartüko düe beti har-ganik hazküri.

Bat-bateko lan horretan, gutxienez kontu batean asmatu zuen bertsolariak bete-betean: Dazantze anitz urtez izan zen buru-lehena, hain justu 1926-1959 tartean, hots, hogeita hamar urte luzez.

Esan bezala, Etxeparek lan handia egin zuen Eskualzaleen Biltzarra bizkortu eta azkartzeko, eta horixe azpimarratu dute sasoi horretako lekuko guztiek. Hala ere, Aldudeko medikuak berak, jadanik bizitzera Kanbora aldatuta bazegoela, 1933an, etsipen-kutsu bat dager, lortutakoa eta egiteke dagoena alderatzean. Ordurako urte batzuk joanda zeuden bere agintaldia amaitu zenetik, eta beste urruntasun batekin balora zezakeen, Eskualzaleen Biltzarraren egitekoa. Hil berri zaion Pierre anaia apaizaren obituariorako idatzi zuen balorazio hori, eta haren gogoeta bailitzan damaigu, baina, begibistakoa da azken batean idazlearen kolkoak gordetzen duena erakusten digula:

Askitto ardurra, ikusten zen oraino Euskalzaleen Biltzarrean, bainan –oro diren bezala erraiteko– sineste ttipia zuen batzar hunen indarretan, euskararen alde. Zainik etzakon aurkitzen, federik ez aski, erakaspén onik, are gutiago, lauatarik hiruak beti frantsesez mintzo direlaketz han. Hori hola dela, ez ditake uka, zorigaitzez. Erreka jo-hurbil du gure euskara zaharrak, baldin zerbait dakiten euskaldun guziek, eta heien ondotik etxeko-jaunek berek, ez badute lauzkan ateratzen goiti. Eta gaztetarik duke orai, berantegi ez bada, bere lauzka. Moltsaz bederen, Euskalzaleen Biltzarrak ez ote ditu bizkitartean apur bat laguntzen? Beren lumaz, nola beren mihizko erakaspénaz, ezaa [sic] oraino bertze zonbaitek?

Donamartihiriko ertor zenak, begi onez –geroago begi hobez– ikusten balin bazuen *Eskualduna*, *Gure Herriari* buruz aldiz, hotz zagon berriki artio, hotzegi. Aitor dugu ez dela jende xehearentzat egina. Bai-

Luis Ligetx bertsolari zuberotarra Larrainen sortu zen, 1901eko abenduaren 3an, bosgarrena hamabi nebarreben artean. Herriko eskolan apur bat ibili eta gero, oso goiz lotu zen laborantza eta artzaingoari bere etxondoan. Hamabi urte zituen Gerla Handia piztu zenean; anaia nagusia galdu zuen. Albert Constantin jaun medikuak koblakan aritu erazi zuen hogeita bost urterekin, Atharratzen egin zen Eskualzaleen Biltzarrean, Jean Etxeparek burulehen kargua utzi zuenekoan. *Eskualduna* astekarian agertu ziren egun hartako bertsoak, eta Luis Ligetxen omena asko hedatu zen. Constantin medikuak gogo onez eramaten zuen edonora, denetan plazer egiten baitzuen Ligetxen manera eijerrak eta haren talentu goxoak. Zihigan zendu zen 1940an, irailaren lehenean. (ARG.: HERRIA, 1974, 1267 ZBK.)

nan oro xehe ote gira bada Euskal Herrian? Eta larriak diren bakarrak, ez hanbat larri izanikan ere, ez dea gutartean larriño zombait, doakoten hazkurriaz berdin gose direnak?...

Aipuaren bigarren paragrafoak ere, Pierre anaiari egotzi arren, izatez adierazten diguna da, Aldudeko medikuaren jarrera *Gure Herria* aldizkaria sortu zenean eta gerora. Berau plazaratu zenean, Etxepare ez zen aldeko agertu, bere iritziz kaltegarria suertatuko baitzen ordura arte oso ondo zihoan *Eskualduna* astekariarentzat. Alabaina, denborak erakutsi zuenez, aldizkari bakoitzak bazeukan bere segmentu konkretua irakurle goaren baitan, eta, jakina, publiko bakoitzari bere neurriko “bazka” eskaini behar zitzaion. Halandaze, memento batetik aurrera, Etxeparek aldizkari bietan kolaboratu zuen, esan nahi baita, irakurle-maila desberdinetarako egokitu zuen erregistroa. Edozelan ere, oso pertinentea begitandu zait galdera: “Bainan oro xehe ote gira bada Euskal Herrian?”

EZKONTARAZI GAITUZTE, BEHAR DUGU ELGAR MAITE

Jean Etxepare 1923ko otsailaren 5ean ezkondu zen. Egitasmoa astebeteko batzuk lehenago iragarri zion eskutitzez Georges Lacomberi. Aldudeko bizpahiru hitz eta esapideren azalpenaren ostetik, era labur eta zuzenean zera aipatzen dio:

Je vous fait part, en toute simplicité de mon mariage prochain avec M^{lle} Fernande Camino (Etchegoïnia), de Cambo.

Ez dut Fernande Kamino anderearen gaineko daturik lortu, salbu eta 1893ko apirilaren 16an jaioa zela, eta 1979ko martxoaren 4an hil dela. Ezaguna da, bestalde, Alexandre Kamino medikuaren arreba zela, alegia, Kanboko auzapez eta kontseilari jeneralaren arreba. Halaber, aipatzekoa da ezkontideen arteko adin-aldea, 30 urte baitzeuzkan Fernande Kaminok, Aldudeko medikua 46 urte betetzeko zegoelarik.

Eztei-bidaia, dirudienez, Parisera egin zuten, edo bederen horixe ondoriozta daiteke Lacomberi apirilean bidalitako beste eskutitz batetik. Bertan diotso Parisen egona dela, eta emaztea aurkeztu nahi izan diola. Ezinezko suertatu zait bestelako argibiderik eskuratzea senar-emazteon inguruan. Soilik topatu dut ohar esanguratsu bat, Piarres Lafitteri 1932an bidalitako eskutitz batean, *Beribitez* liburu argitaratu berria dela-eta:

Ene emazteak etzituen begi onez ikusten liburuttoan agertu ditudan chehetasun zombait. Eta horra nun garbikiago oraino dituzun errepikatu, frantsesez! Eztitu zait emaztea. Bazinaki ordea zoin hasarre den orai zuretzat!

Lerro horiek iruntzietara ipiniz gero, Aldudeko medikuak irakurlesa bat irabazi zuela konturatuko gara, eta bai, antza, jenio biziko emaztea hartu zuela.



Fernande Kamino (1893-1979) anderea 1923an espotatu zen Jean Etxeparerekin. Aldudeko medikuak irakurlesa bat irabazi zuen, baina, esamesen arabera Fernandek ez zuen ezkontza ona egin, senarrak ez baitzuen sosik: horixe omen zen haren familiaren ustea.

(ARG.: M. LARROULET).

Ez zuten seme-alabarik eduki.

Antza denez, “ondo ezkontzea” ez zen batere erraza izaten sasoi horretako medikuentzat Euskal Herrian. Ondorio hori atera dezakezu, Buruzain, Constantin eta Etxepareren kasuak ezagututa. Horixe da, behintzat, argitaratu diren gutundegiak irakurritakoan buruan lotuko zaizun ideia. Gutundegi horietan aurrera eta atzera zabiltzala, oso gutxitan agertzen dira eremu pribatuari dagozkion era horretako kontuak. Hori dela-eta, arras ilustratibo deritzot Atharratzeko medikuak 1900. urtearen bueltan Pierre Buruzaini bidali zion eskutitzari:

Mon cher Broussain,

Comme je commence à désespérer de jamais vous revoir, je me décide à vous parler par lettre, d'un sujet qu'on m'avait bien recommandé de ne traiter qu'oralement. Une personne qui vous connaît par ce qu'a dit de vous le chanoine Adéma, me charge de vous proposer un mariage: jeune fille 26 ans, 35.000 francs de dot, de vieille famille et apparentée de façon très proche à nombre de familles très connues au Pays Basque (d'Arthez, Petit, d'Andurain, etc.); physique dont vous jugerez, bonne musicienne, simple et spirituelle, élevée très modestement, sachant cependant très bien recevoir et un tas de qualités qu'on m'a énumérées et dont j'ai pu, par moi-même, apprécier quelques-unes. Il s'agit de Mademoiselle Batsalle du château de Barcus.

Vous avez peut-être connu ses deux frères, dont l'un est sorti de polytechnique et l'autre du Borda. Je crois que cette demoiselle parle basque, au moins avec les domestiques. J'en suis même sûr.

Voyez et venez vous-même ici aux renseignements, si le coeur vous en dit. En tout cas, faites-moi, je vous prie, une réponse quelconque là-dessus, dès que vous aurez un moment.

Cordialement à vous.

A. Constantin

Jakina, eskutitzak argitu digunez, era horretako autuak normalean ez dira idatziz erabiltzen, ahoz baino, eta horrela izanik nekez aurkitzen duzu aipamenik txikiena ere, non ez den oso zeharka. Eskutitz horrek ezkontza egokiaren beste zenbait gako darakuskiguz: emaztegaiaren adina, ezkonsarria, leinua, edertasuna, kriantza... eta euskara jakitea. Deigarria bada ere, hautagaiaren alde baloratzen da euskararen erabilera, erabilera antzilarra izan arren. Ziurrenez, azken hori gure mediku euskaltzaleen arteko grina izango zen, soil-soilik.

Albert Constantinen proposamenak ez zuen aurrera egin: zein oztopo zela-eta ez dut gutundegian aurkitu. Alabaina, Buruzaini beste adiskide batek ere, Baigorriko jaun bikarioa zen Dominique Mokozainek, *un joli nid* prestatu nahi izan zion herri horretan, Harizpe marexal famatuaren askaziko andregai bat –Olympe Harizpe– aukeratuta. Nolanahi, aurreko kapitulu batean aipatu dugunez, Pierre Buruzain, azkenik, Amélie Baratxart amenduztarrarekin esposatu zen 1904ko bedatsean.

Aldudeko medikuari doakiola, orduko gutundegietan aurkitu ditugun aipu esplizituak 1913-14koak dira, hau da, ezkondu baino hamar urte lehenagokoak, justu Gerla Handiaren aurrekoak. Denetara hiru dira, eta hiru-

rak Buruzain mediku hazpandarrak Georges Lacomberi igorritako eskutitzetan agertuak. Dena dela, berorien oihartzuna suma daiteke Jean Etxeparek berak Lacomberi sasoi horretan idatzitako eskutitzetan, oso zeharka bada ere.

Lehenengoan, Buruzainek Lacomberi 1913ko abenduaren 24an idatzitako eskutitzean, ondokoa irakurriko duzu:

Cher ami,

Votre dernière lettre s'est croisée avec la mienne et je me hâte de vous répondre que je ferai tout mon possible pour aider Etchepare à se marier. Les jeunes filles qui ont 50.000 à 100.000 F de dot en Pays Basque sont rares et dans mes relations je n'en connais aucune, mais je m'informerai et tâcherai de dénicher l'oiseau rare. Comme je dois aller prochainement à Amendeux, je m'adresserai d'abord à Mlle Duverger, à Saint-Palais, que vous connaissez certainement et qui est une mariieuse intrépide, ayant beaucoup de succès à son actif.

Je comprends à merveille que notre bon ami Etchepare songe à sortir de son isolement et aussi à quitter ce village des Aldudes où il y a si peu de distraction et si peu d'avenir médical pour lui. Pour ma part, je serais enchanté qu'il épousât une gentille basquaise et qu'il vînt s'installer à Hasparren, où il pourrait se faire une belle situation. Son voisinage serait pour moi une précieuse ressource, car les gens dont la conversation me procure de l'agrément sont rares dans mon patelin. [...]

Hainbat xehetasun ikasi ditugu lehen pasartean. Batetik, Euskal Herrian oso urria da dote egokidun neska ezkongaien kopurua. Bestetik, dotea zenbatean zebilen diosku. Konturatu zarenez, eskutitz honetan aipaturiko ezkonsari-dirutzak askoz potoloagoak dira, Buruzaini bilatu zioten Barkoxeko hautagaiarena baino, izatez, haren 35.000 libera nekez hurbiltzen dira hemengo minimora. Horixe izango ote zen Batsalle andereñoarekin akordio batera ez iristeko arrazoia? Bestalde, dirudienez Donapaleu da ezkontza-kontuetarako gune garrantzitsua, eta Duverger “agentzia” nabarmentzen zen bertan. Nolanahi, Pierre Buruzain gogotsu arituko da “txori bakana” harrapatzen.

Eskutitzaren bigarren pasarte guztiz bat dator, jadanik aurreko epigrafe batean Etxepareren herri txikiekiko antipatiaz esan dugunarekin. Areago, dioenez Etxeparek ametsetan egiten du Aldudetik ospa egitearekin, eta izan ere Pierre Buruzainek besoak zabalik hartuko zuen Hazparne aldean, aldamenean lagun atsegina edukiko baitzuen harekin solastatzeko, besteak beste.

Lehen gestio horiek ez ziren emankorrak izan. Horixe kontatu zion Lacomberi, 1914ko otsailaren 23ko eskutitzean:

Je me suis occupé activement de marier notre bon ami Etchepare, mais en vain jusqu'ici. Pour ce faire, je m'étais adressé à mon ami le curé d'I-txassou, qui a dans sa paroisse deux jeunes filles galetteuses [sic] et à Mlle Duverger de Saint-Palais, dont vous connaissez la passion matrimoniale. Elle a suivi deux pistes, l'une à Tardets, l'autre à Mauléon, mais au bout de peu de temps elle a perdu la quête. Mais elle ne se décourage

pas et elle cherchera ailleurs. Le curé d'Itxassou, également, est rentré bredouille. A ce propos, nous avons échangé avec Etchepare quatre lettres en basque, deux chacun, et avons fait assaut de purisme et de verbes forts. On ne peut pas le... : mon confrère des Aldudes manie le basque admirablement. Quel dommage qu'il n'ait pas des loisirs et de la fortune, comme Urquijo, par exemple. Libre de se consacrer uniquement à l'eskuara, il aurait pu faire énormément pour la diffusion et l'amélioration de notre chère langue.

Jakin izan dudanez, eskutitzeko *galeteuses* hori benetan t birekin idazten da; argot da eta "txineduna" adierazten du, esan nahi baita, aberats okitua.

Badago hirugarren eskutitz bat ere oso interesgarria. Buruzainek marxoaren 27an bidali zion Lacomberi, beste gauza askoren artean ondokoa azalduz:

Je me suis occupé activement ces temps derniers de trouver une femme à notre ami Etchepare, mais sans succès, hélas! On m'avait signalé à Itxassou deux jeunes filles, auprès desquelles j'ai fait faire une démarche par l'abbé Diesse, curé d'Itxassou. Mais ce dernier n'a rien obtenu. Par ailleurs, j'avais mis en branle (honne soit qui mal y pense!) Mlle Duverger de Saint-Palais, dont vous connaissez la vocation de marieuse. Elle était entrée en correspondance avec une de ses amies de Mauléon qui lui avait signalé aussitôt une jeune fille «fort bien» des environs de Tardets. La chose semblait marcher d'un bon train, à telle enseigne que je devais accompagner Etchepare à Mauléon pour une entrevue lorsqu'on nous a fait dire que la jeune fille était rebelle au mariage. C'est dommage, car paraît-il, cette jeune Souletine était parée de toutes les qualités, jolie, intelligente, très bien élevée et galeteuse [sic]. Mais je ne désespère pas que Mlle Duverger ne trouve encore quelque chose dans ses nombreuses relations.

Hau da, ez zuten "txori bakan" hori atzeman. Justu hilabete lehenago, Etxeparek berak adierazi zion Lacomberi "Broussain [...] vient de me signaler une piste des plus sérieuses, paraît-il". Txoriak, baina, hanka egin zien. Nor izango ote zen ezkongai zuberotar erakargarri hori, ahoa bete hortz utzi zuena?

Nolanahi, handik laster Gerla Handia etorriko zen, eta geroko utzi beharko zituen ezkontza-asmoak.


GERMAN RODRIGUEZ HIL ZUTEN UDA

Iruñean ezagutu nuen Piarres Lafitte, 1978. urteko udan. Leioako ikasturtea amaitu eta VI. Udako Euskal Unibertsitatera joatea erabaki nuen, artean ikasle gazte eta berdea nintzela. Hantxe egin nuen topo euskal unibertsoagaz, eta hantxe ikusi nituen bertatik bertara euskal izarrik argitsuenak, hala nola, Jose Migel Barandiaran, Manuel Lekuona eta Piarres Lafitte, soilik edadetuenak aipatzearren. Handik aurrera urterik urte itzuli naiz UEUra, eta, egiatan, benetako eskola izan da niretzat. Iruñako hartaz landa, beste bi-

hiru biderrez suertatu naiz aita Lafitterekin batera, eta pribilegiatu bat nintzela pentsatu izan dut haren ondoan egon naizen bakoitzean, kasik osmosi hutsez ikasten baita maila horretako maisuekaz.

Piarres Lafitte Luhu-soko Salaberria etxean jaio zen 1901eko maiatzaren 21ean. Zortzi urte besterik ez zituelarik umezurtz gelditu zen, 1909ko urtarrilean ama eta otsailean aita hil baitzitzaizkion. Osaba-izeba batzuek Zuberoa aldera eramán zuten, Ithorrotzera, baina hango izebak biarnesa baino ez jakinez, ia galdu egin zuen Lapurdiko euskara. Hamaika urterekin sartu zen Belokeko apaizgaitegian, 1912ko urriaren 3an. Gerla ondoan Baionako seminario nagusi berrira joan zen. Irakasle biren eragina jaso zuen. Batetik, Clement Mathieu hazpandarrak gai sozial eta politikoetarantz bideratu zuen Piarres Lafitteren gogoia. Bestalde, Jean Saint-Pierre *Anxuberrok* bereganatu zuen 20 urteko apaizgaia, eta euskal gaietara bildu. Baionako katedralean apaiztu zen 1924ko Jondoni Petriretan, eta ostean Frantziako Tolosara bidali zuten letretako lizentzia prestatzera; hiru urte igaro zituen bertan. Han ezagutu zuen Pierre Lhande jesuita euskaltzaina. 1928tik aurrera eta bizitza osorako Uztaritzeko seminarioan aritu zen, frantses-, latin-, greko-, aleman- eta euskara-irakasle. Kalonje egin zuen Baionako apezpikuak 1961ean. Baionako ospitalean pausatu zen 1985eko martxoaren 23an.

Piarres Lafitteren kurrikulu oparoan, gorago aipatu ditugun apaizgaitegian irabazitako Eskualzaleen Biltzarreko saries gainera –“bide onean zira” esan omen zion gure Etxeparek gutun labur batean–, badago zer azpimarratu, fruitu umotu asko eskaini baitzizkion euskal komunitateari. Lehenengo eta behin, ezin da ahaztu aita Lhanderen euskal-frantses hiztegiari berak emandako bultzada. Bestalde, *Eskualduna* astekariari Uztaritzetik bidali 200ez gorako artikulua ditugu, edota *Gure Herria*n argitaraturiko 70 idazkiak. Behartuta gaude zerranda laburtu horretan, 1933tik 1944ra arte Lafittek sustatutako *Aintzina* mugimendu politiko euskalerrizalea sartzera, eta bai izen bereko aldizkaria ere; hala ere, 36ko gerlak errotik moztu zituen Lafitteren asmo ederrak, eta gero, Bigarren Mundu-Gerlaren ostean, noraezean gelditu ziren Piarres Lafitte eta Iparraldeko euskaltzaleak. Ordurako irabazita zeukan jakintsu-ospea zabaltzea besterik ez zuen egin, 1944ean *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)* argitaratzean. Urte berean sortu zuen gaur egun arte bizirik dirauen *Herria* astekaria –beste batzuek galbideratu *Eskualduna* zenaren hutsunea



1978ko sanferminetan, polizia zezen-plazara sartu zen pilotaka eta tiroka, dirudie-nez amnistiaren aldeko pankarta bat zegoela-eta. Uztailaren 8a zen. Iruñea osotik zabaldu ziren barrikadak eta manifestazioak. Berrehun bat zauritu gertatu ziren, hogeit bat balaz. German Rodriguez hil zuten: polizia-ren bala batek burua zulatu zion, eta garunak barreiatu. Hogeita hiru urte zituen. LKlko militantea zen.

(ARG.: PUNTO Y HORA, 1978).



Piarres Lafitte Ithurralde (1901-1985) euskaltzale handia, Eskualzaleen Biltzarrek antolaturiko norgehiagoketan nabarmendu zen, artean apaizgaia zelarik, eta, berak aitortu bezala, *bide onean zira* idatzi zion Jean Etxeparek eskutitz batean. Gerora, euskal kulturako ezinbesteko erreferentzia bilakatuko zen, bere bizitza luzean.

(ARG.: HERRIA, 1962, 627 ZBK.).

betetzeko– eta, izan ere, luzaroan zuzendu zuen. Bestalde, 1949an euskaltzain oso izendatu zuten, Georges Lacombe zenaren aulkiaz arduratzeko. Euskal Herriko Unibertsitateak *Doctor Honoris Causa* egin zuen 1982an.

Zer esanik ez, Piarres Lafitteren figurak balorazio desberdinak sortu ditu. Kasurako, Mixel Labegerie mediku eta diputatuak “zangodun entziklopedia bat zira zu!” bota zion behin. Jean-Louis Davant euskaltzainak ondokoak adierazi ditu: “apez hori bultzatzailea zen, gizon xorrotxa, xuxen hunkitzen zakiena. Askok ainitz zor diote, nik ere bai”, eta bai “eskuindarrentzat apez ‘gorria’ zen. Euskaltzalea dudarik gabe, abertzalea ere bai”.

Juan Luis Goikoetxeak kontatzen du Krutwig euskaltzainak esaten zuela pertsona bi baino ez daudela beraren artean eta aspaldiko Napoleonen artean: berak ezagutu zuela Azkue jakintsua, eta Azkuek Bonaparte printzea, hau da, Napoleonen iloba, eta, era berean, ilobak osaba. Horrenbestez, lagun bi besterik ez daude Krutwig eta Napoleon enperadorearen artean, Azkue eta Bonaparte printzea. Hori dela-eta, Krutwigek hurbilekotasunak ei zeukan Napoleon. Bada, neuk ere biziki gertu sentitzen dut Etxepare medikua Lafitteri esker, izan ere, Piarres Lafitte dut harekiko lokarri zuzena. Areago, Lafittek berak utzi dizkigu –birritan– Aldudeko medikua-ren potretaren zertzeladarik bizienak, harenganako miresmen sakona islatzen dutenak:

Ondoko urtetan, Eskualzaleen Biltzarreko jaun buruzagiek beren arteko bilkura eta bazkarietara gomitatzen ninduten, nahiz ez naizen behin ere izendatua izan bulegokidetzat. Han dut hurbildik ezagutu Jean Etchepare medikua bere lagunaren artean.

Autoan heldu zen Kanbotik, ezen ordukotz hiri hortan ezkondua zen eta alde bat kokatua. Beribiletik jautsi-ta hor uzten zituen eskularruak eta xapela, eta lagun guziak agurtzen zituen bortzeko batez eta hitz on batez. Traka oneko gizona zen: 1,70 m kaizuz; begitarte goxo bat, kopeta luze zabal bat, ile beltz ederki orraztatua; betespal lodi batzuen azpian begi beltz argi-argiak; sudur luxuran bat, aho ezpain fin-duna, kokots ttipia, matelak arrosa-arin, akituak iduri.

Beti junt arropatua zen, lepoko xuri eta ttattarra gris batekin. Urratsa xehe eta hurria zaukan eta bere bizi ondarrerat makiltxo baten laguntzarekin bazabilan zenbait aldiz segurik.

Bazkal orduak lagun-tartean laket zitzaizkon: ez zen jale handia, izaitekotz aho-xuri lehena: mahain ohidura xaharrak eta berriak ezagutzen zituen eta atseginekin aipatzen, solasa hetarat erortzen zelarik. Beharriak xerrent, mahainkideen erraneri adi-adi zagokien. Nork edo nork arralleria lodixko bat ateratzen zuena bada, Etxeparek irriño batez eta behako argitu batez azpimarkatzen zuen, bertze zenbaitek ahakoka edo irri-zaflaka altxatzen zutelarik. Ez zezaken jasan norbaiten kontra nehor ere mintza zadin, baizik-eta itxurek ez zutela beti egia salatzen.

Salunerat iragaiten ginelarik kafearen hartzeko eta euskararen egoeraz mintzatzeko, gure mirikua besalki batean jartzen zen eta zigarrata bat pitzen, kea ufaka ohiltzen zuelarik. Aitor zuen hobeko zuela ez pipatzea, baina tabakoak loeria kentzen omen zion eta izpiritua akulatzen.

Dassance jaunak oroitarazten zuen egunari zoakon gaia eta nork bere abisua emaiten zuen. Etchepare-n aldia heldu zelarik, xutitzen ohi zen eta bere iritzia adiarazten zuen euskara aberats eta landu batean. Haren hiztegiaren funtsa baxenabarrekoa zen, baina beldurrik gabe osatzen zuen Xuberoko edo Lapurdi-ko hitz batzuez, ba eta berak asmatu hitz batzuez. Atzentua edo doinua haatik frango berezia zuen, orai guti entzuten dena, ene ustez Oztibarreko zaharren ganikakoa, bere aita zenarena seguraz ere, Xiberoko haizeak menturaz ekarria.

Denek miresten ginuen zein aise mailgutzen eta uztartzen zeien gure hizkuntza ideia berri guziri, hala beharrez, artetan guti edo aski bortxatu badu ere.

Oso gizon erakargarria iruditu zait beti Lafittek 1984ean irudikatu zigun Etxepare hori. Izatez, askotan fantaseatu dut bilkura eta bazkaloste horietariko partaidea nintzela, eta jaun buruzagi horiek banan bana ezagutzen nituela. Baina, tira. Oso erakargarria da baita, lehenago, 1941ean ondution erretratua, *Buruxkaken* argitarapen irenduaren aitzinsolaserako prestatu zuena:

O zoin laket zuen Baionako edo Donoztahiriko buruzagien bilkura ttipietan! Denboraren buruan... iduri zait ikusten dudala oraino, zigarreta erien punttan, begiak erdi-hetsirik, erran guziri beha, ixil-ixilka egoki: Elissalde bere ditxoez Oxobi-ri ximiko; hunek mendia bezalako ihar-despena, bumb!; Jaureguiberri-k Afrikako ixtorio xahar ikaragarri bat konda; M. Souberbille zenak, serio-seriosa, alegia deus-ez, kitzika pollit bat bota; Dufau-k bere xokotik nasai-nasaia botaren erreferea; Mendizabal liburu berri erakusten ari; Eizaguirre-k kantu, Mattinek edo Ligueix-ek kobla, Dassance ororen hotsemaile, —eta gure Etxepare, xortua iduri, deneri irri, irri goxo ezti batez arraitua! Baina bera hasten zena bada mintzatzen, argitzen zaizkon begiak, kasik biribiltzen, eta arrazoinak ateratzen zauzkitzun, bildu-bilduak, lerro-lerro, xuxen eta garbi, mintzaire gurbil eta apaindu batean. Ahopaldiak bata bertzearen ondotik metatzen zituen; oso, eder, harri pikatua bezala lanturik, harri pikatua bezain azkar eta xorrotx. Berak bazauden, pisuak elgarri ahotuak eta juntatuak zauzkala, bertze lokarrik gabe. Handi emaiten zuten, Erromanoen jauregiek ere handi emaiten duten bezala; baina bazaukaten halako arin-eskas eta legun-eskas aire bat: hitz batez erraiteko, bere mintzaire biziki *jauna* zuen, beti xut-xuta, beti munttoa, artoski orraztatua, eta ezpaina lore.

Atsegin berezia zen harentzat gazteen arteko zoin-gehiagoen preparamatzea, eta gero heien lanen ikertzea. Lariatua zagon hizkuntza pollit bat edo itzulika aberats bat aurkitzen bazioten; are lariatuago, apezgai bat edo bertze agertzen zenean, eskuara erotik zakiena. Alabainan geroaren griña ezin barnago zuen, eta guk bezala uste zuen gazteen jakitate dela etorkizunaren gakorik segurena.



1929-ko eskualde buruzagiak : Jean Etchepare, Jean de Jaureguiberry, J.-B. Dirart, J. Eizaguirre, L. Dassance, C' Amestoy, Elissalde apezha, Maurice Souberbille, Moulrier apezha, Dominique Dufau.

Eskualdearen Biltzarreko buruzagiak, 1929an. Eskerretik hasita: 1, Jean Etchepare; 2, Jean Jaureguiberri; 3, J.-B. Dirart; 4, Jose Eizaguirre; 5, Louis Dazantze; 6, Amestoi Kolonela; 7, Jean Elizalde; 8, Maurice Souberbille; 9, Jules Moulrier eta 10, Dominique Dufau. Irudiaren oinean zehaztuta daudenez gain, Etxepareren testu bati esker badakigu nortzuk falta diren: Albert Constantin, Justin Heugas, Laurent Durain de Maitie, Ixaka Lopez Mendizabal eta Jean Lizar.

(ARG.: HERRIA, 1958, 420 ZBK.).

Lafitte zuzenean ezagutzerik ukan izan ez banu ere, Xarriton lagun maiteak aipatu dit makina bat biderrez haren izena, eta hau dela bestea dela sarri askotan eduki du presente gure arteko solasetan, eta, nola ez, hainbat anekdota eta jazokune kontatu dizkit seminarioko bere irakasleaz. Behin baino gehiagotan esan dit, ezin disimulatuzko jaineraz, bere gidari nagusi izan zela, eta inoiz “aita bezalakoa zen niretzat” aitortu dit. Xarritonen oroitzen horietariko bat ekarri nahi dut hona.

Nik Haeckel eta Etxepare aipatu nizkion Xarritoni, nabarmen utziz noraino poztzen nintzen Aldudeko medikua biologiaren garapenean horrenbesteko garrantzia eduki izan duen ikerlari aleman horren miresle izateaz, eta hain justu Haeckel-en sasoi betean, eta ez, periferiotan hain ohikoa dugunez, makina bat urte beranduago. Jakina, autua hori izanda, Lafittek ere derrigorrez agertu behar solasean, Haeckel eta Nietzsche “kirats” horienganako erakutsi zuen hisia eta aiherkundea dela-eta. Horretan gabiltzala, halako batean Xarritonek atzera egin zuen denboran, eta bere hamazortzi urteetaraino itzuli zen, 1939ra arte-edo. Uztaritzeko seminarioan aurkitu zuen burua, “aho-xiloa gora begira, den-denak sinesten”, Lafitte doktrina irakasten ari zitzailea. Iraganean ireki zuen leiho horretatik, Lafitteren azalpena erdikusi zuen ahanzturazko lanbroen artean. Lafittek digresio txiki bat egin zuen darwinismoaren inguruan. Lafitteren arabera, eboluzioa ez zegoen frogatuta inola ere, ez baitzegoen aldeko frogarik. Gehienez aldeko argumentuak zeuden. Baina horiek ere nahikoa arbuigarriak irakaslearen ustez. Eta horraino iritsita, adibide modura, Lafittek Haeckel-en faltsifikazio bat mahai-gaineratu zela aipatu zidan, nire erabateko harridura sortuz. Zein faltsifikazio?

Aurreko kapitulu batean azaldu dugunez, Haeckel-en eskema ebolutiboan bazeuden hiru gune garrantzi teoriko oso handikoak. Bata, itsaso primordialetan eboluzionatuko ziren *moneroei* zegokien, hau da, lehen bizidunaren sorrerari, esan nahi baita, biziaren etorkiari. Han aipatu bezala, Haeckel-ek mundu ez-organikotik mundu organikora igarotzeko bide naturala postulatu zuen, eta berorretan oinarrituta *Bathybius* ospetsua deskribatu zen, baina, handik laster prezipitatu koloidal artifizial bat zela frogatu zuten. Bigarrena da *Pithecanthropus alalus* berbeta gabeko giza tximino hipotetikoa, benetako gizakien eta tximinoen arteko kate-maila galdu ustezkoa. Hirugarren ekarpena, oinarritzko lege biogenetikoa da, ontogeniak filogenia errekapitulatzen duela dioena. Kontura gaitetzen norainoko garrantzia zuten Haeckel-en ideia horiek: onartuz gero, jainko kreaizailea egitekorik gabe geldituko litzateke, hau da, ez legoke jaungoiko baten beharrik ezagutzen dugun mundua azaltzeko, eta horrenbestez, ez dago zertan aipatu, elizjendearen areriotasun eta beligerantzia bizia piztu zuten. Dena esateko, ideiak ideia, Haeckel-ek eraso bortitzak zuzendu zizkien elizako dogmei.

Badago Haeckel-en liburu bat –ingelesezko itzulpenean *The Riddle of the Universe at the Close of the Nineteenth Century* izendatu dutena– XX. mendeko lehen hamarkadetako manifesto antikristautzat jo izan dena, *par excellence*. Liburu horretan Haeckel-ek testuinguru filosofiko eta sozial batean kokatu zituen bere ideia eboluzionistak, eta kristoren oihartzuna

eduki zuen maila guztietan. Oso arrakastatsu suertatu zelarrik, 100.000 ale baino gehiago saldu zituen argitaratu zen urtean, 1899an, eta ia hiru halako hurrengo hogeita hamar urtean: eta hori soilik alemanezko argitarape-nei dagokiela (konparazio baterako, 1859tik 1890era arteko hiru hamarkadetan Darwinek soilik 39.000 ale saldu zituen *Espezieen jatorria* famatuare-nak, ingelesezko sei edizioetan). Gainera, 1912rako hogeita lau hizkuntzataraz itzuli zen Haeckel-en liburua, tartean armeniera, txinera, hebraiera, sanskrito edota esperanto. Esan gabe doa, Haeckel jakitun dago bere ideien transzendentzia:

The great questions of the creation of man, the creation of the animals and plants, the creation of the earth and the sun, etc., are all parts of the general question, What is the origin of the whole world? Has it been *created* by supernatural power, or has it been *evolved* by a natural process? What are the causes and the manner of this evolution? If we succeed in finding the correct answer to one of these questions, we have, according to our monistic conception of the world, cast a brilliant light on the solution of them all, and on the entire cosmic problem.

Zernahi gisaz, Haeckel-ek eztenkada pozoidunak zuzenduko dizkio elizari. Kontua lehenagotik dator, zeren, urteetan zehar Haeckel-ek hainbat eraso jasan baitzituen erlijio-buruzagiengandik, eta gero eta garrastuago agertu zen adinaz aurrera doala. Horrela izanik, Erromako eliza jo zuen naturaren ikasketa arrazionalerako etsai boteretsuen eta nagusizat. Heme-retzigarren mendeko bigarren zatiko hiru adibide jarri zituen, izatez arrazoiari botatako hiru hordago zirenak, agerian eta behingoz frogatzen zutenak zientzia eta kultura modernoa ez zitzaizkiola batera atsegin “Kristoren Bikarioari”, alegia, Pio IX.ari. Lehenengoa: 1854ko abenduaren 8an, aita sainduak Ama-Birjinaren kontzebizioe notagabearen dogma promulgatu zuen, alegia, Andredena Mariaren sortze guztiz garbiarena. Bigarrena: hamar urte geroago, 1864ko abenduan, entziklika famatu batean –*Quanta Cura*– aita sainduak kultura eta zibilizazio modernoaren erabateko kondena argitaratu zuen; Haeckel-en ustez, entziklikaren azalpenetan –*Syllabus errorum*– zerrendatuta eta anatematizatuta agertzen dira, zientzia modernoak egia argigarritzat dauzkan tesi arrazional eta printzipio filosofiko guztiak. Hirugarrena: sei urte geroago, 1870eko uztailan, Erromako elizaren buruak zentzugabekeriaren gailurra ukitu zuen, berarentzat eta bai bere predezesore guztientzat infalibilitatea alegatu zuenean, hots, hutsezintasuna. Hori egitea, Haeckel-en ustez, zientzia independentearen kontrako gerra aldarrikatzea zen.

Aita saindutzaren hiru ekintza sordies horiek oldar hain nabariak ziren arrazoiaren kontra, ezen eztabaida ezin gordinagoa abiatu baitzen hasierahasieratik, are eta zirkulu katoliko ortodoxoen baitan ere. Izatez, Vatikanoko Kontseilua infalibilitatearen dogma definitzera deliberatu zenean 1870eko uztailaren 18an, apezpiku guztien bakarrik hiru laurdenak agertu ziren alde, 601etik 451; bestalde, ez zeuden kontseilu horretan kontrako iritzia zuten gotzain asko.

Emmanuel Intxauspe (Zunharreta, 1815; Onizegaine, 1902). Baionan apaiztu eta San Leon ospitale zibileko kaperua izan zen 1842-64 bitartean; orduan idatzi zuen *Jincoac gizonareki eguin pactoac deboziozko liburua* (1851). Bonaparte printzeak eskatuta San Mateoren ebanjelioaren zubererazko itzulpena (1856) eta Iturriagaren Elkarrizketak prestatu zituen (1857).

Ondoren *Le Verbe Basque* bere lan nagusia, eta Apokalipsiaren zubererazko itzulpenak prestatu zituen. Baionako apezpikuaren idazkari nagusia izaki Vatikanoko kontziliara lagundu zion (1869). Bestalde, *Le Peuple Basque*, 1893, idazlana aurkeztu zuen Zientzien Progresorako Frantses Elkarteak antolatutako kongresuan: euskararen antzinatasunaren frogarri harrigarritzat jo zuen, aitz erroaren gainean eraturako hitzak izatea tresna ebakitzailen izenak –aitzurrak, aizkora, aitztoa, aitzurrak–, hau da, Intxauspere aburuz berba horiek Harriarokoak ziren.

Hilobitrik *Ohoariak khea beza-la igaiten, obra hunak bethi-koz egoiten* diosku.

(ARG.: K. ALTONAGA).



piku zaharra lagundu zuen, kaperazain eta teologo aholkulari modura. Baionako apezpikuaren boza, itxura guztien arabera, infalibilitatearen aldekoa izango zen, “zeren eta Inchauspe Jauna Aita Saintüaren hütsezintarzüenaren aldetiar kartsüa beitzen”, Junes Casenave-Harigileren hitzetan esateko.

Kontuak kontu, pentsatzekoa da zuzenki edo zeharka Piarres Lafittek ondo baino hobeto ezagutuko zuela Haeckel-ek irakatsitakoa, eta jakina, kiratsa iritzi zion, badakigunez. Alabaina, aita Lafittek nondik atera zuen faltsifikazioarena?

Izatez, XX. mendeko azken hamarkadaren bigarren aldean zarata nahikoa handia atera da komunitate zientifikotik kanpora, lege biogenetikoaren ondadea bermatu aldera Haeckel-ek argitaratu zituen ornodunen enbrioi goiztiarren irudiak direla-eta. Stephen Jay Gould-ek ederto kontatu duenez, Haeckel-ek exageratu egin zituen enbrioiaren arteko antzak, horretarako xehetasun batzuk orokortuz eta bestetzuk omitituz, eta are ere kasuren batean irudi bera emanez espezie desberdinena bailitzan. Nolanahi, orduko aditu garaikideak ere konturatu ziren Haeckel-en amarruaz, eta horrelaxe adierazi zuten XIX. mendeko azken hamarkadetako zenbait artikuluko zientifikotan. Hau da, oraintsu zabal haizatu dena ezaguna zen Haeckel-en sasoi-ko komunitate zientifikokoaren esparruan. Baina, ez zen zirkulu horretatik irten, eta ez dirudi probable Lafitteren ingururaino iristea.



Ernst Haeckel-en ustez, gizakien eta tximinoen arteko alderik nabarmenena gizakiek berba egin dezaketela da, eta tximinoek, oster, ezin dutela. Horretan oinarrituta kate-maila galdu bat postulatatu zuen 1868an, *Pithecanthropus alalus* (= mintzamenik gabeko giza tximino) izendatu zuena, eta tximino eta gizakien arteko zubi ebolutibotzat jo zuena. Geroago, Gabriel Max (1840-1915) margolariari enkargatu zion haren irudia, eta, nahikoa zabaldu da jendartearen. Irudi hori dela-eta, sarritan aipatzen da Koenigswald antropologoaren iruzkina, horko gizonaren mozkor-itxura aipatuz, eta bikotea guztiz zorian-tsuia izango zela erantsiz, zeren, “emazteak ezin izango zion kontra egin senarrari, hitz egiterik ez zuten-eta”.

Gaurko perspektibatik ez dirudi politikoki oso korrektoa denik.

Vatikanoko I. kontzilioan Emmanuel Intxauspe (1815-1902) zuberotarra egon zen. Intxauspe, besteak beste ezagun duzu Bonaparte printzearen laguntzailea izan zelako, *Le verbe Basque* idatzi zuelako (1868), eta bai Axularren *Gero* berrargitaratu zuelako, “garbitua eta xuxendua”, 1864an –bide batez esateko, *Guerocho guero* hori da Jean Etxeparek irakurri zuena, eta dirudienez geroago liburua galdu egin zitzaion, horixe aipatu baitzuen Lacomberri eskutitzez 1922an–. Bada, Intxauspe kontzilioko lekuko eta partaidea izan zen: Baionako Lacroix jaun apez-

Zer edota zein izan zitekeen Lafittek doktrina irakasteen aipatu faltsifikazioa, Xarritonek gogoratu ezin duena? Burua nahikotxo nekatu eta gero, *Pithecanthropus alalus* giza tximinoia izango zela ebatzi dut. Baina ez giza tximinoia bera, Haeckel-ek lan-hipotesi modura plazaratu zuena, eta gerora Javako aurkikundeekin hein batean egiaztatu zena, baizik eta, Gabriel Max margolariari enkargatu ziona. Haeckel-ek 1868an proposatu zuen *Pithecanthropus alalus*, baina, askoz geroago, mendearen azken hamarkadan plazaratu zuen Gabriel Max-ek itxuratutako irudia. Margolan horrek zabalkunde handia eduki zuen liburu bidez, eta seguruenek horixe izango zen Lafitteren begietaraino iritsiko zena, haren haserrea biztuz. Itsumenduak faltsifikazioa dela esatera bultzatuko zuen. Nire ustez, giza irudi horren oihartzuna da hamazortzi urteko Xarriton erneari belarri-xuloetatik sartu zitzaiona.

Dirudienez, Piarres Lafitteren erako kontrakotasun hori nahikoa zabaldua egon da Euskal Herriko apaizgaitegietan: Pio Barojak horrelako seminario-irakasle bat aurkeztu zuen *El cura de Monleón* (1936) eleberrian:

Había también algún profesor que [...] rebatía la teoría de la evolución con algunos pequeños argumentos contradictorios, sacados por algún abate francés de experiencias de biología y de la teoría de Mendel, y trataba a Darwin y a Lamarck y a los geólogos como ignorantes, con la petulancia y la tontería de un catedrático español. El hombre de Neanderthal o el *Pithecanthropus erectus*, de Java, no eran para él más que invenciones malévolas para atacar al catolicismo y la bella construcción del Génesis.

Edozelan ere, Haeckel-i dion ezinikusia Piarres Lafittek darwinismoari proiektatu zion neurri batean. Horixe da behintzat gogora etorri zaidana, hemerrotekan *Herria* astekarian aurrera eta atzera ibili naizenean. Hor aurkitu dut 1957ko ekainean hasitako artikulu-sorta bat *Munduaren hastapenak* izenekoa, zalantzarako tarterik uzten ez duena. Era honetara hasten da:

Soldado batek hitz hau igorri dauku:

Jaun buruzagia, berrikitan mintzo ginen zonbait lagunekin munduaren hastapenez, eta biarnes batek erraiten zautan lurreko parabisua aiphatzen duen ichtorioak ez zuela kanore limarrik; haren errientak erraiten omen du, jakitatearen arabera, lehen gizonek aberen eite gehiago bazutela aingeruena baino, harpetan bizi zirenez geroz. Gauza hoitik hachean ezar bazinitzate zuen kazetan, iduritzen zait ni bezalako zonbait gaizoeri zerbitzu egin zinezakotela. Aldi batez emaiteko luzegi balinbada, eman zuen erakaspeta zathika zonbait astez. Egia gero, balio duela! Nik hemen, soldado arropa huntan, badut segur irakurtzeko astia. Bertze batzuek ere hartuko dute, nun diren ere, eskolatu nahi duten ber. Ez adiorik. (Ondotik eman ditu izen-deiturak eta adreza).

Zehaztu ez arren, urtea ikusiz soldadu horrek Aljeriatik idatzi duela pentsa daiteke, zeren 1954-1962 tartean hainbat eta hainbat eskutitz, bertso edota argazki argitaratu baitziren hango gerlara mobilizatutako soldadu euskaldunek igorriak. Alabaina, pentsa daiteke era berean eskutitz hori *Herria* astekariaren zuzendariak berak asmatu duela, hurrengo zenbakietan -358-367 tartean- kaleratuko dituen bederatzi artikuluentzako aitzakia gisa. Eskutitzaren egilea gorabehera, *Munduaren hastapenak* deritzon sorta sinadura barik agertu zen, baina Lafitte buruzagiak idatzitakoa da probabilitate osoz. Dena dela, eskutitzeko biarnes frikun horrek euskaldun koitaduari planteatu diona, kontura gaitzen, Haeckel-en “arazo kosmikoa” da azken batean, maila guztiz herrikoi batean adierazita bada ere.

Kontua da ze, erantzuten hasteko Lafittek galdera bat luzatzen duela, erakusteko zer-nolako bibliografiatan oinarrituko den: “Elizak nundik bildu ditu, munduaren hastapenei doazkoten argiak?”. Ihardespena: “Moisesen liburutik”. Eta hortik aurrera xehetasun anitzez apainduta errepikatuko du Bibliaren liburu santuek dakartena. Soilik sorta horretako zortzigarren arti-

kulura iritsitakoan –366 zenbakian– aipatuko du “Jakitateak zer dion”. Oso esanguratsu deritzot:

Jakitateak zer emaiten dauku pentsatzerat munduaren hastapenez?

–Egungo egunean huna nola, jakinak jakin, asma ditaken munduaren hastapena.

Oro beharbada argitik hasi dira.

Hidrojenak iduri du zeruan miliarka diren izarren ekheia dela.

Lurra, handitasunez ala haztaz, ttitta ez deus bat baizik ez da zeruen ertzean. Bainan balioz lurra ez du parerik. Alabainan hidrojena-pikorrek elgarrekin bilduz bertze ekhei berri batzu sortu dituzte, eta ekhei berriek ere bertze asko gero eta aberatsagoak. Gisa hortan apailatu dira biziaren bideak, eta landareak jin dira, gero animale edo abereak eta azkenean gizona; hots, munduak luzaz eta luzaz arimaren ohakoa arthoski antolatu du, eta miliar bat urtheren barne egin da lan eder hori mailka mailka. Pascal pentsatzale famatuak hitz hauk erran ditu: “Gauza guziak ez deusetarik jali dira eta bazterrik gabe goiti iragan. Nor jarraik urhats hoieri? Mirakulu hoi en Egileak badaki heien berri. Bertze nehork ez ditzazke zilha”.

Adimenduak eta fedea Jainkoa aipatzen baitaukute, Jainkoak badu beraz zer ikhus jakitateak erakusten daukunarekin?

–Bai eiki, Jainkorik gabe munduaren agertzeak eta bethi ederrago bilakatzeak ez lukete kanore ez kolorerik. Ez deusak ez du zer bait sortzen ahal, gutiago denetik ez ditake jal gehiago denik. Zentzuari behar litzaioke uko egin, Jainkorik gabeko mundu batez mintzatzeko!

Adimenduak nahi du gure mundu hau izan dadin bethiereko Agerztale eta Aphailatzaile baten lana. Eta Bibleak erakasten hori bera emaiten dauku haste hastetik.

Gizona gaineko mailera agertu gabe, zer izan da aintzinagoko mailetan?

–Lurra aphailatu chea izan delarik gizonari leku egiteko, biziaren oldarrak, Jainkoa lagun, jauzi egin du animalearen jiteaz goragoko zer baitetar heldu beharrez.

Biziaren oldarrak goiti abiatzearekin ezpalaren itchura hartzen du: ezpal batean badire buruchka batzu chut-chuta daudenak, bainan bertze batzu ere beheiti ari, kasik eroriak. Biziaren ezpala berdin: badi-tuzke adar batzu ongi heldu direnak, eta bertze batzu huts egina hiltzerat doatzinak.

Ez litake mirakulu, memento batean, gizona agertzeko pondu hartan, gizonari itchuraz biziki hurbileko izaite batzu bizirat jinik ere. Izaite batzu aberea baino gehiagokoak bainan gizonaren heinerat ezin helduak: gorputzez eta buru-jeinuz jendearen iduriko; sua egiten, tresna batzu erabiltzen, hil-herri chumeak eraikitzen jakinki, bainan oldez ari, aberea bezala, eta ez adimenduz. Izaite hoik suntsitu dira denak gizonari leku eginez. Ziminoak gelditu baitira, ez dira hoik abere huts baizik.

Nola agertu da bada gizona?

–Oichtion erranak gogoan badira gauzen ikusteko bi molde. Huna lehena.

Erdi abere eta erdi-gizon anarteko izaite hoitarik biga hautatzen ditu Jainkoak, lehen gizona eta lehen emaztea. Egiten ditu bere itchurarat eta idurirat:

Itchurarat: erran nahi dut Jainkoak ichurtzen diotela ezin hilezko izpiritu bat, eta hunek gorputzari emaiten diola azken aphailu bat, jende gorputz egiten duelarik.

Idurirat: erran nahi dut Jainkoak inguratzen dituela hastapeneko graziaz, jaidura guzien jabaltzeko eta baketzeko amodio garbi batean.

Badea ikusteko bertze manera bat, oichtiko erranekin adoch lita-keena?

–Bai, anarteko izaite berezi hoiengan artean biga hautatu orde, Jainkoak asko hautatu ditu, asko lekutan eta asko mendetan, jende arima baten emaiteko. Jainkoaren itchura bazuketen, ez haatik iduria grazia ez ukanez. Gizontasun hutsa zitakeen heiena.

Hauien artetik biga hautaturik, Jainkoak egin dituzke bere idurirat, grazia ichuriz heien baithara, eta hastapeneko saindutasuna heien ariman finkatuz.

Bainan gizon-emazte pare horren ondokoak gelditu ditazke bakharrik mende zaharretako errekontru izigarrietarik. Salbu litake, ikusteko manera huntan, Jondoni Pauloren hitz hau: “Jainkoak jalgi-arazi du gizon arraza osoa bat-bakharretik lur-gain guziaren jendestatzeko”.

Esan bezala, 1957koa da artikulu hori. Nik zati bi bereiztuko nituzke bertan. Lehenengo zatian hidrogenoa-eta aipatzen ditu, eta berehalako batean bigarrenaren kokatuko gaitu: “Lurra aphailatu chea izan delarik gizonari leku egiteko, biziaren oldarrak, Jainkoa lagun, jauzi egin du animalaen jiteaz goragoko zerbaitetarar heldu beharrez”. Aita Lafittek garrantzi gehiago eman dio bigarrenari, izan ere, biziaren historia osoa gizakiarentzako eszenategi egokia prestatzeko izan bailitzan aurkeztu digu. Agerian aipatu ez arren, badirudi lehen parte horretan nolabaiteko eboluzioa onartu duela, bai mundu ez-organikoan eta bai mundu organikoan ere, baina gizakia aparte utzita: gizakiarena bigarren zatirako utzi du. Hala ere, nolabaiteko eboluzioa esan dugu, zeren testua irakurtzean konturatu zarenez, makina bat zipriztin agertzen baitira jainko kreatorien baten beharra aldarrikatzen dutenak behin eta berriro. Alde horretatik, ezin da esan Lafittek ikuspegi eboluzionista damaigunik; bai esan daitekeena da, gehienez, ikuspegi kreationista fixista batetik kreationismo eboluzionista batera aldatu dela, horrela adierazterik balego. Ohargarria da, halaber, birritan erabili duen “biziaren oldarra”. Uste dut, baliabide estilistikoa baino gehiago dela: Lafitteren adierazpide eder horretan enkriptatuta, ziurrenez, Bergson-en *l'élán vital* ospetsua daukagu, eta, alde horretatik, filosofo horren kutsua ere aipa genezake. Izan ere, Henri Bergson-ek eboluzio-teoria finalista bat proposatu zuen, giza biziaren dimentsio espiritualetan oinarritua: giza existentziaren arazo osoa besarkatu eta azaldu zuen, eta adimena energia hutsa bailitzan definitu zuen, *l'élán vital* famatua –biziaren oldarra, Lafitterenean–, eboluzio organiko osoaren erantzulea izango litzatekeena. Jakina, Bergson-en ikuspegi mistikoa, gailentzen ari zen materialismoari kontra egitera etorri zen.

Munduaren hastapenak sortako zortzigarren artikulua bigarren zatia (eta bederatzigarrenak osorik) gizakiaren agerpena du hizpide. Zer esanik ez, hor ere kreationismo ebolutiboa deitu duguna aurkituko dugu parra-parra, eta bai, behin eta berriro eskua sartu beharrean aurkitzen den jainko

mendratu bat. Alabaina, nik neuk beste alde bat azpimarratuko nuke: Lafittek oroz gain liburu sakratuen esanetara egokitu nahi ditu zelan edo halan, zientzialariek gero eta abiada biziagoz metatzen dituzten datuak. Esaterako, artikuluan izendatu barik agertzen diren hipotesi monogenista eta poligenista ere zelai horretara eraman nahi ditu. Lafitteren ahalegina, baina, 1950. urtean kaleratu zen *Humanis generis* entziklikaren argitara irakurri eta ulertu behar da. Delako entziklikak ez zuen jainkoaren inolako esku-hartze zuzenik aipatzen giza gorputzaren bilakaera ebolutiboan, baina, ostera, arima jainkoak sortua dela dio. Hortaz, askatasuna eskaini zien natur zientzialariei, baina kasu!, ikerketak ikerketa Elizaren Irakasleagoak du azken hitza dogma katolikoei dagozkien puntuetan. Pio XII.ak baimena ematen die katolikoei giza gorputzaren eboluzioaz jarduteko, baldin eta soilik baldin jainkozko kreazioa eta arimaren infusioa onartzuz gero. Areago, Gould-ek azaldu duenez, Pio XII.ak kementsu aldarrikatu zuena da, eboluzioa printzipioz benetakoa izan daitekeen arren, “teoria” hori izatez frogatu gabe zegoela, eta menturaz oker egon zitekeela errotik.

Nolanahi, sortako bederatzigarren artikulua azken pasarteak damai-gu Lafitteren pentsaeraren gakoak:



Zoin da zure azken hitza?

Hastapen guziek Jainkoa dutela lehen ithurri. Jainkoa da jautsi, munduaren ager arazteko, biziaren phizteko, gizonaren jal-arazteko, graziarentzat eman bideari.

Ikusi dugun bezala, Lafitte kreazionista modura agertzen zaigu, eta kreazionismoa da *Herria* astekarian zabaltzen duena.

Udako Euskal Unibertsitatea 1973an abiatu zen Donibane Lohizunen, frankismoaren azken urteetan euskal kulturak bizi zuen loraldiaren erdian. Lehenengo ikastaro haietako entzuleen artean Piarres Lafitte, Andolin Eguzkitza –berorren ostean– eta Gregoire Eppherre –azken lerroan– ezagut daitezke. Hasierako urteetan helburu bi zituen UEUk: euskal kulturaren erakustoki eta bilgune izatea eta euskaldunei goi-mailako hezkuntzako prestaketa eskaintzea. 1977ean Iruñera aldatu ziren ikastaroak: fur-furian bizi zen Euskal Unibertsitatearen aldarrikapena.

(ARG.: HERRIA ETA UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA).

ORIXEREN PURGATORIOA

Sarbide eskasa eduki izan du darwinismoak Euskal Herrian: oso nekez aurkitzen dira teoria ebolutiboaren aztarrenak euskal letretan. Oraingoz ez da irakurketa sistematikorik egin, eta beraz ezin da eboluzioaren ideien haritik tiratu zer-nolako historia eduki duen aztertzeke. Gaur-gaurkoz soilik detektatu dira esanguratsu izan daitezkeen zenbait pasarte, baina, dauden apur horiek oro har eboluzioarekiko errefraktaritate nabarmena erakusten digute.

Dirudienez, Erromako elizaren ortodoxiaren bidetik joan dira bertokoen ideiak, eta horrela, Bibliako esanetara jo izan da luzaroan munduaren eta gizakiaren sorrera azaltzeko orduan, eta hitzez hitz sinestu dira. Haatik, noizbait amaitu behar zen aro hertsiki bibliko hori, eta noizbait iritsi behar ziren munduaren eta gizakiaren jatorriari buruzko teoria berrien oihartzunak, guztiz motelduta bazen ere, “hesi azkarra” baitzen euskararena.

Alde horretatik, esaterako, 1898ko *Escualdun laborarien adiskidea eta con-seilaria Egunaria edo Almanacan* kontakizun polit bat aurkituko duzu, *Mundua bera egina* deritzona. Kontakizunaren arabera, berrogeita hamar urte lehenago euskaldun bat “Lapurtar casco oneco bat Parisen cen bere aferez

joana”. “Egun batez [...] sarthu cen ostatu handi batean bazcariteco” eta hoguei lagun batu ziren mahaiari. “Azkenerat gizon gazte bat hasten da errelechionearen gainean mintzatzen [...] fedearen contra, sacramenduen, eliza gizonen, ororen contra badu cerbeit erraiteco”. Entzundakoak entzunda, euskaldunak ondorio bat argia atera zuen: “Segur ez da giristinoa”. Eta kontakizunarekin aurrera segitu baino lehen, narratzaileak iruzkin potolo bat tartekatzen du gure lapurtar zintzoaren ondorioa Euskal Herriari aplikatuz: “Laphurtar cosco-dunak baluke behar bada, Pariseco ostatuetic hurbilago, Laphurdin eta Bachenabarren bere zentzuzco solasac non balia”. Alegia, “Escual herrian ere”.

Gero, ostatuko elkarriketara itzulita, “huna non gizon adinecotto bat ere hasten den mintzatzen”. Lapurtarrak diotso “-Zoin errelichionetaco zare bada?”, eta gizon edadetuak ihardetsi “-Bihibatecoa... Daucat Jaincoric ez dela”. Eta segituan dator kontakizunaren muina, egilearen iritziz epigrafe berezitua merezi zuena:

Mundua bera hala-beharrac egina

-Norc egina da bada zure ustez mundu hau.

-Bera bere baitaric, *hala-beharrac*.

-Ez nuen uste *hala-beharra* hain argitua, hain zuhurra, hain bothe-retsua cela. Cer, jauna, daucazu egiazki sasoinac bere tenoretan, izarrac bere bidetan eta itzulietan, iguzkia behar den heinean gure argitceco eta ez itsutceco, lurraren berotceco eta ez erretceco, animale eta landare mota guciac, azkenecotz ceroni, zure adimenduarekin, zure gorputzarekin, zure ahal, indar, jeinu guciekin, horiec oro berac bere beitharic, uste gabez, halabeharrez eginac direla?

-Bai Jauna, hala uste dut, eta hala daucat.

Ostetik datorrena, gizon fedebakoa, edo hobeto esanda, halabeharraren ideia barregarri geldiarazteko anekdota ximple-ximplea da, aparteko interesik ez duena, salbu eta atomoak aipatzen dituela -“*atomen* goiti beheiti eta harat hunat[ac]”- eta seguruenez horixe izango da atomo terminoa adiera modernoarekin euskaraz lehen aldiz dokumentatu duen testua, *Orotarikoak* aipatu Kardaberaz eta Jusef Egiategiren erabilera lazoetatik landa.

Zer esanik ez, jatorriari buruzko ideia berriak indarra hartuz joan ziren heinean, hemengo harrera ere bestelakotu egin zitzailea pentsa genezake. Jakina, zientzia profanoak bultzatu du ikuspegi berriaren agerpena, eta teoria berrien edukia bibliaren fixismoari kontrajarrita dagoenez, lehenago bezala defentsiboa da elizaren jarrera, baina, zuhurragoa. Izan ere, une batek aurrera badirudi indartuz doan ideia dela, eboluzio-dosiren bat onargarria izan daitekeela, baldin eta Adanen gorputza gauzatzeko jainkoaren eskusartzea onartzen bada. Ohar gaitezen baina, hori, eboluzioa asumitzea barik, kreazionismoaren izaera aldatzea dela, alegia, kreazionismo fixistatik kreazionismo eboluzionistara igarotzea. Nire ustez, bigarren aro horretan koka genezake hurrengo pasarteotako adibidea.

Gure Herria aldizkari sortu berrian, 1921ean, Jean Saint-Pierre *Anxuberrak* euskaldunen historia bati -*Eskualdunak* deitu zuen- ekin zion atalka, eta, oso bizitza laburra eduki bazuen ere -soilik zortzi atal idatzi baitzi-

Nikolas Ormaetxea *Orixe* (Orexa, 1888; Añorga, 1961). Jesuita izateko ikasten hasi zuen 16 urte zituela –1905–, baina Jesusen Lagundiak ez zuen hartu –1923–; hala ere, haien artean prestakuntza humanistiko sakona lortu zuen. Jesuitak utzita, 1923-31 tartean Bilbon bizi izan zen, eta euskal lanetan murgildu zen buru-belarri: Euskaltzaindian Azkue laguntzen zuen, *Euzkadi* egunkarian euskal atalaren ardura hartu zuen Kirikiñoren ondoren, itzulpenak, poemak eta beste hainbat sorkuntza-lan idatzi zituen. 36ko gerla aurreko belaualdiarentzat Orixe zen euskal gauzetako jakintsurik handiena eta baita idazle egokiena ere “euskal arima” adierazteko. Orixe euskararen lehen *liberataua* dugu: Aberriaren pizkundearen lagunduko zuen poema nazionala egiteko –*Euskaldunak*–, Aitzolen enkarguz erretiratu zen Bilbotik Orexara, 1931n. 36ko gerla piztu zenean, Orixek bukatua zuen liburua, ez ordea argitaratua. Faxistek gartzelan sartu zuten; askatu eta, berriz bila zihoazkiola, Ipar Euskal Herrian ezkutu zen. 1950ean Amerikara jo zuen, eta, handik sei urte-ira itzuli zelarik, jada giroa arras aldatuta zegoen Hego Euskal Herrian. Orixek onartzen ez zituen ideia eta joera berriak zeuden indarrean, eta polemika eta kritika handiak piztu zituen. Noizbait izan zuen ospea galdu egin zuen belaualdi berrien aurrean.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).



tuen–, bosgarren atalean egungo euskaldunen arbasoei buruz aritu zen. Horretarako, euskaldunen gaiarekin sartu aurretik, lehen epigrafe batean “gizonaren” adinaz dihardu oro har.

Saint-Pierrek modu nahikoa erretorikoan aipatzen du, aditu batzuen iritziz “besogainka mendeak” joan direla “mendia bezen gorako multzoan, gizonak lurrean bere lehen ager-aldia egin duenetik hunat”. Badio halaber, beste batzuek “berriago daukate[la] gizona eta gazteago biziki”. Dioskunetz, baina, badago hirugarren jarrera bat: “bertze asko zuhurrago daude solas horri buruz, garbiki jakitea lan zailegia baitzaiote. Hortan dugu egun egiazko jakintsunen aitormena, ez dakitela gizonaren adina, eta jakiteko biderik ez dutela oraino”. Hau da, Saint-Pierrek gizakiaren antzinakotasunaren inguruan zeuden jarrerak erakustez gain –ezinbestez bete beharreko baldintza metodologikoa–, hirurotariko bati damaio bere bedeinkazio nabaria, hain zuzen ere horixe omen baita egiazko jakintsuen jarrera. Ildo horretatik ondokoa ere eransten du, aurreko argudioa irmoago erakutsiz-edo:

Bizkitartean *Gure-Herrian* irakurtu berria dugu Osborn Amerikanoak derasan elhe bat: gure lurreko gizonari emaiten dio adin bat izigarria: 250.000 urte, berrehun eta berrogi ta hamar mila urte. Errailearen gain utzi baitu Zerbitzarik, ederki egin du, eta zuhurki. Adin hori baino handiagoa asmatu zuten jakintsun Alemanek iragan mendean; apaldu zituen gero frantses batek, de Mortillet derizanak, urte lerro hek berrehun eta berrogi miletara: horra berriz Amerikanoa frantses jakintsunaren hatzetan ibilki. Bainan, frogarik gabeko elheak beude bazterrera: zinezko jakintsunek ez dute holakorik erraiten egungo egunean.

Frogarik gabeko eleak. Garbi dago Baionako seminarioko moral-irakasleak zeinen aldeko jarrera erakusten duen, baina, dagoeneko behartuta sentitzen da hipotesi guztiak hein berean aipatzera, eta hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Halaber, gaiari buruzko bibliografia ezagutzen duela erakusten du, hau da, mundu zabalarri begiradaxo bat luzatu dio ezer idatzi orduko. Ikusi bestalde, frantses eta amerikarrak izen eta guzti datozela –hori bai, amerikarra frantses jakintsuaren hatzetan–, baina alemanek –Haeckel tartean– ez dute ohore hori merezi.

Jarraitu dugun harian *Orixe* idazle famadunari dagokio ondoen aztertu den adibidea. Paulo Iztuetak hartu du horren ardura, eta berari esker badugu behingoagatik kasu bat nahikoa zehatz ezagutzen dela esan genezakeena. Episodio osoaren kokapen, deskribapen eta azterketaren ostetik, laburbilpen modura-edo Iztuetak zera ondorioztatu du: “Orixek Eboluzioari atea erdiz erdi, zerraila eta guzti itxi zizkion”. Alabaina, lasterregi aurkeztu dugu ondorio gogaikarri hori, kontua behar bezala azaldu barik.

36ko gerraren ondorioz, Nikolas Ormaetxea *Orixe* (1888-1961) “joan” beharrean aurkitu zen, eta 1938-50 bitartean Frantzia eta Ipar Euskal Herrian (Donibane-Lohizune eta Bidarrain) bizi izan zen, Ameriketaraino urrunduz aurretik: lau urtez (1950-54) bizi izan zen Guatemalan eta El Salvador-en. Han idatzi zuen *Quito'n arrebarekin* saiakera mistikoa (1950-54 bitartean *Euzko-Gogoa* aldizkarian argitaratua). Obra zabal baten jabe da *Orixe*, eta horren inguruan aspaldi batean irakurri nituen Joxe Azurmendik

eskaini zizkion *Zer dugu Orixeren kontra* (1976) eta *Zer dugu Orixeren alde* (1977) liburu mamitsuak. Zeozer laburragoren bila, Harluxet hiztegi entziklopedikora sartu naiz, eta hor *Orixeri* esleitu zaizkion ezaugarri bi errepikatatu nahi ditut hemengo testuinguruan, alegia, antimodernismoa eta erlijioarekiko atxikimendua. Bukoliko izenondoa ere hor irakurri dut.

Kontua da *Quito'n arrebarekin* liburuaren bosgarren kapituluan dioskula, Donibane-Lohizunen ezagutu zuela purgatorioa. Horren arrazoia zein? *Orixe* oso kezkatuta dago Espainian eta, batez ere, Frantzian “sasi-yakintsu batzu, Yainkoak bere Liburuetan esana bere gogara makurtzen” hasi direlako, “mundutarren belarria goxatzeagatik, egiari muzin egiñez”. Bada, Donibanera Baionako seminarioko irakasle bi joan ziren, “moda berriko ipui oiek zabaltze[ra]”, eta *Orixe* sutu egin zen hitzaldi horiek entzutean.

Paulo Iztuetak argitu duenez, “ipui oiek” parrokiaren *Gure Etchea* aretoan egin mintzaldiak ziren, besteak beste, ondokoak: “Origine de l’homme”, Jean Sorrek –Seminario Handiko Bibliako irakaslea zenak– egun bitan zehar garatu behar zuena, eta “Avenir de l’homme”, Pierre Manterolak –Teologia-irakasle apaizgaitegian eta jatorriz Donibane-Lohizuneko euskalduna– beste ekitaldi bitan, 1948ko urtarrilean zehar.

Esan bezala, *Orixe* purgatorioko suan erretzen zegoen, eta liburuan lehenengo hitzaldiarena aipatzen du soilik: “Mintzagai: ‘Gizonaren yatorria: Zer dio yakinkizunak? Zer dio Yainkoaren itzak?’.” *Orixek* berak azalduta badakigu aretoa bete egin zena. Piarres Xarriton ere egon zen publiko artean, inoiz halaxe adierazi didanez. Unea iritsi zenean, hizlaria gaiari lotu zitzaion: “Zabaldu zunan agoa doakabe arek, eta obe zukenan idiarena esan balu!”. Zer azaldu ote zuen, bada, *Orixe* sua dariola jar zedin? Beraxek diosku: “Bizidunen motak aldakor zirala. Adan Yainkoak egiña zula, bañan ez bertatik bertara; beste bizidun batzuk egin zitukela aldeaurretik, eta aiek bizialdatuz sortuerazia zukela gure lenengo gurasoa”. Bosgarren kapitulu horretan, *Orixek* gauza gehiago ere kontatzen ditu Donibaneko hitzaldi haien inguruan. Ez daki zehatz han entzundakoak “zozokeri” ala “gaiztake-ri” diren, baina hona min gehien eman ziona: eliza “gaixoaren” alde atera behar zuketenek haren kontra hain nabarmenki jardutea, eta horrelako kontuak non-eta herri xumearen aurrean eta baita barnealdeko apaizen aurrean, zeintzuak, “gizarte tradizionalen lapak arroketa baino finkatuago [bait]zeuden” eta “ez entzun eta ez sinetsi nahirik bezala geratuko dira ideia teologiko berri horien mezua jasotzean”.

Paulo Iztuetak beste xehetasun asko lortu ditu Donibane-Lohizuneko jazokuneen gainean. Dirudienez, *Orixek* sekulako bihotzondokoa hartu zuen, eta lur jota geratu zen. Hamabost egunean dozena-erdi kilo argaldu zen.

Liburua, aipatu dugunez, *Euzko-Gogo*a aldizkarian argitaratu zuen atalka, Guatemalan. Aldizkari horretan bertan polemika ñimiño bat piztu zen gai berberaren gainean, *Orixe* eta Gotzon Urrutia apaiz nabarniztarraren eskutik. Bi-biok, baina, irizkide ziren eta ez zuten eboluzionismoa onartzen. Biblian datorrena hartu behar da hitzez hitz. Gotzon Urrutiari zuzendutako erantzun-artikulu bateko lerro batzuk berreskuratu nahi ditut, erabilitako argudioen nondik norakoa dasta dezazun:

Nik ez dut esaten sorkari kaxkarragoetan mota-aldatze ori gerta ez ditekunik eta -eintsu batean- gertatu ez danik; baiñan Adan'en gorputza tximu edo matxango batengandik etorri zitekela? Adan eta gu bakarrik ba'gina gizadi, nonbait or litzake oraino: ez lidake ainbeste eragingo; baiña lesukristo gure launa gizon danez olako guraso likits batengandik etorria izatea, itsuskeri zaida. Eta baterere zuzenago ez dana, giza-mota beti obe-aldatzen ari baldin ba'da, bi milla urte auetan bateretxo aldatua ditekue, obetua ditekue. Beraz, zu ta ni lesukristo gure launa baiño gizonaz gizonago ote gera? Ta emendik lau milla urtetara diraken gizonak areago? Nere buruan -obeki esan, biotzean- ez ditekue sartu olakorik.

Paulo Iztuetaren ustez, *Orixeren* pentsaera ulertzeko kontuan hartu behar da harentzat indar gehiago duela hemeretzi mendetan bildutako tradizioak azken orduko zientzia positiboek ekarritako argitasunak baino. Pentsamendu eskolastikoa guztiz errotuta zeukan, eta beraz, bere ikuspegi teologikoa eta biblikoa kultura fixistan oinarrituta zeuden, eta ezinezko gertatu zitzaion eboluzionismoa onartzea, ez eta sikiera kreazionismo ebolutiboa ere. Iztuetaren esanean, “mundu bat etengabeko bilakabidean ezin pentsatu zuen” *Orixek*.

Alde horretatik, deigarria da Piarres Lafittek *Herrian* 1961ean idatzi zuena, *Orixen* zendu zela-eta:

Baionan elgar ikusten ginuen, eta elgar aditzen.

Behin haatik hasarretu zitzaikun, eta hasarretu baino gehiago: etsaitu. Pentsa zertaz? Bergson-en “Evolution Créatrice” delakoaz: ez ginuen baterere berdin asmatzen harek eta nik filosofoaren erakaspena. Hasi zitzaitan oihuka ez nuela zentzurik aski Bergsonen ulertzeko, eta nik arrapostu harek ez zakiela frantsesik aski...

Hots, agurrik gabe gibelaz itzuli zitzaitan, eta malezia gaitza franko luzaz atxiki zautan, bizpahiru aldiz bere lumaz ausiki ere baininduen. Ez baitzen (beharrik) errabiatua, zauriek ez zautaten utzi gerokorik.

Hori irakurrita, pentsa daiteke eboluzioari buruzko eztabaidaren bat dela-eta haserretu zirela, sano haserretu eta luzarorako gainera. Bergsonismoa, antza, modernoegia suertatu zen *Orixeren* pentsamolderako. Dena dela, jabetu garenez, *Orixeren* kreazionismo fixista eta Lafitteren kreazionismo eboluzionista izango ziren, zelan edo halan aurrez aurre paratu ziren ikuspegiak.

OSOZKOA ETA ERDIZKOA

Badago artikulua bat *Jakin* aldizkarian atal bitan argitaratu zena, 1961ean eta 1964an, eta “Errupioño ania –*Karmeldarra*–” sinadura ilunarekin agertu zena, hainbat gako eskaini dizkiguna darwinismoaren sarbidearen inguruan. *Gizonaren jatorria ta eleiza* du izenburu, eta hein batean bertatik bertara, orduko girotik abiatuta azaltzen dizkigu darwinismoaren zirkun-zarkunak inguru hauetan. Errupioño ania kriptiko hori, jakin izan dudanez, Rufino

Ettxebarria fraide karmeldarra da; Lemoan jaioa da 1936an, eta Nikolas Ettxebarria Angoitia ditu benetako izen-deiturak.

Errupio anaiaren iritzi, muin-muinean dagoena da aldi berean “kato-liko ta jakintzazaleak” nahi izatea. Eboluzioaren ideia inguruan mutur bi aipatzen ditu. Batetik, Darwinen beraren “berez-berezko berezitzea”, eta beste muturrean Leonardiren “<jomugadun-zortze> (teleogenesis)” delakoa. Eta bion artean, “egunero dakusguz liburu barriak gizonaren jatorria luze ta zearo adierazo naian”. Kontua da “ain badaezpadako diran ainbeste iritzien aurrean noruntz jo jakiteko bide argi ta ziur bat” behar dela, eta horretarako jakin behar dela “Eliz Ama” dugula gidari. Gaian murgiltzen hasteko, oinarri-oinarriko kontzeptua definituko du:

Billakaera oraingo izaki bizidunak aurretiko asigai batetik asita maillarik-mailla beste zerbait izatera elduak dirala diñoenen uste edo iritziari deritxogu.

Oroz gain, nabarmentzekoa da eboluzioa uste edota iritzien kategorian kokatu digula. Segidan erantsiko du eboluzioa ulertzeko modu bi egon direla eta egon badaudela: “osozkoa ta erdizkoa”. Eta berehalakoan aipatuko du orduko eztabaidaren gunea, alegia, gizakiaren jatorria, artikulua izenburuak berak salatu bezala: ikuspegi biek onartzen dute gizakia “billakaeraz” gauzatu dela, baina “baña” batekin. Osozko eboluzioa begietaritzen dutenen iritzian, gizakia bai gorputzez eta bai gogoz garatu da eboluzio soillez. Ostera, erdizkako eboluzioaren defendatzaileek soilik dute gorputzaren eboluzioa onartzen; arima delakoa jainkoaren esku uzten dute. Errupio anaiak talde bakoitzeko aitzindarien izenak aipatzen ditu ondoren: Darwin, Huxley, Haeckel eta Bolk *osozkoen* artean, eta Teilhard de Chardin, Vallois, Leonardi eta Marozzi *erdizkoen* artean.

Errupio anaiak argi eta garbi diosku “erdizkako billakaera”ren alde jokatu duela, ez baitie “erlejiñoaren irakatsiai ezer ken[tzen]”, eta, izan ere, hori frogatzeko darabil *Jakin* aldizkariko artikulua. Bereziki interesgarria begitandu zait artikulua bigarren atala, 1964an argitaratu zena –tarte horretan *Jakin* aldizkaria debekatuta egon zen–. Bertan “elizak irakatsi ta erabakia” dakar lehen partean; ostean monogenismo (= giza bikote bakar bat jatorrian) eta poligenismo (= makina bat giza bikote) arteko eztabaida ere plazaratu eta erabakitzen du, zer esanik ez monogenismoa hobetsiz, “ezin [baitira] iñondik-iñora alkartu” poligenismoaren alde daudenen joerak eta Genesiak dioskuna: “Asierak Adam eta Eba bi gizaki izantzen ditu”, hots, bikote bakarra abiapuntuan.

Erromako elizak erabakitakoa bezainbatean, Errupio anaia karmeldarrek lau dokumentu aipatzen ditu, elizak eboluzionismoari buruz erakutsi duen jarrera ofiziala adierazten dutenak, eta horrenbestez, neurri batean lau mugarri direnak edozein periodizazio-asmorentzat.

Lehendabiziko dokumentua 1860koa da. Koloniako Kontzilio Probinzialaren arabera, Adan eta Eba jainkoak sortu ditu. Beraz, Kontzilio horrek ezetsi egin zuen gizonaren gorputza etengabeko eboluzio baten bidez gartua izan dela daukatenen iritzia. Baina, eboluzio-prozesu horretan jainkoaren nolabaiteko partaidetza egon dela onartuko balitz, ez litzateke gaitzetsia

izanen. Errupioño karmeldarrak dioenez, “batzar onek joten ebana orduko billakaera noragabeko ta gogo-ukatzaillea baiño etzan”.

“Arrezkero, orraitio, gogoa Jainkoak egiña, baiña gorputza berezko billakaeraz sortua dala egiesten eben batzuek be atzera jo bear izan eben”. Horrelaxe azaltzen duena Batzorde Biblikoaren Erantzuna da, 1909koa, alegia, bigarren dokumentua. Atzerakada bat ekarri zuen, beraz, bigarren dokumentu horrek. Egiazat hartu beharrekoak ziren Genesisiko kondairak: “gizonaren sortze berezia; emakumea gizonagandik sortua dala; gizadiaren batasuna” eta abar. Batzorde Biblikoaren 1909ko dokumentuaren ildotik, beraz, gizonak aparteko jatorria du, bai “gogoari dagokionez” eta bai gorputzari dagokionez ere.

Hirugarren dokumentua, Pio XII.ak Zientzi Akademia Pontifizioari 1941ean emandako hitzaldia da. Paulo Iztuetaren ustez, dokumentu hori ez da funtsean bigarrenetik urrundu, baina kategorikoki onartu zuen zientzia positiboek –Biologia, Paleontologia eta Morfologia, kasurako– badutela beraiei dagokien esparru propioa gizakiaren jatorriari buruzko ikerketan. Ikerketa hori, baina, dogmaren esanetara plegatu beharrekoa zen, eta dokumentuak zehaztuta ditu zeintzuk diren errespetatu behar diren puntuak: Adanek jainkozko jatorri berezia duela, gizakia arima izpiritual batez hornituta dagoela, gizakia jainkoaren antzera eta irudira eginda dagoela, eta, azkenik, gizakiak animaliekiko nagusitasun organiko nahiz izpirituala duela.

Pio XII.ak 1950ean argitaraturiko *Humani generis* entziklika da laugarren dokumentua. Aurrerapen nabarmena dakar Paulo Iztuetaren ustez, zeren, aita santuak, giza organismoaz hitz egiten duen honetan, natur zientziei dagozkien gaien artean kokatzen baitu arazoa, eta soilik zeharka kristau-egiei dagozkien artean. Ildo horretatik, giza zientzietako adituei antropogenesiaren alorra ere iker dezatela agintzen die, baina beti ere “sinismen-dogmak zaintzeko ardura” hartuz. Laugarren dokumentu honen azalpena amaitzeko, Errupioño anaiak aita santu polemiko horren berorren 1953ko beste hitzaldi bateko zehaztapenak damaizkigu, alegia, “jakintzabidez egia aztertzeke, ezautzeke ta sendotzeke ez dala esirik, ez adimena-rentzat, ez kristau-gogoarentzat. Esirik, bai, bada; baiña ez egia esipean jartzeko. Zertarako dira esioek? Balizko gauzak ba-diralakotzat ez artzeke”. Esan gabe doa, eboluzioarena balizko hipotesia da, ez ei dago-eta frogatuta.

2005eko talaiatik, baldar eta landugabe xamar ematen du Errupioño anaiaren artikulua lehen irakurtaldian, baina oso interesgarria da bere primitibotasunean. Azken pasarte bat ostuko diot, orduko euskal intelligentsiaren pentsaera zein izan zitekeen ondo ilustratuko digulakoan:

Gaur ez dirudi gizagorputza billakaeraz lortu edo sortua dala esatea debekatua dagoanik. Ez dakigu gorputzaren sortze berezi ori zelan aitu bear dan; eta Idazteuneko “lurreko buztinez” esaera horrek ez dau esan nai Jainkoak berak bitarteko barik egiña danik. Giza-gorputza tankeratu al izateko izadiko billaka-indar ori be Jainkoarena litzake, eta ori aitortu ezker, ezin esan giza-gorputza billakaeraz sortua dala esatea galazota dagoanik. Are gitxiago, baldin gogoa ta gorputza alkartzera-koan Jainkoak gorputzari bere eskualdixoren bat ipiñi eutsala esan badaigu.

Kontura gaitetzkeenez, fixismo biblikotik abiatuta Etxebarria karmeldar-
rrak “erdizkako billakaera” deitu duen horretaraino iritsi gara. Hemen,
gogoratu, krezionismo eboluzionista esan diogu ikuspegi *erdizko* horri,
izan ere, Piarres Lafittek ezinago argi adierazi digunez, jainkoa du ezinbes-
teko: “Jainkoa da jautsi, munduaren ager arazteko, biziaren phizteko, gizo-
naren jal-arazteko”.

Beharbada, baten batek pentsa dezake bakarrik eliza inguruko jende-
multzoari zegokiola hona ekarri dugun panoramika. Hala ere, giro akade-
mikoetako pertsonetan ere nabaria da pentsaera fixista; areago, pentsaera
antieboluzionista ere. Horren adibide harrigarriak Telesforo Arantzadi
(1860-1945) eta aita Jose Migel Barandiaran (1889-1991) antropologo
ospetsuak izan daitezke. Bi-biok antieboluzionistak dira, eta metodo histo-
rikoaren defendatzaileak, metodo hori eboluzioaren hipotesia baino *positi-
boagotzat* zeukaten-eta: haien ustez, datuen bilketa sistematikoa egin behar
da edozein jeneralizazioen aurretik. Ezin da
ahaztu, gainera, hasiera bateko europar Antro-
pologia-Elkarte gehienek eboluzionismo dar-
windarra gaitzetsi zutela nabarmenki, eta giro
horretan hazitakoak dira Arantzadi eta Baran-
dianan.

Esan duguna frogatu aldera, Barandiaranen
testu bat aldatuko dugu hona. 1932koa da, *Apun-
tes de Geología General y la del País Vasco* liburutik
aterea. Liburua Gasteizko apaizgaitegiko irakas-
lea izan zen sasoikoa da, eta, ez dago esan beha-
rrik, *nihil obstata* dauka. Izatez, *El mundo y los seres
vivientes* izeneko epigrafe adierazgarriaren azken atalari dagokio. Epigrafea,
Barandiaranen liburuko beste kapitulu batean lehenago azaldutako Laplace-
ren teoria aipatuz hasten da, eguzki-sistemaren agerpena aurkezteko; hari
horretatik tiratuz, geroago “un accidente, al parecer insólito” dakarkigu
Lurraren baldintza biziarentzako egokiak argitzeko; ostetik, biziaren sorre-
raz dihardu, eta generazio espontaneoaren hipotesia gutxien du, eta
“fenómeno vital consciente” delakoa –hau da, gizakiaren adimena– kausali-
tate fisikotik kanpo dagoela dio. Horien ondoren dator laugarren atal hau:

A partir de la era eozoica la vida se desarrolló en una maravillosa flora-
ción de plantas y de animales durante largo período de tiempo.

Los documentos paleontológicos atestiguan que muchos grupos
faunísticos que los naturalistas llaman especies, dotados de gran
variabilidad, han procedido unos de otros mediante lentas transfor-
maciones. Pero esta variabilidad de las especies no ha sido ilimitada.
Las transformaciones se han verificado dentro de ciertos límites, y
muchos grupos zoológicos han nacido, se han desarrollado y extingui-
do independientemente unos de otros, sin que hayan tenido relación
genética entre ellos ni puedan ser considerados como ramas deriva-
das de un tronco común. Existen, pues, grupos naturales independien-
tes que en el espacio y en el tiempo han conservado sus caracteres de
modo variable. El transformismo, pues, que no puede tener aplicación

Jose Migel Barandiaran Aier-
be (Ataun, 1889-1991) euskal
kulturaren patriarka dela
esan da. Antropologia eta
etnografiaren alorrak jorratu
zituen batez ere. 1914an
apaiztu zen Gasteizen.
Apaiztu aurretik Leipzig-en
ikasi zuen, Wundt irakaslea-



ren eskutik. Telesforo Aran-
tzadi eta Enrique Egurenekin
batera, hogeitaz aritu zen
ikerketa-taldea eratu zuen
1916an, eta hainbat induske-
ta arkeologiko egin zituzten.
Paris, Kolonia, Munich, Leip-
zig, Berlin, Holanda, Akis-
gran eta Tilburg-eko
museoak arakatu zituen
Arantzadiarekin batera.
Argazkia Luzernan eginda-
koa da –Suitzan–, eta Baran-
dianan erakusten digu hidro-
planora igotzen, Telesforo
Arantzadiarekin eta beronen
emazte eta alabarekin, lakua
eta Alpeak behatzeko.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

en este caso, es insostenible. Mas, dentro del grupo, las modificaciones han sido numerosas, y han dado lugar a múltiples variedades y especies sistemáticas que han pululado prodigiosamente en las edades geológicas. Todo conduce a pensar que un plan único, diversamente escenificado, ha presidido el desarrollo de la fase orgánica, en el que las especies han hecho su aparición, unas simultáneamente y otras en momentos sucesivos. El hombre ha sido el feliz coronamiento de esta obra grandiosa, como género aparte con rasgos que le separan hondamente de los demás grupos naturales.

Gezurra badirudi ere, pasarte horretako datu guzti-guztiak prozesu ebolutibo baten ondorio modura barik, Barandiaranen ulerkeran “plan bakar” baten gauzatze askotarikoak lirateke, eta era horretara espezie batzuk aldi berean agertuak (= kreatuak) dirateke, eta bestetarik ondoz ondoko uentan agertuak (izatez, badirudi kreazio berezietz ari dela). Halaber, ohartu zarenez, transformismoari eustezina deritzo ageri-agerian. Areago oraindik, arras kreazionista iruditu zait, inplizituki bada ere.

Aipagarria da, bestalde, Barandiaranen pasarte hori, kronologiaren aldetik, gorago aipatu dugun bigarren dokumentuak markaturiko elizaren arorik antieboluzionistenari dagokiola. Ziurrenez, planteamendu zientifikoek landara dokumentu horren ortodoxiak ere, nolabaiteko pisua edukiko zuen, une horretan Gasteizko apaizgaitegi nagusiko zuzendaria zen Barandiaranen pentsaeran.

Barandiaranen kasuak, nahi gabe Pio Barojaren *El cabo de las tormentas* (1932) eleberria ekarri dit akordura. Horko kontakizunetariko bat –*Silencio*– Beizamako krimenaren ingurukoa da, eta horri buruzko zenbait ikerketa egingo dituen Ugarte josulaguna aurkezten digu:

El padre Ugarte explicaba en el colegio de Loyola cosmología, geología, paleontología, y al mismo tiempo teología moral.

¿Cómo podía armonizar estas disciplinas científicas con su fe católica? Él solamente lo sabía.

Antzerako inpresioa sortzen dit, bada, Jose Migel Barandiaranen azalpenak. Ezin dut ulertu. Ematen du ihes egin nahi diola begien bistan duen erantzun logikoari. Ala, ez zuen beste erremediorik?

Piarres Lafitte bezala, Jose Migel Barandiaran 1978an ezagutu nuen Iruñean, VI. Udako Euskal Unibertsitatean. “Euskal etnologia” izeneko hitzaldia eman zigun zapatu hartan, uztailaren 22an; egun berean Leizarragaren inguruan mintzatu zen Lafitte. Zirraragarria egin zitzaidan ikustea batera bazkaltzen gure iragan hurbil eta ertaineko lekuko eta protagonista bi horiek, han, Larraonako jangela nasaian, nire ondoko mahaian. Barandiaran berriro egon zen 1979an. Oso gizon fededuna iruditu zitzaidan, baina, inolaz ere ez nuen pentsatuko eboluzionista ez zenik. Gerora jakin izan dut hori.

Nolanahi, urte batzuk lehenago Telesforo Arantzadi eta Barandiaran zenbait trikuharri ikustera joan ziren Urepelera 1926ko udan, eta horretarako euskal gaiekin interesaturiko hainbat lagun bildu ei zituzten. Horietariko bat izango ote zen Aldudeko medikua?

5. Ziliportarena

CAMILO LIZARDI ETA JOSEPH CONRAD

Jurgik gogorarazi dit Camilo Lizardirena. Aspaldian irakurri nuen *Obabakoak*, kasik aurreko beste errenkarnazio batean, eta, egia esateko, guztiz ahaztuta eduki dut pasarte.

Buruan neuzkan, bai, ipuinaren gorabehera batzuk, esaterako, basurde zuri bihurtutako umezurtzaren kontua, edo liburu-gabeziari hainbeste bider laguntzen dion bestialismoaren aipua ere, eta beste batzuk, eta, beharbada, hari nagusia bera ere gogoratzen nuen, baina, zeharo ahaztuta eduki dut Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren hasierako pasarte.

Datarik ez daraman arren, erretorearen gutuna mila bederatziehun eta hirukoa da; izanez ere, Obaba herrian hiru urte daroatzala adierazten du erretoreak sinadura aurretik erredaktaturiko agurrean. Nolanahi, honelaxe hasten da bigarren orrialdean osorik irakur daitekeen lehen pasarte:

Edoecin astronomia liburutan aurqui cezaqueagu, ene lagun maitea, vicitzaren gañean eguiña izan den metaphoric zucenenetacoa. Gure univertsoa –ciotec Laplaceren discipuluac– espacio infinitoan bacar bacarrik cebillen bola erraldoi baten leerquetarequin jaiocen. Arrezque-ro, ala izarrac nola planeta edo asteroideac, leen materia bera cirenac, urruntzen ari dira elcarrengandic, urruntzen ere, astapen pundu artatic. Eta gañera, gueroz aundiagoa da pusqueta bacoitzac bere iesean daraman abiadura. Monradec itzal-arrasto bat bezala icendatzen duen adiña bi bider ere pasata daucagunoc, melanconia tanta batez beguiratzen ciegu cientziac oi duen laconismoz escribitutaco lerro oriei. Ez bait dugu, atzecaldera erreparatzean, garai batean gurequin bat eguinda cegoen munduric icusten. Falta zaizquiguc, exempli gratia, beiñ, dandai jarri guñeneraco, aldamenean sentitu izan guenituen arnasac. Niri beintzat falta zaizquidac: orain amabost urte il citzaiaquean ama; duela bi nerequin vici cen arreba. Ba dituc oqueitamar urte anaia gaztea ultramarra joan cela. Eta i erorri, ene lagun maitea, urrun ago; ireganaco premia secula baño latzagoa den sasoi onetan, urrun ago.

Pasartearen grafia zaharrak ez digu ulertzeko inolako zailtasunik ekarri, eta, ostera, halako xarma batez jantzi du berez ederra den azalpena. Egiatan eder deritzot “cientziac oi duen laconismoz” horri, edota “beñ, dandai jarri guñeneraco, aldamenean sentitu izan guenituen arnasac”. Nolanahi, gutziz deigarria da elizgizon baten eskutik Laplace-ren hipotesia era hain natural-ean aurkitzea, kontuan hartuz elizarentzat heterodoxoa zela hipotesi hori. Azpimarratzekoa da, gainera, Laplace-ren hipotesia unibertsoaren sorrerari buruzko azalpenik gogobetekoena izan dela luzaroan, eta, horrela izanik, beraxekek ezarri duela zientzi komunitatearen ortodoxia.

Bestetik, pentsatu izan dut, pasartearen erdialdean dioskun “*Monradec* itzal-arrasto bat bezala icendatzen duen adiña” horretan, aspaldi baten gaztelaniaz irakurri nuen Joseph Conrad-en *The Shadow-liner*en aipamen bat dagoela, baina euskarazko liburuetan hain sarri topatzen ditugun errakuntza horietariko batekin: Conrad beharrean, Monrad. Hortaz, nahikoa irekia izango zen Camilo Lizardi apaiza, bai Laplace-ren hipotesia zein Joseph Conrad-en eleberriak irakurtzen zituena. Dena dela, ez naiz lasai gelditu, eta ziurtatu gura izan dut errakuntza tipografikoaren uste hori.


Horrelaxe ote da? Zelan egiaztatu ez dakidala, otu egin zait azkenean bide posible bat: erdarazko itzulpenetan begiratzeara. Eta zelako ustekabea harrapatu dudana. Lehenago eta behin, portugesezko itzulpena koiu dut apalategitik, horrela suertatu da; bilatu egin dut dagokion lerroa, eta hara!, Conrad barik Solino aurkitu dut. Zer dok, ba, hau?! Orduan, Atxagak berak itzulitako bertsiora jo dut, eta Solinorekin egin dut topo berriro ere; horrez gainera, konturatu egin naiz pasarte berean beste makina bat aldaketa txiki-rikandi agertu direla gaztelaniazkoan. Ingelesezkoa ere arakatu dut. Beroretan, jakina, Solinus ikusiko duzue.

Gaztelaniazkoan honelaxe irakurriko diozu Camilo Lizardiri: “Los que, como yo, hemos avanzado en la edad lo suficiente como para poder divisar ya la oscura frontera de la que nos habla Solino, quedamos abatidos al leer esa descripción que con tanta frialdad nos ofrece la ciencia.”

Nondik nora agertu da Solino delako hori, eta nor demontre da, ba?

Erantzuten ahalegindu naizenean, lan-hipotesi bat bururatu zait ia berehalakoan. Camilo Lizardiren ipuina erdaratzen ari zela, seguruenek Bernardok biak batera ikusiko zituen, bai Conrad deituran gertaturiko C-M oker hori, eta bai, jakina, aldean daraman anakronismoa. Izan ere, Obabako erretoreak 1903an nola erabil zezakeen Conrad-en irudi literario ezaguna, baldin-eta poloniarraren liburua urte-mordo geroago argitaratu bazen? Ez dago esan beharrik, Obabako erretoreak lehenagoko iturri bat behar zuen, gutunaren pasarte horretako haria ukitu barik mantentzekotan. Hortixek dator, oker ez banago, erdarazko bertsioetan Solino agertzea Joseph Conrad-en lekuan.

Hainbat entziklopedia bisitatu beharrean aurkitu naiz, Solino hori nor izan zitekeen susmatu ahal izateko. Dirudienez, baina adituak ez datoz bat, Caius Julius Solinus III. mendeko geografo eta idazle erromatarra izan zen, *Collectanea Rerum Memorabilium* apailatzeko, besteak beste Plinioren historia naturaletik edan zuena, eta gero zenbait hizkuntzatarata itzuli zutena, alemanerara (1600ean), italierara (1603an), eta frantsesera (1847an). Ba omen



Lurraren jatorria Laplace-ren hipotesiaren arabera, Jose Migel Barandiaranen *Apuntes de Geología general y la del País Vasco* liburua jaso bezala. Eratzunen eta azpiezartunen kondentsazio-fasea. Hipotesiaren arabera, eguzki-sistemako astroak eratu dituen substantzia, hasiera batean nebulosa eskerga itxuratzu zegoen, eta errotazio-mugimendua zeukan. Horrela izanik, kondentsazio-gune bat sortu zen, hau da, nukleo primitibo bat: eguzkia. Nebulosaren bolumenta txikitzeaz batera, errotazio-abiadura handituz joan zen, eta ondorioz indar zentrifugoak eratzunka paratu erazi zituen alde periferikoak. Eratzun horiek ere kondentsatu egin ziren geroago, nukleo primitiboaren inguruan biraka doazen masa globularak eratu. Lur planeta, eratzun horietariko batetik sortuko zen. Hurrengo urrats batean, prozesu berberaz baliatuz planetek sateliteak sortaraziko zituzten. Behin nebulosatik bereztuta, Lur planeta izar-fase batetik igaroko zen, zeinean astro argitsu baten modukoa izango baitzen denbora luzez: elementu guzti-guztiak egoera fluidoan egon ziren, harik eta planetaren azala hoztu zen arte beroa irradiatuz.

(ARG.: K. ALTONAGA).

dago gaztelaniatzko itzulpena, *De las cosas maravillosas del mundo*, Cristóbal de las Casas batek ondu zuena (Sevilla, 1573).

Solino hori izango ote da, ba, erdarazko Camilo Lizardik erabili zuen iturria? Eman dezagun baietz, eta ikus ditzagun horren ondorioak. Erdarazko itzulpenetako Camilo Lizardiren ipuinak Conrad-en aipamen estimagarria galdu du, nahiz eta irakurlearentzat oso atsegin suertatu horrelako erreferentzia literario distiranteak identifikatzea, jakina, baina bestalde, badirudi herri ziztrin bateko erretorearen formazio eskolastikoarekin hobeto egokituko litzatekeela aspaldiko idazle klasiko ilun-superilun bat, azken orduko nobelagilea baino. Obabako abadea ezer izatekotan erudittoa izango zen ziurrenez, ez modernoa. Hau da, nire ustez aldaketa horrek sinesgarriago bihurtu du erdarazko Camilo Lizardi.

Baina, gure mendearen seme-alabak ere bagarenez, *amaraunera* sartu naiz azken proba bat egitearren. Bilatzaileari “Solinus” harrapatzeko aginduta, segundo-hamarren batean ez dakit zenbat mila dokumentu topatu dituen interneteko okoiluetan, handik edo hemendik “Solinus” aipatzen dutenak. Eta beroriek banan bana arakatzean, bosgarren edo seigarren pantailakadan Solinus ilun hori Shakespeare-ren eskutik lotuta aurkitu dut.

Jakin izan dudanez, *The Comedy of Errors* da Shakespeare-ren antzezlanik laburrena. Bertan, beste gorabehera askoren artean, Efesoko Dukeak, Solinus deritzonak, atzeratu egingen du Egeon-en heriotza-zigorra, eta hortik eratorriko diren gertaerek bideratuko dute amaiera zoriontsua. Erdarazko Camilo Lizardik komedia horretatik jasoko al zuen behar zuen irudia? Ez dakit; baliteke. Dena dela, irakurlearen aldetik aipua, orduan, hurbilagoa izango zen Shakespeare-rekin Solino-rekin baino, eta Conrad/Shakespeare ordezipena ez zen horren gordina suertatuko.

Eman dezagun, azkenik, neurri batean zuzena dela orain arte planteatu duguna. Horrek zer-nolako aldaketak eskatuko lizkioke euskarazko Camilo Lizardiri? Pasarte zelan irakurtzea gustatuko litzazuke, Conrad-en leinuru literarioaz apainduta, ala, ostera, anakronismorik gabe eta Solinorekin homologatuta? Gurariak gorabehera, Monradekin egingo duzu topo 2005eko maiatzean plazaraturiko euskarazko hamabosgarren argitalpenean.


NOIZBAIT AIREZ AIRE JAURTIKI ZILIPORTA BAT

Aurreko errenkarnazio horretan ere oso deigarri iruditu zitzaidan begietaratu nuen beste pasarte bat. Irakurritakoan atoa azpimarratu nuen, eta atzera ere irakurri, ez zen goen-eta seguru ondo ulertu izanaz.

Beribilez neukan eskuartean. Une horretan Jean Etxepare eta bere lagunak Loiolara iritsi dira ia, aurreko kapitulu Tolosa, Bidania eta Erreziletik pasatu eta gero. Loiolako *komentua* bera deskribatzen hasi aurretik, inguru zirriborratuko dizu Etxeparek: “Aurkintze hau zinez xoragarria da. Beheiturik gordetzera doan iguzkiak urreztatzen du oraino zeru-xoko bat, garaitiko eremu guzia...”. Eta tanpez, bigarren pasartean Etxeparek “zienziac oi duen laconismoz” izkribatuko ditu ondoko lerro “sugotzle” hauek:

Bainan zonbat eta zonbat mendi-lerroek inguratzen duten jaustera goaz inbarra! Hainbertze eta halako lur-mokorrek lotsa bat sortzen dauzute barnean. Jakintsu hanitzek baitiote Lurra ez dela Iguzkiak noizbait airez aire aurdiki ziliporta bat baizik, hastapenean su zarionetik emeki-emeki azalez hoztua, daukat etzela iguzkiaren errai samurretarik arroltzearen idurirat osoki biribil eta leun jauzi pikorra, bainan ba ordukotz dena zimur eta konkor, guneka; gune hotan, azala gogortu zelarik behin, eta gero euriteekin zonbait menderen buruko gozatu, zela egin, hanitzek berantago ez dakigu nola Biziaz amatzeko, orai gabiltzan Gipuzkoako eskualde maitea.

Ez gara, ez, erdarazko Camilo Lizardi legez abailduta geratu “zientziak horrenbesteko hoztasunez eskaini digun azalpen hori irakurritakoan”, alde-arentziz baizik. Sakoneko poz batek epeldu dit barrua, ikusiz-eta Aldudeko medikuak “jakintsu hanitzek” esandakoa 1930ean argitaratu zuela euskaraz, lehenago *Gure Herria* aldizkarian, eta geroago *Beribilez* liburuan. Jakina, Etxepareren pasarteko azalpenak, Camilo Lizardiren pasarteko astronomiazko bost lerro horiek dioskuten gauza bera adierazten du mamiari dago-kionez, alegia, Laplace-ren dizipuluen irakaspenak. Edo, zehazki, gauza bera barik, segidakoa. Izan ere, Camilo Lizardik irakaspen haien lehen zatia laburbildu du, hots, unibertsoaren sorrera eta izarren sakabanaketa, eta, berriz, Etxeparek Laplace-ren teoria horren jarraipena aipatu du, hau da, izar horietariko batetik, eguzkitik, Lurra ziliporta edo zipriztin modura sortua dela, eta gerora bertan bizia agertu dela.



Kanbo Baionatik 20 kilometrorra dago, Larresoro ondoan. 2500 biztanle zeuzkan XX. mendearen lehen laurdenean, eta ordurako hartuta zuen luxuzko ospitalaren itxura, izan ere, Kanboko iturri termalen ospeak erakarrita hainbat gaixo eta bisitari famadun hurbildu ziren bertaraino, eta batzuk bertan plantatu, Edmond Rostand idazlea kasurako.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

Horrela begiratuta, pentsa genezake lerroek ez dutela ezer apartekorik, salbu-eta teknikitzat jo dezakegun gai baten ingurukoak direla, eta, badakigu, horrelakoak oso-oso nekez aurkitzen dira euskal letretan. Baina, dirudienez, lerro gutxi horietan ostenduta, lehen begiratuan ikus daitekeena baino nahikotxo gehiago adierazi zigun Jean Etxeparek, edo, behintzat, horrelaxe ulertu zuen Piarres Lafitte kalonjeak, eta bai gaitzetsi ere, Lafittek birritan argitaratu zituen-eta pasarte horren nolabaiteko “erantzunak”.

Piarres Lafittek ondotxo-edo ezagutu zuen Jean Etxepare, berau Kanbon bizi izan zen urte laburretan, eta Piarres Lafittek jakin bazekien “haren artikuluetan hitz-erdika edo laurdenka usna zitezkeela haren azpi-gogoetak”. Horrenbestez Piarres Lafitte guztiz jabetuta dago, pasarte horrekin Aldudeko medikuak ezari-ezarian sakoneko karga bat utzi duela, non-eta Loiolako sarreran justu. Izan ere, seguru egon Piarres Lafittek bazekiela Laplace-k zer ihardetsi zion Napoleon enperadoreari, beronek haren *Zeruko mekanika* gainetik begiratzean, liburuan zehar ez zuela jainkoaren inolako aipamenik egin esan zionean. Laplace-k “Sire, ez dut ukan hipotesi horren beharrik” erantzun ei zuen. Lafittek bazekien Etxeparek sinestean lanak zituela, baina, antza denez, ezin du onartu horren sinesgogor ager dadila, alegia, Laplace-k bezala jainkoaren beharrik ez edukitzea.

Piarres Lafitteren lehen erantzuna 1932. urtekoa da. Izatez, *Beribitez* liburua agertu zelarik, *Gure Herria* aldizkarian “Notre maître: M. Le Dr. Etchepare” artikulua paratu zuen, hainbat eta hainbat laudorio plazaratuz, tartean *Beribitez* “une oeuvre éternelle” dela, eta bai Etxepare medikua zela euskal idazle gazteen maisua, idazten. Horiez gainera, Lafittek liburuaren laburpena egin zuen, sei bat orrialdekoa, hasieran bertan argi eta garbi adieraziz, *Beribitez* itxuraz bidai liburu gisara agertu arren, mila eta bat gogoetarako aitzakia dela. Eta laburpen horretan honelaxe erantzun zion Etxepareri:

En tout cas, au cours de ses méditations géologiques sur les montagnes tourmentées qui encadrent le paysage, notre contemplatif ne sait à qui attribuer l'origine de la Vie sur la terre.

Kontura gaitezen. Batetik, “jakintsu hanitzek” diotena, hain zuzen ere Laplace-k eta bere dizipuluek, Lafitteren erantzunean Etxepareren “gogoea geologiko” bihurtu zaigu huts-hutsean. Bestalde, Etxepareren pasartean “nola” izan dena (= ez dakigu *nola* Biziaz amatzeko), Lafittek “nork” bilakatu du (= ne sait à *qui* attribuer l'origine de la Vie), ura bere pentzeraino bideratuz, noski. Hirugarrenik, bat-batean pasartearen egilea ez da ganorazko mediku bat idazten gure maisua dena, kontenplari zuztarbako bat baino (= “notre contemplatif”). Lafitteri kasu eginez, ez dago esan beharrik, pasarte horrek diletante baten bazkalosteko digresio merkearen balioa luke.

Dirudienez, handik laburrera, eskutiz bat bidali zion Jean Etxeparek Lafitteri, eta beronek era honetara azaldu digu pasadizoa: “1932ko ekainaren 28an gutun labur batean eskerrak zauzkitan, bere bizian nehork ez zio-la hainbertzetarainoko laudoriorik egin; xuxen ikusi nuela haren liburuxka zaku handikoa zela eta ondoko egunetan enekin mintzatzeko gutizia zuela. Jakin-arazi nion asteazken arratsaldetan bortz orenak arte Uztaritzeko Semenariorat etortzen ahalko zitzaitala. Orduz geroz harekin solastatzeko ohorea ukan dut hiru urtez, zortzitik ez bazen, hamabortzetik”. Eta Lafittek berak dioskunez, “behin edo bertez mintzatu gira harekin gauza hoitaz, nahiz ardurenean auzi horiek ixilik zauzkan”. Lafitteren berba horiek ondo ulertzeko, ohar biografiko txiki bat tartekatuko dugu hemen. Bai, Jean Etxepare medikua luzaroan ikusi dugu Alduderi itsatsita, baina, 1930eko udan Kanbora aldatu ziren senar-emazteak, uztailean hasieran. Bertan bere koinatu Alexandre Kamino medikuarekin hasi zen lanean; Alexandre Kamino (1897-1972) ordukotz herriko zinegotzi eta kantonamenduko kontseilari jeneral sartua zen, eta auzapeza izango zen 1951-65 tartean, geroago diputatu-kargua ere bilduko zuelarik. Aldudeko gure medikua, dirudienez, 1928an osasunez txarto ibili izan zen, eta 1929ko udaberrian “bihotzeko gaitz gaizto batek jo zuen, eta behartu ondoko urtean Aldudeko lana eta egoitza uztera”. Donibane-Garazirako bidean zegoen Kanbon hartu zuten etxebizitza, gerora Electricité de France-k baliatuko zuena. Nolanahi, Piarres Lafittek eskutitzean aipatu 1932 urte hori baino lehenago, alegia, 1930ean, bai Etxepare eta bai Lafitte, biok, *Gure Herria* aldizkariko batzordeko kide izendatuak izan ziren, medikua idazkari nagusi eta apaiza idazkari lagun, eta txitean-pitean batzen ziren bihilabetekaria osotzeko.

Dena dela, eskutitzari berririo helduz, ez dakigu astean behingo elkarizketa horietan zer argituko zuten elkarren artean: “harekin guhaur, askotan mintzatu gira, bai haurren altxatzeaz, bai jakitate hutsaren hedaduraz, bai Alemaniako filosofo goibeltsuez, bai girixtino garbiaren alegrantziaz; onez-onean mintzatu gira, gizonez-gizon, gibleko bortarik gabe: aitor dut ez ginela beti ados, frangotan bakotxa gure hartan ginaudela kantitu gabe; baina erran behar dut maiz eta ardura hitz bereko gertatzen ginela, bedera bide eginik ere”. Nolanahi, Lafittek azkenean artegira itzuli den ardi galdua bailitzen irudikatu du beti Etxepare: “Uste dut bere azken hilabetetan bakea jarri zitzaiola bihotzean eta gogoia ere argitu”. Esaldi horrekin Lafittek zer adierazi nahi zuen zehatz-mehatz, Etxeparek amore eman zuela bai fede-kontuetan (hots, “bakea bihotzean”) eta bai zientzia-kontuetan ere (“gogoia argitu”)? Nire ustez horrelaxe uler daiteke zuzen-zuzenean, eta bestelako testu batzuetan ere igartzen da Lafitteren Etxepare zuritzeko ahalgina, hots, garbi uztekoa. Izan ere, Lafittek bazekien Laplace bera ere konfesatu omen zela ohean hilurrenik, Napoleon enperadorearen aurrean egin aldarri agnostiko ospetsua gorabehera.

Edozelan ere, badirudi Lafittek ez zituela “auzi horiek” guztiz ebatzi Uztaritzeko apaizgaitegiko elkarrizketetan, artean Jean Etxepare bizi zelarik. Ematen du Etxepare zendu eta gero ere, bien arteko eztabaidak luzaro iraun zuela Lafitteren gogoan, eta noiz-eta 1952.ean Lafittek bigarren erantzun hau luzatu zion *Beribilezko* pasarteari, “Apez eskualdun batek behar luken kulturaz” hitzaldia aitzakia hartuta:

Girichtinoa, egiazkoa den ber, eta ez alegiazkoa, kultura baten jabe da. Zer nahi chehetasunetan sartu gabe frogatu ditakena da.

Sinetsi behar dituen egiek ez diote gogoia tapatzen, ez hertsitzen, baina hazten: adimendua harmatzen diote filosofia zabal bati buruz, erakusten diotelarik nundik sortua den mundua, nork derabilan, zertarako den gizona bizirat deitua, eta zer ontasun baliosa den berekin daukan bethiereko arima... Erakaspen horiek ez dakarkete ez itsumendurik, ez etsimendurik: girichtinoaren arabera, zeru-lurrak adimenduari idekiak daude, adimendu batek eginak direnaz geroz, eta beraz jakintsunek ez dute zeren duda beren iker-lanetan; –hala-hala, bizia ez zaio biharamunik gabeko ziliporta ez deus bat, baina Jainko on baten gerizapean baliatu behar duen arte saindu bat. Zoin urrun giren gogo ilhun eta kechu batzuen elhe beltzetarik!

Uste dut bigarren erantzuna ezin idorragoa dela, eta ezin ederragoa aldi berean. Batetik, argi dagoenez, Lafitte apaiza da, eta Lafitteren argudioaren oinarria “sinetsi” aditza da: “sinesmenak ez du gogoia tapatzen, ez hertsitzen, baina hazten [...] eta beraz jakintsunek ez dute zeren duda”. Horrainokoa gogoeta orokor baten itxurarekin etorri zaigu, eta ados edo, ziurrenez, desados egon bagaitezke ere, osteko azken hiru lerroek ez dute ezer galtzekorik, eta Etxepare dute bizi-bizirik begien aurrean.

Harekin mintzo da. Bizia ez da biharamunik gabeko ziliporta ezdeus bat. Bizia ez da zipriztin ziztrin bat. Horixe diosku Lafittek itxaropentsu giristinoaren ikuspegitik, baina izatez Etxepareren ziliportari ihardetsi dio.

Ahor, ba, bien arteko eztabaida pil-pilean, herioak Aldudeko medikua 15 bat urte lehenago eroan zuen arren.

Badago, bestalde, oso triste begitandu zaidan esaldi bat, azkenekoa: “Zoin urrun giren gogo ilhun eta kechu batzuen elhe beltzetarik!”. Mota biko tristura dakarkit hori irakurtzeak. Lehenengo eta behin, nire kolkorako ezabatu egiten du Etxepare eta Lafitteren arteko hurbilketaren sinesgarritasuna, ez du ematen bien arteko adostasunik lortu zutenik, areago, badi-rudi beste testu batzuetan Etxepare garbi uzteko Lafittek egindako ahaleginak paperezkoak izan direla benetakoak bainoago, eta Etxeparek gogoa ilun eta elea beltz iraurarazi dituela beti. Hau da, Lafitte kontraesanean ikusten dugu bere buruarekin, eta hemen darabilen esateko modu gordin eta bortitz horrek, besteetan erdi gezurretan ez ote den ibili pentsarazi dit. Esateko modu garratz horrek, nolabait, ez al du erakusten ardi galdua azkenean artegira eroatea lortu ez izanaren etsipena eta amorrua? Jakina, giristino-jendearentzat nolako etsenplu bihotz-altxagarria zitekeen Etxepareren amaierako konbertsioa, artzain onarenganainoko itzulera, baina, gertatu egin al zen egiatan? “Ardi galdua: artegia utzita, nora oa? Jesus ire artzain ori baino onagorik, biotz andi ta samurragodunik, nun arkitzeko? Nun egiazko Elizan bezelako bazka gozo, janari osasungarririk? Artzain onak bere gorputza janaritzat eman digu, edaritzat bere odola. Zeruko intza ta euria ta eguzkiaren garra lurrean gari biurtzen dituenak, gari ori gure barruan geron gorputz aldatzen duen berberak, Jesusek, aldareko ostia mee, zuri, garbi ori beraren gorputz itzultzea nai izan du, gure arima erorkor onen janari indargarri izan dakigun. Eta au noiz? Kurutze santuan josita ardi galduen onerako bere bizia eman ta gero. O ardi gaixo, o ardi errukarri bezain maitagarri, deslai, sasirik sasi, galduta abilen ardi argigabe ori! Adi ta entzun zak gaur ire jabearen deya. Nork daki azken-deya, o, bai, azken-deya ez ote dan!”.

Dena dela, aipatu dugun esaldiak badu bidezkoa den bigarren irakurketa bat ere. Jakina, posible dugu, Etxepare momentuz ahaztu eta Lafitteren jarrera hori zabaldu, eta, oro har, zientziari aplikatzea. Zer orduan? Ba, berehalakoan, Lafittek berak diosku “zoin urrun” aurkitzen den zientziaren planteamendutik, eta, areago oraindik, erabat gaitzesten ditu zientzialarien “gogo ilhun” eta “elhe beltza”. Arbuio hori nekez esan liteke era kategorikoagoan.

Idatzizko hirugarren erantzun bat askozaz geroagokoa ekar genezake hona, beharbada aurreko biak bezain esplizitua ez bada ere. Oraingo honetan, Piarres Lafittek “Mende huntako Euskaldun idazleen pentsa-bideak” aztertu ditu jakintza-alorrez alor, *Gure Herria* aldizkarian 1974. urtean argitaratutako artikulu bikoitzean. Idazlan horren lehen zatian, Jean Etxepareri pasarte trinkoa eskaini zion filosofoen sailean, eta, “fedegirixtinoa kordokatu zitziola Larresoroko ikastegian, filosofia ikastea” azaldu eta gero, azken aldera, dagoeneko aipatu dugun Etxepareren artegiratzearena aurkitu ahal duzu beste behin ere. Baina, oraingo honetan, Etxepareren gazte-denborako bekatuak sakonago lurperatzeko, eta hein batean orduko bere ideia okerrak are eta arbuigarriago begietaratzeko, beste filosofo ezezagun batez baliatuko da maltzurki, Etxepareren ondo-ondotxoan kokatuta:

Bertze euskaldun batek Haeckel-en aburuak on-harturik, españolez hedatu zituen. Iñazio Gamboa zuen izena eta Mexikon bizi zen. Bainan 1906-ra gabe ohartu zen lenako jauntxoa sasi-jakintzan ari izana zela, eta zintzoki gibelerat egin zuen bere lehenbiziko erakaspenak behaurek gezurtatuz.

Ikusi duzu: Haeckel-enak ez dira hipotesiak, “aburuak” baino; Haeckel ez da bere sasoiko zientzialaririk handienetarikoa, “Ienako jauntxoa sasi-jakintzan ari izana” baino. Kontura gaitzkeenez, edozerk balio du, baldin-eta Ongiaren zerbitzurako bada. Egia esateko, hori baino jendetasun handiagoa espero genezakeen Lafitterengandik, baina, tira. Entziklopediarik entziklopedia jakin izan dugu, bai, Ignacio Gamboa biblia irakurriz itzuli zela katolizismoaren baitara, eta geroztik Haeckel-en eboluzionismoarekin borrokatu zuela, hain zuzen ordura arte sutsuki defendatu zuen berbera. Jakin izan dugu, baita, feminismoaren kontrako agertu zela (*La mujer moderna*, 1906), baina, dirudienez, ez zen horretaz inoiz damutu. Zernahi gisaz, Lafittek ez diosku ezer horren gainean.

Kontuak kontu, horrek guztiorrek tristatuta utzi nau, goibel, zeren-eta gure Piarres Lafitteren begitarte irritsuan itzal ospela hedatzen baitu. Pako Sudupek idatzi duenez, zenbaitzuen ustetan Lafittek mesede baino kalte gehiago egin dio euskaltasunari, fede giristinoa eta euskaltasuna sobera uztartuz eta estekatuz. Horren frogatzat, besteak beste, oso adibide ezaguna gogorarazi digu Sudupek: Lafittek Jon Miranderi ezarri zion betoa, euskaltzain izateko ohorea ebatsiz. Gertaera hori dela-eta, ez daukat ahazteko *Igela, euskaldun heterodoxoen errebitaren* erantzun sutsua, non, behazuna baino mingotsago perla bi irakurri nituen, besteak beste. “Gure Buruxkak” deritzon erantzunari hasiera emanez, idazkiak “Hemen datza Jon-Chahomirande. Ezer ez zen, ez euskaltzain ere...” destainazko lerrook zekartzan, eta urentzeko, guztiz grafikoa den amaiera hau:

Uztaritzeko lurretan
Suge batek ausiki du
Apeh bat... Zer da gerthatu?
Sugea hil dela bertan.

Berehala, labur bada ere hemen aipatu beharko genuke, aita Joanes Xabaño gaztainen misionista ere gogorki aritu zela Jon Miranderen kontra, Parisko *Euzko Deya* aldizkariaren orrietatik olerki erotikoak euskaraz emateko askatasuna aipatu zuenean, 1953 urte inguruan. Alegia, inoiz Txomin Peillen idazle zuberotarrak idatzi duenez, “apezak euskal literaturaren nagusi eta zentsuratzaile ziren garaian”.

Oraingo honetan gure aldetik beste itzal bat marraztu dugu Lafitteren aurpegieran, izan ere, bere fede giristino handiak ez baitzion utzi zientziak argitutako zokoak ikusten eta onartzen. Ni neu harritu egin naiz konturatuta norainoko itxikeria erakutsi digun Piarres Lafittek, Etxepare medikuaren “positibokeriaren” aurrean.

Nolanahi, apaiz lapurtarra bere osotasunean ulertzen ahalegintzeko, ezinbestekoa da Pako Sudupek bildu dituen Lafitteren kazetari-lan hauta-

tuak irakurtzea. Era berean, Gould-en *Ciencia versus religión, un falso conflicto* liburuan argi ikusiko dituzu zientzia eta erlijioaren arteko hartu-eman gatazkatsuen arrazoiak.

BERIBILEZ: ZAKU BARNE HANDIKOA

Beribilez 1931ean plazaratu zen liburu gisara, Baionako Lasserre argitaletxean. Izatez, bidaia bat kontatzen digu, baina, joan-etorri horren inguruan Jean Etxeparek bestelako kontu asko eta asko txirikordatu zituen. Zalantzarik ez, egileak kolkoa bete-beterik zeukan, gainezka, eta ibilaldi horren kontakizuna erabili zuen, han-hemenka makina bat gogoeta sakabanatzeko, eta era horretara arnasa eta bizitza damaizkie zeharkatutako paisaiei eta oinkatutako txokoei.

Joan-etorria egun betekoa izan zen, eta denetara, Etxepareren arabera, 357 km-koa. Kanbo izan zen bai abiapuntua eta bai amaiera, baina xede nagusia Loiola. Ibilbidea gehiago zehatzuz, Kanbotik Donibane-Garazirat buruz, eta handik Iruñara joan ziren; gero Loiolarentz, eta bertatik Zumaiaraino eta kostaldetik, Donostia eta Donibane-Lohizune, atzera ere Kanbora iristeko gauz oso berandu. “Agorriaren lehen asteazken-goiz batez abiatu ginen beraz Kanbotik zazpi lagun –hiru gizon eta lau andre bi beribil atherbedunetan– arratsean berean gibelerat sartzeko xedearekin, Loyolako ikusgarri omen-handikoez begiak betherik.”

Aitzinsolasean Etxeparek oso ondo islatzen du liburua-
ren aldartea:

Broussain mediku eskualzale karsuak maite baitzituen bihotzez eskualdun probintziak, laket zitzakan hango eremuetan barna zombait egunen artetan iragaitea. Oinez zabilan ardura, asti osoa hartuz, abiatzean gogoari eman gabetarik norat hel ez noizko, –nun nahi baratua herritarrekin solasean, edo bazterrari so. Eta nolako begi erneak etzituen, beharriak zoin zabal etzatchikizkan eskuarazko hizkuntza edozoini! Bere biziko gozorik hoberenak eskual-herriari berari kendurik hil izana da. Orhoitgarrienak Donostiatik Bilbaorainoko itsas-hegiak, Lekeitio bide erdi, utzi zaizkola zion.

Haren ahaleko eskualzale guti orai, gutartean. Astia nun ginuke bertzalde? Urthe idorrek erori zaizkigu bizkarrerat: egiteko hanitz, irabaziak chuhur, gogoa lanak atsegetua.

Noizean behin baizik ez gitezke herritik athera, mendiez bertzaldeko joan-jin batentzat; orduan ere beribilez, tarrapataka, burrumban, begi beharriak gelditzen zaizkularik zoro eta buru-barnea eltzagortua. Ikusi ala adituez zer derasakegu geroztik ahoz edo lumaz, mami hazkurritsu zerbait dakarkenik? Gauzen itchuraz, achalaz baizik ez gitazke mintza, izaituz nolako diren ezin dukegulakotz gure lasterkan zilatu.

Irakurlea gogorkiegi jazarriko etzaitalakoan, ausartuko niz halere, berriki auzoan eginikako itzuliño batez zombait lerroren hemen ezartzera.



Beribilez liburua zaku barne handikoa da Jean Etxepareren ustez: mila eta bat gogoeta tartekatzen ditu autoz egindako egun beteko joan-etorri baten kontakizunetan. Kanbotik abiatuta, bidaztiek Loiola dute helburu, atzera ere Kanbora itzultzeko. Ondoko mapa *Beribilez* liburua-
ren lehen edizioak zekarren, eta argiro erakusten dizkigu ibilbidea eta liburua-
aipatutako leku-
neak.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

Besteak beste, neuk elkarregaz lotuta doazen hiru kontu nabarmenduko nituzke aitzinsolas horretatik. Hasteko, begi-bistakoa da dozena-erdi urte lehenago hil zen Buruzain euskaltzale hazpandarraren eragina, eta, izan ere, badirudi Etxeparek haren ildoari jarraikiz osotu nahi duela ibilaldia, begiak erne, belarriak zabal, eskual-herriari gozozik hoberenak kenduz. Hala ere, argi diosku, Etxeparearentzat ez da egokiera aproposa, urte idorrek erori baitzaizkio bizkarrerat eta lanak beti artegatuta dauka gogoia, bizitzeko beste ezin irabaziz. Hori dela-eta, tarrapatata eta ia asti barik egindako joan-etorri horien gainean, “zer derasakegu geroztik ahoz edo lumaz, mami hazkurritsu zerbait dakarkenik?”. Hau da, kexu da zeren gauzak egiteko modu arin horrek ez baitio ganoraz sakontzeko aukerarik utzi, eta, izatez, irakurleari barkamena-edo eskatzen dio azal-azalean gelditu beharko baitu; irakurlearen akieszentzia nahi du hasiera-hasieratik.

Dena dela, *Beribilez* liburuaren “arintasun” hori erlatibizatu beharrekoa da hein batean. Aitzinsolasean esandakoak gorabehera, Piarres Lafitteri “Pollita da ba eta *sakona* (erran nahi baita zaku barne handikoa)” esan zion eskutitzez. Ustezko “arintasun” horren ideia etorri dator, itxura batean, 1910. urtean argitaraturiko *Buruxkak* gaztaroko liburuarekin konparatetik. Horrelaxe ondoriozta daiteke behintzat, Xarritonek plazaratu dituen Etxeparek Lafitteri bidali eskutitz batzuen irakurketan oinarrituta. Horietariko eskutitz bi dira bereziki argigarri. Kronologikoki paratuko ditugu hemen, eta osorik, Etxepare eta Lafitteren arteko eztabaidaren nolakoa ageri-agerian uzten baitute. Lehenengoan ondokoa irakur dezakegu:

Docteur J. Etxepare
Cambo-Les Bains (B.P.)
Téléphone 51

12.X.31.

Jaun apeza,
Igorri dauzut egun gogotik *Beribilez* liburuñoa, baitakit gogo onez duzula irakurtuko.

Antzez nausi da *Buruchker*. Eskuara berdinagoa du, mami gehiagorekilakoa, bai eta eztiagoa du bere argia. Hitz gordinak ez ditut metatu *Beribilez*-ean, hango kapitulu batean egiaren amodio biziagiz behartu zitzaian bezala. Ez dut ere uste athera zaitan bihirik, aldi huntan. Hor-tarik bederen etzait samurtuko nehor, gizon zuzenik samur baditake gordinkeria batzuek, gauzen araberako direnean.

Buruxkak badaude halere, lumaz egin izan dutan lanik goresgarriena. Liburu hortako orrialde batzuek badute, beren garbitasun, zain, argi eta su bereziaren gainera, bururako usain on bat, ezin galduzkoa. Oi! ahalik banu, bertze halako batzuen idazteko! Zahartu bainiz, ordean, eta lorez gabetu bethierekotz!..

Orduko nere ideez bezenbatean halaber, nizan adinean ere liburu hartan ez dut aurkitzen bat, higuindu zaitanik.

Adierazi dautazun arren etzirela irudipen bereko, berdin zure lagun on gelditzen niz eskuararen alde.

Dr J. Etxepare

Ezin argiago ikus daiteke egileak berak antzez *Beribilez* hobesten duela, esan nahi baita, janzeraren aldetik gailendu egiten zaiola *Buruxkaki*. Aldu-



Etxepare mediku heldua eta alboan Piarres Lafitte gaztea. Argazkia egin zen garaian –ziurrenez 1930eko hamarkadaren hasieran– Etxepare edadetu hori kon-turaturata zegoen bakar-bakarrik egin zuela bere ibilbide literarioa, ez duela bere belaunaldiko inor erakarri. Gazte bat hurbildu zaio soilik, hain zuzen ere Piarres Lafitte irakurle fin eta bipila, baina oso desberdinak dira gizon biak, nola diren ifrentzua eta aurkia txanponean. Medikua bizi duen bakar-dade intelektual latzean pozik dago lagun bat edukitzeaz; barnea irekitzen dio, baina mesfidati, urrunegi joan gabe.

(ARG.: BIDEGILEAK).

deko medikuak asko landu du alde hori, areago, ez du beste behin *Buruxkak* aferu bizi nahi, eta leundu egin du ahalik eta gehien latz suerta zitekeen edozer. Hala ere, Etxepareren kolkorako *Buruxkak* hobea da; badu, beste berezitasun batzuen artean, “bururako usain on bat, ezin galduzkoa”, *Beribilezek* ez bide duena. Eta bide batez, kontura gaitezen zein garbiro diotson Lafitteri, *Buruxkak* liburuan idatzitakoaz ez dela arean damutu, joan diren urteak joan direla ere.

Bide batez ere, ohar gaitezen lerro horiek gorago aipatu dugun ardi galduaren artegiratzearen kontra mintzo direla, bigarren gutuneko beste lerro batzuk mintzatuko zaizkigun bezalaxe. Halaber, gogoratu Piarres Lafitte hain justu kontrakoan tematu zela, eta, *Buruxkak* berrargitaratu zuenean, liburua “bi kapitulu dohakabeez eta hitz bakar batez arindu” zuela, oso begirune eskasa erakutsiz Etxepare aspaldian zenduaren gogoari.

Xarritonek argitaratu du Etxepare medikuak Piarres Lafitteri bidalitako eskutitz-sorta, galdu ez diren eskutitzak behintzat. Esan bezala, horien artean badago bigarren bat hona ekarri gura duguna, aurrekoaren osagarria den bezainbatean:

Kamotik 1931ko urriaren 27an

Jaun apeza,

Zure letrari behar ditut ihardetsi bederen bi hitz, den gutieneko langarrik ez dadin zure eta ene artean geldi.

Esker mila ene liburuñoaz igorri dauzkidazun laudorioez. Berdinkiago lantua balin bada, eztiagoa *Buruchkak* baino, hizkuntzaz aberatsago ere ba, etzait bizkitartean iduritzen nihauri hobea dela. Eskas du gaztetasuneko sua; ez haatik, uste zinuken bezala, egiaren alderako amodio bizia, nahiz ez dutan lehen bezain bizi agertzen achalerat, ohartua bainiz ez duela hanbat balio agertzeak.

Gertatu zait ba ene demboran, nahiz bakan, erlijioneko sinesteer sista batzuen emaita. Aithor dut ahulezia bat izan dela ene aldetik. Erakuts ezadazu ordean gizon bat, bat bakarra, zuhau barne, berak ez bezalako sinesteer sistarik eman ez duenik. Gaur den egunean urriki dut halere ozarki bihurtu izanik batzutan, ahoz ala lumaz. Ichiltasuna hanitzez ederrago da; eta ichiltasuna bera baino, sinesteen araberalat zuhurtzian biritzea.

Elizaren chedeez mintzatu zaizkit. Onhartzen dut haurren orotaz argitzea lukela, eta aztaren chederratzeta. Bainan ikusiak ditut eta haztatuak, nor-nahik bezain ontsa, gibelondoak, eta sekula baino azkarkiago daukat, erlijioneko erakaspen berezi batzuez kanpo, argitzale hedadurakoagoak eta chederratzale chuchenago, apainagoak litazkela apez ez serora ez litazken katoliko batzu –famiadiun aitama katoliko batzu, ahalaz,– apezak berak eta serorak berak baino.

Ageri zait zuk eta nik gauza horiek eta bertze asko ez ditugula ikusten begi beraz. Ez da makurrik halere. Goazin bakotcha gure sailari, egin dezakeguna egin fede onez.

Dr J. Etxepare

Buruxkak liburuaren hobespenaz gainera, bigarren gutun honetan, mingaina bridatuta edukitzearen onura mahai-gaineratu du Etxeparek. Ez dut esango autozentsuraren gorazarrea egin digunik, baina, bizi izandako

makurraldiek ondotoxo irakatsi diote ez duela merezi egiak argiegi azalera-
tzea, baizik-eta hainbat hobeto dagoela lerro artean ostenduta barreiatzea.
Isiltasuna ederra da, diosku, bai, baina ez zuhurtzian bizitzea beste.


Hala ere, publikoari begira zuhurrago jokatzen duela dioen arren, esku-
titz honetan berriro endredatzen da, suhar, *Buruxkak* liburuan argitaratu
zuen “Nor eskola-emaile; zer irakats” artikuluaen ideien defentsan. Hain
zuzen ere, ez dakigu Piarres Lafittek aurreko letran zer idatzi dion, baina
aiseki bururatuko zaigu Etxepareren erantzuna irakurritakoan. Eta, era
berean, erraza da asmatzea, besteak beste zeren gainean eztabaidatuko zuten
Uztaritzeko apaizgaitegian, asteazken batean bai eta hurrengoan ere bai.

Etxepareren iritziz *Buruxkak* hobea izan arren, *Beribilez* liburuak kritika
gogotsuak jaso zituen bere sasoiari, nahiz eta kopuruari dagokionez oso
gutxi izan, eta gehienak Etxepare hil eta gero agertu. Edozelan ere, ezin
dugu ahaztu orduko euskal literatur sarea oso eskasa zela. Gorago aipatu
dugu dagoeneko, Lafittek *Beribilez* “oeuvre éternelle” dela esanez agurtu
zuen haren argitarapena, eta horrez gainera erantsi zuen, idazle guztiek ere-
duak bilatuko zituztela liburu horretan. Areago, Etxepare maisutat jo zuen,
eta *Beribilez* euskaltzaleek beti aipatuko zuten obratzat. Hiru urte geroago,
1935ean, Jules Moulier *Oxobi* “*Beribilez*: idatzi bat, gorphutz eta jauntzi,
arras ona” idatzi zuen *Gure Herrian*, Etxepareren heriotzaren karietara.
Halaber, aipagarria da Jean Elizalde *Zerbitzariren* 1955eko iruzkina: “ira-
kurtzen dut urthean bizpahiruetan *Beribilez*. Bertzerik egin ez balu ere Jean
Etxepare mirikuak, etzuen ebatsiko egungo gorespina. Segur!”. Alabaina,
Jon Casenavek adierazi bezala, gehienek –Lafitte ez bada– Aldudeko medi-
kuak egin gogo zuenaren orde, beste zerbait irakurri zuten, alegia, Euskal
Herriaren gaindi autoz burutu itzuli goxo bat, besterik ez.

Horiek horrela ere, Jean Etxepare guztiz ezezaguna izan da (eta da, ziu-
rrenez) hegoaldeko euskal herrietan, eta Bidasoaz harantz, iparraldekoetan,
ez zuen arrakasta handirik lortu idazle gisa: badakizuen, lehenago, *Burux-
kak* bahitu behar izan zuen, eta geroago, kritika onak gorabehera, *Beribilez*
ez zen batere ondo saldu. Piarres Lafitteri ondokoa adierazi zion eskutitz
batean: “Lasserren etcheke mutchurdinak aldiz, etzaundan halako begitar-
terik egin: garajatik ez omen da hanbat igitu *Beribilez*. Irri egin nuen gogo-
tik, baitakit aspaldian eskualzaleen bihotzeko eta –erran behar dut ere-
sakelako berri.” Gutuneko lerro horien azken aldean ikusten denez, ordura-
ko Etxeparek, ozarki esateko, “zurituta” zeukan ipurdia.

ZILIPORTAREN KEZKA: THE ENTIRE COSMIC PROBLEM

“Ziliportaren kezka” aspaldi-aspaldikoa da, ia betidanikoa, Etxepareren
bizitzan, *Beribilez* liburuko pasarte 1931. urtekoa den arren. Ziliportaren
kezka horrek, jakina, munduaren sorburua daroa bere baitan, eta era bitara
gauzatu ahal da, galdera erantzungaitz biren itxura hartuz, alegia, zelan, eta
nork. Zer esanik ez, “zelan sortu da mundua” galdetzean zientziaren bara-
tzean gaude erdi-erdian, baina, itaunak “nork” dionean beste transzenden-
zia bat lortzen du, eta erlijioaren esparruan kokatzen da.



Jules Moulier *Oxobi* alegia-
ria (Bidarra, 1888; Hiriburua,
1958). Larresorotik pasatu
eta gero, Nay-n apaiztu zen
1912an, eta Hiriburura bidali
zuten. Hiriart-Urrutiren
kolaboratzailea izan zen
Eskualdunan. *Gure Herria*
aldizkariaren sorreran hartu
zuen parte, 1921ean, eta bere
ardurapean gelditu zen
bulego-lana. Donostiriko
erretore egin zuten 1928an,
eta Arrangoitzekoa 1941ean.
Euskaltzain osoa izan zen
(1951-58), Jean Saint-Pierre
Anxuberrok utzitako aulkian.
Oxobiren idazlanen artekoak
dira: *Bihotz-oihu*, *deiadar*,
nigar poesiak (1914), *Alegiak*
bertsotan idatzitakoak
(1926), *Heiatik zerura* (1935),
Haur-elhe haurrentzat eta
Aintzina (1944), eta *Oxalde*
(1949).

(ARG.: HERRIA, 1969, 1009 ZBK.
ETA AZKUE BIBLIOTEKA).

Etxepare eremu bi horien artean ibili zen erantzun baten bila, baina, itxura osoz erantzun “positibo” bat aurkitu nahian. Lafitteri bidalitako eskutitzetariko batean irakur daitekeenez, “Guhau barne, bethi egiten eta desegiten ari den Izaite bat ikusten dut nik, bertzerik deus ez. Hogoi-ta-hamazazpi urthe badu bermatzen nizala, eskualde guzietarik, nahiz jakin Izaite hori zer den bere baitan. Eta lehenbiziko egunean bezain zozo niz.” Eskutitza 1931ekoa denez, ken 37 urte, kontu horrek, Xarritonek dioskunez, 1893-94 ikasturtera arte garamatza, hain zuzen ere, Jean Etxeparek Arnaud Abadia irakaslearekin filosofia ikasi zuen urtera; alegia, Etxeparek hamazazpi urte zituen garaira.

Zer irakatsi ote zion Abadiak, edota Abadiak nola azaltzen zuen, horren iraunkor eta sakon iltzatuta gera zedin Etxepareren gogoan? Itaun horri ihardesteko, zorionez Etxepareren beraren argibide bat daukagu, filosofia-irakaslea 1916an hil zenean gerlako lehen lerrotik *Eskualduna* astekarira bidali zuena. Besteak beste, honelaxe diosku:

Gaztetasunerat heltzearekin ukan dut *Abadie*-ren erakustun bezala aditzeko zoriona. Filosofia zerakasan. Hari dakogu zor, Euskal-Herrian zerbait giren gehienek, gure adimenduko indarrik hoberena: zoin bidez dabilan xuxen jakitea; makur doala zertarik gitazken ohart, sendo gireno; zer den gure arima; mendetik mendera jakintsunek nolako jaidurak daizkoten hauteman; zerk duen egiten ongia, ederra zerk, zerk egia; nundik datorren gizona, mende eta toki guzietako jakintsunen arabera, eta norat doan; azkenik, lur hunen gainean bizi diren gizaldea nola bizi izan diren orai artio, baktixa bereaz ala beren artean.

Jakitate guzietan ederrena, zuhurtziaren jakitate hori, zuhurtziaren amodioa duelakotz ere bihotzean pizten. Damurik ez ginezaken, urte batez leinuru bat baizik har; osoki hezteko bospasei urte ez litazkellarik sobera, guziz gaztean!

Zernahi den, ez ginuen erakustunaz erranguratzekorik: haren buru gaitza, haren aho ederra, haren antzearen hedadura! Erran arau hartzen ginazkon solasak lumaz. Euskal-Herriko liburutegi gehienen xokoan irakur baititazke segur oraino.

Erran behar dugu bizkitartean erakaspén horrek bere erroa, bere finka, erligionezko sinestean zuela. Etzitaken bertzela apez baten ganik. Sinestean diogu, bai eta geronez guhauk daukagun ezagutzan. Gauzer behatzen ote zen aski, gaude. Uste dugu ere, aitzinekoen erakaspénak bigarren eskutik zauzkan, ardura: ez, onez onean agertuak izan ziren liburu ber beretarik.

Nekez eman daiteke irakasleren baten goraipamen konplituagorik: zoriona, Etxeparek Abadia aditzeko zoriona ukan zuen gaztetasunerat heltzearekin batera. Abadiak, batetik, jakitate guztietan ederrena irakatsi zien, bai, baina bestalde, irakasten berebizikoa zen, hoberena-edo: haren buru gaitza, haren aho ederra, haren antzearen hedadura! Urtebetez esne mamitan bizi izan zen Etxepare gaztearen gogoan, eta, dioskunez, gizakiaren sorrera ere aztertu zuten, besteak beste, baina ez du ziliportarena agerian aipatu, tartean dagoela uler badezakegu ere. Zoritzarrez, urtebeteko leinu-



Arnaud Abadia jaun kalonjea (Bithiriña, 1843; Beloke, 1916). Baionan apaiztu 1868an eta irakasle bidali zuten, lehenago Larresorora, eta geroago, 1871ean, Baionako Seminario Handira. Larresoroko zuzendari izendatu zuten 1880an. Bere hegapean eduki zituen Manex Hiriart-Urruti, Blas Adema, eta Jean Barbier irakasle lagunak, eta haren ikasle izan ziren, esaterako, Jean Etxepare, Jean Saint-Pierre *Anxuberro*, Jules Moulier *Oxobi*, Laurent Apeztegi eta Jean Elizalde *Zerbitzari*. Hauek guztiok “Larresoroko eskola” deritzen idazle-taldea osotzen dute. Arnaud Abadiak urte luzez astero idatzi zuen *Eskualduna* astekarian, eta berea zuen *Laborier* sailaren ardura.

(ARG.: GURE HERRIA, 1928).

rua izan zen soilik, eta Etxeparek laburregi iritzi zion ikasturte horri, haren ustez bospasei urte beharko zirelarik, gai mamitsu horiek osoki azaltzeko. Hala ere, eta beharbada joandako urteek opetsitako perspektibatik, badaki kritikoa izaten, eta itzal garrantzitsu bi aipatu dizkigu filosofia-irakaslearen alde txarrean. Lehenengo eta behin, Abadiaren irakaspenen funtsa eta oinarria erlijio-sinestean zeutzan, “etzitaken bertzela apez baten ganik”. Konturra gaitezten, behin eta berriro egin dugu topo ideia horrekin Etxepareren pentsakeran haren bizitzako edozein unetan, *Buruxkak* liburuan hasi eta Lafitteri igorritako eskutizetaraino. Bigarren kritikan, jatorrizko testuetan oinarrituriko irakaspenak barik bigarren eskukoak ematen zituela salatu du Etxeparek, esan nahi baita, Abadiak ez zituela klasikoak irakurri. Kritikak kritika, haren eskolek bideratu zuten, eta zizelkatu, Etxepare gaztearen adimendua, gauzak endelegatzeko manera.


Ziliportaren kezka hor dago beti Etxepareren gogoan, baina kezkaen abiapuntua Etxeparek berak modu desberdinetara zehaztu du bizitzako une desberdinetan, beharbada, oroitzapena urteekin batera lausotuz joan delako, edota, hasieran hainbat lagunek eragin ziotelako gaztaro urrun hartan.

Esate baterako, 1925ean hegoaldeko *Lecaroz* aldizkarian argitaraturiko artikulu batean, Larresoroko seminarioko Arnaud Abadia, Jean-Blaise Adema eta Manex Hiriart-Urruti irakasleen erretratuak egin zituen, eta bai hiruron erkaketak alde askotatik begiratuta. Dena dela, artikulu horretan ziliportaren kezka ez da zuzenean Arnaud Abadiarekin lotuta agertzen, Ademarekin baino, hots, *Edestia* eta *Ludiztia* irakasten ezagutu zuen apaizarekin, bai, Adema *Zaldubi* ezagunaren iloba zenarekin. Beste kontu interesgarri asko bazter utzita, artikulu horretan ikusi zer-nolako kritika zuzendu zion geografia-irakasleari, Ademari hain zuzen:

Erroraino joaiteko, bere eginbidetik apur bat baztertuz behar zaukuken erakatsi zertarik, noiz, nundik den ateraia bizi giren lur hau; nola duen mendetik mendera bildua orai duen itxura, azal eta mami; halaber, zonbat aldakuntza eta nekeen ondotik den gizona oraiako heinerat heldua, badagolarik ororen buruan sekula bezain herbail.

Zola zolaraino ikertuz, haste hastetik erakutsi zaukuken iguzkiaren zati berezi erdi hoztu batek gituela hazten, ez oro izari berean; iguzkiaren berogiak demagula bizia, ez orori pindar berez; iguzkia bera ere bere iduriko ludi oraino sutan edo ja iraungi diren askorekin hartu-eman bezalala, nahiz ez dakigun zer legez, -lege-egile baten asma sortu orduko beren baitan dakartelarik bizkitartean gizon gehienek...

Pasarte irakurritakoan, badirudi Ademari kargu hartzen datorkiola, ez zielako filosofoari aurre egiteko datu zientifikorik irakatsi, babesgabe utzi zituelako, hau da, datu positiboan laguntzarik eskaini ez zielako espekulazio hutsetik harantz, Abadiaren elasturiari langa jartzeko. Eta, jakina, *ludiaren* egitura eta harat-honatak azaldu zizkien irakasleak, Etxepareren iritzi, bes-telako azalpenak ere zor zizkien, bere eginbidetik apur bat baztertuz izan arren. Etxepareri amorrua ematen dio Larresoron bertan ez ikasi izana, Haeckel-eta irakurritz gerora ezagutuko zituenak. Gainerakoan guztiz eza-gun begitanduko zaizkigu dagoeneko, 1925eko lerro horiek.



Jean-Blaise Adema (Senpere, 1861; Baiona, 1936) Larresoroko irakaslea -1884-1906-, Adema *Zaldubiren* iloba zen. 1884an apaiztu zen. Sara -1906-1910- eta Uztaritzeko -1910-1918- erretorea izan eta gero, Baionako katedraleko kalonje izendatu zuten 1918an, osaba bezala. Berrogei bat urtez astero argitaratu zuen artikulu bat *Eskualduna* aldizkarian Frantziako politikaz; Manex Hiriart-Urruti ordeztu zuen zuzendaritzan, harik eta Jean Saint-Pierre *Anxuberroren* taldeak ardura hori hartu zuen arte, 1925ean. Artikulu eder-ederra dedikatu zion Etxeparek Adema irakasleari: “begirik zorrotzenez azken tileteraino irakurtzen baitzuen arrats guziez gure idatzlana bere gela xokoan, eta xeheki orraztatzen”.

(ARG.: HERRIA, 1969, 1009 ZBK.)

Dena dela, ziliportaren kezka beharbada lehen aipamena izan daitekeena, 1910ekoa da, eta *Buruxkak* liburuko *Egiaren biru itxurak* kapitulu zoragarrian atzeman dugu. Esan, 1910ekoa dela esan dugu, baina izan, berez 1904koa da, zeren, Jon Casenaveren arabera, kapitulu hori artikulua gisa argitaratu zen *Eskualdun ona* aldizkarian, 1904ko abenduaren 30ean. Honelaxe dio:

Zer da gure adimendua, hartaz baigaude guziz hantuk? Gauza guti. Badakiguia deus orenen buruan? Badae erotik ezagutzen dugun zerik? Hoinbertze menderen ondotik, belhar ostu bat bakarra ez du egin ahal ukan oraino gizonak, ez eta ere zilatu bera nundik heldu den, norat doan, zer den zeru gain hortan, noradino doatzin horko eremuak, nola gauden zenbeit urtez bizirik gero itzaltzeko, heriotzeak ea hiltzen giteuzen osoki, ala bertze norapeit bertze itxura batekin apaindurik alharat eremaiten? Lur huntako itzulikez berez, ez daudea gure argiak bethi heintsu bat, hitzak baizik edo izenak ez direlarik aldatzen?

Pasarte guztiz filosofikoa dela begitanduko zaizu, guri bezala, baina lerro artean ostenduta, “larbatuta” esango dut, ziliporta dago zalantzarik gabe. Nolanahi, iruzkin bi ekarri nahi ditut oraingo honetan.

Batetik, *Buruxkak* liburuko kapitulu horretan, agorrileko egun eguzkitua mendian igaro eta gero aldats behera datozen lagun biren gogoetak irakurriko dituzu. Piarres Xarriton maisu amultsuari behin baino gehiagotan entzun diot esaten, horko mendi hori Urtsua dela, alegia, Hazparne eta Lekorne artekoa, eta lagunak Buruzain eta Etxepare medikuak direla, eta Etxeparek testu horretan, azken batean, Buruzainen pentsaera jaso duela huts-hutsean. Hau da, hori horrela balitz, Abadiak gainera Buruzain medikua ere balegoke Etxeparearen kezken abiapuntuan, eta, egia esateko, hori ez litzateke batere harrigarria izango.

Hala ere, pasarte abstraktuegia da nire gusturako, filosofikuegia esaten ausartuko naiz. Ez diot Haeckel baten eraginaren inolako zorrotasunik igartzen, eta horrek galdera bat dakarkit burura atoan: Etxeparek noiz eta non irakurri zituen Haeckel-en idazlanak? Izan ere, Abadiak 1893-94 ikasturtean sortu zion kezka maila filosofikoan, eta hortik aurrera 1901era arte Bordelen ibili zen medikuntza ikasten, baina, itxuraz behintzat, lehen aldiz 1904an argitaratu zen *Egiaren biru itxurak* horretan ez dago Haeckel-en zantzurik. Bordelen barik Jean Etxeparek Euskal Herrian bertan irakurriko ote zuen “Jenako tximinoen irakaslea”ren obra? Neuk horrelaxe uste dut, eta horrek, noski, larriago bihurtuko zukeen Etxeparearen bekatua, zeren-eta, orduko pentsaeraren arabera euskaldunak herritik urrun okertu eta usteltzen baitziren mundu zabaleko indar galgarriek harrapatuta, eta ez sorterrian.

Etxepareri buruz berba egitean beti aipatzen da Haeckel-en eragina. Aipatzen ez den izena Henri Bergson filosofo frantsesarena da, kasu horretan ezaguna izan arren Etxeparek noiz eta non irakurri zuen. Izan ere, ezaguna da Georges Lacombe euskaltzainari bidalitako hainbat eskutitzetan eskerrak ematen dizkiola hark eskuratu dizkion Bergson-en liburuak direla-eta, eta bai ere haiei buruzko zenbait iritzi. Lacombe oso Bergson-zalea izan



Henri Bergson (1859-1941) filosofo frantsesa, jatorriz judua, oso eragin handikoa izan zen XX. mendearen lehen erdian. Haurtzaroko lehen urteak Londresen igaro eta gero Frantzia kokatu zen, eta humanitateak ikasita lizeo-irakasle sartu zen. Inolako gorabeherarik gabeko bizimodu lasaia eduki omen zuen, haren bizitzako mugarri aipagarrienak bere idazlan nagusien argitarapenak izan zirelarik: *Essai sur les données immédiates de la conscience* (1889), *Matière et Mémoire* (1896), *L'évolution créatrice* (1907) eta *Moralaren eta erlijioaren bi iturriak* (1932).

(ARG.: WIKIPEDIA).

omen zen, eta, antza, Etxepare ere zaletu nahi izan zuen. Besteak beste, *L'évolution créatrice* bidali zion Aldudera, eta Etxeparek 1920. urte inguruan irakurri zuen. Neuk aspaldi batean ahaztu nituen, batxilergoko filosofian entzun nituenak liburu horretako *élan vital* ospetsuari buruz –*biziaren oldarra*, Lafitteren era ederrean esateko–, eta horrenbestez, ez dakit Bergson-en ideiek norainoko oihartzuna utziko zuten Etxepareren idazkietan, ez bainaiz berori atzemateko gai.

Irakurri dudanez, Bergson-en *L'évolution créatrice* (1907) oso liburu eraginkorra izan zen, eta darwinismoaren oldarrari iharduki nahi zion ikuspegi finalista batetik abiatuta. Ildo horretan, *élan vital* deritzon Bergson-en indar metafisikoak bideratuko zuen eboluzio-prozesua, eta ez zorizko hautespen naturalak. Zer esanik ez, horrelako azalpenek ez dute laguntza handirik ematen eboluzioa ulertzeko, eta, Huxley-k inoiz adierazi bezala, eboluzioa *élan vital* bati egozteak ez du deus argitzen biziaren historia, edo gehienez, lokomotora baten jarduera *élan locomotif* bati egozteak bezainbeste.

Ez dakit norainoko eragina jasoko zuen Etxeparek Bergson-engandik, baina, oso txikia izan zela aurreratuko dut lan-hipotesi modura. Uste horretakoa izateko, Etxeparek Lacomberi 1912an igorritako eskutitz batean ikusi dudana Etxepareren mekanizismo nabarmenean oinarritu naiz. Honelaxe dio:to:

...m'a rappelé l'histologie du corps humain, pour laquelle j'eus autrefois un goût prononcé, pensant bien à tort, hélas! qu'elle me donnerait la clef des rapports du physique et du psychique.

Nekeza suertatzen zait pentsatzea, bitalismoaren aurrean oso iragazkorrak izango zenik, horrelako jarrera materialista argia bizi izan duen gizakia. Zeren, 1928an literaturazko Nobel saria irabazi zuen Bergson-en idaztan-kera distirantea gorabehera, haren filosofia bitalista, positibismo zientifikoa eta materialistarekiko oldarkorra ez bide zen irensgarria Etxeparerentzat.

Inoiz edo behin “arima” aipatzen du Etxeparek. Adibidez, 1929ko *Urdaila* honetan:

Urdailek edo herak horri behereko aldetik, eskuineko kantoinetik, badatxiko hertze meharra. Arima salbu, xerriaren gorputzean bezala dira zer horiek, gizonaren baitan.

Ez dut uste inongo bitalismoaren seinale dagoenik pasarteko arima horretan. Nik neuk zuhurtziak gomendaturik tartekatutuen hitzak direla egingo nuke, berriro ere orduko ortodoxiarekin topo ez egitearren, eta, bide batez, jakinaren gainean dauden zenbait irakurlerentzako konplizitatezko keinutzat uler daitezke ere. Hau da, Etxepareren joko bat egon daiteke hor, Pio Barojaren beste honetan dagoen gisa berean:

El hombre, en general, es lo mismo que la mujer. Del orden de los primates; es decir, un milímetro por encima del mono, cuando no está un centímetro por debajo del cerdo.

Edozelan ere, laburregi iruditu zait Etxeparek lurraren eta biziaren sorrerari buruz utzi digun testigantza: pasarteren bat edo beste han-hemenka, tartean hamarkada osoak joan direlarik. Badakigu orduko irakurleriarentzat larregizkoa suertatuko zela ziliportaren hipotesiaren inguruko artikulua luze-sakon bat, baina ostekook bihotzez eskertuko geniokeen. Bihotz-bihotzetik.

JAKITATEAN EZ DA BARNEGI SARTU BEHAR?

Egiak, beraz, hiru itxura ditu Buruzainen aburuz, eta dirudienez Etxepare gogaide zeukan puntu horretan. Aurreko atalean egiaren itxura bat aztertu dugu, hain zuzen ere ziliportaren kezkarren gainean Jean Etxeparek berak han-hemenka zirriborratuta utzi diguna. Baina, kontrapuntu gisa aldatuko dugu hona Piarres Lafitteren bertsioa, zein Etxepare gaztearen fedea durduzatzaren ikusiko baitugu, gerora bizitza osorako kili-kolo geldituz azken orduko “konbertsiora” arte, lehenago adierazi dugunez.



Larresoroko Seminarioko irakasleak 1875 irian. Argazkiok nortzuk diren Daranatzek azaldu zuen “L'Église de Bayonne” (1924) liburuan: hor dago irakasleen zerrenda 49-52 orrialde-tartean. Baina, arazo galanta dugu zein den bakoitza argitzen. Piarres Xarritonek hiru ematen ditu segurutzat, alegia, Simon Durruti –erdiko lerroan, laugarrena ezkerretik hasita– eta J. P. Diharce –jesarrita, seigarrena ezkerretik hasita–, biok bere familiakoak baitziren, eta bai Souberbielle superiora ere –jesarrita, laugarrena ezkerretik hasita–. Seguruenaz Augustin Larralde irakasle gaztea ere talde horretan dago, baina ezin izan dugu identifikatu.

(ARG.: P. ANDIAZABAL).

Beraz atseginekin sartu zen berriz ere Larresohon 1893ko urrian, filoso-fiaren ikasteko.

Bizkitartean eskola-urthe berriak bizi guzikotz behar zion arima zaurtu. Otso gazte baten gosearekin auskian lotu zitzaion filosofiari: ilhunbe guziak argituren zituelako lillurarekin. Xoko batzu ba frango polliki argitu zionkan, hala nola zer gisaz gauzak heltzen zaizkun gogorat, bakhar zombait xuxen-xuxena sentsuek bildurik, bertzeak lekukoak erranik. Ere mu handiak aldiz orain goibel gelditzen zaizkon, bereziki erlisioneko irakaspenak: mixterio horiek xilatu nahiko zituen, adimenduaren gozagarri, eta ezin! Orduan burutik iragan zitzaion gau batez, behar bada haren fedea buru-berokeriaz bertze deus ez zela: menturaz aitetametarik has eta eskola-emailetaraino (haur-demborako errient batek salbu), denek hantu ziotela gogoa sineste huts bezain alferrez; onez-onean segurki, bainan halere... Irudipen etsigarri horrek durduzatua, ez zakien norat itzul. Alde batetik othoitza maite, erlisione maite, heieri uko ez egin nahi, ez ahal zirelakoan oro amets; eta bertzalde arima-zolan halako ilhun ixil bat, bethi zirikan ari zitzaiona: “ez haurkeriarik, Joanes, othoitze eginez hihaurk enganatzen duk heure burua!”. Gaixo muthikoa. Ama Birjinari hel-ka ari zen ixtant bat eta berriz ere dudak ahoa hesten zion.

Asaldu hoi ondotik filosofo gazteak bakea, loa eta jana galdurik ere, ez da harritzeko: herratua bezala zen, egunetik egunerat hitsago eta mehatsago. Lagun eta eskola-emaile gehienak ez zitzaizkon hanbat ohartu: ohartu zirenek ere lanaren gain emaiten bide zuten haren akhidura; bainan Larralde jaun aphezak (bihotz kartsu baten begia bezalakorik ez baita), laster asmatu zuen bazela nunbait bertze zerbait...

Buruz-buru hartu zuen bada, arrangurak erran zitzen: muthikoak kondatu zion bere ezinbertzea, eta eskolemaile onak arthamendatu zion ez kasurik egiteko holako tentamendueri: saindu handienek ere bazituztela; bertzalde liburueri sobera emana zela, jakitatean ez zela barnegi sartu behar; hobe zuela Eliza Ama sailduari bi begiak hetsirik jarraitzea, nahi bazuen segurik bere lehenagoko bake gozo hura berriz bildu. Gutiz gehieneri aski zaizkoten aholku edo kontseilu horiek, ez zioten Etchepare beratzari bihotza sumindu baizik: “Zer! aphezak berak jakitatearen beldur dira bada? Argi galdez doakotenari *begiak hetsik* eta kito?”. Larralde adixkideari ez zion hitzik erran holakorik, bainan bereak golkoan urrundu zitzaion asko denborarentzat.

Egungo egunean duda batzuk setiatzen duten girixtinoari, ez diogu erraiten itsu dadin: galdegiten diogu poxolu duen koropiloa ager diezagun, ahalaz desegiteko; ez badu ager dezakenik deus, ez badu itxurapenik ere halako edo hulako egia baten kontra, ez dakiok argirik eman; iduripen huts edo sentimendu hutsetik heldu den duda, ihes eginez baizik ez ditake suntsi, edo sentimenduak zerbait gisaz berrituz. Erraiten daukutenean: “Jauna, zure arrazoinak biziki ontsa emanak zaizkit, ez diote nere adimenduak fitsik ihardesten ahal, bainan zer nahuzu, nihaurk ere ez dakitalarik zertako barneak ez dauzkit onhartzen”, –ez dut uste adimenduari laido egiten diogun, “kasurik ez emaiteko” ihardokitzen dugularik. Larralde aphezari ez bide zitzaion iduritu sentimenduaz bertzerik bazitakela hunkiturik bere adixkide gaztea baithan.

Etcheparek lanean ereman zuen halere bere Larresohoko ondar urthea pilotari ere begiratzen ziolarik bere atxikimendua. Baxelier iragan zen, eta etxerat joaiteko ponduan Larralde bere azken kontseiluak eman ziozkan luzeki, Jesu-Kristoren imitazioa bertzalde, eta adiorik hunkigarrienak izan zituzten.

1894ko hazaroan Bordalerat joan zen mirikuntzaren ikhasterat: bainan mirikuntza ez zitzaion aski: orotarati nahi zuen hedatu, gogobihotzak aberastu beharrez, denetarik (jasta bederen) baitezpadako zitzaiola; Alemaniako zeretarat bereziki ekharria zen: Haeckel eta Nietzsche bezalako batzuen liburu khiretseri lotu zen, bero-beroa –ez baitzuen beharragorik!

Anartean, noizetik noizerat hitz bat igortzen zion Larralde aphezari; *Conférence de Saint-Vincent-de-Paul* delakoan sarturik, bazabilan behardunen laguntzerat, girixtino gisa; othoitzari jarraitzen zitzaion; bainan, emeki-emeki, zer nahi bihotzminen artetik, etsimendua gogoan, fedearen haria ari zitzaion mehatzen eta mehatzen, azkenean osoki pikatua zela iduritzeraingoan. Ordutik Larraldekilako haria ere pikatu zuen berak, salbu *Jesu-Kristoren imitazioa* ezin utziko liburu baten pare begiratzen eta irakurtzen zuela. Ordutik sortu zitzaion denek ezagutzen ginion barneko ilhundura hits eta ezitia.

Piarres Lafittek eskaini digun kontakizunean, konturatu zarenez, huts-hutsean fede-arazo bihurtu da, Etxepareren bertsioan nagusiki arazo intelektuala izan dena, hain zuzen ziliportaren kezka izendatu duguna. Jakina, gauzak ikusteko modu asko daude, eta egiak hiru itxura omen ditu. Etxeparek berak ere hiru itxura dauzka: gehienetan eskutizetan eta artikuluetako sinaduran Jean da, umetako oroitzapen batean aitak Juancito diotso Lekornen, eta, oraingo honetan, Lafitteren testuan, dirudienez bere kolkorako ari

dela, Joanes esan dio bere buruari, beste inoiz bezala. Guk geuk, euskaraz zelan esan beharko genioke Aldudeko medikuari, Jean ala Joanes?

Lafittek fede-arazo bihurtu du kontu osoa, baina era horretara, ez da ondoegi egokitzen Etxepareren gomutarekin, aurreko atalean ikusi dugunez. Dena esateko, aipatu egin behar da, arestian jarri dugun umetako oroitzen berean, *Buruxkak* liburuan, Etxeparek ondokoa argitu digula, “Ba, itzegile jarriko nintzan handitu ta. Itzegile edo apez, hau ere ofizio goxo baitzitzautan”. Aitorpen hori irakurrita, ez dakit, egia esateko, esaldia ironiaz blai ote dagoen, eta baliteke horrelaxe izatea, ala ostera, inoiz batean Juancito horrek apaizgorako jaugina sentituko zuen.

Dena dela, Piarres Lafittek eskaini digun kronika horretan, beharbada, deigarrien suertatu zaidana, Etxepareri berari suertatu zitzaion legez, fedekrisia gaintzeko aholkatu zioten erremedioa izan da: “jakitatean ez zela barnegi sartu behar” alegia. “Liburueri sobera emana zela” diosku Lafittek, eta, badakigunez, horixe da burua zoratzeko biderik errazenetariko bat. Konturatu zarenez, Etxepare haluzinatuta-edo geratu zen, deabruaren tentaldia garaitzeko aholkatu ziotena sinetsi ezinik. Ez da harritzekoa, Lafitte bera ere lotsaren lotsaz gorrituta sumatu dugu “egungo egunean” esaten hasi denean, eta “girixtinoari, ez diogu erraiten itsu dadin” erantsi duenean.

Bestalde, Lafitteren lerrootan badago afera horretan garrantzi handia, eta ezezaguna ere neurri batean, ukan zuen beste pertsonaia bat, Larralde jaun apaiza. Larralde hori Larresoroko ekonomoa izan zen, besteak beste, eta irakurri ditugun pasarte hauen aurretik hain zuzen, Lafittek honelaxe marraztu zuen Larralde eta Etxepare arteko hartu-eman:

Bainan, nahiz ez duen behin ere bere liburu eta irakurgaietan aipatu, Larralde zenaz egona da, azken egunetaraino, orhoituenik: aphez aditu eta bihotzduna zen, errotik bere eginbideari emana, gazteen arimez aise grinatua. Goizik ohartu zitzaion Etxepare biphilari eta seme bat bezala maitatu zuen, harekin bazter ikhusketa noizean behin ibiltzerainokoa, lan-arte edo bakantza-egun batzuez.

Augustin Larralde kalonjea Uharte Garazin jaio zen 1851n, eta 1875ean apaiztu zen, Larresoron eta Baionan ikasita. Larresoron berriro, irakasle aritu zen urte luzeetan, estatuak elizaren ikastetxe hori 1906an itxiarazi zuen arte. Bertan zientzietako diziplinak azaltzen zituelarik, Parisko Institutu Katolikoan zientzietako lizentzia prestatu zuen 1886-89 tartean, Lapparent eta Branly irakasle ospetsuekin, beste batzuen artean. Parisen eskuratu zuen diplomarekin batera, gauza baliagarriago bi lortu ei zituen. Batetik, berezkoa zuen umiltasuna sendotu egin zitzaion, norberaren jakintzaren muga nabarmenei erreparatuta, eta bestetik, aipatu jakintsu kristauen irakaspenek askoz entusiastikoago bihurtu zuten, Larralderen ordura arteko fedea.

Egia esateko, ezin dut ondo irudikatu Parisen zer irakatsi zioten edota Larraldek berak zer ikasi zuen, zer baitaratu zuen, gero Larresoron “jakitatean ez zela barnegi sartu behar” aholkatzen ibiltzeko. Gomendio hori ez dator bat inondik ere zientzialariaren jakingurarekin. Halaber, nire ustez ez da lar ondo egokitzen, esperimentu batean erretorta-printza batek begia leherrarazi dion kimikako irakasle maratzarekin.

Augustin Larralde (Uharte Garazi, 1851; Beloke, 1912) Larresoroko Seminarioko irakaslea izan zen 1875etik aurrera, eta ekonomoa egin zuten 1901ean. Orobat, zientzietako irakasgaiak azaltzen zituen. Behin, begi bat birrindu zion erretorta-printza batek kimikako esperimentu batean. Istripuaren ondoriozko iskanbilan hainbat kide hurbildu zitzaizkion, besteak beste eta inor baino asaldatuago Larresoroko superiora, haren nagusia izateaz batera oso laguna ere bazuena. “Jaun Superiora, begi bat galdu dizut, baina beste bat dut zure esanetara” esan omen zion Arnaud Abadiari ezin lasaia-go. Juancito Etxepareri “libu-



rueri sobera emana zela” agertu zion, eta bai aholkatu ere “jakitatean ez zela barnegi sartu behar; hobe zuela Eliza Ama sailduari bi begiak hetsirik jarraitzea, nahi bazuen segurik bere lehenagoko bake gozo hura berriz bildu”.

(ARG.: P. XARRITON).

Bide batez-edo aipatuko dugu, aita Larralderen Parisko egonaldi bitartean egin zela lehen kongresu zientifiko katolikoa 1888ko apirilean, hain zuzen ere Parisko Institutu Katolikoaren errektoreak, d'Hulst monsinoreak, antolatua. Haren helburua jakintsu eta intelektual katolikoaren biltzea izan zen, zientzia eta Eliza uztartu nahian. Kongresu horretan Armand David naturalista ezpeletar handiak hartu zuen parte, hots, pandaren aitak, baina bere hitzaldiak hainbat minututako txistualdia sortarazi zuen: orduko Eliza katolikoaren sektorerik jantziarena darwinismoaren kontra agertu zen, era ezin iskanbilatsuagoan gainera. Aita Larraldek ere zalapartaka hartuko ote zituen, bere herritarrak hitzaldi hartan poliki-poliki aletu zizkion Eboluzioaren aldeko datuak? Ezin dut erantzun, ez baitago horretarako argibiderik. Edozelan ere, bai esan dezakeguna da, aita Larraldek ez zuela Eboluzioaren berri ona zabaltu Larresoron, Parisko ikastaldiaren ostetik. Ez dakigu maila pribatuan Parisen entzundakoaz ea ezer aipatu ote zion, munduaren eta biziaren bilakaeraz horrenbeste zalantza zituen hamazazpi urteko Etxepareri, ezetz ematen duen arren. Erantzunak erantzun, Augustin Larralde 1912an hil zen, Beloken.

IZARREN HAUTSA EGUN BATEAN

Haeckel-engandik jaso omen zuen Etxeparek Lurraren eta biziaren sorrerari buruzko ikuspegi “ilhun” hori. Behintzat, Piarres Lafittek kontatu duenez, Haeckel-en “erranek burxoratu” zuten gaztean. Lafittek idatzitakoaren arabera, 1894ko azarotik aurrera Bordelen medikuntza ikasten ari zela, “Haeckel eta Nietzsche bezalako batzuen liburu khiretseri lotu zen, beroberoa”, eta hortik, honezkero ikusi dugunez, atarramentu onik ez, Lafitte jaun apaizaren aburuz.

Etxeparek, ziurrenez, Haeckel-en *Histoire de la création naturelle ou doctrine scientifique de l'évolution* liburuan irakurriko zuen Laplace-ren hipotesia eta bai beste kontu asko, dela Bordelen, dela Euskal Herrian. Atxagaren Camilo Lizardik ere liburu horretan aurkitu ote zituen Laplace-ren ideiak? Haeckel-en jatorrizko liburua 1868an argitaratu zen, eta 1874.ean agertu zen frantsesezko itzulpena, baina, oso liburu arrakatsatsua suertatu zen eta hainbat edizio ezagutu zituen. Geuk zazpigarren argitarapenaren frantsesezko itzulpena kontsultatu dugu, hain zuzen ere, Jesus Marik Lisboatik 1985eko aste santuan ekarri zidan bezua maitagarria. Bertatik laburbildu dut, Etxeparek irakurri eta hain sakon eta iraunkor eragin ziona, eta neuri horrenbeste une atsegin opetsi didana.

Lisboatik ekarritako oparian, Haeckel-ek Immanuel Kant filosofo eta matematikari ospetsuari egotzi zion hipotesiaren meritua, Laplace-ri barik. Haeckel-ek azaldu legez, Kant-ek plazaratu zuen 1755. urtean munduaren jatorriari buruzko teoria hori, datu matematiko eta astronomikoetan oinarritua, baina geroago bai Laplace-k eta bai Herschell-ek eman zioten itxura zientifiko eta zabaltu egin zuten lau haizetara, batez ere lehenengoak 1796an, eta dirudienez Kant-ek idatzitakoaren berririk eduki gabe.

Nolanahi, Etxeparek gutxi gorabehera ondoko erara formulatuta irakurri zuen kosmogonia hori Haeckel-en liburuan:

Aspaldi baten, une infinituki urrun batean, unibertso osoa *gasezko kaos* bat zen. Jatorrizko une horretan materia guzti-guztiak, alegia, egun solidotasun-maila desberdina erakusten dutenak bai lur gainean zein gainerako astroetan, ore homogeneo batean nahastuta zeuden orduan, unibertso osoa betez, eta tenperatura ikaragarri handi batek egitura zeharo birrinean mantentzen zituen. Orduan ez ziren existitzen gaur egun eguzki-sistema askotan taldekatutako milioi eta milioi astroak. Izatez, astro horiek guztiak erroztazio-mugimendu orokor baten ondorioz jaio ziren, zeinean zehar kondentsatu egin baitziren gune batzuk, gasezko gainerako substantzia baino solidoago bilakatuz. Horrela, hodei kaotiko primitiboa, hots, jatorrizko gas kosmikoa, zenbait nebulosa esferikotan banatu zen, eta berauek erroztazio-mugimendu etengabe batek higiarazten zituen, gero eta kondentsatuago zeuden, gero eta gogorrago. Horietariko nebulosa eskerga bat izan zen gure eguzki-sistema, non zentro komun baten inguruan hainbat elementu antolatatu eta grabitatu baitziren, eguzkiaren inguruan hain zuzen. Nebulosa horrek, gainerako guztiek bezala, esferoide baten itxura hartu zuen, erroztazio-mugimendua zela-eta.

Indar zentripetoak erroztazio-mugimenduak joanarazitako molekular zentro higiezinerantz erakartzen zituen bitartean, nebulosa gero eta gehiago kondentsatuz, indar zentrifugoak, alderantziz, zentrotik molekula periferikoak bidaltzeko joera zeukan, urrutirantz sakabanatuz. Indar zentrifugoaren eragin handiena esferoidearen alde ekuatorialean nabarmentzen zen, eta azken batean indar zentripetoari, hots, grabitateari, gailendu zitzaion, haziz zihoan kondentsazioaren ondorioz, halatan non alde ekuatorial horretan nebulosaren eraztun batzuk banandu egin baitziren esferoide birakaritik. Bananduriko eraztunek osteko urrats batean eratuko ziren planeten orbitak urratu zituzten, eta, izan ere, eraztun horiei zegozkien nebulosa-zatiak apurka-apurka kondentsatu eta planetak itxuratu ziren. Planeta horiek euren ardatzarekiko biratzen ziren, eta bai sistemako gorputz zentralarekiko. Era berean, nebulosa-eraztun berriak deslotu ziren planeta horietatik, indar zentrifugoa berriro ere indar zentripetoari gailendu baitzitzaion, eta eraztun horiek planeten inguruan biratzen ziren, planetak eguzkiaren inguruan zebiltzan bezalaxe. Horrela eratu ziren ilargiak: Lurraren ilargi bakarra, Jupiterren laurak eta Uranoren seiak. Laplace-ren ustez, Saturnoren gaur egungo eraztuna ilargi baten eboluzioko urrats goiztiar bat izango litzateke (eta, era berean, Martitz eta Jupiter arteko asteroideak, ganoraz kondentsatu ez den eraztuntzat jo ditzakegu, geroago aipatuko dugunez). Tenperaturaren jaitsiera handituz zihoanaz batera, kondentsazio- eta sakabanaketa-fenomeno horiek ugaritu egingo ziren nabarmenki, eta horrelaxe jaioko ziren hainbat eta hainbat eguzki-sistema: hala erdiko eguzkiak nola euren inguruko planetak eta sateliteak.

Emeki-emeki, erroztazio-mugimenduak joanarazitako astroak gas-egoeira primitibotik gorputz gori-goriak izatera iritsi ziren, hozketaren eta kondentsazioaren emendioaren ondorioz. Izan ere, kondentsazio hazkor horren eraginez, bero-kantitate ikaragarria askatu zen, eta astro horiek, dela eguz-



Ernst Haeckel, laurogei urte zituelarik. Gaur egun esparru akademikoetan oso arrunta izaten da onartzea, nazional sozialismoa darwinismo sozial gordina dela, izatez. Haeckel izan zen darwinismoa gizarte alemanean txertatu zuena. Darwinen liburua 1859an argitaratu zen, eta 1860an kaleratu zen alemanez. Haeckel Darwin baino urrunago joan zen, eta gizadia animalietatik eboluzionatuz agertu zela azaldu zuen jadanik 1863an. Areago, Haeckel-en ustez, gizadiaren izaera politiko eta soziala ere eboluzioaren legeek eta hautespen naturalak eraentzen dute, eta ideia horiek oso harrera ona eduki ukan zuten XX. mendearen hasierako Alemanian, Haeckel-en dibulgazio-liburuei esker. Aipatu eskema akademiko horren arabera, oinarritzko ideia bitara laburbil daiteke darwinismo sozial alemana. Batetik, gizakia naturaren beste atal bat da, aparteko transzendentziarik gabekoa. Bestalde, alemanek komunitate gorena osotzen dute ikuspegi biologikotik. Gerora Alemanian ezarri ziren biopolitika arrazistak zientzian euskarrituak zirela argudiatu zen, baina, edozelan ere gehiegikeria bat da alegatzea komunitate zientifiko alemana nazional sozialismoaren erantzulea dela zuzenean, eta bereziki biologiko fakultateetako kideak.

(ARG.: D. GASMAN).

ki, planeta zein ilargi, pilota gori bihurtu ziren, metalezko tantak galdatan ziruditenak, argia eta beroa irradiatuz. Bero-galera eskerga horrek kondentsazio gehiago ekarri zuen, eta, azkenik, geruza solido mehe bat gauzatu zen, gori-goritan zegoen esferaren azalean. Jazokune horiei guztiei dagokienez, Lur izeneko planeta ez bide da zeruko gainerako astroetatik bereizten.

Oraingoan begira diezaiogun zehazkiago unibertso horretako zati ñimiño bati, alegia, gure planetari. Lurra, aipatu bezala, esfera gori-goria da, poloetatik txapaldua, eta, jasaten ari den hozketaren ondorioz, azal mehe solido batez estalita dagoena. Izatez, solidotu zen lehen azal horrek oskol jarraitu batez gaineztatu zuen gure planetaren gainazal osoa. Baina, oskol hori arin batean tximurtu zen, eta bai arrakalatu ere. Hozketaren aurrerakadagatik, galdatan zegoen nukleoa uzkertuz zihoan, eta horrenbestez Lurraren diametroa laburtu egin zen, eta horren ondorioz oskol zurruna pitzaduzere bete zen, ezin baitzuen nukleo fluituaren atzerakada jarraitu.

Behin eta Lurraren tenperatura maila jakin bateraino jaitsi, oso munta handiko fenomeno abiaturik zen: uraren lehen agerpenaz ari gara. Ordura arte ura lurrun gisa hegaldatu zen atmosfera baitan. Jakina, ezinbestekoa da tenperatura atmosferikoaren beherakada nabarmena, lurruna ur dadin. Baina, ur likidoaren agerpenak lurrazalaren berrantolaketa ekarri zuen berehalakoan, izan ere, orduko euri etengabeak Lurreko oskol solidoaren irtenune guztiak higatu zituen, eta hein batean berdindu, eta, bestalde, horrelaxe sorturiko jalkinak haranetako ibarretan metatu ziren, formazio neptuniar ino-bre eta eskergak gauzatu.

Eta orduan, lurrazala hoztu zenean, lurruna urtu egin zenean, ordura arteko lur idorra ureztatu egin zenean, itsasoak bete zirenean, lehen bizidunak ziren sortu, orduan. Baina hori beste kontu bat da, gerotxoago kontatuko duguna, labur-labur bada ere.

Horraino gutxi gorabehera Haeckel-ek dakarrena, Pierre Simon Laplace-ren hipotesiaren gainean.

Aurreko pasarteak hobeto ulertzeko, badaude eman daitezkeen azalpen erraz batzuk. Hasteko, esan dezagun gas beroaz osoturiko nebulosa hori zortzi mila milioi km baino zabalagoa zen, baina beroa galtzean kondentsatu egin zen, eta ondorioz errotazio-mugimendua azkartu egin zen. Irakurri ditudan hainbat testutan konparazio berbera kausitu dut, nebulosaren errotazio-mugimendua eta izotz-irristalari batena bateratuz. Irristalari bat luzatuta eduki dituen besoak bular-aldean uzkertzen dituenean askoz azkarrago biratzen den modura, halaxe, nebulosa bat kondentsatzean bere errotazio-mugimendua bizkortu egingo da biziki, eta orduan jaurtiki ditzake gas kondentsatzuko eraztunak. Alegia, kondentsazioa handitzean errotazio-mugimendua handitu egiten da, harik-eta indar zentrifugoa grabitatea baino handiagoa izan arte, partikulazko eraztunak askatuz. Prozesu hori ondoz ondoko hamar eraztun eratu arte luzatu zen, eta erdiko masak eguzkia itxuratu zuen. Eraztun bakoitzetik, denbora-tarte batez biratu ostean, planeta bat eta bere sateliteak sortuko ziren azkenik. Horietariko eraztun batetik datoz, uste denez, Martitz eta Jupiter arteko 25.000 baino gehiago asteroideak. Hipotesiaren arabera, Lurra gasezko pilota bero-beroa izan zen hasiera batean, geroago likido bihurtu zen, eta, ostean, hozketaren ondorioz, azal

gogorra itxuratu zitzaion barruko likidoaren gainean. Lurraren inguruan atmosfera bat bildu zuen jatorrizko nebulosaren gasak, eta ur atmosferikoa kondentsatzean itsasoak eratu ziren.

Kontura gaitetzen, Laplace-ren hipotesiak ederto azaltzen zituen hainbat behaketa. Kasurako, planeta guztiek errotazio-norabide berbera edukitzea, eguzki-sistemaren eraketa-modutik eratorriko zen. Alabaina, geroago aurkitutako Neptuno eta Pluton alderantziz doaz. Bestalde, kontuz ibili gorago aipatu diren hainbat datuarekin, izatez, Laplace-ren sasoikoak baitira. Adibidez, ilargi-kopuruei doakienez, gaur egungo datuen arabera Lurrak bat dauka, Martitzek bi, Jupiterrek 60, Saturnok 31, Uranok 25 eta Neptunok 13.

Nolanahi ere, ehun urtez baino gehiago Laplace-ren hipotesia izan da Lurraren jatorriari buruzko azalpenik gogobetekoena, eta hori dela-eta onartu da luzaroan, aintzat hartu barik ezari-ezarian pilatuz joan zaizkion eragozpenak, batez ere, astronomia eta fisikaren alorretatik. Hipotesiak, bestalde, mugari garbia ezarri zuen zientziaren historian, zeren, kategorikoki errefusatu baitzuen bibliak emandako unibertsoaren kreazioaren azalpena, eta horren ordeaz, fisikan oinarriturikoa plazaratu zuen, izatez, lerro nagusietan gaur arte baliagarri iraun duena. Bide batez gogoratu nahi dut Laplace *Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* ospetsuko kidea izan zela, Lalande eta Bailly astronomoak izan ziren bezala, edota Proust eta Fourcroy kimikariak bezala, edota Louis Daubenton zoologoa bezala. Hori-xe irakurriko duzu Pio Barojaren *El caballero de Erláiz* eleberrian.

Ikusi duzunez, Haeckel-ek ur likidoaren agerpenaren aipamena eginaz amaitu du Laplace-ren hipotesiaren aurkezpena, bizidunak orduantxe sortu zirela aipatuz. Alabaina, ez zuen kapitulua amaitutzat jo, eta beste orrialde-mordo bat erabili zuen bizidunen sorrera zirriborrazteko. Jean Etxeparek, esan gabe doa, orrialde horietako azalpenak ere ezagutuko zituen, nahiz eta ziliportaren pasarteak "...azala gogortu zelarik behin, eta gero euriteekin zombait menderen buruko gozatu, [...], hanitzez berantago ez dakigu nola Biziaz amatzeko" lerro labur horretaraino kimatu zuen.

Hurrengo orrialde horietan, Haeckel-ek mundu ez-organikotik mundu organikorainoko zubia zelan gauzatu zen berreraiki nahi zuen, eta horretarako, biziaren berezitasun nagusiak materiaren ezaugarri fisiko-kimikoetan oinarrituta daudela erakutsi zigun. Zer esanik ez, bizidunak bakunenak guztiz argigarritzat zeuzkan mundu ez-organikotik mundu organikorainoko urratsa ulertzekotan, eta horrela izanik oso garrantzi handia eman zion bizidun sinpleenen ikasketari, hau da, "monero"en ikasketari Haeckel-en terminoekin esateko. Areago, itsaso sakonetatik T. H. Huxley-k erazutitako *Bathybius haeckeli* izaki arraroa kate-maila galdutzat eduki izan zuen, gerora benetako biziduna ez zela argitu bazen ere.

Generazio espontaneora jo zuen Haeckel-ek, materia ez-organikotik abiatuta lehen bizidunaren eraketa azaltzeko. Haeckel-ek berak dioskunez, gutxi gorabehera hamar urte lehenagotik hasita hainbat ahalegin egin ziren berezko sorkuntza hori laborategian errepikatzeke, baina egindako esperimentu horiek guztiek ez zuten inolako emaitza positiborik lortu. Jakina, emaitza negatibo horiek, Haeckel-ek dioskunez, ez dute generazio esponta-

neoaren ezinezkotasuna frogatzen, baizik-eta esperimendu-baldintza jakin horietan ez dela gertatu. Areago, bazegoen galdera bat guztiz argitu gabea, alegia, zeintzuk izan ziren lur primigenio hartako benetako baldintzak, biziari bertan eklosionatzeko habia egokia eskaini ziotenak?


Alde esperimentalean aurrera egiterik egon ez bazen ere, Haeckel-ek nahikotxo landu zuen arazoa ikuspegi teorikotik. Esate baterako, berezko sorkuntza era bitara gertatu izan zitekeela adierazi zuen, eta holaxe autogonia eta plasmagonia direlakoak definitu eta, kultur erroez hitz berriak sortzeko zuen zaletasun ia mugagabeaz, izendatu zituen. Autogoniaren kasuan, ale organiko berriaren eraketa soluzio generatzaile ez-organiko baten baitan gertatuko zen, bertan organismoaren osaketarako materia beharrezko guztiak forma simple batean agertuz (adibidez, azido karbonikoa, amoniakoa, eta abar). Plasmagonian, oster, ale berriaren berezko sorkuntza disoluzio generatzaile organiko baten baitan burutuko zen, hau da, albumina, gantzak, karbono hidratoak eta holakoak presente egonik. Haeckel-ek argitzen duenez, urte horietan egin ziren esperimentuak plasmagoniaren ingurukoak izan ziren, eta baldin-eta emaitza positiborik eduki izango bazuten ere, ez zuketean ezer frogatuko benetako generazio espontaneoaren gainean, alegia, autogoniaren gainean.

Esperimentu horietako emaitza negatiboak gorabehera, Haeckel itxaropentsu agertzen da *Histoire de la création naturelle* liburuan, eta itxura batean ez du uste generazio espontaneoaren frogantza esperimental argia larregi luzatuko zenik. Woehler-en kasua gogorarazten digu: kimikari guztiek esaten zuten zeharo ezinezkoa zela konposatu organiko bat sintetizatzea, baina, 1828an Woehler-ek dogma horren faltsutasuna frogatu zuen, amonio isozianatetik abiatuta laborategian urea ekoitzi zuenean. Era berean, Haeckel horretaz konbentzituruta dago: laster gaindituko da mundu biotiko eta abiotiko arteko leize sakona.

Kasurik txarreanean, laborategiko saio bidez berezko sorkuntza frogatzetik egon ez dela-eta generazio espontaneoaren hipotesia arbuiatuko balitz, Haeckel-en esanetan, mirakuluaren azalpena, hau da, jainkoaren kreazioa, jo beharko litzateke, baina, puntu horretarako soil-soilik teoria ebolutibo osoan. Kreatzaile batek sortu beharko zituen lehen bizidunak, sinpleenak, monero direlakoak, eta berorietatik eratorriko ziren gainerakoak hautspen naturalaren eraginez. Haeckel-ek planteatu bezala ez dago besterik: hori ala generazio espontaneo. Baina, teoria ebolutibo osoaren baitan jainkoaren esku-hartzea kapritxosoki soilik puntu horretara mugatu dela pentsatzea, eboluzioaren gainerako guztia haren lankidetzarik ez partehartzerik gabe ondo doanean, ez da hipotesi gogobetekoa, ez sinestunaren bihotzarantz eta ez jakintsuaren adimenduarentzat, Haeckel-ek argudiatu bezala. Aitzitik, hain arrazonagarriki oinarritutako generazio espontaneoaren mekanismoa onartzuz gero, elkarregaz ederto estekatuta gelditzen dira era natural batean bai Lurraren eboluzioa eta bai bertako bizidunena ere, eta argi atzeman daiteke izadiaren batasuna, oraingoz zalantzazko zenbait kontu geratu arren.

Bietariko bat, beraz, mirakulua ala berezko sorkuntza. Horixe da Etxeparek Haeckel-en lanean aurkitu zuen aukera. Erantzun positibo baten bila

1952ko udazkenean Stanley Miller-ek Lur primitiboaren inguru-baldintzak simulatu zituen, gerora oso ospetsu bilakatu zen esperimentu batean. Flasko baten barruan ozeanoa bildu zuen eta beste batean atmosfera, berorietan Lur primitiboko molekula nagusiak kokatuz: ura, metanoa, amonioa eta



hidrogenoa. Sistema itxi horretatik elektrizitatea pasarako zuten, antzinako usteko tximista-ekaitzak birsortuz-edo. Astebete baten buruan, sistemako karbonoaren %10-15a konposatu organiko gisara agertzen zen. Areago, karbonoaren ehuneko bira aminoazido gisa agertzen zen. Hau da, Miller-en esperimentuak erakutsi zuenez, Lur primitiboaren baldintzetan biziarentzat ezinbestekoak diren aminoazidoak eta bestelako konposatu organikoak sor zitezkeen. Beste esperimentu asko eta asko inspiratu zituen oharre horrek.

ibilita, badirudi Etxeparek generazio espontaneoaren hautua egin beharko zuela, mirariarena bazter utziz. Hala ere, ez du jainko kreatzailearen azalpena onartu, baina, itxuraz, ez du berezko sorkuntza ere konbentzigarritzat hartu. Behintzat horrelaxe ulertu ahal da idatzi duen “hanitzez berantago ez dakigu nola Biziaz amatzeko” horretan. Ez dakigu nola, diosku.

Haeckel-ek bazekien: zergatik ez daki Etxeparek? Zerk durduzarazten du Aldudeko medikua? Zer dela-eta Etxeparek ezin du generazio espontaneoaren ondarea onetsi?

Erantzunak bilatzen hasita, Louis Pasteur izan daiteke gakoa, Etxepareren zalantzak ulertzeko. Izan ere, mikroorganismoen jatorriari buruzko eztabaida eta berezko sorkuntzaren posibilitatea aspalditik zetozen kontuak izan arren, 1859. urtetik aurrera berriro bizkortu ziren, Darwinen *Espezieen jatorria* liburuaren argitarapenarekin batera. Baina, denok ondotoxo dakigunez, Pasteur-ek egin zuen bizidunak “berez” generatzen direla argiro ukatu duen esperimendu erabakigarria. Froga ospetsu hori Pasteur-ek 1861ean lortu zuen arren, eztabaida ez zen berehalakoan amatatu, eta esate baterako Haeckel-ek zalantzak zeuzkan esperimendu horien emaitzen gainean, eta T.H. Huxley-k ere 1868an aurkeztu zuen bere *Bathybius haeckeli* sonatua, handik lasterrera benetako bizidun bat zenik gezurreztatu bazuen ere.

Halandaze, Etxepareren begietan generazio espontaneoaren aldeko esperimenduek emaitza positiborik ez, eta, ostera, kontrako esperimenduak gero eta konklusiboagoak ziren. Badago beste elementu bat ezin duguna ahaztu berezko sorkuntzaren inguruko zalantza areagotzeko, nire ustez segurua baita bere eragina edukiko zuela neurriren batean. Ezin dugu ahaztu, Ernst Haeckel doixtarra zen bitartean, Louis Pasteur frantsesa zela, eta ñabardura hori pisutsu bihurtuko zen Jean Etxeparerentzat, berezko sorkuntzarena balantzan paratu zuenean. Frantziako zientziaren loria berezko sorkuntzaren aurka agertu zelarik, Frantziaren alde Alemaniaren kontra Gerla Handian soldadu ibilitako Aldudeko medikuak nekez onar zezakeen hipotesi hori.

Etxeparek, hortaz, ez du uste lehen bizidunak berezko sorkuntzaz agertuko zirenik. Hala ere, kontura gaitezen, ez du bere burua Haeckel-ek alternatiba gisa proposaturiko mirakuluan abandonatu, ez zuen jainko kreatzailearena irentsi. Beste bideren bat iguriki du, zientziak argituko bide diguna. Horixe suma daiteke 1928an *Eskualdunan* argitaratu zuen *Gure gorputzaren* zati honetan:

Etaz zertaz eginga da zelularen mamia? Dautazu galdutako. Ori, hau ere nehork ez daki xuxen. Jakintsuek berexen dituzte hartan hamar bat gei, bainan bertze hainbertze edo gehiago izan behar da, nehelere ikus, berex ez hazta ez ditazkenak.

Jakitsuak ohartuak zaizkoten geiak, oro lurrean kausitzen dira, lurraren erraietan. Gizona lur geroztik? Baluke itxura, bainan froga segurtamenezkorik nehork ezin eman.

Hau da, jakintsuen arabera zelula Lurraren erraietan dauden gai ez-organikoz osotuta dago, eta lurrezkoa litzateke gizakia bera ere itxura osoz –“baluke itxura”–. Lurrezkoa izatea, ez dago esan beharrik, ez da paradisu-

ko buztinaz egindakoa izatea. Nolanahi, froga segurtamenezkorik erdiesten ez den bitartean, “ez dakigu nola” diosku. Erran nahi baita, “itsu baino okher hobe”.

LORD KELVIN *VERSUS* DARWIN: NORK ARRAZOA?

Gaur egungo ikuspegi zientifikoaren arabera, Lurraren adina 4500 milioi urtekoa da. Kalkulu horretarako datazio erradiaktibozko tekniketara jo da, baina, makina bat arazo praktiko agertzen delarik, zifra biribilegi horren inguruko adostasuna ez da erabatekoa. Edozelan ere, datuek erakusten dutenez, Lurraren adina handia da, jakina, eta finitua. Baina, Lurraren adinaren arazoa, beste hainbat kontu bezala, guztiz eztabaidatua izan da luzaro, eta, izatez, argudio zientifikoak eta erlijiozkoak tartekatu dira kontrobertsia horretan.

Jendea aspaldi batean hasi zen galdetzen ea Lurra zein adin zeukan, baina, ez dago begi-bistakoa den erantzun bat, eta historian plazaratu direnak muturretik muturrera joan dira, hain zuzen “6000 urte inguru” esatetik Lurra “betierekoa” dela onartzera.

Lurra oso gaztea dela zabaldu du tradizio judu-girixtinoak, bibliako testamentu zaharreko kronologian oinarrituta. Lurra, ikuspegi horren arabera, Kristo aurreko 4000. urte inguruan sortu zuen jainkoak, hau da, idazki zaharren aldia baino arean lehentxoago. Dirudienez, barne-kronologia koherentea aurkitu ahal da biblian zehar, Adamengandik hasi eta Salomonenganaino, eta berorregandik Nabukodonosor errege babiloniarrengaino, eta horren bitartez lotu egin daitezke kronologia biblikoa eta Babiloniako historia. Metodo hori erabiliz, esate baterako, san Agustinek Lurra K.a. 5500. urtean kreatu zela kalkulatu zuen. Metodo hori santuek, bai, eta bai zientzialariek ere erabili zuten, ezin baitugu ahaztu luzaroan biblia iturri bibliografiko gisara erabili izan dela mendebaldeko zibilizazioan. Adibidez, Johannes Kepler-en arabera Lurra K.a. 3993. urtean kreatua zen, eta Isaac Newton-ek bost urte gehiago eman zizkion, antzeko batuketak eginez. Izan ere, XVIII. mendera arte bibliako kronologia konputatzea zen metodo onartua, Lurraren edadea zehazteko. Teknika horretan oinarrituta James Ussher artzapezpiku anglikarrak lortu zuen goren-goreneko zehaztasuna, 1650. urtean. Bere *Annales veteris testamenti, a prima mundi origine deducti* (Testamentu zaharreko analak, munduaren lehen jatorritik ondorioztatuak) tratatu eruditoan, kreazioaren eguna K.a. 4004. urteko urriaren 23a izan zela finkatu zuen, eguerdi aldean hain zuzen ere. Beste askotan bezala, Stephen Jay Gould-engana jo dezakegu, pertsonaia eta jazokune horien gorabeherak eta gibelondoak hobeto ezagutzeko, baina, oraingo honetan beste ildo batetik abiatuko gara hemen.

Are eta gaur egun ere, zenbaituek Genesiko liburuaren irakurketa literal batean sinesten dute, eta izan ere, Ameriketako Estatu Batuetan asko dira talde kreazionisten kideak eta aldekoak. Alabaina, kreazionista horien artean ere badago eztabaida sutua, Genesiko liburuaren letra idatzia interpretatzeko orduan. Batzuen iritziz, jainkoak sei egun behar izan zituen

mundua kreatorreko, eta egun horiek, esan gabe doa, 24 ordukoak izan ziren. Badaude, bestalde, zazpi egunak zentzu metaforikoan ulertzen dituztenak, eta beraz, berorien ustez Lurraren historia luzeagoa izango litzateke. Halandaze, normalean Lur zaharreko kreatorrekoak eta Lur gaztekoak bereizten dira.

Horrelako kontuak entzutean irribarretxo batek loratzen digu musua, topikoaren amerikar inozoen kontuak direla pentsatzeaz batera. Ez dakit, ba, noraino den horrela. Kasurako, Emmanuel Intxauspe kalonje zuberotarrak *Uscaldunaren guthunak* liburuan honelaxe deskribatu zuen “kreatorreko”, pasarteko lehenengo lerrotan:

Sei mila ourtheren ungunia du, gizonak bizi direla mundu hountan, eta algarren ondozka agertzen eta itzaltzen direla. Hastian deus etzen Jinkoa baizik; Jinkoak egin zutian lehenik zelia eta lurra, ekhia, argizagia eta izarrak, lurreko beharrak, zuhainak eta ihize suerte guziak. Palazio bat bezala adelatu ondoan mundia, egin zian lurreko nausi eta erregetako destinatu zian, bere kreatura agerietarik perfektuena, GIZONA.

Jakina, Intxauspek aipatu dituen sei mila urte horiek dira, James Ussher artzapezpikuaren 4004 haiek gehi Kristo osteko gainerako bi mila urteak. Ez dut uste oso oker ibiliko garenik, baldin-eta Larresoroko apaizgaitegian Joanes Etxepareri Lurra gutxi gorabehera horrelako adina zeukala irakatsi ziotela pentsatzen badugu. Baina, adi!, kontua ez da-eta hor amaitu. Izan ere, *Uscaldunaren guthunak* liburua oso arrakastatsua suertatu zen bere sasoiaren, eta lehen argitalpena 1851koa bada ere, hurrengo urteetan hainbat berrargitarapen ezagutu zituen: 1856, 1866, 1872, 1875, 1885, 1890, 1901, 1912, 1921 eta 1946. Harrigarria iruditzen zait ia hamar urtez behin berrargitarapen bat egotea, zubereraz idatzitako eliza-liburu batentzat, baina, beharbada harrigarriagoa da, azken berrargitarapenaren urteaz jabetzea. 1946. urtea hain justu. Hau da, kontura gaitezen gure artean ere noiz arte zabaldu diren horrelako ideia zaharkituak inolako berrikuspenik gabe. Dirudienez, Lur gazteko kreatorrekoak izan gara ia herenegun arte.

Irrigarritik harrigarriaraino joan gara XIX. mendeko kalonje zuberotarraren eskutik. Badugu, baina, negargarriaren eremura hurbiltzerik. Horretarako aukera opetsiko digu Maurice Souberbielle “mirikuiak”, hain zuzen ere, Etxepareren *Eskualduna* aldizkariko mediku-solas idatziei jarraipena eman ziena, 1935ean Aldudeko medikua hil zelarik. Ba, hurrengo urteko *Gure Almanakako* osagarriari buruzko artikulua, eguzki-bainuak gaitzat hartuta, honelaxe hasi zuen Souberbiellek: “Jinkoak egin zuen Iguzkia hirugarren egunean”. Alegia, Souberbiellek testuinguru kreatorreko argizari-jale batean kokatu du irakurle euskalduna hasiera-hasieratik, nahiz eta, geroago, eguzkitiko argia Lurrerainoko “ehun eta berrogoi eta hamar mila” (*sic*) kilometroak korritzen “zortzi minuta eta hirur zegunda” luzatzen dela azaltzen duen, eta bai ere eguzkia derrigorrezkoa dela bizidunentzat, eta gainerako argibide medikoak ere zuzenak eta egokiak bide diren arren. Alde horretatik, Etxeparerekin erkatzean oso konformista begitandu zait Souberbielle medikua, eta izatez, hurbilago legoke Intxauspe kalonjearengandik Aldude-


ko medikuarengandik baino. Hala ere, badago xehetasun txiki bat, hona ekarri gurako nukeena. Elizen Arteko Bibliaren lehen argitalpena begiratu-ko bazenu, jainkoak eguzkia laugarren egunean egin zuela konturatuko zinateke (Hasiera, 1, 16), hots, ilargia eta izarra egin zituen egun berean, eta ez, antza, Souberbiellek adierazi bezala hirugarren egunean. Dirudienez, hirugarren egun horretan jainkoak Lurrari agindu egin zion, belar hezea, hazidun landareak eta orotariko fruta-arbolak eman zituzala beren hazi eta guzti, eta hala izan zen (Hasiera, 1, 11). Ez dago argi eguzki barik zelan moldatzen ziren fotosintesarako. Beharbada, goratxoago ikusi dugunez, horrexegatik kokatuko zituen Intxauspek bere kontakizunean lehenago “ekhia” eta berorren ostetik “belharrak, zuhainak eta ihize suerte guziak”. Beharbada bai.

Zer esanik ez, denbora-tarte ikaragarri handiak ondorioztatzen zituen, Kant eta Laplace-ren eguzki-sistemaren jatorriaren hipotesiak. Bestalde, geologoak eta paleontologoak gero eta konbentzituago zeuden, soilik sei mila urteko historia ez zela nahikoa Lurreko konplexutasuna gauzatu ahal izateko. Dela fosilen kopuru itzela eta euren aniztasun eskerga, dela harri sedimentarioen geruza mardulak, soilik milioika urteko jalkitzeaz era daitezkeenak, edota denbora luze-luzetan sakonki higatutako arroila erraldoiak, adituen ustez horiek guztiak Lur edadetsu batez mintzo ziren ezin argiago. Ziliportaren kezka erakutsi digun *Beribilez*ko pasartean, Etxeparek “jakintsu hanitzek baitiote” inplizitu batean bildu du, Laplace-ren hipotesiaz gainera Lurraren adin handia defendatu duten zientzialarien tropela. Horietariko batzuk ekarriko ditugu hona, azalpena ulergarriagoa gerta dakigun.

Buffon konteak, bere *Histoire Naturelle*ko 12. tomoan, munduak zazpi aro eduki izan dituela plazaratu zuen, 1778an. Hasierako Lurra pilota bat zen, galdatan zegoena; azkeneko aroan gizakia agertuko zen. Espekulazioak espekulazio, Lurraren adina estimatzeko esperimuntetara jo zuen: burdinazko hamar pilota forjatzea agindu zuen, diametroz habete-erditik bost habeterainokoak; ondoren, gori-goritan jarri zituen eta osteko hozketa-prozesua neurtu zuen, lorturiko datuak Lurraren tamainara extrapolatuz. Ondorioz: 42.964 urte beharko ziren, Lurra inkandeszentziatik behera hozteko, eta 96.670 urte Lurraren egungo tenperatura erdiesteko. Hala ere, ez zituen oso gogoko estimazio horiek, zeren-eta, Alpeetako sedimentuen lodiera egungo itsasoetako sedimentazio-tasa ezdeusarekin konparatzean, Lurraren historia askozaz luzeagoa izan beharko litzatekeela uste baitzuen. Izatez, Buffon 3000 milioi urteko estimazioetaraino iritsi zen, bera hil eta gero argitaratu zirenak.

Edmund Halley-k beste bide bat proposatu zuen Lurraren adinaren estimaziorako, 1715ean. Seguruenez, Edmund Halley ezagun suertatu zai-zu izen bereko kometa dela-eta. Haren ustez, itsasoko gatz-akumulazioa neurtuz kalkula zitekeen planetaren antzinakotasuna. Halley-k uste zuenez, itsasoak gero eta gaziago bihurtzen ari dira, ibaiek etengabe daramazkieten gatz urtuaren apurrak metatuz. Hortaz, Lurra ezin zitekeen bibliak zioen bezain gaztea izan, zeren, horrelakoa balitz, geza bailitzateke oraindik itsasoetako ura, eta kontrara, Lurra ezin zitekeen infinituki zaharra izan, zeren, kasu horretan, itsasoetako ura gatzaz ase bailegoke, Itsaso Hilaren antzera-

William Thomson (1824-1907) fisikari ospetsua, Lord Kelvin izenez ezagunagoa, elektrizitate eta termodinamikari buruzko analisi matematiko oso garrantzitsuak garatu zituen. Ume prodigioa txikitik, hainbat eta hainbat ekarpen eduki zituen esparru akademikoan, baina jendartean bere izena zabaldu zuen lorpen



nagusia –eta ohorezko titulu eman ziona– kable telegrafiko transatlantikoak izan zen: Ameriketako Estatu Batuak eta Europa 1866an lotu ziren seinale elektrikoaren bidez.

(ARG.: WIKIPEDIA).

edo. Hainbat urte geroago, 1889.ean, John Joly geologo irlandarrak zenbakietara plegatu zuen Halley-ren ideia, eta 95 milioi urteko adina estimatuzion Lurrari, plus-minus bost milioi urte. Esan gabe doa, gezurrezkoa da hasierako premisa Halley eta Joly-ren metodoan, itsasoko ura ez baita inoz geza izan gaurko datuen arabera.

Ildo beretik, deigarria suertatzen da Charles Lyell geologo handiak ez aurkeztea Lurraren adinari buruzko inolako estimaziorik, baizik-eta bakar-bakarrik jarrera filosofiko bat. Badakizu, Lyell-ek *Principles of Geology* (1830-33) liburu ospetsuan, aktualismo edota uniformitarianismoaren ideia plazaratu eta zabaldu zuen, alegia, gaur egun ari diren prozesu geologiko berberak dira Lurraren iraganear aritu izan direnak, eta, izatez, Lyell-en gardiz oraina da iraganaren gakoa. Nolanahi, Lyell-en pentsaera geologikoa muturreko gradualismoaz kutsatuta zegoen, eta estimazio zehatzik luzatu ez bazuen ere, haren ustez Lurrak oso-oso zaharra izan behar zuen, finitua izatekotan. Gogoratu, Haeckel-ek “une infinituki urrun batean” kokatu zuela Laplace-ren hipotesiko abiapuntua.


Darwinek areagotu zuen Lurraren adina zehatz-mehatz finkatzeko tirria, eta, izan ere, Darwinek berak Lurra oso zaharra izatea behar zuen, *Espezieen jatorria* (1859) liburuan adierazi zuen hautespen naturalak denbora nahikoa ukan zezan, bizidunik sinpleenetatik abiatuta eboluzio organikoa gauzatzeko. Darwinen ereduaren hautespen naturalak denbora-tarte itzelak behar zituen eraginkorra izateko, hau da, derrigorrezkoa zen denbora oso luzea, apurka-apurka sortuz joango ziren desberdintasunak metatu eta espezie berriak itxuratzeko. Oso handia zen Darwinen kezka puntu horri dagokionez, eta, Lyell-en estimaziorik ezean, bereak propioak egiten ahalegindu zen, *Espezieen jatorria* liburuan azaldu bezala. Horretarako, Ingalaterrako formazio oso ezagun batekin aritu zen, Weald deritzonarekin, bertako errosioa neurtuz. Horri buruzko pasartearen amaieran ondokoa irakur dezakezu:

Hence, under ordinary circumstances, I conclude that for a cliff 500 feet in height, a denudation of one inch per century for the whole length would be an ample allowance. At this rate, on the above data, the denudation of the Weald must have required 306.662.400 years; or say three hundred million years.

Jakina, soilik Weald formazioari doazkion hirurehun milioi urte horiek, Darwinen pentsaeran argi eta garbi halabehartzen dute Lur askoz edadesuagoa, baina, ondo zehazteko gaitza dena. Ikusi zelan adierazi zuen hori hurrengo pasartearen:

I have made these few remarks because it is highly important for us to gain some notion, however imperfect, of the lapse of years. During each of these years, over the whole world, the land and the water has been peopled by hosts of living forms. What an infinite number of generations, which the mind cannot grasp, must have succeeded each other in the long roll of years!

Argi diosku Darwinek, Lurraren azaletik iragandako urteen kopuruari buruzko nozioa edukitzea guztiz garrantzitsua dela bere hipotesirako, nahiz



Charles Darwinen (1809-1882). *Espezieen jatorria* liburua (1859) inplikazioak heretikotzat jo ziren, eta, izan ere, *Index Expurgatorius* sartu zuen Pio IX aita santuak.

(ARG.: D. LUNDBERG).

eta *imperfect* izan, berak adierazi bezala. Zernahi gisaz, Darwinen “belaunaldi-kopuru infinitua” gurako lukeela adierazten digu laño-lañoiki, eta alde horretatik, zenbat eta Lurra zaharragoa izan, Darwin lasaiago. Jakina, Darwinen ikuspegian eragin sakona, erroetarainokoa, ukan zuen Lyell-en gradualismoak, eta Darwinen guztiz berea egin zuen *Natura non facit saltum* leloa, hau da, Natura ez doa jauzika. Horrenbestez, Darwinen aburuz hautспен naturalak denbora-tarte ikaragarri luzeak behar izan zituen, aldaketa fenotipiko behagarriak gauzatzeko, alegia, aldaketa genotipiko ñimiñoak plasmatu ahal izateko, esateko modu anakroniko bat erabiliz.

Dena dela, Darwinen lasaitasunak ez zuen iraupen handirik eduki. Izan ere, 1866. urtean William Thomson fisikariak, hots, orduko termodinamikaren aditu nagusietarikoa eta etorkizuneko lord Kelvin (gehienok izen horrekin ezagutu genuen batxilergoa ikastea), uniformitarianismoaren kontrako artikulua bat argitaratu zuen, bere sasoi oso eragin handikoa eta gerora oso ospetsu bihurtu dena (*The 'Doctrine of Uniformity' in Geology Briefly Refuted*). Gould-en iritziz, pasarte bakarreko artikulua hori, zientziaren historia osoan inoiz plazaraturiko idazlanik harroputzenetarikoa da. Nolanahi, artikulua horrek hasiera eman zion, lord Kelvin-en bizitzan berrogei urtez iraungo zuen Lur “gazte” baten aldeko defentsari, horretarako matematikaren liluraz eraso eginez ordura arteko geologiari.

Lord Kelvin-en argudioetan abiapuntu teorikoa galdatan dagoen Lurra da, beroa galduz doalarik. Bere kalkuluetarako meategietan neurtu diren bero-galeren balioak erabiliz, lord Kelvin-en arabera lurrazala ezin zitekeen oso zaharra izan, ziurrenez ehun bat milioi urteko adina edukiko zuen, eta gehienez 400 milioi. Dena dela, emaitza hori hainbat biderrez berrikusi zuen, eta gero eta adin txikiagoak plazaratu zituen, azkenik, XIX. mendeko azken hamarkadan, 10 milioi urteko adina proposatuz Lurraren kontsolidaziorako.

Dirudienez, horrelako kontuak guganaino ere iritsi ziren zelan edo halan; horixe pentsa daiteke Azkuek *Euskalzale* aldizkarian plazaraturiko oihartzun hau irakurrita:

Ezta errazagoa iakitun askok euren lepora artuta daukaten arazoa: eguzkiak zeinbat urte etedaukazan iakitea. Kelvin-en ustez eun milloa urte daukaz eguzkiak eta amatau-orduko beste zazpitik hamabost bat milloa-inguru iraungo dau.

Egia esateko, erabilitako frogapen matematikoaren dotorezia gorabehera, kalkulu horiek guztiz zalantzazkoak izan behar ziren, zeren Lurraren osaketa ez baita homogenea, planeta-barruari buruzko gure ezagumendu urriaz gainera. Alabaina, lord Kelvin-en argudiaketa osoa, Lurraren jatorritik hona berton bero-iturri berririk sortu ez dela asumitzean datza, eta beraz, gaur egungo bero-fluxua abiapuntuko Lur urtu gori-gori haren bero-jarioaren hondarra izatean.

Ez dago esan beharrik, adinaren estimazioak behera doazenaz batera, teoriarik behintzat eboluzioak gero eta denbora laburragoa edukiko zuen, *de facto* gertatu ahal izateko. Lord Kelvin-ek mahai-gaineratu Lurraren gaztetasun berriak, berehalakoan sortu zituen Darwinen beldurra eta errefusa, nahiz eta beroriek soilik pribatuki erakutsi, eta izatez, lord Kelvin eboluzio-

nismoaren etsai nagusi bihurtu zen Darwinen kolkoan. Haren aburuz, lord Kelvin-en kalkuluak ziren bere teoriaren oztopo nagusia ziurrenez, eta, horretaz konbentzituta zegoelarik, *Espezieen jatorria* liburuko Weald formazioaren 300 milioi urteko aipamena-eta ezabatu zituen hurrengo argitarapenetan. Alabaina, fisikari handiak ez zuen eboluzioaren aurka *per se* borrokatu, hau da, ez zuen eboluzioaren ondarea zalantzatan jarri; izatez, lord Kelvin-ek argudiatu zuena izan zen, Lurraren gaztetetasunak berez baztertzen duela hautespen naturala, Darwin-ek esleituriko mekanismo ebolutibo nagusiaren zereginetik. Izan ere, lord Kelvin-en ustez, hautespen naturala bezala zorizkoa den mekanismo batek ezin izan zuen eboluzioa aurrera eroan; areago, lord Kelvin konbentzituta zegoen, biziaren konplexutasunak “Adimendu Goren” baten isla erakusten digula.

Kontuak kontu, Darwinen kezka berea bakarrik izan zen, zeren Wallace eta Huxley, Ingalaterrako haren gogaide nagusi biak, ez baitzeuden puntu horretan Darwinekin ados. Wallace-k ez zuen inolaz ere lotu hautespen naturalaren erritmoa, muturreko ikuspegi gradualista baten denbora-eskala izoztuarekin, eta horrenbestez, haren iritziz, lord Kelvin-ek Lurraren historia 100 milioi urtera murriztu badu, nahikoa da hautespen naturalaren lastertasuna bizkortzearekin, denbora-eskala berri horretara doitzuz. Baldin-eta Lurrak 100 milioi urte baditu, Wallace-ren ustez, tarte horretan burutu dira aldaketa geologiko guztiak, eta bai bizidunen sorrera eta eboluzioa; estuago, hori bai. Bestalde, Huxley askoz lasaiago zebilen Lurraren adinari buruzko kontu horiek guztiak direla-eta, izan ere, Huxley-k, hautespen naturalez gainera, eboluzioa jauzika ere gerta zitekeela defendatu baitzuen.

Edonola ere, Darwinen eta lord Kelvin-en arteko kontrobertsia erradioaktibitatearen aurkikuntzaz amaitu zen, XX. mendeko hasiera-hasieran. Lord Kelvin-en Lurraren bero-galerari buruzko datuak soilik erabil zitezkeen Lurraren adina kalkulatzeko, baldin-eta bero hori jatorrizko kantitate bati bazegokion, denboran zehar gradualki disipatua: hor badago, abian jarri eta bero guztia agortu arte era erregularrean arituko den nolabaiteko erlojua. Ustezko erloju horretaz baliatu zen lord Kelvin. Hala ere, erradioaktibitatearen gaineko lehen adituak (Pierre eta Marie Curie, Henri Becquerel, Ernest Rutherford...) berehalakoan konturatu ziren, Lurreko bero gehiena erradioaktibitateak sortua dela, eta ez Lurraren jatorrizko bero baten jario etengabeak. Jakina, atoa konturatu ziren ezerezean amildu zirela lord Kelvin-en arrazoiak eta frogapen matematiko korapilatsuak, eta bai Lur gazte baten ideia ere. Lord Kelvin-ek (1824-1907) erradioaktibitatearen aroa bizi izan zuen, hasiera behintzat, baina dirudien ez zuen inoiz oker zebilenik publikoki onartu. Ostera, Charles Darwin Lur gaztearen kezka eta guzti lurperatu zuten, 1882an.

Iritsiko ote zen horren guztiorren oihartzunik Aldudeko medikuarengaino? Noraino egongo zen jakitun? Ez dakigu, Etxepareren idazkietan ez dugu-eta horren aztarrenik atzeman. Ziliportaren kezka pasartean Etxepare ez da batere esplizitu agertzen, eta denbora-tarteen kontua dela-eta, batetik, Lurra “Iguzkiak *noizbait* airez-aire aurdiki ziliporta” dela dio, eta bai, bestalde, “*hanitzez berantago* ez dakigu nola Biziaz amatzeko”. Zehaztasunik gabe, beraz.

INOR BIZI DA IZARRETAN?

“Ez dakigu nola Biziaz amatzeko” utzi digu Etxeparek idatzita. Haeckelengan mirakulua ala generazio espontaneo aurkitu zituen aukera posible modura, baina, ez bata eta ez bestea, ez ziren onargarri suertatu Etxepareren begietan, gorago ikusi dugunez.

Lord Kelvin-ek ere ez zuen berezko sorkuntza onartu, areago, arbuia egin zuen, Pasteur eta enparauen frogetan oinarrituz. Berezko sorkuntza ez zitzaion sinesgarri iruditu, ez egungo Lurraren baldintzetan ez eta iraganaldi urrun bateko baldintzetan ere. Haeckel-ek luzatu zuen alternatiban, mirakulua gelditzen zaio lord Kelvin-i. Horixe aukeratu al zuen? Zelan azaldu zuen, bada, biziaren sorrera Lurrean?

Lord Kelvin-ek berak 1871n adierazi zuenez, baldin-eta naturaren joan-etorriekin ondo egokitzen den soluzio probable bat aurkitu ahal bada, ez dago zertan inbokatu “Botere Kreatzailearen ekintza anormal” bat. Esate baterako, Vesubio edota Etna sumendi-ahoetatik behera doan laba-jarioa hoztu eta arin batean gogortzen denean, eta handik laster berriro landare eta animaliak agertzen direnean, ez dugu kreaziora jotzen: haizeak garraia ditzake haziak bertaraino, eta ostetik iritsiko dira zomorroak eta ehizakiak. Sumendi batek itsaso erdian sortu eta uharte bat itxuratzen duenean, eta urte gutxi batzuk geroago landarediz jantzita ikusten dugunean, inolako zalantzarik gabe asumitzen dugu haziak haizeak bultzatuta iritsi direla, edota almadietan flotatzen. Ez al da posible, eta, posiblea baldin bada, ez al da probable, Lurraren hasierako bizia modu horren antzerako batera azaldu ahal izatea? Izan ere, urtero-urtero materia solidoko milioika zati erortzen dira Lurrera: zein da zati horietariko bakoitzaren historia? Ba, oso-oso probablea da espazio sideralean kontaktu ezineko meteorito hazi-garraiatzaileak egotea, bestelako mundu bizidunetatik abiatutakoak, eta behinola horietarikoren bat Lurrean jaustea. Lord Kelvin-ek esan zuenez, bere hipotesi hori zakar eta bisionariotzat jo dezakegu, baina ez da azientifikoa, zeren frogatu edota gezurreztatu egin baitaiteke.

Mirakulura jo barik, lord Kelvin-ek espazio sideraletik ekarrarazi zuen bizia, hasteko. Osteko bizidun-eraniztasuna azaltzeko, hein batean lord Kelvin-ek Darwinen eboluzionismoa onartu zuen, nahiz eta muga nabarmenak ikusten dizkion. Muga horiek bere ustez zeintzuk diren azaltzeko, Darwinen *Espezieen jatorria* liburuko azken pasarte ospetsua erabili zuen:

Interesgarria da ibai bazter nahaspilatu bat ikustea, mota askotako landare ugaztiak jantzia, hegaztiak zuhaisketan kantari, askotariko intsektuak hegaka hara eta hona eta harrak lur heze artean narras, eta pentsatzea hain egikera landuko forma horiek, bata bestetik hain ezberdinak eta hain era konplexuan bata bestearen beharra dutenak, geure inguruan lanean diharduten legeek sortuak direla. **Legeok, adiera zabalenean harturik, honako hauexek dira: *hazkundera ugalketarekin; herentzia*, ia ugalketaren barruan sarturik dagoena; bizi-baldintzen eta erabileraren eta erabilerarik ezaren zuzen eta zeharkako ekintzak eraginiko *aldagarritasuna; gehikuntza ratio* handia, biziaren aldeko borrokara, eta, ondorioz, *ezaugarri dibergentzia* eta gutxiago**

hobeturiko formen *iraungipena* dakarren hautespen naturalera eramateko modukoa. Era honetan, bururatu ahal dugun gauzarik handiena, goi-animalien sorketa, naturako gerraren, gosearen eta heriotzaren ondorio zuzena da. Badu handitasunik biziaren ikuspegi honek, honako hau erakusten baitu, alegia, Kreatzaileak forma gutxiren edo bat bakarraren baitan bizia eta bizi-indar ezberdinak arnastu zituela eta, planeta hau grabitatearen lege iraunkorraren arabera jira-biraka ibili den bitartean, hain hasiera xumetik formarik eder eta zoragarriak garatu direla eta garatzen ari direla.

Izatez, lord Kelvin-en azalpenak beren-beregi ezabatu ditu geurean azpimarratuta eman ditugun Darwinen esaldi bi horiek, arrazoituz, ez dela hautespen naturala benetako eboluzioa bideratzen duena, ez baitu aintzat hartzen adimendu kontrolatzaile bat. Lord Kelvin-en aburuz, mundua eta bizia ez dira inolaz ere atomoen elkarrekintza fortuitoaren emaitza, 1889an adierazi zuen bezala; gogoratu, antzerako zeozer irakurri diogu Lafitteri ere, alegia, bizia ez da biharamunik gabeko ziliporta ezdeus bat. Halandaze, lord Kelvin-en esanean, bizidunak uneoro diharduen kreatzaile lege-egile baten menpean daude.

Geuk *lege-egile* jarri dugun tokian, lord Kelvin-ek *ruler* idatzi zuen. Hemen gogorarazi nahi dizut, Jean Etxeparek ere “lege-egile baten asmua” erabili zuela ziliportaren kezka azaltzean, hain zuzen ere, 1925. urtean Jean-Blaise Ademari kitzika egin zionean. Dirudienez, eztabaida horren oihartzunak Aldudeko medikuaren belarri-xuloetaraino iritsi ziren handik edo hemendik.

Mirakuluraino ez beharbada, baina lord Kelvin-ek urrutiratu egin zuen Lurretik ostondora, biziaren jatorriaren afera. Lurrak jaso egin zuen, besterik ez, ordurako egituratuta zegoen bizia. Gaur egun, panspermia deritzo horri, alegia, panspermia hipotesi bat da zeinaren arabera biziaren haziak unibertsoan sakabanatuta baitaude, eta nola edo hala hazi horiei esker hasi baita bizia Lurrean.

Generazio espontaneoaren historia nahi izanez gero Aristotelesengaino luza daitekeen bezalaxe, panspermiaren historia Anaxagoras-ekin hasi ei zen. Nolanahi, panspermiaren XIX. mendeko defendatzaileen artean izen ospetsu xamarak aurkituko dituzu, besteak beste, Berzelius (1834), Richter (1865), lord Kelvin (1871), Helmholtz (1871), baina, geuk batxilergoan elektrolitoen gorabeherekin batera ezagutu genuen Svante Arrhenius (1859-1927) kimika Nobel sariduna (1903) aipatu ohi da panspermiaren aitapontekotzat, izan ere, berak landu baitzuen hipotesi hori xehetasun osoz eta berak zabaldu eta eztabaidarazi baitzuen, lehenago 1903ko artikulua batean eta geroago 1908ko liburu dibulgatzailean (*Worlds in the Making: The Evolution of the Universe*). Lord Kelvin-en idazkietan haziak (zentzu metaforikoan izan arren) eta meteoritoak aipatzen badira ere, Arrhenius-en hipotesiak planetatik planetara sakabana daitezkeen esporak hobesten ditu, espazio sideralean zehar hotzarekiko eta izpi ultramoreekiko jarkikorragoak izango direlakoan. Beste hainbat kontu aipagarri bazter utzita, esan dezagun Arrhenius-ek ez ziola aurre egin biziaren jatorriaren aferari, eta haren ustez, litekeena zen bizia eternala izatea, edo substantzia sinpleetatik abiatuta sor-

tzea; alegia, topo egin dugu berriro ere, ala mirakuluarekin ala generazio espontaneoarekin.

Testuinguru horren bueltan oso deigarri begitandu zait, Jurgik eskuratu zidan Azkueren artikuluska hau, 1897an argitaratu zuena, *Euskalzaletze* aldizkarian:

¿INOR BIZI DA IZARRETAN?

Frantziako *Institut* deritson lakitun-batzarreko azkenengo iarrialdian, M. Jansen-ek [sic] itaune onetsen ganean berba egin eidau.

Itaune edo galdera onek, antsinatik emon dautse buru-auste andia iakitun da iakinzaletzei.

Gaur iakitun geienak baietz uste dabe: gure ganean, zeruko amai-bagako une eder miragarri orretan, laun altsuan besotik dingilizka dagozan izar askotan, Lurrean legez, norbait bizi dala.

Antz andia eidaue euren izakeran gure *auzoko* izar askok eta gure bizi-toki onek. Emengo antzera aretan bere mendiak eta itsasoa ta ibaiak eta *airea* dagoz.

Bizigarriak dagozan tokian ¿bizirik ezetedago?

Artikuluska honek, ikusi duzunez, lurretik kanpoko biziaren aipamena dakar soil-soilik, ez panspermiarena: ez dira gauza bera.

Jakina, Azkuek ez zuen inolako ekarpenik egin esku artean dugun eztabaidara, baina hona aldatu ditugun lerro murriz horiek, nire ustez, oso esangura handikoak dira, hainbat aldetatik. Lehenengo eta behin, nahikoa garbi erakusten digute Azkue gazteak jarraitu egiten zituela orduko eztabaida zientifikoak, eta eguneratuta zegoela hein batean. Harrigarri suertatu zait hori. Nik beti uste izan dut, XIX. mendearen amaierako Bilboko giroan bestelako kezka zeudela, eta, horrenbestez, orduko irakurketak ere bestelakoak izango zirela, ez hain unibertsalak, nolabait esateko. Horrek, besteak beste, galdera bat ekarri dit berehalakoan: zein bibliografia zegoen eskuragarri sasoi horretan Bilbon, eta gainerako euskal hi(er)rietan? Eta hurrengo galdera bat ere: Azkuek aldizkari frantsesen bat ikuskatuz txiripa hutsez leitu zuen izarretako bizidunen kontu hori, ala irakurketa sistematikoak egiten zituen? Halaber, harrigarri suertatu zait ikustea, Azkuek ez duela irakurritakoa kolkoan bere erudizio propioarentzat bakarrik gorde, aitzitik, *Euskalzaletze* aldizkarian “baserriar ezjakin eta letrabakoen” artean zabaltzen ahalegindu da, alegia, gaur egun dibulgazio zientifikoa deritzogun hori egiten harapatu dugu. Eta baten batek argudia dezake, zelan edo halan papera “baltzitu” beharrean zegoela, eta, hortaz, hain zuzen ere gai “hori” aukeratu izanak ez duela aparteko esangurarik. Neuk baduela errepikatuko dut, eta gainera erantsiko, Azkue gaztearen izaera ireki eta jakin-gosearen adierazgarri argia dela.

Bestalde, pasarte horrek badu konparatibotzat joko dugun garrantzi bat. Alegia, aurreko orrialdeetan ikusi dugun Lafitteren zientziarekiko –eta orokorrean– jarrera goibel eta itxia gogoratuz, makina bat urte lehenagoko Azkue horrengan aurkitu dugun irekitasun eta kosmopolitismoak liluratuta utzi gaitu, eta, zer esanik ez, egiaztatu egin digu J. Kintana Goirienak bere *Vizcaytik Bizkaira?* liburu laket eta maratzean aurreratu zigun Azkue arrai

eta begikoa. Azkue apaiza da Lafitte den bezalaxe, eta artikuluska horretan ere argi adierazi arren “Jaun altsuan besotik dingilizka dagozan izar” horietaz mintzo dela, Azkuerengan hori ez da defendatu beharreko hesia bilakatu. Alde horretatik, Azkuek Obabako abade modernoa gogorarazi dit, Laplace eta Joseph Conrad irakurri dituen, eta ez, oster, iturritzat Solino zaharkitua duen Camilo Lizardi eruditoa. Orobat, nik esango nuke Azkue horrek ez duela inolako zerikusirik zahartzaroko Azkueren argazkietako gizon ospindu eta bentzutu horrekin.

Ez dago esan beharrik, Bilbon 1910 irian derrigorrez sintonizatu behar zuten elkarrekin, *Euskalzale* aldizkarian bizi extralurtarrari buruzko oharra argitaratu zuen Azkue lekeitiar kosmopolitak, eta ziliportaren kezka bihotzaren zolan daroala bizi izan zen Aldudeko medikuak. Alde horretatik ere, ez da batere harritzekoa, Bilbon Azkueri egin zion bisitaldi laburraren kariatz, Etxeparek hamar urte beluago idatzitako “*Bilbao*-tik jin nintzan giberat egun hartan berean, eletrik-hari ezin hautsizko bat bezala loturik jarraikitzen zitzaudala urrundu arau...” aitopena. Noiz arte irauen zion Azkuerekiko esteka “eletriko” horrek?

Zernahi gisaz, Arrhenius-en ideiek laborategiko saio ugari bultzatu zituzten, esaterako, Paul Becquerel landare-fisiologo frantsesak egin zuena, esporek eta bakterioek espazio sideraleko baldintzak ea jasan ahal zituzten egiaztatze. Ikerlari gehienak ondorio berberera iritsi ziren, alegia, izpi ultramoreak hilkorrak dira, eta arrazoi horrengatik panspermiaren hipotesia erdi lotan geratu zen hainbat hamarkadatan.

Areago, 1920. urteetan Alexander Oparin biokimikari errusiarrak eta J.B.S. Haldane genetikari britainiarrak generazio espontaneoaren hipotesia berpiztu zuten zeinek bere aldetik, era sofistikatutago batean. Bertsio berri horretan, berezko sorkuntza ez da dagoeneko gertatzen Lurrean, iraganaldi urrun batean baizik, eta gainera, izatez guztiz behagaitza da, denbora luzeegia behar baitu laborategian bururatzeko. Ikuspegi horrekin bat, 1953an Stanley Miller eta Harold Urey kimikari estatubatuarrek esperimendu bidez erakutsi zuten, aminoazidoak sor daitezkeela, amoniako, metano eta karbono monoxidotik abiatuta. Esperimendu hori ospetsu bilakatu zen, eta, Oparin-Haldane paradigma da, nolabait, biziaren jatorriaren inguruan gaur egun gailen dirauena.

Hala ere, 1960. urtearen bueltan Carl Sagan-ek berrikusi zituen Arrhenius-ek zirriborrotutako eszenarioko alde fisikoak eta biologikoak, eta, oinarritzko hipotesi horri bestelako hausnarketa batzuk erantsita, Sagan-ek iradoki zuen kanpo-aldeko planeten ilargiak direla eguzki-sistemaren baitan unibertso zabaletik ailegaturiko bizi extralurtarra bilatzeko lekurik aproposenak, eta bereziki Triton seinalatu zigun, hots, Neptunoko ilargirik handiena.

Gerora, panspermiaren ideia bizkortuz joan da, baina, nolabaiteko duintasun zientifikoa lortu badu ere, ortodoxia zientifikoak bizia Lurrean bertan sortu eta eboluzionatu izan dela hobetsi du. Edozelan ere, oso ospe handiko zientzialarien izenak aurkituko dituzu panspermiaren ideiarekin estekatuta zelan edo halan, bai biologo sonatuak, adibidez Francis Crick DNAREN helize bikoitzaren deskribapenagatik Nobel saria koirabazi zuena

1962an, eta bai astrofisikariak ere, Fred Hoyle kasu, zeina, idazki zientifikoek gain zientzi fikzioaz ere baliatu baitzen bere ideien zabalkunderako.

Espekulazio ugariren iturria bilakatu da panspermia, eta, esate baterako, Lurretik kanpo biziaren jatorria bilatzetik bizi adimenduduna bilatzera igaro dira baten batzuk. Eta horren froga, zientzi fikzioan argumentu arrunta izateaz gainera, hor dugu Drake-ren ekuazio ospetsua (1961), galaxian komunikazio interestelarrerako gai diren zibilizazio extralurtarren kopurua estimatzeko iradoki zena. Drake-ren ekuazioa honela planteatu da:

$$N = R^* \cdot f_p \cdot n_e \cdot f_l \cdot f_i \cdot f_c \cdot L$$

non,

N: komunikazio interestelarrerako gai diren egungo espezieen kopurua baita, eta

R*: izar-eraketaren batezbesteko tasa, galaxiaren bizitzan promediatua,

f_p: planetak dituzten izarren frakzioa,

n_e: bizia mantentzeko egokiak diren planeten batezbestekoa, planeta-sistema batean,

f_l: bizia benetan garatu den planeta egokien frakzioa,

f_i: bizi adimenduduna garatu den planeta bizi-eroaleen frakzioa, eta

L: zibilizazio teknologiko baten batezbesteko bizitza.

Kontuak kontu, Drake-ren ekuazio horretan soilik R* delakoa estima daiteke konfiantza-mailaren batekin. Beste hiru faktore, hots, f_p, n_e eta f_l, etorkizuneko ikerketek zehatz ditzakete hein batean, hein hori txikia bada ere. Gainerakoak, espekulazio hutsak dira, eta, ziurrenez, espekulazio hutsak izango dira geroan ere. Horrenbestez, ekuazioa aplikatuta N horrek har dezakeen balioa 0tik mila milioiraino irrista daiteke, nahiz eta normalean aipatzen zaigun emaitza 50 izan, hau da, berrogeita hamar zibilizazio ei daude galaxian, gurekin komunikatzeko prest.

Hori ikusita, niri lord Kelvin-en frogapen matematiko dotoreen paraderoa datorkit burura. Kontura gaitezen, hizkera matematiko apain batean Drake-ren ekuazioak, gutxi gorabehera, gure Azkuek idatzi zigun gauza berbera adierazten du: “Bizigarriak dagozan tokian ¿bizirik ezetedago?”. Ba, horixe.

6. Zumaian

EUSKALDUN IDAZLE BATEK ASMA DEZAKEEN LANIK EDERRENA

Azkuek 1914ko maiatzean estreinatutako bere bigarren opera, *Urlo* titulatutako zena. Bere obrarik hoberena zelakoan daukagu Azkue.

Libretorako *Gainzabalgo eiztariak* antzerki laburrean oinarritu zen, hain zuzen Zarauzko euskal jaietan saritu zioten idazlan bat. Opera estreinatze-ko Euskeria Orfeoia aukeratu zuen, eta Sebero Altube koru-zuzendari. Tenore gisa Diogenes Egileor hartu nahi izan zuen, Europa osoan karrera distiratsua egina zuen bilbotarra. Zuzendaritzat Lamote de Grignon katalana hautatu zuen, eta Bartzelonaraino joan zen, partiturak eroan eta obra azaltzera. Orkestra ere Bartzelonakoa zen. Bilboko estreinaldiaren ostetik, Baionan nahi zuen hurrengo ekitaldia, eta horretarako Cazenave tenore hazpandar ospetsua –Parisen-eta ibilia– zeukan gogoan. Dirudienez, bazeukan Euskal Herritik kanpo tularatzeko asmoa, edo behintzat horixe pentsa daiteke, libretoa gaztelaniara eta alemanerara itzuli baitzuen.

Alabaina, egundoko porrota bildu zuen Azkuek. Lau oilo besterik ez ziren hurbildu Campos Elíseos antzokira. Bestalde, orkestra bikain aritu zen, baina Euskeria Orfeoiak ez ei zuen maila bera lortu. Entzuleei, gainera, zaila suertatu zitzaion Azkueren obra, eta gustatu ez. Okerragoa dena, tenorea ahotsik gabe gelditu zen, eta bertan behera utzi zuten hurrengo eguneko ekitaldia, bigarren aukera izan zitekeena.

Urlo ez zen kritikaren gustukoa izan. Oro har, puntu berera jo zuten kritikari guztiek: Azkuek bazeukan talentua, bai, baina ideia musikal larregi tartekatutakoz zituen, melodia jakin batzuk aukeratu eta horiek garatu beharrean. Halandaze, Azkueri xahutu egin zitzaion erabat *Urlo* berriro antzezteko itzaropena. Gainera, orduko hogeita bost mila pezeta galdu zituen estreinaldian.

Halako kalamitate artistiko zein ekonomikoaren aurrean Azkue lur jota gelditu zen, arras gogogabetuta, eta bururatu zitzaion Loiolako komentura

Txomin Agirre Badiola (Ondarroa, 1864; Zumaia, 1920). Gasteizko Seminarioan apaiztu zen 1888an. Lehenik Karrantzara bidali zuten abade, baina gero, hil arte, Zumaiaiko moja kameldarren komentuan egon zen kaperau: kargu lasaia, idazlarenako astia utzi ziona. Azkueren adiskide eta jarraitzailea, Eusko Ikaskuntzako I. Kongresuan, 1918an, Txomin Agirrek zuzendu zuen Euskaltzaindia eratzea deliberratu zuen Hizkuntza saila. Hurrengo urtean euskaltzain oso izendatu zuten. Artikulu ugari argitaratu zituen, baina, bere hiru nobleak, eta batez ere azken biek, eman zioten fama euskaldunen artean: *Auñamendiko lorea* (1898), *Kresala* (1906) eta *Garoa* (1912). Pertsonaia irreal eta mitifikatuak sortu zituen, euskaldunak berezkoak dituen edo behar lituzkeen bertute eta dohain guztiak biltzen dituzten pertsonaiak: zintzoak, langileak, bizkorak, etxekoiak... Jada etorrixa zen aldaketari bizkarra emanda, industrializazioaren aurreko garaia idealizatu eta goraiatu zuen.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).



ihes egitea, alegia, jesuita sartzea. Dirudienez baina, Loiolarako bidean Zumaian gelditu zen, Txomin Agirre adiskide minarekin atsekabea eztitu nahiz. Txomin Agirrek Bilbora itzul zedin konbentzitu zuen, eta aholkatu zion ekaitzari aurre egin ziezaion, branka jasota. Azkuek horrelaxe egin zuen: zorrak kitatu, eta handik aurrera euskal hizkuntzalaritzan murgildu zen buru-bihotzez.

Jean Etxepare, ostera, ez zen Zumaian gelditu bertatik igaro zenean 1928an Loiolatik bueltan *beribilez*, baina, “ditaken herririk begikoena” iruditu zitzaion, liburuaren hamargarren kapituluan. Urte batzuk ziren ordurako, Txomin Agirre hil zela; hala ere, hein handi batean Etxeparek herriari topatu dion xarma badirudi *Garoa* eta *Kresala* ondu zituen egileari dariola:

Maite dugu orok Zumaya. Errana daukute hor bizi izana dela hanitz urtez, omonier, Domingo Agirre apez, eskual-idazle aipatuenetarik bat. Nolaz etzuden izkribatu liburu ederrik, holako tokian? Gizonak zoriona ez aurkitzekotz hemen, nun aurki?

Beribilez irakurtzean, ematen du Zumaia aitzakia hutsa dela Txomin Agirrez berriro idazteko, izan ere, lehenago, 1922an, artikulu luze bat eskaini zion *Garoa* eleberritari, dagoeneko aipatuta dugunez. Gainera, aldeak alde, badago leku biotan ideia bat zelan edo halan errepikatu dena. Idazlan bi horietan Amerika darabil Etxeparek, labur bada ere. *Gure Herria* aldizkariako artikuluan, *Garoa* eleberraren azalpena jorratu aurretik, Etxeparek egilea aurkezten digu, eta bai haren hiru izenburu nagusiak. Horrekin amaitutakoan ondoko lerroak erantsi zituen, hain zuzen nobelaren gaineko kontuekin hasi orduko:



Zumaia XX. mendeko lehen urteetan: lotuta dauden belaontziek erakusten dute portuak izan zuen trafikoa bizia; laster baporeek baztertu zituzten bi edo hiru mastako belaontziak. Zumaiaiko bista horretan Zuloaga margolariak eraikitako etxea (1914) ikus daiteke eskuin aldean; hortxe ezagutu zuten elkar Txomin Agirrek eta Ortega y Gasset filosofoak. Bestalde, Erribera kaleko mutur batean mojen komentua zegoen, eta zuhaizdun lorategiaren aldamenean kaperauaren etxea, diligentzia aparkatuta dagoen lekuan.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

Bizia luzatu balitzakio –Erromanoen denborako euskaldun mintzatu ondoan [*Auñamendiko lorea*], erakutsi ondoan gero itsasturien nekabideak [*Kresala*], azkenik lur-langileenak [*Garoa*]–, baditeke xehatuko zauz-kigun, beti kondairaz apainduz, euskaldunen lanak itsasoaz haraindiko leihorretan: euskaldun idazle batek asma dezaken lanik ederrena osatu baitzuten orduan Agirrek.

Itxura osoz Etxepare sinetsita zegoen, euskaldunek Ameriketara bizi izandako ilusio eta nekeetatik abiatu behar dela euskaldun idazle batek asma dezakeen lanik ederrena. Ez zen bakarra iritzi horretan, zenbait urte lehenago, 1889an, Unamunok ere esanda baitzuen euskal idazleek hobe zuketela legenda erromantikoak uztea eta horien lekuan garaiko ilusio eta errealtateak lantzea, tartean Ameriketarako emigrazioarena. Eta hein batean horren froga praktikoa litzateke Etxepareren *Buruxkak* ireki zuen *Ameriketako orboitzapenak* kontakizun autobiografiko karana.

Era berean, *Beribilez* liburuaren hamargarren kapituluan ere Amerikak badu agerpen sinboliko eta garrantzizkoa bizpahiru orrialdetan zehar garaia. Autoan doazela itsasoaz mintzatuz, Etxeparek hodeiak eta lainoak aipatzen ditu, eta bai, urrutirat, zeru-ertza eta hodeiak elkartzen diren gunean, erresuma bat gaitza, “nihun ikusten ez den bezalakoetarik. Ametsetarik baizik etzaiku halakorik agertzen. Etzen ametsetakoa bizkitartean hura; zinezkoa zen”. Jon Casenavek adierazi duenez, orrialde horiei *Spleen de Paris* ospetsuaren kutsua darie –*J'aime les nuages... les nuages qui passent... là-bas... Les merveilleux nuages!*–, eta argiro erakutsiko ligukete, ziurrenez, Etxeparek Baudelaire poetarekiko zuen mirespena. Literatur erreferentzia literario horrez gainera, Casenaveren iritzi, orrialde horietan azaldu digu Etxeparek zerk damaion gizakiari –eta bai idazleari ere!–, beti aurrera, beti urrunago joateko gutizia. “Zertako joan ziren Ameriketara euskaldunak, gure antzinakoak, gure osaba eta izebak? Etxepareren ustez, ametsetarik ikusten zuten erresuma miresgarri haren atzemateko abiatu ziren, zorionaren ondortik bazoazten, mundu berria, mundu hobea atzeman beharrez”:

Ori, nahuzu jakin ene barneko berri? Ene ustea da, ene sinestea, hari luzaz so egonik zirela noizbait abiatu itsasoz-itsaso gure arbasoak. Hauk bethi joanki, joanki bethi aitzinago, eta hura bethi haratago gibelatzen, baina bethi bere tokian halere eta bethi berdin eder; egunetik egunera zoragarriago baizik ez, izaitekotz. Ez dakit behinere kausitu ahal ukan zuten gaizoek; dakitana da kausitu zutela bederen Ameriketako lurra. Etzen hau lillurazko erresuma bat, ala ba?

Eta pasarte batzuk geroago ondokoa ere aitortuko digu Etxeparek:

– Ni, iduripen bereko nintake, gazteago banintz. Oixtiko erresuma haren ondortik banindoakela suhar, ez ahal duzu dudarik?

Gazteago banintz, Ameriketara joango nintzateke suhar: horixe da Etxeparek dioskuna. Egia izango ote da? Damututa al dago Euskal Herrian higatu bizitzaz? Eta beste Euskal Herri bat eraiki ez izanaz? Benetan dago etsita, ala ihakinetan dabil, holako planta literarioak eman guran? Ez dauka gu zehatz jakiterik. Edozelan ere, ezin dugu ahaztu Jean Etxepare osasuneha nahikoa makal ibili zela 1928tik aurrera, eta bihotzkeoak jo zuela 1929ko bedatsean. Hortik aurrera egoera horrek, jakina, ez zion baikortasunerako arrazoi handirik emango. Beharbada, aldarte goibel horrek diktatu zion ondoko balorazio kategorikoa:

Zer gibelondo ene lanak? Frantsesez aitortuko dut lañoki: *résultat nul, fiasco complet*. Aztura zaharrak ezin garaituz, urrats berari narraikio halere gaur den egunean, norbaitentzat noizbait ukanen duelakoan erakaspén zerbaitño.

Lerro horiek 1929an argitaratu zituen *Gure Herria* aldizkarian, eta hogeita hamar urte luzeko idazle-lanaren bilan ezinago negatiboa damaigute. Adinean sartu den Etxepare gaixo hori jakitun dago debalde aritu dela, konturatu egin da alferrik izan direla bere neke guztiak, bakar-bakarrik egin duela bere ibilaldi literarioa, ez duela bere belaunaldiko inor erakarri. Soil-soilik hurbildu zaio gazte bat, hain zuzen Piarres Lafitte irakurle fin eta bipila, baina berorren ohar saminak pairatu behar ditu. Oso desberdinak dira gizon biak elkarren artean; hala ere, medikuak bizi duen bakardade intelektual latzean pozik dago lagun bat edukitzeaz, eta bere barnea irekitzen dio: hori bai, mesfidati, urrunegi joan gabe.

Nekatuta dago. Hala ere, ohitura zaharra –idaztearena– gailentzen zaio Etxepareri, eta, ezinbestean, bide beretik segitzen du, bere lanak “norbaitentzat noizbait ukanen duelakoan erakaspén zerbaitño”. Idazten jarraitzen du, bai, baina fede hutsez, etorkizuneko irakurleen esperantzaz, etsita baitago bere garaikideez. Oraindikarren, amets baten ondotik dabil Etxepare, bizitza osoan legez.

Beste hainbatetan bezalaxe, aurreko aipamen labur horretako Etxeparek –*aztura zaharrak*– Pio Baroja ekarri dit burura, eta haren “Tenemos algunos el vicio de escribir. Es difícil curarlo.” gogorarazi dit. Era berean, Barojak argitaraturikoa da “hogeita hamar urte barruko irakurlearentzat” idazten zuela. Ez dago esan beharrik, Aldudeko medikuaren “noizbait” horrek hogeita hamar urteko baino epe luzeagoa adierazten du, alegia, Zestoako medikuarena baino sinesgogortasun sakonagoa, desesperantza hitsagoa. Inoiz pentsatu izan dut Etxepare zuzenean guretzat idazten aritu zela.

Ez dago esan beharrik, Etxeparek ez zuen bigarren aukerarik eduki, Azkueren *Urlo* operak eduki ez zuen bezalaxe. Jean Etxepare 1935eko urtarilaren bederatzian hil zen, Kanbon, bat-batean, eri bat bisitatzera atera zelarik, enbolia batek jota. Hainbat urte geroago, 1962an, honelaxe kontatu zuen Etxeberri apaizak:

Heriotze ederra oraino Etxepare mediku eta eskualdun idazle handienaren heriotzea.

1935eko urtharrilaren 9-a zen.

Izan zuen aratsean eri baten ganat galdea. Doi-doi sartua zen berzte eri baten ganik eta biziki nekhatua. Ahaide batek nahi izan zuen lagundu: bainan ezetz erranik, bakarrik gan zen ahal bezain laster. Eriaren etcherat-eta, bere chapela dilindan ezartzerat egiten du, eta huna non bet-betan erortzen den: alditchar delakoan, bere baitharazi nahi dute. Zorigaitzez ez da probetchurik: bihotza gelditua du, hila da.

Hurrengo larunbat goizez izan zen ehorzketa. Urtarrilaren 18ko *Eskualdunako* kronikak dioenez, 30 bat apaiz, eskoletako lagunak, aspaldiko adixkide zaharrak, eta inguruetakoko mediku gehienak egon ziren. Hilerrian Louis



Jean Etxepare medikua: hauxe da oraintsu arte eza-guna izan den haren argazki bakarra. Ziurrenez, jadanik Kanbon bizi zelarik egingo zioten. Oraingo honetan ez du biboterik: gainerako argazkietan bibotedun agertzen zaigu Etxepare.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

Dazantzek egin zuen mintzaldia euskaraz (ikus 2. eranskina); frantsesez, hitz sarkorrak jaulki zituen Duron Kanboko medikuen batasuneko buruzagiak. Horiez gainera, *Eskualdunak* paratutako kronikatik ohar bi ekarri nahi ditut, izan ere, mamiaren aldetik larri-larriak baitira nire iritziz, sinadura barik agertu arren. Lehenengoan *Buruxkak* liburua hilotzaren kontra erabiliko dute:

Buruchkak liburu horrek baditu choko zathi eta idaia batzu ez gure gogokoak. Azken urthe hotan ez dugu uste sinadura emanen zioten Etchepare jaun medikuak.

Aurreko kapituluan ikusi dugunez, Aldudeko medikuaren eskutitzek ez dute zalantza-izpirik uzten. Beharbada, *Buruxkak* liburuaren hainbat xoko, zati eta ideia ez dira kronika-egilearen gogokoak izango, baina, Etchepare edadetuak bai emanen zion sinadura, Etchepare gazteak idatzi liburuari, “usain on ezin galduzkoa” zuena. Piarres Lafittek bazuen horren berri.

Antzerako helburu moralizatzailea suma daiteke aldatuko dugun bigarren pasarte honetan ere:

Erran dezagun, egia beita, Etchepare jaun mirikuak, igandeko meza ez zuela sekulan huts egiten, Pazkoak ere egiten. Ez duke dolu orai.

Erabat bere lerroan, mundu honetan gelditu zirenen etsenplu gisa erabili nahi du *Eskualduna* astekariak Jean Etchepare hilobiratu berria. Hala ere, Auzkia etxeko Setoain andereak zuzenean kontatu zigunez, berak txikitan ezagutu medikua ez ohi zen mezatara joaten, *oso lanpeturik ibiltzen baitzen*.

DAVID ETA GOLIAT

Beharbada goseak hilko zituen dinosauroak. Litekeena da bazkatzen ziren landaredian aldaketa handiak gertatu izatea, nahiz eta erabateko aldaketa Kretazeoaren erdi-aldean izan zen, landare loreduen proliferazioaren ondorioz. 1962an plazaratu zen hipotesi interesgarri baten arabera, landare loreduen agerpenak tximeleten agerpena ekarriko zuen, berauen lehen fosil ezagunak askoz geroagokoak badira ere. Tximeleten beldarrak landarez hazten ziren soil-soilik. Beldarren kopurua txoriek mantentzen dute labur, baina beldarrak lehen aldiz aurkeztu zirenean, artean ez zegoen txoririk mundu honetan. Hortaz, beldar-populazioak hazi egingo ziren inolako galgarik gabe, hainbestean non ez baitzen dinosauro herbiboroentzat landaririk gelditu. Halandaze, gosez hilko ziren, eta berorien ondotxotik dinosauro karniboroak ere.

Dinosauroen suntsipenaren ikerketa oso gaurkotasan handiko gaia bilakatu da, eta horren gaineko interesa zientzia-komunitatetik kanpora ere zabaldu da; jende arruntaren jakin-gura piztu du, are eta umeena ere. Kontua ez da horrelakoa izan beti, eta hiru aldi desberdin bereiz daitezke aintzat hartuz urtean zenbat argitaratu

Eudia pavonia tximeletaren beldarra. Intsektu askoren bizi-zikloan fase oso desberdin bi agertzen dira, espeziearen estrategia biologikoan zeregin berezi eta zehatzak dauzkatenak. Intsektuaren heldua, batetik, efimeroa izan ohi da, hau da, iraupen arras laburrekoa, eta egiteko nagusi bi edukitzen dituena, alegia, ugalketa eta sakabanaketa. Bestetik, larba egoten da –beldarra, tximeletei dagokiela–, bizi-ziklo gehiena betetzen duena eta batik bat elikatzear arduratzen dena. Zaku sakon batekin konpara genezake beldarra, janariez bete behar dena. Izan ere, beldarrak hazteko eta metamorfosirako behar du janaria, eta horrexegatik asko eta asko behar du; tximeletak, oster, hazkunde-aldia iragan delarik, hegaz egiteko behar du janaria, eta hori askoz merkeagoa da. Horrek azaltzen du beldarren ase-zintasuna.

(ARG.: L. DANTART.)



den gaiari buruz. Benton-ek aztertu du bibliografia hori, eta ohartu egin da dinosauroen suntsipenaren gaineko ikuspegia aldatuz joan dela ezari-ezarian. Honelaxe bereiztu ditu hiru aldiok: (1) auzirik gabeko fasea (1825-1920); (2) fase diletantea (1920-1970); (3) fase profesionala (1970etik gora).

Lehen sasoi batean, XIX. mendeko zientzialariek ez zuten dinosauroen suntsipena gertaera nagusitzat jo, arrazoi bi direla-eta. Batetik, oso dinosauro gutxi zeuden deskribatuta 1840. urtearen aurretik, eta artean ez zen nabarmendu taldearen berebizikotasuna; hortaz, dinosauroek ez zuten interes berezirik sortu. Nolanahi, 1842an Richard Owen-ek Dinosauria ordena eratu eta izendatu zuen, *Megalosaurus*, *Iguanodon* eta *Hylaeosaurus* generoak bertan inkludituz. Alabaina, geologiaren alorrean hain zuzen ere urte horietan ordeztu zuen uniformitarianismoak katastrofismoa, eta halaber, darwinismo agertu berriaren hautespen naturalak azpimarratu egin zuen suntsipenaren izaera gradual eta jarraitua. Ildo horretatik, asumitu egin zen dinosauroak apurka-apurka gutxituz joan zirela Kretazeoan. Kontuak horrela, dinosauroen suntsipenak ez zuen aparteko kezkarik sortu XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako paleontologoen artean.

Lehen dinosauroak 1824an eta 1825ean deskribatu ziren, baina, musker bitxi erraldoitzat interpretatuz. Urte horietan nahikoa onartuta zegoen suntsipenaren ideia, dela espezie-mailan, dela genero-mailan, eta horrenbestez, ez zirudien oso apartekoa horrelako narrasti suntsituak aurkitzea. Ordurako baztertuta zeuden XVIII. mendeko argumentu teologikoak, zeintzuen arabera, suntsipenaren posibilitatea onestea, izatez, jainkoari errua egozte baitzen: kontura gaitezen, kreazioan hutsak egin zituela esatearen parekoa da. Dena dela, mamut eta mastodonteen aurkikuntzek gero eta begien bistakoago bihurtu zuten espezie suntsituak badaudela, eta 1750etik aurrera nabarmen handitu zen horretaz konbentzitura zeudenen kopurua. Hala ere, batzuen iritiz espezie fosil horiek bizirik zirauten, kontinente berriaren urruneko lurralde zabal esploratu gabekoetan. Esate baterako, horixe uste zuen Jefferson Estatu Batuetako presidentek, eta horrela, Clark eta Lewis Ipar Amerikako ipar-mendebaldea esploratzera abiatu zirenean, kreatura misterioitsu horien ale biziak aurkitzea zegoen, jaso zituzten aginduen artean. Espedizio ospetsu hori 1804tik 1806ra bitartean egin zen, eta, esan gabe doa, mastodonte bizirik gabe itzuli ziren. Jeffersonek ez zuen inoiz espezieen suntsipena onartu, baina, bizirik inoiz topatu ez diren kreatura fosil erraldioen aurkikuntza gero eta sarriagoek –kasurako, lur-nagi erraldoia, orein erraldoia, edota askoz zaharragoak diren plesiosauro eta iktiosauroak– gero eta zalantzarriago bihurtu zuten ornodun erraldioen biziraupenaren ideia, eta, izan ere, Cuvier-ek eta beste batzuek ezin argiago frogatu zuten 1825erako suntsipenaren egia. Suntsipenarena ezeztazinekoa zen ordurako.

Cuvier-ek katastrofeetara jo zuen fauna fosilen suntsipenak azaltzeko. Cuvier-en ustez, aspaldiko denbora haietan sarritan gertatzen ziren bizia hankaz gora jartzen zuten katastrofe ikaragarriak, makina bat espezie akabatu zituztenak. Espezie batzuk, lur lehorrean bizi zirelarik, dilubio atergabeek irentsi zituzten; beste batzuk, itsasoko biztanleak berauek, uretatik kanpo gelditu ziren, bat-batean hondaleak gora egin zuenean. Era batera

edo bestera, espezie osoak deuseztatu ziren, eta soilik gelditu dira hondar gutxi batzuk, naturalistek nekez uler ditzaketenak. Nolanahi, Cuvier-ek ez zuen extrapolatu berak behatutako suntsipen katastrofiko lokala maila globaleraino. Haren ustez, katastrofeen eragina eremu zehatzetara mugatuko zen, zeren, biziak beste inon iraun behar baitzuen, erregistro fosilari jarraipena eman ahal izateko. Cuvier-en sasoian ez zegoen dinosauroei buruzko datu handirik, eta Mesozoikoko narrasti ezagun bakarrak urtarrak zirenez –krokodilioak, iktiosauroak, plesiosauroak–, asumitu egin zuen, Mesozoikoaren amaiera arte, ornodunak itsastarrak izan zirela nagusiki, edo aintzira-biztanleak gehien-gehienez. Cuvier-en iritzian, Tertiarioko ugaztunak izan ziren lur lehorreko lehen biztanleak bete-betean. Izatez, Cuvier-ek erabateko fauna-aldaketa bat igarri zuen Kretazeo/Tertiario mugan (K/T delakoan), itsasoaren erregresio-fase nabari batez azaldu zuena.

Elkarren ondoko suntsipen katastrofikoak eta berorien osteko kreazioak gertatu zirela asumitzea da, Cuvier-en katastrofismoaren beste posibilitate bat, baina, hark formulatu ez zituen –eta nekez aurreikus zitzakeen– ondorioetaraino iristen dena. Alcide d’Orbigny (1802-1857) izan zen era horretako ondorio muturrekoen defendatzaile nagusietariko bat. Orbigny-ren katastrofismoa asko urrundu zen Cuvier-enetik, eta izan ere, ematen du 1849an proposatu zituen ondoz ondoko hogeita zazpi kreazioak onargaitzak direla, bai zientziaren ikuspegitik eta bai eskritura santuen berbaz berbako interpretaziotik ere, baina, hala ere, hipotesi hori nahikoa arrakastatsu suertatu zen, halatan non seriozki lehiatu baitzen zenbait zientzialarik defendaturiko azalpen eboluzionistekin.

Charles Lyell-ek, jakina, ikuspegi ez-katastrofista aurkeztu zuen 1832an. Suntsipena ere munta handikotzat jo zuen, baina espezie-mailan globalki baino areago. Lyell-en ustez, aldi jakin batean bizi ziren espezieak ingurune-baldintzen araberakoak ziren, eta delako baldintza horiek aurkako bilakatzean, orduan suntsipenak ezinbestez gertatu behar ziren. Suntsipena bost erataria ulertzen zen 1820ko eta 1830eko hamarkadetan. Ikuspegi bat zen, suntsipenak hainbat bidez gertatu zirela katastrofikoak. Ikuspegi horren barruan, Agassiz urrats bat harantzago joan zen, eta suntsipen-episodioetan espezie guztiak desagertu eta jainkozko kreazio berri batez ordeztu zirela defendatu zuen. Hirugarren ikuspegia Cuvier-ena zen, eta onartzen zuen suntsipena maila lokalean gertatzen dela, arrazoi fisiko katastrofikoak direla-eta. Laugarren eta bosgarren ulerkeretan suntsipena espezie-mailan jazotzen zen, dela ingurune-baldintzak desegoki bilakatu zaizkielako (Lyell-en erara begietaratz), edo dela espezieek beren iraupen naturala gainditu dutelako.

Teoria darwindarraren etorrerak, hautespen naturalaren bidezko eboluzioa 1859an plazaratu zuenak, ez zuen masa-suntsipenen gaineko eztabaidarik sortu, eta ez ere zehazki dinosauroen suntsipenaren gainekorik ere. Erregistro fosilean oinarrituriko filogenia-azterketek ere ez zuten horrelakorik bideratu. Darwin ohartu egin zen ammoniteen desagertzen azkarrak Kretazeoaren amaieran, baina benetako fenomenotzat jo beharrean, erregistro fosilaren hutsuneekin uztartu zuen. Huxley-k 1870ean dinosauroen sailkapenaz idatzi zuen, orduan ezaguturiko hamasei generoak aintzat har-

Hodei Gorri sioux buruzagiaren gerlariek behin baino gehiagotan garaitu zituzten Estatu Batuetako soldaduak, baina, ostera, Othniel C. Marsh paleontologoaren taldea babestu zuten, berorrek Dakotako Muino Beltz sakratuetan egin zuen dinosauro-laginketan. Hainbat astetako lanaren ostean, tona bi dinosauro-hezur bildu zituen zalgurdietan. Esker onez, Yale unibertsitateko irakasleak Indiar Arazoetarako Departamentuaren ustelkeria salatu zuen behin eta berriro. Hodei Gorriren eta Marsh paleontologoaren adiskidantza iraunkorra izan zen: argazkia 1883an atera zen, buruzagiak New Haven-era egin bisitaldian.

(ARG.: M. JAFFE).



tuz; hala ere, ez zuen txintik esan euren suntsipenaz. Othniel C. Marsh paleontologo amerikarrak 46 dinosauro-genero zerrendatu zituen 1882an, eta soilik adierazi zuen euren kopurua urrituz joan zela, harik eta Kretazeoaren amaieran erabat desagertu arte. Geroago, 1895ean, 68 genero zerrendatu zituen, baina suntsipenik inola ere aipatu barik.

Nolanahi, XIX. mendearen amaiera-aldean eta XX.aren hasieran paleontologo asko ikuspegi ez-darwindarretarantz aldatu ziren, hala nola ortogenesi eta finalismorantz. Eredu horiek asumitu egin zuten eboluzioa zelan edo halan zuzenduta zegoela, eta patroi erregularrak daudela eboluzio-prozesuak eraentzen. Ildo horretan, dinosauroak patari moldagaitz primitibotzat hartu ziren, ugaztunak bideratu beharko zutenak. Horrela delarik, arraza-senilitatearen ideia sortu zen, hau da, luzaro bizi izandako animalia taldeak zaharkitu egiten zirela eta zimeldu egiten zitzaizela agertu zirenean zekarten berrikuntza ebolutiboa. Nolabait, parekotasuna aurkitu zen gizabanakoen bizitzaren eta leinu ebolutiboen iraupenaren artean. Hasiara batean leinuak indartsu agertzen dira, baina denbora igaro ahala ekidin ezinekoa izango da leinuaren zaharreria –seneszentzia arraziala– eta

bai suntsipena ere. Horrelako ideiak plazaratu zituen W. E. Swinton paleontologoak 1930eko hamarkadan. Dinosauroak fleitean ibili ziren hainbat milioi urtez, baina azkenerako agortu egin zitzaizkien bizirik irauteko premiazkoa den aldakortasun genetikoa. Taldearen zaharrieraren froga modura, kasurako, dinosauroen kranio hiperosifikatu adar eskergadunak –ustez garpren-hormona deskontrolatuek sortuak– edota estegosauroen bizkar-xaflak aipatu ziren, baina, oro har, dinosauroen suntsipena ez zen aztergai bihurtu, alegia, dinosauroen suntsipenak ez zuen jakingurarrik pizten.

Bigarren fasean, hau da, 1920-1970 tartean, pixkatxo bat interesgarriago bihurtu zen gaia, eta zenbait egilek, gutxi denetara, dinosauroen suntsipenaz idatzi zuten. 1960. urtera arteko artikulua, idazlan guztiz isolatuak izaten ziren, inolako eztabaidarik ekarri ez zutenak. Nolanahi, eboluzioaren sintesi berriaren etorrerak 1930-40 urteetan bazterreratu egin zituen ortogenesiaren eta arraza-senilitatearen ideiak, eta artikulua dinosauroen suntsipena sor zezaketen faktore biotiko eta fisikoen azterketarantz lerratu ziren.

Esate baterako, 1921ean William Diller Matthew paleontologo kanadarrak aldaketa topografiko graduala eta ugaztunen ordezipen progresiboa lotzen zituen hipotesia aurkeztu zuen. Haren azterketaren arabera, Kretazeo berantean eta Paleozenoan Ipar Amerikan gorakada kontinental nabaria eta bai mendigintza bizia gertatu ziren. Alde horretatik, dinosauroen fauna, ustez lurralde beheeretan eta zingiretan bizi zena, leku egoki barik geldituko zen, eta goi-lurraldeetara moldaturiko ugaztunek beteko zituzten esparru berriak. Ugaztun-fauna berri horiek, itxuraz, Asiatik iritsiko ziren.

Plazaratu ziren beste iradokizun batzuen arabera, klima-hozketa izan zen suntsipenaren kausa (1922), edo Kretazeoko dinosauroen gaixotasun-maila handitu izana (1923), edo dinosauroen arrautzak jaten zituzten ugaz-



Trizeratopsaren eskeletoa.

Trizeratopsak bederatzimetro luze ziren, eta bost tonakoak. Mustur gainean adar zorrotza zuten, errinozeroen antzera, eta begien gainean beste adar bana. Harrapakarien erasoetan burua makurtzen bidezuten eta adarrekin erantzuten. Kranio atzeko hezurgalak sama babesten zuten, etsaien hortzei bidea oztopatuz. Duten garezur hiperosifikatu adardun hori, animalia-talde horren zaharrieraren froga gisa ulertu da inoiz, hau da, dinosauroek iraupen ebolutibo luzegegia eduki zutela, eta horrexegatik suntsitu zela taldea.

(ARG.: K. NÚÑEZ-BETELU).

tun goiztiarrak (1925), edo sumendien erupzioak (1928). Dena dela, Glenn Jepsen-ek berrogeitik gora hipotesi zerrendatu zituen, 1964an argitaratutako dinosauroen suntsipenaren gaineko berrikuspenean, eta Benton-ek ia 70 bildu ditu.

Proposatu diren azalpen horietariko batzuk, oso ideia arrazonagarriak dira ezaguturiko datuen argira, baina beste asko benetan barregarriak dira, eta ematen du erdi txantxetan luzatu direla. Adibidez, guztiz arbuia garria da dinosauroak haitzuloetako gizakiek garbitu zituztela dioen hipotesia, zeren, dinosauroak erabat suntsituta baitzeuden lehen hominidoak agertu baino hirurogei milioi urte lehenagotik. Era berean, eutsiezinekoa da plater hegarietan iritsitako ehiztari berdeek kalitu zituztelako ideia. Halaber, ezin da inolaz ere defendatu, begi bistakoa denez, Noeren Arkako leku-falta izan zela desagertpenaren kausa; orobat, mundu prehistorikoaren asperdura erabatekoa izan zela argudiatu du baten batek.

Zernahi gisaz, fase diletantean aurkeztu diren hipotesietan Benton-ek estandar zientifikoaren erlaxazio nabarmena aurkitu du. Hipotesi horietako asko eta asko zientzia-aldizkari prestigiodunetan argitaratu izan dira, baina egileek ez zuten Kretazeoko erregistro fosilaren lehen eskuko ezagutza txiki-erik ere, norbere alorrean adituak izan arren. Itxura batean, dinosauroen suntsipenaren gainean laxatuta egon dira luzaro hipotesi zientifikoek beharrezko dituzten eskakizun hertsia, eta horrek ekarri du alor honetan mahai-gaineratu diren azalpen asko espekulazio eta aieru hutsak izatea, benetako hipotesi testagarrien mailara iristen ez direnak. Benton-ek hainbat eratako ahuldadeak sumatu ditu proposatutako hipotesietan.

Lehenengo eta behin, oinarrizko datu paleontologikoen ezjakintasun galanta aurkitu du, eta hori dela-eta, hipotesietariko asko soil-soilik dinosauroen suntsipena azaltzera murriztu dira, inolako aipamenik egin barik eurokin batera desagertu ziren gainerako animali taldeei buruz, hala nola, itsas planktona, ammoniteak, edota beste ornodun batzuk. Alderantziz ere, K/T jazokunea argitzeko asmoz hain muturreko eszenarioak postulatu ziren, non arras nekeza suertatzen baita ulertzea zelan iraun duten bizirik lur-landareek, intsektuek, igelek, muskerrek, sugeek, krokodiloek, dortoek, hegaztiak, ugaztun plazentalioek, eta abarrek. Era berean, hainbat hipotesitan oker daude erabiltzen diren gertaera ebolutiboaren kronologiak.

Bestalde, Benton-ek dioenez, zenbait hipotesitan enoratu egin dira hein batean funtsezko printzipio biologikoak. Esate baterako, izan ote zitezkeen dinosauroak benetako automaten modukoak, ezgauza direnak euron jokarrera aldatzeko? Edo, bestalde, posible al da biosfera bat modelatzea, zeinean faktore biotiko bakarra –epidemiaren bat, bizkarroiren bat, guruinen baten funtzionamendu okerra, lehia, harrapakaritzak– nahikoa baita hondamendi ekologiko erabatekoa sortzeko?

Azkenik, badirudi asuntzio orokor bat dagoela, dinosauroen suntsipena solastegiko jolas modura-edo jotzen duena eta ez gai serioztat. Alde horretatik, ornodun-paleontologo batek ez luke ezer egitekorik unibertsoaren jatorriaz edota minbiziaren genetikaz idatzitako artikulu batekin, ez bailioke inongo aldizkari zientifiko izendunek argitaratuko. Aitzitik, dinosauroen suntsipenari buruzko hipotesi diletante gehienak ospe handiko aldizkarietan

agertu ziren: *Science*, *Nature*, *American Naturalist*, *Journal of Paleontology*, *Evolution* eta abar. Ildo beretik, badirudi artikulu askotan erabilitako argumentazio-modua, zientziaren arlokoa barik, abokatutzarena-edo dela. Adibidez, era honetako arrazoiketak aurki zitezkeen: “Baldin eta asumitu egiten bada dinosauroak endotermikoak zirela –edota erradiazio ultramorea handituz zihoala Kretazeoan zehar, edota tximeleten beldarrak dinosauro landare-jaleekin lehiatu zirela, eta abar–, orduan zeraren zera ondorioztatzen da. Horrez gainera, baita asumitzen bada klima hotzago bihurtu zela –edo beroago, edo lehorrago, edo hezeago, eta abar–, horrek ez-dakit-zer hala-behartzten bide du”. Benton-ek dioskunez, bibliografia horretan zaila da topatzea datu eta frogen haztapen arretatsua.

Akatsak akats, aspalditik ni gehien erakarri nauen hipotesia Flanders-ena izan da, 1962koa, dinosauroak eta lepidopteroak, hots, tximeletak, elkarrengana hurreratzen dituenak. Hipotesi horren arabera, bi dira dinosauroen bat-bateko desagertzearekin bukatu zitezkeen gertaera berebizikoak: 1/ iratze-erako landaredi zaharra landare loredunek ordeztzea, eta 2/ lepidopteroak agertzea, soil-soilik landare-loredunek elikatzen direnak. Dirudienez, orain dela 200 milioi urtekoak dira lehen lepidopterotzat jo daitezkeen intsektuak, baina, ordena horretako ezaugarri tipikoak eta taldea bera ere Kretazeoan barrena gauzatu zirela esan daiteke, landare loredunekiko eboluzio paraleloan. Aldaketa gutxi eragin dute Lurraren paisaia eta ekologia angiospermoen –landare loreduen– etorrerak baino sakonago. Artean Behe-Kretazeoan gimnospermoak –landare lorebakoak– ziren nagusi munduko floretan, baina, zenbait talde gainbehera zihoazen abiada bizian, eta soilik koniferoak zeuden prosperatzen. Landare loreduen fosilik zaharrenak Behe-Kretazeoaren erdikoak dira, eta orain dela 130 milioi urtekoak datatu dira, baina, zabaldu eta dibertsifikatu egin ziren etengabe, halatan non, egun 250.000 espezie baitira, eta ostera, koniferoak soilik 550 espezie.

Flanders-en ustez, ez dago arrazoirik pentsatzeko tximeleten beldarrek eta dinosauro landare-jaleek ezin izango zutela batera subsistitu landaredi berbera jenez, baldin eta asumitzen bada, lepidopteroak Kretazeoan sortu eta berehalakoan agertuko zitzaizkiela euren populazioak erregulatuko zituzten etsai naturalak, dinosauro landare-jaleen populazioak erregulatzen zituzten harrapakariak bezain eraginkorrak. Halandaze, ondoko asuntzioan datza dinosauroak beldarrek *sarraskitu* zituztelako hipotesia: lepidopteroen agertzearen eta berorien etsai natural erregulatzailen agertzearen artean, hor denbora-tarte gutxi-aski luzea egon zen, zeinean beldarrek ez baitzuten etsai naturalik eduki, eta horrenbestez tarte horretan landare-hornidura gehiena jan zuten. Denbora-tarte horretan beldar-populazioak kontrolatu zuen munduko landare jangarrien hornidura, eta egoera horrek gorabehera handiak ekarriko zituen bai landare-ugaritasunean eta bai beldar-ugaritasunean ere, alegia, aseteak eta goseteak elkarren ostetik; nolana, beldarrek gaintu egin zuten fluktuazio-egoera larri hori, baina, ezinezko suertatu zen dinosauroentzat.

Landare-beharrizan itzelezkoa izan zen, Flanders-en arabera, dinosauroen makalaria inherentea, suntsipeneraino eroan zituena. Izan ere, urte

gutxi batzuetan iraunez gero, landare-urritasunak kalitu zitzakeen dinosau-roak. Beldarren olde handiek, landare-hornidura eskuragarri guztia irenstean eta beraz norgehiagoka horretan garaituz, lehenago murriztu zezaketen dinosauroen banaketa espaziala, eta azkenean erabat suntsitu arazi. Gaur egungo narrastien tamaina txikia –dortoka eta krokodiloak, suge eta muskerrak– froga litzateke nolabait, narrasti erraldoiak gosez hil zirela, beldarreko lehian galtzaile.

Hau da, Flanders-en begietarako, milioika urtez munduko nagusiak izan diren narrasti erraldoiak, klima-aldaketak gainditu zituztenak kontinenteen gorakadak eta beherakadak gainditu bezalaxe, azkenean beldar apal-apalek akabatu zituzten amen batean. Gorago aitortu dut oso begikoa izan dudala betidanik hipotesi txolin hau, izan ere, soilik izenburua irakurri eta dagoeneko gogokoa bainuen: *Did the Caterpillar Exterminate the Giant Reptile?* Behingoagatik Davidek Goliat bentzutu du, edo beste era batera adierazita, mundu akademikoan behingoagatik ornogabe ziztrin batek ornoduna makurrarazi du. Oso nekez ikusten da horrelakorik.

Nolanahi, 1962tik hona joandako urteek damaiguten perspektibarekin, jakina, badaude hainbat galdera, Flanders-ek bilbatu digun istorioa kolokan utziko dutenak. Esate baterako, noraino da benetan sinesgarri, beldarrak dinosauro herbiboroekin lehia zitezkeela eta landare guzti-guztiak jan zitzaketela? Bestalde, noraino egokitzen da Flanders-ek zirriboratu digun eszenarioaren kronologia, zehatz-mehatz datatu den orain 65 milioi urteko dinosauroen erabateko amaierarekin?

Edozelan ere, Flanders-ek deskribaturiko beldarren ase-ezintasuna bat dator beste hainbat eta hainbat behaketarekin. Horietariko bat ekarri nahi dut hona, oso esanguratsua iruditu baitzait. Ikusi, zatitxo batean bada ere, Arnaud Abadiak 1892an zelan deskribatu zion laborari euskaldunari tximeletaren *-jinko-oiloa-* eta beldarraren *-barra-* ahalmen kaltegiela:

Orai, xuhur bazira, hatzeman ezazu eta hil.

Zer, hil dezadan ihizi bat hoin ederra?

Bai hil, eta berehala halere. Ihizietan, jendeetan bezala, ederra eta ona biga dira. Eta egia baizik ez da jinko-oiloa eder bezain gaixto dela. Bainan zer kalte egin dezake jinko-oiloa bezalako ihizi ilaun batek?

Aitor dut, deus handirik ez, jinko-oilo deno.

Aste bat iraunen du, ardura gutiago, goretetik joanen da bi astetara. Lore baten edo bien gozoak haz dezake. Bainan arte hortan erruten ditu arroltzeak. Ez biga edo hirur, bainan ehunka; eta zonbeitek miletaradino eta gehiago. Arroltze hetarik bakoitza emanen du umeak behar duen alagian, eta makurrez kanpo, jinko-oiloaren arroltzetik aterako da har bat, har jale handi, ezin ase bat, zure landareen erro, ostu, lore, fruitu eta zura bera, gogorra izana gatik, janen dituen harra.

Hil bada, hil jinko-oiloa; hatzeman errex da kuskutik ateratzean, oraino hegalak gogor ditu orduan, bai eta ere arroltzeen erruten ari denean, zeren orduan osoki bere lanari baitago.

Bainan bi aste labur horier kanpo, itzala bezain iheskor da jinko-oiloa. Zer egin bada etsai horren osoki nausitzerat ez uzteko? Hil harrak: hatzeman errexak dira. Hil beraz hatzeman har guziak. Leher zangoez; lot eskuez beldurrik gabe. Harra hilez, hilen duzu hartarik

atera liteken jinko-oilo errule handia, laster bazter guziak harrez bete litzakena, eta laboraria gosez hil araz baldin ez balitu hunek bere alde xori har eta jinko-oilo jaleak!

Michael Benton-ek bereiztu duen fase profesionala, izatez, 1960etako erdi-aldean hasi zen, eta hortik aurrera ikerlariak zehaztasun handiz aztertu nahi izan dituzte K/T jazokune inguruko xehetasun guzti-guztiak, eta era horretara hipotesi testagarriak dituzte ondu, dinosauroen suntsipena azaldu ahal izateko. Mota biko eszenarioak planteatu izan dira K/T jazokunearen inguruan, alegia, segida ekologikoaren modelo gradualista eta inpaktu extralurtarraren modelo katastrofista. Eszenario bakoitzaren aldeko frogamordoa bildu da, baina, aldeko datuak batez ere paleontologiko eta estratigrafikoak izan dira segida ekologikoaren kasuan, eta, ostera, geokimikoak eta astrofisikoak inpaktu extralurtarraren modelorako.

Ekosistemaren eboluzio graduala plazaratu duen modelo, batez ere oinarritu da Montanako Kretazeoaren azken 300.000 urteetan gertaturiko ugaztun-komunitatearen agerpen progresiboan. Ugaztun horiek ugarituz joan ziren heinean, dinosauroek, itxuraz behintzat, beherantz jo zuten, guztiz ezabatu ziren arte. Ordezpen gradual hori, dinosauro eta ugaztunen arteko lehia laxoa eta ingurune-baldintzen aldaketa bortitza azpimarratuz azaldu ohi da: dinosauroen habitat subtropikal naroeak bidea eman zieten baso tenperatu hotzagoei, eta ugaztunentzat suertatu zen faboragarri aldaketa hori. Nolanahi, eszenario gradualista hedatuz K/T jazokunearen aspektu guztiak besarkatu izan dira, eta horretarako, zientzialari batzuek itsasoaren erregresioa eta klima-hozketa proposatu dituzte zenbait animali talderen desagertpena azaltzeko. Bestalde, gradualisten iritziz nekez uler liteke K/T mugan hainbeste talde suntsitu ez izana, aintzat hartuz gero zernolako eszenario katastrofista errausleak proposatu diren.

Eredu katastrofistek asteroide edo kometa baten inpaktua postulatu dute. Lurraren kontrako inpaktu ikaragarri horren ondorioz suntsipen masiboak sortuko ziren, dela hauts-hodei eskerga –eguzki-printzei bidea moztu eta fotosintesia eragotzi zuena– harrotu zuelako, dela zianuro, artseniko, osmio eta bestelako pozoiak askatu zirelako, dela atmosfera larregi hoztu zelako, dela sute globalak sortu zirelako, dela iluntasun erabatekoa, muturreko hotza eta euri azidoa bateratu zirelako. Inpaktuaren hipotesien aldeko froga hoberena, esan gabe doa, K/T mugan aurkitu den iridio-kontzentrazio anomaloa izan da, meteorito baten inpaktuaren lekukotzat jo dena, eta dagoeneko munduko bazter guztietan zabalduta dagoela egiaztatzen dena, hau da, inpaktuaren eragina globala izan zela adieraziz.

ARNAUD ABADIA: BIZITZA ETA IDAZLANA

Arnaud Abadia jaun kalonjea oso garrantzi handiko pertsonaia izan zen XIX. mendearen amaierako Iparraldean, haren eragin zuzena jaso baitzuen euskaldungo eskolatu osoak. Alabaina, ez da erraza suertatzen Arnaud Abadiaren gaineko datu askorik eskuratzea. Idazteko dago Arnaud Abadiaren biografia

zehatza, nahiz eta Larresoron bere ikasle izandako bai Jean Etxeparek eta bai Jean Saint-Pierre *Anxuberrok* hainbat argibide plazaratu zituzten.

Larresoroko apaizgaitegiko zuzendari “ezin ahantzizko” bilakatuko zena, 1843ko apirilaren 15ean jaio zen, Nafarroa Behereko Amikuzen, hain zuzen ere Bithiriñako Garatia etxean, laborari-familia on batean. Dirudienez, berandu hasi zen ikasten apaizgorako: hamahiru urtetan lur-lanean ari izan zen bere aita-ama eta haurrideen ondoan. Hiru urte geroago abiatu zen Larresoroko Seminario Tipira, baina ordurako eginda zuen egonaldi bat Hazparden frantses “apur bat” ikasi nahian, eta beste bat Donapaleun latina hobetzeko. Edozelan ere, frantsesa menperatuta erretoriko “aho eder” eta “ele sarkor” bihurtu zen.

Baionako Seminario Handian apaiztu zen 1868ko ekainaren 6an, eta berehalakoan irakasle bidali zuten Larresorora. Hiru urteren ostetik, 1871ko urrian filosofia-irakasle izendatu zuten, berriro ere Seminario Handian, eta geroago ekonomo, 1876. urtean. Seminarioko ekonomoa izateaz batera, historia eklesiastikoa irakasten hasi zen, eta hori dela-eta, gure misiolariaren ekintza miresgarriak ezagutarazi eta bokazio berriak sortarazteko asmoz, *Annales de la Propagation de la Foi* aldizkariaren euskarazko erredakzioaren ardura hartu zuen. Villasantek dioenez, Maisonnave kalonjearen zuzendaritzapean 1877an abiatu zen, hilabete birik behin agertzen zen *Fedearen propagacioneco urtecaria*. Nolanahi, Arnaud Abadiak ikasle-talde bati eskatzen zion *Annalesen* itzulpenaren lehen zirriborroa, eta horrela, Bidart, Castets, Sanzinena eta beste hainbatek zorroztu egingo zuten, gerora pulpitutik-eta erabili beharreko euskara.

Luze barik, 1880. urtean Larresoroko zuzendaria, aita Souberbielle, Baionako Seminario Handiko buruzagitzarako deitu zuten, eta gure Arnaud Abadia bidali haren ordeiz Seminario Tipira, artean 37 urteko gizon errimeka zela, larderiaduna. Diotenez, bazeukan egokiera horretarako izaera berebizikoa: berezkoak ei zituen nagusitasuna eta agintzen jakitea. Gizon izugarria omen zen, “usaian garratz”, diziplina xehetasunik ñimiñoetaraino hedatu zuena, baina dioskutenez, oso bihozbera aldi berean. Manex Hiriart-Urruti idazle handiak Pierre Buruzain mediku euskaltzaleari esan bezala, Arnaud Abadia “est un sauvage, au bon sens du mot... et même un peu dans l’autre, peut-être”; eta hurrengo batean ondokoa erantsi zion: “tout excellent homme, tout esprit et tout coeur qu’il est, étant un parfait sauvage, peu répandu par nature; d’une modestie farouche qui ressemble presque au défaut contraire; de plus, devenu par suite d’une maladie et par les circonstances, à moitié sanglier”. Dena dela, ikasle-labekada asko eta askorentzat “M. le Supérieur” izango zen bizitza osorako, edota “Superiora” hurbileko baten batentzat.

Irakaskuntzari dagokionez, filosofia gorde zuen bere ardurapean, eta horrela “zuhurkindearen erakasle” izan zen, Etxeparek dioskunez. Besteak beste, Manex Hiriart-Urruti, Blaise Adema eta Jean Barbier eduki zituen irakasle lagun, eta haren ikasle izan ziren, esaterako, Jean Etxepare, Jean

Larresoroko Seminario Tipiaren itxiera. 1906ko otsailaren 24an, Paueko inspektorea aurkeztu zen apaizgaitegiko atarian, bertako ondandunaren imitioria egin eta konfiskatzeko. Arnaud Abadia superiorak eta Augustin Larralde ekonomoak akta errefusatu zuten, eta sinatu ez. Prozesuak aurrera jarraitu zuten, eta abenduaren 12an kanporaketa-agiria notifikatu zitzaion Arnaud Abadiari: ikasleak etxera bidali zituzten, baina, irakasleak bertan gotortu ziren. Abenduaren 19an, goizaldeko ordu batean jendarme-



riako pelotoi bat agertu zen apaizgaitegi itxiaren aurrean. Herriko eta ingurutako jendea hurbildu omen zen sardez eta makilez hornituta, seminarioa jendarmeen kontra babesteko. Dirudienez, hurrengo goizera arte luzatu zen seminarioko “setioa”, eta, izan ere, bezperan Baionatik bidalitako infanteriako konpainia batek garbitu zituen inguruak. Irakasleak banaka atera zituzten jendarme bik lagunduta, jendetzaren haserre-oihuen artean. Larresoroko Seminario Tipiak 1907ko urtarrilean ireki zituen atek berriro, baina Belokeko monastegian: bertako beneditarrak lehenago kanporatu bazituzten ere, monastegia ezin izan zen konfiskatu, jabegoa ez baitzen kongregazioarena, baikiz eta inguruko familia adiskide batena.

(ARG.: J. DESOBEAU).

Saint-Pierre *Anxuberro*, Jules Moulier *Oxobi*, Laurent Apeztegi eta Jean Elizalde *Zerbitzari*. Aipaturiko guztiok, harrobi horretako euskal idazle bikainak, “Larresoroko eskola” izenaren egokitasunaren bermea dira.

Nolanahi, Seminario Tipiaren zuzentzeak eta filosofia irakasteak ez zuten “gizon goren” hori akitu, eta *Eskualduna* aldizkarian laborantzaz idazteari ekin zion: “Haren argiek edertzen zuten lur lana. Langileari leguntzen zakoten gogoia eta mintzai zaharra lotu zen harekin, ordu artio erdaraz baik zik aipatzen etziren zer batzuei”, Etxepareren esanean. Sail horri “Laborarier” deitu zion, eta, antza, “hamabortz bat urtez jarraiki, kasik aste guzietz” lotu zitzaion; alabaina, “hogoi-ta zonbait urtez” izan zela irakurri diogu Etxepareri beste behin, eta bai Altzibarri ere. Kontuak kontu, inon ez dut aurkitu noiztik noiz arte aritu zen asteroko ataza horretan. Hala ere, gogora dezagun, Manex Hiriart-Urruti apaiza 1887an sorturiko *Eskualduna* aldizkariaren bigarren zuzendaria izan zela, 1891tik hil arte, eta, horrela izanik, lan-hipotesi modura luzatuko dugu gutxi gorabehera urte horretan hasi zela Arnaud Abadia aldizkarian parte hartzen Hiriart-Urrutiren eskutik. Ezin gehiago zehaztu, *Eskualduna* aldizkaria kontsultagarri ez dugun bitartean, baina laster egingo bide da.

Arnaud Abadiaren gaitasuna laborantzari buruz idazteko, ez zen soilik oinarritzen liburuetan irakurritakoan, izan ere, aitzurrean hasten baitzen astia zuen aldi guztietan. Laguntzailereren bat eduki arren, bere eskuz lantzen zituen Seminario Tipiaren soroak, eta bai, geroago, berak erositako *Ezkan-da* deitu etxalde txiki bateko lurrak. Dirudenez, neurri batean hor haztatzen zituen liburuetakoa irakaspenak, *Eskualduna*ko artikuluetara aldatu aurretik. Gainera, ezin dugu ahaztu haurtzaroan eta oporraldietan Amikuze Bithiriñako familiarekin ikasitako guztia.

Frantziako Estatuaren eta Elizaren arteko berezkundearen auzia dela-eta, Miarritzeko polizia-buruak Larresoroko Seminarioa hustu egiteko agindua eroan zuen bertaraino 1906ko abenduaren 12an. Hurrengo 24 orduetan 160 ikasleek hanka egin behar izan zuten, baina, zuzendaria eta irakasleak barruan gelditu ziren polizia-indarrei itxaroten. Kontua da, Larresoroko apaizak Belokeko beneditanoen monasterioan aterbetu zirela gorabehera negargarri batzuen ostetik.

Ez ziren horrela amaitu Arnaud Abadiaren eroapena agerian utziko zuten jazokune mingotsak. Aspaldian harri-minak jota zebilen, eta, estoizismoz nozitu arren –“oinazerik jasangaitzener gogor egonez” Etxepareren arabera–, azkenean guztiz beharrezko suertatu zitzaion kirurgiara jotzea, “beti halere bere eginbideari jarraitzen zela”. Bigarren ebakuntza bat ere pairatu zuen toki berean: “huntarik landa hautsi baitzen eta ezintzen abiatu”. Dena den, eritasunak eta ebaki-zauriek baino gehiago nahigabeek higitu ei zuten Arnaud Abadia. Besteak beste, Gerla Handiaren hasiera ezagutu zuen, eta horregaz batera bere ikasle ohi guztien angustiak eta doluak bizi izan zituen. Hiru urtez luzatu zen Arnaud Abadiaren agonia. Azkenean, hamar urte etsigarriren buruan, Beloken hil zen 1916ko martxoaren 2an. Pierre Buruzain mediku euskaltzaleak jagon zuen azkenaldian, eta pneumonia batez zendu zela adierazi zion Lacomberi eskutitez: “il a été emporté en quelques jours par une pneumonie”.

Aurreko lerrootan Arnaud Abadiaren obra idatziaren nondik norako nagusiak eman ditugun arren, bere kurrikulua osotzeko, 1890ean argitaratu zen *Aphezac soldado* opuskulua eta *Hazparneko Kalbarioa* (1892) deitu liburuan argitaratu zioten prediku bat aipatu beharko genituzke. Idatzitakoak idatzi, gaur egun Arnaud Abadia erabateko ezezaguna da, eta hori bai irakurle arruntarentzat, ez zaio-eta inolako antologiarik bildu, eta bai adituentzat ere, ezin baita ia inon aurkitu haren idazkirik, ze, gorago azaldu dugunez, gaur-gaurkoz ezinezkoa da *Eskualduna* aldizkariaren bildumarik kontsultatzea.

Gezurretan ari garela ematen badu ere, esan liteke Jean Etxepare izan dela Arnaud Abadiaren irakurle bakarra, edo neuk behintzat soilik berarengan aurkitu dut hari buruzko lehen eskukoa dirudien iritzi bat. Iritzi bat, dena esateko, oso-oso aldekoa gainera. Besterik ezean, beraz, Etxeparearekin fidatuko gara Abadiaren idazlanen juzgu orokor baterako, eta izan ere, bere lumak idatzitako hainbat lerro ekarriko ditugu hona, Arnaud Abadiaren garrantziaz ohar gaitezen. Lau ataletan banatuko ditugu lerro horiek: lehengo eta behin, Abadiaren hizkuntzaren ingurukoak, gero erabilitako gaietako dagozkienak, hirugarrenik Abadiaren estiloari buruzkoak, eta azkenean Abadiaren obra berrargitaratzearen komenentziaz aritzen direnak.

Batetik, Etxeparearen ustean, Arnaud Abadia da “ahoz ala lumaz mintzatzeko hobekienik dohatu eskualdun semea”. Halaber, badiosku: “Haren hizkuntza, laborari gehienek hizkuntza bera da: lapurtar eta baxenabartarra, xuberotar kotsu batekin, hain ontsa oratzen ditu non aditzen baitugu orok. Euskaldun egiazkoaren aharantza du; euskara zahar garbiaren begitarte gozoa dugula ikusten, eta aditzen hots maitagarria, berehala emaiten dauku gogoak. Nork erakatsia ote zakon berari? Gure lurrak”. Areago, Abadiaren hizkuntza-ereduari jarraituz “ez gira izanen batasunetik urrun”, Etxeparearen iritziak.

Arnaud Abadiaren hizkuntza-trebetasuna alde batera utzita, ikus dezagun zelako gaiak lantzen zituen *Eskualduna* aldizkariaren irakurleentzat. Hori zehatz-mehatz erakusteko aipu luzeska hartuko diogu Etxepareari:

Lurraren erabiltzeko ara guziak eman ditu xeheki, sasoinka. Ohi diren uztak, erein diren ordutik, bildu arteraino, nola arta, begietan sartzen bezala zaukun; erakutsiz, eskutik ginerabiltzan, hala nola haurride, buru eta bihotz oneko batek, bera baino gazteagoak. Abereen laguntzaz ere, eta zor dakotegun atxikimenduaz, zonbat ez dauku erran, eta nolako zuhurtziarekin ez! Laborantzako tresnez, halaber, aipatu du asko. Hitz batez, betidanikako euskaldunen bizipideaz, bizipiderik baitezpadakoenaz, laborantzaz, ziren alha haren gogoia eta luma, aste guzietan, berak bere buru eta eskuetako lanaz ikasiak, euskaraz jakitzen zaizkigularik. [...]

Atseginak gairik egin zaukun, erakutsi zaukularik, landarea nola den pizten lurpean; hazkurria zer araz meneratzen dakoten mutil xehe batzuek; ongailuak zer bilakatzen diren, lur barneko ilunbe bero hezean; zendako eta zer heinetan dituzten erroek iresten lurraren gozoak; hok zoin diren, eta nola, landareak beretu arau, neurri berean ahalaz ordaindu behar ditugun, ongailu berezi batzuek; lurretik goiti

doalarik ondo, hostoek nola duten hazten airetik, loreak zer jatorki duen eta zer ondorio; zertarik den azkenean osatzen bihia, gizonaren eta kabalen hazkurritzat.

Hari esker gehienik, ziren Euskaldunak jarri ongailu berrier. Haren erranetik zen hedatu hazkuntza, toki idorrenetan, hala nola Amikuzen. Ikusi zuten askok nolako indarra demoten lurrari, eta nolaz, bazka berde ehortziek; erakutsi zuen pentzeak nola garbi, intak zoin bidez agor, soropil idorren arhatzeak idekitzen duela lur azala iguzkiari, euriari, hegaztinen mokoari, aireak berez edo ihurtziaren indarrez dakarzkon gozoei. Etzituen ahantzi mendietako su-gei ez ihaurkiak. Eta azken mintzaldietan erakutsi zaukun nola ziloetan beira, deus galdu gabetarik, bere heze urintsuan, belar ebakia.

Ez dago esan beharrik, ezinago interesgarria litzaiguke Etxeparek zerrendatu dizkigun gai horiek guztiak irakurtzea, eta horrela guk geuk egiaztatu Arnaud Abadia benetan nolako aitzindaria dugun euskal prosa zientifikoaren historian. Interes hori, areagotu besterik ez digu egingo Etxepareren iruzkin honek: “Apeza zelarik, etzen elizakoetarat ere zeihar-katzen. Noizetik noizera bakarrik, zuen laburzki aipatzen Jainkoa; orduan haatik halako federekin non fede beraz berotzen baitzuen nekazale gaizoa-ren bihotza, erakustera eman ez fede hartarik zaukala beti bere sua, laborantzaren alderateko haren beraren karrak”.

Ikus dezagun oraingoan Etxeparek zer dioen bere irakaslearen idaztan-keraz. Esate baterako, “Euskaldun argitueta ez da agertu oraino nehor, hain xeheki, hain xuxen, mintzatu denik, bai laborantzaz, bai hazkuntzaz”. Edota:

Hizkuntza bat bazuen ezin gehiago garbia; bainan hain tinki, hain jori, hain mamitsu, non laborari gaizo gehienak akitzen baitziren, hura ezin jakituz.

Alta hamar zatitan ezartzeko arta hartzen zuen; bainan halere ginarri gelditzen zen haren solasa, gogor eta apur bat hotz, harri pika-tu eder bat bezala.

Etzuen ere, aitor dut, ahopaldi bakun eta berdina, nola baitzuen Duvoisin zenak. Bihurdikatu aire bat bazuken; bainan bere idorrean irets ahal zezaketenentzat, zer gozoa! Nork egundaino mintzatu du eta marratu lumaz, halako euskara bete, dena zain eta odol, oso, aberatsik?

Eta handik bost urtera berriro dator ideia berberera, alegia, Abadiaren estiloaren trinkoegia aipatzera, eta baita irakurle jasoak haren mamian aurkituko duen laketa nabarmentzera ere:

Koropilo hanitz daukatelakotz gauzek, eta piru bat baino gehiago baduelakotz egiak, direnak ere askotan hailgatzeko ez hain errexak, gure idazlearen erakaspina ez da beti, nahi baduzue, ororen adimenduan ximixta bezain zalu sartzekoetarik: hurriki, artetan gogoeta egonez, astirekin, xehatuz, da behar hartu.

Aitor dut, jakitzeko zaila dela, noiztenka, bururik hoberenentzat; ez dut ukatuko ere hotza dela apur bat, bihotzeko pindar bat edo bertzek,

han-hemenka, ez duelakotz gozatu. Ele alferrik batere ez; begiak beti lurrari, bazterrerat eta urrun nehoiz alatzerat utzi gabe; gogoia, ildo bihurturatu batzuetan barna, argirat bidea ezin eginez, horrelatsu zabilan Abbadie: lanak baititugu batzutan, gure ezjakinarekin giren bezain lausoak, haren hatzari ezin jarraikiz. Bainan nolazpeit hatzemaiten dugunean gibeletik, ohartu girenean azkenekotz harek erakutsiari, jabetu denean gure burua gauzen batetik bertzerako sail guti-edo-aski gordeaz, zer atsegina gure baitan! Zer bozkarioaren betea! Nolako eskerak, erasia ixil batean, ez daizkogu heltzen, argizale haidur eztiari!

Egia esateko, ez dut uste Arnaud Abadiaren idazkiak ulergaitzak direnik. Etxepareren azken aipu honetako bigarren pasartearen hasieran *noiz-tenka* diosku, eta beharbada hortxe dago gakoia: zaila, baina soilik noizean behin. Mamiaren aldetik ez dago inolako oztoporik Arnaud Abadia irakurtzeko: Piarres Lafittek berrargitaratu zituen 1975.ean *Gure Herria* aldizkarian Abadiaren 1892ko artikulua bi *–Sathorra eta Uli, jinko-oilo eta har–* eta ez dute zailtasunik txikiena ere. Azpimarratu egin nahi dut ideia hori: eza gutzen dugun Arnaud Abadiaren obraren lagina, hori behintzat, ez da bereziki zaila. Geroago tiratuko dugu berriro hari horretatik.

Nolanahi ere, Etxepareren ustez, asteroko agerpen iragankorra baino askoz bizitza luzeagoa merezi dute Arnaud Abadiaren *Eskualduma* aldizkari-ko idazlanek. Horixe adierazi zuen Aldudeko medikuak guda-lekueetatik, Arnaud Abadia zendu eta hurrengo hilabetean:

Laborantzaz bezenbatean baikira, apezeg bertzalde, bederen bospasei ehun eskualdun, haren erakaspenez hazi izanik oroit girenak, zendako ez ginezake eman bakotzak diru izpi bat, harek kazeta huntan utzi mintzaldien elgarretartzeko, ziren bezala; mintzaldi hauien biltzeko liburu batean edo bizpahiruetan, barrea bakinitzazke gero jende xehearen artean?

Euskararen alde, laborantzaren alde, zer obra ederragorik? Nola ohora hobeki, eta atxik gu baitan Abbadie handiaren lanen gibel-londoa?

Ildo beretik, Georges Lacombe ondokoa adierazi zion Martin Landretxeri, 1916an bidalitako eskutitzean: “Il est regrettable que cet homme intelligent laisse une oeuvre mais pas un livre”. Itxura batean, bost urte geroago argitaratzeko prest zegoen Arnaud Abadiaren idazlanen bilduma, Etxeparek ondokoa plazaratu baitzuen:

Abbadie-ren lumak lantu eta apaindurik utzia, [...] eginia izan zen erakaspenna, liburutan agertuko dugularik.

Hedatuko denean liburu hau, daukagu urrats handia eginen dutela, nahita-ez, elgarretarat, mendiez hunaindiko idazleek.

Alabaina, eta ez dakigula zer zela-eta, ez zen argitaratu Jean Etxeparek *idazkirik boberena* deitu zuena. Izan ere, beste zenbait kasutan gertatu denaren kontrara, ez da inon aurkitu edizio horretarako erabili behar zen artikulua-bilduma. Non geldituko ziren, lo, Abadiaren nekeen emaitza baliosak? Diru-faltaz? Noiz arte?

Ea baten batek berandu baino lehen hartzen duen argitarapen horren ardura! Bestela, Jean Etxepareri sinestekotan, sitsek jango dute gure klasikorik interesgarrienetarikoa bat.

KARNIBORO, XITXIJALE, HARAGIJALE, OKELAJALE

Euskararen etorkizunaz diharduelarik, 1962an, Federiko Krutwigek penagarritzat eta deitoragarritzat dauka idazle “baxenabarren” eragina lapurtararen baitan, izan ere, haren iritziz “ezereztu” egin baitute lapurtera idatziak eskuratuta zeukan klasikotasuna. Jakina, esaldi bortitz horrek Krutwigen artikuluan badu azalpen historiko eta soziologikoa, eta testuinguru horretan ez da hain oldarkor suertatzen.

Krutwigek kultura jasoko hizkuntza bilakatzea nahi du euskara, eta xede hori buruan izanik, abiapuntuan egoeraren diagnostiko bat plazaratu zuen. Ikuspegi soziologiko batetik, euskal “izkiriatzaileak” hiru multzotan sailkatu zituen: populistak, puristak (dela bizkaitarrak, dela garbizaleak) eta klasikoak. Labur bada ere, banan-banan azalduko ditugu Krutwigek bereiztu multzo horiek, euron karakterizazioa munta handikoa izanen baita ostean egingo dugun eztabaidaren ildo nagusiak ondo ulertu ahal izateko.

Populistek, Krutwigen hitzetan, “euskara iente kaskarraren eta herri xehearen problematen traktatzekotz erabili nahi lukete. Bertze gai guztiei buruz erdaraz mintzo dira eta [...] erdaraz izkiriatzen ditute”, kulturadunak direla erakusteko. Euskara “baserritiar” horretarako dialekto eta dialektotxoak aski dira, eta euskara lokalismoz betea maite dute populistek. “Hunelako tendentzia eta egokera adibidez, bertze exempluetan, Ipharraldeko Euskalherriko aphezen ekhintza litzateke. Aphez haukiek herriari bethi euskaraz predikatzen deraukote, bainan heien artean erdaraz baizen ez tira mintzatzen”.

Puristen artean sail bi daudela adierazten du Krutwigek. Batetik, bizkaitarrismoaren baitakoek erdaratik hitz guztiak erauzi nahi zituzten, eta hitz berriez ordeztu, Sabino Aranaren bidetik; hortaz, hizkuntza erabat artifiziala eratu zuten, erabiltezina. Puristen bigarren sailean, “garbizaleak” daude: gai guztiak landu behar dira, bai, baina soilki euskarazko hitzez, alegia, Azkueren hiztegiko hitzez, eta, horiek aski ez direnean, berorietan oinarrituta hitz berriak sortuz, hitz-elkarketa bidez, eratorpenez eta zabalkuntza semantikoz. Krutwigen iritziz, joera honek muga hertsia ditu, azken batean soilik baita egokia literaturarako. “Hizkuntza garbia prosa poetikoaren arma izan daiteke. Iakintzaren konzeptuak iakin-arazteko hitz zaharren erran-nahia hedatu behar denean irakurlearen atenzinoa behar lizatekeien baino gehiago reklamatzeko da, eta heien signifikantza aldatu behar dugunean irakurtearen haria ebakiten dugu. Haur behin edo bertzetan pausa bezala egin liteke, bainan iakintza modernuaren erakustekotz orrialde batetan hoge bider hunelako geldigunen egiterat irakurlea bortxatzen dugunean, irakurtea gorhaingarria bilhakatzeko da”.

Azkenik, klasikoaren multzoa dugu: “Euskara klasikoaren iarraitzaleekin gure hizkuntza Euskalherriaren egiazko kultur-hizkuntza bilhakaturen zate-

kean”. Jakina, Krutwigen iritziz “euskara klasikoa, lapurdara klasikoa da”, eta Axular dugu maisu handia. Behin eta berriro azpimarratzen digu, hizkuntza garbia ez dela nahikoa jakintzazko prosa idazteko, eta, halaber, ederraren ederrez prosa ulertezina egiten duenak kalte handia egiten diola bai gaiari eta bai hizkuntzaren bizia ere.

Sailkapen horretan, guk geuk non kokatuko genuke Arnaud Abadia? Ihardespena ez da erraza, batez ere berorren obraren oso lagin txikia ezagutzen dugulako. Nolanahi, inolako zalantzarik gabe ken dezakegu purista bizkaitarren multzotik, bistakoa denez. Bestalde, baztertu beharrekoa da, ziur aski, Arnaud Abadia Krutwigen klasikoen sailean onartzeko ideia, izan ere, Jon Casenavek oso ondo azaldu duenez, Iparraldeko sasoi horretako idazleak autodidaktak ziren, eta gehien-gehienek ez zituzten klasikoen liburuak ezagutzen, ezin baitziren eskuratu; soilik aberats okituek eros zitzaizkete, hala nola, Bonaparte printzeak, Julio Urkixok, Anton Abadiak edo Julien Vinsonok. Hortaz, onar dezakegu Arnaud Abadiak ere galdu egin zuela tradizio klasikoarekiko lotura, baina ez tradizio hori ezereztu, alegia, ez nahita baztertu, Krutwigen juzgu zorrotzgiak iradoki bezala.

Beharbada, populisten multzoan sartu beharko genuke Arnaud Abadia. Izatez, Krutwigek aipaturiko idazle “baxenabarren” taldekoa da, eta, ildo beretik, Jean Etxeparek idatzitakoaren arabera, badirudi Larresoroko Seminario Tipian ia sekretua zela Hiriart-Urruti, Abadia eta Adema *Eskualduna* aldizkariaren idazleetarikoak zirela. Hau da, nahikoa sinesgarria da pentsatzea, Abadia gehien bat erdaraz mintzatzen zela, edota soilki. Alabaina, idatziz erabili zituen gaiak “iente kaskarraren eta herri xehearen” interesekoak izan arren, irakurle horiek ez zituzten ulertzen, ez ziren gai mamia konprenitzeko. Komunikazio-falta horri buruzko aurreko ataleko aipuez gainera, beste hurrengo hau ere erants dezakegu, eta, noski, Abadiaren ustezko populismoa hein handi batean gesalduta begitanduko zaigu:

Luzaz egon zen bizkitartean eskualde hotako laboraria, haren euskarazko erakaspen zuhur bezain idekiari ezin ohartuz: idazlearen xehe-tasunak etzezazken jaki gaizoak. Adimendu hertsietarat etzuden bide egin haren adimendu zabalak, gu hainbertze begirune ginakonek ez baginu ezagutarazi zoin guharen tokietan euskaldun irakurtzalei. Erakasle baten gai osoaz jende xehearen ohartaraztea, bego haren ganik ikasi mutiko gazteen gain, entzunaren ariaz beretu badute eta guziz maitatu.

Gaia gorabehera, aurreko aipuan argi ikus daitekeenez, azalpenen maila da gakoa. Dena dela, Abadiaren idazlanen maila oso apala da izatez, *Sathorra* irakurritakoan konturatuko zarenez; arazoa orduko baserritar irakurleen maila hori baino are beherago egotetik dator. Halandaze, goi-mailako populistatzat-edo jo ahal dugu.

Bestalde, pentsa dezake baten batek garbizaleen zakuan sartzeko arrazoirik ere ez dela falta. Hala ere, nahiz eta Abadiarengan Krutwigek sail horren ordezkari egotziriko berezitasunen bat aurkitu ahal den, nire ustez Arnaud Abadiarengan hori ez da garbizaletasunaren ondorio, idatzitakoa errazago egin nahiaren ondorio baino. Esate baterako, *Sathorra* irakurtzean, *lurpeko*,

erro jale, *hazi jale* edota *hezekari* modukoak aurkituko dituzu. Horiek guztiak, ene ustez, ez zituen hala-holako garbizaletasun batek bultzatuta sortu, baizik eta, era ulergarri batez adierazteko bere irakurleei, bibliografian frantsesez agertutako *geofilo*, *erradiziboro*, *seminiboro*, *bigrofilo* eta enparauak.

Arrazoi berberetatik, alegia, mamia errazago ematearren, beste batzuetan bestelako konponbideetara joko zuen. Esate baterako, batzuetan ez ditu kontzeptuak itzuliko, adibidez, *sulfure de carbone*, itzulpenak ez dio-eta laborariari ezer argituko. Beste batzuetan perifrasi luzeez baliatuko da, eta, esaterako, *bixta ainitz azkartzen duten berina batzu* erabiliko du mikroskopioa (edo lupa?) adierazteko. Ohargarria da horri buruz Pierre Buruzainek eskutitz batean Georges Lacomberi idatzi ziona: “Vous vous souvenez, n’est-ce pas, de ses articles sur l’agriculture dans l’Eskualduna. Etant donné la pauvreté de notre vocabulaire, il arrivait à de véritables tours de force pour rester puriste et se faire comprendre. Nul mieux que lui ne savait se servir d’une périphrase, souvent imagée, pour suppléer au mot que ne lui donnait pas sa langue maternelle”. Areago, inoiz kontzeptuak izendatu barik uztera iritsiko da kasuren batean. Adibidez, *Uli*, *jinko-oilo eta har* artikuluan hainbat pasarte marmutxa batzuen metamorfosiaren gainekoak dira, baina hala ere ez da metamorfosi terminoa agertzen, eta ez berorren izen garbizalerik ere. Dena dela, idazlan horretako beste hitz batzuk itzulitako termino garbizalezta jo baditzakegu ere, era bereko beste batzuk ez dute kultur erroez osoturiko kide arruntik: *aza jale* (= errafanofagoa?), *bibi jale* (= *hazi jale*, ala bereiztu egiten ditu hurrenez hurren graniboroa eta seminiboroa?), *xori har eta jinko-oilo jaleak*, edota *har ogi bibi jaleak*.

Mota horretako adibideen artean badaude bi, aipamen berezia merezi dutenak, ez horrenbeste Abadiaren garbizaletasun posiblearen arazoa ebazten lagunduko digutelako, baizik eta, Krutwigen sailkapeneko testuingurua utzita gure koordenatueta bideratuko gaituztelako, eta horrela, ahalegindu egingo gara planteatutako arazoa beste eskema batean argitzen. Hain zuzen ere, Abadiaren *Sathorra* idazlanaren lehen atalean *belbar jale* eta *chitchi jale* agertzen dira, eta bai beste grafia honekin ere: *belbar-jale* eta *chitchi-jale*. Hurrengo lerrootan grafia gaurkotura plegatuko ditugu: *belarjale* eta *xitxi-jale* beraz.

Karniboro terminoa entzutean, ornodunak bururatzen zaizkigu era automatikoan. Hala ere, ornogabeen mundu zabalean zoofagiaren adibide berebizikoak daude, sarritan hain ezagunak ez izan arren. Nolanahi, guztiz beldurgarriak dira armiar-mak, marisorginak edota irudiotako ehunzangoa eta txitxiburduntziaren larba urtarra, beste magnitude batekoak badira ere.



(ARG.: L. DANTART ETA A. ELOSEGI).

Herbiboro eta, batez ere, karniboro terminoen egokitasuna dela-eta eztabaida luzea egon da, bai kontrako eta bai aldeko arrazoiak eta desarrazoiak plazaratuz. Eztabaida horretarako argigarria da ikustea, Abadiak *belarjale* noiz-eta 1892an erabili zuela, eta zer-eta “herbiboro” adierazteko, eta ez

“barau-egilea” esateko, eta ez, zehazki, “graminiboro” (= *grass-eating*) esateko ere.

Era berean, gure literaturaren lehen benetako “karniboroa” –dietaren ikuspegitik, ez taxonomiari dagokiola!– 1892koa dateke: *xitxijale*. Jakina, Abadiaren *xitxi* hori *haragiren* sinonimoa da, *okela* bezalaxe-edo, eta ez du mendebaldeko euskalkietako *txitxiren* erabilera ume-hizkerara murriztua. Lehenagoko gure *haragijale* guztiak, 1696.etik aurrerakoak, ez dira “karniboroak”, baizik eta “barau-hausleak” edota “haragizaleak”, eta, izatez, esangura zientifiko horretarako noiz-eta 1916an proposatu zen hiztegi batean. Zehaztapen kronologiko horrekin batera, erabilerari doakion kontua daukagu: *karniboro* kanonikoaren ondotik nori eman lehentasuna, *haragijaleri* ala *xitxijaleri*? Zalantzarik gabe bietariko lehenengoaren alde aipa daiteke azken aldi honetan irakaskuntzan eduki izan duen zabalkundea. Baina, berorren kontra ezin da ahaztu bere jatorri eskasa, alegia, hiztegi baterako sortua dela eta luzaroan bertan lo gelditu zela. Orobat, Etxeparek *haragi jale* ez du termino zientifiko gisa erabili, *bifteka-jaleren* sinonimo modura baino, eta horrelaxe egingo zuen, ziurrenez, bazuelako Abadiaren *xitxijale* horren berri.

Jakina, herbiboro, karniboro, belarjale, xitxijale, haragijale eta okelajale benetan sentitzen dugun problematika baten adierazle dira azken batean. Horiek guztiak Petöfi-k proposaturiko eskeman kokatuko nituzke nik neuk. Alegia, komunikazio zientifikoan maila desberdinak daudela onartuz, hau da, edozein gai sakontasun desberdinez azal daitekeela onartuz, maila bakoitzak hizkera-modu bat eskatuko du, lortu nahi den zehaztasunak derrigor-tuta. Petöfi-k lau maila definitu ditu, alegia, *a*-tik *d*-rainoko gradazioa, halatan non, diskurtso zientifikoaren zehaztasuna galduz baitoa argitasunaren alde: nolabait, *a* mailako idazlanak erabat espezializatuak izatean guztiz kriptiko eta ulergaitzak izango dira irakurle arruntarentzat, eta *b* eta *c* mailetan pixkanaka argiago suertatuko zaizkio, *d* mailako idazlan dibulgatibo erraz-errazetaraino. Zernahi gisaz, gogoratu, Abadiaren zailtasuna aipatu dugularik, berori maila-arazo bati egotzi diogu.

Eskema horretan, esan gabe doa, belarjale, xitxijale, haragijale eta era horretako berba askok (ez guztiek!) badute euren toki egokia sailkapeneko behe-mailetako diskurtsoetan, eta, halaber, goi-mailakoetan badute berea herbiborok, karniborok eta kultur errozko gainerakoek. Jakina, idazleak ikusi beharko du kasuan kasu zein termino-mota aukeratu, idazki ahalik eta ulerterrazena ehuntzeko, aldi berean zehaztasun kontzeptualari muzin egin gabe. Idazleak berak deliberatuko du zein komunikazio-maila komeni zaion, beti ere ahaztu barik zehaztasun-falta terminologikoa azken batean zehaztasun-falta kontzeptuala izaten dela.

Nolanahi, ataza horretan ez da beti asmatzen berez, eta gainera, nekeza suertatzen da denen gogara egitea, hemen eta edonon. Izan ere, batzuen gusturako termino herrikoi (*folk-term*) larregi sartzen ari da zientzia-prosan, eta plebifikazio delakoaz mintzo dira bekoki ilun.

Plebifikazio deritzo termino kanonikoen ordain *arruntak* erabiltzeari. Ingelesez oso maiz gertatzen da fenomeno hau, eta, esaterako, *carnivorous*, *carnivore* hitzekin batera *flesh-eating*, *meat-eating* erabiltzen dira, edota *grass-*

eating herbibororekin batera. Ikuspegi horretatik, teutonizazioa plebifikazio-joera horren muturreko muturra izango litzateke, teutonizazioaren kasuan soil-soilik ordain arruntak erabiltzen baitira, eta termino kanonikoak gutziz alboratuta daude, bai hiztegietatik, bai testuetatik. Gogoratu, beste kapitulu batean Jokin Zaitegi agertu zaigula termino zientifikoak “etxeko” ordainez ematen tematuta, eta, Zaitegik bezala, beste askok ere teutonizazio-prozesu erabatekoan murgildu nahi izan dutela euskara, era sistematiko batez. Ildo horretan, gaur-gaurkoz *Euskara batuaren ajeak* eta *Euskararen etxea*, bi-biak irakur daitezke teutonizazioaren aldeko proklama modura.

Beharbada, plebifikazioaren eta teutonizazioaren arteko diferentzia nagusietariko bat da plebifikazioaren kasuan –ingelesez– termino plebifikatzaileek nekez eskuratzen dutela hiztegien onespina, eta, izatez, soilik termino kanonikoek dute sarrera bana; teutonizazioaren kasuan –alemanez–, ostera, termino teutonizatzaileak dira hiztegien bedeinkazioa lortu dutenak, eta, areago, termino kanonikoak ezabatu egiten dira hiztegietatik eta idazlanetatik. Euskararen kasuan, ez dago esan beharrik, hiztegiek islatzen digutena askoz hurbilago dago teutonizaziotik plebifikaziotik baino: aldeak daude hiztegitik hiztegiara, baina, oro har normalagoa izaten da elementu autoktonoak aurkitzea; berba aloktonoek murriztuta dute agerpena, eta berori nabarmenago suertatzen da historia hurbilean atzerantz egin ahala. Testuetan beste horrenbeste gertatzen da, salbuespenak salbuespen.

Hiztegietan agertu zein ez, termino bernakularrak oso-oso arruntak dira ingelesezko idazlan teknikoetan. Alabaina, maiztasunaren aldetik gutxituz doaz testuaren maila gorantz doanaz batera, eta, alde horretatik, *folk-term* dezente gehiago aurkituko dituzu Petöfi-ren behe-mailei dagozkien testuetan. Oro har, alderantziz gertatuko da termino kanonikoekin: ugariago zenbat eta maila jasoagoa izan. Agertu, era bietako hitzak ager daitezke edozein mailatan, baina, hitz-mota bakoitzaren portzentajeak aldatuko dira mailaren arabera. Jakina, idazlearen izaerak garrantzi handia du bateko ala besteko erabileran, eta idiosinkratikoa ere izaten da termino bernakularren eta termino kanonikoen arteko dosifikazioa.

Baina, neurri egokia hartuta, esan nahi baita, maila bakoitzari dagokion dosifikazioarekin asmatuz gero, plebifikazioarena baliabide estilistiko garrantzitsua izan daiteke, tonu desberdineko eta beraz irismen desberdineko testuak mamitu ahal izateko. Alegia, eredu plebifikatzaileak malgutasun handia opesten du berez, eta, berorretatik abiatuta esku egokiek orrialde bikainak ondu dituzte ingelesez, Stephen Jay Gould-ek eta David Quammen-ek bezala, eredu plebifikatzaile hori zeinek bere erara oratzen –eta bai orhatzen– badu ere. Geurera etorrira, Zaitegiren idazkera zurrun eta monokorde begitandu zaigu, besteak beste, hobetsi duen aukera linguistikoak erabat murriztu diolako eredu plebifikatzailearen plastikotasuna. Alde horretatik, Etxepare medikuak askozaz zalu eta gihartsuagoa ematen du, naturalagoa.

Ikuspegi honen barruan, kontura gaitezen, idazle populista barik Arnaud Abadia idazle “plebifikatzailea” izango litzateke, hain zuzen ere Petöfi-ren *d* mailan ziharduena.

GOULD HIL DELA IRAKURRI NUENEOA

Gould hil dela irakurri dut goizean. Ezin izan dut sinetsi. Begiak berriro ezarri ditut egunkariko albistean, bigarren irakurraldi batek benetakoago bihurtuko duelakoan. Hainbat xehetasunez jabetu naiz: 1982an diagnostikatu zioten minbizia, urdailekoa-edo –hori bagenekien–; oraingoan birrikako minbizi baten metastasiak hil du gure laguna.

Dena dela, apirilaren 5ean Harvard-en egon zen eskola ematen, garunkirurgia (= *brain surgery*) jasan eta lau egun geroago. Lehentxoago, martxoan, bere azken liburua aurkeztu zuen, alegia, *The Structure of Evolutionary Theory*. Hogei urte behar izan ditu 1500 orrialdeko idazlan mardul horren osaketarako. Aurkezpenean adierazi zuenez, liburua amaitzeko inolako xantzarik –*almost zero chance of finishing it*– ez zuela edukiko pentsatu zuen 1982an, medikuek mesotelioma abdominala zeukala esan ziotenean. New Yorken zendu da Gould, Soho-n liburuz okituta zeukan bere apartamentuan.

Horrelakoak irakurritakoan ere ezin izan dut Goulden heriotza begietaratu. Oso bizirik daukat joan den abenduan egin zigun bisitaldi laburraren gomuta. Bizi-bizirik ikusten dut Gould, ezin biziago: atsegin, kementsu, zorrotz. Gure artean emandako egun bi haietan ez genion gizon gaixoaren itxurarik hartu. Areago, ez genion bidaia transozeanikoen zorioneko *jet-lagaren* inolako aztarrenik igarri. Fleitean ikusi genuen Eibarren. Une askotan erakutsi zigun bere adorea eta umorea, hala nola, kazetari batzuen eskakizunen aurrean, hala nola, Guggenheim-erainoko joan-etorrian, hala nola, itzultzaile “inprobisatu” batekin eman zuen hitzaldian, edo Durangoko afarian kopa jasota proposatu zigun topan: “Izan dadin al bait lasterren Euskal Populua herri librean arteko kidea”.

Hurrengo eguna hunkigarria suertatu zen niretzat. Ekain koba ikusten ibili ginen, Jesus Altunaren eskutik. Goiz osoa eman genuen zaldi-behoren santutegi eder horren baitan, eta egia esateko ez dakit zerk utzi ninduen harrituago, gure arbaso paleolitikoen eskuak kobazulo horretan ondutako irudi-sortak, ala Goulden jarrera deboziozkoak eta jakingura asezinak. Izan ere, ez da makala Ekain haitzuloko labar-pinturen magia bertako bildutasunean: egundoko bizipena duzu hango hormetako irudiei so egitea, aldi berean Altunaren azalpen konplituak zeureganatuz. Soilik Goulden pozak handiagotu ahal dizu une horretako magia. Eta, izatez, Gould pozaren pozez dabil, ezinago uros, Ekainekoak baitira ikusi dituen lehen labar-pintura jatorrizkoak. Ordura arte labar-arte ikusteko suertatu zaizkion aukeretan beti erreplikak izan dira begi aurrean eduki dituenak. Eta denok dakigu –hainbatetan idatzi du-eta– noraino maite duen benetakotasuna, zein desatsegin egiten zaizkion bizipen “bikarioak”. Zer-



Stephen Jay Gould (1941-09-10; 2002-05-20) paleontologo eta zientzia-idazle handia gure artean: 2001eko abenduan ireki zuen Prosa zientifikoari buruzko I. biltzarra. Argazki batean, Zumaian, K/T mugarainoko bidezidorrean ikus dezakegu, pozik gune magiko horretara bertaratzean. Bettean, Andolin Eguzkitza zenarekin batera biltzarren aurkezpeneko prentsaurrekoan.

(ARG.: A. ZEARRETA ETA G. ROA).

nahi gisaz, nekez lortuko dut lerro hauetan islatzea Ekain baitako ilunpean bizi izandako leinurua.

Bazkaldu ostean, Zumaiako K/T muga geneukan itxaroten. Baina, Siberiatik egun horretan bertan etorritako hotz ikaragarriak, etorkizuneko hurrengo baterako atzeratu zuen bisita, zeren, ahalegindu arren, demasekoak baitziren afrontua eta elurra.

Handik bost hilera, Gould hil egin dela irakurri dugu. Baliteke, baina, nik irribarretsu ikusten dut oraindikarren.

Aspaldidanik ditut gustuko Stephen Jay Gould-en liburuak. Humbertok du errua: berak oparitu zidan *Desde Darwin* 1986an, eta liburu hori dastatutakoan, titulurik titulu, Gould-ek argitaraturiko den-denak irakurri nituen berehalako batean. Areago, hortik aurrera beti egon izan naiz Gould-en hurrengo liburua noiz plazaratuko zain. Aiduru.

Beharbada, *Dinosaur in a haystack* (1995) izango da Gould-en liburuen arteko nire kuttunena. Horretarako arrazoia ez dator horrenbeste liburuarren barrutik, zeren, edukiari dagokionez, oso nekeza egiten baitzait Gould-en artikulua-bildumetan gehien gustatu zaidana erabakitzea. Bestelako arrazoi birengatik-edo da nire faboritua.

Alde batetik, liburuari titulua damaion artikulua, Zumaiako eta Miarritzeko K/T mugen gainekoa da nolabait. Artikulu horretan Gould-ek, besteak beste, Peter Ward paleontologo amerikarrak gure kostaldeko toki bi horietan aztertutako ammoniteen berri zehatza eskaini digu, eta baita, ikerketa horrek dinosauroen suntsipena meteorito erraldoi batek sortua izan zitekeela frogatzeko izan zuen garrantziaren berri ere. Horrelakoak irakurtzea oso gustagarri suertatu zitzaidan liburua eskuen artean neukalarik, baina gerora neure liburu-proiektu baterako abiapuntua izan zitekeela erakutsi zidan, eta horrek, jakina, balio erantsia eman dio. Zumaia, buruan bueltaka darabilan ideian, gune magikoa da *–magical place–*, dinosauroen suntsipena eta Etxepare medikuaren bizitza elkarrekin lotu eta saiakera zientifiko bat idazteko. Jakina, begien aurrean duzun saiakerari ekiteko.

San Frantziskoko liburudendarik karismatikoenean erosi nuen, eta horrek ere niretzako oso berezia egiten du *Dinosaur in a haystack*. San Frantziskora izan zen, nire gaztaroaren amaiera markatu zuen Amerikako egonaldi laburreko azken eskapada, eta liburua bertan eskuratu nuen, *City Lights Bookstore* famatuan. Kanean gora kalean behera nabilelarik, hantxe deliberatu nuen Folin markesak artikulua laburrik ez eta liburu osoa bai merezi zuela, eta idatzi eginen nuela. Hantxe pentsatu nuen Gould-en liburuak ordutik aurrera beste modu batera irakurri behar nituela, ez soilik irakurle soil gisara, baizik eta idatzi-edo gura duen batek maisu paregabea zurrupatzen duen erara. Hantxe bururatu zitzaidan Gould ezagutzea asko gustatuko litzaidakeela.

Joan den 2001eko abenduan *Prosa zientifikoari buruzko I. biltzarra* burutu zen Eibarren, Markeskoan, Euskal Idazleen Elkarteak antolatuta. Egitaraua itxuratzen hasi ginenean, hasiera-ekitaldia noren esku uztea eztabaidatu genuen, eta gonbita Stephen Jay Gould-i luzatzea erabaki zen aho batez. Egia esateko neuk ez neukan inolako esperantzarik onartuko zuela: zelan etorriko da, ba, gugana, galaxiaren bazterreko zoko galdu honetara momen-

tuko saiogile zientifikorik puntakoena, edonorentzako erreferentzia eta eredu. Ba, etorri, etorri da. Alde horretatik, poz-pozik egon gaitezke, paleontologo amerikarrak geuganaino hurbiltzeko bere agenda trinkoan tartetxo bat hartu izanaz, eta gainera Irailaren 11 hain gertu zegoelarik. Zinez eskeretzekoa dugu erakutsi digun begikotasun handia. Etorrera horrek Gould-en izaeraren beste alde batzuk ere erakutsi dizkigu. Seguru nago Gould-en bisitak adoretu egin gaituela, hain dira-eta desberdin, sona handiko egilearen idazlana norberak bakar-bakarrik irakurtzea eta, bestalde, egilearen beraren aupada sentitzea.

Txiripa batez, bertatik bertara ezagutu dugu Stephen Jay Gould. Orain autografoa dugu bere liburuetan...

Kontingentzia zoriotsua izan da niretzat. Stephen King idazleak harreman luzea eduki izan du harekin; honelako agurra egin dio *Boston Globe* egunkarian: "I'm glad that my life touched his life and am sorry that his light has gone out". Neu ere pozik nago nire bizitzak haren bizitza ikutu duelako, eta damu dut haren argia joan dela. Orain Gould-en liburuak nire lerroarteetaraino transmutatu dira.

HIBRIDISMO DIALEKTALA ETA EUSKARA EKUMENIKOA

Jean Etxeparek badu Arnaud Abadiaren eitea idazkera-kontuetan, eta, izan ere, maisutzat zuen Larresoroko bere irakaslea. Kidetasun hori dela-eta, aurreko epigrafean Abadiari aitortu dizkiogun zenbait ezaugarri berriri agertuko zaizkigu hemen Aldudeko medikuaz mintzatzean. Nik neuk, hasteko, plebifikatzaile etiketa jarriko nioke Jean Etxepareren jakintzazko prosari, Arnaud Abadiarenari egin bezalaxe. Baina, horregaz batera badaude beste bizpahiru xehetasun aipagarri hona ekarriko ditudanak, laburkiro bada ere.

Etxeparek batez ere *Eskualduna* aldizkaritik jaso zuen, ikusi dugunez, idazteko zerabilen hizkuntz eredu, Hiriart-Urrutirena eta Abadiarena miresten zituelarik. Alabaina, luze barik ohartu zen, eredu estuegi gertatzen zitzaiola eta bere idazlanetarako oinarri horretaz gainera beste zeozer behar zuela. Bestelako baliabideak behar zituen, bai landutako gaien aukera zabaltzarekin batera, eta bai gai bakoitzean azala utzi eta mamian sakontzekotan ere. Arian-arian joan zen bere neurriko literatur eredu itxuratuz, Jon Casenavek arta handiz erakutsi duenez. Etxeparek berak ere gogoeta batzuk utzi dizkigu han-hemenka, ibilitako bidearen nondik norakoa erakusten dutenak. Alde horretatik, oso esanguratsua da 1929an *Gure Herria* aldizkarian adierazi zuena:

[...] Badu hogoi-ta-hamar bat urte hasi nintzala euskaraz idazten, ene sor-herriko mintzaiari han-hemenka eratzikiz Gipuzkoako, Bizkaiko, Ziberoko, Garaziko eta bertze zombait tokitako hizkuntza bakar batzu. Zer erran nahi zuten hok, ahal bezain xeheki adiarazten nuen ene mintzaldietan, ardura frantsesari berari galdatuz laguntza. Gei askoz nerabilan solas, laborantzako eta hazkuntzako zeretari gutisko sartuz bizkitartean. Eleka artzen nintzalarik, askotan ara berari banindarraikion.

Lapurtarraren ondotik, Gipuzkoako euskalkirat zoan gehienik ene ixuria. Ez batere beharriarentzat goxoagoa zitzaitalakoan, ziberotarra edo garaztarra baino: apur bat aberatsago iduri baitzitzaitan eta ikusten bainuen eskualde hartako ahalduak etzirela, hemengo zombait bezala, ahalge edo herabe beren mintzaiaren aberatsagotzeko oraino, ederragotzeko, zabaltzeko bere laietarik.

Hau da, Etxeparek “hibridismo dialektalera” jo zuen. Termino hori, nik dakidala, Georges Lacombe dialektologoak erabili zuen frantsesez 1916an, Martin Landerretxeri bidalitako eskutitz batean, Hiriart-Urrutik txiteanpitean darabilen euskara nahasia kritikatzeko. Etxeparek ere bazekien bere irakasleak labera sartzan zuen oreka jatorri desberdineko irinez eginga zela: “Hiriart-Urrutik lapurtarra zerabilan, benabartarrekin apur bat nahasteka, noizetik noizera aditzaren jokia bederen maileatzen zuelarik ziberotarrari”. Antzeko oreaz baliatzen zen Arnaud Abadia ere. Etxeparek bazekien baita, bere hirugarren ereduak, Jean-Blaise Ademak, osterera, ez zuela batere begi-ko delako hibridismo dialektal hori:

Ademak aldiz ez du nehoiz den gutieneko nahastekatzerik onetsi. Ez dirudi goستن duela euskalki bat baizik: lapurtarra. Lapurtar bat hain garbia, hain erotikakoa, hain laua, halako antzearekin eta hain leñargiki jorratua, non oroitzaren bat utziko baitu, ondoko idazleek betierean ikasgeitzat hartuko dutena.

Ikusi dugunez, Jean Etxeparek eredu hibridoaren aukera egin zuen, baina, aukera askoz hibridoago bat oratuz, berak zehatz-mehatz aitortu digunez. Aipa dezagun, bide batez, hibridismo dialektal horrek kutsatuetarikoen artean bazela Pierre Buruzain medikua ere, eta beharbada, muturreko hibridismo dialektalak kutsatua gainera. Kasurako, *Euskera* aldizkarian argitaraturiko bere artikulu postumo laburrean, gipuzkeraren gainean eraikitako koine bat erabili zuen, alegia, euskara “batu” batez idatzi zuen artikulua, eta bertan ia euskalki guztietariko ekarpenak topatuko dituzu, hori bai neurri eta proportzio desberdinetan: *zombait*, *delakotz*, *dan*, *diran*, *zoin*, *edukiren*, *neure*, *bezenbatean*, *erabakiren*, *lez*, *degu*, *det* eta beste asko. Argi dago: Buruzainek *batuaz* idatzi nahi du, eta horretarako batu egin ditu euskara desberdinak ardatz nagusi baten inguruan. Izatez, Buruzain izan zen, Campione-kin batera, 1920an euskara batzeko proposamen-txostena idatzi zuena, Euskaltzaindia sortu berriaren baitan. Euskalki zentralak (lapurtera eta gipuzkera) oinarri gisa hartu eta gainerako euskalkiekin aberastea proposatu zuten txostenean. Gerora Azkuek zehatzago azalduetako “gipuzkera osotua” ere bide horretatik zetorren, eta tartean Lizardi bezalako olerkariek ere gisa bereko hibridismo dialektalera jo zuten. Kontura gaitezen, euskalkia gainditu eta euskaldun guztientzat idazten ari delarik, Buruzain, zelan edo halan, euskaldun guztien elementuez baliatu da euskaldun guztiengana heldu eta guztiengandik hurbil mantendu guran, hau da, inor senti ez dadin urruneko eta arrotz mintzaira horretan. Hala ere, *euskara ekumeniko* deituko dugun hori ez zen Lacomberen gustukoa suertatu, eta gaur egun ere gaitzespen eta errefus franko jaso ditu: daukat orduko *hibridismo dialektala*

egungo *Marteko euskara*-edo bilakatu zaigula; izenak izen, etiketen ostekoa oso antzekoa begitandu zait kasu bietan, eta dena esateko, oraindinokarren ezin izan dut begietaratu *euskara ekumenikoaren* aldean *euskara parrokialak* duen ustezko gailentasuna, dialektologoen hain maite dutena.

Alabaina, Jean Etxepareren hautu hori ez zen etorri ingurukoek eredu hibridoak erabiltzen zituztelako, baizik eta, gehien bat arrazoi pragmatikoak direla-eta. Etxeparek, beraz, jakinaren gainean baztertu zuen Ademaren euskalkiaren aldeko hautua, beren-beregi. Horretarako zituen arrazoi “literarioak”, besteak beste, 1922an plazaratu zituen zeharka bada ere, *Euskaren batasunaz* idazlan guttiz interesgarrian. Aipatu artikulua alde bitatik da interesgarri, zeren, Etxepareren hizkera literarioaren zergatik batzuk argitzeaz gainera, bestalde, kuestionatu egiten baititu Koldo Zuazoren zenbait baieztapen potolo. Ikus ditzagun, beraz, lerrokada batzuk.

Artikulua gogoeta nahikoa luzea denez, testu-ingurutik erauzitako zati hauek ez dute jatorrizkoaren haria gordetzen: erabili nahi ditut soil-soilik Etxepareren aukera literarioa argitzeko. Ez ditut jaso, bada, euskararen batasunaren gaineko pasarteak. Soilik aipa dezadan Etxeparek euskararen berehalako bateratzea ez zuela egingarri jotzen. Aldiz, bazuen esperantza epe luzean hizkuntza bateratzeaz. Baina, etorkizuneko egun hori heldu bitartean ez zen konformatzen euskalki soilekin:

Euskalkiak ez dira horrengatik biziki aitzinatu; duela hiru mende zuten neurri bertsuan daude. Etxetako lan beharren beharrenez, elizako eta garaitiko urrats baitezpadakoenen doi.

[...]

Liburu guti dute argitaratzen [euskal idazleek]. Zendako? Irakurlerik ez ukanez, ez bailukute beren lanaren saririk. Zendako oraino? Euskalki bakoitzaren hizkuntza xuhurregi baita liburu aipagarri baten osatzeko. Elizako eta etxetako gauza beharrenekoen liburuxka baten geiik baizen ez baitu euskalkiak, edozoin izan dadin. Hortako bereko ere ez da izaiten irakurlerik.

Liburuak ezin egin eta bizkitartean bere euskalkia nahi atxiki, hedatu eta ahalaz goritu, zer bide du hartzen idazlariak? Kazetarena. Astean behin igortzen du bere lana, sos bat edo bietan herritar gehien eskuatarat heltzen den paper bati. Elizako zerez izkiriatzen du hemen gehienik, bai eta laborantzakoez; ahal bezala bizkitartean, bere euskalkiaren zoko-moko guziak ontsa ikertuz, hitz batzu elgarri josiz, bertze batzu elgarrekin oratuz, bermatzen da ere oraiko bizi moldearen itzul-inguru guzietz bere gogoko berrien lumaz emaitera. Ezin helduz batzutan, frantses edo espainol mintzaiari maileatzen daizko hizkuntza zonbait, ahalgearekin eta errabiaz ardurenik markisten dituela. Lan kartsu eta hunkigarria, gizonaren higatzeko lana, nekeak berak ez balako berotzen barnea eta adimendua atseginarekin goratzen. Darraizkola, beti gizon berak aurkitzen ditugu: apeza, eskolemailea, neurtizlea, idazlea. Azken hau begi edo beso luzeagoa, aztaparkaria-goa ere ba. Lauak, elizako eta laborantzako zerez bertzalde, hortzetza eta haginez lotuak jakinkizun diren bertze edozeri: politika, medikuntza, sal-erospenetako xehetasun, gramatika, josteta zahar eta berri, industriako lanpide, bankoetako goiti-beheiti, lagungoetako erabaki, legez legeko buruzagien urrats, orotarik apur bat, berex edo nahas-mahas.

Pasarteko gainerakoak arbuaiatu barik, nik neuk “Euskalki bakotxaren hizkuntza xuhurregi baita liburu aipagarri baten osatzeko” azpimarratuko nuke, eta bai “Elizako eta etxetako gauza beharreneko ez liburuxka baten geiik baizen ez baitu euskalkiak, edozoin izan dadin”. Hau da, Etxepareri beharrezko zaio euskalkiaz goragoko zeozer, nahi duen altuera aipagarrian hegaldatu ahal izateko, soilik euskalkiarekin nekez irits daiteke-eta elizako eta etxetako gauzarik oinarritzkoenetara. Horrexegatik-edo joko zuen hibridismo dialektalera.

Alde horretatik, argi dago, Etxepareren teoria eta praxia ez datoz bat Koldo Zuazok *Euskararen sendabelarrak* liburu aipatuan defendatuarekin: “Euskara Batua asmatu bazen, beraz, ez zen izan euskalkiak gai jasoez jarduteko ezigauza zirelako. Ezta hurrik eman ere!” (28. orr.) –idea berbera formulazio desberdinekin aurkitu ahal duzu zenbait aldiz liburuan barrena–. Nik ez dakit oso ondo zer dela-eta batu zen euskara, baina, guztiz justifikatua iruditu zait Etxepareren hibridismorako beharrezana. Hari bereetik, Koldo Zuazok idatzi du: “pentsaezinekotzat jotzen dute batzuek ingeniariaritzaren genetikoaz, esate baterako, euskalkian jardun ahal izatea”, eta badirudi uste duela ez dela bereziki zaila izango. Ostera, Etxeparek adierazi bezala, ozta-ozta elizako eta etxetako gauzarik oinarritzkoenetara iristen den euskalki xuhur horrekin, neuk ere ezinezkotzat dut ingeniariaritzaren genetikoaz –eta beste hainbat eta hainbat gai narrasagoen gainean– idaztea, ganoraz behintzat, zeren, eredu hibridoetara jota ere oraingoz ez baikabil-tza batere flamenko. Eta bere ideia horri funtsa emateko-edo, ondoko hau erantsi digu Koldo Zuazok: “Kontua da, 1968a arte, euskaraz idatzi den guztia, ona eta txarra, euskalkian egin dela”. Nire ustez, aurreko esaldi hori ere ez zaio biribilegi gelditu Koldori: kontua izango da, beharbada, 1968a arte idatzi den guztia ez dela akademiak bedekaturiko euskara batuan egin, baina Gabriel Arestiren protobatuaz gain, beste hainbat idazlek ere jo zuten hibrido metadialektaletara, arestian aipatu dugunez. Gauzak ez dira horren eskematikoak.

Nolanahi ere den, bereziki interesgarri deritzot Etxepareren planteamenduari, zeren, uste eta aurreiritzietatik abiatu beharrean, arian-arian garatutakoa baita, alegia, idaztearen beharlekuan hartu eskarmentuak probatua. Kontura gaitzen, Etxepareren idazle-lanerako oso irismen handiko baliabidea izan da hibridismo dialektala –edo dena delakoa!–, luma zorroz-tu eta edertu baitio: berak luma zeukan aitzurtzat, eta goldetzat mihia, besoen orde ari zaizkotelarik lanean buru-muinak.

Etxepare medikua euskara ekumenikoaren premia larrian zegoen, kolkoan zerabilena paperean etzan erazteko, eta ekumenismo hori euskararen mugetatik kanpora ere hedatu zuen –Sebero Altuberen eraginez-edo–, lehena aztertu dugunez. Etxeparek, hortaz, bereganatu egin zituen Altuberen lexikoaren inguruko ideiak, eta nazioarteko bidea hobetsi zuen: garbiro atzeman daiteke bere idazlanak irakurtzean. Hala ere, horrek ez du esan nahi bestelako bideak zarratutzat jo zituenik, ez eta baztergarritzat zeuzkanik. Ikusi, esaterako, 1929an zer adierazi zuen, Euskaltzaindia sortzen ari zen hitz berrien gaineke *kitzika* batean:

Huna bertze ohargarri bat, hitz berrien egiteko sailari dagona. Jakitatea ari da emeki emeki zoko guzietarat hedatzen, egunetik egunera gure bizi molde guzia azpikoz goiti ezartzen daukularik. Baina jakitateak badu hanitz aldaska; aldaska bakotzak aldiz, ez dakit badakarren bospasei zer baino gehiago, osoki oroitgarri direnak, hek baitaukate garaitiko guzien gakoa. Ordu litake euskaraz erakuts eta erakats baginitza direnak oro, argi argia, jende xeheak, euskaraturik, ditzan egin bere adimenduko hazkurri eta mihiaren alhapse.

Horrela jokatzuz, gure mintzai zaharrerat itzuliak geldi litazke hitz frantses andana bat, hala nola: *pression, combinaison, résistance, intensité, base, ferment, force centrifuge, pesanteur*, egun guzietz eta noiz nahi ahoan erabiltzeko ukanen ditugunak.

Pasartean, egunero eta edonoiz erabiltzen diren berba horietarikoak jende xeheak “euskaraturik” beharko lituzkeela ikusi dugu, “gure mintzaira zaharrera itzuliak”, baina, Etxeparek ez du zehaztu zelan geureganatu: zuzen-zuzenean mailegatuz edo lexiko-sorkuntzarako bestelako bideetara joaz. Pasarteak puntu hori argitu ez arren, Etxeparek berak makina bat hitzberri sortu eta erabili zituen, eta alde horretatik, giroan hain zabalduta zegoen joera teutonizatzailearen tentazioan erori zela esango dugu.

Urrutira joan barik, Pierre Buruzain mediku hazpandarrarengandik jaso zezakeen joera hori, izan ere, euskaltzain hazpandarrak teutonizazioa zeukan euskararen hiztegi-hutsune itzelaren konponbidetzat. Buruzainek horixe diotso argi eta garbi Lacomberi 1905eko eskutitz batean:

Avez-vous pu vous procurer un dictionnaire complet japonais-français? Il serait curieux de savoir comment les Japonais ont formé les nombreux mots qui leur manquaient pour exprimer les idées importées par la civilisation européenne, si vite et si complètement assimilée par eux. Il serait intéressant de savoir par quel procédé ils ont créé dans leur langue des mots comme “algèbre”, “chimie”, “anatomie”, “psychologie”, “automobile”, “cuirassé”, “torpilleur”, “batterie”, “obus”, etc. Lorsque le moment sera venu de fonder une Académie Basque et de créer les milliers de mots qui manquent à l’eskudara pour en faire une langue d’intellectuels, les procédés dont ont usé les Japonais pourront nous être utiles. Il est vrai que, sans aller si loin, la langue allemande peut nous donner beaucoup d’exemples de mots créés.

Ikus daitekeenez, etorkizuneko euskal akademiaren gainean utzi du hitzberri horien guztien sorkuntzaren ataza, baina, hala ere, berak 500 bat eratu zituen 1913rako, eta hainbat adibide bidali zizkion Lacomberi; esaterako: *bedarmulen* (= botanika), *bedarterle* (= botanikari), *lobimulen* (= anatomia), *lobiterle* (= anatomista), *bizimulen* (= fisiologia), *biziterle* (= fisiologo), *eloitilmulen* (= bakteriologia), *eloitilerle* (= bakteriologo), *eloitil* (= bakterio), *mintzaimulen* (= linguistika), *izarterle* (= astronomo), *zarmulen* (= arkeologia), *gizendaterle* (= antropologo) eta abar. Jakina, eskutitzean azaltzen dio zelan aritu den eta zertan oinarritu den neologismo horiek itxuratzeko. Dena dela, kontura gaitezen: adibideak gorabehera, teutonizazioa da ikusten ari garena, bete-betean.

Jean Etxeparerengan ere “txukuneria” igar daiteke batzuetan, baina ez da inolaz ere magnitude horretakoa. Esate baterako, Piarres Xarritonek soilik 30en bat hitz markatu ditu “J.E.” laburdurarekin –adieraziz Jean Etxeparek sortuak-edo direla– Aldudeko medikuaren obra osoaren bildumako lehen liburukiko hiztegiari. Nolanahi, badirudi Etxeparek, Buruzainek ez bezala, joera duela zabalkuntza semantikoz edota berrezarpen lexikalez baliatzekoa, hitzberriak sortzeko. Ikusi bide horretatik, adibidez, 1934an zelan izendatu zuen, *Eskualduna* aldizkarian *Gaitz izenik gabeko* artikuluan deskribatu zigun gaixotasuna:

Orok ezagutzen dugu mamutza bat, gure etxetako mubletan, zurari barnez-barne, eztenaz eta aztaparrez, batzutan gauaz beharrietarat heltzen zaikun sega-harrabots batekin, satorra, lurpez bezala dabilana. Deitzen da euskara: *zerrena*. Zilatzen du zura, irintzen, harrotzen, zizkatzen, argaltzen, galtzen. Halaber gure gorputza, erran dugun landarexka bihurdikatu, bihurriak. Gure haragiko zerrena da, hau.

Izenik gabeko gure gaitzari izen baten emaitzekotz, erran ginezoke gogotik: *zerren-zirika*.

Artikulua irakurrita ez dago inolako zalantzarik: sifilia da protagonista, sifilia da izenik gabeko gaixotasuna, eta horrelaxe jaso du Emilio Lopez Adanek, Xarritonek apailatu duen obra osoaren bigarren liburukiari erantsi zaion hiztegi medikoan. Era berean, *zerrendun* diotso Etxeparek sifilitikoari. Pasarte ondo ulertzeko, kontura zaitez, gainera, Etxeparek darabilen “landarexka” hori bakterioa izango dela, eta atzeneko “zirika” horren bitartez bazilo dioskula.

Emilio Lopez Adanek bildu ditu, beraz, Etxepare medikuak bere idazlanetan noiz edo behin agertutako berba teknikoak: 279 sarrera daude argitaraturiko zerrenda horretan. Alabaina, UZEIren hiztegiatarako erabiltzen diren irizpide terminologikoak aplikatuz soilik 124 salba daitezke gaur egungo erabilera teknikoetarako. Jakina, arestian ikusi ditugun *zerren-zirika* eta *zerrendun*, eta Lopez Adanek osotutako zerrenda horretako beste berba asko, seguruenez, Etxeparek berak ere besterik ezean hartuko zituen, ze, aurreko tradizio-faltaz gauzak zelan edo halan izendatu beharko zituen, eta berba horietara joko zuen, aproba modura-edo.

Esan gabe doa, ez dut uste Jean Etxepare gure prosagileak han edo hemen erabilitako berba tekniko guztiak geureganatu behar ditugunik, begirune itsu-itsuaz. Alde horretatik, oso deigarri suertatu zitzaidan Ibon Sarasolaren liburu polemikoa irakurtzean, *zerebelo* berbaren ustezko desegokitasuna dela-eta, argudioaren harian ondokoa irakurtzea: “Gainerako hizkuntzetan, gure artean medikuntzaz ongien eta txukunen idatzi duen Jean Etxepare idazle handiak erabili zuena aurkitzen dugu: *garuntxo*”. Eta beharago: “horrela jokatz [alegia, zerebelo hitza erabiliz], gure medikuntza tradiziotoxa arbiuatz...”. Nik uste, gure medikuntza-tradiziotoxa hobeto zainduko genuke dagokion testuinguruan kokatuz eta ulertuz, eta, jakina, berorren ekarpena askoz aberatsagoa izango litzateke Etxepare irakurriz, hau da, Etxepareren idazlanen estiloaren azterketa xehe eta praktiko batetik abiatuta, eta ez, inola ere, haren berba “teknikoen” erreskate bortzatutik.

Oroz gain, nik neuk, euskara ekumenikoaren aldeko joera argia berreskuratuko nuke Etxepareren hizkuntza-eredutik.

INORK EZ ZIDAN ESAN EUSKALDUN IZATEA ZEIN NEKEZA DEN, HOBE NUELA HAUTATZEA MUNDUKO HIRITAR IZATEA

Oraindik orain kaleratu den *Bidegileak* bildumako *Jean Etxepare*, “fededun zintzoa, abertzalea eta tradizio zaharren gordetzailea” zela diosku Isabel Arrigainek. Bide beretik, Maria Jose Kerejetak “katolikotasun kutsu ageria” eta “abertzaletasun nabarmena” egotzi zizkion Etxepare mediku edadetuari, *Beribilez* bidaia-kronikaren berrargitarapenaren kariaz. Amaia Iturbidek ere “ideologia abertzalea” aurkitu du Etxepareren idazlanetan.

Esan gabe doa arras bestelakoa begietaratu zaidala Etxepare nire irakurketetan, eta, izan ere, orain artekoan ahalegindu egin naiz aurkezten mediku oso berritzailea – ia ikonoklasta–, agnostikoa eta erabat laikoa. Nire begietarako, ezaugarri horiek berez dira azpimarragarriak Aldudeko medikuaren obran barrena, baina, are eta azpimarragarriagoak –nabarmenagoak esango dut– kontuan hartuz zein testuingurutan bizi izan zen egilea: Lotiandia loarazle horren erdi-erdian, ezinago suspergarria suertatzen da Aldudeko medikuaren izaera.

Dena dela, aipatu hiru iritzietan badoa beste baieztapen bat –hirurek baitioskute abertzalea zela gure Etxepare–, zeharka baino oratu ez dugun alorrera garamatzana, alegia, Jean Etxepareren ideologia politikoarenera. Geuk ere, bigarren eta hirugarren kapituluetan aipatu ditugu abertzale kutsuko Etxepareren pasarte batzuk, beste ikuspegi batetik abiatuta. Hemen ere ez da nire asmoa esparru horretan barneratu eta sakontzea, formazioz eta ezinezkoa baitut, baina ausartuko naiz hala ere bizpahiru inpresio mahai-gaineratzen.

Lehenengo eta behin, aipagarria da Ipar Euskal Herriko autoreek, ares-tian aipatutakoek ez bezala, Etxepare medikua ez dutela abertzale gisa aurkezten. Esate baterako, haren obra osoa bildu eta berrargitaratu duen Piarres Xarritonek, luzaroan kokatu du *Gure Herria* aldizkariko gerlari ohien multzoan, hau da, frantses erregionalistatzat-edo jo izan du gure medikua, eta izan ere, Xarriton lagun maiteak oraintsu arte ez du aldatu abertzaleen taldera, *De Re Publica edo politikaz* (2003) liburu interesgarrian hauxe erantziz: “zinezko abertzale batek egin zezakeen bezala, aberriaren lehentasunak zehazki markatu [...], nahiz berak [Etxeparek] bere abertzaletasuna ez zuen, nik dakidala, nehoiz aitortu”. Ildo beretik, Jon Casenavek Etxepare eduki zuen tesi-gai, baina bere azterketan mediku euskaltzale aparta erakutsi zigun, eta ez, oster, mediku abertzale bat. Oker ez banago, Iparraldekoen artean soilik Manex Goihenetxek sumatu du abertzale bat Etxepareren kolikorik gordeenean hasiera-hasieratik, eta izatez, Pierre Buruzainen ideia



Jean Etxepare idazlea, helduaroan. Artean Alduden bizi zen berrogeita bost urteko Etxepare dotore hori: ezkontza-argazki ineditoan dugu.

(ARG.: M. LARROULET).

abertzaleekin lotzen du zuzenean: “Ses idées [Buruzainenak] sont partagées également par le jeune Jean Etchepare. Il semble que ces deux basquistes adjoignent au slogan *Zazpiak bat* l’adjectif *libro*”. Eta, jakina, Constantin mediku zuberotarra ere Buruzainen gogaide egiten du Manex Goihenetxek.

Izatekotan ere badirudi aipatu adskripzio ideologikoa ez dagoela horren garbi. Etchepare eta Buruzainen arteko hurbilketa ideologiko hori frogatu aldera Manex Goihenetxek darabilen testua, gure mediku saiogileak 1920an argitaratu zuen *Eskualduna* astekarrian, bere lagun hazpandarraren obituariogisa. Buruzainen euskaltzaletasun erabatekoa eta Hegoalde-zaletasun suharrara amultsuki adierazi ostean, ondoz ondoko pasarte esanguratsu bi dakartzatza amaiera-aldean:

Zazpiak bat eta libro, bizi zeno eta beti fede berarekin hitz horiek zituen irakurtzen bere baitan. Gure mendi xoragarrien artean erresumaño bat bezala bildurik zituzken ikusi nahi, zazpi probintziak; ikusten ere zituzken amestetan haren begiek *Gernikako arbolaren* itzalpe eztian.

Horraingo lehen pasarte, printzipioz edozein abertzalaren ametsa dirudiena, eta Manexek Etchepareren kolkoan hauteman zuena. Alabaina, nire ustez hurrengo pasarteak amets horrekiko urruntasun bat adierazten digu Etcheparengan:

Aspalditik horrela gogoan zaukan, Euskal-Herriaren kariatat, lur huntako populu ttipi guzien berez bere jartzea. Badakizue ondar gerlan nolako solasak ibili diren hortaz munduan. Guk uste obrak ez diren izanen solasen araberako. Azpitik atxikitzea ez askiz, handiek ttipiak zapatuko dituztela eta lehertzerainokoa hertsatuko, gu beldur. Ohore hartatik bertzela gauzen ezartzeari lehiatzen diren *Broussainen* iduriko gizoner.

Kontu bi azaldu nahi ditut. Batetik, Etcheparek aipatu solasek, Gerla Handia bururatzean Wilson presidente amerikarraren ingurutik populu txikietan sortutako itxaropenaz ziharduten: Versaillesko bake-konferentzian, besteak beste, herrien askatasuna nazionalitate-printzipioan oinarritua proposatu zuen presidente amerikarrak, eta izan ere, dei egin zioten Hegoaldeko diputatu abertzale batzuek. Egiteko dudan bigarren oharra zerikusiz zuzenagoa dauka darabilgun hariarekin. Pasartearen azken lerrotan, kontura zaitez, Etchepare sinesgogor agertzen zaigu amets abertzalaren gainean –*gu beldur*–, baina, hala ere goresmena opa die Buruzain bezala beharleku horretan lehiatzen direnei. Halandaze, nire irakurketaren arabera, esparru horretatik kanpo kokatu du bere burua Etchepare medikuak, nahiz eta begirunea agertu abertzaleei.

Ildo horretatik, badago 1921eko beste pasarte bat –Donibane-Lohizuneko Eskualzaleen Biltzarra dela-eta–, aurreko hori osotzera datorrela dirudiena:

Libro!?!... Gure gain!?!... Bainan zoin da gizaldea, guziz oraiko egunean, berez bere bizi ditekunik? Legeak berak, mugetako zedarriak hautsirik, ez direa orotan berdintsu ari jartzen?... Uzten balauzkigute bederen, sobera itzulipurdikatu eta kotsatu gabetarik geure lurra, geure ohidura gehienik atxikiak gitzazkotanak, gure mintzai zaharra!

Nire ustez, irakurri berri dituzun lerro horiek ezin ihardukizko moduan erakusten dute Etxepare nahikoa sinesgogor agertzen dela, Buruzainen ametsa plasmatzeko posibilitateaz. Itxura batean, Etxeparek ez du egingarri ikusten euskal *erresumaño* bat, ordurako jadanik globalizatuz-edo hasia den mundu batean. Lerro horien pentzutara, badirudi Etxepare kezkatuta dagoela Euskal Herriaren etorkizunaz, baina ez duela larregi sinesten alegiazko muga berri batzuek bertako ohitura atxikienei eta hizkuntza zaharari ekar liezaieketen babesean.

Sinesgogortasun horren zioetariko bat, beharbada, irakurri dugun *erre-sumaño* berba horrek iradokiko digu. Etxepareren testuetan han-hemenka aurkituko duzu Euskal Herriaren txikitasunari egiten dion erreferentzia. Esaterako, 1903ko hau:

...zokoño bat orok dakiguna... Gure Euskal-Herri maite hau [...] [da] munduak duen poxirik ederrena, bertzela zeruak duen poxirik ederrenaren azpian...

Alde horretatik, litekeena da Etxeparek gainditu ezinako oztopotzat iriztea “ñimiñoño” izateari, Euskal Herria burujabe bilaka zedin. Hau da, errealismo politikoak urrunduko zuen, Pierre Buruzain eta Albert Constantinen amets betegaitz horretatik. Sujet horretaz mintzatzean, Piarres Xarritonek behin baino gehiagotan aipatu dit, ñimiñotasunaren argudio hori Iparraldeko anitz euskaltzalek egin zutela bere, frantses erregionalismotik haratago ez urruntzeko. Alabaina, ideia horrek hedadura zabala lortu zuen, eta, kasurako, Pio Barojak honelaxe itxuratu zuen, 1920an Bilbon irakurri *Divagaciones sobre la cultura* hitzaldian:

Vivir a la defensiva me parece un error: querer fundar naciones que hoy un aeroplano puede cruzar en quince minutos, es absurdo.

Esan gabe doa, Etxepare eta Baroja arteko gogaidetasuna puntu horretan ezin dugu harantzago eroan, zeren eta, don Pio inoiz edo behin Bidasoako Errepublikaz mintzo bada ere –*un pequeño país limpio, agradable, sin moscas, sin frailes y sin carabineros*–, euskarari ez baitio bertan inolako muntarik eman, areago, ez dio bizimodu modernorako inolako bideragarritasunik onartu. Euskara, haren ustez, mentalitate guztiz arkaiko baten adierazpidea da, eta, hortaz, baserrian eta berorren inguruetan baino ez da erabilgarria. Aldudeko medikua, aldiz, euskarari guztiz atxikia da, eta buru-bihotzez bermatu da euskararen hala iraupenean nola aurrerapenean.

Euskaltzale porrokatua da Etxepare, bai, baina, ba al da abertzalea? Erantzuna, izan, ezezkoa da, zentzu hertsian bederen: Aldudeko medikuak badu betidanik bere herriaren kezka, une oro ditu gogoan bere nazioaren oraina eta geroa, baina, bestalde, ez du ardura hori egitismo politiko jakin batean berdindu. Ez dio grina horri dimentsio politikorik eman, kulturala baino. Antza, Etxeparek ez zuen Euskal Herria subjektu politikotzat hartu, edo gutxienez ez zuen horrelakorik jendaurrean azaleratu, ez argitaraturiko idazlanetan, eta ez pribatuan, ezagun diren eskutitzetan. Jon Casenaveren

iritziz, Pierre Buruzaini 1905ean Aldudetik bidalitako eskutitz baten gibel-solasa da bere testu pribatu nabariena:

P.S.- Vous m'avez dit un jour, si j'ai bonne mémoire, qu'un géographe espagnol avait fait éditer une carte du Pays Basque supposé autonome et absolument indépendant. Pourriez-vous me dire où elle se vend? Je serais heureux de l'appendre (*sic*) à l'un des murs de mon cabinet.

Egia da, sarritan baditu esaldi ekibokoak, abertzale-edo diruditenak, baina, lasto-sua bezala, berehalakoan amatatzen zaizkionak, abertzaletasun ageriaren Rubicon ibaia zeharkatu barik. Adibidez, beste askoren arteko bat ekarriko dugu hona. Saran, Eskualzaleen Biltzarrak omenaldia egin zion Axular handiari 1925ean –Migel Unamuno egon zen bertan, bide batez esateko–; Etxeparek *Eskualduna* astekarian argitaratu idazlan luzetik bigarren eta hirugarren pasarteak ekarriko ditugu hona:

Bitxi dena, hau dugu: *Ainhoa* frantses, frantses *Sara* ere; *Urdazuri* guzia bai eta *Zugaramurdi*, biak espainolak. Politikaren erokeriak! Bi auzo erre-remen arteko zedarriztatze kakola! Halaber bertze eskualde batean, *Urepele* frantsesa da, eta hari datxikola, hura bezala, ixurkiaz hunaindian den *Kintoa* espainola. Zonbat holako adar makur, Frantziako lurreen sartuak, dituen muga guzietan!

Norbaitek erranen dauku badela oraino zerbait jasangaitzagoa: *Ainhoa*, *Urdazuri*, *Zugaramurdi*, *Sara*, *Urepele*, *Kintoa*, oro euskaldunak izanki, euskaldunak odolez, ohikuntzaz, lurrez ala mintzaiaz, eta halere batzu Espainiaren meneko, bertzeak Frantziaren: indarrak noizbait bi haurride andana elgarretarik berexi ezarriak! Xo, erranik aski hortaz, egungo.

Axularren figurarekin hasi aurretik, konturatu zarenez, haren kokatze geografikoa azaltzeari ekin dio Etxeparek eta, horretan ari delarik, une batez badirudi aldarrikapen politikorantz lerratuko dela. Oso lerro gutxitan hainbat denuntzia-elementu metatu ditu eta nabarmendu: auzo-estatuen arteko muga zentzunbakoa, euskaldunen banaketa jasangaitzagoa eta, areago, indar hutsez ezarri zaiena. Eta, aldarrikapen politikora jauzi egiteko abiada lortu duela ematen duenean: xitun! Hor amaitu da kontua.

Halandaze, Etxepareri ez zaio ondoegi egokitzen abertzale terminoa, gure idazlea ez da-eta ohiko nazionalista. Horren orde, natur zientzietako alorretik mailegaturiko deizio bat erantsiko diot, hobeto karakterizatzen duelakoan. *Filopatritia* dela esango dut.

Filopatritia denominazioa, Ernst Mayr zoologo eboluzionista handiak erabili zuen 1942an lehen aldiz, animalia espezie askok sorlekuan bertan edo inguruetan irauteko duten joera izendatzeko. Gerora baina, bestelako ñabardurak erantsi zaizkio hasiera hartako nozioari, eta Ernst Mayr-ek berak oraindik orain, 2001ean, honelaxe aurkeztu du:

Philopatry The drive (tendency) of an individual to return to (or stay in) its home area (birthplace or another adopted area).

Morris ingeles-euskara hiztegiaren arabera, *drive* hori “adore, kalipu, kemen” izan daiteke bigarren adiera batean, edota “oldar” hirugarrenean; ikusi, Mayr-ek ere parentesi bidez zehaztu digula nolabait. Filopatria delakoa era desberdinetara ager daiteke, baina normalean mota bi aipatu ohi dira. Badaude espezieak sorlekura ugaltzeko itzultzen direnak, eta orduan jaiotza-filopatiaz mintzatzen da (= *natal philopatry*). Orobat, badaude espezieak ondoz ondoko urteetan ugalketa-toki edo lurralde berera itzultzen direnak, eta ugaltze-filopatria edo leku-fideltasuna erakusten dutela esan ohi da (= *breeding philopatry* edo *site fidelity*). Gaiari buruzko artikuluetan, kanonikoa den filopatriko termino horrekin batera, *home-loving* plebifikatzailea agertzen da sarri askotan; Mayr-ek berak diosku, bestalde, filopatriko terminoaren ordaina bere ama-hizkuntzan, hots, alemanez, *ortstreu* dela (= leku-fideltasuna), bide teutonizatzailetik eratua, jakina.

Mayr-ek espeziazio-prozesua aztertzean aurkitu zuen, filopatria izendatu zuen fenomeno hori. Ernst Mayr konturatu zenez, barrera geografikoak –mendi-kateak, ibaiak, itsasoak, eta abar– oso garrantzi handikoak izaten dira espeziaiorako, gene-fluxua oztopatzen baitute, eta, izatez, espezie-abe-rastasuna nabariki emendatzen da barrera asko dituzten lurraldeetan. Adibidez, irletan espeziazioa oso aktiboa izaten da. Alabaina, kanpoko faktore mekaniko horiez gainera, Mayr-ek bestelako faktore intrintsekoak aurkitu zituen, espezie bakoitzak inguruneko barreren aurrean modu desberdin batean erantzutea eragiten zutenak. Filopatria da faktore intrintseko horietariko bat, eta, kontura zaitezkeenez, nabarmenki murriztu ahal du espezie baten banaketa, nahiz eta barrera geografikoek berez ez oztopatu sakabanaketa zabalagoa lortzea –*Hori suertea Nonnabikoak diren boiena! Sasi guztien gainetikan Dabiltza began*–. Alegia, zenbait kasutan filopatriara-eta jo behar izan da espezie oso higikor batzuen banaketa geografiko arras murrizta azaldu ahal izateko.

Berriro gure medikuarengana gatozlarik, uste dut begi-bistakoa dela zer adierazi gura dudan Etxepare filopatrikoa zela esatean. Irakurketa literalez harantz, Etxepareren filopatriaren kasuan, halako faktore intrintseko ezezagunen batek eraginda euskara izan zen, haren fideltasuna atzeman zuen “etxea”, alegia, ingelesezko definizioiko *homea*. Izan ere, euskararen habian errun zituen Etxeparek bere arrautza guztiak –urrezkoak egiatan–, abertzale askok eta askok ez bezala. Euskaldun agertu da beti, ez bakarrik bere luma aberatsaz, “bainan oraino adimenduaren xuxenaz, eta bere bizi guzian Herriaren alderat erakutsi izan duen bihotzezko atxikimendu amultsuaz”. Etxepareri bene-benetan itsatsi ahal diogu *home-loving* etiketa hori: etxezalea! Jakina: etxezale, bai; ostera, etxezulo ez; abertzale, beharbada, ere ez.

Pentsa liteke, era erretorikoan bada ere, inoiz Etxeparek berak eduki izan zuela zalantza-punturen bat bere euskalduntasunaz. *Gure Herria* aldizkarian, 1929an, Eskualzaleen Biltzarreko buruzagiek Baionako *Café du grand Balcon* deituaren lehen estaian egindako bileraren berri eman zuen, partaide bakoitzari bi-hiru zertzelada eskainiz. Dioskunez, inor ez zen sasoz iristen:



Adibidez, izokina eta aingira dira espezie filopatrikoak, edota, enara. Filopatria-gradua aldatu egin daiteke espezie bereko populazio desberdinetan, eta kasurako Mayr-ek dakarrenez, eulitxori beltzean (*Ficedula hypoleuca*) ikusi da, Finlandian gazteen soilik ehuneko bata itzultzen dela sorlekura, baina Europako erdialdeko populazioetan % 20-35a. Paseko txoria, Euskal Herrian hostozabalen baso irekiak dauden lekuetan agertzen da eulitxoria, baina nahikoa urria da.

(ARG.: A. ELOSEGI).

Gezurra nioke, haatik, erran baneza alorrerat helduak izaiten girela langile guziak hamar orenetako. Orenarekin hoin tinko bagine, nor gutarik euskaldun egiazkoa? Euskaldun zinezko ote den Etxepare, Aldudeko medikua, nago nihaurekin batzutan: ba segurki hala baita, nahiz hertsiegia, aldi bakotx katedraleko orratzarekin baitabila xuxen, biltegian sartzeko, dohakabe hura.

Hau da, Jean Etxeparearen ustez, eta erloju-kontuetan oso-oso puntuala izan arren, euskaldun zinezkoa da Aldudeko medikua, baina hertsiegia, beharbada. Nire ustez, Etxepare euskaldun atipikoa da orduko giroan, ezohikoa, baina ez, jakina, hain puntuala zelako, baizik eta ikuspegi guztiz irekia edukitzeagatik bai euskarari dagokionez eta bai beste hainbat arlori doakiela ere, eta aldi berean horren etxezale izatearren, euskararekiko horrenbesteko abnegazioa erakustearren. Ekumenikoa zen Etxeparearen ikuspegia, etxezalea bezainbat.

Aipatu irekitasunaren froga izan daiteke, ia edonon erakusten duen liberalismoa, behin honelaxe artikulatu zuena, artean Gerla Handia guztiz amaitu barik zegoela:

Zentzuak erakasten du, gobernamentu baten eginbide bakarra dela herrialdearen beiratzea, mugak zainduz; zainduz ere, herrialdearen barnean, bat bederaren zuzenak; garaitiko zeretan, jendea utziz bere gain, bere ahal guziez jo dezan hoberenik iduri zakon eskualderat. Bere harat-hunatetan, bakotxa bere buruaren jabe; oro bakezko gudu batean zoin-gehiago ari; bat bederaren ona, eta herriaren ona, hortarik da; ez ditake hortarik baizik.

Epigrafearen hasieran aitortu dut ezin dudala Etxeparearen ideologian sakondu, eta halaxe da, baina amaitu aurretik beste hiruzpalau ohar egin nahi ditut, guztiz aipagarriak iruditu baitzaizkit, eta, beharbada, azterketa historikoren bat mereziko lukete.

Nonondik hastearren, Etxeparearen Kanboko koinatua gogorarazi nahi dut. Egia esateko, ez dut gauza handirik irakurri Alexandre Kamino medikuari buruz, baina nahikoa esanguratsu iruditu zaizkit datu bi, zeharka aurkitu ditudan arren. Batetik, nire ustez oso deigarria da, hain zuzen ere Alexandre Kamino izatea, Jean Ibarnegararen heriotzaren karietara *Gure Herria* aldizkarian eskainitako hileta-panegirikoaren sinatzailea. Ezin dugu ahaztu, Jean Ibarnegarai (1886-1956) garaztarra luzaroan izan zela Ipar Euskal Herriko politika eskuindarraren buru nabarmena. Zuzenbidea ikasi eta gero, oso goiz sartu zen politikara, eta 1914tik Bigarren Mundu-Gerlara arte etengabe aukeratu zuten diputatu gehiengo osoz. 1924an *Jeunesses patriotes* elkar-te ultraeskuindarraren presidenteorde aukeratu zuten, eta hurrengo urteetan faxismorantz lerratu zen. Francoren aldekoa zelarik, Ibarnegararena izan omen zen hegoaldeko euskaldun errefuxiatuak Gurs-eko kontzentrazio-zelaian batzeko ideia. Bigarren Mundu-Gerla hasi zenean, Pétain marexalaren Gobernu ministroa izan zen, alegia, alemanekin kolaboratu zuen Vichy-ko Gobernu ministroa. Gerla galduta alemanak erretiratutakoan, atxilotu eta epaitu egin zuten Ibarnegarai, beste kolaborazionista asko eta

Jean Ibarnegarai (1886-1956) politikari eskuindar behenafarra. Lanbidez abokatua zen, eta hainbatetan diputatu. Hamalauko Gerlan frantsesen aldeko kanpainak egin zituen Hego Euskal Herrian. 36ko Gerlan hegoaldeko joandako errefuxiatuei laguntza ukatu zien. Bigarren Mundu-Gerlan ministro izan zen Pétain



jeneralaren gobernu kolaborazionistaren baitan. Bestalde, asko nabarmendu zen pilota bultzatzen.

(ARG.: GURE HERRIA, 1956).

asko bezala. Kondenatua izan bazen ere, azkenean libre gelditu zen, nahiz eta debekatu egin zioten hauteskondeetara aurkeztea.

Puntu honetan, galdera bat bururutzen zait. Norainoko eragina eduki-ko zuen Kanboko alkate ibarnegaraizale nabariak Jean Etxepareren ideietan? Izan ere, 1914ko hauteskundeak direla-eta Aldudetik bidalitako kronika batean, gure medikua miretsita agertzen zaigu, “herriko etxe aitzinean, jende gaitza [...] dena begi eta beharri” Ibarregarai diputatu-gaiak egin mintzaldiaz, “hain baita jaun hori aditzeko goxoa, bere mintzo ozen, aho-paldi eder eta euskara garbiarekin”. Uste dut oso interesgarria izango litzatekeela jakitea Ibarnegarairenganako hasierako lilura hori zelan bilakatu zen gure idazlearen kolkoan Gerla Handiaren ondoren, kontuan hartuz politikari garaztarraren osteko jitoa zein izan zen, eta baita Etxepare noren arimura hurbildu zen, Aldudetik joanda. Nik uste, bide horretatik ulertu beharrekoak dira Etxepareren idazlanetan agertzen diren aipamen asko politika orokorrari buruzkoak, eta bereziki sozialisten eta komunisten gainekoak *–mailu berri dorpea, eta igitai motza–*.

Aipatu gura dudan Alexandre Kaminoren gaineko bigarren datuak, zerikusi zuzena du Mixel Labegerie kantu-berritzaile eta politika-gizon eza-gunarekin. Etxepare bezala, Mixel Labegerie mediku uztariztarra Alexandre Kaminoren eskutik iritsi zen Kanbora 1948ko udazkenean, baina gerora gaiztotu egin omen zen bien arteko harremana, bai arlo profesionalean eta bai politikoa ere. Sortu zen norgehiagoka horretan Mixel Labegerie atera zen garaile, zeren, lehenago diputatu-kargua kendu baitzion 1962an, eta geroago Kanboko alkatetza 1965ean. Nolanahi, urte horietako gertaeren harian, de Gaulle bera baino frantsesagoa agertu zen Alexandre Kamino, Aljeriak frantses iraun zezan nahi baitzuen. Ildo beretik, kanpaina garratzu zenean, “Contre le séparatisme, votez Camino, votez basque, votez français...” afixa argitaratu zuen, Labegerieren abertzaletasuna salatuz.

Bestalde, ezin dut aipatu gabe utzi, Etxeparek *Gure Herria* aldizkariko orrialdeak erabili zituela sarri askotan, Hitler zeritzon arrisku emergenteaz ohartarazteko. Ikusi kasurako, 1934ko abisu hau:

Horra non dugun, duela bospasei urte doidoi, Alemanek berek nahasi buru-bero batentzat zaukaten gizona, Alemania guziko buruzagi lehen!

Muturreko handiagorik ez ginezaken har, guk eta ondar gerlako gure lagunek.

Harriak zimentarekin berriz gogortzen diren bezala, ukondoz-ukondo jarri dira berriz, gure betiko etsaiak. Gizon bakar bati daude, huni gider guziak itsutuki utzirik. Gogoak bere ditu; bere, bihotzak; beretzekotan ditu sinestek berak, mintzo gira hemen erlisionetako sinesteez.

Asiako errege barbaro batzu baizik ez da behinere ikusi izan, baditu mendeak, horrenbertzekorik.

Oso oker ez banago, aipuaren hasierako “nahasi” hori Etxeparek nazi adierazteko darabil. Edozelan ere, badirudi Etxepareren aldarriak ez zuela arrakasta handirik lortu, eta, esate baterako, handik hamar urtera, 1944ko



Alexandre Kamino (1897-1972) medikua, Jean Etxepareren koinatu zen. Kanbon mediku handi jarria, herriko auzapeza izan zen, eta bai kontseilari jeneral eta diputatua ere.

(ARG.: HERRIA, 1958, 402 ZBK.)

ekainean, aliatuak Parisen sartu zirelarik *Eskualduna* betiko klausuratu zen. Izan ere, astekariak Salbat Arotzarena eduki zuen zuzendari 1937tik aurrera, eta berori behin eta berriro agertu zen Pétain-en alde eta fronte popularren kontra. Eta aurreko zuzendariak ere, Domingo Soubeletek, gorazarrezko biografia egin zion gerla-denboran bertan Vichy-ko gobernu-buru kolaborazionistari: “Pétain marexala”.

ZIENTZIA-PIRAMIDEKO ERPINETIK

Dinosaurioen suntsipena azaltzeko, gaur egun, hogeita batgarren mendearen lehen hamarkadan, nekez imajina daiteke onartzen dela asteroide baten inpaktua ez den beste edozein hipotesi. Hala ere, Luis eta Walter Alvarez aita-seein taldeak 1980an plazaratzean, hipotesi horrek ez zuen inolako aldekotasunik aurkitu paleontologoaren artean, hasiera batean errefusatu egin baitzuten ia aho batez.

Harrigarria bada ere, orain 65 milioi urte asteroide batek Lurrarekin talka egin zuela, eta dinosaurioak eta bai itsasoko ornogabe-espezieen % 50a txikitu zituela proposatu duen hipotesia ez zen eratorri suntsipenari buruzko ikerketa batetik, arroken magnetismoa aztertzei baino. Izatez, 1960tik aurrera ikerketa-efortzu handia garatu zen magnetostratigrafian. Diziplina zientifiko hori arroka zaharren datazioaz arduratzen da, eta horretarako luraren eremu magnetiko aldakorra aztertzen du. Jakina, gure planetaren eremu magnetikoaren polaritatea aldatuz joan da periodikoki, eta aldaketa hori arroka batzuetan inprimatu da. Esate baterako, laba zaharrak aztertuz solidifikatu ziren sasoiko magnetismoaren berri eduki dezakegu, zeren sumenditik gori-gori irtendako labek hainbat pikor metaliko baitauzkate eremu magnetikoarekiko sentikorrek direnak, eta erupzio-garaiaren “oroitzapena” gordeko dute harri bihurtu eta gero, hau da, pikor horiek berorientatzeko gaitasuna galdu eta gero. Bide horretatik, laba-geruza lodiak laginduz gero, luraren historiako tarte zabalen alderantzizkapen magnetikoak argitu dira. Mota horretako lanak oso garrantzi handikoak dira geologiaren ikuspuntutik, baina baita ezinago aspergarriak egiteko.

Walter Alvarez horrelako ikerketa ilun batean murgilduta zegoen 1973an, Gubbio hirian, Italiako iparraldean. Ziurrenez, horretan ziharduela sekula santan ez zitzaion bururatuko errutinazko laginketa magnetostratigrafiko batek, hankaz gora jarriko zuenik zientzia-mundua. Walter Alvarez geologo-talde zabal batekin batera zebilen. Berorietariko bat, Isabella Premoli-Silva paleontologoa, foraminifero planktoniko fosiletan espezializatuta zegoen. Alvarez-en, Premoli-Silva-ren eta taldeko beste batzuen emaitzak elkartuz, Erdi-Mesozoikotik Erdi-Zenozoikora arteko kronologia berreraikitzea lortu zuten, eta, ez ahaztu, K/T jazokunea aurreko aro bi horien arteko muga dela. Gainera, Gubbio-ko kareharri zurizko horma handiko foraminiferoen datuek erakutsi zuten, itsasoko bizidun nimiño horien suntsipena buztinezko geruza estu batekin uztar zitekeen.

Walter Alvarez liluratuta geratu zen buztinezko geruza mehe horrekin, hazbete inguruko zabalera daukana. Sasoi horretarako ezaguna zen, plank-



Gubbio-ko K/T mugaren azaleramenduaren tokiak geologo asko erakarri ditu laginak hartzeko. Beste argazkian, bertako buztinezko geruza estua ikus dezakegu.

(ARG.: I. IRAZABALBEITIA).

toneko bizidunak tarte magnetiko berean suntsituak zirela, zeinak adierazten baitzuen planktona batera desagertu zela mundu osoan, hau da, aldi berean edonon. Buztinezko geruzari so eginez, Walter-ek suntsipena jazo-kune azkarra izan zela sumatu zuen, eta ez ordura arteko eskuliburu guztietan deskribaturiko prozesu luze eta graduala. Esan gabe doa, korapilo hori askatzeko, bazegoen funtsezko galdera bat ezinbestez erantzun beharrekoa: zorioneko buztinezko geruza zenbat denboratan jalki ote zen? Ezaguna zen buztinezko geruza hori orain dela 65 milioi urte ingurukoa dela, baina ez zegoen esaterik berorren deposizioarako zein denbora-tarte behar izango zen: metodo modernoek ezin dute 10.000 urte baino tarte txikiagoak bereiztu.

Walter Alvarez Kaliforniara itzuli zen, Berkeley unibertsitatera, eta bere aitagaz mintzatu zen, Gubbio-n bururatu ideia zoroaz. Walter-en aita, Luis Alvarez, ez zen aita arrunt bat, zurea edo nirea diren bezalakoa: labur esateko, fisikari Nobel sariduna zen delako Luis Alvarez hori. Kontua da buztinezko geruzaren enigma ebazteko, metodo analitiko berria behar zela jakin ahal izateko buztina nolako abiaduraz depositatu zen itsasoko hondalean. Hori lortzeko, Alvareztarrek deliberatu zuten, sedimentuetako hauts meteorikoaren kontzentrazioa izan zitekeen bidea. Izan ere, meteoroak etengabe jausten dira Lurrera, eta hondar txikitxoak uzten dituzte jalkinak metatzen diren tokietan, kasurako ozeanoetako hondaletan. Material meteorikoak nahikoa erraz bereiz daitezke ozeanoko sedimentu arruntetan, zeren meteoroen osaketan kontzentrazio handietan agertzen baitira Lurrean arras urriak diren elementuak. Ildo horretatik, Alvareztarrek bazekitenez material extralurtarraren egungo akumulazio-tasa zein den, haien iritzian nahikoa izan zitekeen buztinezko geruzako material meteorikoaren neurketa, eskuratu ahal izateko zorioneko geruzaren deposizioak behar izan zuen denbora-tartearen estimazio zehatz bat. Aita-emeak Berkeleyko irakasleak izanik, eskueran eduki zuten munduko tresneria analitiko sofistikatuenak, Gubbio-ko buztin-laginak aztertzeko. Neutroi-aktibazio deritzon metodo analitiko supersentikorra erabiliz, iridio- eta platino-kontzentrazioak neurtu zituzten, hau da, meteoroeetan kontzentrazio handikoak eta, ostera, lur-azalean oso arraroak diren elementuak.

Lehen emaitzak 1978ko ekainerako eskuratu ziren. Lan-taldea –gerora ospetsu bihurtu ziren Alvareztarrak, Frank Asaro eta Helen Michel– zur eta lur gelditu zen lortutako datuekin: buztinezko geruzak 30 aldiz material kosmiko gehiago zeukan, Gubbio-ko goiko edo beheko sedimentuek baino. Erraz azaltzeko, geruza iridiod txit aberatsa aurkitu zuten. Talde barruan urtebetez luzatu zen, datuon haztatze artatsua eta eztabaida pausatua. Beste ezer baino lehenago, elementu horien kopuru anomaloak, eguzki inguruetakoa supernoba baten leherketa batek sortuak izan zitezkeela otu zitzaion, baina laster baztertu zuten hipotesi hori. Azkenik, burututako azterketaren emaitzak eta asteroide baten inpaktuaren hipotesia 1980an plazaratu zituzten, *Science* aldizkarian, luze barik ospetsu bihurtu zen 15 orrialdeko artikulua batean. Egileen ustez, gutxienez 10 km-ko diametroa zeukan asteroide batek talka egin zuen Lurraren kontra orain

Hauexek dira Berkeley-ko taldeko kideak. Eskuinetik ezkerrentz, Luis Alvarez, Walter Alvarez, Frank Asaro eta Helen Michel. Euren artean Luis Alvarez (1911-1988) fisikaria nabarmendu nahi dugu: Nobel saria eman zioten 1968an. Ezin da ahaztu, bestalde, 1940tik aurrera Estatu Batuetako armadarako egin zuela lan, eta 1943an Los Alamos-era aldatu zela, bomba atomikoa garatzen ari zen Manhattan Proiektuan parte hartzerako. Hain zuzen Luis Alvarezk diseinatu zuen lehen plutonio-bomba haren detonagailua. Areago, Luis Alvarez bera zihoan Hiroshiman bomba bota zuen Enola Gay hegazkin barruan; ostera, zenbait iturrik diotenez, leherketa atomikoa beste B-29 batetik behatu zuen. Gero, Estatu Batuetako arma




nuklearren programaren alde agertu ziren zientzialari gutxiatariko bat izan zen, hidrogeno-bomba ahalik eta lasterren gauzatzeko.

65 milioi urte, eta inpaktu horren efektuek sortuko zuten K/T mugako masa-suntsipena. Berkeley-ko taldearen iritiz, benetako erailea, hots, suntsipen masiboaren azken kausa, inpaktu osteko hiru hilabeteko ilunpe erabatekoa izango zen. Ilunpe beltz hori, jakina, inpaktuaren ondorioz atmosferara askatutako material-kantitate eskergak –dela meteorito birrinduarena, dela lur-azaletik erauzitakoa– ekarriko zuen, hor zehar harrotuta egon zen bitartean ez baitzuen eguzki-errainurik igarotzen utziko. Ilunpea nahikoa luzea suertatuko zen, eta, beraz, hilkor, tarte horretan landare-bizitzak eta planktonak erreka joko baitzuten. Katastrofe horrek, esan gabe doa, kalamitatea katea trofikoan gora zabalduko zuen, eta gosez hilko ziren animaliak, hala nola dinosauroak. Ilunpeak, bestalde, temperaturen jaitsiera bortitza ekarriko zuen, eta ondorioz, bat-batean negu gorria iritsiko zen lehenagoko mundu tropikalera.

Zer pentsatuko zuen Bonaparte printzeak, horren berri ukan izan balu? Beti lotzen dugu Louis-Lucien Bonaparte (1813-1891) euskal dialektologia-ekin, eta ahaztu egiten zaigu, kasurako, kimikari bikaina zela, mineral-bilduma ederra zuena, eta bertan iridio-kopuru nabarmena zuela.

Berkeley-ko taldearen hipotesiak bazeukan bere alde, batetik, artikuluan bertan aurkezturiko datu-mordoa. Bestalde, hipotesia, hein handi batean, testagarria zen: baldin eta inpaktua egiatan gertatu bazen, talkadaren aztarnarik gelditu egingo zen non edo non, edota, kasurik onenean, krater erraldoi bat. Talka-kraterre lokalizatzea, kasurako, hipotesiaren aldeko oso froga pisuzkoa zatekeen. Eta garrantzitsuago dena: fosil-erregistroak suntsitutako taldeen bat-bateko desagertpena erakutsi beharko luke hain justu zabor meteorikoen mailan, buztinezko geruza horretan. Zientzia-mundua pil-pilean jarri zen, areago, elektrizatu egin zen: batzuek laudorio ederrak eduki zituzten hipotesi ausartaren alde, eta bestetuek arbuia egin zuten argiro. Iritzi batekoek nahiz bestekeok lanari ekin zioten gogoz, behaketa berrien bidez hipotesia hala egiaztatzeko nola gezurreztatzeko.

Munduaren itxura orain 65 milioi urte, meteoritoak talka egin zuenean. Inpaktua, Karibe itsasoan gertatu bide zen, egungo Yukatan penintsulatik hurbil, eta inguru horretako itsasoan aurkitu da Chicxulub inpaktu-kraterrea. Zumaiaiko K/T muga da inpaktuaren hipotesiaren aldeko frogarik konbentzagarrienetarikoa bat. Mapa txikiak erakusten digutenez, egungo kostaldeko parte hori itsaso azal baten azpian zegoen sasoi urruti hartan, mapa horietan itsaso epikontinentalei baitagokio kolore zuriska. (ARG.: R. BLAKEY).



Inoiz esan denez, Berkeley-ko taldearen hipotesiak asteroideak Lurra bezainbeste astindu zuen komunitate zientifikoa. Hortik aurrera gauza asko gertatu dira denbora laburrean. Esate baterako, 1981ean Jan Smit holandesa arrokazko esfera txikitxoak aurkitu zituen, Caravaca-ko geruza iridioz aberatsean, Murtzian. Esferula horien osaketa kimikoak eta itxurak mikro-

tekitak zirela iradokitzen zuten, hau da, asteroide baten talkak urtu eta atmosferara jaurtiriko arroka-printzak. Lurraren orbita baxu batean denbora-tarte bat hegaz eman eta gero, printza horiek berriro lurreratuko ziren eta depositatu, inpaktu osteko egunetan edota hilabeteetan. Bestalde, urte berean, Robert Tschudy paleobotanikariak erakutsi zuenez, Mexiko Berriko landareen fosil-erregistroan eten oso esanguratsua gertatu zen, hain justu iridio-anomaliaren une berean: lurralde horretako landare normalen polena bat-batean desagertu egin zen, eta iratze-esporek ordeztu zuten. Ezaguna denez, iratzeak desastre-espezieak dira, lurralde disturbatuak oso azkar kolonizatzen dituztenak, adibidez, sute batek kiskalitako esparruak. Robert Tschudy-ren ohartze hori izan zen ordura arteko frogarik erabakigarriena erakusten zuena, berehalako kalamitate batek are eta lur lehorra ere harrapatu zuela. Eta luze barik, iridio-kontzentrazio potoloak aurkitu ziren mundu zabaleko lau kantoietan: 1984rako 50etik gora K/T muga-gunetan.

Nolanahi, inpaktu-hipotesiaren aurkariak ere gogor aritu ziren datuak eta behaketa berriak zerrendatzen, eta ildo horretako makina bat artikulu argitaratu ziren. Charles Officer eta Charles Drake agertu ziren oposizio-buru gisa. Haien iritziz, K/T mugako estratuetako datu anomaloak, meteorito baten talkaren ondorioz barik, bolkanismo masiboaren ondorio lirateke. Hawaiiko sumendien azterketetan frogatu bezala, erupzioek iridinoa askatzen dute. Halandaze, haien argudiaketan, K/T geruzetan aurkitutako iridinoa iturri lurtarrek sortua izanen litzateke, eta ez jatorri extralurtarrekoa. Areago: baldin eta iridinoa jatorriz lurterra bada, era berean lurterra izango zen, K/T mugako masa-suntsipenaren kausa.

Beharbada, 1985ean plazaratu zen frogarik aztoragarriena. Wendy Wolbach-ek eta bere tesi-zuzendariak –Edward Anders– kedar-apurrak aurkitu zituzten, K/T mugako buztinezko geruzen azterketa zabal batean. Aurkitutako kedar-mota, itxura osoz, landare erre eta kiskalduarena da, eta lortu den kantitateak eta mundu osoan zabalduta egoteak ia zuzen-zuzenean iradokitzen du, orain dela 65 milioi urte lurrazalaren zati handi bat sute erraldoiek erraustu zutela. Irudi lazgarria begietaratzen zaigu: inpaktua eta berehala, dirudienez, lurreko landaredia ketan desagertu zen. Suteotariko asko zerutik eroritako suzko meteoritoak sortuak izango ziren, eta bai talkak berak askatutako bero inobreak piztuak, baina, ziurrenez, sute gehienak geroago abiatuko ziren, hain zuzen ere talkak erauzi eta atmosferara jaurtitako arroka-zati gori-goriak berriro lurreratzean.

Datuak datu, apurka-apurka balantza Alvareztarren alde makurtu zen, hamarkada horren amaiera-aldera. Zehazkiago esateko, adituak nahikoa ados jartzen ari ziren, Berkeley-ko taldeak plazaraturiko hipotesiaren lehen partearen onargarritasuna dela-eta: datuen arabera, eztabaidaezina zirudien asteroide erraldoi batek lurra jo zuela, orain 65 milioi urte. Bazegoen, dena dela, kontrako kritika mingarri bat: zerutik etorritako kristoren arroka-puskak lurra jo bazuen, non dago, ba, dagokion kraterra?

Izan ere, Alvareztarren taldearentzat arazo larria zen, tamaina egokiko krater baten absentzia. Hamarkada baten ostetik, eta analisi finduagoen bitartez, bazirudien talka-asteroideak hasieran pentsatutakoa baino handiagoa izan beharko zuela. Horrek, jakina, are eta deserosoago bihurtu zuen

inpaktu-kraterraren falta, zeren, datu berrien arabera gutxienez 160 km-ko diametroko kraterra behar baitzen, eta, gezurra badirudi ere, zailagoa da horrelako egitura geologiko handia begiz bereiztea, krater txiki bat baino. Hirurogeita bost milioi urteko denbora-tartea luzea da erosioak eta bestelako prozesu geologikoek lan egin dezaten; hau da, batzuen iritziz, inpaktu-kraterra benetan egon arren, ziurrenez honezkero guztiz desitxuratuta egongo da, dela arroka gazteagoek lurperatu dutelako, dela prozesu orogenikoeek maskaratu dutelako, eta abar. Areago, arrazoi posibleen artean bazegoen kraterra erabat ezereztatuta egotea ere: litekeena da, kraterra subdukzio-gune batean desagertzea. Kontinenteen jito eta plaka-tektonikaren puntu nagusietariko bat da, lurrazala etengabe sortzen ari dela ozeano Erdiko gandorretako hedaketa-guneetan. Alabaina, lurrazala desagertu egin behar-ko da beste inon, ezpabere Lurra zabalduz joango litzateke ezari-ezarian. Geologoek 1960 urte aldera argitu zuten lurrazala non desagiten den. Subdukzio-gune izena eman zieten, lurrazal ozeanikoa berriro Lur barnerantz sartzen den egitura geologikoei. Subdukzio-guneetan ozeanoko lurrazala astiro-astiro submergitu egiten da mantuan nukleorantz, kontinenteen ertzetako leize sakonetan. Lurrazal ozeanikozko xafla erraldoiak ehunka kilometro hondoratu eta azkenean urtu egiten dira. Kalkulu batzuen arabera, lurrazal ozeanikoaren % 20a ezereztatu da era horretara azkeneko 65 milioi urtean. Ildo horretatik, posibletzat jo zen meteoritoak talka itsasoan egin izana, eta inpaktu-krater erraldoia gerora subdukzio-guneren batek irentsia izatea.

Berkeley-ko taldearen hipotesiak begietaratu kraterren tamainakorik ezagutzen ez bazen ere, bazegoen bat adin zuzenekoa, baina askoz txikiagoa. Iowa-ko artasoroen azpian, Manson hiritik paraje, 32 km-ko diametroa duen krater bat dago. Ezin da kanpotik behatu, alubioiek-eta aspaldian baitzuten estali, baina petrolio-geologoek aurkitu zuten, eta 65 milioi urtekotzat data-tu. Kontuak horrela, geologo askok hipotesi hibrido baten bidetik jo zuten, alegia, suntsipenak kausa biren konbinazioak ekarriko zituen: batetik, sumendien jarduerak, eta bestetik, asteroide txiki baten inpaktuaren efektuek.

Dena dela, ustez krater egokiaren lokalizazioa lortu zen 1990erako, hainbat bidetan zehar. Abiapuntuan Texas erdialdeko Brazos deritzon erre-kako sedimentu berezien azterketa egon zen. Adituen kalkuluen arabera, formazioa 300 m-ko tsunami inobre batek sortua da, hau da, Karibetik etorritako baga erraldoi batek itxuratua. Kontua da 1990ean Chicxulub inpaktu-kraterra plazaratu zela, Mexikoko Yukatan penintsularen iparraldeko Karibean kokatua eta sedimentuez guztiz estalia. Dirudienez, urte hori baino dezente lehenago Glen Penfield geologoak, petrolio-erreserba berriak bilatzean identifikatu zuen egitura hori, 1978an, eta, izan ere, 1981ean Berkeley-ko taldearen hipotesiarekin uztartu zuen; zoritxarrez, baina, bere argibideek ez zuten petrolio-konpainien geologoek zirkulua gainditu, eta ez ziren mundu akademikoraino iritsi. Chicxulub kraterra, beraz, birritan aurkitu behar izan zen, baina, dena dela, azkenean bazegoen krater hipotesi-frogagarria. Eta pentsatzekoa da, orain 65 milioi urteko landare eta animaliek burrunba baino zerbait gehiago sumatuko zutela, zerutik jausitako meteorito sugotzleak talka egitean.

Alvareztarren hipotesia oso sinplea da kontzeptualki. Parte bi ditu. Lehenengoaren arabera, asteroide erraldoi batek jo zuen lurraren kontra orain 65 milioi urte. Bigarrenak dioenez, inpaktu osteko ingurune-baldintza berriek zuten ondorioztatu masa-suntsipena. Badirudi lehenengoa guztiz frogatuta dagoela. Bigarrena, ostera, askozaz ere korapilatsuagoa suertatu da. Meteorito handi bat erori zen orain 65 milioi urte, baina, beharbada, ez zuen biota globala –munduko fauna eta flora osoa– eragin. Esan nahi baita, ez daude argi inpaktuak Kretazeoko bizidunetan eduki zitzakeen ondorioak. Zalantza eta eztabaida handiak agertu dira bigarren parte horren gainean.

Peter D. Ward-en paleontologoaren ustez, zalantzagarritasun horrek-edo giro oso eskasa sortu zuen fisikarien artean, lortutako emaitza itzelak gorabehera. Euron frustrazioa paleontologoek komunitatearen kontra zuzendu zuten, berauek, antza, ez baitziren gai aurkitzeko, inpaktuaren hipotesi ederrak auresandako fosil egokiak leku egokietan. Hau da, 1980ko artikulua ostetik iridio-kontzentrazio anomaloak mundu zabalean han eta hemen aurkitu ziren bezala, batzuek pentsatu izan zuten, sekzio estratigrafiko egokiak azterketa paleontologiko zehatzek suntsipen katastrofikoak erakutsiko zituztela, ozta-ozta buztinezko geruza azpian. Hipotesiaren arabera, masa-suntsipenean iraungitako bizidunen –dinosaurioen, ammoniteen, eta abarren– azken agerpen fosilak justu buztinezko geruzaraino iritsi behar ziren, eta aldi berean gertatu behar ziren talde desberdinen desagertzea, hots, sinkronikoki, eta hori K/T muga guztietan. Jakina, hipotesiak hala eskatzen zuelako bainoago, Alvareztarrek era horretako zerbaite itxarongo zuten, Gubbio-ko kareharrietako aurreko behaketengatik: hango foraminifero planktonikoak 50 espezie inguru izatetik 5 izatera aldatu dira, hain justu geruza iridiod azberatsaren oinean. Itxaropenak itxaropen, Berkeley-ko taldeak topo egin zuen mundu zabaleko paleontologoek desadostasun nabarmenarekin, eta hain zuzen ere dinosaurioen paleontologoak agertu ziren bereziki sinesgogor.

Giroa gaiztotu egin zen. Arazoa, parte ez txiki batean Ward-en arabera, zientziaren adar desberdinen estatusarengatik sortu zen. Fisikari askok piramide zientifikoaren erpinean ikusten dute euron jakintza-arloa: nor ausart daiteke erpin hori gezurtatzen? Bai, inoizko gizakirik adimentsuenen artean zerrendatu ohi dira fisikari famatuak, baina batzuk ez dira gai izan bestelako zientzietan mesprezua ezkutatzeko, Luis Alvarez, adibidez.

Paleontologo kritikoen artean, prestigiotsuenetakoa William Clemens izan zen, berau ere Berkeley Unibertsitatekoa, eta Walter Alvarezen eraikin berean zegoena lanean. Clemens-ek Kretazeoko azken ugaztunak eta Tertiarioko lehenak aztertzen eman zuen karrera zientifikoa, eta Montanako Hell Creek formazioan garatu zuen bere landa-lanaren parte handi bat. Lurralde horretan munduan beste inon baino osoagoa eta jarraituagoa da Kretazeo eta Tertiario arteko lur-sedimentuen trantsizioa. Inpaktuaren hipotesiko bigarren puntua egiazkoa izanez gero, Clemens-ek ikusita edukiko zituen hainbat dinosauro-espezie bat-batean mugan suntsituak. Alabaina, bere karrera luzean ez zuen horrelakorik behatu; aitzitik, bere esperientziak dinosaurioen desagertzea graduala iradokitzen zion. Horrela izanik, berriro itzuli zen Montanara, oraingo honetan dinosauroak lagintzera bere-

ziki. Datu zaharrak berrikusita eta bilduma berriak aztertuta, Clemens ondorio honetara iritsi zen: Hell Creek formazioko dinosauroak erabat suntsituta egon ziren, iridio-geruzaren deposizioa baino nahikoa lehenago, zeren ez baitzen inolako dinosauro-aztarnarik aurkitu, K/T mugatik beherako ia metro bateko estratu-tartean. Hau da, kontuan hartuz Hell Creek formazioko sedimentazioa oso astitsua dela, Clemens-en datuek iradokitzen zuten, dinosauroak jadanik suntsituta zeudela meteorito-inpaktua baino milaka urte lehenago. Beste paleontologo batzuek antzeko ondorioak atera zituzten. Kasurako, Yale Unibertsitateko Leo Hickey paleobotanikariak Montanako esparru berean behatu zuenez, milaka urteko aldea zegoen dinosauroen suntsipenaren eta iratze-esporen agerpenaren artean, eta, areago, landare-suntsipen gradualak aurkitu zituen tarte horretan, baina sinkronikotasunik gabe. Jakina, suntsipen-maila ertain eta ez-sinkronikoak ez datoz bat inpaktuaren tesiak postulatuakorekin.

Hau da, asteroidearen hipotesia plazaratu eta handik denbora laburrera nahikoa argia zen zientzialari-multzo biren arteko dibergentzia. Batetik, hor zeuden K/T mugako geruza iridiod txit aberatsaren ezaugarri fisikoak-eta aztertzen zituztenak, eta bestalde, buztinezko geruzatik beherako fosilak ikertzen ari zirenak. Alvareztarren hipotesia egiaztatu bainoago, bazirudien fosil-erregistroak iradokitzen zuela talde nagusiak muga baino lehenago desagertuta zeudela, edota nabarmen beheraka zihoazela. Halandaze, zientzialari askok uste zuen, baietz, asteroide batek inarrosi zuela Lurra, baina, talkak ez zuela masa-suntsipenik ekarri. Luis Alvarez-ek ezin izan zuen horrelakorik jasan, eta, paleontologiaren metodologia denigratuz erantzun zuen *The New York Times*en, piramideko erpinetik:

Ez zait gustatzen paleontologoei buruzko gauza itsusirik esatea, baina berez ez dira zientzialari onak. Seilu-bildumazaleen antz handiagoa dute.

Aipu hori Gould-ek berak jaso zuen, *Bai bizi zoragarria!* gogoangarrian. Baina, areago, Luis Alvarez-ek paleontologo kritikoenak maila pertsonalean iraindu zituen. Oso iskanbilatsua izan zen, 1988ko urtarrilean *The New York Times* egunkarian Malcolm Browne-k argitaratu elkarrizketa negargarria, zeinean, Luis Alvarez-ek, eztabaida zientifikoen arau guztiak urratuz, Clemens-i “gauzeztanio halakoa” –*generally incompetent*– eta antzekoak leporatu baitzizkion.

Zientzialari-multzo bien arteko urrunketa ulertzeko, aintzat hartu behar da multzo bakoitzak bere bide propioa zuela hipotesia testatu eta egiaztatzeko. Alegia, inpaktuaren frogapenerako nahikoa da buztinezko geruzaren azterketa artatsua, esan nahi baita, geruza ñimiño baten laginketa arina eta zenbait hilabetez luzatuko diren laborategi-analisiak. Arras desberdina da, ostera, fosil-erregistroaren azterketa. Hipotesia egiaztatzeko, masa-suntsipena justu K/T mugan gertatu beharko zen. Hori ez da airez aire frogatzen. Lan nekoso da. Batzuetan ehunka metroko sekzio estratigrafikoak landu behar dira fosilak batzeko. Bestalde, aztertutako fosilen tamaina eta ugaritasuna dago. Kasurako, foraminiferoak, mikroskopikoak

eta ugari izanik, ehunka eta milaka ager daitezke kareharrizko puska batean. Dinosaurioen azterketak, handi eta urri direlarik, oztopo metodologiko larriagoak gainditu behar ditu.

Halaber, dinosaurioen suntsipenera hurbiltzeko planteamendu bi zeuden. Fisikariek modelo katastrofista datu geokimiko eta astrofisikoetan oinarritu zuten bitartean, paleontologoak tradizio gradualista luze baten barruan haziak eta heziak ziren, eta batez ere datu paleontologiko eta estratigrafikoetara jo zuten. Egoera horrek, jakina, ez zuen erraztu alde bakoitzetik beste aldekoen ikuspegi eta frogen balioztapena. Esate baterako, pentsatzekoa da, paleontologoen artean oso sustraituta egongo zirela aktualismoaren –Lurrean gaur egun diharduten oinarritzko prozesu fisiko eta biologikoak denboran zehar aldatu barik mantendu direlako asuntzioa– eta gradualismoaren ideiak.

Hala ere, Benton-ek idatzi duenez, biologo eta fisikari batzuen arteko gatazka-iturri nagusia zientzialari-multzo bien estilo-desberdintasuna izan da, besteak beste, fisikarien oilarkeria –*arrogance*– nabarmendu duelarik, Gould-ek berak egin bezalaxe. Adibide ezdeus baterako, argitaraturiko artikuluen tituluak eurak nahikoa esanguratsu suertatzen dira: “Extraterrestrial cause for the Cretaceous-Tertiary extinction. Experimental results and theoretical implications” edota “Experimental evidence that an asteroid impact led to the extinction of many species 65 million years ago”. Kasu biotan, “experimental” hori iruzurrezko propaganda da, ez baitzen inolako esperimenterik egon, baina, nabarmendu nahi du behaketak eta analisiak laborategian egin zirela. Ez dago esan beharrik, izenburu horiek argi uzten dute, inplizituki bada ere, erabilitako matematikaren eta tresneriaren gaitentasuna, bestelako diziplina “bigunen” aurrean. Niri kontu osoak, aurreko kapituluaz azaldu dugun lord Kelvin-en istorioa gogorarazi dit.


AMMONITE BAT LASTATEGIAN

Gaur egun guztiz onartuta dago asteroidea-ren talka. Eztabaida-gune nagusia inpaktuaren ondorioetan dago: inpaktu soilak sortu al zuen masa-suntsipena? Ala, azken sakada izen zen, lehenagotik zetorren gainbehera batentzat? Bestelako suntsipen masiboak ere antzera azaldu al dira?

Peter Douglas Ward paleontologia, zientzia-idazle fina izateaz gainera, Washington Unibertsitateko irakaslea da, Seattle hiri euritsuan. Ikasle-urteetan, 1970 urte inguruan, Mesozoikoa gradualki amaitu zela irakatsi zioten, eta bai suntsipenak lurreko gertaerek sortu zituztela, beharbada itsas mailaren aldaketa azkar batek. Gero, ammoniteetan espezializatu zen. Erraz esateko, ammoniteak molusku zefalopodoak dira, hau da, txipiroi eta olagarroen antzeko moluskuak, baina kanpo-maskor biribilkatuak zituztenak, gaur egun nautiloek dutenaren antzera. Ammoniteak oso garrantzitsuak izan ziren itsasoko ekosistemetan. Erdi-Paleozoikoan sortu ziren, eta ia-ia



Peter D. Ward paleontologia geologia-irakaslea da Washington Unibertsitatean, Seattle-n. Hainbat dibulgazio-liburu argitaratu ditu, besteak beste, *In Search of Nautilus* (1988), *On Methuselah's Trail* (1992), *The Call of Distant Mammoths* (1997) eta *Rivers in Time* (2000). Liburu horietan, ammoniteei buruz duen ezagutza zuzenetik abiatuta Ward-ek une geologiko desberdinetako biodibertsita-



tearen suntsipen masiboen berri damaigu era zehatz eta atseginean, gizakiak abiarazi duen suntsipenaren arriskuak nabarmen utziz.

(ARG.: B. McNAMARA ETA C. PRIETO).

desagertu egin ziren birritan, aurreko masa-suntsipen bitan, Permikoaren amaieran eta Triasikoaren amaieran. Alabaina, jazokune horietariko bakoitzean ammonite-leinuren batek bizirik iraun zuen. Ostera, K/T muga gainditu ezinekoa suertatu zitzaizen ammoniteei, eta taldea ezerezean murgildu zen, paleontologoek hazkurri bilakatuz. Peter Ward-ek zenbatgura daki ammoniteen gainean.

Hasiera batean, Peter Ward ez zen larregi arduratu Alvareztarren hipotesia dela-eta, zeren, itxura osoz ammoniteak gradualki itzali baitziren, eta izatez, guztiz desagertuta zeuden, 10 metro buztinezko geruzaren azpitik. Izan ere, 1983ko abenduan *Investigación y Ciencia* aldizkariak bere artikulu bat zekarren, *La extinción de los ammonites*, eta aurkezpenean bertan ondokoa irakur zitekeen:



Sin embargo, el registro fósil parece indicar que la extinción de los ammonites no se debió a esa catástrofe, sino a los repetidos vaivenes del ecosistema marino durante el Cretácico superior.

[...]

Ahora bien, por el estudio de los fósiles hallados en la secuencia estratigráfica de Zumaya, España, parece que los ammonites se extinguieron mucho antes del supuesto impacto del meteorito.

Zumaiaiko Itzurun hondartza eta haitz-labarrak, Txomin Agirrek Azkue adiskideari 1908ko abenduaren 26an bidalitako postal batean.

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

Kontura zaitezkeenez, urte horretako iritzian, meteoritoaren inpaktua artean “ustezkoa” zela diosku. Nolanahi, Ward-ek berak idatzi duenez, hamarkada horretan hainbat aldiz egon zen Zumaian, 1982ko laginketatik aurrera: 1984an, 1987an, 1988an, eta birritan 1989an. Zehaztasun handiz deskribatu dizkigu joan-etorri horiek guztiak bere 1992ko liburuan:

I believe we all have places we hold sacred, places we keep in our hearts, places that retain a piece of us just as we preserve the essence of them. I keep such a place within me. It's a magical place named Zumaya. It's a place where the crashing sea meets a rocky coast beautiful beyond belief. But the world has thousands of miles of scenic coastline. I return to Zumaya because it's the grave site of the last ammonites.

Ezinago atsegin gertatu zait bertan irakurtzea Zumaia ez ezik, Sopela, Hendaia, Miarriz eta Bidart ere *magical places* direla. Orobat, pozgarria izan da Zumaiaiko Algorriko haitz-labarren izendapena: *the Boundary Bay, the gate between the eras*. Harrigarri egin zait ikustea euskaldunak zelakoak begitandu zitzaizkion Peter Ward-i, eta zelan islatu zuen orduko egoera politikoa, berari gertatutako enkontru gozogabeak kontatuz, dela txapel-okerrekin dela abertzaleekin. Dena dela, zergatik itzuli zen Peter Ward hainbeste biderrez? Bada, berak azaldu digu: hortxe dugulako azken ammoniteen hilobia, eta, areago, Kretazeo eta Tertziario arteko atea. Ondo bilatuz gero, hortxe daude erantzunak.

Beraz, datuen irakurketa literalak Ward-i ammoniteen suntsipen gradual luzea iradoki zion, K/T muga baino dezente lehenago guztiz gauzatu-

ta zegoena. Alabaina, egiatan, ammoniteen fosil-erregistroak Signor-Lipps efektua erakusten zuen.

Phil Signor eta Jere Lipps, Peter Ward-en lankideak izan ziren Kaliforniako Davis Unibertsitatean, eta 1982an ideia teoriko berri bat garatu zuten. Alegia, fosil-erregistroak gradualak izan balitz bezala islatuko du edozein suntsipen katastrofiko bat-bateko, baldin eta desagertutako taldea ez bada ikaragarriro ugaria. Kontraesan bat dirudi, baina Gould-ek oso argi azaldu du.

Espezie batzuk oso ugari dira eta nahikoa erraz kontserbatzen dira fosil gisa; horietarikoen aleak estratuetakoz zentimetro guztietan agertzen dira. Baina, beste espezie batzuk urriak dira eta gainera oso gaizki kontserbatzen dira; eman dezagun horietarikoen fosilak hogeita hamar metroko bat aurkitzen direla. Demagun orain, aipaturiko guztiak batera suntsitu zirela, bat-batean, harro ozeaniko batean 120 metro sedimentu depositatu eta gero. Zelan aurkituko genituzke fosil-erregistroan? Espezie arruntek estratuak beteko lituzkete, eta zentimetro bakoitzean-edo topatuko genituzke. Ostera, espezie arraroen kasuan, suntsipen-unera arte bizi izan baziren ere, fosil bat aurkituko dugu 30na metroko. Esan nahi baita, espezie bat estratuen 120 metro horietan zehar bizi izan zitekeen, baina gerta daiteke bere azken fosila goi-mugaren 30 metro azpitik agertzea. Hau da, fosil-erregistroaren irakurketa literalak eginez gero, benetan desagertu zenean barik, bere iraupen osoaren laurden bat lehenago suntsitu zela pentsatuko dugu. Jakina, argudioa orokortuz, espezie bat zenbat eta urriagoa izan, orduan eta probableagoa izango da fosil-erregistroko bere azken alea suntsipen-unea baino askoz lehenago agertzea, nahiz eta benetan azken momentura arte bizi izan. Horrenbestez, espezie guztiak bat-batean desagertu arren, suntsipen-segida jarraitua eta itxuraz gradualista aurkituko genuke: fosil-erregistroan espezie urriak izango dira ezabatutako lehenak, eta tantaka gainerakoak; ostera, espezie oso ugariak suntsipen-uneke geruzaraino iritsiko dira fosil modura. Esan bezala, hau da Signor-Lipps efektua –eurek ebatzi baitzituzten kontu osoaren xehetasun matematikoak–, dioskuna, fosil-erregistroko itxurazko beharokada gradual batek benetan ezkuta dezakeela desagertu aldibereko eta bat-batekoa.

Peter Ward-i zalantza-izpi bat geratu zitzaion. Egia da, Zumaian iridio-anomalia baino 15 metro beherago sano jaisten da ammonite fosilen kopurua, eta azken alea 10 metro Kretazeo/Tertziario muga azpitik aurkitu zuen, baina berak ondotoxoz zekien:

Esta prueba es negativa, y podría rechazarse por el hallazgo de un solo nuevo fósil de ammonite.

Suntsipenak gradualak zirela uste zen, eta logika osoa zeukan, beraz, ammoniterik gabeko 10 m-ko tartek. Alabaina, inpaktuaren hipotesiak argi eta garbi aurrean zuten ammoniteak mugaraino bertaraino iritsiko zirela. Gainera, hor zegoen Signor-Lipps efektuaren kontua ere. Gould-ek esan bezala, espezie arraroak benetan inpaktuaren mugara arte bizi izan baziren, baina oraindikarren ez badira estratuaren goiko partean aurkitu, zergatik

ez arakatu askozaz kementsuago? Lastategi batean orratza topatzeko soilik hamar eskukada lasto lagintzen badituz, oso aukera gutxi ditut helburua lortzeko. Ostera, belar-meta izpiz izpi deseginez gero orratza eskuratuko dugu azkenean. Era berean, lekune ezagun bakoitzeko sedimentua zentimetroz zentimetro arakutzen badugu, azkenean are eta espezierik urriena ere aurkituko ditugu mugaraino, baldin eta benetan bizirik iritsi baziren.

Halandaze, Peter Ward-ek eta bere lankideek zintzoki lagindu zuten lastategi osoa. Azkenean, 1986an fosil bakar bat aurkitu zuten, metro bete muga azpitik. Alea nahikoa zapalduta zegoen, eta ezin izan zuten erabaki ammonite bat ala nautiloideo bat ote zen. Dena dela, ale bakar horrek nabarmen utzi zien bilaketa artatsuago baten premia. Orduan, 1987an area-gotu egin zuen miaketa, eta topo egin zuen froga positibo batekin:

...finally, on a rainy day, I found a fragment of ammonite within inches of the clay layer marking the boundary. Slowly, over the years, several more were found in the highest levels of Cretaceous strata at Zumaya. Ammonites appeared to have been present for Armageddon after all.

Gero, Peter Ward-ek hurrengo urrats logikoa bete zuen: bestelako tokietan bilatu. Zumaian bazeuden ammoniteak K/T mugaraino, baina ez askorik. Hendaian eta Miarritzen aritu zen orduan, eta ammonite-mordoa aurkitu zuen, justu-justu K/T muga azpian:

After my experiences at Zumaya, where years of searching yielded only the slightest evidence of animal life near the Cretaceous-Tertiary boundary, I was overjoyed to find a score of ammonites within the last meter of Cretaceous rock during my first hour at Hendaie. In fact, I found more ammonites here than any other kind of fossils.

Zumaiaiko Algorri: hortxe aurkitu da K/T muga, Kretazeo eta Tertiario aroetarako atea. Gubbio-n bezala, meteoritoaren talkak sortarazitako buztinezko geruza argia beha daiteke marea beheara denean.

(ARG.: E. APELLANIZ).



Ammonite-ugaritasunaren gorabehera handi horiek, Peter Ward-en iritzi, honelaxe azal daitezke: Zumaia Kretazeoaren amaieran itsas arroaren alderik sakonenean egongo zen, eta sakonera larregizkoa izango zen ammonite asko bertan bizi zitezten. Ostera, Hendaia eta Miarritz ur azalagoetan zeudelakoa dauka, eta hortik fosil-ugaritasuna. Bizkaiko Golkoan hamar edo, beharbada, dozena bat ammonite-espezie bizi ziren Kretazeoaren amaiera arte. Gehienak igerilari aerodinamikoak izanik, sakonera ertaineko uretan bizi ziren, hondaleko harrapakariengandik salbu, eta bai azal-azale-

ko uretako etsaiengandik urrun ere. Izatez, ammonite-espezie horiek guztiak, Kretazeoaren amaieraren aurretik bizi zirena baino askoz ur sakonagoetaraino irits zitezkeen, baina jadanik orain 70 milioi urte obsoleto zeuden, itsaso azaletako hondaletan bizi ahal izateko, eta habitat horretan irauenez gero, karniboro maskor-apurtzaileen janari bihurtuko ziren. Dena dela, guztiz suntsitu ziren 65 milioi urte direla, eta bakarrik gelditu da euren hurbileko ahaide bat, nautiloa.

Hala ere, ammoniteak K/T mugaraino iritsi arren, bestelako molusku bibalbio batzuk muga baino askoz lehenago desagertu ziren, tartean talde bi, munduko bizidunik arruntenetarikoak izan direnak hainbat eta hainbat milioi urtetan zehar. Talde bat errudistena da. Zarama-ontzi itxurako bibalbio hauek oso garrantzi ekologiko handikoak izan ziren, zeren Kretazeoan eurak baitziren nagusi arrezifeetan. Arrezifeak 500 milioi urte daramatzate munduan, eta denbora-tarte horretan koralak izan dira arrezife-komunitateko kreatura nagusiak. Alabaina, Kretazeoan errudistek zuten nagusitasuna hartu: koralak baino askoz azkarrago hazten ziren, eta komunitateko lekune faboragarri guztiez jabetu ziren. Ia 40 milioi urtez batez ere errudistek ustiatu zituzten argitasun eta janari ugari txoko guztiak. Dena dela, meteorittoa jausi baino bi milioi urte lehenago desagertzen hasi ziren, eta soilik eskukada bat espezie iritsi zen talka-egunera arte. Inpaktuak guztiz akabatu zituen, ur azaletan bizi ziren errudista apur horiek.

Bibalbio inozeramidoen taldea ere guztiz arrakastatsu suertatu zen 100 milioi urtetan zehar, eta dirudienez espezie erraldoi batzuk –egungo *Tridacna* generoko muxila erraldoi baino handiagoak!– 1500 metroko sakoneraraino irits zitezkeen. Ward-ek dioenez, ezin ugariago ziren Zumaian-eta. Ba, inozeramidoak ere K/T mugako buztinezko geruza depositatu baino 1-2 milioi urte lehenago desagertu ziren; gainera, dirudienez, talde honen suntsipena nahikoa arin gertatu zen, 50.000-100.000 urteko tarte batean. Nolanahi, inozeramidoak talka-eguna baino dezente lehenago joan ziren bizidunen mundu honetatik.


Ammoniteen lastategia belar-izpiz izpi Peter Ward-ek miatu bezala, Peter Sheehan-en lan-taldeak arakatu zuen Hell Creek formazioa Montana eta Ipar-Dakotan, dinosauro-hezurren xerkan. Antzeko emaitza lortu zuten: dinosauroen “agintaldiko” azken 100.000 urteetan ez da gainbehera baten seinalerik sumatzen. Bat-bateko suntsipena eduki zuten.

K/T mugako suntsipenen kausak aztertzen hamarkada bi joan eta gero, gaur egun nahikoa ikuspegi argia dugu orduko gertaerez. Itxuratu zaigun irudiaren arabera, ez dago kausa bakar bat espezie-desagerpen masiboa azal dezakeena.


Orain direla 70 milioi urte gutxi gorabehera, magma-luma ikaragarria azaleratu zen India subkontinentean –berau artean Madagaskar inguruetan kokatuta zegoelarik–, eta sumendi-paroxismo horrek gas-kantitate eskerga askatu zuen atmosferara, eta ondorioz berotegi-efektua eragin zuen, egungo industriak eta garraioak sortu bezala. Orduan, tenperatura igotzean bortizki aldatu ziren zirkulazio atmosferikoaren eta ozeanikoaren patroiak. Ward-ek azaltzen duenez, beroketa horrek abiaraziko zuen K/T suntsipena. Sasoi berean, eta horretarako arrazoiek argitu barik dirautelarik, itsas mai-

laren beherakada galanta suertatu zen, klima areago nahastu zelarik. Eta milioi bat urte geroago, halako batean meteorittoa erori zen: akabose Martingose! Zein bere aldetik jazokune horietariko batek ere ez zuen hainbeste desmasia ekarriko, baina, orpoz orpo etorri ziren hirurok, ia-ia aldi berean. Larregizkoa izan zen dinosauroentzat.

URRE, URRE, URREAREN BILA



Buffalo Bill egon zen Baionan 1905eko urriaren 3an. Bai, ondo irakurri duzu: Buffalo Bill. Badakizu, ezizen hori eman zioten William F. Cody (1846-1917) Mendebalde Urruneko pertsonaia ospetsuari: bufalohiztari kontratatu zuten 1865ean, itsasotik itsasora burdinbidea eraikitzen ari ziren langileak haragiz hornitzeko, eta hamazazpi hilabetetan 4280 bisonte hil zituen.



Handik lasterrera, 1870ean, Othniel C. Marsh paleontologo amerikarraren lehen espedizioaren gidaria izan zen, Nebraskako siouxen lurretatik dinosauro bila.

Buffalo Bill egun bakar baterako etorri zen Baionara, bere *Wild West Show* ikuskizun mitikoarekin. Izatez, hirugarren aldia zen Europara jin zela, eta lau urte luzeko itzulia egin zuten 1902-1907 tartean, Britainia Handitik, Frantziatik, Italiatik, Austria-Hungaria, Alemania eta Belgikatik. 1905eko denboraldi osoa eman zuten Frantzian, maiatzetik azarora arte 120 hiriraino hurbildu zirelarik, egunero toki desberdin batean. Ikuskizunaren taldean 800 gizon eta 500 zaldi zihoazen besteak beste, eta 50 bagoiko hiru tren berezi erabiltzen zituzten hiri batetik hurrengora joateko. Normalean, goizeko zazpiak aldera iristen ziren hiri bateraino. Traste guztiak leku zabal batean atondu eta egunero ekitaldi bi edukitzen zituzten, eguerdiko ordu bietan eta arratseko zortzietan, eguraldiari inolako kasurik egin gabe. Ikuskizunak Mendebalde Urruneko konkista erakusten zuen, eszena erraldoiak antzetzuz, dela Little Big Horn bataila famatua, dela Custer jeneralaren heriotzarena, Zezen Jesarriren indiarren kontra. Amaitutakoan, berriro dena bildu eta trenera.

Buffalo Bill-ek 1883an antolatatu zuen *Wild West Show* delakoa, eta 1913ra arte aritu zen, tartekoak izan zirelarik zenbait denboralditan Zezen Jesarri buruzagia, Calamity Jane eta Annie Oakley. 1887tik 1907ra arte hiruzpalau itzuli egin zituen Europan zehar. Azkenekoan Baionatik igaro zen, *Eskualdun Ona* aldizkariko iragarriak erakusten duenez.

(ARG.: LIBRARY OF CONGRESS ETA ESKUALDUN ONA).

Estimazioen arabera, Ipar Amerikako bufaloen –bisonteen, hobeto esanda– populazioa 30 edo 60 milioi burutakoa izan zitekeen XIX. mendearen hasieran, baina, 1889. urtean ehiztariak azken bufaloa hiltzearen ohera eskuratzearen lehiaztzen ziren. Yellowstoneko Parkeak ez zeukan zaintzaile nahikorik, eta bertan babes-tutako 200 bufaloak ere desagertzeko zorian egon ziren. Bufaloaren triskantzak eragin kaltegarri sakona



Baionan baino lehenago, Buffalo Bill Bordelen egon zen hamar bat egunez. Gero Akizen urriaren 2an eta Baionan 3an, hurrengo egunean Pauen aritzeko. Ikuskizuna Saint-Léon aldeko manioobra-zelaian izan zen. Astearte hori oso egun berezi suertatu zen

hamabost urteko Emile Etxeparerentzat (1890-1977), alegia, Aldudeko medikuaren anaia txikiarentzat. Familiako tradizioak dioenez, Buffalo Bill ikustera joan zen. Hainbat aste igaro ziren, *Eskualdun Ona* astekarian iragarkia aurkitu zuenetik, eta zenbakiz zenbaki ilusioa handiagotu zitzaion eta gogoia arteगत. Azkenean urriaren hirua heldu zen, eta bai Buffalo Bill ere. Egun horretatik aurrera, Emileri ezin jasanezko bihurtu zitzaion urrutimina. Luze barik, Ameriketara joan zen, lehenago Kaliforniara, Kanadara geroago *–nire zerebroan hazten ditun Canadako basoak, idatzi ninan gauzez, baina bi basorik arbatsuenā*. Abenturaz beteriko bizialdia eman zuen itsasoz haraindiko lurralde zabaletatik: urre-bilatzaile, egurgile... Makina bat esku-titz bidali omen zizkion anaiari, Aldudeko txokora. Nolanahi, ez dakigu gauza handirik han izan zuen bizimoduaz.

Abenturazko bizimodu baten ametsa, baina, makina bat euskaldunek zuten egina, hainbatetaraino non, Los Angeles hirian bazegoen astekari bat argitaratzen hasteko-beste euskaldun. Izatez, hiri horretan *Eskualdun Gazeta* agertu zen 1885ean, “munduko lehemisiko eskualdun gazeta” estraineko zenbakiaren aurkezpenean irakur daitekeenez. Hiru zenbaki kaleratu ziren bakarrik. Geroago, *Californiako Eskual Herria* 1893an abiatu zen, eta ezagururiko azken zenbakia 1898koa bada ere, ez dirudi akabukoa denik. Xipri Arbelbidek kontatu du xehetasun handiz kazeta bi horien historia laburra. Deigarri egin zait Los Angelesko kazeta horietan deitura asko eta asko aurkitzea, Montevideo inguruetakoa aldudarrenak direnak. Adibidez, seguru aski oraindik gogoratuko duzu 1837ko txosten batean agertu zaigun Pierre Tihista frikun galanta. Ba, Xipri Arbelbideren liburuan topo egingo duzu beste Tihista birekin, Juan eta Joanes. Joanesek istripu lazgarria eduki zuen 1893ko uztailen:

Ortzirale arratsean, Joanes Tihista, gure herritar bat kolpatu da uste gabekoan, Soledad Cañon-en. Bidean arrapatu ondoan dinamita kartuxa bat, botatu du surat, jakin gabe zer gauza lanjerosa zen. Berehala lehertu da, lurrean zilo ikaragarri bat egiten zuelarik eta gure herritarra arrunt masakratu du. Begi bat kanpoan zuen eta esku muturra dena xehatua. Midikuek pikatu diote eta uste dute bixta galduko duela.

Ostera, 1894ko abuztuan Juan Tihista eta beste lagun bi “arrastatuak izan ziren Korte Federalaren ordrez San Bernardinoko mendietan, egurra pikatu zutelakotz gobernamentuko lurretan”. Horrelako zertzelada labur-rekin, baina, nekez berregin daiteke itsasoz haraindi joandakoen bizitza, eta, Emile Etxepareren kasuan bezala, badirudi lanbro usu batek ezkututzen duela hango guztia. Oso-oso bakanak dira sakontasun gutxienerako batekin ezagutzen diren euskaldunen biografiak. Xipri Arbelbidek berak hurbildu digu horietariko bat, ingelesetik itzulita.

Delako euskaldun hori ez zen eibartarra, Onizepeako zuberotarra baino. Izen-deituraz Jean Pierre Aguerreberry genuen, 1874an sortua, eta, hamabost urte zituela, aitaren baimena lortu zuen Ameriketara joateko Arnaud anaia zaharrarengana, Kaliforniako mahasti, baratze, etxalde, arrantxo eta urre-meatze ederrekin luzaroan amets egin eta gero. San Frantziskora


eduki izan zuen, bai otsoen gainbeheran, bai indiarren bizimoduan, eta bai belardietako ekosisteman oro har. Hango lautada inobreak bufalo-hezurrez zipriztinduta gelditu ziren, eta izan ere, mende-amaierako urte ekonomikoki ezin txarragoetan hezur horiek han eta hemen tonaka batu ziren, eta eho, ongarririk ekoizteko besteak beste.

(ARG.: T. FLANNERY).



Emile Etxepare (1890-1977), Aldudeko medikuaren anaia txikia. Lekorne utzi eta Kanada aldera jo zuen oso gazterik. Ziurrenez handik bidalitako argazkia dugu hau.

(ARG.: BIDEGILEAK).



Irudi honetan Pete Aguerberry dugu, bere Amerikako joan-etorriak eta gorabeherak kontatzen dizkigun liburua azalean. Liburua ezinago atsegin suertatzen da, eta sarritan sinestezin: handia da gero, hamaikatxo *westernetan* ikusitakoak euskaldun bati gertatzea!

(ARG.: AZKUE BIBLIOTEKA).

1890ean iritsi eta handik zazpi urtera amerikano-paperak lortu zituen. Jean Pierre Aguerberry hainbat ogibidetan aritu zen Kalifornia eta Nevadan barrena: lehenik pilotari, gero artzain, laborari, ardo-saltzaile, esne-karrosazain, horma-saltzaile, ur-karreatzaile eta, azkenik, urre-bilatzaile eta bai urre-biltzaile ere. Bien bitartean, ingelesa ikasteko borroka latzari ekin zion. “Pete” soilaz zuten ezagutzen bere adiskideek, edo “Pete Frantsesa” lehenago. Deiturak ere aldaketa ñimiño bat jaso zuen, Aguerberry bilakatuz.

Esan bezala, Pete azkenean urre-bilatzaile egin zen. Nevadako Goldfield herrixkan abiatu zen Peteren bizitzaldi hori, 1902an. Geroago, Rhyolite-ra joan zen 1905eko primaderan, hain zuzen ere *mamu hiri* horren haurtzaroan, baina ez zen bertan luzaro gelditu. Izan ere, Ruper Ordorikak Juan Carlos Perezen *Atlantic River* diskoan dioenez:

Zerua, lurra, gaua, arratsa,
ezer ez dira, ezer, urre biltzailearentzat, ezer
–urre, urre, urrearen bila–
galbahetik joan da guzti guztia.

Hurrengo ekainean Rhyolite utzi eta Heriotza Ibarra ekialdetik mendebalderantz zeharkatzen ahalegindu zen bere astoekin, baina saioan hil egin zen, ia, egarriaren egarriaz eta eguzki-zinkaz.

Desolamendua da Heriotza Ibar ezinago idorrari egokien doitzen zaion hitza. Heriotza Ibarra entzuteaz batera burura datorkigun irudia, *westernetan* sarri erakutsi dizkiguten horietarikoren bat izaten da: basamortuko harea kiskalduetan, erdi ehortzitako behi-kaskezur zurituen parean, zalgurdi galdua nekez doa aurrera, eta barrandan segika larrugorri-aldra bat, musu-zurien kalparrak lehen egokieran larrutzeko prest; bitartean zeru goian sai arreak erakan dituzu. Irudia ez da oso gogobetekoa, baina, tira. Death Valley oztopo beldurgarria izan zen 1849ko Urre-Arrapaladan (= *Gold Rush*), hogeita hamar meatzarik Kaliforniaranzko bide laburragoa bertatik bilatu zutenean; hamazortzi iritsi ziren, soilik. Lurraldearen izena, Death Valley (= Heriotza Ibarra), jazokune horretatik ei dator, nahiz eta bertan, dirudienez, meatzari bakarria hil.

Heriotza Ibarreko meatzaritza Kaliforniako Urre-Arrapaladaren orpoz orpo etorri zen, 1849tik aurrera. Besteak beste, urrea, zilarra, kobrea, beruna eta boraxa aurkitu izan dira bertan. Hasieran gatx eta lantzean behingoa izan zen menasta horien ustiaketa, batez ere, teknologia eraginkorraren faltaz, ur eta erregaian urritasunez eta garraioaren zailtasunaz. Abiapuntuko lehen urrats horiek, dena dela, nahikoa izan ziren bertako shoshone timbisherren bizimodu tradizionala hankaz gora botatzeko, zeren, meatzariak bereganatu baitzituzten iturburuak, eta bestalde, mendietako pinuak bota zituzten zuraz hornitzeko, eta indiarrak jateko pinazirik gabe suertatu ziren.


Hala ere, 1900etik aurrera arreta berezia jarri zen urre gorri eta urre zuriaren ustiaketan eta horrek eskala handiko operazioak ekarri zituen. Izan ere, *bat-bateko hiriak* (= boom towns) sortu ziren meategi garrantzitsuen inguruan, eta handik laburrera, hiruzpalau urtetan, sortu bezala desagertu egin ziren berehalakoan, lurralde osoa *mamu hiriez* (= ghost towns) josita utziz: Ballarat, Chloride City, Greenwater, Harrisburg, Leadfield, Panamint



Heriotza Ibarreko basamortuan aurkitu zuen Pete Aguerberryk urre gorria: pozaren pozez, *Eureka* esan zion bertan zulatu zuen meategiari; hogeitaz aritu zen meatzari-lanetan hango bakardadean. Irudiotan dugu haren txabola tristea, eta bai Aguerberry Point ospetsuko ikuspegi ilunabartsu xarmangarria.

(ARG.: M. M. ELOSEGI).

City, Rhyolite, Skidoo... Rhyolite izan zen garrantzitsuena, izan ere, une gorenean 10.000 bizilagun eduki zituen, Nevadako orduko hiririk handiena bilakatu zelarik. Heriotza Ibarreko Erregina zeritzoten. Laburtuz, kontua honelakoa izan zen: 1904an Shorty Harris-ek urre gorria aurkitu, eta hiria bat-batean hazi zen, 1905-1911 tartean eliza bi eta 50 *saloon* eduki zituelarik, eta bai, hotelak, dendak, 250 umerentzako eskola, zortzi mediku, dentista bi, opera bat, izoztegi bat... Argindarra 1907an iritsi zen Rhyolitera, baina baita ikara finantzarioa, eta hortik aurrera hiria beherantz joan zen, harik eta 1911n meategi garrantzitsuena itxi arte. Azkenik, 1916an argindarra moztu zuten, gaur eguneko mamu hiri biztanlebakoa gelditu delarik.



Kontua da Pete Aguerberry ez zela hil Heriotza Ibarra zeharkatzeko ahaleginean, eta hilabete geroago abiatu zela Ballarat bat-bateko hirirantz arestian aipatu Shorty Harris-egaz batera. Bidean doazela, oso itxura oneko mendi-mazela arakatu zuten, eta areago, urre gorria aurkitu. Abuzturako bazeuden hogeitaz urte bila inguruetatik. Hirurehun bat lagun kokatu ziren kanpamentuan, gerora Harrisburg izenaz ezagutuko zena. Hasieran Shorty-k eta Petek Harrisberry izendatzea pentsatu zuten, baina antza denez, Shortyk aldatu egin zuen aurkikundearen kontakizuna.

Oroimena ez da erretrato bat besterik,
iraganik ez urre biltzailearentzat
–urre, urre, urrearen bila–
lagunak gau bateko gauza bat.
Desioa, desioa da
obsesio ase ezinezkoa.
Etorkizunean bizi nahi
oraina ahazteko gogoz.

Nolanahi ere, Petek mendixkaren iparraldea eskuratu zuen, eta bertan *Eureka* meategia zulatu. Meatzari-lanean aritu zen hurrengo hogeitaz urtean, harik eta 1930etako hamarkadan osasunaz makal aurkitu arte. Azken aldirian ilobak pixka bat lagundu bazuen ere, Eureka meategia Petek zulatu eta ustiatu zuen, bakar-bakarrik. Alboko etxola batean bizi izan zen ia berrogei

urtez. Gerora meazulo hori garrantzitsu bihurtu da hain urri den Townsend saguzar belarriluzearen hibernaziorako (*Plecotus townsendii*).

Oesteko filmetan gertatu ohi diren hainbat eta hainbat pasadizo bizi izan eta gero, Pete Aguerberry 1945ean zendu zen, guztiz argitu gabeko moduan, eta Kaliforniako Lone Pinen dago ehortzita. Alabaina, Peteren gomuta bizirik mantentzen da, zeren Eureka meategi inguruan Heriotza Ibarreko ikuspegirik ederrenetarikoa duen behatokia baitago, alegia, mape-tan Aguerberry Point deritzona, milaka bisitarik gozatzen dutena, Petek berak egin bezalaxe.

Jean Etxeparek, antza, ez zuen *Wild West Show* ikustera joaterik, Aldu-den mediku baitzegoen 1905eko udatik aurrera. Ez zuen ukan Buffalo Bill mitikoaren xarma zuzenean dastatzerik, eta, hola, ez digu ikuskizun parega-be horren inolako aipamenik utzi. Baina, anaia txikiaren antzera, bera ere urrutiko lehorren gaitzak jota zegoen; jatorriz datorkio. Odolean darama ametsa. Hala ere, ez zen inoiz umetako Ameriketara itzuli, irudimenaren laguntzaz ez bada. Alde horretatik, *Ameriketako orhoitzapenak* kontakizun autobiografikoaz gainera, makina bat aipu aurkituko dituzu bere artikulue-tan barrena barreiatuta, Amerika gogoan dutenak. Esaterako, batzuetan Emile anaiaren eskutitzak emango dizkigu euskarara itzulita –*Buruxkaken* agerturiko *Canadako berriak* adibidez–, edota euskaldunen emigrazioari buruz zuzenean edo zeharka idatzitako kontu guztiak:

Nahi duzu euskaldun etxeko-seme onetik gizon bat atera? Ehun luis emanik, igorrazu Ameriketarat. [...]

Ameriketako lan izigarriek hezten, zapatzen zituzte ondarra. Errai-ten dautzut: bizitzen ikasteko eta, ikasi ondoan, diru biltzeko, ez da guretzat itsasoaz haindi hura bezalakorik.

Txomin Agirreren *Garoa* mintzagai duelarik, gogora ezazu zelako aitor-pen esanguratsua egin digun Etxeparek, alegia, “euskaldunen lanak itsasoaz haraindiko lehorretan: euskaldun idazle batek asma dezaken lanik ederrena”. Zergatik, orduan, ez zion Aldudeko medikuak berak ekin ataza horri, Txomin Agirre zenduaren bizkar utzi beharrean? Idazle gisa, itxura batean Jean Etxeparek bazituen premiazko gai guztiak eskueran. Hasteko eta behin, bazuen Ameriketako ametsa, dirudienez egundo alboratu ez duena. Bazituen ere umetako bizipenak. Gainera, *idazlanik ederrenari* ekiteko, anaia txikiaren lekukotasunez gainera aita-ama eta osaba-izeben oroitzapenak erabil zitzakeen, euskaldun familia baten Ameriketako joan-etorrien eboka-zio fidela ontzeko. Omisio horren arrazoia, nonondik etortzekotan, Jon Casenaveren ustez, literarioa litzateke: Jean Etxepareren baitan Ameriketa-ko proiektua autobiografikoa izan zen, lehen pertsonan idaztekoa eta euska-raren letretan espazio literario berri bat irekiko zuena, norberaren esperien-zia kontatuko duena, eta ez, hirugarren pertsonatik abiatutako kontakizuna, Txomin Agirreren bidetik. Beharbada, horrexegatik-edo ez zuen eleberri amerikanorik hasi, zoritxarrez.

Pete Agerreberriren kontrara, Emile Etxeparek ez zuen urrerik topatu. Eta geroago, ikusiz Kanadako basorik arbatsuenetan ere ez zela aise aberas-

tuko, Baionara itzuli zen, eta negoziotan sartu. Ikatza saltzen aritu zen zenbait urtez. Angelun pausatu zen 1977an.

Joan da eguna, hutsik joan da
hala ere gu kamioiaren atzekaldean pozik
–urre, urre, urrearen bila–
alperrik-edo urrearen atzetik goaz.
Micky, Loren, lagunak
esaidazue zer uste duzuen
alperrik al da urrearen atzetik ibili behar hau?

Aldudeko medikua ez zen inoiz Ameriketara itzuli, baina, bere erara Kanadako basorik abartsuenak okuntzatu zituen Emile anaiarekin batera, eta bai, urre-biltzaile aritu zen Pete Agerreberri baten gisan –urre, urre, urrearen bila–. Inpresioa dut Jean Etxeparek ere bere *Eureka* topatu zuela, eta huraxe zulatzen ibili zela urte luzez, ekin eta ekin urrearen bila, bakar-bakarrik, urre-biltzaile itsutuen gisan. Bai, eiki, Etxeparek ere galdetuko zion bere buruari: alferrik izan al da urrearen atzetik ibili behar hau?

ERANSKINAK

1. BEHIN MAKEAN –Herria, 1972–

2. DAZANTZEK EGINDAKO HILETA-MINTZALDIA

1. BEHIN MAKEAN

Makeako pesta laugarrena zen: Jondoni Estebe. Goiza. Plazan **Juanaño**, altzoa arto bihiz beterik, hasi zen boz mehe batekin etxe-gibelean oihuka: **Pu-urra! Purra! Purra!** Hinki-hanka, tarrapatan, burua gorarik eta begiak bipil, etortzen zaizko oiloak multzoka alorraren alde orotarik. Hauien gainerat horra uhar bat pazka, eta klika-klika, gelditu gabe, mokitik golkorat pilotan bihiak baderamatzatelarik, bat bederari behatzen deie aldizka, zonbat ditazken oro. Hogoi-ta-hiru! Lepoa ukurturik, bertze uhar bat arto-bihiren garbitzen ari zaizkolarik bere ganik hurbiltxago, berriz ere hogoi-ta-hiru! Hogoi-ta-laugarrena, oilo eder gorrasta bat, berak hazia, orotako maitenena, bezperan oraino han bertzeen artean berak bere begiz ikusia, eskas! Ebatsia, arai? Ah! plaza madarikatua! Ago, ago, **Marigazte** ohoin txar xikina, ez denat ez aldi huntan barkatuko!

Etixerat sartu zen berriz, bainan senarrari erran gogo baitzakon norat zoan hats hartan, eta zertako, –ez zuen aurkitu. Pindarra zariola, abian jo zuen urruntxago, Marigazteren bortarat.

Marigazte hura emazte ttipi bat zen, xahartzen hasia, alde orotarik biribil, begi beltz batzuekin, gogorki mihi gaixtokoa. Hamabortz urte bederen bazuen sukaldeko puxkak oilo ebatsiak sostuz erosten zituela, nehor guti baitzen oraino horri oharturik. Zonbaitek ikusia zuten, ba, Hazparneko itzulia eginik, argiko herrirat heltzen, zare handi bat buruan; bainan nor debruk amets zezaken zertan zabilan hain goizik? Gehiago dena, aintzek maite zuten, zeren, etxe batean oilo bat eskasten zelarik, biharamuneko han baitzen, zioela nigarra begian: «Galdu duzieia oilorik? Jinko maitia! Niri bizpahiru egun huntan zonbaitek huts egiten dautate, eta ez xarrenek! Axeria badabila, zirtzil hura!» Eta berehala laborari gaizoak bazoatzen, ihizi gaixtoari leher egin-arazi behar zakotela, potikariorat zerbaiten bila.

–Agertu gogo duna barne hortarik, usaindu txarra? ari zitzakon orroaz Juanaño. Ala jin behar nitzaiquin barnerat lepo mehe horren bihurdikatzerat? Aspaldian egin beharra huke, no!

Nehork ez ihardesten.

Etxea beraz hutsa...

Bet-betan ixildurik, huna nun Juanaño sartzen zaukun sukaldean.

*

Marigazte auzoan zen kalakan ari. Herri ttipi guzietakoa da: pesta ondoetan emazteak elgarretarat bil, eta bertzeak zoin gehiago jorra. Gure Eskualherri maitean bereziki huna nolatsu dabilzan solasak:

–Ohartu ziezteia herenegun, iluntzian, **Gorriane**ko andregeia zoin gogotik dantzan ari zen **Patarre**ko premuarekin? Begiak beti beheiti dauzka!

–Oi-ei-ai! Xahu da!

Neskatxen ondolik, mutikoak derabiltzate mihitan. Makean bereziki badute nortaz mintza: arratsalde erditarik goiti, poneta bat ezpainetik dilindan hats zarraren ezeztatzeko papoa idekirik, barneko has, beren zango zabalak espartin xuri lore gorritz apaindu batzuetan gordeak, hantxet ari zaizkitzu gehienak dantzan, irrintzina dariotela...

Pesta ondoetan, emazteak hola elgarrekin goxatzen direlarik, gizonak aldiz alor bazterretan dabilza harat-hunat, pipa ahoan, burua dorpe, **nafarrak** han apur bat erakitzen deielakotz oraino. Goizetik bero egiten ere du, agorrila baita; bero sapa bat, zeru garbi apal batek itorik lur-axal daukana. Laborariak badaude ogier so: horitzen ari direnez, zoin gunetan gehienik, zonbat bihi duten buruek, uztarrarian, noizko zohituko diren, zer lasto-keta dakarren diraun urteak. Laneko nehork ez gemenik. Bertzela, mendi mazelarik, mutiko tzar batzu ari zaizkitzu turruta soinu, orroaz, airosten baitituzte bazterrak, orroit-araziz jendea pestak ez duela oraino leher egin.

Holaxet zabilzan bada beren lurretan gure bi emazteen senarrak.

Juanaño Marigazteren sukaldeko usain onaz harritu zen. Barnea pizten zagon, goxoz. Sudurra luzatua, hurbildu zen sutik, hari buruz xutik zagon eltze gotorrean zer ote zitaken. Kentzen dako estalgia:

–Jinko eta Ama birjina saindua, zer da hau? Zeren ikustera behar nintzan ni egun batez jin hunat!... Ene oilo gorria hila, egosten ari, Marigazteren aztapar xikinek sarri garbitzeko mahainean!

Eta egiazki han zen oilo gorria, eltzean buruz beheiti, zangoak moztuak, ixterrak zabaldu bere gibel-alde legun horia azpitik goiti dena erakusten zuela.

Oihu patarrak hasi zen Juanaño, bihotza ausikian joan izan balakote bezala. Gero bet-betan ixildu zen, eta irriño batekin, brix! ixteretik atera kanporat oiloa eta botatu, beroarekin ezin atxikiz, tolaren gainerat.

Hainbertzenarekin xutitu zen etxeko gatua, **Mari**un, xoko-xokoan etzanik gorgoran zagoena, pesta-ondo hura ere. Gatuzahar bat zen, okerra, ezintzen hasia, bainan aintz ikusirik zerbait ikasia. Adituak zituen emazte arrotz haren oihu karrasiak eta gero oharturik begitartea tupustadan goxatu zitzakola, bere baitan egina zuen:

–Gure etxekanderea hola jartzen delarik, maiz zaharoaz emaiten daizkit bizkar-hezurrean, ez bada batere goxo. Gomak aldi huntan ere, Mariun! Nihun balin bada kabala gogo gaixto eta aldakorrekorik, emaztea duk!

Hartakotz zen bada xutitua, azkazalen punta eztiki jalitzen zuela, zer gerta, aztaparretako ile legunen artetik.

Bainan ez duzu emaztea bezalako debrurik: gatu hura ikustearekin, ximixtan jin zitzakon zerbeit gogora, ximixtan egin behar ukan baitzuen: Mariun lepoko iletarik hatzeman eta marrakaz buruz beheiti eltzean esku batez bertzea lagunduz ondoraino sartu, berehala estalgia ezarri eta atxiki zapan. Salda irakitu hartan hil zen gatu zahar gaizoa, leher egitearekin bere barnean zituen guziak husten zituela saldaren ongailu...

Altzorat goititu zuen Juanañok bere oiloa eta ereman hala-hala etxerat.

*

Doaia: Marigazte bere senarrarekin batean etxeratu zen hamekak irian. Sukalderat orduko, ezin egonarekin, huna nun gizona hasten zakon:

–Zer da usain hau, Marigazte! Aditu duna hik behinere holakorik? Idu-ri din alafede ifernuko itoietarik jalia! Idekan berehala leiho hori, ito bederen ez giten zikinkeria huntan!

Marigazte lastua manatuen egiten ari zakolarik, uste gabetan bezala berak –ikusteko– altxatzen du eltze-estalgia. Zeruko Jainkoa!... Salda gain guzia ilez eta hagin beltzaran usaindu izigarri batez igeri zen. Erdi-erdian bi aztapar-mutur doi-doaia ezagun: lapin ala gatuarenak? Su-haatzekin lotzen zeie eta eztiki (ihiziaren larrua guriturik lerratzen zakolakotz) ateratzen du... Mariunen gorputza!! Marigazte begiak jalitzeko heinean aztoratutik hari so.

Ez zen gizon gaixtoa, emaztea maite zuen, bainan, xuhurra baduzu, Makearrari ez huts egin. Xutitu zen zank:

–Hori duna pesta laugarrenean niri eltzean ezartzeko oiloa?

Kexuarekin xuri-xuria emaztearen aintzinean zagoen, hatsa ezin hartuz, begiak zorrotz eta geldi Marigaztek, harritua, zozotua, ez baitzezoken ihardets, eskuin gibelaz beharrondokoan aurdiki zuen supazter zokorat. Gero ganbaran sartu zen, han hartu moltsa eta ele gaixtoa zariola ostaturat joan bazkaritera.

Jean ETCHEPARE medikuak kondatua (1906).

–Jatorrizkoa: *Eskualdun Ona*, 6 (1906-02-09) eta 16 (1906-04-20)–

2. DAZANTZEK EGINDAKO HILETA-MINTZALDIA

Jean Etchepare

Huna hitzez hitz, Dassance gure laguntzaile argituak egin mintzaldia, Cam-boko hil herrietan.

Iduritu baitzauku Etchepare gure lagun eta adiskide handi eta maiteari, Eskualzalek, Gure Herriaren eta Eskualdunaren langile lagunek azken agur bat zor giniola eta,? bertze guzien artetik hemen, Laphurdiko lur gozo huntan, Eskualdun seme suhar eta khartsu horri zoakon agurra ?hain maite zuen Eskuarak egin behar ziola – bihotza zaurturik heldu naiz uste gabeko heriotze itsu eta lazgarriak khendu daukun adiskidearen ganat.

Etchepare zer sendagin jakintsuna eta atchikia izana den, orok eta bereziki eriek eta jende beharrek erran lezakete.

Etchepare, nolako eskualduna, nolako eskualzalea izana den, guhaurek badakigu: ikusi dugulakotz gure bilkuretan, bethi han, berdin laño, bere jakitate paregabeak bertzeak oro argitzen zituela, bere bihotz onak bertzen hutsak edo eskasak estaltzen zituela, bere gogo hazkarrak bethi eginbideari eta maite zuen sailari hertchiki jarraikarazten zuela.

Langile handi balinbazen, jakintsun balinbazen eta bere jakitatea alderdi orotarat bethi aintzina hedatzen eta zabaltzen hari zena, ez zen den gutienekorik bere buruaz hartua, handiekin handi, jakintsunekin jakintsun bezala, jende chehearekin baitzakien bere burua chehe egiten, erleak lore guzietarik ezta biltzen duen gisan, handi, jakintsun edo argituetarik bezala, jende chehearen ahotik berdin hautemanik, zakielakotz egiaren kausitzen eta berechten.

Ez baitzituen ere bere gogo eta bihotzaren berriak oro batean erakusten, bainan bai, mia aberats batean gero eta barnago sartzen den bezala, gorderik zauzkan dohain ederrak bat bertzearen ondotik agertzen zirelakotz, egiazki ezagunago eta maiteago ginuen orok.

Bai zorigaitzezko eguna aurthengo urtharilaren bederatzia! Egun hortan Eskualzalek, Eskualdunek gizon bat galdu dutelakotz; Eskuarari bere idazle hoberena gelditu zaiolakotz; Eskual-herriari seme hoberenetarik bat itzaldu zaiolakotz!

Gure Jainkoak bere ganat hartu du gure adiskidea... Eman diezotela nigar dolutan utzi dituen bere lagunari, haurride eta jendekiari indar eta sokorri; eta guri, haren adiskideri, hasi sailari jarraikitzea, eta gero, gure aldia jinen delarik, lur huntan gehiago ikusiko ez dugun adiskidearekin elgarretaratzea.

–FONDS DASSANCE, Euskaltzaleen Biltzarra:
E. K. Bulletins. Bibliothèque Basque. Baiona–

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- A., L. de. 1967. "Escritor vasco muerto en la batalla de Verdun: Clemente de Andurain". *Boletín Real Sociedad Vascongada Amigos del País*, 23 (3/4): 440-443.
- ABADIA, A. 1890. "Apezac soldado". *Euskera*, XLIII (1): 253-261. 1998.
- 1892. "Sathorra". *Eskualduna*, ekainaren 10, 17 eta 24, eta uztailaren 1.
 - 1975. "Satorra". *Gure Herria* (3): 153-162.
 - 1975. "Uli, jinko-oilo eta har". *Gure Herria* (4): 229-236.
- ABBOTT, S. 2000. "*Chaetophractus villosus* hairy armadillo".
[http://animaldiversity.ummz.umich.edu/...etophractus/c._villosus\\$narrative.html](http://animaldiversity.ummz.umich.edu/...etophractus/c._villosus$narrative.html)
- AFFLERBAUGH, K. 2000. "*Conepatus chinga* andean hog-nosed skunk, Andes skunk".
[http://animaldiversity.ummz.umich.edu/...nts/conepatus/c._chinga\\$narrative.html](http://animaldiversity.ummz.umich.edu/...nts/conepatus/c._chinga$narrative.html)
- AGER, P. & P. XARRITON. 2003. "Manuel Inchausperen Mendeurrena". *Euskera*, 48(2): 501-546.
- AGIRRE, TX. 1912. *Garoa*. Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria. 309 orr. (1983).
- AIZEN, H. 1992. "La Guerra del Desierto".
<http://www.bariloche.com.ar/museo/DESIER.HTM>
- AIZPURU MURUA, M. 2003. *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kultur gintzan. Hasierako urteak, 1973-1984*. Udako Euskal Unibertsitatea. 216 orr.
- 1988. "Recensión de Weber, Eugen: La fin des terroirs: La modernisation de la France rurale (1870-1914). Fayard, Paris". *Historia Contemporánea*, 1: 238-240.
- ALTABA, C. 1995. "L'estrany cas dels herbívors absents". 204-207, in: *Biosfera*. 3. *Sabanes*. R. Folch zuz. Enciclopèdia Catalana. 640 orr.
- ALTONAGA, K. 1994. "Teleskopioa, mikroskopioa eta txiki-ikusina". *Berba*, 11: 1-2.
 Ikus: <http://www.uzei.com/berba/zaharrakberri.cfm?d=24>
- 1997. "Bizkaiera unibertsitatean". 79-91, in: *Mendebaldeko euskara XX. mende goienera*. Mendebalde Kultur Elkarte. 191 orr. Ikus:
<http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi104A.pdf>
 - 1998. *Folin markesa. Marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan*. Elhuyar. 204 orr.
 - 1998. "Pandaren dieta eta hiztegi-kontuak". *Elhuyar, zientzia eta teknika*, 129: 30-35. Ikus: http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=2615
 - 1998. "Ajeak eta aje ez direnak". *Berba*, 26: 1-2. Ikus:
<http://www.uzei.com/berba/zaharrakberri.cfm?id=7>

- 1999. "Heriotza Ibarra, desolamenduaren eremua". *Elbuiar, zientzia eta teknika*, 144: 35-39. Ikus: http://www.zientzia.net/artikulu_inprimatu.asp?Artik_kod=1630
 - 2001. *Armand David, pandaren aita*. Elhuyar. 251 orr.
 - 2002. "Saiakera zientifikoa idazteko abiapuntu bat". *Ekaia*, 15: 127-149. Ikus: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/publica/ekaia/ekaia15.pdf>
 - 2002. "Orga idien aitzinean, baina zelako idien aitzinean?". *Jakin*, 130/131: 128-131.
 - 2002. "Gould hil dela". *Natur Zientziak Taldeko Inoizkaria*, 25: 4.
 - 2002. "Gould gure artean". *Natur Zientziak Taldeko Inoizkaria*, 25: 5.
 - 2003. "Botila erdi hutsik". *Aikor!*, 19: 4.
 - 2003. "Gure prosa zientifikoaren lehen urratsak: Albert Constantin jaun medikuaren *Zubainen eritarzunaz eta baien arraberrikatziuz*". *Ekaia*, 17: 121-137. Ikus: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/publica/ekaia/ekaia17.pdf>
 - 2004. "Arnaud Abadia jaun kalonjearen *Sathorra* (1892)". *Ekaia*, 18: 123-145. Ikus: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/publica/ekaia/ekaia18.pdf>
 - 2004. "Pierre Buruzain jaun mediku hazpandarraren *Pasteur jaun zena* (1896)". *Ekaia*, 18: 147-169. Ikus: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/publica/ekaia/ekaia18.pdf>
 - 2005. "Adostutako eredu baten bila (edo *amaigabeko eztabaida aspergarria* gainditu guran)". 55-153, in: *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologazimora*. J. M. Txurruka zuzend. Mendebalde Kultura Alkartea. 514 orr. Ikus: <http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi141A.pdf>
- ALTUBE, S. 1923. "Euskel-itz barriak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen". 78-93, in: *III Congreso de Estudios Vascos*. San Sebastián.
- ALTZIBAR, X. 2000. "El ensayo en lengua vasca". 589-627 in: *Historia de la Literatura Vasca*. UNED.
- "Eskualduna kazeta". *Euskonews & Media*. <http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0043zkb/media4301eu.html>
- ALUSTIZA, J. 1985. *Euskal baserriaren inguruan*. Arantzazu Frantziskotar Argitaletxea. 321 orr.
- ALVAREZ, W. 1997. *Tyrannosaurus rex y el cráter de la muerte*. Ed. Crítica. 201 pp. (1998).
- ALVAREZ GILA, O. 1998. "Urruñako 1853ko Euskal Jaiak, Ameriketarako Euskal Emigrazioa eta Eliza". 389-397, in: *Antoine d'Abbadie 1897-1997*. Congrès International (Hendaye, 1997). Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia. 705 orr.
- 1999. *Euskal Herria y el aporte europeo a la Iglesia en el Río de la Plata (1835-1965)*. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. 301 pp.
 - 2000. "Los religiosos vascos y su aporte a la sociedad argentina: una inmigración particular (siglos XIX y XX)". 795-831 in: *Los vascos en la Argentina. Familias y protagonismo*. Fundación Vasco Argentina "Juan de Garay". 1173 pp.
- ALVAREZ, Tx. 1981. "Jean Etchepareren *Buruchkak*". *Argia*, 899: 26-27. Urtarrilaren 18.
- AMEGHINO, F. 1899. "El *Neomylodon Listai*, un sobreviviente actual de los megaterios de la Antigua Pampa". *La Pirámide*, I: 51-59. Ikus: <http://www.argiropolis.com.ar/ameghino/neom.htm>
- ANDIAZABAL, P. 2005. "Monsieur le Chanoine Augustin Larralde (1851-1912)". *Bulletin des Anciens Elèves Larressore, Belloc, Ustaritz*: 7-8.

- ANDREWS, E. 1942. *A History of Scientific English*. R.R. Smith. New York. 342 pp. 281-305 orrialdeetan.
- A[PEZTEGI], L. 1922. "Ilabetekoa". *Gure Herria*: 606-612.
- ARANA GOIRI, S. 1894. "Vulgaridades". *Bizkaitarra*, 1894.12.31, in: *Obras completas*, 1965: 426.
- 1894. "El separatismo". *Bizkaitarra*, 1894.12.31, in: *Obras completas*, 1965: 423.
- ARANBARRI, I. 1999. "Miriku jaunaren bekatua". 25-26, in: *Gure mendea: ehun urte euskal kulturaren*. Argia. 320 orr.
- ARBELBIDE, J. P. 1890. *Erlisionea: Eskual-Herriari dobazkon egiarik beharrenak. Heren-Ordreko chebetasunekin eta Meza-Bezperen othoitzekin*. P. Xarritonen ed. Euskaltzaindia. 480 orr. (2004).
- 1895. *Igandea edo Jaunaren Eguna, Meza-Bezperen othoitzekin*. Desclée-de Brouwer. Lille. 226 orr.
- ARBELBIDE, X. 1986. *Piarres Lafitte, bere bizia*. Elkar. 95 orr.
- 2003. *Jean Pierre Goytino eta Californiako Eskual Herria*. Euskaltzaindia. 211 orr.
- 2005. *Janpierre Arbelbide 1841-1905*. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Donostia. 234 orr.
- AROTÇARENA-ZEPHURU, S. 1955. "Mendiondotik athera diren aphezak". *Gure Herria*, 5: 305-319.
- ARTETXE SANCHEZ, K. 2005. *Komunitate Zientifiko Euskaldunaren ezagutzara leben burbiltzea: euskarazko produkzio unibertsitarioaren azterketa (1968-2003)*. 12 Kredituko Ikerketa-lana. Gaur egungo Historia Saila. UPV/EHU. Argitaratu gabea. 103 orr.
- ASKOREN ARTEAN. 1979. "Pierre Broussain-en omenaldia". *Euskera* 23(1): 159-179.
- ATXAGA, B. 1988. *Obabakoak*. Erein. 403 orr.
- AUZA, G.J. 2003. "Simón Guimon, un apasionado apóstol euskaldun en la pampa". *Euskonews & Media* 210: 16-23. Ikus: <http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0210zkb/kosmo21003.htm>
- AZCONA, J. 1981. "Notas para una Historia de la Antropología Vasca: Telesforo de Aranzadi y José Miguel de Barandiarán". *Ethnica*, 17: 64-84.
- AZKUE, R.M. 1897. "¿Inor bizi da izarretan?". *Euskalzale*, 5: 35.
- 1899. "Zer edo zertzu". *Euskalzale*, 43: 340-341.
- 1918. *Ardi galdua*. I. Pagolaren ed. Klasikoak, 9. 1989. 170 orr.
- 1920.05.17. Eskutitza J. Etxepareri. Azkue Biblioteka: ABA-EUS-1920.
- 1920.05.17. Eskutitza R. Menéndez Pidali. Azkue Biblioteka: ABA-EUS-1920.
- 1921. "Euskaltzainburuak Hasparrengo batzar agirian Geo. Lacombe euskaltzainari egindako erantzumena". *Euskera*, II: 57-63.
- 1930. "Documento interesante, manuscrito de P. Broussain". *Euskera*, 11 (2-3): 229-238. Ikus: <ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/53098.pdf>
- 1930.04.15. Eskutitza Daranatzi. Azkue Biblioteka: ABA-EUS-1930.
- 1930.04.28. Eskutitza Daranatzi. Azkue Biblioteka: ABA-EUS-1930.

- BAHR, G. 1922. "Uña naiz xirietaz". *Euskal-esnalea*, 222: 109-110, in *Enciclopedia General del País Vasco. Literatura III*, 262-263. Ed. Auñamendi.
- BAÑALES, G. & M. GORROTXATEGI. 2004. "Edward Spencer Dodgson (1857-1922)". *Euskera*, 49 (1): 265-349.
- BARANDIARAN, J. M. 1932. *Apuntes de Geología General y de la del País Vasco*. Imp. Del Montepío Diocesano. Vitoria. 127 pp.
- BARBIER, J. 1926. *Piarres I*. Klasikoak, 54. R. Sanchez Zabaletaren ed. Euskal Editoreen Elkarte. 194 orr. (1992).
- 1929. *Piarres II*. Klasikoak, 78. A. Loidi Garitanoren ed. Euskal Editoreen Elkarte. (1996).
- BARLOW, C. 2000. *The Ghosts of Evolution. Nonsensical fruit, missing partners, and other ecological anachronisms*. Basic Books, Perseus. 291 orr.
- BARNAVI, E. (Zuz.). 1992. *Histoire universelle des juifs. De la genèse à la fin du XXe siècle*. Hachette. Paris. 299 orr.
- BAROJA, P. 1918. *Las horas solitarias. Notas de un aprendiz de psicólogo*. 444-654, in: *Obras Completas, XIII; Ensayos, I*. Círculo de Lectores. Barcelona. 1999.
- 1919. "Discurso dirigido por el bachiller Juan de Itzea a los chapelauendis del Bidasoa en el solemne acto de inaugurar la Academia Científico, Literaria y Chapelauendiense de Cherribuztango-errec". *Momentum catastrophicum*. 657-689, in: *Obras Completas, XIII; Ensayos, I*. Círculo de Lectores. Barcelona. 1999.
- 1920. "Divagaciones sobre la cultura". *Divagaciones apasionadas*. 845-957, in: *Obras Completas, XIII; Ensayos, I*. Círculo de Lectores. Barcelona. 1999.
- 1926. *El gran torbellino del mundo*. 959-1202, in: *Obras Completas. IX*. Círculo de Lectores. Barcelona. 1998.
- 1932. *La familia de Errotacho*. 40-201, in: *Obras Completas. X*. Círculo de Lectores. Barcelona. 1998.
- 1932. *El cabo de las tormentas*. 203-367, in: *Obras Completas. X*. Círculo de Lectores. Barcelona. 1998.
- 1936. *El cura de Monleón*. 767-1007, in: *Obras Completas. X*. Círculo de Lectores. Barcelona. 1998.
- 1943. *El caballero de Erláiz*. 375-573, in: *Obras Completas. XI*. Círculo de Lectores. Barcelona. 1998.
- BAUDELAIRE, C. 1869. *Le spleen de Paris*. Parizeau. 200 pp. (1945).
- BELL, C.M. 2002. "Did elephants hang from trees? – the giant sloths of South America". *Geology Today*, 18 (2): 63-66. Ikus: <http://www.blackwell-synergy.com/links...10.1046/j.1365-2451.2002.00334.x/full/>
- BENTON, M. J. 1990. "Scientific Methodologies in Collision. The History of the Study of the Extinction of the Dinosaurs". *Evolutionary Biology*, 24: 371-400. Ikus: <http://palaeo.gly.bris.ac.uk/Essays/Dino90.html>
- BILBAO, J. 1950. "Pierre Loti y el País Vasco". *Gernika*, 11: XX-XX. Ikus: <http://www.armiarma.com/andima/ger/gern1128.htm>
- BILBAO AZKARRETA, J. 1996. "Vascos e indios en la Patagonia (1855) y en Nevada (1911)". 59- 71, in: *Emigración y redes sociales de los vascos en América*. Escobedo Mansilla, R.; Zaballa Beascochea, A. & O. Alvarez Gila ed. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. 502 pp.

- BO, M.S.; ISACCH, J.P.; MALIZIA, A.I. & M.M. MARTÍNEZ. 2002. "Lista comentada de los mamíferos de la Reserva de Biósfera Mar Chiquita, Provincia de Buenos Aires, Argentina". *J. Neotrop. Mammal.*, 9(1): 5-11. Ikus: http://www.cricyt.edu.ar/mn/indice/pdf/9_1/bo.pdf
- BORDA, I. 1988. *Just love*. Maiatz. Baiona. 96 orr.
- BORDACHAR, B. 1923. «Un saint basque: Le Bienhereux Michel Garicoïts». *Gure Herria*, 6: 337-347.
- BRIDOUX, J. M. 2001. "Michel Labèguerie: l'élú local". 111-116, in: *Michel Labèguerie: Omenaldia-Hommage*. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 196 pp.
- BROWN, J. H. & LOMOLINO M. V. 1998. *Biogeography*. Second edition. Sinauer Associates, Inc. 692 pp.
- BROWNE, M. W. 1988. "The Debate Over Dinosaur Extinction Takes an Unusually Rancorous Turn". *New York Times*, Jan 19. Ikus: <http://www.jhu.edu/~eps/faculty/jahren/DINO/NYTimesDino.pdf>
- BRUNOT, A. 19?? *Mixel Garikoitz (1797-1863)*. *Jainkoari baietz erran dion saindua*. Baiona? 64 orr.
- BUFFETAUT, E. 1991. *Fósiles y hombres*. RBA editores. 338 pp. (1993).
- BURUZAIN, P. 1896. "Pasteur jaun zena". *Eskualdun gazetaren Almanaka*: 33-38.
- 1920. "J' ren otsa eta idazkera". *Euskera*, 2(2): 31-34.
- CADBURY, D. 2000. *Los cazadores de dinosaurios. El descubrimiento del mundo enterrado antes del Diluvio Universal*. Ed. Península. 428 pp. (2002).
- CAMPOS PRIETO, J.A. & M. HERRERA GALLASTEGUI. 1997. "La flora introducida en el País Vasco". *Itinera Geobotanica*, 10: 235-255.
- CARDONA, G. 1983. "Las nuevas armas". 105-118, in: *Siglo XX. Historia Universal 5. La Gran Guerra*. Historia 16. 130 orr.
- CARTON, E. 2005. « Era guztietako eztabaidak ». Ikus : http://www.zientzia.net/artiklua_inprimatu.asp?Artik_kod=11537
- CASENAVE, J. 1997. *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*. Thèse de Doctorat. Université Michel de Montaigne – Bordeaux III. 656 pp.
- 1998. "Le renouvellement de la prose basque à travers *Buruchkak* (1910) de Jean Etchepare". *Lapurdum*, 3: 221-228.
- 1998. "Euskal nortasunaren irudiak XIXgarren mendeko bigarren partean". 547-552, in: *Antoine d'Abbadie 1897-1997*. Congrès International (Hendaye, 1997). Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia. 705 orr.
- 1999. "Jean Etchepare: idazle ausarta, gizon argitua". *Maiatz*, 32: 46-55.
- 2000. «L'autobiographie comme registre littéraire: *Ameriketako orboitzapenak* de Jean Etchepare». *Lapurdum*, V : 283-292.
- 2003. "*Ramuntcho*, Pierre Loti-ren sartzea Euskal Herrian". 69-79, in: *P. Lafitteren sortzearen mendemugako biltzarra: Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*. Iker 14(ii). Euskaltzaindia. 277 orr.
- 2003. "Jean Etxepare: idazle ausarta, gizon argitua". *Hegats*, 34: 25-43.
- 2005. "*Eskualduna* astekariaren «gizaldi gaztea» (1877-1888)". 167-183, in: *Belaunaldi literarioak auzitan*. Ur Apalategi Idirin (arg.). Utriusque Vasconiae. 247 orr.

- CASENAVE-HARIGILE, J. 1991. *Ximun Gimón-Zetegiet (1793-1861)*. De Arce. Maule. 78 orr.
- 2003. «Emmanuel Inchauspe (1815-1902)». *Euskera*, 48(2) : 549-553.
- CHABAGNO, A. 1990. «Histoire du Pays Quint. Les Maires des Aldudes (I)». *Ekaina, Revue d'Etudes Basques*, 33: 20-43.
- 1990. «Histoire du Pays Quint. Les Maires des Aldudes (II)». *Ekaina, Revue d'Etudes Basques*, 34: 79-88.
 - 1990. «Histoire du Pays Quint. Les Maires des Aldudes (III). Michel Chabagno et l'affaire Puttun». *Ekaina, Revue d'Etudes Basques*, 35: 129-150.
 - 1991. «Perkain, le pelotari». *Ekaina, Revue d'Etudes Basques*, 38: 144-152.
 - 1994. «Les prêtres originaires des Aldudes pendant la révolution française». *Ekaina, Revue d'Etudes Basques*, 52: 251-260.
 - 1995. «Emigration vers le nouveau monde à partir d'un village bas-navarrais au XIX^e siècle». *Ekaina, Revue d'Etudes Basques*, 49: 17-25.
 - 1995. «Une famille des Aldudes aux XVIII^e et XIX^e siècles (I)». *Ekaina, Revue d'Etudes Basques*, 53: 55-74.
 - 1995. «Une famille des Aldudes aux XVIII^e et XIX^e siècles (II)». *Ekaina, Revue d'Etudes Basques*, 54: 115-133.
 - 1995. «Une famille des Aldudes aux XVIII^e et XIX^e siècles (III)». *Ekaina, Revue d'Etudes Basques*, 55: 191-210.
- CHABAGNO, J. 1952. «Aita Chabagno-ren predikua Aldude-ko elizan». *Gure Herria*, 5: 273-277.
- CHARIG, A. 1993? *La verdadera historia de los dinosaurios*. Biblioteca Científica Salvat. 200 pp.
- CHARRITTON, P.: ikus XARRITON.
- CEPEDA MARTÍN, X. 2003. *Urdaibai Biosfera Erreserbako landare arrotz inbaditzaileak ezagutu eta kontrolatzeko eskuliburua/Manual para el conocimiento y control de las plantas exóticas invasoras de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai*. Aixerreku Elkarte. 30 orr.
- CLARFIELD, A. M. 2002. «Evolution's missing link». *The Medical Post*, 38(15). Ikus: <http://www.medicalpost.com/mpcontent/article.jsp?content=/conte...>
- COLBERT, E. H. 1968. *The Great Dinosaur Hunters and Their Discoveries*. Dover Publications Inc. 283 pp. (1984).
- CONAN DOYLE, A. 1912. *El mundo perdido*. Amando Lázaro Ros trad. Ed.Valdemar. Madrid. (1996).
- CONSTANTIN, A. 1913. «Zuhainen eritarzunaz eta haien arraberrikatziak». *Almanak uskara edo Ziberouko egunaria*. 125-135.
- 1947. «Etxahun Santa-Grazin». *Gure Almanaka*. Baiona. 25-28 (ikus: Klasikoak, 79: 105-109).
 - 1954. «Eskioulako herria, nountik noula egin den». *Gure Herria*, 6: 353-357. Ikus: wysiwyg://17/http://membres.lycos.fr/p...erria%20nontik%20nola%20egin%20den.htm
- CONSTANTIN, J.B. 1996. *Haritchabaletaren bizia & Don Juan eta bere adixkidiak*. P. Urkizuren ed. Klasikoak 79. 119 orr.
- COUCH, S. 2001. «101 Crazy Theories about Dinosaur Extinction, 1850-1998». <http://palaeo.gly.bris.ac.uk/Communication/Couch/home.html>

- CROOK, P. 1994. *Darwinism, war and history: the debate over the biology of war from the Origin of Species to the First World War*. Cambridge University Press. 306 pp. (2003).
- DARANATZ, J.B. 1918.11.25. Eskutitza Azkueri. Azkue Biblioteka: 109.331.
- 1923. "Un trappiste basque, Dominique Sarrote". *Gure Herria*, 9: 513-527.
 - 1930.04.17. Eskutitza Azkueri. Azkue Biblioteka: 109.331.
 - 1930.05.22. Eskutitza Azkueri. Azkue Biblioteka: 109.331.
- DARLING, D. 2000. "Arrhenius".
<http://www.angelfire.com/on2/daviddarling/Arrhenius.htm>
- 2000. "Drake equation". <http://www.angelfire.com/on2/daviddarling/DrakeEq.htm>
 - 2000. "Panspermia". <http://www.angelfire.com/on2/daviddarling/panspermia.htm>
- DARWIN, C. 1839. *Viaje de un naturalista alrededor del mundo*. I y II. Akal Editor. (1983). Ikus: <http://www.literature.org/authors/darwin-charles/the-voyage-of-the-beagle/>
- 1859. *The Origin of Species*. Penguin Classics. 476 orr. (1985).
 - 1872. *The Origin of Species*. Seigarren argitarapena. Prometheus Books. 434 orr. (1991).
 - 1872. *Espezieen jatorria*. Seigarren argitarapena. Klasikoak. A. Gabikagogeaskoa itz. 493 orr. (1994).
- DASSANCE, L. 1952. "Eskualzaleen Biltzarraren sortze eta hastapenak". *Gure Herria*, 4: 211-215.
- 1965. "Jean Etchepare jaun medikua". *Herria*, 786, agorrilaren 19a.
 - 1969. "Louis Dassance Eskualzainak ahurtara bat orhoitzapen". *Herria*, 963, urtarrila ren 16a.
- DAVANT, J. L. 2001. *Zuberoako idazle zenduak*. Elkarlanean. 213 orr.
- DESMOND, A. 1975. *Los dinosaurios de sangre caliente*. RBA editores. Barcelona. 310 pp. (1993).
- DIAMOND, J. 1997. *Armas, gérmenes y acero. Breve historia de la humanidad en los últimos trece mil años*. Debate. Barcelona. 527 pp. (2004).
- DODD, A. 2002. "Paranoid Visions": Germ Theory, Ernst Haeckel, and the Biopolitics of Warfare". <http://moby.curtin.edu.au/~ausstud/mc/0106/germ.html>
- DONOSTIA, P. 1949. "Apuntes de folklore vasco: los guardianos de Velate". *RSVAP (V)*: 309-321.
- DOUGLASS, W.A. & J. BILBAO. 1975. "Amerikanuak", *los vascos en el Nuevo Mundo*. R. Basurto trad. Argitarapen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea. 599 orr. (1986).
- DUHAU, H. 1998. "Matxin senpertar bertsulariak". *Maiatz*, 31: 16-25.
- DUHOUR, P. 1932. "Grachien Istilart". *Gure Herria*, 3: 193-204.
- DUNMAN, L. J. 2003. "Emile Durkheim: Biography". The Emile Durkheim Archive. Ikus: <http://durkheim.itgo.com/biography.html>
- ELISSALDE, J. 1927. "Chichta eta pherekak: Euskaltzaindia". *Gure Herria*, 1: 68-72.
- 1936-37. *LVII.a gerlan*. P. Urkizuren ed. Alberdania. 118 orr. (1995).
 - 1955. "Etchepare jaun mirikuaren ohoretan; Elissalde jaun aphez Eskualzalearen mintzaldia". *Gure Herria*, 5: 279-282.

- ELORRIETA ARTAZA, J. 1949. *El castaño en España*. Ministerio de Agricultura. 315 pp.
- ENSUNZA, M; ETXEBARRIA, J. R. eta J. ITURBE. 2002. *Zientzia eta teknikarako euskara. Zenbait bizkuntza-baliabide*. Udako Euskal Unibertsitatea. 458 orr.
- EPHERRE, G. 1965. “Euskalzaindia erakasle: Luis Liguex bersulariaz”. *Herria*, 785. Abuztuaren 14a.
- ERRUPIÑO ANAIA. 1961. “Gizonaren jatorria ta eleiza”. *Jakin*, 14: 25-29.
- 1964. “Gizonaren jatorria ta eleiza”. *Jakin*, 17: 44-47.
- ESARTE, P. 1982. *Alduide, corazón de Navarra*. Colección “Utrimque roditur”. Pamplona. 350 pp.
- ESCUDE, C. & CISNEROS, A. 2000. “La ocupación efectiva de la región patagónica por parte del gobierno argentino: la “Conquista del Desierto” y las exploraciones del perito Moreno (1879)”. <http://www.argentina-rree.com/6/6-083.htm>
- ETCHATS, R. 1929. «La maladie du châtaignier». *Société des Sciences, Lettres, Arts & Etudes Regionales de Bayonne*, 3: 126-130.
- ETCHEBERRY, J. B. 1962. *Michel Garicoitz sainduaren bizia eta bertuteak*. Imp. Cordeliers. Baiona. 247 orr.
- 1975. “Aita Jean Chabagno (1881-1975)”. *Gure Herria*, 3: 173-182.
- ETCHEPARE, J.: ikus ETXEPARE, J.
- ETCHEPARE LANDERRETCHE, J. 1991. *Mendekoste gereziak*. Erein. 250 orr.
- ETNIKER, 1990. *La alimentación doméstica en Vasconia*. 755 pp.
- ETXEBARRIA, J. R. 2002. “Euskal prosa zientifikoaren historiaren inguruan”. *Hegats*, 30: 63-75. Ikus: <http://www.idazleak.org/argitalpenak/hegats/hegats30.pdf>
- ETXEPARE, J. 1905. “Elosu jaun medikua”. 247-249, in: *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. II, mediku-solas*. P. Xarriton apail. Elkar. 374 orr. 1985.
- 1910. *Buruxkak*. I. Arrigainen ed. Klasikoak, 59. 180 orr. (1992).
- 1916. “Abbadie”. 42-43, in *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak. IV Kazetaritza (B) (1916-1935)*. P. Xarriton apail. Elkar. 1992. 408 orr.
- 1916. “Jaun kazeta egilea”. 48-49, in *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak. IV Kazetaritza (B) (1916-1935)*. P. Xarriton apail. Elkar. 1992. 408 orr.
- 1916. “Arnaud Abbadie kalonjea (1843-1916)”. 177-181, in *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I Euskal gaiak*. P. Xarriton apail. Elkar. 1984. 386 orr.
- 1920.05.13. Eskutitza Azkueri. Azkue Biblioteka: ABA-EUS-1920.
- 1920.07.31. Eskutitza Azkueri. Azkue Biblioteka: 110.380.
- 1921. “Laborarier: idazkirik hoberena”. 132-138, in *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak. V Euskalerriko bizia (1932-1935)*. P. Xarriton apail. Elkar. 1996. 216 orr.
- 1921. “G. Lacombe euskaltzain”. 215-219, in: *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I. Euskal gaiak*. P. Xarriton apail. Elkar. 386 orr. (1984).
- 1922. “Garoa”. 139-168, in: *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak. V Euskalerriko bizia (1932-1935)*. P. Xarriton apail. Elkar. 1996. 216 orr.
- 1925. “Jean-Blaise Adema jauna”. 225-233, in: *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I Euskal gaiak*. P. Xarriton apail. Elkar. 1984. 386 orr.

- 1925. Berri on bat. 173-175, in: *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak. V Euskalerriko bizia (1932-1935)*. P. Xarriton apail. Elkar. 1996. 216 orr.
 - 1926. "Atharratzeko mintzaldiak". 143-149, in: *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak*. Elkar, 1984.
 - 1928. "Gure gorputza: harresi bat bezala". 17-18, in: *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak, II. Mediku-solas*. P. Xarritonen ed. 1985. Elkar. 374 orr.
 - 1929. "Eritzi eta kitzika". *Gure Herria*, 2: 103-109.
 - 1929. "Eritzi eta kitzika". *Gure Herria*, 4: 312-319.
 - 1929. "Euskaltzaleen Biltzarraren bulegoaren bilkura Baionan". 161-167, in: *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak*. Elkar, 1984.
 - 1931. *Beribilez*. M. J. Kerejetaren ed. Klasikoak, 17. 225 orr. (1987).
 - 1933. "Pierre Etxepare apez zena (1880-1932)". 197-204, in *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak. V Euskalerriko bizia (1932-1935)*. P. Xarriton apail. Elkar. 1996. 216 orr.
 - 1934. "Euskalerriko bizia". 82-83, in: *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak, V. P. Xarritonen ed. Elkar. 1996. 216 orr.*
 - 1934. "Zelulak". 75-78, in: *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak, II. Mediku-solas*. P. Xarritonen ed. 1985. Elkar. 374 orr.
 - 1965 (1920). *Eskualzaimburu*. Herria. Baiona. 15 orr.
 - 1972. "Behin Makean". *Gure Herria*, 4: 237-240
 - 1984. *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak*. P. Charritton apail. Elkar. 386 orr.
 - 1985. *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. II, mediku-solas*. P. Charritton apail. Elkar. 374 orr.
 - 1988. *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. III, kazetaritza (A) (1903-1915)*. P. Charritton apail. Elkar. 428 orr.
 - 1992. *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. IV, kazetaritza (B) (1916-1935)*. P. Charritton apail. Elkar. 408 orr.
 - 1996. *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. V, euskalerriko bizia (1932-1935)*. P. Charritton apail. Elkar. 216 orr.
 - 2005. "Les noces du missionnaire". *Ekaina, Revue d'Etudes Basques*, 93: 55-64. P. Xarritonen itzulp.
- EUSKO IKASKUNTZA. 1923. *III Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicha Asamblea celebrada en Guernica del 10 al 17 de Setiembre de 1922*. Imp. Diputación Guipúzcoa. 160 pp.
- FABAS, P. 2003. "Vicissitudes politico-religieuses dans le Diocèse de Bayonne sous l'épiscopat de mgr. Jauffret (1890-1902) ». *Bulletin du Musée Basque*, 161: 41-54.
- FARIÑA, R. 1997. "Megafauna, la fauna de Uruguay en el pasado".
<http://www.rau.edu.uy/uruguay/historia/megafauna.htm>
- FLANDERS, S. E. 1962. "Did the Caterpillar Exterminate the Giant Reptile?".
Journal of Research on the Lepidoptera, 1(1): 85-88.
- FLANNERY, T. 1994. *The Future Eaters. An ecological history of the Australasian Lands and People*. Grove Press. New York. 423 pp.

- 2001. *The Eternal Frontier. An Ecological History of North America and Its Peoples*. Grove Press. New York. 404 pp.
- FOLEY, J. 2003. "Biographies: Eugene Dubois".
<http://www.talkorigins.org/faqs/homs/edubois.html>
- GABRIGA, G. (¿) 1962. "Escritores vascos americanos". *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, XIII (48): 8-21.
- GACHITEGUY, A. 1955. *Les basques dans l'ouest américain*. Éd. Ezkila. Bordeaux. 194 pp.
- GARAT, J. 1981. "Le Pays Basque et la guerre de 1914-1918". *Aburu*, 2. Supplément à Enbata n° 685.
- 1983. « El País Vasco y la guerra de 1914-1918 ». *Muga*, 25: 62-75.
- GARMENDIA, E. 2000. *Gerhard Bähr (1900-1945)*. Bidegileak, 18.
http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/gerhard%20bahr.pdf
- GASMAN, D. 1971. *The Scientific Origins of National Socialism*. Transaction Publishers. 208 pp. (2004)
- GIACCHINO, A. & Y. GUROVICH. 2004. "Mamíferos gigantes habitaron la región". <http://www.miramar-digital.com/egatur/museo/mamgig.html>
- GLICK, T. F. 1999. "La recepción del darwinismo en el Uruguay". 47-67, in: *El darwinismo en España e Iberoamérica*. T. F. Glick, R. Ruiz & M. A. Puig-Samper ed. Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Madrid.
- GOICOECHEA ALZUARAN, J.M. 1900. *Memoria sobre la enfermedad del castaño*. Bilbao. Imprenta Provincial. 62 pp.
- GOICOETXEA MARCAIDA, A. 1985. *Telesforo de Aranzadi. Vida y obra*. Sociedad de Ciencias Aranzadi. San Sebastián. 231 pp.
- 1993. *Un naturalista vasco en Uruguay (José Arechavaleta y Balparda)*. Ediciones Laga. Bilbao. 270 pp.
- GOIHENETXE, M. 1992. "Ipar Euskal Herria XIX. mendeko azken hamarkadetan". *Euskera*, 37 (2. aldia): 17-29.
- 1993. « Les origines sociales et historiques de l'association Eskualzaleen Biltzarra (1893-1913) ». *Bulletin du Musée Basque*: 1-68.
- GOIKOETXEA, J. L. 2004. *Euskaldunaren anekdotak*. Mendebalde Kultura Alkartea. 173 orr.
- GONZALEZ ROUCO, M. 2000. "Inmigración a la Argentina. Sacerdotes y frailes". mgonzalezrouco@yahoo.com.ar
- GOULD, S. J. 1977. *Ontogeny and Phylogeny*. Harvard University Press. 501 pp.
- 1980. *The Panda's Thumb. More reflections in Natural History*. Norton. 343 pp. (1992).
- 1980. "Bathybius y Eozoon". 201-207, in: *El pulgar del panda. Reflexiones sobre historia natural y evolución*. Ed. Crítica. (1994).
- 1980. "Romparamos una lanza por los marsupiales". 309-315, in: *El pulgar del panda. Ensayos sobre evolución*. Ediciones Orbis (1988).
- 1985. *The Flamingo's Smile. Reflections in Natural History*. Norton. 476 pp. (1987).
- 1985. "Premisa falsa, ciencia cierta". 105-117, in: *La sonrisa del flamenco*. Ed. Crítica. (1995).

- 1987. *Time's Arrow, Time's Cycle. Myth and Metaphor in the Discovery of Geological Time*. Harvard University Press. 222 pp.
- 1987. *La flecha del tiempo. Mitos y metáforas en el descubrimiento del tiempo geológico*. Alianza Editorial. 232 orr. (1992).
- 1989. *Wonderful Life. The Burgess Shale and the Nature of History*. Hutchinson Radius. 347 pp.
- 1989. *La vida maravillosa. Burgess Shale y la naturaleza de la historia*. Ed. Crítica. 357 pp. (1991).
- 1989. *Bai Bizi Zoragarria! Burgess Shale eta Historiaren Izaera*. I (230 orr.) eta II (234 orr.). J. R. Etxebarria itzul. Gaia. (2000).
- 1993. *Eight little piggies. Reflections in Natural History*. Jonathan Cape. London. 479 pp.
- 1993. "Los hombres de la división treinta y tres: un ensayo sobre la integridad". 117-129, in: *Ocho cerditos*. Ed. Crítica. (1994).
- 1993. "Relectura de Edmund Halley". 157-169, in: *Ocho cerditos*. Ed. Crítica. (1994).
- 1993. "Caída en la casa de Ussher". 170-181, in: *Ocho cerditos*. Ed. Crítica. (1994).
- 1995. *Dinosaur in a haystack. Reflections in Natural History*. Harmony Books. New York. 480 pp.
- 1995. "Un dinosaurio en un pajar". 159-170, in: *Un dinosaurio en un pajar*. Ed. Crítica (1997).
- 1995. "Ordenar la naturaleza por las flores y la sexualidad de firmes pechos". 435-449, in: *Un dinosaurio en un pajar*. Ed. Crítica (1997).
- 1998. *Leonardo's Mountain of Clams and the Diet of Worms. Essays on Natural History*. Three Rivers Press. 422 pp.
- 1998. "¿Podemos conocer realmente la pereza y la rapacidad?" 335-349, in: *La montaña de almejas de Leonardo*. Ed. Crítica (1999).
- 1999. *Rocks of Ages. Science and Religion in the Fullness of Life*. Ballantine Books. 243 pp. (2002).
- 1999. *Ciencia versus religión, un falso conflicto*. Ed. Crítica. Barcelona. 232 orr. (2000).
- 2000. *The lying stones of Marrakech. Penultimate reflections in Natural History*. Vintage. London. 372 pp. (2001).
- 2000. "Inventando la historia natural elegantemente". 85-101, in: *Las piedras falaces de Marrakech*. Ed. Crítica. (2001).
- 2002. *The Structure Of Evolutionary Theory*. Belknap Harvard. 1433 orr.
- 2002. *La estructura de la teoría de la Evolución*. Tr. Ambrosio García Leal. Tusquets Editores. 1426 pp. (2004).
- 2002. *I have landed. The End of a Beginning in Natural History*. Harmony Books. New York. 418 pp.
- 2002. *Acabo de llegar. El final de un principio en historia natural*. Ed. Crítica. 535 pp. (2003).
- 2002. "Abscheulich! (¡Abominable!)". 392-412, in: *Acabo de llegar. El final de un principio en historia natural*. Ed. Crítica. (2003).

- GOYENECHEA, M. (koord.) 2000. *Los vascos en la Argentina. Familias y protagonismo*. Fundación Vasco Argentina “Juan de Garay”. Buenos Aires. 1174 pp.
- GRIBBIN, J. 1999. “Panspermia revisited”. <http://xxx.lanl.gov/abs/astro-ph/9909013>
- GURRUTXAGA, A. 2000. “Gerhard Bähr euskalaria”. 8-9 in: *Udanako alemanak: Gerbard Bähr, 1900-1945*. Ene Bada! Gehigarria. 12 orr.
- HAECKEL, E. 1874. “The Gastraea-Theory, the Phylogenetic Classification of the Animal Kingdom and the Homology of the Germ-Lamellae”. *Quart. J. Microsc. Sci.*, 14: 142-165, 223-247.
- 1879. *Histoire de la Création Naturelle ou Doctrine Scientifique de l'Évolution*. Trad. septième édition allemande. Imp. Louis Bellenand. Fontenay-aux-Roses. 601 pp.
 - 1899. *The Riddle of the Universe*. Prometheus Books. Buffalo, New York. 391 pp. (1992).
 - 1905. *The Dagger of Darkness. Three Lectures on Evolution*. High Sierra Books. 98 pp. (2000).
- HARITXELHAR, J. 2003. “Intxauspe Axularren zentsuratzaile? Geroren gaurkotzaile?”. *Euskeria*, 48(2): 569-580.
- HELGEN, K.M. 2003. “Major mammalian clades: a review under consideration of molecular and palaeontological evidence”. *Mammalian Biology*, 68: 1-15. Ikus: <http://www.urbanfischer.de/journals/mammbiol>
- HERNANDEZ MATA, A. 2003. *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan*. Doktore-tesia (argitaratu gabe). UPV/EHU. 503 orr.
- HERRIA. 1957. “Constantin jaun bedezia zenthu da”. 351 zenb., Maiatzaren 2koa.
- HERRIA. 1957. “Constantin jaun bedeziaren ehortzeta”. 352 zenb., Maiatzaren 9koa.
- HERRIA. 1957. “Constantin jaun bedeziaren ouhouretan”. 354 zenb., Maiatzaren 23koa.
- IZTUETA, P. 1988. “Quito'n arrebarekin” irakurritz (Orixeren pentsamendu erlijiosoa aztertzeoko burbilketa-saioa). Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia. Etor. 433 orr.
- INCHAUSPE, E. T. 1901. *Uscaldunaren guthunak*. Maule. 493 orr.
- IRASTORTZA, T. 2002. “Euskal Literaturaren Historiaren orri gehigarriak”. *Hegats*, 31: 17-30.
- IRIART, M. 1945. *Corsarios y colonizadores vascos*. Ekin. Buenos Aires. 149 rr.
- IRIGOIEN, M. 2004. *West Ibarre Side Story*. DVD. Aldudarrak bideo.
- ITURBIDE, A. 1991. “Jean Etchepareren idazkera”. *Jakin*, 64: 129-141.
- ITZAINA, M. 1999. *Mixel Labéguerie, kantu berritzaile eta politika gizona*. Elkarlanean. 190 orr.
- IZAGIRRE, K. 2004. «Tristes topiques». <http://www.susa-literatura.com/liburuak/fran0101.htm>
- JACOBY, C. 2004. “Giant Sloth Project”. <http://users.tinyonline.co.uk/jacoby/giantsloth.htm>
- JAFFE, M. 2000. *The Gilded Dinosaur. The fossil war between E. D. Cope and O. C. Marsh and the rise of American Science*. Three Rivers Press. 424 pp.

- JAHN, I.; LOTHER, R.; SENGLAUB, K. 1985. *Historía de la Biología. Teorías, métodos, instituciones y biografías breves*. Ed. Labor. 780 pp. (1990).
- JONES, R. A. 1986. "Emile Durkheim: His Life and Work (1858-1917)". Ikus: <http://www.relstuiuc.edu/durkheim/Biography.html>
- JUARISTI, J. 1987. *Literatura vasca*. Taurus. 161 pp.
- KALTZAKORTA, X. 1999. "«Alabaren heriotza»ren aldaera berri bat". *Idatz & Mintz*, 29: 16-23.
- 2000. "Jean Etchepareren *Cantu dolorosac*". *Karmel*, 230: 35-54.
 - 2003. "Bertso jarrietatik ahozkoa (Urkabe-bertsoak euskaraz: estudiante gaztearenak eta beste)". 11-47 in: *Ahozkotasuna aztergai*. Mendebalde Kultura Alkartea. 210 orr.
 - 2005. "Gotzon Garateren gorantzán". 507-512, in: *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologazainora*. Mendebalde Kultura Alkartea. 514 orr.
- KEREJETA, M. J. 1987. "Jean Etchepare". 21-29, in: *Beribilez*. J. Etchepare. Klasikoak, 17.
- KINTANA GOIRIENA, J. 2001. "Nietzsche euskal literaturan: Jean Etxepareren *Amodioa* (1910)". *Jakin*, 127: 109-128.
- 2002. *Vizcaytik Bizkaira? R. M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*. Euskaltzaindia-BBK Fundazioa. 180 orr.
- KLYCE, B. 2003. "Introduction: More Than Panspermia". <http://www.panspermia.org/intro.htm>
- KOENIGSWALD, G. H. R. von. 1967. *Los hombres prehistóricos*. Ed. Omega. 220 pp.
- KOWALSKI, K. 1976. *Mamíferos, manual de teriología*. H. Blume Ediciones. 532 orr. (1981).
- KORTABARRIA, B. 1999. "Gaztaina gutxi negu hotzerako". *Elbuyar zientzia eta teknika*, 149: 16-21.
- KRISHTALKA, L. 1989. *Dinosaur Plots and Other Intrigues in Natural History*. William Morrow and Company, Inc. 316 pp.
- KRUTWIG, F. 1962. "Euskararen ethorkizuna". *Egan*, XX (1-3): 19-33. Ikus: <http://www.armiarma.com/andima/egan/egan41/iruegan410021.htm>
- KÜHN, F. 1947. *Geografía de la Argentina*. Ed. Labor. 202 pp.
- LACOMBE, G. 1920.06.18. Eskutitza Azkueri. Azkue Biblioteka : ABA-EUS-1920.
- 1935? "Le Docteur Jean Etchepare". Azkue Bibliotekan.
- LAFITTE, G. 1946. *Le chataignier japonais en Pays Basque*. Mendiende. 72 pp.
- LAFITTE, P. 1932. « Notre Maître: M. Le Dr Etchepare ». *Gure Herria*, 3: 259-266.
- 1941. "Jean Etxepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas". 5-21, in: *Buruxkak*, J. Etchepare. Elkar. 195 orr. (1980).
 - 1942. *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Bayonne. 96 orr.
 - 1952. "Apez eskualdun batek behar luken kulturaz". *Gure Herria*, 2: 75-84.
 - 1957. "Munduaren hastapenak (i)". *Herria*, 358. Ekainaren 20a.
 - 1957. "Munduaren hastapenak (ii). Liburu Saindu lehenak zer dion". *Herria*, 359.

- 1957. “Munduaren hastapenak (iii). Zonbait chehetasun”. *Herria*, 360.
 - 1957. “Munduaren hastapenak (iv). Zonbait chehetasun”. *Herria*, 361.
 - 1957. “Munduaren hastapenak (v). Gizonaren erortzea”. *Herria*, 363. Uztailaren 25a.
 - 1957. “Munduaren hastapenak (vi). Sortzeko bekatuaz”. *Herria*, 364.
 - 1957. “Munduaren hastapenak (vii). Erospenari buruz”. *Herria*, 365.
 - 1957. “Munduaren hastapenak (viii). Jakitateak zer dion”. *Herria*, 366.
 - 1957. “Munduaren hastapenak (ix). Jakitatea eta Liburu Sainduak”. *Herria*, 367.
 - 1964. “Eskualzaleak Alduden”. *Gure Herria*, 4-5 : 303-305.
 - 1968. « Correspondance adressée par Georges Lacombe à l'Abbé Martin Landerretche. Lettres de G. Lacombe (Extraits) ». Tiré à part du *Bulletin du Musée Basque*, n°s 40, 41 et 42. 39 pp.
 - 1973. “Le Père Blaise, de Mendionde, auteur basque (1873-1973)”. *Gure Herria*, 43: 175-183 ; 207-214.
 - 1974. “Aita Blas Mendiondokoia (1873-1914)”. *Euskera*, XIX: 278-285.
 - 1974. “Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak”. *Gure Herria*, 4: 207-218.
 - 1975. “Joanes Chabagno (1881-1975)”. *Euskera*, 20: 545-546. ikus: <ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/51706.pdf>
 - 1984. “Jean Etchepare jaun miriku zena (1877-1935)”. I-iv, in: *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I, euskal gaiak*. P. Charritton apail. Elkar. 386 orr.
 - 1990. *Euskal literaturaz*. Klasikoak, 35. P. Urkizuren ed. 351 orr.
 - 2002. *Kazetari-lan hautatuak*. P. Sudupe apail. Elkar. 444 orr.
- LARRE, E. 1978. « Pierre Lafitteren omenaldia ». *Euskera*, 23(1): 183-188. Ikus: <ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/51412.pdf>
- LARREA, Tx. 1980. «Idazle goren bat : Jean Etxepare ». *Argia*, 895: 26-27. Abenduaren 7.
- LARRONDE, J. C. 2001. “Michel Labèguerie et le Pays Basque. Son cheminement politique”. 77-103, in: *Michel Labèguerie: Omenaldia-Hommage*. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 196 pp.
- LAXALT, R. 1957. *Sweet Promised Land*. University of Nevada Press. 176 orr. (1986)/ *Dominique, artzain xiberotar bat Nevadan*. X. Mendigurenen itzul. Elkar. 202 orr. (1988).
- LEE, A. 2004. “The Pleistocene Overkill Hypothesis”. <http://geography.berkeley.edu/ProgramC...erm%20Papers/Anita%20Lee/THEPLE-1.html>
- LERTXUNDI, A. “Bretainiako atean, etxetik ez hain urruti”. 34-35, in: *Berria*, Uztailaren 23a.
- LESCA, J.M. 1907. « Basques et Béarnais dans l'Argentine et l'Uruguay ». Extrait du *Bulletin de la Société de Géographie de Bordeaux*. 19 orr.
- LHANDE, P. 1910. *L'Émigration Basque*. Nouvelle Librairie Nationale. Paris. 297 pp.
- 1916. “Un escritor zuberano muerto en Verdun”. *Euzkadi*, 1154, Jorrailaren 6.
 - 1920.05.03. Eskutitza Azkueri. Azkue Biblioteka: 116.681.
- LOPEZ ADAN, E. 1985. “Medikuntza hiztegi berezia”. 363-370, in: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, II. Mediku-solas*. P. Xarritonen ed. 1985. Elkar. 374 orr.

- LORIA, B.S. & LOPEZ BUSTOS, F. 1995. *Guía turística YPF. Costa Atlántica y La Pampa*. Ed. San Telmo. Buenos Aires. 180 pp.
- LOTI, P. 1897. *Ramuntcho*. Éd. Aubéron. Bordeaux. 224 orr. (1994).
- 1897. *Ramuntxo*. Manuel de Montoliu itzul. Tarttalo. Donostia. 183 orr. (2000).
- MADARIAGA, J. & HUICI, V. 1990. *Euskal Herria Egungo Aroan: Materiale eta Agiriak*. 1153-1164, in: *Euskal Herriaren Historiarako Materiale eta Agiriak*, 5. Kriseilu.
- MAYR, E. 1963. *Especies Animales y Evolución*. Faustino Cordón traductor. Ed. Universidad de Chile. Ed. Ariel S.A. Barcelona. 808 pp.
- 1978. "Origin and History of Some Terms in Systematic and Evolutionary Biology". *Systematic Zoology*, 27(1): 83-88.
- 2001. *What Evolution Is*. Phoenix Paperback. 349 pp.
- McGOWAN, C. 1983. *Dinosaurios y dragones de mar*. Ed. Crítica. 365 pp. (1993).
- MENDIAGUE, J. 1992. *Jose Mendiague (1845-1937). Haren bizia eta haren kantuak*. P. Xarriton prest. Etor. 223 orr.
- MENENDEZ PIDAL, R. 1920.05.22. Eskutitza Azkueri. Azkue Biblioteka: ABA-EUS-1920.
- MERIMÉE, P. 1845. *Carmen*. M. Garikano itzul. Emak Bakia Baita. 93 orr. (1992).
- MESANZA RUIZ DE SALAS, B. 1951. "La desaparición del castaño, sus causas y posibles soluciones". *Munibe*, III: 151-154.
- MICHELENA, L. 1960. *Historia de la literatura vasca*. Minotauro. Madrid.
- MIÉYAA, P. 1959. *Correspondance de Saint Michel Garicoïts. Tome I: de 1825 à 1859*. Imp. Saint-Joseph. Tarbes. 330 pp.
- MILNER, R. 1993. *Diccionario de la evolución*. Bibliograf S.A., Barcelona. 685 orr. (1995).
- MIRANDE, J. 1985. *Miranderen lan kritikoak*. J. M. Larrea apail. Pamiela. 133 orr.
- MONTOIA, X. 1999. *Hezur gabeko hilak*. Susa. 203 orr.
- MOOREHEAD, A. 1969. *Darwin. La expedición en el Beagle (1831-1836)*. Reseña. Barcelona. 240 pp. (1980).
- MOREAU, R. 1970. *Histoire de l'âme basque*. Bordeaux. Imp. Taffard. 748 orr.
- MOULIER-OXOBI, J. 1935. "Jean Etchepare". *Gure Herria*, 1: 1-4.
- MOYAL, A. 2001. *Platypus. The extraordinary story of how a curious creature baffled the world*. Smithsonian Institution Press. 226 pp.
- MUGURUZA ALBERDI, J. 1996. "La alimentación del lactante en el siglo de las luces". *Bol. S. Vasco-Nav. Pediatr.*, 30: 42-45.
- MUNITA, I. 1952. *Gure mendi ta oianak. Zuaizti berriak antolatu ta lengoak zaintzeko zuzenbide batzuek*. Tolosa. 159 orr.
- MYERS, P. 1997. "Order Xenarthra (armadillos, anteaters, and sloths)".
<http://animaldiversity.ummz.umich.edu/chordata/mammalia/xenarthra.html>
- 1999. "Chinchillidae (Chinchillas and viscachas)".
<http://animaldiversity.ummz.umich.edu/...a/mammalia/rodentia/chinchillidae.html>
- 1999. "Order Pholidota, Family Manidae (pangolins)".
<http://animaldiversity.ummz.umich.edu/chordata/mammalia/pholidota.html>

- 2000. "Family Mustelidae (weasels, badgers, skunks, otters, and relatives)".
<http://animaldiversity.ummz.umich.edu/site/accounts/information/Mustelidae.html>
- NOWAK, R. 1997. "Carnivora; Mustelidae; Genus *Conepatus* Gray, 1837: Hog-nosed Skunks". Walker's Mammals of the world on line. Johns Hopkins University Press.
<http://www.press.jhu.edu/books/walkers...ra/carnivora.mustelidae.conepatus.html>
- 1997. "Xenarthra; Family Dasypodidae, Armadillos". Walker's Mammals of the world on line. Johns Hopkins University Press.
<http://www.press.jhu.edu/books/walkers...d/xenarthra/xenarthra.dasypodidae.html>
- 1997. "Xenarthra; Dasypodidae; Genus *Chaetophractus* Fitzinger, 1871: Hairy Armadillos, or Peludos". Walker's Mammals of the world on line. Johns Hopkins University Press.
<http://www.press.jhu.edu/books/walkers...arthra.dasypodidae.chaetophractus.html>
- 1997. "Xenarthra; Dasypodidae; Genus *Dasypus* Linnaeus, 1758: Long-nosed Armadillos". Walker's Mammals of the world on line. Johns Hopkins University Press.
<http://www.press.jhu.edu/books/walkers...hra/xenarthra.dasypodidae.dasypus.html>
- 1997. "Order Xenarthra: Xenarthrans". Walker's Mammals of the world on line. Johns Hopkins University Press.
http://www.press.jhu.edu/books/walkers...of_the_world/xenarthra/xenarthra.html
- NYBAKKEN, O.E. 1959. *Greek and latin in scientific terminology*. The Iowa State University Press. 321 pp. (1985).
- OIHARTZABAL, P. 2002. "Piarres Xarriton. Iparraldeko XX. mendeko euskaltzaletasunaren lekuko". *Euskonews & Media*. Ikus:
<http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0033zbk/gaia3303eu.html>
- OJALA, P. 2005. "Haeckelian Legacy of Popularization: Vertebrate Embryos and the Survival of the Fakest". http://www.helsinki.fi/~pjojala/Haeckelian_legacy.pdf
- OPARIN, A. I. 1936. *Biziaren jatorria*. Elkar & Elhuyar. 103 orr. (1988).
- ORMAETXEA-ORIXE, N. 1950-52. *Quito-n arrebarekin*. I. Segurrolaren ed. Klasikoak 20. 224 orr. (1984).
- 1952. "Aita Urrutia'ri". *Euzko-Gogoa*, 7-8. Ikus:
<http://www.armiarma.com/andima/eugo/eugo17/eugo1716.htm>
- ORRUÑO, E. 2004. « *Homo floresiensis*, giza espezie berria hominido galduen uhartean ». Ikus : http://www.zientzia.net/artikulu.asp?Artik_kod=10569
- OTT, M. 1911. "Pope Pius IX". Catholic Encyclopedia. Ikus :
[wysiwyg://50/http://www.newadvent.org/cathen/12134b.htm](http://www.newadvent.org/cathen/12134b.htm)
- OURET, D. 1915-16. *Domingo Ouret, Gerla Handiko soldadoa*. Ikus:
<http://aitatxi.free.fr/euskaraz/aitzinsolasa/aitzinsolas.htm>
- PAGOLA, I. 2005. *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*. Iker 18 Euskaltzaindia. 451 pp.
- PAPY, M. 1973. « L'émigration à partir du Pays Basque interieur en 1900 d'après une enquête administrative ». *Société des Sciences, Lettres, Arts & Etudes Régionales de Bayonne*, 129: 337-365.
- PEILLEN, TX. 1998. "Jon Mirandereren ordeinua bere lekuan". *Jakin*, 106: 11-30.
- PELAYO, F. 1996. *Del Diluvio al Megaterio. Los orígenes de la Paleontología en España*. CSIC. Madrile. 310 orr.

- PEREZ, J. I. & P. SALABURU. 2003. *Unibertitate eta euskal gizartea gaur*. Pamiela. 238 orr.
- PETÖFI, J.S. 1976. "Lexicology, encyclopaedic knowledge, theory of text". *Cahiers de Lexicologie*, XXIX: 25-41.
- PIELOU, E.C. 1991. *After the Ice Age. The return of life to glaciated North America*. The University of Chicago Press. 366 orr.
- PIOMBO SOLAZAR, E. 2004. "A un siglo de Pedro Luro, Epopeya de un coloso". <http://personales.ciudad.com.ar/historiandolo/luro.htm>
- PIPKIN, G. C. 1971. *Pete Aguerberry: Urrea Kalifornian*. X. Arbelbide itzultz. Jean Curutchet argitaletxea. Heleta. 175 orr. (1997).
- PRICHARD, H. 1902. *En el corazón de la Patagonia. En busca del último milodón, setiembre 1900 – mayo 1901*. Zagier & Urruty Publications. Ushuaia. 351 pp. (2003).
- QUAMMEN, D. 1996. *The Song of the Dodo. Island Biogeography in an Age of Extinctions*. Pimlico. 702 orr.
- RAUP, D. M. 1986. *El Asunto Némesis. Una historia sobre la muerte de los dinosaurios*. Alianza Editorial, 1514. 242 pp. (1990).
- 1991. *Extinction: Bad Genes or Bad Luck?* W. W. Norton & Company. 210 orr.
- RICHARDS, R. J. 2005? "The Foundation of Ernst Haeckel's Evolutionary Project in Morphology, Aesthetics, an Tragedy". <http://home.uchicago.edu/~rjr6/articles/Netherlands.doc>
- ROBINSON, P. 1999. « Orden Franciscana ». <http://www.enciclopediacatolica.com/o/ordenfranciscana.htm>
- ROUGET DE LISLE, A. 1928. "Les basques en Amérique". *Gure Herria*, 2: 112-120.
- RUDWICK, M.J.S. 1976. *El significado de los fósiles. Episodios de la Historia de la Paleontología*. Hermann Blume. Madrile. 347 orr. 1987.
- SAINT-LARY, J.C. 1992. "América podría perpetuar al pueblo y al idioma vascos". *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, XLIII, 2(169): 82-83.
- SAINT-PIERRE-ANXUBERRO, J. 1914-19. *14eko Gerla Handia*. Klasikoak, 85. P. Xarritonek paratua. Euskal Editoreen Elkarte. 262 orr. 1998.
- 1921. "Eskualdunak: Harri Zaharretik berrira". *Gure Herria*, 6: 367-372.
- 1928. "M. Arnaud Abbadie". *Gure Herria*, 1: 10-41.
- SALABURU, P. 2002. *Euskararen etxea*. Alberdania. 203 orr.
- SANTA BÁRBARA, J. 1827. *Erle gobernatzalleen guidariya, edo erleac gobernatceco modua*. X. Kintanaren ed. Bizkaiko Erlazainen Elkarte. 109 orr. (1993).
- SARASOLA, I. 1971. *Historia social de la literatura vasca*. Akal Editor. 185 pp. (1976).
- 1997. *Euskara batuaren ajeak*. Alberdania. 283 orr.
- SARRAMONE, A. 1995. *Los abuelos vascos en el Río de la Plata*. Editorial Biblos. Azul. 568 pp.
- SARRIONANDIA, J. 1995. *Hnuy illa nyba majah yahoo*. Elkar. 237 orr.
- 1999. *Hau da ene ondasun guzia*. Txalaparta eta Esan Ozenki Records. 239 orr.
- SCHIEBINGER, L. 1992. "Why Mammals Are Called Mammals: Gender Politics in Eighteenth-Century Natural History". <http://www.his-online.de/edition/sonstige/dp/DP492DL.DOC>

- 1993. "Why Mammals Are Called Mammals: Gender Politics in Eighteenth-Century Natural History". *The American Historical Review* 98 (2): 382-411.
- 1993. *Nature's Body: gender in the making of modern science*. Rutgers University Press. 289 pp. (2004).
- SHEFFERLY, N. 1996. "Lagidium viscacia mountain viscacha".
[http://animaldiversity.ummz.umich.edu/...ts/lagidium/l._viscacia\\$narrative.html](http://animaldiversity.ummz.umich.edu/...ts/lagidium/l._viscacia$narrative.html)
- SHIPMAN, P. 1999. "Chasing Dubois's Ghost". *American Scientist*, 87(6): 504. Ikus:
<http://www.americanscientist.org/template/AssetDetail/assetid/265...>
- SOROA, M. 1885. *Euskal Naparren Joaera edo Emigrazioa*. I. Mujika Iraolaren ed. Klasikoak 13. 169 orr.
- SOUBERBIELLE, M. 1936. "Osagarriaz: iguzki mainuak". *Gure Almanaka*, 65-68.
- SPENCER, F. 1997. "Haeckel, Ernst Heinrich Phillip August (1834-1919)". 470-474, in: *History of Physical Anthropology: An Encyclopedia*. Spencer, F. ed., Vol. 1. Garland Publishing, Inc.
- STARR, F.; STARR, K. & L. LOOPE. 2003. "Plants of Hawai'i reports; *Cortaderia* spp., Pampas grass, Poaceae".
http://www.hear.org/starr/hiplants/reports/html/cortaderia_spp.htm
- STEIN, G. J. 1988. "Biological Science and the Roots of Nazism". *American Scientist*, 76: 50-58. Ikus: <http://www.helsinki.fi/~pjojala/Stein2.htm>
- STORRS, E.E. 1982. "The Astonishing Armadillo". *National Geographic*, 161(6). Ikus: <http://pandoras-box.org/my05026.htm>
- STREIFF, R. 2000. "Gliptodontes: acorazados vivientes".
<http://latin.discovery.com/features/000830paleontologia/gliptodontes01.html>
- STUART, A. 1986. "Who (or what) killed the giant armadillo?". *New Scientist*, 17 July: 29-32.
- SUDUPE, P. 1990. "Euskal kultura gerraondo minean". *Hegats*, 27: 40-68. Ikus: <http://www.idazleak.org/argitalpenak/hegats/hegats27.pdf>
- TARBUCK, E. J. & LUTGENS, F. K. 1999. *Ciencias de la Tierra*. Prentice Hall. 563 orr. (1999).
- THEUNISSEN, B. 1997. "Dubois, (Marie) Eugène (François Thomas) (1858-1940)". 353-354, in: *History of Physical Anthropology: An Encyclopedia*. Spencer, F. ed., Vol. 1. Garland Publishing, Inc.
- THOMSON, W. 1864. "On the Secular Cooling of the Earth".
<http://zapatopi.net/kelvin/paper2.html>
- 1866. "The "Doctrine of Uniformity" in Geology Briefly Refuted".
<http://zapatopi.net/kelvin/paper1.html>
- 1868. "On Geological Time". <http://zapatopi.net/kelvin/paper9.html>
- 1871. "On The Origin Of Life". <http://zapatopi.net/kelvin/paper3.html>
- 1889. "On the Miracle of Life". <http://zapatopi.net/kelvin/paper14.html>
- TORREBLANCA, M. 1997. "Reseña de los hallazgos en las cavernas de Última Esperanza (Patagonia Austral), por Rodolfo Hauthal (Encargado de la Sección Geológica del Museo de La Plata), 1899".
http://usuarios.advance.com.ar//lae_tor/otros.htm

- TRAN, N. 1997. "Lagostomus maximus plains viscacha".
[http://animaldiversity.ummz.umich.edu/...s/lagostomus/l._maximus\\$narrative.html](http://animaldiversity.ummz.umich.edu/...s/lagostomus/l._maximus$narrative.html)
- UGALDE, M. 1990. *Lezo Urreiztieta (1907-1981). Biografia*. Elkar. 163 orr.
- UHART, A. 1964. "Aldudes, terre chrétienne". *Gure Herria*, 4-5: 325-332.
- URIARTE, J.R. 1916?. *Los baskos en la nación Argentina*. 644 orr.
- URKIZU, P. 1997. « Elissalde eta Etchepare. Apaiza eta medikua gerra-kronikari ». *Oihenart, cuadernos de Lengua y Literatura*, 14: 35-46. Eusko Ikaskuntza.
- URRUTIA, G. 1950. "Gixadijaren azikera-bidiak". *Euzko-Gogoa*, 3-4. Ikus :
<http://www.armiarma.com/andima/eugo/eugo03/eugo0313.htm>
- 1952. « Zinismena eta gixonen jatorrija ». *Euzko-Gogoa*, 3-4. Ikus :
<http://www.armiarma.com/andima/eugo/eugo15/eugo1513.htm>
- URRUTIBÉHÉTY, C. 2000. « L'émigration basque en Argentine et les frères Apheça (1856-1913) ». *Bulletin du Musée Basque*, 156: 27-52.
- USCHMANN, G. 1981. « Haeckel, Ernst Heinrich Philipp August ». 6-11, in : *Dictionary of Scientific Biography*, vol. 6. Charles Scribners's Sons. New York.
- VERNE, J. 1867-8. *Los hijos del capitán Grant*. Ed. Molino. 383 pp. (1954). Ikus: *Les enfants du capitaine Grant*, <http://jv.gilead.rg.il/gallica/grant/1/21.htm>
- VIERS, G. 1951. "Le Pays des Aldudes". *Révue Géographie des Pyrénées et du Sud-Ouest*, XXII (4): 260-284.
- 1964. "Le Pays des Aldudes". *Gure Herria*, 4-5: 223-244.
- VILLASANTE, L. 1963. "Sebero Altube, iztegi arazoetan maisu". *Euskera*, VIII-IX: 293-313. Ikus: [ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/51266.pdf](http://www2.euskaltzaindia.net/euskera/51266.pdf)
- 1979. *Historia de la Literatura Vasca*. 2ª Ed. Editorial Aranzazu. 487 pp.
- 1979. "Altuberen maisutza euskal hitzen arazoan". *Euskera*, XXIV: 611-614. Ikus: <ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/51313.pdf>
- 1988. *Euskararen auziaz*. Gráficas Lizarra. 265 orr.
- WARD, P. D. 1983. "La extinción de los ammonites". *Investigación y Ciencia*, Diciembre: 92-102.
- 1988. *In Search of Nautilus. Three Centuries of Scientific Adventures in the Deep Pacific to Capture a Prehistoric-Living-Fossil*. A New York Academy of Sciences Book. 239 pp.
- 1992. *On Methuselah's Trail. Living Fossils and the Great Extinctions*. W. H. Freeman and Company. 212 orr.
- 1997. *The call of distant mammoths. Why the Ice Age mammals disappeared*. Copernicus. 241 orr.
- 2000. *Rivers in time. The search for clues to Earth's Mass Extinctions*. Columbia University Press. 315 orr.
- WENDT, H. 1955. *In Search of Adam*. Houghton Mifflin Company Boston. 540 pp. (1956).
- 1955. *Tras las huellas de Adán*. Ed. Noguer. 631 pp. (1970).
- WIKIPEDIA. 2003. "Panspermia". <http://en.wikipedia.org/wiki/Panspermia>
- XARRITON, P. 1979. "Georges Lacombe (1879-1947) euskaltzain zenaren lanak eta gutunak". *Euskera*, 24(1): 39-44.

- 1979. "Piarres Broussain-en paperak". *Euskera* 24(2): 167-170.
- 1982. "Manex Hiriart-Urruty-ren lau gutun, P. Broussain adixkideari". *Maiatz*, 2: 61-66.
- 1982. "Fonds Broussain, Les lettres de Georges Lacombe (1903-1921)". *Bulletin du Musée Basque*, 98: 161-180.
- 1984. "Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak : aurkezpena". 5-11, in: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, I. Euskal Gaiak*. P. Xarritonen ed. Elkar. 386 orr.
- 1985. *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques*. CNRS. 331 orr.
- 1985-1986. « Fonds Lacombe du Musée Basque: Les Lettres de Pierre Broussain à Georges Lacombe (3.10.1903-9.4.1920) ». *Bulletin du Musée Basque*, 108: 85-108; 109: 133-160; 110: 161-188; 111: 1-30.
- 1986. *Resurreccion Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa*. Iker-4, Euskaltzaindia. 380 orr.
- 1987. "Eskualdunaren mendeurrena Baionan". *Euskera*, 32: 245-252.
- 1989. « Fonds Broussain: les lettres de docteur Albert Constantin (12.12.1899-22.6.1919) ». *Hommage Musée Basque*: 573-595.
- 1991. « Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935) ». *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, Gehigarriak, XIV: 595-604.
- 1991. "Jean Etchepareren euskal lanak". *Hegats*, 4: 31-44.
- 2001. « Euskaltzaleen Biltzarra 1919tik 2001era ». 135-144, in : *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*. Sabino Arana Kultur Elkargoaren Jardunaldiak. 498 orr.
- 2002. « Manex Hiriart-Urruty eta Pierre Broussain-en arteko gutunak (1894-1906) ». *Euskera*, 47: 119-195.
- 2003. *De Re Publica, edo politikaz*. Elkar. 189 orr.
- 2005. « Albert Chabagno (1923-2004) ». *Ekaina, Revue d'Etudes Basques*, 93: 68-76.
- 2005. « Piarres Lafitte (1901-1985) : biografia ». <http://piarreslafitte.gipuzkoakultura.net/bio.htm>
- XARRITON, P. & J. CASENAVE. 1995. "Fonds Lacombe: Les lettres du docteur Jean Etchepare (02.06.1905-04.03.1932)". *Bulletin du Musée Basque*, 140 : 49-100.
- 1995. "Fonds Lacombe: Les lettres du docteur Jean Etchepare (02.06.1905-04.03.1932)". *Bulletin du Musée Basque*, 141: 101-122.
- 1995. "Fonds Lacombe: Les lettres du docteur Jean Etchepare (02.06.1905-04.03.1932)". *Bulletin du Musée Basque*, 142: 153-172.
- 1996. "Fonds Lacombe: Les lettres du docteur Jean Etchepare (02.06.1905-04.03.1932)". *Bulletin du Musée Basque*, 143: 1-26.
- 1996. "Fonds Lacombe: Les lettres du docteur Jean Etchepare (02.06.1905-04.03.1932)". *Bulletin du Musée Basque*, 144: 53-82.
- XARRITON, P. & P. GARTZIA. 2003. "Sabino Aranaren zazpi gutun". *Euskera*, 2(48): 951-963.
- XARRITON, P. & J.P. OURET. 2002. "Manex Hiriart-Urruty eta Pierre Broussain-en arteko gutunak (1894-1906)". *Euskera*, 1(47): 119-195.

- 2002. "Pierre Broussain-en gutundegia". *Euskera*, 2(47): 659-697.
- 2003. "Pierre Broussain-en gutundegia". *Euskera*, 1(48): 205-254.
- 2003. Pierre Broussain-en gutundegia. *Euskera*, 2(48): 973-1025.
- XX. 1898. « Mundua bera egina ». 9-14, in : *Escualdun laborarien adiskidea eta consiliaria, Egunaria edo Almanaca*.
- XX. 1912. « M. Le chanoine Augustin Larralde, économiste de N.-D. De Bel-loc ». *Bulletin Religieux du Diocèse de Bayonne*, 378-380.
- XX. 1962. « Gure buruxkak ». 57-58 in: *Igela, euskaldun heterodoxoen errebista*. Hordago. 201 orr. (1979).
- XX. 1968. "Eskualdun soldadoak Hamalauko Gerlan". *Herria*, 953, hazilaren 7koa.
- XX. 1995. "Ernst Haeckel (1834-1919)".
<http://www.ucmp.berkeley.edu/history/haeckel.html>
- XX. 1998. "Review: The Scientific Origins of National Socialism: Social Darwinism in Ernst Haeckel and the German Monist League".
http://sasquatch.com/~kory/scientific_origins_nazism.html
- XX. 2004. "The Great American Faunal Interchange".
<http://instruct.uwo.ca/biology/320y/gafi.html>
- XX. 2004. "Lagos del Sur Argentino".
<http://www.losenigmas.com.ar/losenigmas/cripsur.htm>
- XX. 2005. "Biographie des missionnaires: Chabagno Jean".
<http://archivesmep.mepasie.org/annuaire/japon/bibliographies-mis...>
- XX. 2005. "Biographie des missionnaires: Lissarague Jean Baptiste".
<http://archivesmep.mepasie.org/annuaire/japon/bibliographies-mis...>
- XX. 2005. « Our chesnut trees ».
http://www.lafitte.net/lafitte/lafitte_gb/chataigners_histoire.asp
- XX. 2005. "Gerard Bähr". http://www.euskalnet.net/legazpi/gb/biografia_e.htm
- ZAITEGI, J. 1933. "Kizkiña". *RIEV*, 24 (1): 60-70.
- ZALBIDE, M. 2001. "Hendai-Hondarrietako biltzarrak: XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu". 1-143, in: *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendurrena*. Sabino Arana Kultur Elkargoaren Jardunaldiak. 498 orr.
- ZENDOIA, N. 2002. «Gaztainak biltzen». *Diario Vasco*, 2002.11.26.
- ZUAZO, K. 2000. *Euskararen sendabelarrak*. Alberdania. 223 orr.
- ZULAIKA, J. 1996. *Del Cromañon al Carnaval: Los vascos como museo antropológico*. Erein. 253 pp.

AURKIBIDE ONOMASTIKOA

- ABADIA, ANTON: 61, 255,
 ABADIA, ARNAUD: 57, 75, 76, 125, 171, 213, 214, 215, 219,
 247, 248, 249, 250, 251, 252, 253, 255, 256, 257, 258,
 261, 262,
 ABADIA, EUGÈNE: 104,
 ABARKA, PERU: 103,
 ADAN: 14, 193, 195, 196, 197, 198, 226,
 ADEMA, BLAISE: 57, 75, 177, 213, 214, 233, 249, 255, 262,
 263,
 ADEMA ZALDUBI, GRATIEN: 173, 180, 214,
 AGASSIZ: 243,
 AGIRRE, TXOMIN: 86, 87, 103, 123, 155, 157, 158, 160,
 161, 167, 238, 282, 290,
 AGUERREBERRY, ARNAUD: 287,
 AGUERREBERRY, JEAN PIERRE (PETE): 287, 288, 289,
 290,
 AGUSTIN BERATARRA: 137,
 AGUSTIN SANTUA: 226,
 AITZOL: 194,
 AIZPURU, MIKEL: 130,
 ALAMON: 104,
 ALDROVANDI: 25,
 ALFONTSO XIII: 87,
 ALTUBE, SEBERO: 166, 167, 168, 169, 172, 237, 264,
 ALTUNA, JESUS: 259,
 ALTZIBAR, XABIER: 107, 250,
 ALVAREZ, LUIS: 274, 275, 277, 279, 280, 282,
 ALVAREZ, WALTER: 274, 275, 277, 279, 280, 282,
 ÁLVAREZ, TXELIS: 108,
 ÁLVAREZ GILA, OSCAR: 7,
 AMEGHINO, FLORENTINO: 33, 45,
 AMESPIL PATRUN, SALVAT: 104,
 AMESTOI, MARIE CLAIRE: 100,
 AMESTOI, MAURICE: 177, 185,
 ANAXAGORAS: 233,
 ANDERS, EDWARD: 277,
 ANDURAIN FAMILIA: 180,
 ANDURAIN, KLEMENT: 128,
 ANDURAIN, LAURENT: 185,
 ANXEN MISIONISTA: 96,
 ANXUBERRO: Ikus Saint-Pierre, Jean
 APESTEGI, JOSEPH BERNARD: 133,
 APEZETXE, MARTIN: 3,
 APEZTEGI, LAURENT: 57, 172, 213, 250,
 APRAIZ BUESA, ODON: 151,
 ARANA GOIRI, LUIS: 11,
 ARANA GOIRI, SABINO: 11, 24, 27, 28, 61, 102, 158, 168,
 173, 254,
 ARANTZADI, TELESFORO: 199, 200,
 ARBELBIDE, JEAN PIERRE: 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 52, 82,
 175,
 ARBELBIDE, XIPRI: 287,
 ARDANS, PIERRE: 143,
 ARECHAVALETA, JOSÉ: 74,
 ARESO, JOSEPH: 52,
 ARESTI, GABRIEL: 264,
 ARISTI, PAKO: 157,
 ARISTOTELES: 24, 25, 233,
 AROTZARENA, SALBAT: 274,
 ARRESE BEITIA, FELIPE: 30,
 ARRHENIUS, SVANTE: 233, 235,
 ARRIGAIN, ISABEL: 267,
 ARTETXE, KARMELE: 89, 90,
 ARTHEZ FAMILIA: 180,
 ASARO, FRANK: 275,

- ASTIBIA, HUMBERTO: 260,
 ATAHUALPA: 44,
 ATXAGA, BERNARDO: 202, 220, 287,
 AXULAR: 21, 155, 188, 255, 270,
 AZKUE, RESURRECCION MARIA: 61, 62, 64, 65, 100,
 101, 103, 119, 120, 147, 148, 149, 150, 151, 152, 153,
 154, 155, 157, 158, 160, 161, 162, 163, 164, 165, 166,
 167, 168, 169, 170, 171, 173, 176, 184, 194, 230, 234,
 235, 236, 237, 238, 240, 254, 262, 282,
 AZURMENDI, JOSE: 194,
 BABAKI, LUKA: 53, 56,
 BÄHR, GERARD: 109, 151, 171,
 BALLY: 223,
 BARANDIARAN, JOSE MIGEL: 182, 199, 200, 202,
 BARATXART, AMÉLIE: 64, 180,
 BARATXART, PIERRE: 67,
 BARBIER, JEAN: 57, 103, 105, 108, 123, 124, 125, 128, 130,
 131, 132, 134, 137, 138, 155, 177, 213, 249,
 BARLOW, C.: 44,
 BAROJA, PIO: 74, 75, 79, 84, 133, 135, 136, 137, 161, 162,
 189, 200, 216, 223, 240, 269,
 BARRÈRE ANDEREA: 110,
 BASALDÚA, FLORENCIO DE: 45,
 BATSALLE ANDEREÑO: 180, 181,
 BAUDELAIRE: 239,
 BAUER, FERDINAND: 29,
 BECQUEREL, HENRI: 231,
 BECQUEREL, PAUL: 235,
 BEHETI, DOMINIQUE: 177,
 BELON, PIERRE: 25, 26,
 BENTON, MICHAEL: 242, 245, 246, 248, 281,
 BERDECO, ADOLPHE: 104,
 BERGSON, HENRI: 155, 191, 196, 215, 216,
 BERTERRETXE MENDITTE, JUSTIN: 128,
 BERZELIUS: 233,
 BIDART: 249,
 BIDEGORRI, GRATIANNE: 12, 16, 18, 21, 45, 85,
 BILBAO, JON: 3, 46,
 BILBAO BATXI, JUAN BAUTISTA: 123,
 BIZKAILUZ, MARTIN: 62,
 BLAINVILLE, HENRI DE: 27,
 BLAS MENDIONDOKOA: Ikus Babaki, Luka
 BLAZY, EDMOND: 177,
 BLUMENBACH: 29,
 BOLAND, HENRI: 155,
 BOLK: 197,
 BONAPARTE PRINTZEA: 184, 188, 255, 276,
 BORDA, ITXARO: 14,
 BRANLY: 219,
 BROUSSAIN, PIERRE: Ikus Buruzain, Pierre
 BROWNE, MALCOLM: 280,
 BUFFALO BILL: Ikus Cody, William F.
 BUFFON KONTEA: 26, 27, 228,
 BURUZAIN, BARTOLO: 61,
 BURUZAIN, JENOFA: 65, 67,
 BURUZAIN, MADDALEN: 65, 66,
 BURUZAIN, PIERRE: 60, 61, 62, 63, 64, 65, 66, 67, 76,
 77, 78, 97, 101, 102, 104, 105, 107, 117, 127, 128, 129,
 147, 148, 149, 150, 151, 152, 153, 154, 158, 162, 165,
 166, 169, 173, 175, 176, 180, 181, 182, 209, 210, 215,
 217, 249, 250, 256, 262, 265, 266, 267, 268, 269,
 270,
 BUZTINTZA KIRIKIÑO, EBARIÑO: 123, 194,
 CALFUCURÁ BURUZAGIA: 3, 22,
 CAMBON, VICTOR: 155,
 CAMPION, ARTURO: 70, 74, 167, 173, 175, 262,
 CÁRDENAS PRESIDENTEA: 11,
 CARMEN: 15,
 CARROL, LEWIS: 112,
 CASAS, CRISTÓBAL DE LAS: 203,
 CASENAVE, JON: 13, 14, 16, 46, 59, 60, 75, 78, 88, 101,
 103, 105, 106, 107, 110, 111, 119, 120, 147, 148, 176,
 212, 215, 239, 255, 261, 267, 269, 290,
 CASENAVE-HARIGILE, JUNES: 188,
 CASTELNAU: 132,
 CASTETS: 249,
 CATRIEL, JUAN: 3, 4, 18, 22,
 CATRIEL, JUAN JOSÉ: 3, 18,
 CAZENAVE TENOREA: 237,
 CLARK: 242,
 CLEMENS, WILLIAM: 279, 280,
 CODY, WILLIAM F.: 286, 287, 290,
 COLÁ Y GOITI: 7,
 CONAN DOYLE, ARTHUR: 45,
 CONRAD, JOSEPH: 201, 202, 203, 235,
 CONSTANTIN, ALBERT: 95, 96, 97, 99, 100, 101, 102,
 104, 127, 129, 177, 178, 180, 185, 267, 269,
 CONSTANTIN, ARNAUD: 100,
 CONSTANTIN, JEAN: 100,
 CONSTANTIN, JEAN BAPTISTE: 99, 100,
 CONSTANTIN, PIERRE: 100,
 CORTÉS, HERNÁN: 44, 121,
 CRICK, FRANCIS: 235,
 CROOK, P.: 125,
 CURIE, MARIE: 231,

- CURIE, PIERRE: 231,
 CUVIER, GEORGES: 26, 30, 242, 243,
 ÇUGUN, MARCELLIN: 102, 103,
 ÇUGUN, CHEMARK: 102, 103,
 DAMBOURIANA, JUAN: 16,
 DANGLADE, LUCIEN: 146,
 DARANATZ, J. B.: 153, 154, 155, 217,
 DARRAIDOU, AUGUSTE: 174,
 DARWIN, CHARLES: 28, 32, 36, 37, 38, 39, 44, 45, 68,
 69, 72, 73, 187, 197, 221, 225, 226, 229, 230, 231, 232,
 233, 243,
 DARWIN, ERASMUS: 28,
 DAUBENTON, LOUIS: 26, 223,
 DAVANT, JEAN LOUIS: 99, 101, 178, 184,
 DAVID, ARMAND (NATURALISTA): 104, 105, 220,
 DAVID, ARMAND (BOTIKARIA): 104,
 DAZANTZE, LOUIS: 147, 148, 149, 150, 153, 177, 178, 185,
 241,
 DECREPT, ETIENNE: 103, 104,
 DE GAULLE JENERALA: 273,
 DETCHESARRY, PIERRE: 55,
 D'HULST MONSINOREA: 220,
 DIAMOND, JARED: 44,
 DIBAR, J. L.: 55, 56,
 DIESE APAIZA: 181, 182,
 DIHARCE, J. P.: 217,
 DIRIART, J.B.: 104, 177, 185,
 DODGSON, CHARLES LUTWIDGE: 112,
 DODGSON, EDWARD SPENCER: 112,
 DOUGLASS, BILL: 46,
 DOURISBOURE: 104,
 DRAKE: 236,
 DRAKE, CHARLES: 277,
 DUBOIS, EUGÈNE: 67, 68, 70,
 DUFU, DOMINIQUE: 185,
 DUHOUR, PIERRE: 177,
 DURISBURU, PIERRE: 98,
 DURKHEIM, EMILE: 59, 60, 84,
 DURON MEDIKUA: 241,
 DURRUTI, SIMON: 217,
 DUVERGER ANDEREÑOIA: 181, 182,
 DUVOISIN KAPITAINA: 252,
 EFESOKO DUKEA: 203,
 EGEON: 203,
 EGIATEGI, JUSEF: 193,
 EGILEOR, DIOGENES: 237,
 EGUREN, ENRIKE: 199,
 EGUZKITZA, ANDOLIN: 192, 259
 EIZAGIRRE, JOSE: xxiii, 177, 185,
 ELIZALDE ZERBITZARI, JEAN: 55, 56, 57, 101, 108, 123,
 125, 131, 147, 154, 155, 176, 177, 185, 194, 212, 213,
 250,
 ELORTZA, JULIAN: 167,
 ELOSU, FERNAND: 98, 115, 116, 141,
 EPPHERRE, GREGOIRE: 192,
 ERRECART: 104,
 ERREKA, JEAN BAPTISTE: 119, 122, 140,
 ERRUPIÑO ANAIA: Ikus
 ESPAIN APAIZA: 96, 97,
 ETCHEPARE, JEANNE: 16,
 ETXARREN, MARIANNE: 99,
 ETXART, MIXEL: 96, 141, 142, 143,
 ETXEBARRIA, JOSE RAMON: 89, 102,
 ETXEBARRIA ANGOITIA, NIKOLAS: 196, 197, 198, 199,
 ETXEBERRI, JEAN BAPTISTE: 177, 240,
 ETXEBERRI, PIERRE: 3,
 ETXEBERRIGARAI: 114,
 ETXEGARAI, BONIFAZIO: 151,
 ETXEGARAI, KARMELO: 151,
 ETXEGARAY APAIZA: 55,
 ETXEGOIEN, JEAN: 123,
 ETXEGOIEN, XALBAT: 61,
 ETXEGOREN: 177,
 ETXEPARE, BERNARD: 5, 45,
 ETXEPARE, BERNAT: 51, 82,
 ETXEPARE, EMILE: 45, 85, 86, 104, 287, 290, 291,
 ETXEPARE, GRATIANNE: 45, 85, 143,
 ETXEPARE, JEAN: 6, 9, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 31, 32, 33,
 35, 37, 44, 45, 46, 47, 48, 49, 51, 53, 54, 55, 56, 57,
 58, 59, 60, 64, 65, 67, 74, 75, 77, 78, 79, 80, 81, 82,
 83, 84, 85, 86, 87, 88, 89, 93, 96, 97, 98, 99, 100,
 101, 102, 103, 104, 105, 106, 107, 108, 109, 110, 111,
 112, 115, 116, 117, 118, 119, 120, 121, 122, 123, 124, 125,
 126, 127, 128, 129, 130, 131, 134, 135, 139, 140, 141,
 142, 143, 145, 146, 147, 148, 149, 150, 151, 152, 153,
 154, 155, 156, 157, 158, 159, 160, 161, 162, 163, 164,
 165, 166, 167, 169, 170, 171, 172, 173, 174, 176, 177,
 178, 179, 180, 181, 182, 183, 184, 185, 186, 188, 200,
 203, 204, 205, 206, 207, 208, 209, 210, 211, 212,
 213, 214, 215, 216, 217, 218, 219, 220, 221, 223, 224,
 225, 227, 231, 232, 233, 235, 238, 239, 240, 241, 249,
 250, 251, 252, 253, 254, 255, 257, 258, 261, 262, 263,
 264, 265, 266, 267, 268, 269, 270, 271, 272, 273,
 290, 291, 297,
 ETXEPARE, JEAN (AITA): 5, 12, 16, 18, 45, 60, 85,
 ETXEPARE, JEAN (DONAPALEUKOA): 53, 54,
 ETXEPARE, JEAN (HAZPARNEKOA): 52,

- ETXEPARE, JOSÉPHINE: 45, 85,
 ETXEPARE, JULIE: 45, 85, 86,
 ETXEPARE, MARIE: 45, 55, 85,
 ETXEPARE, PIERRE (ANAIA): 45, 85, 86, 104, 155, 178,
 179,
 ETXEPARE, PIERRE (OSABA): 5, 45,
 ETXEPARE LANDERRETXE, JEAN: 51,
 FAURE, SÉBASTIEN: 116,
 FAURIE, URBAIN: 96,
 FABER, JOHN: 171,
 FITZROY KAPITAINA: 37, 38,
 FLANDERS, S. E.: 246, 247,
 FLANNERY, TIM: 34, 44,
 FOLIN, LÉOPOLD: 74, 260,
 FOURCROY: 223,
 FRANCO JENERALA: 272,
 FRANTZISKO ASISKO: 52,
 FÜRBRINGER, MAX: 68,
 GALAND, PROSPER: 104,
 GAMBOA, IÑAZIO: 208,
 GANGOITI ABERASTURI, GREGORIA: 167,
 GARAT, JACQUES: 136, 137, 138, 139,
 GARAZTARRA, JOANES: Ikus Constantin, Jean
 Baptiste
 GARBI, ENGRÂCE: 100,
 GARIBALDI TXAKURRA: 17,
 GARIKOITZ ETXEBERRI, MIXEL: 1, 2, 4, 6, 18,
 GARMENDIA: 104,
 GAVEL, HENRI: 153, 167,
 GIMON-ZETEGIET, XIMUN: 1, 2, 3, 4, 6, 46,
 GESNER: 25,
 GOIHENETXE, MANEX: 9, 174, 175, 267, 268,
 GOIKOETXEA, JUAN LUIS: 184,
 GOIRIENA, JUAN JOSE: 89,
 GOITINO, JEAN PIERRE: 62,
 GOSTERRATXU, JEAN: 143,
 GOSTERRATXU, JOSEF: 110,
 GOSTERRATXU, MIXEL: 110,
 GOULD, STEPHEN JAY: 72, 188, 192, 209, 226, 230, 258,
 259, 260, 261, 280, 281, 283,
 GUILBEAU, MARTIN: 173,
 GUINEA, EMILIO: 48,
 GURIDI, JESUS: 161,
 HAECKEL, ERNST: 27, 59, 63, 67, 68, 69, 70, 71, 72, 73,
 74, 75, 186, 187, 188, 189, 194, 197, 208, 214, 215,
 218, 220, 221, 222, 223, 224, 225, 229, 232,
 HALDANE, J. B. S.: 235,
 HALLEY, EDMUND: 228, 229,
 HARAN, GAETAN: 104,
 HARBUZTAN, BATISTA: 2,
 HARIZPE MAREXALA: 180,
 HARIZPE, OLYMPE: 180,
 HARRIAGA MORROSKO, SAINT-MARTIN: 100,
 HARRIS, SHORTY: 289,
 HARRUGET, SAUVEUR: 116,
 HELMHLOTZ: 233,
 HERSHELL: 220,
 HERTWIG, OSCAR: 70,
 HERZL, THEODOR: 10,
 HEUGAS, JUSTIN: 185,
 HICKEY, LEO: 280,
 HIRIART-URRUTI, MANEX: 57, 63, 75, 76, 77, 78, 92,
 124, 130, 154, 173, 212, 213, 214, 249, 250, 255, 261,
 262,
 HIRIBARREN, JEAN MARTIN: 1, 7, 109,
 HIRSCH, MAURICE DE: 10,
 HITLER, ADOLF: 273,
 HODEI GORRI: 243,
 HOYLE, FRED: 236,
 HOZTAKO MARIA: 130,
 HUNTER, JOHN: 27,
 HUXLEY, T. H.: 73, 74, 197, 216, 223, 225, 231, 243,
 IBARNEGARAI, JEAN: 104, 134, 272, 273,
 IBINAGABEITIA, ANDIMA: 169, 170,
 INOZENTZIO III: 52,
 INTXAUSPE, EMMANUEL: 188, 227,
 IPARRAGIRRE, JOSE MARI: 4, 9,
 IPHARAGUERRE, MANUEL: 3, 4,
 IRABOLA, MATXIN: 120,
 IRASTORTZA, TERE: 108,
 IRIART, MIXEL: 112, 117,
 IRIBARNE, DOMINIQUE: 102, 103,
 IRIGARAY MEDIKUA: 104,
 IRISSARRY (IZTURITZEKO APAIZA): 104,
 ISTILART, GRAXIEN: 97, 177,
 ITHURRY: 152,
 ITURBIDE, AMAIA: 161, 267,
 ITURRIAGA: 188,
 IZTUETA, PAULO: 194, 195, 196, 198,
 JANSSEN: 234,
 JAUREGIBERRI, JEAN: 3,
 JAUREGIBERRI, JEAN (MEDIKUA): 177, 185,
 JEFFERSON PRESIDENTEA: 242,

- JEPSEN, GLENN: 245,
 JESUKRISTO: 83, 196, 218,
 JOANA ARKEKOA: 127,
 JOANES: 123, 160,
 JOFFRE JENERALA: 134,
 JOLY, JOHN: 229,
 JUANAÑO: 156, 295, 296, 297,
 KALTZAKORTA, XABIER: 53, 54, 118,
 KAMINO, ALEXANDRE: 179, 205, 272, 273,
 KAMINO, FERNANDE: 111, 179,
 KANT, IMMANUEL: 220, 228,
 KARDABERAZ: 193,
 KARNO TXAKURRA: 53,
 KELVIN, LORD: Ikus Thomson, William
 KEPLER, JOHANNES: 226,
 KEREJETA, MARIA JOSE: 169, 267,
 KILLO LARRESOROKOA: 97,
 KING, STEPHEN: 261,
 KINTANA, JURGI: 78, 79, 80, 81, 82, 83, 84, 103, 108,
 161, 162, 163, 201, 234,
 KINTANA, XABIER: 171,
 KIRIKIÑO: Ikus Buztintza, Ebaristo
 KOENIGSWALD: 188,
 KRUTWIG, FEDERIKO: 184, 254, 255, 256,
 LABEGERIE, MIXEL: 184, 273,
 LACOMBE, GEORGES: 61, 62, 63, 65, 66, 74, 104, 107,
 117, 119, 128, 145, 147, 148, 151, 152, 153, 154, 155, 162,
 166, 167, 172, 173, 177, 179, 181, 182, 184, 188, 215,
 216, 250, 253, 256, 262, 265,
 LACROIX APEZPIKUA: 188,
 LAFITTE, GERMAIN: 96, 141, 142,
 LAFITTE, PIARRRES: 5, 16, 18, 19, 53, 55, 56, 57, 58, 59, 74,
 75, 77, 85, 104, 107, 108, 110, 111, 112, 116, 118, 127,
 128, 131, 146, 156, 158, 166, 167, 169, 172, 176, 177,
 179, 182, 183, 184, 185, 186, 188, 189, 191, 192, 196,
 199, 200, 204, 205, 206, 207, 208, 210, 211, 212,
 213, 214, 216, 217, 218, 219, 220, 233, 234, 235, 240,
 241, 253,
 LALANDE: 223,
 LAMOTE DE GRIGNON: 237,
 LANDA, PIARRRES: 123,
 LANDERRETXE, MARTIN: 107, 153, 154, 253, 262,
 LAPLACE, PIERRE SIMON: 199, 201, 202, 204, 205, 206,
 220, 221, 222, 223, 228, 229, 235,
 LAPPARENT: 219,
 LARRALDE, AUGUSTIN: 85, 217, 218, 219, 220, 249,
 LARRAMENDI: 168,
 LARRE, SALBAT: 113, 114, 115,
 LARREA, TXEMA: 108,
 LARTZABAL: 177,
 LAVALLE JENERALA: 18,
 LAXALT, DOMINIQUE: 47,
 LAXALT, ROBERT: 47,
 LEIZAOLA, JESUS MARIA: 87,
 LEIZARRAGA: 200,
 LEKUONA, MANUEL: 182,
 LÉON: 167,
 LEON XIII: 52,
 LEON, LEON: 177,
 LEONARDI: 197,
 LERTXUNDI, ANJEL: 133,
 LEWIS: 242,
 LHANDÉ, PIERRE: 2, 4, 7, 9, 100, 120, 153, 183,
 LIGETX, LUIS: 178, 185,
 LINNÆUS, CAROLUS: 24, 25, 26, 27, 28, 30, 31, 72,
 LINTIER, PAUL: 155,
 LIPPS, JERE: 283,
 LIZAR, JEAN: 177, 185,
 LIZARDI: 262,
 LIZARDI, CAMILO: 201, 202, 203, 204, 220, 235,
 LIZARRABENGOA, JOSE: 15,
 LIZARRAGA MISIONISTA: 96, 97,
 LOPEZ ADAN, EMILIO: 169,
 LOPEZ MENDIZABAL, IXAKA: 185, 266,
 LOTI, PIERRE: 13, 14, 15, 63, 77,
 LURO, GILLERMO: 6, 47,
 LURO, PEDRO: 4, 5, 6, 7, 47, 49,
 LYELL, CHARLES: 229, 230, 243,
 LYSIS: 155,
 MADREDEUS: 112,
 MAEZTU, RAMIRO: 79,
 MAISONNAVE KALONJEA: 249,
 MANTEROLA, PIERRE: 195,
 MARCOZZI: 197,
 MARGULIS, LYNN: 73,
 MARIGAZTE: 156, 295, 296, 297,
 MARIUN: 296, 297,
 MARSH, OTHNIEL: 243, 244, 286,
 MARTIN, PAUL: 41, 42, 43,
 MATHIEU, CLEMENT: 183,
 MATTHEW, WILLIAM DILLER: 244,
 MATTIN: 185,
 MAYR, ERNST: 270, 271,
 MAYRAND, CAMILE: 155,
 MAX, GABRIEL: 188,

- MAZERIS: 177,
 MENDIAGA, JOSE: 6,
 MENÉNDEZ PIDAL, RAMÓN: 149, 150, 151, 152, 157, 167,
 MICHEL, HELEN: 275,
 MIEYAA, P.: 18,
 MILLER, STANLEY: 224, 235,
 MIRANDE, JON: 208,
 MITXELENA, KOLDO: 112,
 MOCTEZUMA: 44,
 MOISES: 189,
 MOKOZAIN, PIARRE: 145,
 MOKOZAIN, DOMINIQUE: 180,
 MONRAD: 201, 202,
 MONTOIA, XABIER: 123,
 MORRIS, MIKEL: 271,
 MORTILLET: 194,
 MOULIER *OXOBI*, JULES: 57, 108, 177, 185, 212, 213, 250,
 MOYAL, ANN: 29,
 MUJIKA IRAOLA, INAZIO: 51, 157,
 NABUKODONOSOR: 226,
 NAPOLEON: 184, 204, 206,
 NEWTON, ISAAC: 226,
 NIETZSCHE, FRIEDRICH: 59, 74, 77, 78, 79, 80, 81, 83, 84, 186, 218,
 NOE: 38, 245,
 OFFICER, CHARLES: 277,
 OIHENART, PIERRE: 3,
 OKEN, LORENZ: 27,
 OLABIDE: 170,
 OLHAGARAI, JEAN: 126, 177,
 OLTZOMENDI: 177,
 OPARIN, ALEXANDER: 235,
 ORBIGNY, ALCIDE D': 243,
 ORDORIKA, RUPER: 6, 267, 271, 288, 289, 291,
 ORIXE: Ikus Ormaetxea, Nikolas
 ORMAETXEA *ORIXE*, NIKOLAS: 63, 170, 192, 194, 195, 196,
 ORTEGA Y GASSET: 238,
 OSBORN: 194,
 OWEN, RICHARD: 242,
 OXOBI: Ikus Moulier, Jules
 PAGADIZABAL, IGNAZIO BALENTIN: 171,
 PAGOLA, INES: 27,
 PARDO BAZÁN, EMILIA: 15,
 PASTEUR, LOUIS: 62, 225, 232,
 PEARL, RAYMOND: 125,
 PEILLEN, TXOMIN: 208,
 PENFIELD, GLEN: 278,
 PEREZ, JUAN CARLOS: 288,
 PEREZ IGLESIAS, JUAN IGNACIO: 92,
 PETAIN JENERALA: 132, 272, 274,
 PETIT FAMILIA: 180,
 PETÖFI, J. S.: 257, 258,
 PIARRES: 123, 124, 131, 132, 137, 138, 155,
 PIKOXET: 177,
 PIO IX: 187, 229,
 PIO XII: 1, 192, 198,
 PIZARRO, FRANCISCO: 44, 121,
 PLATON: 28, 79, 169,
 POXELU, LEON: 177,
 PRADERE, JEANNE: 4,
 PREMOLI-SILVA, ISABELLA: 274,
 PRICHARD, HESKETH: 45,
 PRIMORENA: 104,
 PROUST: 223,
 QUAMMEN, DAVID: 258,
 RAMIREZ OLANO: 87,
 RAMUNTCHO: 13, 14, 15, 77,
 RAY, JOHN: 24, 25, 26,
 RAY LANKESTER, EDWIN: 45,
 RECLUS, ÉLISÉE: 8, 9, 10, 13,
 RICHTER: 233,
 ROCA JENERALA: 2,
 RODRIGUEZ, GERMAN: 182, 183,
 ROSAS JENERALA: 3, 18, 37,
 ROSTAND, EDMOND: 204,
 ROUGET DE LISLE, A.: 47,
 ROUSSEAU, JEAN-JACQUES: 31
 ROYER, CLEMÉNCÉ: 28,
 RUTHERFORD, ERNEST: 231,
 SABEZ, HENRI: 3,
 SAGAN, CARL: 235,
 SAGARDOY: 104,
 SAINT-JAYME, FRÉDÉRIC: 104,
 SAINT-PIERRE *ANXUBERRO*, JEAN: 57, 121, 122, 123, 125, 126, 127, 132, 133, 136, 137, 138, 153, 177, 183, 193, 194, 212, 213, 249, 250,
 SALABURU, PELLO: 92, 258,
 SALLABERRY, EUGÈNE: 104,
 SALOMON: 226,
 SANTA BÁRBARA, JOAQUÍN: 171,
 SANZINENA: 249,

- SARASOLA, IBON: 258, 266,
 SARDOI, PIERRA: 2,
 SAROIHANDI: 167,
 SARRIONANDIA, JOSEBA: 12, 13, 15, 91,
 SARROTE, AITA: 1,
 SCHIEBINGER, LONDA: 24, 30, 31,
 SCHMARSOW, CHARLES: 113,
 SCHUCHARDT: 62, 128, 151,
 SCLATER, PHILLIP: 69,
 SETOAIN ANDEREA: 111, 241,
 SHAKESPEARE: 203,
 SHEEHAN, PETER: 285,
 SIGNOR, PHIL: 283,
 SIMPSON, G. G.: 33, 34, 35,
 SMIT, JAN: 276,
 SMITH WOODWARD, ARTHUR: 45,
 SOFOKLES: 169,
 SOLINO: 202, 235,
 SORRE, JEAN: 195,
 SOUBERBIELLE, MAURICE: 147, 177, 185, 227, 228,
 SOUBERBIELLE SUPERIORA: 217, 249,
 SOURET, AGNÉS: 146,
 SOROA, MARTZELINO: 7,
 SOUBELET, DOMINGO: 274,
 SUÁREZ, ADOLFO: 89,
 SUDUPE, PAKO: 208,
 SWINTON, W. E.: 244,
 TEILHARD DE CHARDIN: 197,
 THOMSON, WILLIAM: xvii, 226, 228, 230, 231, 232, 233,
 236, 281,
 TIHISTA, JOANES: 287,
 TIHISTA, JUAN: 287,
 TIHISTA, PIERRE: 114, 287,
 TSCHUDY, ROBERT: 277,
 TYSON, EDWARD: 25,
 UGALDE, MARTIN: 11,
 UGARTE JOSULAGUNA: 200,
 UHLENBECK: 167,
 UNAMUNO, MIGEL: 79, 158, 162, 239, 270,
 URET, DOMINGO: 123,
 UREY, HAROLD: 235,
 URKIAGA LAUAXETA, ESTEBAN: 169,
 URKIXO, JULIO: 104, 107, 153, 154, 162, 182, 255,
 URKIZU, PATRI: 100,
 URREIZTIETA, LEZO: 10, 11,
 URRUTIA, GOTZON: 195,
 USANDIZAGA, JESUS MARIA: 161,
 USSHER, JAMES: 226, 227,
 VALLOIS: 197,
 VAN EYS: 128,
 VERNE, JULES: 3,
 VIAUD, JULIEN: 13,
 VICENDORITZ: 104,
 VIERS, G.: 113,
 VILLASANTE, LUIS: 108, 109, 110, 111, 168, 170, 249,
 VINSON, JULIEN: 173, 255,
 WAGNER, RICHARD: 79,
 WALLACE, ALFRED: 69, 231,
 WARD, PETER DOUGLAS: 44, 260, 279, 281, 282, 283,
 284, 285,
 WEBER, EUGEN: 129, 130,
 WHITTAKER, ROBERT: 73,
 WILSON PRESIDENTEA: 268,
 WOEHLER: 224,
 WOLBACH, WENDY: 277,
 WUNDT: 199,
 XABAÑO, CATHERINE: 110, 111,
 XABAÑO, FERDINAND: 98, 121,
 XABAÑO, JEANNE: 111,
 XABAÑO, JOANES: 96, 97, 98, 99, 111, 121, 142, 208,
 XABAÑO, MANEX: 96, 98, 99, 111, 145,
 XABAÑO, MARIANNE: 111,
 XABAÑO, MIXEL: 96, 98, 121, 145,
 XABAÑO, MIXEL (MANEXEN ANAIA): 99, 111,
 XABAÑO, XEMARTIN: 143,
 XAHO, AUGUSTIN: 9,
 XARRITON, PIARRRES: 51, 60, 61, 62, 63, 64, 67, 84, 88,
 100, 110, 111, 117, 126, 127, 156, 172, 177, 186, 188, 195,
 210, 211, 213, 215, 217, 266, 267, 269,
 XIKITO KANBOKOA: Ikus Apestegi, Joseph Bernard
 ZAITEGI, JOKIN: 169, 170, 171, 258,
 ZALBIDE, MIKEL: 173,
 ZALDUA, IBAN: 157,
 ZALDUBEHERE: 113, 114,
 ZARATUSTRRA: 79, 81,
 ZERBITZARI: Ikus Elizalde, Jean
 ZUAZO, KOLDO: 263, 264,

